



DOKTORE TESIA

**UNITATE FRASEOLOGIKOEN ITZULPENA: ALEMANA-EUSKARA.
LITERATUR TESTUEN CORPUSEAN OINARRITUTAKO ANALISIA.**

EGILEA:

ZURIÑE SANZ VILLAR

TESI ZUZENDARIA:

IBON URIBARRI ZENEKORTA

**INGELES ETA ALEMAN FILOGIA,
ITZULPENGINTZA ETA INTERPRETAZIOA**

2014KO ABENDUA



© Servicio Editorial de la Universidad del País Vasco (UPV/EHU)
- *Euskal Herriko Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua (UPV/EHU)*
- EHU Press (UPV/EHU)
- **ISBN: 978-84-9082-172-5**

Eskerrak

Tesi hau burutu ahal izateko, pertsona eta erakunde ugariren laguntza jaso dut azken urte hauetan, eta, beste ezer baino lehen, horiei guztiei eskerrak eman nahi nizkieke; haiek gabe ez bainintzateke honaino iritsiko.

Lehenik eta behin, eskerrik beroenak nire tesi-zuzendariari, Ibon Uribarriri. *Esku-hutsik* iritsi nintzen Alemaniatik 2008an, eta, orduetik, beti egon zara hor, laguntzeko prest. Tesi hau, zu gabe, ez litzateke posible izango. Zuk behin esan bezala, “hezur hautsien tesia” izan da hau, baina lortu dugu!

Naroa, *vielen vielen Dank*, hasiera-hasieratik eta gaur arte hor egoteagatik. Eli, zuri ere, mila esker. Bion lanak inspiratu nau, benetan. Eskerrik asko, bioi, azken fasean lana irakurtzeko denbora hartzeagatik eta egindako iruzkinengatik.

Departamentuko eta saileko lankideei ere, mila esker. Raquel, Josu, Cristina, María, Cande, Marlén... eskerrik asko zuen babesagatik, tesi honen aurkezpen saioetan parte hartzeagatik, eta edozer behar izan dudan guztietan laguntzeagatik.

Eusko Jaurlaritzari ere eskerrak eman nahi nizkioke, doktorego aurreko bekari esker, urte betez buru-belarri aritu nintzelako ikerketa lan hau egiten. Ondoren, Euskal Herriko Unibertsitatean, aukera paregabea izan dut ikerketa lanarekin jarraitu, eta irakaskuntzan lehen urratsak egiteko.

Atzerrian, Alemanian eta Estatu Batuetan, ikerketa egonaldiak ere egin ahal izan ditut. Eskerrik asko, beraz, DAADri, Mannheimen egindako egonaldia babesteagatik, eta UPV/EHU eta USACi,

II

emandako laguntzagatik.

Ezin bukatu gertukuenei eskerrak emun barik.

Asier, esan leike zuk be niregaz batera egin dozula tesia, eta zure ekarpena azalien bertan, CDen, orri-markatzailietan... ikusi leike. Artista bat zara. Mila-mila esker!

Ama, aita, Mikel, zueik izan zitzielen lenak nigan siñesten. Eskerrik asko, bihotz-bihotzetik!

Aurkibide nagusia

| | | |
|----------|---|-----------|
| 1 | Sarrera | 1 |
| 1.1 | Ikerketa-helburu eta -galderak | 2 |
| 1.2 | Tesiaren nondik norakoak | 6 |
| 2 | Oinarri teorikoa | 11 |
| 2.1 | Itzulpen Ikasketa Deskribatzaileak | 13 |
| 2.1.1 | Ustezko itzulpenak | 15 |
| 2.1.2 | Itzulpen-arauak | 17 |
| 2.1.3 | Itzulpen-legeak | 19 |
| 2.1.4 | Deskribapenetik harago | 23 |
| 2.2 | Fraseologia eta unitate fraseologikoak | 26 |
| 2.2.1 | Ikuspegi historikoa | 26 |
| 2.2.1.1 | Euskal fraseologia | 27 |
| 2.2.1.2 | Fraseologia alemana | 33 |
| 2.2.2 | Ikuspegi kontzeptuala | 35 |
| 2.2.2.1 | Terminologia | 35 |
| 2.2.2.2 | Ezaugarri formalak | 38 |
| 2.2.2.3 | Ezaugarri semantikoak | 47 |
| 2.2.2.4 | Ezaugarri pragmatikoak | 53 |
| 2.2.3 | Sailkapenak | 55 |
| 2.3 | Fraseologiaren hurbilketa itzulpengintzara | 68 |
| 2.3.1 | Linguistika kontrastiboa vs. itzulpengintza | 68 |
| 2.3.2 | Ikerketa-lerroak itzulpen-azterketetan | 70 |
| 2.3.3 | Itzulpen-analisirako tresneria kontzeptuala | 77 |

| | | |
|----------|---|------------|
| 3 | Oinarri metodologikoa | 83 |
| 3.1 | Lambert eta van Gorp-en eredua | 85 |
| 3.2 | Corpusgintza | 88 |
| 3.2.1 | Corpus elektronikoen sorrera eta bilakaera . . | 88 |
| 3.2.2 | Corpus-motak | 90 |
| 3.2.3 | Corpusak xede- eta sorburu-hizkuntzan | 96 |
| 3.2.3.1 | Euskal corpusak | 96 |
| 3.2.3.2 | Corpus alemanak | 103 |
| 3.2.4 | Corpusen erabilera itzulpen ikasketetan | 107 |
| 3.2.5 | Corpusen erabilera ikerketa fraseologikoetan . | 111 |
| 3.2.6 | Corpusak ustiatzeko tresnak | 118 |
| 3.2.6.1 | Antconc | 119 |
| 4 | Aurretizko azterketa | 123 |
| 4.1 | Corpus 0: Katalogoa | 124 |
| 4.1.1 | Katalogoaren sorrera | 124 |
| 4.1.2 | HGL-HL azpikatalogoaren deskribapena | 129 |
| 4.2 | Katalogotik corpusera | 146 |
| 4.2.1 | Corpus 1: irizpideak eta ezaugarriak | 146 |
| 4.2.2 | Corpus 2: sorrera | 152 |
| 4.2.2.1 | Digitalizazioa | 153 |
| 4.2.2.2 | Garbiketa | 155 |
| 4.2.2.3 | Lerroatzea | 157 |
| 4.2.2.4 | Datu-basea: elikatu eta ustiatu | 161 |
| 4.3 | Corpusaren ezaugarriak | 164 |
| 5 | Azterketa makroestruturala | 167 |
| 5.1 | Paratestuen azterketa | 169 |
| 5.1.1 | Jatorrizko eta xede-egileak | 169 |
| 5.1.2 | Hitzaurre eta hitz-atzeak | 171 |
| 5.1.3 | Itzulpen urratsen identifikazioa | 174 |
| 5.1.4 | Epitestuak | 179 |
| 5.2 | Paraitzulpenaren azterketa | 181 |
| 5.2.1 | Izenburuen itzulpena | 182 |

| | | |
|----------|--|------------|
| 5.2.2 | Kapitulu izenen itzulpena | 186 |
| 5.2.3 | Azaleko irudiak | 193 |
| 5.3 | Hitzak, esaldiak, paragrafoak | 202 |
| 5.4 | Behin-behineko ondorio batzuk | 211 |
| 6 | Azterketa mikroestruturala | 213 |
| 6.1 | UFak eta (literatur) testuak | 215 |
| 6.2 | Aztergai izango diren UFak | 217 |
| 6.2.1 | Aztergaia I: somatismoak | 217 |
| 6.2.2 | Aztergaia II: binomioak | 222 |
| 6.3 | UFen erauzketa: emandako pausoak | 226 |
| 6.3.1 | Aztergaia I: somatismoak | 226 |
| 6.3.2 | Aztergaia II: binomioak | 229 |
| 6.4 | UFen testu-azterketa: emandako pausoak | 240 |
| 6.5 | Somatismoen azterketa JTetan | 244 |
| 6.5.1 | Jatorrizko testuetan oinarritutako azterketa | 245 |
| 6.5.2 | Itzulpen-azterketa: datu orokorrak | 252 |
| 6.5.3 | Itzulpen aukerak banan-banan | 254 |
| 6.5.3.1 | UF \Rightarrow antzeko UFa | 254 |
| 6.5.3.2 | UF \Rightarrow UF desberdina | 261 |
| 6.5.3.3 | UF \Rightarrow UFrik ez | 275 |
| 6.5.3.4 | UF \Rightarrow kopia zuzena | 282 |
| 6.5.3.5 | UF \Rightarrow zeharkako kopia | 289 |
| 6.5.3.6 | UF $\Rightarrow\emptyset$ | 295 |
| 6.6 | Somatismoen azterketa XTetan | 296 |
| 6.6.1 | Xede-testuetan oinarritutako azterketa | 296 |
| 6.6.2 | Itzulpen-azterketa: datu orokorrak | 301 |
| 6.6.3 | Itzulpen aukerak banan-banan | 304 |
| 6.6.3.1 | UF \Rightarrow UF | 304 |
| 6.6.3.2 | UF ez \Rightarrow UF | 306 |
| 6.6.3.3 | UF \Rightarrow zeharkako kopia | 310 |
| 6.6.3.4 | UF ez \Rightarrow zeharkako kopia | 312 |
| 6.7 | Binomioen azterketa JTetan | 315 |
| 6.7.1 | Jatorrizko testuetan oinarritutako azterketa | 315 |

| | | |
|----------|---|------------|
| 6.7.2 | Itzulpen-azterketa: datu orokorrak | 320 |
| 6.7.3 | Itzulpen aukerak banan-banan | 323 |
| 6.7.3.1 | $UF \Rightarrow \text{antzeko } UF_a$ | 323 |
| 6.7.3.2 | $UF \Rightarrow UF$ desberdina | 326 |
| 6.7.3.3 | $UF \Rightarrow UF_{\text{rik ez}}$ | 332 |
| 6.7.3.4 | $UF \Rightarrow \text{kopia zuzena}$ | 335 |
| 6.7.3.5 | $UF \Rightarrow \text{beste baliabide bat}$ | 338 |
| 6.7.3.6 | $UF \Rightarrow \emptyset$ | 339 |
| 6.8 | Binomioen azterketa XTetan | 340 |
| 6.8.1 | Xede-testuetan oinarritutako azterketa | 340 |
| 6.8.2 | Itzulpen-azterketa: datu orokorrak | 344 |
| 6.8.3 | Itzulpen aukerak banan-banan | 346 |
| 6.8.3.1 | $UF \Rightarrow UF$ | 347 |
| 6.8.3.2 | $UF \text{ ez} \Rightarrow UF$ | 350 |
| 6.8.3.3 | $\emptyset \Rightarrow UF$ | 353 |
| 7 | Ondorioak | 359 |
| | Bibliografia | 379 |
| A | Eranskinak | 405 |
| I | UFak izendatzeko hainbat termino | 406 |
| II | Alemanezko binomioen zerrenda | 408 |
| III | Euskarazko binomioen zerrenda | 413 |

Figuren aurkibidea

| | | |
|-----|--|-----|
| 2.1 | Wotjak-en eskema | 56 |
| 2.2 | Burger's basic classification | 57 |
| 2.3 | Corpas-en sailkapena | 63 |
| 2.4 | Hirugarren esferako sailkapena | 66 |
| 2.5 | Itzulpen-azterketen kronologia | 70 |
| 3.1 | DeReKo-n bilaketak egiteko jarraitu beharreko pausoak | 104 |
| 3.2 | Bilaketa adibidea COSMAS II-n | 105 |
| 3.3 | <i>Drücken</i> aditzaren jokaera desberdinak | 105 |
| 3.4 | <i>Gesamt-KWIC</i> aukera | 106 |
| 3.5 | <i>Gesamt-Volltext</i> aukera | 106 |
| 3.6 | <i>Hand</i> eta <i>reiben</i> -en agerkidetza-analisiaren emaitza . | 107 |
| 3.7 | Corpusekin lan egiteko modu desberdinak | 114 |
| 3.8 | AntConc programaren interfazea | 120 |
| 4.1 | Narratiba fitxen itxura FileMaker-en | 124 |
| 4.2 | Index Translationum-en egindako bilaketa | 125 |
| 4.3 | Bilgunen egindako bilaketa | 126 |
| 4.4 | Azkue Bibliotekan egindako bilaketa | 127 |
| 4.5 | Katalogoaren banaketa generoka | 129 |
| 4.6 | Argitalpenen kronologia HGL-HL katalogo osoa kontuan hartuta | 133 |
| 4.7 | Argitalpenen kronologia HGL katalogoa kontuan hartuta | 135 |
| 4.8 | Argitalpenen kronologia HL katalogoa kontuan hartuta | 136 |
| 4.9 | Itzulpen modua HGL eta HLan | 145 |

| | | |
|------|---|-----|
| 4.10 | Garbiketa programaren interfazea | 156 |
| 4.11 | Etiketatzte eta lerrokatze programaren interfazea . . . | 157 |
| 4.12 | Metadatuak | 158 |
| 4.13 | XML fitxategiaren barne-informazioa | 159 |
| 4.14 | XML fitxategiaren egitura | 160 |
| 4.15 | Zeharka itzulitako testu baten lerrokatzea | 160 |
| 4.16 | Datu-basearen itxura hutsik dagoenean | 162 |
| 4.17 | Bilaketak egiteko tresnaren interfazea | 162 |
| 4.18 | Kontsulta-tresnarekin eginiko bilaketaren emaitza . . | 163 |
| | | |
| 5.1 | GHK liburuko azalak | 194 |
| 5.2 | DTT liburuko azalak | 194 |
| 5.3 | DPGM liburuko azalak | 195 |
| 5.4 | Ibaizabal argitaletxeko liburuen azalak | 197 |
| 5.5 | Ibaizabal argitaletxeko beste bi libururen azalak . . . | 197 |
| 5.6 | DKT liburuko azalak | 199 |
| 5.7 | HLJ liburuko azalak | 200 |
| 5.8 | BUS liburuaren azalak | 201 |
| 5.9 | LODS liburuko azalak | 201 |
| | | |
| 6.1 | Jatorrizko testuetatik erauzitako 3-gramak | 230 |
| 6.2 | Xede-testuetatik erauzitako 3-gramak | 232 |
| 6.3 | alemanezko 3-gramen erauzketa zerrendan oinarrituta | 233 |
| 6.4 | euskarazko 3-gramen erauzketa zerrendan oinarrituta | 234 |
| 6.5 | Nola antolatu ditugun bilatzailetik erauzitako emai- tzak Excel baliatuz | 241 |
| 6.6 | <i>Antconc</i> -eko <i>Concordance Plot</i> aukera | 248 |

Taulen aurkibidea

| | | |
|------|---|-----|
| 2.1 | Fraseologiaren itzulpen-azterketa adierazgarriak historian zehar | 70 |
| 2.2 | UFen itzulpena aztertzeko sailkapenak | 79 |
| 3.1 | Corpus-motak | 96 |
| 3.2 | Idatzizko euskal corpus adierazgarriak (1984-2010) . . | 97 |
| 3.3 | Idatzizko euskal corpus adierazgarriak (2011-2013) . . | 99 |
| 4.1 | Jatorrizko HL-egile aleman bakoitzari itzuli zaion liburu kopurua | 131 |
| 4.2 | Jatorrizko HGL-egile aleman bakoitzari itzuli zaizkion liburuak | 132 |
| 4.3 | HGL-HL katalogoko itzultzaileak eta itzuli duten liburu kopurua | 136 |
| 4.4 | HGLko itzultzaileak eta itzuli duten liburu kopurua . | 138 |
| 4.5 | HLko itzultzaileak eta itzuli duten liburu kopurua . . | 139 |
| 4.6 | Jatorrizko egile bakoitzeko itzultzaileak | 141 |
| 4.7 | Corpus 1aren ezaugarriak | 149 |
| 4.8 | Corpus 1: ustez zuzenean itzulitako HLko liburuak . | 149 |
| 4.9 | Corpus 1: ustez zeharka itzulitako HLko liburuak . . | 150 |
| 4.10 | Corpus 1: ustez zuzenean itzulitako HGLko liburuak | 151 |
| 4.11 | Corpus 1: ustez zeharka itzulitako HGLko liburuak . | 152 |
| 4.12 | Corpusaren ezaugarri nagusiak | 165 |
| 4.13 | Corpusa osatzen duten azpicorpusen ehunekoetako banaketa | 165 |

| | | |
|------|--|-----|
| 4.14 | Ehuneakoetako banaketa, testu-motaren arabera . . . | 166 |
| 4.15 | Ehuneakoetako banaketa, itzulpen-motaren arabera . . | 166 |
| 5.1 | Bitarteko bertsioetako datuak | 177 |
| 5.2 | Izenburuen itzulpena | 182 |
| 5.3 | Corpuseko testuen barne-egitura | 187 |
| 5.4 | Hitz kopurua HLko testuetan | 202 |
| 5.5 | Hitz kopurua HGLko testuetan | 203 |
| 5.6 | Esaldi kopurua HLko testuetan | 205 |
| 5.7 | Esaldi kopurua HGLko testuetan | 207 |
| 5.8 | Paragrafo kopurua HLko testuetan | 208 |
| 5.9 | Paragrafo kopurua HGLko testuetan | 209 |
| 5.10 | Itzulpen modua HGLko testuetan | 211 |
| 5.11 | Itzulpen modua HLko testuetan | 212 |
| 6.1 | Corpusean maizen agertzen diren hamar izenak . . . | 227 |
| 6.2 | <i>Typen</i> eta <i>tokenak</i> | 234 |
| 6.3 | Alemanezko binomioen behin betiko zerrenda | 237 |
| 6.4 | Euskarazko binomioen behin betiko zerrenda | 239 |
| 6.5 | Zuzeneko eta zeharkako kopiak bereizteko adibideak . | 242 |
| 6.6 | Erauzitako binomioen banaketa corpusean | 245 |
| 6.7 | Testu bakoitzeko <i>Hand</i> hitz eta UF kopurua | 246 |
| 6.8 | Jatorrizko testuetatik erauzitako UFak eta horien age- rraldi kopurua | 249 |
| 6.9 | Itzulpen aukeren balore absolutuak | 252 |
| 6.10 | Itzulpen aukeren ehuneakoetako banaketa | 252 |
| 6.11 | Itzulpen aukeren ehuneakoetako banaketa, testu-mota kontuan hartuta | 253 |
| 6.12 | Itzulpen aukeren ehuneakoetako banaketa, itzulpen mo- dua kontuan hartuta | 254 |
| 6.13 | <i>Eskua eman, eskua estutu, eskua luzatu</i> | 255 |
| 6.14 | Zeharkako itzulpena: <i>jmdm die Hand reichen, dar la mano, eskua luzatu</i> | 256 |
| 6.15 | Antzeko UF bidez itzulitako adibideak | 257 |

| | | |
|------|--|-----|
| 6.16 | <i>in jmds Hand liegen, estar en mano de alguien, norbaiten esku egon</i> | 259 |
| 6.17 | <i>unter der Hand, por debajo de cuerda, eskupetik</i> . . . | 260 |
| 6.18 | Egokitzapen adibideak HGLan | 262 |
| 6.19 | <i>die Hände ringen, eskuak astindu</i> | 264 |
| 6.20 | Forma jasotzearen aldeko kasuak | 267 |
| 6.21 | Zeharkakotasuna eta esanahi aldaketa | 269 |
| 6.22 | <i>jmdm die Hand auf etwas geben, estrechar la mano, eskua estutu</i> | 270 |
| 6.23 | <i>Händchen halten</i> | 270 |
| 6.24 | <i>Hand anlegen, eskua eman</i> | 272 |
| 6.25 | Osagai lexiko desberdina | 272 |
| 6.26 | <i>lanpetuta egon, garaipen bat lortu, -z arduratu</i> | 274 |
| 6.27 | <i>jmdm die Hand auf etwas geben, tori eskua!</i> | 276 |
| 6.28 | <i>jmdm die Hand auf etwas geben, hitzeman, bene-benetan</i> | 276 |
| 6.29 | <i>Hände weg von, utikan jendea</i> | 277 |
| 6.30 | <i>die Hände rigen, retorcerse las manos, eskuak igurtzi</i> | 278 |
| 6.31 | <i>mit Händen greifen können</i> | 278 |
| 6.32 | Ezohiko hitz-konbinazioak | 279 |
| 6.33 | <i>jmdm etwas in die Hand drücken, eskuan zerbait estutu</i> | 280 |
| 6.34 | <i>jmdm acht Groschen in die Hand drücken</i> | 281 |
| 6.35 | <i>jmdm einen mehrfach gekniffenen Schein in die Hand drücken</i> | 282 |
| 6.36 | Ezohiko hitz-konbinazioak euskaraz | 283 |
| 6.37 | Lehentasan semantikoa | 286 |
| 6.38 | Modifikazioa | 287 |
| 6.39 | Zalantzazko kasuak | 287 |
| 6.40 | HGLko testuak | 290 |
| 6.41 | HLko testuak | 292 |
| 6.42 | HGLko adibidea | 294 |
| 6.43 | HLko adibidea | 295 |
| 6.44 | UFa desagertu den kasu bakarra | 295 |
| 6.45 | <i>Esku eta Hand: hitzaren agerraldi kopuruaren eta UF kopuruaren arteko proportzioa</i> | 296 |

| | | |
|------|---|-----|
| 6.46 | Erauzitako euskarazko somatismoen banaketa corpusean | 297 |
| 6.47 | Testu bakoitzeko lema eta UF kopurua | 298 |
| 6.48 | Xede-testuetatik erauzitako UFak eta horien agerraldi kopurua | 299 |
| 6.49 | Itzulpen aukeren balore absolutuak | 302 |
| 6.50 | Ehunekoetako banaketa, testu-mota eta itzulpen mo- duaren arabera | 302 |
| 6.51 | Ehunekoetako banaketa, testu-motaren arabera . . . | 303 |
| 6.52 | Ehunekoetako banaketa, itzulpen moduaren arabera . | 303 |
| 6.53 | <i>-en esku/esku(e)tan egon/izan/eduki/geratu...</i> | 304 |
| 6.54 | UF \Rightarrow UF | 305 |
| 6.55 | Sistema mailako baliokideak | 306 |
| 6.56 | <i>tomar parte, esku hartu</i> | 307 |
| 6.57 | Itzulpenen balio gehigarria | 307 |
| 6.58 | Zuzeneko itzulpenak | 310 |
| 6.59 | Zeharkako itzulpena | 312 |
| 6.60 | Zuzeneko itzulpena | 313 |
| 6.61 | Zeharkako itzulpenak | 314 |
| 6.62 | Erauzitako alemanezko binomioen banaketa corpusean | 315 |
| 6.63 | Testu bakoitzeko binomio kopurua | 316 |
| 6.64 | Jatorrizko binomioak | 319 |
| 6.65 | Itzulpen aukeren balore absolutuak | 320 |
| 6.66 | Itzulpen aukeren ehunekoetako banaketa | 321 |
| 6.67 | Itzulpen aukeren ehunekoetako banaketa, testu-mota kontuan hartuta | 322 |
| 6.68 | Itzulpen aukeren ehunekoetako banaketa, itzulpen mo- dua kontuan hartuta | 323 |
| 6.69 | Hiztegietan jasotzen ez diren antzeko UFak | 324 |
| 6.70 | <i>Arm in Arm</i> | 325 |
| 6.71 | Bi UFen arteko lotura estua | 326 |
| 6.72 | Hitz-konbinazio behartuak HLko testuetan | 327 |
| 6.73 | UF desberdinak HGLko testuetan | 329 |
| 6.74 | <i>Steif und fest</i> binomioa | 330 |
| 6.75 | <i>von Kopf bis Fuß</i> zeharkako testuetan | 332 |

| | |
|---|-----|
| 6.76 Zuzeneko itzulpenak: esplizitazioa | 333 |
| 6.77 <i>Hin oder her</i> | 334 |
| 6.78 Zeharkako itzulpenak: esplizitazioa | 335 |
| 6.79 Schwarz auf weiß | 336 |
| 6.80 Ia sinonimoak: kopia zuzen bidez itzulita | 336 |
| 6.81 die Art und Weise | 337 |
| 6.82 <i>Mehr und mehr</i> | 339 |
| 6.83 $UF \Rightarrow \emptyset$ | 340 |
| 6.84 Erauzitako euskarazko binomioen banaketa corpusean | 341 |
| 6.85 Testu bakoitzeko binomio kopurua | 341 |
| 6.86 Xede-binomioak | 343 |
| 6.87 Itzulpen aukeren balore absolutuak | 345 |
| 6.88 Itzulpen aukeren ehunekoetako banaketa | 345 |
| 6.89 Ehunekoetako banaketa, testu-mota kontuan hartuta | 346 |
| 6.90 Ehunekoetako banaketa, itzulpen modua kontuan har- tuta | 346 |
| 6.91 $UF \Rightarrow UF$ | 347 |
| 6.92 Binomio ia-sinonimoa xede-testuan | 348 |
| 6.93 Esanahi desberdina | 348 |
| 6.95 Zeharkako itzulpena | 350 |
| 6.96 Alemanez bidea adierazten duten sateliteen itzulpena | 351 |
| 6.97 $UF \text{ ez} \Rightarrow UF$ | 352 |
| 6.98 Esanahi desberdina: ñabardura | 352 |
| 6.99 Esanahi desberdina: beste testu baten eragina? . . . | 353 |
| 6.100 $\emptyset \Rightarrow UF$ I | 354 |
| 6.101 $\emptyset \Rightarrow UF$ II | 355 |
| 6.102 $\emptyset \Rightarrow UF$ III | 355 |
| 6.103 Binomioen agerraldi kopurua liburu eta prentsetako testuetan | 356 |

Laburdurak

Corpuseko testuak

| | |
|-------------|---------------------------------------|
| AC | Ansichten eines Clowns |
| BA | Berlin Alexanderplatz |
| BLA | Ben liebt Anna |
| BM | Beichte eines Mörders |
| BU | Brief einer Unbekannten |
| BUS | Bei uns in Schilda |
| DA | Der Abituriententag |
| DAK | Das Austauschkind |
| DASH | Die Abenteuer der schwarzen Hand |
| DBF | Der bewaffnete Freund |
| DDL | Das doppelte Lottchen |
| DEKB | Die verlorene Ehre der Katharina Blum |
| DGM | Das Gauklermärchen |
| DKG | Das kleine Gespenst |

| | |
|-------------|---------------------------------------|
| DKT | Die Konferenz der Tiere |
| DKVG | Der kleine Vampir in Gefahr |
| DKVZ | Der kleine Vampir zieht um |
| DL | Der Leviathan |
| DLT | Die Legende des heiligen Trinkers |
| DLW | Die Leiden des jungen Werther |
| ÐP | Der Prozess |
| DPGM | Das Parfum |
| DPS | Das Piratenschwein |
| DSW | Der Steppenwolf |
| DTS | Die Toten schweigen |
| DTT | Das Treffen in Telgte |
| DTV | Der Tod in Venedig |
| DV | Die Verwandlung |
| DVZT | Die Verwirrungen des Zöglings Törless |
| DWV | Die Wahlverwandschaften |
| DZW | Die Zauberschule in Wünschelreich |
| ED | Emil und die Detektiven |
| EL | Einfach nur Liebe |
| GG | Grüße aus dem Geisterschloss |
| GHK | Geschichten vom Herrn Keuner |

| | |
|-------------|--|
| HF | Homo Faber |
| HLJ | Hexe Lilli auf der Jagd nach dem verlorenen Schatz |
| JG | Jakob von Gunten |
| JV | Juli, die Viererkette |
| KM | Katz und Maus |
| LD | Lena auf dem Dach |
| LODS | Liebe Oma deine Susi |
| MM | Max und Moritz |
| PA | Pünktchen und Anton |
| RSF | Reckless: steinernes Fleisch |
| SLH | Schokolowski, lustig ist das Hundeleben |
| SN | Schachnovelle |
| TH | Tintenherz |

Beste laburdura batzuk

| | |
|------------|------------------------------------|
| DE | Alemana |
| ES | Gaztelania |
| EU | Euskara |
| HGL | Haur eta gazte literatura |
| HL | Helduen literatura |
| IID | Itzulpen Ikasketa Deskribatzaileak |
| JT | Jatorrizko testu |

| | |
|-----------|----------------------|
| ST | Sorburu-testu |
| UF | Unitate fraseologiko |
| XT | Xede-testu |
| ZH | Zeharka |
| ZZ | Zuzenean |

1.

Sarrera

| | | |
|-----|--|---|
| 1.1 | Ikerketa-helburu eta -galderak | 2 |
| 1.2 | Tesiaren nondik norakoak | 6 |

1.1 Ikerketa-helburu eta -galderak

Euskal Herriko Unibertsitatean Itzulpen Ikasketen baitan egin diren lanen jarraipena da ikerketa-lan hau, sorburu- edo xede-hizkuntza gisa euskara ardatz izan duten lanen jarraipena bereziki. Izan ere, hurrena aipatuko ditugun aurrekari horiek gabe lan hau ez litzateke posible izango.

Manterolak (2011), euskara abiapuntu izanik, beste hizkuntza batzuetara egindako itzulpenak aztertu zituen. Barambonesek (2009) eta Zubillagak (2013) euskarara egindako itzulpenak aztertu zituzten beren doktorego tesietan, ingelesetik euskarara itzultako eta haur eta gazteei zuzendutako ikus-entzunezko testuak lehenak, eta alemanetik itzultako haur eta gazteentzako literatur testuak bigarrenak.

Lan horietan guztietan azpimarratzen da, gainera, itzulpenak zer nolako garrantzia izan duen euskara bezalako hizkuntza gutxitu baten garapenean. Zubillagak dioen moduan, “Euskal Herrian ezinbestekoa izan da eta da, gaur egun ere, itzulpena: bertako literatur sistema garatu eta indartzeko, baina, era berean, ezinbestekoa izan da egoera diglosiko larrian zen hizkuntza bultzatu, normalizatu eta garatzeko” (2013: 17-18). Beste hitz batzuetan, itzulpenek eragin handia izan dute euskara modernoaren garapenean.

Ez bakarrik itzulpenak egitea, horiek ikuspuntu zientifikotik iker-tzea ere nahitaezkoa dela iruditzen zaigu, hizkuntza bera bultzatzeaz gain, euskal Itzulpen Ikasketetan aurrera egiten lagunduko digutelako, marko deskribatzailearen baitan lortutako emaitzak adar aplikatuan –itzulpen eskoletan, besteak beste– izan dezaketelako eragina. Itzulpen ikertzaile izateaz gain, itzulpen irakasle ere bagaren neurrian, garrantzitsua da (ikuspuntu deskribatzailetik) nola itzuli den aztertzea, joera desberdinen jakitun egon eta ikasleei horiek helarazi ahal izateko.

Esku artean duzuen tesi hau Zubillagaren ikerketa-lana osatzera dator. Hizkuntza-konbinazioa berdina da bi kasuetan, biok alemanetik euskarara egindako itzulpenak aztertu ditugu, baina Zubillagak genero ikuspegitik egin zuen azterketa, eta, lan honetan, berriz,

hizkuntzaren fenomeno bat aztertuko dugu, unitate fraseologikoak. Ikasketa Aurreratuen Diploma eskuratzeko ikerketa-lanean ekin nion unitate fraseologikoak aztertzeari. Orduan jada ikusi nuen euskal fraseologismoen azterketak euskararen ikuspuntutik egin direla, eta ez dagoela, itzulpengintzaren ikuspuntutik, kanpoko hizkuntzak eta euskara lotzen duen ikerketa-lanik. Gainera, zinez dira interesgarriak hizkuntzaren unitate finko hauek: arazoak sortu ohi dituzte jatorrizko testuetan identifikatzerako orduan, eta, behin identifikatuta, xede-testuan ordainak bilatzeak ere buruhausteak sortu ohi dizkio itzultzaileari.

Bestalde, euskararen kasuan, gaztelaniaren interferentzia neurtzeko unitate interesgarriak izan daitezkeelakoan nago (kalean eta komunikabideetan, esate baterako, barra-barra entzuten baitira gaztelaniazko kalko fraseologikoak). Kontuan izan behar da oraindik normalizazio prozesuan eta egoera diglosikoan dagoen hizkuntza dela euskara. Azken inkesta soziolinguistikoaren arabera (2012), 16 urte edo gehiago dituzten biztanleen % 27 da elebiduna, eta erabili % 24,2k erabiltzen du euskara. Euskara erdara beste edo gehiago erabiltzen dutenen portzentajea % 16,1ekoa besterik ez da. Egia da, bai, gizarte elebidun batean bizi garela, non bi hizkuntza –gaztelania edo frantsesa eta euskara– batera bizi diren. Baina ezin dugu ahaztu elkarbizitza hori ez dela orekatua –egoera diglosikoa dela, alegia–, eta desoreka horrek eragina izango duela itzulpen jardueran.

Ez bakarrik itzulpenean, [Alberdik](#) aipatzen duen moduan, erdarek izugarrizko eragina dute ustezko sorkuntza lanetan ere:

“Ez dago ezkutatzerik literaturan, pentsamenduan, irakaskuntzan, komunikabideetan... itzulpenak direla nagusi (aitor dezagun beste kontu bat ere: eskoletan barrena euskarazko sorkuntza-lan gisa dabilen ikasliburu, irakurgai, bideo eta abar dezente ere –lehen begiratu batean dirudien baino gehiago–, ez da euskarazko sorkuntza-lan hutsa. Aitortzen direnak baino gutxiago dira sortzez euskaraz idatzitakoak, eta are gutxiago euskaraz pentsatuak.

Ofizioko irakurleak berehala igartzen du hori); erdal ereduak aurrean direla sortu (behar izan) dira euskarazkoak” (2010: 18)

Beraz, itzulpena oso presente dago gurean; ez bakarrik itzulpen jarduera gisa, sorkuntza lanetan ere nabarmena da itzulpenaren presentzia.

Arestian aipatu ditugun lanek partekatzen duten beste ezaugarri garrantzitsu bat aipatu beharra dago. Guztietan, itzulpen-azterketa ikuspuntu deskribatzailetik –Itzulpen Ikasketa Deskribatzaileen ikuspuntutik, alegia– egin izan da. Metodologiari dagokionez, beraz, tradizio bat dagoela esan daiteke, oinarri bat duen tradizioa. Izan ere, euskaratik eta euskarara egindako itzulpenak aztertu dituzten lehen lanak direnez, deskribapenetik hastea zentzuzkoa iruditzen zaigu.

Esan bezala, lerro berean kokatzen da esku artean dugun lan hau: ikusmolde deskribatzaile horretatik unitate fraseologiko jakin batzuen itzulpena aztertu nahi izan dugu alemana-euskara hizkuntza-konbinazioan. Alemana, Heidelberg burutu nituen ikasketak medio eta han igarotako urteak direla eta, gertuen sentitzen dudan atzerriko hizkuntza delako, eta euskara, berriz, etxeko hizkuntza delako. Abiapuntua unitate fraseologikoak dira, baina ez dugu ahaztu behar helburua oro har alemanetik euskarara nola itzultzen den aztertzea dela.

Hori egin ahal izateko, lehenik eta behin, katalogoa osatu dugu, alemanetik euskarara egin diren itzulpenen katalogoa, hain zuzen. Ondoren, katalogo horretan oinarrituta, literatur testuz osatutako corpus paralelo eta eleaniztun bat sortu dugu, zeina, aldi berean, lau azpicorpusez osatua dagoen:

HGL ZZ Ustez zuzenean itzultitako haur eta gazte literatur testuz osatutako azpicorpusa.

HGL ZH Ustez zeharka itzultitako haur eta gazte literatur testuz osatutako azpicorpusa.

HL ZZ Ustez zuzenean itzulitako helduen literatur testuz osatutako azpicorpusa.

HL ZH Ustez zeharka itzulitako helduen literatur testuz osatutako azpicorpusa.

Azpicorpus horien arteko bereizketa egin dugu, alde batetik, HGL eta HLko testuak itzultzerako orduan dauden antzekotasun eta desberdintasunak aztertzeko, eta, bestalde, alemanetik zuzenean egindako itzulpenen eta zeharka –kasu gehienetan, gaztelaniatik– euskarara egindako itzulpenen artean alderik ba ote dagoen ikusteko.

Hori egin ahal izateko, [Touyren \(2012\)](#) itzulpen-arau eta itzulpen-legeak hartu ditugu erreferentzia gisa, estandarizazioaren eta interferenziaren legea, hain zuzen. Badakigu lege horiek eztabaida piztu izan dutela, eta kritikatuak izan direla, baina guk, esan bezala, abiapuntu gisa hartu, eta gure beharretara eta errealitatera moldatu ditugu, itzulpenetan aurkitutako joerak eta portaerak deskribatzeko kontzeptu baliagarriak iruditzen zaizkigulako. Izan ere, Touryk proposatzen duen metodologia enpirikoaren baitan, behin eta berriaz errepikatzen diren portaerak ikusten baditugu, itzulpen-arau eta itzulpen-legeak definitu ahalko ditugu. Zentzu horretan, hauexek dira gure ikerketa honen bidez erantzun nahiko genituzkeen galderak:

- Zein joera daude, itzulpen-arau eta -legeei dagokienez, alemanetik euskararako UFen itzulpenean?
- Ba al dago alderik HGLko edo HLko testuak itzultzearen artean?
- Eta zuzenean edo zeharka itzultzearen artean?
- Euskara egoera diglosikoan dagoen hizkuntza gutxitua izateak nola eragiten dio itzulpen jarduerari?

Tamainari dagokionez, gaur corpus gero eta handiagoak sortzeko aukera dugu. Lan honen oinarri izan den corpusak, esate batera-

ko, hiru milioi eta erdi hitz inguru ditu. Gero, corpusaren kudeaketa egokia posible izan da, informatikariekin elkarlanean, horretarako gure beharretara egokitutako tresneria (lerrokatze programa, bilatzailea...) garatzen joan garelako bi ikerketa-proiekturen baitan –TRACE ikerketa-proiektua eta TRALIMA-ITZULIK ikerketa-taldea, hain zuzen.

Gainera, denbora gutxian aurrerapauso handia egin dugulakoan gaude. 2011n defendatu zen Manterolaren tesian, WordSmith Tools programa erabili zen corpusa lerrokatzeko. Lerrokatzerako orduan programak sortzen zituen arazoez ohartuta, lerrokatze tresna propioa garatzeko ekimena abian jarri zen Ibon Uribarriren zuzendaritzapean. Orduan, TRACE ikerketa-proiektuaren baitan TRACEaligner programaren lehen bertsioa, 1.0 bertsioa, sortu zuten. Orain, 2014an, TRACEaligner etiketatze eta lerrokatze programaren 3.0 bertsioa daukagu esku artean¹. Lehen bertsio horrekin egin zitekeenaren eta gaurkoarekin egin daitekeenaren artean izugarritzeko aldea dago, eta doikuntza lanek aurrera jarraitzen dute, informatikari eta itzulpengintzako ikertzaileon arteko elkarlanak aurrera egiten duen modu berean.

Erabiliko ditugun tresnez gain, garrantzitsua iruditzen zaigu azpimarratzea ikerketa-lan hau beste zentzu batean ere badela berri-tzailea: alemanetik euskararako unitate fraseologikoen itzulpena aztertuko dugu, eta hizkuntza-konbinazio horretan unitate fraseologikoen inguruan egingo den lehen ikerketa-lana izango da, guk dakigula. Gainera, azterketa ez dugu, ohikoa den moduan, ikuspuntu preskriptibo batetik egingo, deskribatzailetik baino, sarrera honetan eta gero datozen lerroetan azaldu legez.

1.2 Tesiaren nondik norakoak

Oinarri teorikoari dagokion kapitulua (2) hiru atal nagusitan dago banatuta. Itzulpen Ikasketa Deskribatzaileak izanik lan honen

¹Ikerketa-lan honetan, hala ere, 2.0 bertsioa izan da erabili duguna.

abiapuntua, lehenengo atalean (2.1) marko teoriko-metodologiko horri dagozkion kontzeptu nagusiak jaso ditugu, eta baita egin zaizkion kritikak ere. Ondoren, unitate fraseologikoen itzulpena aztertuko dugunez, fraseologiaren bilakaera historikoa eta berau ulertzeko garrantzitsuak diren kontzeptu eta sailkapenak aztertu ditugu (2.2). Hirugarrenik, unitate fraseologikoen itzulpenaren inguruan hausnartu dugu (2.3). Hainbat ikerketa-lerro daudela ikusi dugu, eta gure lana corpusetan oinarritutako azterketa deskribatzaileen barruan kokatzen dela.

Barambones, Manterola eta Zubillagak egin bezala, gure lanaren oinarri metodologikoa (3) Lambert eta van Gorpek 1985. urtean proposatutako eredua (3.1) izan da, zeina lau mailatan banatzen den: aurretiazko azterketa, makro mailako azterketa, mikro mailako azterketa eta azterketa sistemikoa. Hori gauzatzeko gure corpus propioa sortu eta sarean dauden corpusak erabiltzea ezinbestekoa denez, corpusgintzari lotutako hainbat gai landu ditugu kapitulu honetan (3.2).

Aipatutako eredu metodologikoaren baitan proposatzen den lehen urratsa, beraz, aurretiazko azterketa egitea da, eta hori izango da, hain zuzen, laugarren kapituluaren xedea (4). Horretarako, lehenik eta behin alemanetik euskarara itzuli diren testuen corpus 0 edo katalogoa nola sortu den azaldu dugu (4.1), eta HGL eta HLko testuek osatzen duten azpikatalogoaren deskribapen zehatza egin dugu (4.2). Jarraian, katalogo zabal horretatik digitalizatu eta lerrokatuko ditugun testuak nola aukeratu ditugun azaldu dugu; zuzenean egindako itzulpenen kasuan, bi testu dira lerrokatzen direnak, eta zeharkakoe-tan, berriz, hiru. Behin corpusa esku artean dugula, horren ezaugarri nagusiak aurkezteko gai izango gara tipologia desberdinetan oinarrituta (4.3).

Hurrena, gure corpuseko 110 testuak aztertu ditugu; lehenengo, makro mailan, eta, ondoren, mikro mailan. Azterketa makroestruturalari dagokionez (5), paratestuak aztertzeari ekin diogu (5.1); hau da, testuaren inguruan dauden elementuak aztertu ditugu (liburuan bertan edo distantzia jakin batera daudenak), hala nola egile eta itzultzailearen inguruko datuak, hitzaurre eta hitz-atzeak, itzulpen-

motari buruzko informazioa eta epitestuak. Ondoren, jatorrizko eta xede-testuen arteko harremana nolakoa den ikusi dugu, paratestuen itzulpenaren bidez –edo, Garrido Vilariñok dioen moduan, paraitzulpenaren bidez (5.2). Horretarako, izenburuen, kapituluen eta azaleko irudien “itzulpenean” jarri dugu arreta. Bi (edo hiru) testuen arteko alderaketari amaiera emateko, hitz, esaldi eta paragrafoak zenbatu eta kopuruak alderatu ditugu (5.3). Kapitulu honen amaierako behin-behineko ondorioen azpiatalean (5.4) argi geratzen da, alde batetik, gure corpora osatzen duten testuak, “itzulpen-mota” etiketari dagokionez, ezin direla bi multzo trinkotan banatu, zuzeneko eta zeharkakoetan, alegia; ñabardurak daudela eta beharrezkoa dela beste kategoria batzuk gehitzea. Bestalde, hirugarren urratsaren, mikro mailako azterketaren, garrantzia ere agerian geratzen da, bertan berretsi edo baztertuko direlako orain arte lortutako emaitzak.

Mikro mailako azterketari eskainitako kapitulua da guztietan zabalena (6). UFak testuetan agertzen direnean izan ditzaketen ezaugarriak aipatu eta gero (6.1), aztergai izango diren UFak –somatismoak (aztergaia I) eta binomioak (aztergaia II), hain zuzen– definitu ditugu (6.2). Jarraian, aukeratutako somatismo eta binomio horiek corpusetik nola erauzi (6.3) eta nola aztertu (6.4) ditugun ikusi dugu. Geratzen diren lau azpiataletan (6.5, 6.6, 6.7 eta 6.8) aztertu ditugu corpusetik erauzitako UFak. 6.5 eta 6.6 azpiataletan jatorrizko- eta xede-testuetako somatismoak aztertu ditugu hurrenez hurren, eta, 6.7 eta 6.8 azpiataletan, jatorrizko- eta xede-binomioen analisisia egin dugu. Bai binomio bai somatismoen kasuan, azterketan egin ditugun urratsak berberak izan dira: lehenengo eta behin, abiapuntuaren arabera, jatorrizko edo xede-testuetan oinarritutako azterketa egin dugu. Bigarrenik, itzulpen-azterketatik ateratako datu orokorrak, zenbakiak eta portzentajeak, aurkeztu ditugu. Itzulpen-azterketari amaiera emateko, itzulpen aukerak aztertu ditugu banan-banan. Hizkuntza-azterketa xehe horren bitartez, aukera izan dugu ez bakarrik alemanetik euskararako UFen itzulpenean egon daitezkeen joera orokorrak zehazteko, itzultzaile jakin batzuen itzultzeko estilo propioak ere identifikatu ahal izan ditugu. Bestalde, azpicor-

pusen arteko aldeak eta antzekotasunak izan ditugu hizpide; hau da, HGL eta HLko testuen, eta zuzenean eta zeharka itzulitako testuen arteko antzekotasun eta desberdintasunei erreparatu diegu.

Azkenengo kapituluan ondorioak jaso ditugu (7). Bertan, maila teorikoan IIDen baitan dauden kontzeptuetatik abiatu gara, lanean zehar lortutako emaitzak jaso eta horien inguruan eztabaidatze-ko, ikuspegi sistemikoa osatze aldera. Neurri handi batean, Kennyk dioen moduan (Tymoczkoen ideia laburbilduz), corpusaren metodologiak ahalbidetzen digu maila teoriko orokorretik hizkuntza-azterketa xeherako jauzia egin eta maila zehatzago horretatik berriro orokorra buelta egitea azken kapitulu honetan: “(...) the ability to zoom in and out from the general to the particular and back again is one that is particularly associated with the use of computers in the study of language. It is also regarded as one of the greatest strengths of corpus-based translation studies (Tymoczko 1998: 652-653)” (Kenny 2001: 68-69). Horretaz gain –hots, lanean zehar landutako atalak laburbildu eta horien inguruan eztabaidatzeaz gain–, hemendik aurrera egin beharrekoak ere jaso ditugu.

2.

Oinarri teorikoa

| | | |
|------------|---|-----------|
| 2.1 | Itzulpen Ikasketa Deskribatzaileak | 13 |
| 2.1.1 | Ustezko itzulpenak | 15 |
| 2.1.2 | Itzulpen-arauak | 17 |
| 2.1.3 | Itzulpen-legeak | 19 |
| 2.1.4 | Deskribapenetik harago | 23 |
| 2.2 | Fraseologia eta unitate fraseologikoak . . | 26 |
| 2.2.1 | Ikuspegi historikoa | 26 |
| 2.2.2 | Ikuspegi kontzeptuala | 35 |
| 2.2.3 | Sailkapenak | 55 |
| 2.3 | Fraseologiaren hurbilketa itzulpengintzara | 68 |
| 2.3.1 | Linguistika kontrastiboa vs. itzulpengintza | 68 |
| 2.3.2 | Ikerketa-lerroak itzulpen-azterketetan . . | 70 |
| 2.3.3 | Itzulpen-analisirako tresneria kontzeptuala | 77 |

Ikerketa-lan honen abiapuntua Itzulpen Ikasketak dira, Itzulpen Ikasketa Deskribatzaileak (IID), hain zuzen ere; lehen esan bezala, nire testuinguru akademikoan hori delako paradigma nagusia, alde batetik, eta, bestalde, euskal Itzulpen Ikasketetan orain arte egin diren lanak kontuan hartuta, egokiena iruditzen zaigulako.

Garrantzitsua da aipatzea, gainera, IIDak eta gero, 80. eta 90. hamarkadetan, kulturaren oinarritutako ikerketek hartu zutela garrantzia. Horien baitan, hizkuntzatik kulturarako jauzia egin, eta kultura kontzeptua ardatz bihurtu zen. Guk, ordea, biak uztartu nahi izan ditugu ikerketa-lan honetan, hizkuntza eta kultura. Horrela, ikuspuntu linguistikotik, fraseologismoen itzulpena aztertuko dugu alemana-euskara hizkuntza-konbinazioan, betiere ahaztu gabe itzulpen horiek leku eta garai jakin batean egin direla.

Abiapuntua IIDak izanik, lehenik eta behin, marko teoriko-metodologiko horren ezaugarri eta kontzeptu nagusiak deskribatuko ditugu. Hasteko, IIDak nondik datozen aipatuko dugu labur; ondoren, itzulpena nola ulertzen den azalduko dugu *assumed translation* kontzeptuaren bidez, eta funtsezko beste kontzeptu batzuk, itzulpen-arauak eta itzulpen-legeak, zer diren ikusiko dugu. Bukatzeko, Touryri egin dizkioten kritika nagusiak aipatuko ditugu *Deskribapenetik harago* azpiatalean.

Aipatu duguna kontuan hartuta, kapitulu honen bigarren zatian ikuspuntu historiko eta kontzeptualetik aztertuko ditugu unitate fraseologikoak (UFak). Horretarako, lehenengo eta behin, ikuspuntu diakronikotik, fraseologiaren ikerketak izan duen bilakaera aztertu dugu, bai xede- bai sorburu-kulturari dagokionez. Jarraian, ikuspuntu sinkronikotik, UFak zer diren lantzea izan da helburua, eta, horretarako, horien ezaugarriak deskribatu ditugu, ezaugarri formal, semantiko eta pragmatikoak, hain zuzen. Azkenik, UFak sailkatzeko hainbat proposamen aurkeztuko ditugu.

Hirugarren azpiatalean, fraseologia eta itzulpengintza uztartzeko ahalegina egin dugu. Hizkuntza desberdinetan UFen erkaketa hainbat ikuspuntutatik egin izan da, fraseologia kontrastiboa eta itzulpengintzaren ikuspuntutik, alegia. Garrantzitsua denez biak desber-

dintzea, lehenik eta behin, *langue vs. parole* dikotomiaz jardungo gara. Ondoren, UFen itzulpena aztertu duten lanen berri emango dugu, eta, bukatzeko, itzulpen-azterketetan erabiltzen diren eskemak aurkeztuko ditugu.

2.1 Itzulpen Ikasketa Deskribatzaileak

Tymoczkoen artikuluan (2013) irakurri dezakegunez, itzulpenari lotutako pentsamenduaren hainbat eskola (*schools of thoughts*) sortu ziren 50. hamarkadatik aurrera –neurri handiago edo txikiagoan, itzulpenaren teoriari ekarpen esanguratsuren bat egin diotenak–. Beste hitz batzuetan esanda, eskola horien baitan kasu-azterketa ugari argitaratu dira, datuak sortu dira, eta horiek eragina izan dute itzulpen teorian. Honako hauek dira itzulpengintzaren teorian nola baiteko arrastoa utzi duten ikuspuntu garrantzitsuenetariko batzuk: linguistikoa, funtzionalista, sistemikoa, kulturala (*the cultural turn*) eta internazionalista (*the international turn*). Tymoczkoen (2013: 2) arabera, “none of these schools can be rigorously separated from the others; together they confirm the principles of translation theory outlined below”.

Horrela, ikuspuntu funtzionalista eta linguistikoa izan ziren 1970. hamarkadatik aurrera etorri ziren Itzulpen Ikasketa Deskribatzaileak osatu zituztenak (Tymoczko 2007: 40). Beste hitz batzuetan: ezinbesteko aurrekariak izan ziren. Hori azaltzeko, Holmes eta 1972ko bere hitzaldia aipatzen ditu Tymoczko. Bertan, alde batetik, Itzulpen Ikasketen eskema aurkeztu zuen Holmesek, hiru adar nagusitan banatua dagoena: teorikoa, deskribatzailea eta aplikatua. Hurtadok argi azaltzen du hiru adarren arteko harremana zein den: “Las tres ramas están imbricadas. Los estudios descriptivos, colocados en el medio, son la base de la disciplina, ya que proporcionan los datos empíricos para los estudios aplicados y para los teóricos” (Hurtado, Merino eta Rabadán-en 2004: 19). Beraz, IIDak teoria eta praktika lotzen dituen zubia dira (Toury 2004: 19), eta, marko ho-

rren baitan ikertu nahi bada, beste zientzia batzuetan ohikoa den metodologia proposatzen du Touryk: hipotesia, behaketa enpirikoa eta egiaztatzea. Diziplina enpiriko gisa, Itzulpen Ikasketen helburua honako hau izan beharko litzateke: fenomenoak deskribatu, azaldu eta iragarri (Toury 2012: XII). Beraz, IIDekin, preskripziotik deskribapenerako jauzia egin zen. Kennyk (2001: 49) beste hitz batzuk erabiltzen ditu, baina gauza bera azpimarratzen du: IIDen aurreko ikerketen izaera arauemailea zen, itzulpen ideala zer den definitzeko ahaleginak egin zituzten. IIDen aldekoek, aldiz, itzulpenak diren moduan deskribatu nahi dituzte, itzulpenak dituzten ezaugarriak aztertuz, betiere kontuan hartuz itzulpen horiek testuinguru literario, kultural eta historiko baten barruan sortuak izan direla.

Bestalde, itzulpen-prozesuen eta produktuen arteko bereizketa egin zuen Holmesek:

“Holmes makes the distinction between process and product in translation, noting the distinct roles of description, theory, application and practice. Whereas the functionalist and linguistic schools focus primarily on translation processes, descriptive translation studies constitute a set of postpositivist approaches to translation products” (Ty-moczko 2007: 40).

Aurreko eskolak, batez ere, itzulpen prozesuan oinarritzen ziren, eta, IIDen baitan, itzulpen produktuetarako jauzia egin zen. Beste modu batera esanda, jatorrizko sakratutik xede-testurako jauzia egin zen Itzulpen Ikasketetan. Dena den, *target-orientedness* bezala ezagutzen den hori IIDen ezaugarri garrantzitsua izan arren, ez du esan nahi, inolaz ere, sorburu-testuak eta -kultura alde batera uzten dituztenik.

Gure abiapuntua xede-kultura izango da beti, baina itzulpen prozesua ere aztertu nahi dugun heinean, xede- eta sorburu-testuen arteko harremana aztertzea garrantzitsua izango da. Harreman hori aztertzerako orduan, hainbat eta hainbat ikertzailek baliokidetasun

kontzeptua erabili dute, eta erabiltzen dute. Aurrerago ikusiko dugun bezala (ikus [2.3.1](#)), ikuspuntuaren arabera (linguistika kontrastiboa vs. itzulpengintza) aldatu egiten da baliokidetasuna ulertzeko era. Itzulpengintza barruan ere, ikuspuntuaren arabera, desberdin ulertzen da. Touryren marko metodologikoaren baitan, *a posteriori* izaera dauka baliokidetasun kontzeptuak¹. Hau da, Tymoczekok (2007: 41) dioen moduan, baliokidetasuna itzultzaileak sortzen duen harremana da. Horregatik, testu batek itzulpen aukera ugari izan ditzake, eta, horregatik, itzulpena, Touryren arabera, xede-sisteman onartzen den edo xede-sisteman itzulpen gisa aurkezten den xedehizkuntzako testu oro izango da. Baina, xede-testua(k) aztertzen hasi aurretik ez dugu jakingo itzulpena(k) nolakoak diren; hau da, ez dugu jakingo, besteak beste, benetako itzulpenak, itzulpen zuzenak, zeharkakoak edo sasi-itzulpenak diren. Horregatik, *assumed translation* edo ustezko itzulpen terminoa erabiltzen du Touryk, metodologia enpirikoarekin guztiz bat datorren kontzeptua eta hurrengo lerroetan aurkeztuko dugun lehen.

2.1.1 Ustezko itzulpenak

Honela definitzen ditu [Touryk](#) (2012: 31) ustezko itzulpenak (*assumed translations*):

“any target-culture text for which there are reasons to tentatively posit the existence of another text, in another culture/language, from which it was presumably derived by transfer operations and to which it is now tied by a set of relationships based on shared features, some of which may be regarded – within the culture in question – as necessary and/or sufficient”.

¹Edo [Laviosaren](#) hitzetan: “It informs a new concept of equivalence which is no longer prescriptive and absolute, but descriptive and socio-culturally determined” (2002: 20).

Arestian aipatu bezala, xede-hizkuntzan itzulpen gisa aurkezten den oro izango da abiapuntua.

Gainera, Touryk ez dio ustezko izaera hori soilik xede-testuari egokitzen. Sorburu kulturarekiko lotura berreskuratu nahi denean, ustezko jatorrizko testuak (*assumed source texts*) ere aipatzen ditu. Besteak beste, ustezko itzulpen batek jatorrizko bat baino gehiago izan ditzake; hots, itzulpen konpilatuak² egon daitezke. Edo, itzulpen batek jatorrizko testu bakarra izan dezake, baina jatorrizko testu hori ez da hasiera batean uste zena, zeharkako itzulpenetan gertatzen den moduan (2012: 29).

Jatorrizko eta xede-testuaren arteko (behin-behineko) harremana hasiera-hasieratik identifikatzea garrantzitsua delako eta gurean zeharkakotasunaren fenomeno aski hedatua dagoelako (genero batzuetan beste batzuetan baino gehiago), [Manterolak](#) (2011) eta [Zu-billagak](#) (2013) beren doktore-tesietan erabilitako bi termino hauek erabiliko ditugu lan honetan ere: ustezko zuzeneko itzulpena (*assumed direct translation*) eta ustezko zeharkako itzulpena (*assumed indirect translation*). Aurreratu dezakegu, gainera, interesgarriak, batez ere, ustez zuzenean itzulitakoak direla.

Bestalde, azterketan zehar ikusiko dugun moduan, kontuan hartu behar da kontzeptu horiek ez direla kontzeptu absolutuak. [Zu-billagak](#), esate baterako, HGLaren itzulpenaren inguruan egindako azterketan, honako hau ondorioztatzen du: ustez zuzenean itzultzen duten itzultzaileek zubi-bertsioak kontsultatzen dituzte; horrela, zuzeneko eta zeharkako itzulpenen muga lausotu egiten da (2013: 570), eta biko kategorizazioa ez da nahikoa (2013: 572). Gure kasuan, ikusi beharko dugu ea HGLaren itzulpenean gertatzen dena HLaren itzulpenean ere berdin gertatzen den; hau da, ea hipotesia orokortu daitekeen.

²“a translation which makes use of a number of source texts” ([Toury](#) 2012: 100).

2.1.2 Itzulpen-arauak

Aipatu bezala eta [Kennyk](#) (2001: 50) dioen moduan, IIDen alderdi garrantzitsuetako bat da Itzulpen Ikasketak diziplina enpirikotzat hartzen direla. Helburua, beraz, datuak erauzi eta aztertzea da, eta behin eta berriz errepikatzen diren portaerak ikusten baditugu, jokaearen argibide diren itzulpen-arauak definitu ahalko ditugu. [Kennyren](#) (2001: 50) hitzetan: “Descriptive statements and explanatory hypotheses are thus handled by the descriptive branch of translation studies, in which regularities in observed behaviour are explained by the operation of hypothesized ‘norms’ ”. Honako hauek dira [Touryk](#) proposatzen dituen arau-motak:

- **Hasierako arauak** (*Initial norm*): Bi muturren arteko lerroan kokatzen da itzultzailearen jarrera. Bereziki ustezko jatorrizkoari lotzen zaion itzulpena egokitasunaren (*adequacy*) muturretik gertuago egongo da, eta, aldiz, xede-kulturako arauetan oinarritzen dena onargarritasunetik (*acceptable translation*). Ikusiko dugun moduan, hasierako arauak eta jarraian aipatuko ditugunak elkarri eragiten diete.
- **Aldez aurreko arauak** (*Preliminary norms*): Alde batetik, itzulpen politikarekin zerikusia duten arauak aipatzen ditu; hau da, momentu konkretu batean, kultura edo hizkuntza batean, itzuliko diren edo ez diren testu-moten aukeraketan eragina duten faktoreak. Bestalde, itzulpen modua aipatzen du, eta galdera dexente proposatzen: zenbateraino onartzen dira zuzenean egiten ez diren itzulpenak? Zein aldagairen arabera (jatorrizko hizkuntza, testu-mota, garaia...) aldatu daiteke jarrera hori? Zeharkako itzulpenetan, zubi-hizkuntzari dagokionez, zein izan ohi da erabiliena, eta zergatik? Aitortu ohi da zeharkakotasuna?

Honako lotura hau egiten du [Touryk](#) (2012: 84) hasierako arau eta aldez aurrekoen artean: “For instance, in cultural sectors where the pursuit of adequate translation is marginal, it is not

inconceivable to find that indirect translation would be rather common too, on occasion even preferred to direct translation”. Beraz, onargarritasunaren hasierako arau eta zeharkako itzulpenen artean lotura bat dagoela dio Touryk: onargarritasunetik gertuago dauden itzulpenak egiten diren lekuetan, zeharkako itzulpenak ohikoak dira. Honela jarraitzen du aipua: “By contrast, a norm which blocks mediated translation is likely to be connected with a greater proximity to the initial norm of adequacy. Under such circumstances, if indirect translation is still performed, the fact will at least be concealed, if not openly denied”. Hau da, egokitasunaren araua eta zeharkako itzulpenak baztertzen dituen araua lotuta egongo lirateke. Gure kasuan, itzulpen moduari dagokionez, testu-motaren arabera joera desberdinak daudela ikusiko dugu: haur eta gazte literaturan zeharka itzuli den testu gehiago dago helduen literaturan baino.

Zubillagak, besteak beste, iseken eta madarikazioen itzulpena aztertu du alemanetik euskararako HGLan, eta neurri batean, Touryk dioena egiaztatu egin da bere kasuan (2013: 568): zuzenean egindako itzulpenak sorburu-testuaren tonura gerturatzen dira, eta, beraz, egokitasunerako joera handiagoa da zuzeneko itzulpenetan.

Analisian barrena goazen heinean ikusi ahal izango dugu ea Touryk proposatzen duena gure kasuan ere aplikatu daitekeen.

- Jarduerazko arauak (*Operational norms*): Itzulpen prozesuan bertan eragina duten arauak dira hauek. Makro mailan arau matrizialak ditugu. Hauek dira xede-hizkuntzako materialaren ‘kokapenean’ eta banaketan eragina dutenak. Mikro mailan, aldiz, arau linguistiko-testualek material linguistikoaren hautaketari eragiten diete. Oro har, jarduerazko arauak eredu bat osatzen dute, zeinaren arabera itzulpenak egiten diren. Eredu hori jatorrizko testuko arauak lotuago egon daiteke (itzulpen egokia), xede-testuko arauak (itzulpen onargarririk) edo bien ar-

teko ‘akordio’ bat izan daiteke. Nolanahi ere, arauak zehazten dute itzulpena eta jatorrizkoaren arteko baliokidetasun-mota: “The type and extent of equivalence actually exhibited by a translation vis-à-vis its source are determined by norms” (Toury 2012: 85).

Beraz, itzulpen erregularitasunak aztertuz identifikatu daitezke arauak. Hala ere, egia da arauen azterketa ez dela lan erraza, besteak beste, beren izaera aldakorragatik, bai denboran bai tokian: “They [Norms] differ from culture to culture and between groups within a culture, and they change over time” (Kenny 2001: 51). Baina, era berean, ez dugu ahaztu behar Touryk metodologia bat proposatzen duela, hain zuzen, arauak eta hurrengo lerroetan azalduko ditugun legeak aztertu ahal izateko.

2.1.3 Itzulpen-legeak

Arauez haraindi, bi lege proposatzen ditu Touryk (2012: 303-315), neurri handi batean lotuta daudenak: estandarizazioaren legea (*law of growing standardization*) eta interferentziarena (*law of interference*). Bakerrek ez bezala, Touryk ez du unibertsalez (*translation universals*) hitz egiten, itzulpen-portaera erregularrak azaltzen dituzten legeez baizik. Hainbat faktorek baldintzatzen dituzte portaera horiek, eta horrek probabilitate-izaera (*probabilistic nature*) ematen die legeei: “if X, then the greater/the lesser the likelihood that Y” (Toury 2012: 301).

- Estandarizazioaren legea

Lege honen arabera, itzultzerako orduan, jatorrizkoan dauden testu-harremanak aldatu egiten dira askotan –are, batzuetan, ez dira kontuan hartzen–, eta xede-hizkuntzako aukeren artean ohiko[ago]ak direnen alde egiten da, xede-kulturako arauen alde alegia: “in translation, textual relations obtaining in the original are often modified, sometimes to the point of being totally

ignored, in favour of [more] habitual options offered by a target repertoire” (2012: 304). Horrela, xede-testuak jatorrizkoak baino lauagoak izan ohi dira.

Bestalde, itzulpen portaeran eragina duten beste aldagai batzuk ere egon daitezkeela dio Touryk, hala nola adin biologikoa, elebitasun adina edo esperientzia. Aldagai horiek estandarizazioaren lege honen ‘baldintza’ gisa erabili ahalko lirateke, eta, horrela, berau osatzeko eta doitzeko balioko lukete. Even-Zoharri jarraituz, itzulpenen portaeran eragina izan dezaketen kanpo-faktore bat aipatzen du Touryk, itzultzaile edo/eta itzulpenen estatusa, hain zuzen: “the more peripheral this status, the more translation will accommodate itself to established models and repertoires” (2012: 307). Beraz, orduan eta periferikoago izan itzulpenaren estatusa, gero eta gehiago egingo da aukera ohikoagoen alde.

Bukatzen du esanez, horrelako lege bat adar teorikoan kokatu arren, beste adar batzuetan ere –aplikatuan, kasu– erabili daitezkeela. Behin lege bat formulatuta, itzulpen eskoletan erabili ahalko litzateke, nola jokatu irakasteko (bi aukerak daudela kontuan hartuta: legeari jarraitu edo kontra egin).

2009ko artikuluan, fraseologismoen itzulpena eta Bakerrek proposatutako itzulpen unibertsalen arteko harremana aztertzen du [Marcok](#), eta normalizazioan jartzen du arreta. Marcoren arabera, Bakerrek normalizazio gisa identifikatutako itzulpen unibertsala eta Touryren estandarizazioaren legea gauza bera dira: “Toury’s law of growing standardisation is but another way to designate the same phenomenon [normalizazioaren fenomenoa, alegia]” (2009: 845). Azterketa egiteko, hauxe da Marcoren abiapuntua edo hipotesia: fraseologismoen erabileran normalizazioaren adierazle izan daiteke itzulitako testuetan, UFak xede-hizkuntzako forma estandarizatuak direlako, eta, asko erabiltzen direnez, xede-hizkuntzako forma konbentzional bihurtzen dira: “it has been assumed that phraseological usage

can be seen as an indicator of normalisation in translated texts, as phraseological units are target-language standardised forms belonging to its lexical repertoire. As a cosequence of their being frequently used, they have become part and parcel of the target language conventions” (2009: 853). Itzulpen tekniken portzentajeei erreparatuta ondorioztatzen du bere corpusean ez dela normalizazioaren hipotesia betetzen, fraseologismo-galera adierazten duten bi itzulpen tekniken ($UF \Rightarrow UFrik$ ez eta $UF \Rightarrow kolokazioa$) portzentajea (% 22,57) pixkat handiagoa delako fraseologismo-irabaziaren adierazle diren beste bi itzulpen tekniken ($UFrik$ ez $\Rightarrow UF$ eta $Kolokazioa \Rightarrow UF$) baino (% 21,12). Baina, portzentajeak portzentaje, gaineratzen du xede-testuetako erabilera fraseologiko anitzak adierazten duela itzultzaileek positibotzat jotzen dutela UFen erabilera, eta horiek mantentzen saiatzen direla xede-testuetan, literatur testuetan behinik behin. Gainera, dio hori ez dela modu naturalean gertatzen, hau da, ahalegin berezi bat egiten dutela itzultzaileek sorburu-testuko aktibitate fraseologikoa xede-testuetan mantentzeko.

Mikro mailako azterketan zehar ikusiko dugu fraseologismoen erabilera zein neurritan den normalizazio edo estandarizazioaren adierazle gure kasuan. Baina, pentsa genezake euskararen egoerak eragina izan dezakeela hizkuntzaren erabileran. Izan ere, hizkuntzaren egoera ahula konpentsatzeko asmotan, itzultzaileek hizkuntza jatorrago edo jasoagoa erabiltzeko ahalegina egin dezakete, eta maila jasoagoko UF horien erabilera ez litza-teke estandarizazioaren adierazle izango.

- Interferentziaren legea

Lege honek hauxe dio: itzultzerako orduan, jatorrizko testuaren egiturari lotutako fenomenoak onartu egin ohi ditu itzultzaileak, eta horiek xede-testura pasatzen dira. Prozesu hori negatiboa izan daiteke –xede-hizkuntzako ohituren aurka egiten denean– baina baita positiboa ere. Modu batean edo bestean, interferentzia beti gertatzen da. Izan ere, [Touyren](#) arabera,

baldintzatuta gaude: makineria kognitiboak baldintzatzen gaitu, alde batetik, eta, bestetik, gure ingurumen sozio-kulturalak.

Prozesu kognitiboen inguruan dio itzultzailearen esperientziak itzulpen-prozesuan eragina izan dezakeela: (“(...) accomplished translators would be less affected by its [the source text] actual make-up” (2012: 313)). Iruditzen zaigu, hala ere, badaudela beste faktore kognitibo batzuk itzulpenean eragina izan dezaketanak eta ikertzerako orduan kontuan hartu beharko liratekeenak; hala nola, itzultzailearen ama-hizkuntza(k), ezagutzen dituen atzerriko hizkuntzak, noiz eta nola ikasi dituen. Esan nahi duguna da itzultzaileen profila kontuan hartzea garrantzitsua izan daitekeela, itzulpen portaeretan eragina izan dezaketelako.

Gure kasuan, adibidez, alemanetik euskarara itzultzen duen itzultzaile oro, gutxienez, elebiduna izango da: euskara eta gaztelania (edo frantsesa) jakingo ditu. Oro har esan daiteke, euskararen egoera diglosikoa medio, gaztelaniaren eragina euskararengan handiago dela alderantziz baino, [Zubillagak](#) bere doktore-tesian aipatzen duen moduan. Maila kognitiboari dagokionez, uste dugu egoera horrek itzulpenari ere eragiten diola. Itzultzaileak gaztelania ez den beste hizkuntza batetik, alemanetik kasu, euskarara itzultzen duenean –beraz, ustez zuzenean itzultzen denean ere–, nahi edo nahi ez, gaztelania ere buruan dauka³ ([Zubillaga 2013](#): 47).

Horretaz gain, alemanetik euskarara egiten diren itzulpenetan, itzultzailea baldintzatzen duten beste bi faktore –kanpo faktore, kasu honetan– ere aipatzen ditu [Zubillagak](#): beste zubi-ber-tsio batzuk kontsultatzeko aukera eta laneko baliabide gehient-suenak gaztelaniaz izatea. Aipatutako interferentzia-mota ho-

³Beste kontu bat da bi hizkuntza horiek nola dauden errotuta itzultzaile bakoitzaren buruan, nola ikasi dituen bi hizkuntzok, zein harreman duen bi hizkuntzekiko, zein menperatzen duen hobeto, etab. Nago faktore horiek eragina izan dezaketela emaitzetan eta kontuan hartzekoak liratekeela.

riei *interferentzia diglosiko* izena ematen die Zubillagak (2013: 47), euskararen egoera diglosikoaren ondorio direlako.

Ingurumenak jartzen dizkigun baldintzei dagokienez, lekuaren edo kulturaren arabera, interferentziarekiko jarrera desberdina izan daitekeela adierazten du Touryk: “communities differ in terms of their resistance to interference, especially of the ‘negative’ type” (2012: 313). Gainera, interferentzia onartzen ez denean, garbizaletasunerako joera edo zentsura mekanismoak areagotu egiten dira (izan itzultzaileak bere buruari jartzen dizkionak edo kanpotik inposatutakoak). Interferentziarekiko tolerantziarekin zerikusia duen aldagai bat hizkuntza edo kulturaren prestigioa izan daitekeela dio. Konkretuki dio itzulpena prestigio handiko hizkuntza edo kultura batetik egiten denean, interferentzia onartzeko joera handiagoa dela; bereziki, xede-hizkuntza edo -kultura ahula denean. Horrelako kontestu batean, interferentzia manipulatu, eta itzulpen estrategia bihurtu daiteke, “in an attempt to enrich the target culture/language, in domains regarded as needing such enrichment, in an act of cultural planning” (Toury 2012: 315).

Gure kasuan, itzulpenak prestigio handiko hizkuntza batetik xede-hizkuntza gutxitu batera egiten dira, eta, beraz, Touryren arabera, ustezko jatorrizko testuko interferentziak aurkituko ditugula aurreikusten da. Baina, badakigu gurean, alde batetik, ustezko jatorrizko testu desberdinak erabiltzeko aukera handi xamarra dela, eta, bestalde, itzultzaileak erabiltzen dituen hizkuntz balia bideak gaztelaniaz diseinatuta daudela. Horregatik, gertatu daiteke, esate baterako, gaztelaniaren interferentzia hori ezkutatu nahian, garbizaletasunerako joera areagotzea. Hainbat indar egon daitezkeela aintzat hartu behar da.

2.1.4 Deskribapenetik harago

Hain zuzen, aipatu berri ditugun lege proposamenak eta horiei atxikitzen zaien “enpirikotasuna” da Touryri gehien kritikatu zaio-

na. Ikusi dugun moduan, itzulpen-legeen azken xedea da itzulpenetan adierazgarriak diren aldagaien artean dauden barne-harremanak zehaztea. [Hermans](#)ek (1999: 92) kritikatu egiten du hori. Ideia horren arabera, itzulpenetan adierazgarriak diren aldagai *guztiak* eta beren arteko harremanak ezagutzea posible da. Gainera, norik erabakitzen du zer den adierazgarria? Honela jarraitzen du [Kenny](#)k (2001: 55): “Tourey’s approach seems to suggest that natural laws of translation are discoverable from translation data, and that the theorist’s subjectivity need not encroach upon a properly, that is scientifically, conducted study of translation”. Kennyren arabera, objektibotasun hori da Venuti (1997) eta Tymoczok (1998) kritikatzeko dutena, eta Kennyk berak ere Hermans, Venuti eta Tymoczokoren kritikekin bat egiten du. Bere hitzetan: “It seems unlikely that any researcher could ever monitor all the variables relevant to any particular act of translation, or that any formulation of laws, or norms for that matter, could ever be made wholly objectively” ([Kenny 2001: 55](#)). Azken batean, Toureyk itzultzailearen inguruan dioten horrek –hots, xedekulturaren bizi dela eta bertan dauden arauak baldintzatzen dutela– berdin-berdin eragin beharko lioke itzulpen-ikertzaileari.

Izan ere, itzulpen-ikertzaileak ere, [Tymoczok](#) (1998: 3) corpusen sorrera eta erabileraren inguruko hurrengo aipuan dioten moduan, garai eta leku konkretu batean bizi dira, eta testuinguru ideologiko eta intelektual jakin baten barruan lan egiten dute⁴:

“Corpora in translation studies are products of human minds, of actual human beings, and, thus, inevitably reflect the views, presuppositions, and limitations of those human beings. Moreover, the scholars designing stud-

⁴[Corpasek](#) itzulpen-unibertsalen baliotasuna aztertzen du 2008ko monografian. Ondorioetan, honako hau dio bere ikerketaren objektibo izaeraren inguruan: “Así mismo, nuestra investigación es objetivable, dado que se basa en métodos cuantitativos y estadísticos. No la calificamos, sin embargo, de objetiva, pues toda investigación es hasta cierto punto subjetiva, ya que siempre estará influenciada por determinados paradigmas y marcos de referencia, posicionamientos ideológicos, tradiciones culturales, conceptos claves, etc.” (2008: 217-218).

ies utilizing corpora are people operating in a particular time and place, working within a specific ideological and intellectual context. Thus, as with any scientific or humanistic area of research, the questions asked in CTS will inevitably determine the results obtained and the structure of the databases will determine what conclusions can be drawn”.

Garrantzitsua iruditzen zaigu corpusen aipu hau, guk ere gure corpus propioa osatu dugulako, eta, zentzu horretan, autokritikoak izan behar dugulako. Oro har, ikertzailearen jarrera autokritikoa da, gure iritziz, Touryri falta zaiona. Izan ere, objektibotasuna eraiki egin daiteke. Kasu honetan, metodologia enpirikoaren bidez eta emaitzak alderatuz. Baina ikertzaileak autokritikoa izan behar du.

Halversonek (2013) gramatika kognitiboak eta elebitasun ereduek eskaintzen dituzten egiturak erabiltzea proposatzen du itzulpenek izan ditzaketen ezaugarriak azaltzeko. Ikertzailearen arabera, gerta daiteke itzulpenetan ezaugarri batzuk azpiordezkatuta egotea, eta beste batzuk, berriz, gehiegi erabiltzea. Fenomeno horiek azaltzeko hipotesi bat proposatzen du (2003, 2010, 2013), *gravitational pull hypothesis* delakoa, zeinaren arabera “the likelihood of a particular translational outcome (e.g., over- or underrepresentation) will depend on the specific structure of the bilingual semantic network activated in any given instance” (2010: 352). Gure kasuan, sare semantikoa ez dute bi hizkuntzek osatzen, gehiagok baizik, eta hizkuntza guztiak ez daude maila berean. Horregatik, iruditzen zaigu hizkuntzen didaktikan erabiltzen den *cross-linguistic influence* kontzeptua garrantzitsua izan daitekeela etorkizuneko ikerketetan, bai Touryren kontzeptua osatzeko, bai harreman binarioak osatzeko.

Ez dugu ahaztu behar, bestalde, Touryk berak ere ikuspuntu kognitibotik eta itzulpengintzaren ikuspuntutik lan egiten duten ikertzaileen arteko elkarlana azpimarratzen duela:

“However, contrary to common belief, the relation between a mentalist approach to translation and its obser-

vation through a socio-cultural prism, which is at the root of the application of the notion of norm, is not really one of *opposition*. Rather, it is a relation of *complementarity* and *containment*. Thus, the two perspectives are not only justified and promising each one in itself, but they may well be of equal validity. This would call for closer cooperation between Cognitivists and Translation scholars” (2012: 67).

2.2 Fraseologia eta unitate fraseologikoak

Corpasek, *Fraseología y traducción* artikuluan, fraseologiaren garapenaren azterketa sakona egiten du. Bere arabera, 70. hamarkada hasieratik aurrera, hizkuntzen osagai lexikoaren garrantziaz konturatu ziren hizkuntzalariak. Izan ere, orduan iritsi ziren diskurtsoaren analisiaren eta hizkuntzalaritza testualaren inguruko azterketak, hizkuntzaren jabekuntza eta prozesamenduaren inguruko ikerketak edo corpus digitalizatueta oinarritutako hizkuntza azterketak, besteak beste. Esan bezala, osagai lexikoaren garrantzia agerian utzi zuten azterketa-mota horiek. Norabide berri horren ondorioetako bat izan zen fraseologia diziplina independente gisa ezartzea. Corpasen hitzetan: “El establecimiento de la fraseología como disciplina propia e independiente ha sido una de las consecuencias más importantes del “giro léxico” experimentado por la lingüística a comienzos de los años setenta” (2003: 245).

Fraseologiaren garapena, hala ere, ez da berdina izan kultura guztietan. Hori dela eta, UFak zer diren deskribatzen hasi aurretik, fraseologiak xede- eta sorburu-kulturetan egindako ibilbidea aztertuko dugu.

2.2.1 Ikuspegi historikoa

Gauza jakina da euskara eta alemanaren artean alde nabarmenak daudela, ez bakarrik hizkuntzaren garapen eta egoerari dagokionez,

baita fraseologiari dagokionez ere. Azken hori landu asmoz, azpiatal honetan, xede-kulturari, euskal fraseologiaren garapenari erreparatuko diogu, lehenik eta behin. Horrela, XVI. mendetik gaur egunera arte egon diren izen eta lan garrantzitsuenak aipatuko ditugu. Ondoren, berdina egiten saiatuko gara alemanarekin, sorburu-kultura-rekin.

2.2.1.1 Euskal fraseologia

Laburbilduz esan dezakegu XVI. mendetik XIX. mendera arte euskaraz aurkitu ditugun lanak lan paremiografikoak direla batik bat; hots, ikertzaileek kalean erabiltzen ziren esaerak jasotzen zituzten, gero esaera edo atsotitz hiztegiak sortzeko. Aipatu nahi dugun lehen bilduma honako hau da: *Refranes y sentencias comunes en bascuence, declaradas en romance con números sobre cada palabra, para que se entiendan las dos lenguas*. Pedro Porralis de Amberesek argitaratu zuen 1596an, hori badakigu, baina ez nor izan zen lanaren egilea. Euskaldunek, gainera, ez zuten XIX. mendera arte liburuaren ezagutzarik izan, ale bakarra Alemaniako Darmstadt hiriko liburutegian zegoelako. Willen Van Eys holandarrak aurkitu zuen, eta, 1896an, lehenengo ediziotik hirurehun urtera hain zuzen, berrargitaratu.

539 errefracuz osaturik dago bilduma, eta, [Kaltzakortak](#) (1996) adierazten duenez, horietatik hiru errepikatuta daude, eta bat ez da errefracua, erramoldea baizik (ez baitu irakatsirik ematen); beraz, 535 dira bilduman jasotzen diren errefracuak. Dena den, kontuan hartu behar da Kaltzakortak bere eskuetan izan zuen aleari zati batzuk falta zitzaizkiola, eta jatorrizkoak, beraz, errefracu gehixeago izango zituela.

Errefrauen egiturari dagokionez, “egiten dena da euskarazko errefracuaren hitzak zenbakitu eta gero hitzez-hitzezko erdal itzulpenean euskarazko hitz zenbakitu bakoitzari dagokion erdarazkoari zenbaki bera jarri” ([Kaltzakorta 1996](#): 613).

Aipatu nahi dugun hurrengo lana Oihenarten hau da: *Les Proverbs Basques recueillis par Sr. d'Oihenart, plus les poesies basques*

du mesme auteur (1657). Izenburutik ondorioztatu daitekeen bezala, atsotitzez –Oihenartek errotutako terminoa– eta olerkiz osatutako lana da. Bilduma osatzen duten 537 errafrauak alfabetoko hurrenkeraren arabera ordenaturik daude, frantsesera itzulita, eta batzuek euskarazko iruzkina ere badute. Garateren (1998: 28) ustetan, Oihenart da “lehenbiziko euskal atsotitzlari, lehen paremiologo, esaerak bildu ez ezik, bere hitzaurrean atsotitzei buruz zenbait iritzi jaulkitzen baitu”.

Atsotitz horiez gain, beste 170 batu zituen Oihenartek ale gehigarri batean. Ale hori Parisko Biblioteka Nazionalean aurkitu zuen Gustav Brunetek. Horietaz guztietaz gain, mauletarrak argitaratu gabeko beste errefrau pila jaso zituen. Mitxelenak 892 batu zituen guztira, eta, 1971. urtean, Oihenarten errefrau guztiak biltzen zituen liburua argitaratu zuen Txillardegik: *Atsotitzak eta Neurthitzak*.

Denboran jauzi bat eginez, XX. mendean egon diren honako bost izen garrantzitsu hauek aipatzea garrantzitsua iruditzen zaigu: Pablo Zamarripa, Resurrección María de Azkue, Koldo Izagirre, Justo Mari Mokoroa eta Gotzon Garate.

Zamarripa izan zen lokuzioen teorizaziorantz lehen urratsak eman zituena. 1913an argitaratutako liburu mardul honetan islatzen dira urratsok: *Manual del vascófilo. Libro de modismos, onomatopeyas, elipsis, uso distinto de la S y la Z y otras cosas que conviene saber para hablar y escribir bien en vascuence vizcaíno*. Sarrera eta 22 kapituluz osatua dago liburua. Ezin ditugu hemen liburuaren xehetasunak aztertu, baina adierazi, soilik, sarreran UFen itzulpenari buruzko hausnarketa egiten duela. Horiek hitzez hitz itzultzea ezinezkoa dela dio, eta bi bide proposatzen ditu: “traducirlas por un modismo equivalente” (Zamarripa 1913: 5) edo parafrasi bidez itzultzea. Baina garbi uzten du: parafrasiak ez du modismoak besteko energia izango, zerbait galduko da itzulpenean. Garbi dago, beraz, Zamarriparen ikuspegia arauemailea dela.

Azkuek bi kapitulu eskaintzen dizkie fraseologismoei *Euskalerrriaren Yakintzako* (1935-1947) hirugarren liburukian: lehenengoa atsotitzei (*proverbios*) eta bigarrena esakerei (*modismos*). Lehenengo ata-

lean, jakingai bera izendatzeko hainbat izen erabiltzen direla adierazten du. Ondoren, atsotitzak eta esakerak desberdintzeko beharraz ere hitz egiten du, eta biltzen dituen atsotitzen inguruan dio batzuk (889) beste liburu batzuetatik hartutakoak direla, baina gehienak (2.047) herritik jaso dituela zuzenean. Ordena onomasiologikoan oinarritzen da atsotitzak sailkatzerako orduan⁵. Esakeren atalari dagokionez, lau orrialdeko sarreratxoaz eta hitz-gakoen arabera antolatutako esakerez osatuta dago. Sarrera horretan ere, Azkuek hausnarketa terminologikoa egiten du lehenik eta behin, eta, kasu horretan ere, esakera gehienak (1.700) zuzen-zuzenean herritik jaso dituela adierazten du, eta gutxi batzuk (311) beste lankide batzuen lanetatik.

Izagirren bildumak, *Euskal lokuzioak: espainolezko eta frantsesezko gida-zerrendarekin* (1981), euskal lokuzioak, eta horien gaztelaniazko eta frantsesezko ordainak jasotzen ditu. Bi irizpidetan oinarritzen da “espainolezko eta frantsesezko *korrespondienteak*” (Izagirre 1981: 34) hautatzerako orduan: lokuzioaren egitura eta arruntasuna; hau da, formari begiratuz, egitura antzekoena duena hautatzen du, eta, erabilerari dagokionez, gehien erabiltzen dena. Bestalde, euskal lokuzioak hainbat iturritatik batu zituen: autore klasikoen liburuak, bertso-liburuak, kantategiak eta esaera bildumak. Nolanahi ere, lokuzio bakoitzaren azpian nondik jaso den adierazten da. Lokuzioen sailkapenari dagokionez, “erdarazkoen antzeko” (Izagirre 1981: 29) sailkapenean oinarritzen da, baina nahiko ordena konplexua da. Hori da, hain zuzen, bai Villasantek (1983) bai Morvayek (1996) Izagirreri egiten dioten kritika. Lehenengoak dio Casaresen sailkapenari eutsi beharrean, hobe izango zitekeela, semantikoki edo hurrenkera alfabetikoaren arabera sailkatu izan balitu.

Adierazi nahi genuke, bestalde, sarean dagoen Intza Proiektuko kideetako bat dela Izagirre, Joxan Elosegia eta Josu Landarekin batera. Izagirreren lokuzioak txukundu zituzten, beste lokuzio berri asko (6.000tik gora) batu, eta gaur egun sarean kontsulta daite-

⁵Garatek dio (1998: 31) gai konkretu bat jorratu nahi bada, bildumaren egitura egokia dela; baina atsotitz konkretu baten bila bagabiltza, sailkapenak ez digu bilaketa erraztuko.

keen lokuzio-bilduma⁶) plazaratu zuten 2004 urtean (<http://intza.armiarma.com/>).

Mokoroaren honako bilduma hau urte askotan zehar egindako biltze-lanaren emaitza da: *Ortik eta hemendik. Repertorio de locuciones del habla popular vasca, oral y escrita, en sus diversas variedades. Analógicamente clasificado por categorías y conceptos a base de los cuadros e índices de A. Pinloche y F. Brunot (1990)*. Izenburuaren arabera, euskal lokuzioak biltzen ditu Mokoroaren lanak, baina Pello Esnalek dioen moduan, agian, unitate fraseologiko terminoa egokia goa litzateke bi liburuki horietan jasotzen dena izendatzeko. Honako hau proposatzen du [Esnalek](#) (2001: 140):

“Mokoroak egin zuen bere eskuetan zegoena. Orain, guri dagokigu hark utzitako altxor paregabea lantzea; besteak beste, hark bildutako unitate fraseologikoetatik bereiziz zein diren lokuzio, zein kolokazio eta zein enuntziatu fraseologiko, eta alor bakoitzeko unitateak egoki sailkatuz. Horra hor noizbait egin beharko dugun lana (...)”.

80 bat koadernotan bildutako ia 100.000 lokuzio horiek sailkatzerako orduan, Pinloche eta Brunoten lanetako kontzeptuetan oinarritu zen. Horrela, bi liburukietako lokuzioak 21 gaitan daude antolatuta, eta gai bakoitzak, era berean, hainbat kontzeptu biltzen ditu. Baina gaien eta kontzeptuen ordena buruz ikasi ezean, liburuaren erabilera ez da oso erraza. Labayruko kideek ere hala uste zuten, eta bilduma CD formatuan kaleratu zuten. Gainera, 2005. urtetik aurrera, sarean kontsulta daiteke www.hiru.com webgunean. Bilaketak euskaratik edo gaztelaniatik egin daitezke, fraseologismoak bere baitan izan dezakeen hitzetako bat sartuz. Iturria eta euskalkia bezalako filtroak ere baditu.

Ia 30 urtean, zazpi probintzietako baserrietan, euskal-atsotitzak bildu zituen Gotzon Garatek. 1967an ekin zion lanari, eta 1998an

⁶“Lokuzioaren beroa” eta “Intza proiektuari buruz” ataletan, lokuzioen inguruko hausnarketa interesgarria egiten dute.

argitaratu zen lehenengoz bere atsotitz bilduma. 27.173 dira guztira bilduman jasotzen diren atsotitzak. Gehientsuenak euskaraz, baina espainolezko, ingelesezko eta latinezko ordainak ere agertzen dira kasu batzuetan. 2003an BBK-k bigarren edizio bat argitaratu zuen, eta, bertan, 30.466 atsotitz bildu zituzten. Lan hori, gainera, sarean kontsulta daiteke: <http://www.ametza.com/bbk/htdocs/hasiera.htm>.

1998ko papereko edizioa bost ataletan banatuta dago: hitzaurrea eta sarrera, euskal atsotitzak, *refranes españolas*, *english proverbs*, eta *proverbia latina*. Hitzaurrean, atsotitzen inguruko hausnarketa sakona egiten du, eta gai ugari lantzen ditu; hala nola, terminologiaren kontua, atsotitzen ezaugarriak, sailkapenak, itzulpena⁷ eta didaktika. Orain arte ikusi ditugun atsotiz-biltzaileek ere gai horien inguruan hausnartu duten arren, Garaterengan azterketa landuagoa nabari da⁸.

XXI. mendean ere, bai atsotitzak bai lokuzioak jasotzen dituzten bildumak argitaratu dira: Susperregiren *Gure atsotitzak*, Aristiren *Atsotitzen hiztegiak*, gazteei zuzendutako Mantxut erramolde-bilduma (<http://www.argia.com/mantxut/>)...

Horrez gain, arlo akademikoan ere egin dira ikerketa batzuk. Euskaltzaindiak, esate baterako, fraseologiaren inguruko Herri Jardunaldiak antolatu zituen bi urtetan. 1996ko jardunaldietan paremiologia landu zen; Kaltzakortak, esate baterako, euskal atsotitz bildumak aztertu zituen, eta Julia Sevillak, berriz, paremiologia espainolari eskaini zion bere hitzaldia. 2000. urteko jardunaldietan, euskal fraseologia izan zuten hizpide. Bertan, besteak beste, Mokoroaren lana aztertu zuen Esnalek, Kaltzakortak euskal fraseologiaren garapenean jarri zuen arreta, eta Corpasek kolokazio kontzeptuaren inguruan eta

⁷Itzulpenaren inguruan dio, besteak beste, atsotitzak itzultzea ez dela beti erraza. Testuinguruaren arabera esanahia aldatu egin daitekeelako, alde batetik, eta, bestalde, “euskal esaeron musika” beste hizkuntza batzuetan berregitea ez delako lan samurra (Garate 1998: 37).

⁸Laburtasunaren ohoretan, ezin izan dugu atal honetan azterketa sakonago bat aurkeztu.

Europako ikerketa fraseologikoen nondik norakoez hitz egin zuen⁹.

Axun Aierbek administrazio hizkerako UFen euskararako itzulpena aztertu zuen (ikusi [Aierbe 2008](#)). Besteak beste, euskarazko UFen aldakortasuna edo finkotasun gabezia aipatzen du: “Teniendo en cuenta la situación de la lengua vasca, se debe mencionar la variación o falta de fijación de la lengua y de la fraseología vascas tanto en la lengua estándar como en los lenguajes especializados” (2008: 36). Hizkuntza-konbinazioa eta hizkera-mota gure kasuan desberdinak izan arren, interesgarria izango da ikustea ea gure kasuan Aierbek aipatutakoak betetzen diren.

EHUko Euskara Institutuak ‘Kalkoen Behatokia’ izeneko webgunea sortu zuen 2012. urtean. Web orrian aipatzen denez, ikerketa-proiektu baten emaitza¹⁰ izan zen webgune hori. Bertan, Xabier Alberdiren zuzendaritzapean, hedabideetako euskara aztertu zuten, kalkoen ikuspegitik¹¹. Proiektu hori hona ekartzea interesgarria iruditzen zaigu, kalko moten artean, kalko fraseologikoak ere aipatu eta lantzen dituztelako. Gainera, Europhrasen 2010eko kongresuan parte hartu zuen Alberdik Kalkoen Behatokiko beste bi lankiderekin batera (Xabier Altzibar eta Julio Garcia), eta horren harira honako artikulua argitaratu zuten: *Calcos fraseológicos en euskera de los medios de comunicación* (2011b).

Xabier Altzibarrek, berriz, kolokazioak landu ditu, hedabideetan erabiltzen direnak bereziki, eta 2011ko artikulua batean euskal kolokazioen sailkapen bat proposatu zuen.

Amaitzeko, EHUko IXA taldea aipatu nahi genuke. Hizkuntzaren tratamendu konputazionalaren ikuspuntutik aztertzen dituzte HAULak, hitz anitzeko unitate lexikalak. Helburua, oro har, HAULak automatikoki identifikatu eta erauzte da, neurri estatistiko eta corpusen bitartez. Lan horren emaitzetako bat Elhuyarrek aurkeztu berri duen ‘Web corpusen Ataria’-n ikus daiteke. Bertan, hiru

⁹Testuak Euskaltzaindiako webgunean kontsultatu daitezke.

¹⁰Inguruko erdaren interferentzia eta kalkoak hedabideetako hizkeran (2008-2010).

¹¹<http://www.ehu.es/ehg/kalkoak/?p=hitzaurrea>

eratako hitz-konbinazioak erazteko aukera dago¹². Elhuyar Fundazioiko Antton Gurrutxagak IXA taldeko Iñaki Alegriarekin lan egin du proiektu horretan.

Bestalde, [Urizarren \(2012\)](#) eta [Gurrutxagaren \(2014\)](#) tesiak ere IXA taldearen barruan kokatzen dira. “Euskal lokuzioen tratamendu konputazionala” izenburua darama lehenak, eta honela azaltzen du egileak berak tesiaren helburua zein den: “Erabilgarri ditugun hizkuntza-baliabideetan oinarrituta, euskarazko lokuzioen prozesamendu automatikoan aurrerapauso nabarmen bat egitea da ikerketa honen xede nagusia. Hain zuzen ere, lokuzioak testuetan identifikatu eta unitate gisa dagokien analisia esleituko dien sistema bat diseinatzea eta garatzea da gure asmoa” (2012: 8-9). Gurrutxagaren kasuan, unitate fraseologiko jakin batzuen (izena+aditza erakoen) karakterizazio automatikoa egitea da helburua.

2.2.1.2 Fraseologia alemana

Ikuspuntu diakronikotik, fraseologia alemana nahiko landua dago literaturan. Horregatik, eta lan honek dituen mugak kontuan hartuta, ezin izango dugu azpiatal honetan nahi beste sakondu. Ikertzailerek lau aldi bereizi ohi dituzte UFen inguruko ikerketek izan duten garapena deskribatzerako orduan: fraseologia aurreko aldia, hasierako aldia, monografia zabalaren aldia eta finkatze aldia.

Fraseologia aurreko fasea atsotitz eta lokuzio bildumen sorrera fasea da. Hasiera batean, fraseologismoekiko interesa, beste hizkuntzekin gertatzen den bezala, “erstreckt sich zunächst fast ausschließ-lich auf Sprichwörter” ([Fleischer 1982](#): 11). Beraz, atsotitzak biltzea izan zen hasiera bateko helburua, eta ez horien inguruko hausnarketa teorikorik egitea. Lehen bilduma Agricolarrena (1529) bada ere, bilduma osoena Petersen eskutik iritsiko zaigu. Hiru liburukiz osatutako bilduma zabal horrek *Der Teutschen Weissheit* (1604/05) izenburua darama, eta atsotitzak biltzen ditu soilik. Bestalde, atsotitz eta lokuzioen arteko lehen bereizketa Wanderrek egin zuen 1836an, honako

¹²Web corpusen atariari erreferentzia egingo diogu [3.2](#) atalean ere.

izenburu hau daraman lanean: *Das Sprichwort, betrachtet nach Form und Wesen, für Schule und Leben, als Einleitung zu einem großen volksthümlichen Sprichwörterschatz*. Pilzen arabera, Wander paremiologiaren aita izan zen (Fleischer 1982: 12).

Hurrengo fasea 60. hamarkadan hasi zen. Lan teoriko gabeziari aurre egiteko (Fleischer 1982: 15), kontzeptuak sortzen eta definitzen hasi ziren, gero sailkapenak egin ahal izateko. Fleischerrek (1997: 17) dioen bezala, lehen ikerketa teorikoak hiztegitantza lan egiten zuten ikertzaileen eskutik iritsi ziren. Hori da, esate baterako, Klappenbach (1961) kasua.

70. hamarkadatik aurrera, monografia zabalen fasean alegia, Černiševa (1970) izan zen ikertzaile garrantzitsuetako bat. Fraseologismo alemanen sailkapena proposatzeaz gain, garbi utzi zuen kontzeptuak definitu eta sailkapenak proposatzearekin ez dela fraseologiaren ikerketa amaitzen.

Garai honetan, Pilzen (1978) azterketa sakona ere aipatu beharra dago. Ikus dezagun Ruiz Gurillok azterketa horren inguruan dioena:

“publica un extenso trabajo de más de 1000 páginas donde presenta un amplio estado de la cuestión para el alemán: reseña opiniones de varias decenas de autores representativos de la fraseología en general y del alemán en particular, trata problemas terminológicos, presenta una amplia clasificación de las UFS, insiste en los límites de la fraseología (...)”¹³.

Ezin dugu aldi hau amaitu Fleischer (1982) eta Burger et al. (1982) monografiak aipatu gabe. UFak definitzeko eta sailkatzeko irizpideak zehaztea lortu zuten, gaur egun oraindik fraseologiaren inguruan egiten diren ikerketa-lanetan aipatzen direnak.

80. hamarkada erditik aurrera, finkatze fasea hasi zen. Fraseologismoak hainbat zientzia alorretan izan ziren aztergai. Zer esan nahi

¹³Ikusi 2.2.2.1 atala Pilzek eztabaida terminologikoaren inguruan egin zuen lanaren berri izateko.

du horrek? Ordura arte, oro har, UFak testuingurua kontuan hartu gabe aztertzen ziren, eta, ordutik aurrera, UFen testuingurua aintzat hartuko zen. Horregatik, besteak beste, UFek testuetan eta testumota desberdinetan betetzen dituzten funtzioak aztertzen hasi ziren, horien jabekuntza eta irakaskuntzari buruzko ikerketak egiten, UFak hiztegietan nola jasotzen diren deskribatzen, eta hizkuntzen arteko sistema fraseologikoen azterketak egiten.

2.2.2 Ikuspegi kontzeptuala

2.2.2.1 Terminologia

Unitate fraseologiko kontzeptua definitzen hasi aurretik, termino horren inguruan sortu den eztabaida terminologikoa aipatzea ezinbestekoa da. 2007an argitaratu zen fraseologia eskuliburuko (Burger et al.)¹⁴ argitaratzaileek diote ikertzaileak oraindik desadostasun terminologikoz kezu direla:

“Seit sich die Phraseologieforschung außerhalb der damaligen Sowjetunion zu konstituieren begann, gibt es Klagen über die terminologische Uneinheitlichkeit, und diese Klagen sind bis heute nicht verstummt” (Burger et al. 2007: 1).

Hori dela eta, termino bateratuak sortzen saiatu ziren argitaratzaileak. Alde batetik, diziplina linguistikoa izendatzeko, fraseologia (*Phraseologie*) terminoa proposatu zuten¹⁵, hainbat hizkuntzako ikertzaileek erabiltzen baitute —alemaniarrek, errusiarrek eta

¹⁴Lehen fraseologia eskuliburua 1982an argitaratu zen, eta 2007tik aurrera maiztasun handiagoz argitaratu dira Europhrasen babespean. 2007ko edizio horretako hitzaurrean aipatzen den bezala, 1982an lehen ikerketa-galderak egiten hasi ziren, eta 2007an argitaratutako eskuliburu zabal horren helburu nagusia ordura arte adostutakoa laburbiltzea izan zen.

¹⁵“Die Herausgeber des Handbuchs schlagen vor, künftig auf die Dichotomie ‘Phraseologie’ und ‘Parömiologie’ zu verzichten und das ganze Gebiet als ‘Phraseologie’ zu bezeichnen” (Burger et al. 2007: 2).

espainiarrek kasu. Melladoren (2004: 15) arabera, eremu anglosaxoia da besteetatik gehien aldentzen dena: “El término ‘Fraseología’ ha sido adoptado en la mayoría de las lenguas europeas, con excepción del ámbito anglosajón, donde más usual es ‘idiomatic’ (cfr. *idiom*)”. Hori kontuan hartuta, fraseologia terminoa erabiliko dugu guk ere lan honetan, eta bi adiera izango ditu; alde batetik, hitz-konbinazio finkoak aztertzen dituen jakintza esparruari egingo dio erreferentzia (alemanez *Phraseologieforschung* ere erabiltzen da adiera horri erreferentzia egiteko), eta, bestalde, jakintza esparru horren aztergaiari, hau da, hizkuntza bateko hitz-konbinazio finko multzoari¹⁶ (alemanez, *phraseologischer Bestand*, *Phrasenbestand*, *Phraseolexikon*). Kontuan hartu behar da termino bakarra adostu izanak ez duela esan nahi ikertzaile guztiek fraseologia berdin ulertzen dutenik. Hasiera batean fraseologiaren azterketa-eremua nahiko hertsia bazen, gaur egungo joera –besteak beste, corpusaren linguistikari esker– alderantzizkoa da: fraseologiak hartzen duen eremua gero eta gehiago zabaltzea, alegia (Burger et al. 2007: 2).

Bestalde, jakintza esparruaren ikergaia izendatzeko termino bateratu bat proposatu nahi izan zuten, hots, “hitz-konbinazio finko” horiek biltzen dituen termino bat bakarra; baina, hori ez zen erraza izango.

Ikertzaileek hainbat termino erabili dituzte historian zehar ideia berari erreferentzia egiteko. Pilzek, 1978an jada, terminologia-aniztasun kaotikoa kontrolaezina dela esan zuen, eta, gehiegizka aritzea bada ere, fraseologiari buruz idazten duen orok termino berriak ezartzen dituela (1978: 8)¹⁷. Aniztasun horren isla da lehenengo erans-

¹⁶Pilzek, 1978an jada, bi adiera horiek ematen dizkio fraseologia kontzeptuari: “Die Gesamtheit des betreffenden sprachlichen Materials und die mögliche linguistische Disziplin, die sich mit ihm zu befassen hat, nenne ich PHRASEOLOGIE” (1978: 3).

¹⁷ “Diese geradezu chaotische terminologische Vielfalt scheint kaum noch zu bändigen zu sein (vgl. das Vorwort), was daraus resultiert, daß, um es überspitzt zu sagen, jeder, der zu phraseologischen Problemen Stellung nimmt, seine eigenen Termini prägt, ohne die bereits vorhandenen auf ihre Brauchbarkeit hin zu untersuchen”.

kineko taula (ikus [I](#) eranskina). Bertan agertzen diren 90 izenetatik asko [Pilzek](#) berak (1978: 8-12) jaso zituen bere lehen liburukiaren sarreran, gutxi batzuk [Larretak](#) (2001: 34) bildutakoak dira, eta gainerakoak lan honen egileak.

Aipatutako fraseologia-eskuliburuan, argitaratzaileek *Phrasem* termino bateratua erabiltzea proposatzen dute, baldin eta zentzu hertsian erabiltzen bada, hots, kolokazio eta lokuzioen hiperonimo gisa. Baina, fraseologia zentzu zabalagoan ulertzen bada¹⁸, beste terminoren bat erabiltzea proposatzen dute (*formelhafte Sprache, formulaic language, feste Wortverbindung, formelhafte Texte*), bakarra zehaztu gabe¹⁹.

Euskal fraseologiari dagokionez, XXI. mendean egin diren ikerketalanei erreparatzen badiegu, gaztelaniazko tradizio fraseologikoan oinarritzen direla ikusten da argi eta garbi, eta, bereziki, Gloria Corpasen lanetan²⁰. Hori dela eta, fraseologismo eta unitate fraseologiko terminoak gailentzen dira ([Kaltzakorta 2001](#); [Esnal 2001](#); [Altzibar 2004](#); [Altzibar et al. 2011a](#)) euskal ikertzaileen artean. Donostiako Informatika Fakultateko IXA taldekoak dira terminologia alorrean gehien aldentzen direnak. Izan ere, goian aipatu bezala, tratamendu konputazionalaren ikuspuntutik aztertzen dituzte HAULak, hau da, Hitz Anitzeko Unitate Lexikalak, eta, ondorioz, esparru horretan

¹⁸[Burger](#)rek *Phraseologie im weiteren Sinn* (fraseologia zentzu zabalean) eta *Phraseologie im engeren Sinn* (fraseologia zentzu hertsian) kontzeptuak proposatzen ditu. Hitz batez baino gehiagoz osaturik dauden unitateak eta finkoak direnak osatuko dute lehen multzoa. Ezaugarri hauei idiomatikotasunarena ghitzen badiegu, bigarren multzoaz hitz egin beharko dugu.

¹⁹ “Die Herausgeber schlagen vor, ‘Phrasem’/‘phraseme’ – dort, wo der Terminus gebraucht wird – für den engeren Bereich der Phraseologie (also als Oberbegriff für Idiome und Kollokationen) zu verwenden, bei einer weiten Konzeption aber auf andere Termini als Oberbegriff auszuweichen (z. B. ‘formelhafte Sprache’, ‘formulaic language’ – so Norrich Art. 52, Wray Art. 72, ‘feste Wortverbindung’, ‘formelhafte Texte’ – so Dausendschön-Gay/Gühlich/Krafft Art. 41)” ([Burger et al. 2007](#): 3).

²⁰Gloria Corpasek 1996an argitaratu zuen eskuliburuak (*Manual de fraseología española*) eta ordutik argitaratu dituen lanek oihartzun handia izan dute, penintsulako fraseologoen artean batez ere.

ohikoa den terminologia erabiltzen dute.

Beraz, lan honetan erabiliko ditugun terminoak fraseologismo edo unitate fraseologiko (UF) izango dira, eta sinonimo gisa erabiliko ditugu. Hiru arrazoi nagusigatik: lehena, fraseologia-eskuliburuan proposatzen den “frasema” terminoa zentzu hertsian erabiltzen delako, eta lan honetan fraseologia zentzu zabalagoan ulertzen delako; bigarrena, proposamenak proposamen, fraseologismo (*Phraseologismus*) terminoa alemanez oso hedatua dagoelako oraindik ere (Burger et al. 2007: 2); eta hirugarrena, euskal fraseologia garaikideko tradizioari eutsi nahi diogulako.

Baina zer dira unitate fraseologikoak? Esparru honetan ere, Schemannek (2011: 19) dioen moduan, fraseologo, lexikologo eta lexikografoak ez dira ados jartzen unitate fraseologikoak definitzeko kriterio argiak zehazterako orduan²¹. Beraz, lehenengo eta behin, UFez hainbat alorretan (formal, semantiko eta pragmatikoan) izan ditzaketen ezaugarriak deskribatuko ditugu.

2.2.2.2 Ezaugarri formalak

Polilexikalitatea

Burger (2007:14) eta Corpasen arabera, besteak beste, unitate fraseologikoek gutxienez bi hitzez osatuta egon behar dute²².

²¹ “Der Tatbestand, von dem wir auszugehen haben, ist: trotz oder gerade wegen einer kaum noch zu übersehenden, geschweige denn gründlich durchzuarbeitenden Flut von Veröffentlichungen zur Phraseologie oder Idiomatik gibt es keine eindeutigen und von allen Idiomatologen, Lexikologen und Lexikographen anerkannten Kriterien, was genau ein „Phrasem“ oder „Idiom“ ist und welche Einheiten dementsprechend in ein phraseologisches Wörterbuch aufzunehmen sind und welche nicht” (Schemann 2011: 19).

²²“Der Phraseologismus besteht aus mehr als einem Wort” (Burger 2007: 14). “Por unidad fraseológica se entiende una combinación estable de al menos dos palabras, que, en virtud de las distintas corrientes, tendrá como límite superior el sintagma o la oración compuesta y presentará como rasgos inherentes la fijación o la idiomatidad por sí solas, o bien una combinación de ambos criterios” (Corpas 2003b: 134).

Definizio horren arabera, grafikoki hitz bakarra osatzen duen unitate oro ez litzateke fraseologiaren aztergai izango. Baina ikertzaile batzuek (Duhme 1995) “hitz bakarreko UF” horiek (*Einwortphraseologismen*, *Einwortphraseme*, *Einwortidiome*²³, eta abar), hitzak berak dioen bezala, fraseologismotzat hartzen dituzte. Duhmek, esate baterako, dio UFei bete behar dituzten ezaugarriak betetzen dituzten heinean²⁴, posible izan beharko litzatekeela, izen funtzioa duten hitz elkartu horiek, gutxienez, fraseologiaren periferian kokatzea. Horrela, kategoria berri baten alde egiten du Duhmek: “Insofern plädiere ich (...) für die Einführung der Kategorie “Einwortphraseologismen”, damit derartige Wortkonstruktionen adäquat beschrieben und untersucht werden können” (1995: 84).

Szczękek hitz bakarrez osatutako eta izen funtzioa duten UFak (*nominale Einwortphraseologismen*) aztertzen ditu, alemana eta poloniera alderatuz. Alde batetik, ondorioztatzen du polonieraz hitz bakarreko unitate horiek gutxiago erabiltzen direla alemanez baino. Produktibitateari dagokionez, hizkuntzen artean aldeak egon daitezkeela dio van Lawickek (2013: 134) ere, eta honako hau gaineratzen du:

“D’altra banda, encara que amb diferències de productivitat segons cada llengua, es donen casos paral·lels en la formació de paraules compostes i de fraseologismes amb els mateixos constituents [adibideak ematen ditu]. Coincidint amb Llorente (2002), Barz (2007) observa punts en comú funcionals, estructurals i semàntics entre fraseologismes i paraules compostes i descriu diversos mecanismes de creació lèxica a partir d’unitats fraseològiques, com il·lustren els exemples de (15)”²⁵.

²³Szczękek (2004) sakonago aztertzen du terminologiaren gaia.

²⁴Honako ezaugarri hauek dira aipatzen dituenak: idiomatikotasuna, egonkortasuna, lexikalizatuta egotea, behin eta berriz erabili ahal izatea eta *usuelle Geltung*.

²⁵Aipatzen dituen alemaneko adibide batzuk: *leichten Herzens* / *leichtherzig*; *hart wie Stein* / *steinhart*.

*Szczę*kek ere jatorri fraseologikoa duten hitz elkartuek osatzen duten multzo bat aipatzen du (adibidez, *Schwarzfahrt*). 6. kapituluan ikusiko dugun bezala, zalantzak izan genituen *händereibend* gisako eratorpenezko aldaerak (*sich die Hände reiben*-etik dator) aztertu ala ez erabakitzerako orduan.

Bestalde, bai *Heinek* bai *van Lawickek* alemaneko ortografia aldaketek duten eragina nabarmentzen dute hitz-konbinazio jakin batzuk fraseologian sartu edo ez zehazterakoan. *Heinek*, adibidez, *dank sagen* edo *Danksagen* adibidea jartzen du. Izan ere, azken erreforma ortografikoaren arabera, aipatutako bi formulak onartzen dira alemanez. Polilexikalitatearen ezaugarria zorrotz aplikatuz, lehena UF kontsideratu beharko genuke, baina bigarrena, aldiz, hitz elkarketa.

Euskararen kasuan, polilexikalitateari dagokionez, beste zalantza batzuk pizten zaizkigu. Hizkuntza eranskaria denez, sortzen den galdera da ea hitz bakarrez osaturiko unitate jakin batzuk (*eskuz*, adibidez) UFak diren. Izan ere, unitate horiek beste hizkuntza batzuetan hitz batez baino gehiagoz osatutako unitateak dira (*a mano*, gaztelaniaz), eta Elhuyar hiztegian *idiom* gisa sailkatzen dira.

Aipatutako gutzia kontuan hartuta, *van Lawickek* (2013: 135) honako hau ondorioztatzen du, Eismannen oinarrituz:

“Considerem, doncs, que la transició entre paraula, paraula composta i unitat fraseològica és fluida, encara que els fraseologismes semblen vehicular significats complexos més sovint que les paraules compostes, i aquestas ho farien amb més freqüència que les paraules lèxiques simples” (Eismann 1995: 99).

Euskararen kasuan ere, kontuan hartu beharrekoa da *van Lawickek* dioen hori.

Hitz kopuruaren goi-mugari dagokionez ere, ez dago adostasunik. Aurrerago ikusiko dugun moduan, *Fleischerrek* ez ditu esatera zaharrak fraseologiaren aztergai kontsideratuko, eta *Burgerrek*, aldiz, dio perpausa dela goi-muga edo “die obere Grenze phraseologischer Wortverbindungen” (*Burger* 2007: 15). Argi dagoena da, *van Lawickek*

(2013: 136) adierazten duen moduan, kasu honetan ere paremia²⁶ eta unitate fraseologikoen arteko mugak ez direla muga zorrotzak²⁷.

Egonkortasuna

Fiedlerrek (2007: 19) “the key feature” bezala definitzen du egonkortasuna, eta Melladok (2004: 153), ildo berean, ondorengo hau dio: “La estabilidad, fijación o petrificación es uno de los rasgos formales definitorios más concluyentes en Fraseología”. Izan ere, UFak *ad hoc* sortutako beste hitz-konbinazio batzuen aldean instituzionalizata daude, bai esanahiari bai egiturari dagokionez; hau da, hiztunok UFa hitzen arteko konbinazio jakin bezala eta esanahi konkretu jakin batekin ezagutzen dugu; horregatik, behin eta berriz erabiltzeko gai gara, eta erabilera hori da, hain zuzen, UFen egitura berezia finkatzen duena.

Egonkortasuna hainbat mailatan aurki daiteke edo beste hitz batzuetan esanda: “(...) la fijación existe en Fraseología de manera pluridimensional” (Mellado 2004: 153). Maila sintaktikoan, UFa osatzen duten banakoen hurrenkera finkoa da. Euskaraz, esate baterako, bi pertsona adiskide min direnean, *hezur eta mami* direla esango dugu, eta ez *mami eta hezur*. Maila lexikoan, bestalde, UFa osatzen duten banakoak ezin dira, besterik gabe, eremu semantiko bereko beste hitz batzuegatik aldatu.

Egonkortasuna beti aipatzen den ezaugarria da, egia da, baina beharrezkoa iruditzen zaigu oinarrizko ezaugarri horrek izan ditzakeen ñabardurak ere aipatzea.

Aldakortasuna eta modifikazioa

Egonkortasuna egonkortasun, onartu behar dugu UFak ez direla hasieran pentsatzen zen bezain zurrinak:

²⁶Aurrerago definituko dugu (ikusi [Sailkapenak](#) azpiatala).

²⁷“Amb tot, la diferenciació entre parèmias i unitats fraseològiques és també una qüestió de grau (...)” (van Lawick 2013: 136).

“En torno a finales de la década de los 70, hubo un giro en los planteamientos generales y el concepto de variabilidad, junto al de ‘textbildende Potenzen’ empezaron a encontrar aprobación, mientras que el de estabilidad fue relativizado por algunos lingüistas (cfr. Černiševa, 1985: 90) hasta el punto de cuestionar la existencia de casos en que no sea posible algún tipo de modificación” (Mellado 2004: 157).

Euskaraz, eskua ematen diogu elkarri agurtzerakoan, baina gure corpusean jasotzen diren beste honako aldaera hauek ere baditugu: *eskua luzatu*, *eskua estutu*, *eskua tinkatu*, *eskua eskaini*, *bostekoa luzatu*, *bostekoa eman*. Burgerrek (2007: 31) alemaneko adibideak ematen ditu:

- *jmdn. auf den Arm/auf die Schippe nehmen*²⁸
- *ein schiefes Gesicht machen/ziehen*²⁹
- *seine Hand /seine Hände im Spiel haben*³⁰

Aldaera horiek, ikus daitekeen bezala, ez dira maila berdinekoak; lehena eta bigarrena maila lexikokoak dira, eta, hirugarrena, berriz, aldaketa morfologikoa da. Lehenengo adibidean, *Arm* hitza *Schippegatik* ordezkatzan da; hau da, izen ordezkapen bat dago. Bigarrenean, aditz desberdinak erabiltzen dira, eta, hirugarrenean, UF horrek singular eta plurala onartzen dituela ikus daiteke. Ondorioz, Burgerri jarraituz esan daiteke:

“Die phraseologische Forschung hat überzeugend klar gemacht, dass Phraseologismen polylexikalische Einheiten von relativer Festigkeit sind. (...) brauchen wir eine flexible Konzeption von Phraseologie, die den Gedanken toleriert, dass man innerhalb eines Phraseologismus stabilere

²⁸“Adarra jo” esan nahi du.

²⁹“Aurpegi txarra jarri” esan nahi du.

³⁰“Zerbaitetan nahastuta egon” esan nahi du.

und weniger stabile Elemente annehmen darf, ohne dass damit sein Status als linguistische bzw. psycholinguistische Einheit verloren ginge” (2007: 31).

Hau da, UFen egonkortasuna ez da ezaugarri absolutua, erlatiboa baizik, eta, erlatiboa den heinean, fraseologia ezingo dugu modu zorrotzean ulertu; fraseologiaren ideia malgu bat izan behar dugu, onartuz, UF baten barruan egonkorrak eta ez hain egonkorrak diren elementuak aurkitu ditzakegula. Melladok, gainera, dio hiztegieta-
ra jotzea nahikoa dela unitate fraseologikoek izan ditzaketen aldaer-
ez jabetzeko³¹. Bestalde, van Lawicken (2013) arabera, corpusaren
linguistikari esker ikusi ahal izan da aldakortasuna pentsatzen zena
baino fenomeno hedatuagoa dela:

“Els estudis amb metodologia de corpus suggereixen que la variació és un fenomen bastant més estès del que solia afirmar-se tradicionalment (vid., per exemple, Barz, 1995; Holzinger, 1998; Moon, 2007; Colson, 2007). Una de les conseqüències en són problemes de codificació lexicogràfica, a causa dels límits d’espai i del ritme habitual amb què s’actualitzen els diccionaris” (2013: 133).

Bestalde, ez dira nahastu behar aipatu berri dugun aldakortasuna eta modifikazioa³² (noizbehinkako aldaketa³³). Gauza bat da, goian

³¹“De este hecho dan cuenta, según Häusermann, las variadas formas de enunciado que ofrecen distintos diccionarios de un mismo FR, con lo cual se comprueba la ausencia de una noción perfectamente perfilada del número y forma de los constituyentes integrantes” (Mellado 2004: 154).

³²Urizarrek sormenezko aldakuntza deitzen die euskaraz (2012: 63).

³³“El término ‘Modifikation’ para designar exclusivamente las variantes ocasionales fue propuesto por Burger et al. (1982: 69) y secundado por Barz (1986: 322; 1987: 319), Kunkel (1991), Korhonen (1992: 50) y B. Wotjak (1992: 133). Černiševa (1980: 308) y Fleischer (1997: 205), por el contrario, prefieren el término ‘okkasionelle Variabilität’ u ‘okkasionelle Varianten’” (Mellado 2004: 161). Lópezek (2002:49) *modificación* deitzen dio, eta Zuluagak (1997:636) desautomatización.

ikusi bezala, UF batek norman finkatuta dauden aldaera konkretu batzuk izatea, eta beste bat UF batek bere oinarri fraseologikoa aldatu eta inongo hiztegitan aurkituko ez dugun UF berri bat sortzea, testuan funtzio jakin bat bete edo efektu jakin bat izan dezan. Gure corpusean, esate baterako, ondorengo adibidea ikus dezakegu:

- “Du kennst ja aber das alte weise Wort: ein Spiegelein in der Hand ist besser als zwei an der Wand” (DSW).

Esaldiaren lehenengo zatian (“Du kennst ja aber da alte weise Wort”: ezagutzen duzu esaera zaharra) esaeraren azalpen metalinguistikoa egiten da (ikusi 6.1.). Bi puntuen osteko “ein Spiegelein in der Hand ist besser als zwei an der Wand” (hitzez hitz: hobe ispilutxo bat eskuan, bi paretan baino) beste honen modifikazioa da: *Ein Spatz in der Hand ist besser als eine Taube auf dem Dach* (hitzez hitz: hobe txolarre bat eskuan, uso bat teilatuan baino).

Burgerrek dioen bezala, haur literaturan ere aurki daitezke modifikazio kasuak. Hona hemen Otfried Preußlerren “Die kleine Hexe”-ko adibide bat:

- “Als er [der Rabe] die kleine Hexe erspäht hatte, fiel ihm ein Stein von der Rabenseele” (Burger 2007: 177)

Kasu honetan idazleak *Seele* beharrean *Rabenseele* erabiltzen du. Hitz batetik hitz elkartu bat asmatzen du, pasarteari umore kutsua emanez.

Gure corpusean ere aurkitu dugu haur eta gazte literaturaren alorrean modifikazio-adibide bat edo beste. Honako hau, esate baterako, SLHtik ateratakoa da, eta, bertan, idazleak *Morgenstund hat Gold im Mund* (“goiztarrari Jainkoak laguntzen dio”) esaera modifikatu duela ikus daiteke.

- “Morgenstund hat Trüffel im Mund”.

Zuluagak “Traductología y Fraseología” artikuluan UFen itzulpenaren inguruko hausnarketa egiten du, eta dio goian aipatutako aldaketak jasan dituzten UFen itzulpena ez dela batere erraza:

“Los casos más problemáticos y, por ende, más incitantes son los de UFs desautomatizadas. Las desautomatizaciones de UFs, sobre todo en textos literarios, constituyen como la poesía casos “intraducibles”, en el sentido de Jakobson y Freud (...). Segmentos de este tipo constituyen un gran desafío a la capacidad de creación (y de resignación) del traductor” (1999: 548).

Irregulartasunak

UFek izan ditzaketen ezaugarri formalekin jarraituz, [Burgerrek](#) (2007: 20-22) irregulartasunak aipatzen ditu alemanaren kasuan. Batzuetan, esate baterako, UFek deklinatu gabeko adjektiboa izaten dute (*auf gut Glück*). Beste batzuetan, UFak izenordez osaturik daude (*es schwer haben*), izenorde horrek aurrekaririk izan ez arren. Eta, azkenik, aditzaren balentziarekin zerikusia duten irregulartasunak aipatzen ditu. UFak irregularrak izango dira aditzaren balentziari dagokionez, aditzak erabilera fraseologikoan eta erabilera librean dituen osagarriak bat ez datozenean. Esate baterako, *fressen* aditzaren osagarriak erabilera librean subjektua eta akusatibo-objektua izango dira (*Otto hat eine Leberwurst gefressen*). Beraz, *an jmdm einen Narren gefressen haben* UFa irregularra da aditzaren balentziari dagokionez, *an jmdm* preposizio-osagarria ezin baita ulertu *fressen* aditzak erabilera librean dituen balentziak kontuan hartuz (*Otto hat an Emma einen Narren gefressen*).

[Urizar et al.](#) lanean (2009), “sintaxi idiosinkratiko” deitzen zaio irregulartasunari. Lan horren egileen arabera, predikatu konplexu batzuen kasuan, lokuzioaren esanahia lor daiteke osagaien esanahiak konbinatuz, eta sintaxi idiosinkratiko hori da, hain zuzen, unitate horiek lokuzio bihurtzen dituen (Urizar et al. 2009: 893). Jartzen duten adibideetako bat *lan egin* predikatu konplexuarena da. Euskaraz, objektu zuzenak determinatzailea behar du, baina “lan egin bezalako hainbat aditzetan, ustez objektua denak ez du mugatzailerik hartzen” (Urizar et al. 2009: 893).

Murrizketak

Murrizketekin amaituko dugu ezaugarri formalen azpiatala. [Burgerren](#) arabera (2007: 20), UFak, irregularrak izateaz gain, murrizketak (*Restriktionen*) dituzte hitz-konbinazio librean aldean, eta anomalia horiek guztiak (irregulartasun eta murrizketei egiten die erreferentzia) idiomatikotasunaren adierazle dira³⁴.

Maila morfosintaktikoan Burgerrek aipatzen dituen murrizketak honako hauek dira: erlatibozko esaldiak ezin sortzea esanahia aldatu gabe (*Das ist alter Kaffee/Das ist Kaffee, der kalt ist*), plurala erabiltzea singularraren ordean eta esanahia mantentzea (*Das ist kalter Kaffee/Das sind kalte Kaffees*), eta aditzaren denbora aldatzea (*Otto hat einen Narren an Emma gefressen/*Otto frisst einen Narren an Emma*).

Maila lexiko-semantikoan, alde batetik, UFen osagaiak beste sinonimo batzuegatik ordezkatzeko orduan sortzen diren murrizketak aipatzen ditu (ikusi [Egonkortasuna](#) azpiatala).

“D. h. während in einer nicht-phraseologischen Wortverbindung die syntagmatische Verknüpfbarkeit von Autosemantika nicht auf einzelne Wörter beschränkt ist, sondern sich auf Paradigmen (semantische Felder o.ä.) von Wörtern bezieht, handelt es sich bei den Idiomen um Paradigmen mit nur einem Element (Grenzfall) oder Paradigmen mit einem sehr begrenzten Inventar” ([Burger 2007: 23](#)).

Bestalde, UFetan bakarrik agertzen diren osagaiez osatuta dauden UFak dira murrizketa lexikoaren adierazle nagusiak³⁵. Burgerrek *unikale Komponente* deitzen die, eta, esan bezala, hitz-konbinazio

³⁴ “Demgegenüber weisen phraseologische Wortverbindungen häufig Irregularitäten auf sowie Beschränkungen (‘Restriktionen’), die über die normalen Regularitäten hinausgehen. Dieser Komplex von Anomalien ist Sympton für die Idiomatizität des Phraseologismus, und somit ist der strukturelle Aspekt der Festigkeit zugleich ein Aspekt der Idiomatizität” ([Burger 2007: 20](#)).

³⁵ “Otro aspecto que demuestra la fijación léxica de las UF es la presencia de

konkretu batean, hau da, UF baten barruan bakarrik existitzen diren elementuak dira. Alemanaren kasuan, [Burgerrek](#) (2007: 23) *gang und gäbe* aipatzen du, non ez *gang* ez *gäbe* ez diren hitz-konbinazio konkretu horretatik kanpo erabiltzen. Horregatik, bi elementu horiek ezingo dira beste batzuekin aldatu, UFaren esanahia aldatu gabe. Euskararen kasuan, [Urizar et al.](#) (2009) lanean honako hau irakur daiteke: “sekuentzia hauetako askotan agertzen diren elementu batzuk ez dira azaltzen beste inongo testuingurutan, eta sarritan zein kategoriatakoak diren zehaztea ere zaila da”. Horrela, *zirt edo zart egin*, *trikun-trakun egin*, *laprast egin* edo *fio izan* aipatzen dituzte.

Dena den, ezaugarri hori –UFak formalki eta semantikoki mugatuta egotea– ez da UF guztietan betetzen, eta, betetzen den kasuetan, ez da indar berdinarekin gertatzen; batzuetan ahulagoak izango dira murrizketak, eta, besteetan, indartsuagoak ([Burger 2007](#): 24).

2.2.2.3 Ezaugarri semantikoak

Idiomatikotasuna edo irregulartasun semantikoa

[Melladoren](#) arabera (2004: 42), UF bat idiomatikoa izango da esanahi fraseologikoa ez datorrenean bat UF hori osatzen duten banakoen esanahiaren batuketarekin; beste modu batera esanda, UFa konposizionala ez denean izango da UFa idiomatikoa³⁶. [Urizar et al.](#) (2009: 892) lanean ere, lokuzioen ezaugarri semantikoak aipatzera koan, ez-konposizional izaera horri egiten diote erreferentzia: “esapide hauetako asko semantikoki ez-konposizionalak dira, hau da, horien interpretazioa nekez egin daiteke hura osatzen duten osagaien

elementos únicos que no pueden ser sustituidos por ningún otro lexema para que ocupen su lugar dentro de la UF. Los elementos únicos son unidades léxicas a las que es difícil asignar un significado en la sincronía actual, ya que no pueden aparecer como lexemas independientes o autónomos en el sistema” ([López 2002](#): 31).

³⁶“Un FR es idiomático cuando el significado fraseológico no coincide con la suma de los significados de los components del FR (cfr. [Burger](#), 1973: 31), es decir, cuando no es composicional” ([Mellado 2004](#): 42).

esanahietatik abiatuta (hanka sartu, begitan hartu, zorri piztua, batez beste, hala ere, behinik behin)”. Burgerrek esanahi fraseologikoa (*phraseologische Bedeutung*) eta hitzez-hitzezko esanahia (*wörtliche Bedeutung*) desberdintzen ditu, eta dio bi horiek bat ez datozenean, orduan izango dela idiomatikoa unitate fraseologikoa zentzu semantikoan³⁷.

Gainera, Juska-Bacherrek (2009: 12) aipatzen duen moduan, idiomatikotasun maila, egonkortasunarekin ikusi dugun bezala, ez da berdina UF guztietan. Oro har, idiomatikotasun oso (*voll-idiomatish*), partzial (*teil-idiomatish*) eta idiomatikoak ez diren (*nicht-idiomatish*) UFen artean bereizi izan da. Ondorengo adibideak jarzen ditu:

- *jmdn an der Nase herumführen*: norbait sudurrean zehar gidatu esan nahi du hitzez hitz, eta esanahi fraseologikoa, aldiz, norbaiti adarra jo litzateke (idiomatikotasun osoa).
- *jmdm vor der Nase wegfahren*: kasu honetan, berriz, *wegfahren* aditzak esanahia mantentzen du (‘alde egin’), eta *vor der Nase* (hitzez hitz: sudurraren aurrean) zentzu fraseologikoan ulertu behar da (idiomatikotasun partziala).

Deskribatu duguna, hala ere, zentzu hertsian ulertutako idiomatikotasuna da (van Lawick 2013: 141), idiomatikotasun semantikoa, alegia. Hala ere, besteak beste, sintaktikoki eta pragmatikoki finakoak direnak ere idiomatikotzat hartzen dira zentzu zabalean³⁸. Ildo horretatik, Taylor (2002) eta Feilke (2004) aipatzen ditu van Lawickek

³⁷“Wenn überhaupt eine Diskrepanz zwischen der phraseologischen Bedeutung und der wörtlichen Bedeutung des ganzen Ausdrucks besteht, dann ist der Ausdruck idiomatisch im semantischen Sinn” (Burger 2007: 31).

³⁸Burgerren (2007) ere ideia bertsua aurkitzen dugu: “Der Begriff “Idiomatizität” wird in der Forschung unterschiedlich weit interpretiert. In einer weiten Konzeption umfasst er einerseits die strukturellen Anomalien, die einen Aspekt der “Festigkeit” ausmachen, andererseits die spezifisch semantischen Besonderheiten, die viele Phraseologismen von freien Wortverbindungen abheben. In einer engeren Fassung meint man nur die semantischen Aspekte” (2007: 31).

(2013: 140-141). Lehenengoak, esate baterako, idiomatikotasun-motak desberdintzen ditu: semantikoa (*to kick the bucket*), formala (*by and large*), pragmatikoa (*How do you do?*) eta diskurtsiboa (*by the way*). **Urizarrek** gaineratzen du ikuspegi zabal hori dela azken aldiko lanetan gailentzen ari dena. Horren haritik, Baldwin eta Kim-ek (2010) proposatzen dituzten idiomatikotasun-motak aipatzen ditu. **Urizar** beraren hitzetan:

“bere [Baldwin eta Kim-en] *idiomatikotasun sintaktikoa* gure ‘finkapen’aren pareko litzateke, *idiomatikotasun estatistikoak* ‘maiztasun’ari (eta instituzionalizazioari) egiten dio erreferentzia eta *idiomatikotasun semantikoa* gure ‘konposizionaltasun eza’ren kide litzateke; bestalde, *konposizionaltasun lexikala* gertatzen da UFaren osagairen bat hizkuntzaren ohiko lexikoiaren parte ez denean (*ad hoc*), eta *konposizionaltasun pragmatikoa*, berriz, egoera eta testuinguru multzo jakin batzuekin loturik dauden UFen ezaugarria litzateke (*egun on*)” (2012: 66).

Aipatu berri dugun ezaugarri hau, idiomatikotasunarena, da ezaugarri semantikoei dagokienean maizen aipatzen dena. Hala ere, jarraian, UFak deskribatzeko baliagarri gerta dakizkigukeen beste konzeptu batzuk ere jaso nahi izan ditugu.

Irakurketak

Ikuspuntu semantikotik, UFen irakurketa (*Lesarten*) kopuruaren arabera ere sailkatu daiteke fraseologia (**Burger 2007**: 62). Hone-la definitzen du irakurketa terminoa Burgerrek: hiztunak, testuak produzitu eta barneratzerakoan, hitz-konbinazio konkretu bati egokitu diezazkiokeen esanahiak³⁹. Burgerren arabera, UFek irakurketa bakarra edo bi irakurketa izan ditzakete, eta, hori kontuan izanik, honako sailkapen hau proposatzen du:

³⁹“(…) die möglichen semantischen Realisationen einer bestimmten Wortverbindung (...)” (**Burger 2007**: 62).

1. Irakurketa bakarra

- Idiomatikoak ez diren hitz-konbinazioak: *garaipena lortu*.
- Idiomatikotasun maila oso altua duten hitz-konbinazioak, hitz-konbinazioetan bakarrik erabiltzen diren osagaiez (*unikale Komponente*) osatuak daudenak, alegia (ikusi [Murrizketak](#) azpiatala).

2. Bi irakurketa “aurkari”: Ez da posible bi irakurketak testu-inguru edo egoera komunikatibo berdinean egitea. Irakurketa fraseologiko eta hitzez-hitzezkoaren arteko loturaren arabera, honako aukerak proposatzen ditu [Burgerrek](#) (2007: 63):

- Bi irakurketen artean lotura homonimoa dagoenean; hau da, bi irakurketek ez dute elkarrekin zerikusirik. Adibidez: *jmdm einen Korb geben*.
- Bi irakurketen artean lotura metaforikoa dagoenean. Hauei lokuzio metaforiko (*metaphorische Idiome*) deitzen die [Burgerrek](#) (2007: 63). Adibidez: *burua hautsi*.

3. Bi irakurketa: aldi berean egiten direnak edo egin daitezkeenak.

- UF zinetikoak (*Kinegramme*)⁴⁰: Alde batetik, keinua edo gorputzarekin egiten den mugimendua (hitzez-hitzezko esanahia) desberdindu behar da, eta, bestetik, keinu edo mugimendu horrekin adierazten dena (esanahi fraseologikoa). [Melladoren](#) hitzetan (2004: 34): “En los SO [somatismos] cinéticos se distinguen dos niveles semánticos. El primero es el nivel literal, que resulta de la suma de los significados no transformados de los constituyentes fraseológicos. El segundo es el significado simbólico o fraseológico, que

⁴⁰“(…) Ausdrücke, die ein außersprachlich kommunikatives Verhalten repräsentieren. Das non-verbale Verhalten besteht aus Mimik, Gestik und Paralinguistik” ([Segura 1998: 77](#)).

ha experimentado una translación semántica en su conjunto”. Testuinguruaren arabera, bi esanahiak aktibatzen dira edo bakarra. Ikus dezagun adibide bat:

- “Und zum Schluß wird er sich hochbefriedigt zurücklehnen und die Hände reiben, weil ihm ein so wunderbar trauriges Lied in c-Moll gelungen ist” (DDL). Alemanez, eskuak igurtzi (*sich die Hände reiben*) somatismo zinetikoa erabiltzen da norbait besteen zoritxarragatik pozten denean, edo, besterik gabe, poztasuna adierazteko. Adibide horren kasuan, nahiko argi ikusten da nola aktibatzen diren bi esanahiak: aita atzeraka botako da, eta, pozaren pozez, *eskuak igurtziko* ditu, abestia horren ongi atera zaiolako.
- UF sasi-zinetikoak (*Pseudokinegramme*): “A lo largo del tiempo y a causa de las transformaciones que acompañan la evolución de cada sociedad, ya no es posible la doble lectura en muchos de los SO cinéticos con un significado secundario de fuerte componente ritual, siendo actualizado en el habla sólo el nivel del significado fraseológico global. En este caso ya no estamos ante SO auténticamente cinéticos, sino pseudocinéticos” (2004: 35). Burgerrek *sich die Haare raufen* aipatzen du adibide gisa, zeinak hitzez hitz, ‘ileetatik tira egin’ esan nahi duen, eta fraseologiko-ki, testuinguruaren arabera, amorrúa, etsipena adierazten duen. *Raufen* aditza zaharkitua dago alemanez eta horrek eragiten du hitzez-hitzezko irakurketa ez egin ahal izatea (Mellado 2004: 35). Hona hemen adibide batzuk:
 - “Der Bärenwirt raufte sich voller Verzweiflung das Haar und der Schmied rang die Hände” (BUS).
 - *Die Hand ins Feuer legen* (hitzez hitz: eskua sutan jarri): “Expresión referida a los juicios medievales en los que el acusado, para probar su inocencia, tenía que meter la mano en el fuego durante un rato. Si no

sufría quemaduras, o éstas no eran de consideración, quedaba probada su inocencia” (Mellado 2004: 35): somatismo sasizinetikoa da, bere jatorria, oro har, ezezaguna delako.

– *Das Herz auf der Zunge tragen*: Hiperbole bat da.

Dena den, beti ez dago horren argi somatismo bat zinetikoa den ehuneko ehunean edo sasi-zinetikoa den. Ezinbestekoa da testuinguruari erreparatzea⁴¹.

Bestalde, itzulpenak aztertzerako orduan, kasu interesgarriak daudela konturatu gara. Batzuetan, esate baterako, sorburu-eta xede-hizkuntzan gauza bera adierazteko mugimendu desberdinak erabiltzen dira⁴². Hori da, gure kasuan, goian aipatutako *sich die Hände reiben*en kasua. Esan bezala, alemanez, poza adierazteko, eskuak igurtzi daitezke. Euskaraz, Intzan, *eskuak berotu* somatismo zinetikoa daukagu ‘poza erakutsi’ esanahiarekin. Sistema mailan baliokideak dira, baina hitz-konbinazio horren erabilera corpusetan aztertzerako orduan konturatzeko gara, ez XXECE corpusean ez ETC corpusean ez dela *eskuak berotu* poztasuna adierazteko erabiltzen. Aldiz, inongo hiztegitan jasotzen ez den *eskuak igurtzi* bai⁴³. *Sich die Hände reiben* 12 aldiz agertzen da gure corpusean, eta, kasu guztietan, *eskuak igurtzi*-rekin itzuli da.

Sistema mailako baliokideei dagokienez, ondorengo hau dio Melladok (2004: 37): “Al estudiar con profundidad los SO pseudocinéticos, nos llama la atención que son los que menos corres-

⁴¹“A pesar de los rasgos característicos de cada grupo, no siempre resulta fácil trazar a priori una línea divisoria entre SO cinéticos auténticos y pseudocinéticos y sólo el contexto puede determinar si el significado activado en el discurso es el literal o el simbólico” (Mellado 2004: 37).

⁴²“Por otra parte, comprobamos que muchos SO cinéticos, a pesar de tener carácter supranacional, pueden presentar ciertas discrepancias culturales en la convencionalización de determinados gestos” (Mellado 2004: 33).

⁴³Mikro mailako azterketan (6.5.3) UF horren itzulpenaren azterketa sakonagoa egingo dugu.

pondencias presentan en otras lenguas. De esta manera, SO alemanes, como *sich kein Bein ausreißen* o *in die Hände spucken*, no encuentran equivalencia en español, mientras que en la mayoría de los casos de SO cinéticos auténticos suele existir una correspondencia en español (...).”

4. Bitariko UFak: Idiomatikotasunari dagokionez, partzialak dira hauek. UF hauetan osagai batek irakurketa bakarra dauka eta beste batek bi (adibideetan azpimarratuta dagoenak), eta azken osagai horretan, bi irakurketen arteko lotura metaforikoa izan ohi da. Ikus ditzagun [Burger](#)-en (2007: 66) adibideak:

- *aus vollem Halse lachen/singen*: ‘ganz laut lachen/singen’
- *frieren wie ein Schneider*: ‘sehr frieren’
- *Bauklötze staunen*: ‘sehr staunen’
- *sich die Lunge aus dem Hals rennen*: ‘bis zur Erschöpfung rennen’

2.2.2.4 Ezaugarri pragmatikoak

[Zuluaga](#) (1997), [Segura](#) (1998) eta [van Lawicke](#) (2013)⁴⁴ esandakoa kontuan hartuta, honako bi ezaugarri edo funtzio hauek deskribatuko ditugu jarraian: UFen alderdi konnotatiboak eta ezaugarri erretorikoak.

Ezaugarri konnotatiboak

Konnotazio-mota desberdinak daude. Ikuspuntu soziolinguistikotik, esate baterako, marka diatopiko, diafasiko eta diastratikoak desberdindu ditzakegu. Lehenengoek UFaren jatorri geografikoari

⁴⁴[Zuluagak](#) UFen funtzio gisa aurkezten ditu, [Segurak](#) alemana eta gaztelaniaren arteko alderaketa-irizpide gisa eta [van Lawicke](#) UFen adierazkortasunaren (*expressivitat*) baitan deskribatzen du alderdi hau. Guk ezaugarri pragmatiko gisa deskribatzea erabaki dugu.

buruzko informazioa ematen digute. Adibidez, katalanaren eraginez (*fer campana*) erabiltzen den *hacer campana* lokuzioa ('piper egin') eremu geografiko konkretu bati lotua dago. Bigarrenak, diafasikoak alegia, maila estilistikoari, erregistroari dagozkionak dira. [Segurak](#) (1998: 68) alemaneko eta gaztelaniako hiztegi elebakarrak, eta alemana-gaztelera hiztegi elebidunak aztertu ondoren, UFeK izan ditza-keten honako marka diafasikoak aurkitu ditu: *literarisch / literario, gehoben / formal, neutral / neutro, umgangsprachlich / colloquial / familiar, salopp / popular, derb / vulgär / vulgar*. Hiztegitzaren ildotik jarraituz, esan, gainera, asko direla ([Zuluaga 1997](#): 634; [López 2002](#): 45-46; [Segura 1998](#): 69) hiztegien arteko kriterio adostasun ezaz kexu direnak, UFei marka hauek ezartzerako orduan. Hirugarrenik, marka diastratikoak, hots, soziolektoaren araberrakoak ditugu. Esate baterako, alemaneko *keinen Bock haben* gazte-hizkerakoa da.

Bestalde, hitzunen jarrera emozionalarekin lotutako konnota-zioak ditugu. Izan ere, [Kollerrek](#) (2007: 608) dioen bezala: “viele Phraseme verbalisieren tabuisierte Denotate auf verhüllend-euphemistische, verhamlosende, mildernde Art und Weise (Hessky 2001), andere wiederum haben einen humoristisch-ironischen Beiklang (Fleischer / Michel / Starke 1993, 154 ff.)”. Hiztegitzara bueltatuz, [Segurak](#) (1998: 72) goian aipatutako hiztegitan honako marka hauek aurkitu ditu: *scherzhaft / humorístico, ironisch / irónico, verhüllend / eufemístico, abwertend / despectivo, vertraulich / confidencial, pathetisch / patético*.

Ezaugarri erretorikoak

Aliterazioa, errima, errepikapena... bezalako ezaugarri erretorikoek UFen adierazkortasuna nabarmentzen dute. Aliterazioaren adibide gisa honako esatera zahar hau aipatzen du, esate baterako, [van Lawicke](#) (2013: 150): *Morgenstund hat Gold im Mund*.

2.2.3 Sailkapenak


Ikusi dugun bezala (ikusi 2.2.1), fraseologiaren ikerketak izan duen garapena ez da berdina izan historian zehar eta lekuaren arabera. Korrante bakoitzak bere irizpideak eta ezaugarriak erabili ditu UFak definitzerako orduan. Horren ondorioz, korrontearen arabera, fraseologia ulertzeko modu desberdinak sortu dira.

Hizkuntzalari sobietarrei dagokienez, aitzindariak izan dira fraseologiaren ikerketan. XIX. mende erditik aurrera jada, unitate fraseologikoek hitz anitzeko unitateen (*Wortverbindungen*) barruan duten estatus bereziaz konturatzen hasi ziren, eta, horrekin, teoriziorantz lehen pausoak ematea lortu zuten. Vinogradoven (1946) lanekin lortu zuten, hizkuntzalaritza sobietarraren barruan, fraseologia azpidiziplina independente gisa ezartzea (Fleischer 1982: 4-5).

Hizkuntzalari amerikarrentzat, berriz, idiomatikotasunaren irizpidea izan da, denbora askoan zehar, UFak definitzeko kriterio bakarra. Ikerketa sobietar eta europarren eraginak, hala ere, idomatikoak ez diren unitateak ere aintzat hartzera bultzatu ditu.

Hizkuntzalari europarren eta, batez ere, alemanen kasuan, Pragako Eskolako zentro eta periferiaren modeloa unitate fraseologikoak definitzeko eredu bihurtu zen. Eredu edo teoria horren arabera, zentroan kriterio edo ezaugarri guztiak betetzen dituzten unitateak egongo lirateke; hau da, finkoak eta idiomatikoak direnak. Periferian, aldiz, finkoak bakarrik direnak. Beste hitz batzuetan: “desde la primera edición de la monografía de Fleischer (1997[1982]), este concepto ha sido utilizado para separar los fraseologismos fijos e idiomáticos (el centro), de aquellos que sólo presentan fijación (la periferia)” (Corpas 2003c: 128). Hain zuzen, Pragako Eskolako kontzeptu horiek fraseologian aplikatzen dituen lehena Fleischer (1982) da. Hasiara batean polemika handia sortu zuen eredua izan arren, izan zituen jarraitzaileak, Wotjak (1983) eta Larreta (2001), besteak beste. Pragako Eskolako jarraitzaile horientzat, multzoen (kolokazioak, lokuzioak...) arteko mugak lausoak dira, eta horregatik proposatu zuten, hain zuzen, UFak sailkatzeko modu hori.


Wotjakek, esate baterako, zentroan kokatzen ditu lokuzio idiomatikoak, eta, periferian, idiomatikotasunik gabeko UFak. Fleische-
rrek egiten duen bezala, perpaus mailako UFak (esaera zaharrak...) beste diziplina baten esku uzten ditu, paremiologiaren esku, alegia. [Wotjakek](#) honela definitzen du azken hori: “Disciplina de carácter universal que se apoya en consideraciones folklóricas, etnológicas y antropológicas de diversa índole” (1983:62). Behean ikusten den eskema Wotjaketik (1983:70) jaso da⁴⁵:



2.1. figura: Wotjak-en eskema

Ikerketa fraseologikoen esparruan asko aipatzen den beste sailkapen bat [Burgerrena](#) da (2007: 36-58). Oinarrizko sailkapen bat proposatzen du, alde batetik, eta klase berezi batzuk, bestetik. Ikus ditzagun, lehenengo eta behin, oinarrizko sailkapenaren azpimultzo nagusiak:

⁴⁵Wotjakek (1983:70) berak dioen bezala, 2.1 figurako eskemak “no representa la totalidad de las UF ni las reproduce en toda su diversidad”.



2.2. figura: Burger's basic classification

Lehenengo hiru azpimultzoak egiterako orduan, UFek komunikazioan betetzen duten zeinuaren funtzioan (*Zeichenfunktion*) oinarritzen da Burger. Fraseologismo erreferentziales (*referentielle Phraseologismen*) errealitateko objektu, egoera edo prozesuei egiten die erreferentzia. Fraseologismo estrukturales (*strukturelle Phraseologismen*) multzorik txikiena osatzen dute, eta horien funtzioa erlazio gramatikalak sortzea da. Atal honetan, bi adibide besterik ez ditu ematen Burgerrek, *in Bezug auf* eta *sowohl... als auch...*, alegia. Hirugarren multzoko fraseologismoek, komunikatiboek (*kommunikative Phraseologismen*), egoera komunikatiboetan funtzio konkretuak betetzen dituzte. Multzo hori osatzen duten UFentzat *Routineformel* (hemendik aurrera “Ohiturazko formula”) terminoa nahiko finkatua dago. Horiei esker, behin eta berriz gertatzen diren egoera komunikatiboek aurre egiten diegu. Sintaktikoki, multzo oso heterogeneoa da (bi hitzez osatutakoetatik, perpaus osoak osatzen dituztenetaraino). Esate baterako: *guten Morgen* (“egun on”), *auf Wiedersehen* (“ikusi arte”), *pass mal auf* (“begira”), *wir sind der Auffassung* (“gure ustez”)...

Kriterio semantikoan oinarrituta, fraseologismo erreferentzialak bi multzotan banatzen ditu. Alde batetik, Gläserren (1986) terminologia erabiliz⁴⁶, nominatiboak (*nominative*) ditugu. Hauek objektu eta gertaerei egiten diete erreferentzia. Proposizionalak (*propositional*), aldiz, objektu eta gertaerei buruzko adierazpenak dira. Baina, agian, bata eta bestearen arteko bereizketa argiago ikusten da ikuspuntu sintaktikotik. Nominatiboak perpausaren mailatik beherako unitate sintaktikoak (*satzgliedwertig*) dira, eta proposizionalak perpaus mailakoak (*satzwertig*). Kriterio sintaktikoan oinarritutako banaketa hori Vinogradovek 1947. urtean jada proposatu zuen (Iñesta eta Pames 2002: 3).

Perpausaren mailatik beherako UFak irizpide semantikoaren arabera, hots, idiomatikotasun mailaren arabera banatzen ditu. “Es lassen sich dabei drei hauptsächliche Typen unterscheiden, deren Abgrenzung – entsprechend dem graduellen Charakter des Kriteriums Idiomatizität – nicht strikt sein kann, zwischen denen vielmehr fließende Übergänge bestehen” (Burger 2007: 37). Eta idiomatikotasunaren mailaz mailako izaera hori dela eta (ikusi 2.2.2.3 azpiatala), multzo bat eta bestearen arteko bereizketa ezin da bereizketa zorrotz gisa ulertu⁴⁷. Hiru multzoak honako hauek dira:

Kolokazioak (*Kollokationen*) Idiomatikoak ez diren UFak sartzten ditu Burgerrek multzo honetan. Ikertzaile sobietarrek termino ugari erabiltzen dituzte kolokazioez hitz egiten dutenean, eta azpimultzoak egiten dituzte. Burgerrek nahiago du idiomatikoak ez diren UFak multzo bakar batean sartu, eta guztiei kolokazio deitzea. Alemaneko *sich die Zähne putzen* (‘hortzak garbitu’) kolokazio-adibide garbia da. Idiomatikotasunik gabeko eta alemanez finkatuta dagoen hitz anitzeko hizkuntza-uni-

⁴⁶“The point of departure of Gläser’s classification (...) is a basic subdivision into word-like PUs (nominations) and sentence-like PUs (propositions)” (Fiedler 2007: 37).

⁴⁷Gläserrek, nominatiboen barruan, *restricted collocations* eta *idioms* bereizten ditu, eta Burgerrek bezala “she admits, however, that there are fuzzy boundaries between restricted collocations and idioms” (Fiedler 2007:37).

tatea da; esate baterako, **sich die Zähne waschen* edo **sich die Zähne reinigen* hitz-konbinazioak kolokazio okerrak lirateke, nahiz eta semantikoki berdina esan nahi.

Lokuzio partzialak (*Teil-Idiome*) Idiomatikotasun maila partziala duten UFek osatzen dute multzo hau. Ikertzaile anglosaxoiek kolokazioen azpimultzo gisa ikusten dituzte. [Burgerrek](#) (2007:38) *kill time* ('denbora pasatu') adibidea ematen digu, non *time*-ek –oinarriak– bere kanpoko esanahia mantentzen duen, eta *kill*-ek –kolokatiboak– hedadurazko esanahia hartzen duen.

Lokuzioak (*Idiome*) Idiomatikotasun gradu altua duten UFak.

UF proposizionalak idiomatikotasunaren kriterioaren arabera sailkatu daitezke. Hala ere, Burgerren ustez, kriterio horri jarraituz gero, esaera zaharren multzoa zatikatuta geratuko litzateke. Esaterako, alemaneko bi esaera zahar hauek *Der Apfel fällt nicht weit vom Stamm* ('nolako enborra, halako ezpala') eta *Durch Schaden wird man klug* ('ikasteko, behin eta berriz erori beharra dago') ezingo lirateke multzo berean kokatu, lehena idiomatikoa delako, eta, bigarrena, aldiz, ez. Horregatik, Burgerrek, ikerkuntzan dagoeneko tradizioa duen irizpideari jarraituz –irizpide sintaktikoa eta linguistiko testuala, alegia–, bi azpimultzo proposatzen ditu: perpaus finakoak (*feste Phrasen*) eta formula topikoak (*topische Formeln*).

Perpaus finakoak testuinguruari lotuak dauden UFak dira, horiek beren baitan duten elementu baten bitartez edo *ad hoc* sortutako elementuen bidez. Lau azpimultzo bereizten ditu, eta kontuan hartzen du hauen arteko bereizketa ez dela beti zehatz-zehatza:

- Elementu anaforiko edo kataforikoen bitartez egoerari edo solaskideak esandakoari erreferentzia egiten dieten UFak. Adibidez: *das ist ja die Höhe!* ("hori mundiala da!").
- Bigarren pertsonako izenordeen bitartez solaskideari erreferentzia egiten dieten UFak. Adibidez: *drei mal darfst du raten!* ("ezetz asmatu!". Hitzez hitz: hiru aukera dituzu asmatzeko).

- *Ad hoc* sortutako elementuen bidez (adberbioak...) testuinguruari erreferentzia egiten dieten UFak. Adibidez: *Jetzt ist das Eis gebrochen*. (“Hautsi da izotza”. Hitzez hitz: Orain izotza apurtu da).
- Subjektu, aditz mugatu (*finites Verb*) eta hutsune (*Leerstelle*) batez osaturik dauden UFak. Hutsune hori eguneratzen (*Aktualisierung*) denean sortzen da testuinguruarekiko lotura. Adibidez: *jmdm. fällt ein Stein vom Herzen*. (“Norbaiti pisu bat burutik kendu”. Hitzez hitz: norbaiti harri bat erori zaio bihotzetik).

Burgerrek onartzen du ohiturazko formula eta perpauis finkoen arteko bereizketa ez dela beti erraza. Perpauis finkoak sintaktikoki definituta daude (perpauis mailakoak dira), eta ohiturazko formulak, berriz, betetzen duten funtzioaren arabera definitzen dira; horrek esan nahi du, goian aipatu bezala, sintaktikoki oso heterogeneoak direla, hots, perpauisaren mailatik beherako unitateak eta perpauis mailakoak aurkituko ditugula. Beraz, perpauis finko eta ohiturazko formulen artean gurutzaketa esparru bat (*Überschneidungsbereich*) dagoela onartzen du Burgerrek.

Formula topikoen kasuan, testuan duten autonomia aipatu behar da, hau da, testuinguru bati loturik egon gabe ere ulertzen dira. Goi-ko eskeman ikusi dugun bezala bi formula topiko desberdintzen ditu Burgerrek:

Atsotitzak (*Sprichwörter*) *Morgendstund hat Gold im Mund* (Garteren sareko hiztegian agertzen den euskal baliokide bat: “Goizean gox jagiten danai, Jangoikoak lagunketautso”) (<http://www.ametza.com/bbk/htdocs/garatec.htm>).

Ageriko formulak (*Gemeinplätze*) *Was man hat, das hat man* (“Daukaguna daukagu”), *was sein muss, muss sein* (“egin beharreakoa, egin egin behar da”), *man lebt nur einmal* (“behin bakarrik bizi gara”).

Ageriko formulek jakinak diren gauzak, bistan direnak, adierazten dizkigute. Ikuspuntu komunikatibotik, ez dira erabiltzen begi bistakoak diren gauzak adierazteko, ekintzak zuritu edo baloratzeko baizik. Atsotitzek, aldiz, irakaspen bat eman nahi izaten digute.

Goian aipatu bezala, oinarrizko sailkapen horretaz gain, [Burgerrek](#) (2007: 45) bederatzi *spezielle Klassen* edo klase berezi desberdintzen ditu, oinarrizko sailkapenean lekurik ez dutelako edo sailkapen horretako hainbat multzotan sar daitezkeelako. Hurrengo lefroetan, klase berezi horiek aipatu eta adibidez hornituko ditugu, beste ikerketa-lan batzuetan klase hauetako batzuk ikergai gisa erabili dituztelako (ikus [Richter-Vapaatalo 2007](#)), eta guk ere erabiliko ditugulako:

Errepikapen formulak Hitzen errepikapenean oinarritzen den eredu baten arabera osatuta daude. Esate baterako: *von Mann zu Mann* (“gizonik gizon”).

UF-pareak, formula bikiak Errepikapen formula berezi gisa ikusten ditu Burgerrek. Katgoria bera duten bi hitz preposizio edo juntagailu bidez loturik daudenean sortzen dira. Adibidez: *klipp und klar* (“argi eta garbi”).

Konparazioak Hauek ere errepikapen formula berezi gisa ikusten ditu Burgerrek. Konparazio bat egon behar da hauek sortu ahal izateko. Esate baterako: *frieren wie ein Schneider* (hitzez hitz: jostun batek adina hotz izan; hau da, “hotzak akabatzen egon”).

UF zinetikoak Hitzezkoak ez diren portaerak hitzez jasotzean sortzen diren UFak. Adibidez: *die Achseln zucken* (“bizkarrari eragin”)⁴⁸.

Aipuak Jatorri ezaguna duten UFak dira hauek. Esate baterako: *Sein oder Nichtsein, das ist hier die Frage* (“Izan edo ez izan, hor dago koxka”).

⁴⁸Sakonago aztertuko ditugu UF zinetikoak [6.2.1](#) azpiatalean.

Autore-UFak Literaturan garrantzitsuak dira. Testu konkretu batean, esapide polilexiko bat hitz anitzeko hizkuntza unitate bihurtzen denean gertatzen da. Autoreak sortutako fraseologismo horrek testu konkretu horretan bakarrik izango du zentzua.

UF-onimikoak Izen berezien funtzioa betetzen dute. Esate baterako: *Das Rote Kreuz* (“Gurutze Gorria”).


Termino fraseologikoak Espezialitate hizkeretako terminoak dira: *in Konkurs gehen* (“porrot-aitorpena”).

Klixek Eslogan gisa funtzionatzen duten UFak dira (van Lawick 2006: 70). Alemaniako egunkarietan sarri aurkitzen den honako adibide hau ematen digu Burgerrek: *Schritt in die richtige Richtung* (hitzez hitz: norabide egokian egindako urratsa).

Gloria Corpasen sailkapena izango da aurkeztuko dugun azkena, eta guretzat interesgarria planteatzen duen moduagatik. Izan ere, proposatzen duena zera da (Corpas 2003b: 134): “(...) establecer unos criterios objetivos que pudieran servir de base para la clasificación de unidades fraseológicas en las distintas lenguas”. Bestalde, garrantzitsua iruditzen zaigu Corpasen sailkapena aurkeztea, zeren, euskaraz fraseologiaren inguruan egin diren lanetan (ikusi Altzibar 2004; Altzibar et al. 2011a; Esnal 2001), sailkapen hori hartzen da oinarri gisa.

Corpasek hiru esferen sailkapena proposatzen du bi irizpidetan oinarrituz: enuntziatua (UFek hizketako egintzak osatzeko aukera ematen duten ala ez) eta finkapena (norman, sisteman edo hizketan). Kolokazioek osatzen dute lehenengo esfera; hau da, araeuan edo erabileran bakarrik finkatuta dauden unitateek, edo, beste hitz batzuetan: “sintagmas completamente libres a los que el uso les ha conferido cierto grado de restricción combinatoria” (Corpas 2003b: 135). Bigarren esfera lokuzioek osatzen dute, sisteman finkatuta dauden unitateek. Ez kolokazioek ez lokuzioek ezin dute beraien kabuz enuntziaturik sortu, ezta hizketako egintzarik (*acto de habla*) osatu

ere; beste era batera esanda, komunikazio egintza bat osatzekotan, diskurtsoko beste elementu batzuekin elkartu beharra daukate. Hirugarren esferakoak, enuntziatu fraseologikoak, aldiz, hizketan finkatuta daude, eta gai dira, hitzak berak dioen bezala, euren kabuz bai enuntziatuak sortzeko bai hizketako egintzak osatzeko. Hona hemen, eskematikoki, Corpasek (1997) proposatzen duen sailkapena:



2.3. figura: Corpas-en sailkapena

Esfera horietako bakoitzerako azpisailkapenak proposatzen ditu Corpasek. Kolokazioak, Benson eta al. (1986) eta Hausmannen (1989) oinarrituta, kriterio gramatikalaren arabera sailkatzen ditu, hots, kolokazioko elementuen arteko erlazio sintaktikoaren arabera. Horrela, sei azpimultzo desberdintzen ditu:

- Aditza + Izena (subjektua): *estallar una guerra*
- Aditza + (Preposizio) + Izena (objektua): *poner a prueba*
- Izena + Izenondoa/Izena: *viaje relámpago*
- Izena + Preposizioa + Izena: *un diente de ajo*
- Aditza + Aditzondoa: *desear fervientemente*
- Izenondoa (edo izenondo funtzioa duten partizipioak) + Aditzondoa: *relacionado estrechamente*

Altzibarrek (2004: 388), goian aipatu bezala, Corpasen kolokazioen taxonomian oinarrituz, euskarazko kolokazioen behin-behineko sailkapen-saiakera bat egiten du. Oinarria Corpasen sailkapena bada

ere, azpimarratzen du euskal kolokazioen taxonomia euskal gramatika-kategorien berezitasunak kontuan hartuta egin behar dela. Horrela, kolokazioaren oinarriaren arabera hiru multzo nagusi bereizten ditu: izena dutenak oinarri, aditza dutenak oinarri eta izenondoa dutenak oinarri; multzo horietako bakoitzak, era berean, azpimultzoak ditu.

Beste aukera bat –hizkuntzalaritza errusiarrean erabilgarritasun handia izan duena– kolokazioak kriterio semantikoaren arabera sailkatzea litzateke. Corpasek (2003a: 137) dio, gainera, itzulpengintzan eta hiztegegintza elebidunean oso baliagarriak direla kriterio semantikoan oinarritutako sailkapenak. Melčuken Esanahi-Testu Teoriako (*Meaning Text Theory*) funtzio lexikalek zeresan handia izan dute hiztegegintzan: “In order to describe collocations in a rigorous, systematic, and exhaustive way, Meaning-Text Theory proposes the apparatus of Lexical Functions” (Melčuk 1998: 31). Teoria horrek, alde batetik, kolokazioaren oinarria (semantikoki elementu autonomoa), eta, bestetik, kolokatiboa (semantikoki menpeko elementua) desberdintzen ditu. Kolokatiboaren esanahia oinarriaren arabera izango da. Sailkapena kolokazioen funtzio lexikalaren arabera egiten da, eta 60 bat funtzio desberdintzen dira.

Bigarren esferako unitate fraseologikoak ere, hots, lokuzioak, kriterio gramatikalaren arabera sailkatzen ditu Corpasek. Honako zazpi lokuzio-mota hauek desberdintzen ditu, sintagmako nukleoaren eta horrek perpausean duen funtzioaren arabera:

- Izen-lokuzioak (funtzioa: substantiboa edo izen-sintagma): *pe-so pesado*
- Adjektibo-lokuzioak (funtzioa: atribuzioa eta predikazioa): *cor-to de medios*
- Adberbio-lokuzioak (funtzioa: osagarri zirkunstantzial edo perpaus modifikatzailea): *a la chita callando*
- Aditz-lokuzioak (funtzioa: aditz-sintagma): *ser el último mono*

- Preposizio-lokuzioak (funtzioa: preposizio-sintagmako nukleo bezala funtzionatzen dute eta ez dira gai beren kabuz sintagmak osatzeko): *gracias a*
- Lokuzio konjuntiboak (ez dira gai beren kabuz sintagmak osatzeko, ezta horien nukleo bezala funtzionazeko): *ya... ya...*
- Lokuzio klausalak (sintagma bat baino gehiagoz osaturik daude; horietako batek gutxienez aditz-sintagma izan behar du. Subjektuz eta predikatuz osatuak egon arren, ez dute perpau-sik osatzen, diskurtsoan, osagaien bat eguneratu behar delako): *salirle (a alg.) el tiro por la culata*


Kasu honetan ere, sailkapen gramatikala baino harago, beste taxonomia batzuk posible dira. Kriterio semantikoaren arabera, bi motatakoak izan daitezke. Alde batetik, lokuzioak sortutako irudiaren arabekoak. Irudi horietako bat, adibidez, giza gorputzarena izan daiteke (*meter la pata* esaterako). Giza gorputza irudi gisa erabiltzen duten lokuzioak “somatismo” deitzen dira (ikusi 6.2.1). Corpasek dioen bezala (2003a: 138), “aunque por el momento no se dispone de una taxonomía completa, esta línea de investigación se presenta como una alternativa interesante desde la semántica cognitiva (Lakoff y Johnson, 1989; Lakoff, 1987)”.

Bestalde, aditzera ematen den kontzeptuaren arabeko sailkapen semantikoak ditugu. Kontzeptu horietako bat “hiltzea” izan daiteke, eta eremu semantiko horretan sartzen den UF bat gaztelaniako *estirar la pata* litzateke. Hemen ere, fraseologia errusiarrak lan handia egin du, eta, estatu espainiar barruan, katalanak izan dira aitzindari (Rodríguez-Vida 1997).

Hala ere, Corpas (2003a: 138) ezkorra da azken sailkapen horri dagokionez: “Este tipo de clasificación, no obstante, resulta poco sistemática, ya que depende, en gran medida, de la noción de campo semántico que se siga y los descriptores que se establezcan”.

Hirugarren esferakoentzat, enuntziatu fraseologikoentzat, bi azpimultzo proposatzen ditu Corpasek: paremiak eta ohiturazko formu-

lak. Bi multzo horietako bakoitzerako beste azpisailkapen bat proposatzen duen heinean, hirugarren esfera honen adierazpen eskematikoa aurkeztuko dugu, lehenengo, eta, ondoren, azaldu egingo dugu:



2.4. figura: Hirugarren esferako sailkapena

Paremiak bi ezaugarritan bereizten dira ohiturazko formuletatik. Lehenengoak autonomoak dira testu mailan, eta esanahi erreferentziala dute. Bigarrenak, aldiz, ez dira autonomoak, eta, esanahiari dagokionez, soziala, adierazkorra edo diskurtsiboa izan daiteke.

Paremiak sailkatzerako orduan, Corpas (2003a: 143) Arnauden (1991) oinarritzen da. Atsotitzak dira Corpasen (2003a: 144) us-tez “las paremias por excelencia”; lexikalizazioa, autonomia sintaktikoa eta autonomia testualaz gain (paremia guztiek betetzen dituzten ezaugarriak), egi orokorreko balioa (*valor de verdad general*) eta izaera anonimoa (*carácter anónimo*) dutelako. Balio bereziko enuntziatuek (*enunciados de valor específico*) ez dute egi orokorreko balioaren kriterioa betetzen (*haz el amor y no la guerra, España es diferente*, esate baterako), eta aipuek (*citas*) ez dute izaera anonimoaren kriterioa betetzen, horien jatorria ezaguna delako.

Ohiturazko formulen azpisailkapena egiteko, Corpasek (2003a: 144) bi taxonomia hartzen ditu oinarri gisa: alde batetik, Coulmas (1985) eta Roosen (1985) kriterio funtzionalean oinarritutakoa, eta, bestalde, Steel (1985) eta Gläserrena (1986), irizpide semantikoan oinarritutakoa. Kriterio horiei pragmatikoarena gehituz, goian aipatutako taxonomia proposatzen dugu. Formula diskurtsiboek (*fórmulas discursivas*) diskurtso-antolatzaile funtzioa betetzen dute, eta bi mota desberdintzen ditu Corpasek:

- Irekiera eta itxiera formulak: *¿Qué hay?, hasta luego*
- Trantsizioko formulak: *A eso voy, y es más*

Formula psiko-sozialek (*fórmulas psico-sociales*) diskurtsoaren garapena erraztearen funtzioa, edo igorlearen sentimenduak adieraztearena izan dezakete. Kriterio semantiko eta pragmatikoaren arabera, sei formula desberdintzen dira:

- Formula adierazkorrak
 - Barkamen formulak: *con perdón*
 - Onespen formulak: *ya lo creo*
 - Ezespen formulak: *ni hablar*
 - Eskertze formulak: *muchas gracias*
 - Ihardespen formulak: *de nada*
 - Zorte ona opatzeko formulak: *suerte y al toro*
 - Solidaritate formulak: *qué mala suerte*
 - Solidaritate eza adierazteko formulak: *a mi plin*
- Promes eta mehatxu formulak: *ya ajustaremos cuentas*
- Formula zuzenak
 - Erregu formulak: *al grano*
 - Informazio formulak: *¿qué pasa?*
 - Animo formulak: *no es para tanto*
- Formula asertiboak
 - Baieztapen formulak: *por mis muertos*
 - Formula emozionalak: *¡No te fastidia!*
- Erritu-formulak

- Agurtze formulak (saludo): *buenos días*
- Agurtze formulak (despedida): *con Dios*
- Hainbat formula: *al agua patos*

Ikus daitekeen bezala, azken esfera honetako sailkapena nahiko konplexua da. Ados nago [Santamaría](#)rekin (2000: 82) esaten duenean kriterio pragmatikoan oinarritutako sailkapena egitea zaila dela, UF bakoitzak, testuinguruaren arabera, balio semantiko eta pragmatiko jakin bat har dezakeelako.

2.3 Fraseologiaren hurbilketa itzulpengintzara

2.3.1 Linguistika kontrastiboa vs. itzulpengintza

Kapitulu honen sarreran adierazi dugu hizkuntzen arteko alderaketa fraseologikoa bi ikuspuntutatik abiatuta egin daitekeela (eta egin izan dela): linguistika kontrastiboa eta itzulpengintza. Horregatik, *langue* eta *parole* dikotomiaz hitz egin ohi da. Fraseologia kontrastiboaren ikuspuntutik, bi hizkuntza edo gehiagoren arteko alderaketa hori *langue* edo hizkuntza mailan egiten da; horrek esan nahi du UFak isolatuta aztertzen direla, testuingurua kontuan hartu gabe. Beraz, helburua bi hizkuntza edo gehiagoren arteko sistema fraseologikoetan dauden berdintasun eta desberdintasunak aztertzea da: “(...) beschäftigt sich die kontrastive Phraseologie in ihrer interlingualen Ausrichtung mit Gemeinsamkeiten und Unterschieden des phraseologischen Bestandes von zwei oder mehr Sprachen” ([Korhonen 2004](#): 580). [Larretak](#), esate baterako, alemana eta gaztelaniaren sistema fraseologikoak alderatzen ditu, somatismoen azterketan oinarrituz (ikusi [6.2.1](#)). Analisisirako, irizpide batzuk finkatzen ditu, eta horrela aztertuko ditu bere corpusa osatzen duten 2.165 UFak, hiztegietatik erauzten dituenak. Aztertutako materiala hizkuntzen irakaskuntzan erabili ahalko litzateke.

Fraseologismoen itzulpena aztertzea helburu zuten lehenengo lanetan, Korhonenek adierazten duen moduan, fraseologia kontrastiboko kontzeptuak eta metodologia erabili ohi ziren: hizkuntzen arteko alderaketarako parametroak zehazten zituzten (esanahi fraseologikoa, hitzez-hitzezko esanahia, egitura morfosintaktikoa, konnotazioa, irudi fraseologikoa...), eta itzulpen-baliokideak baliokidetasun mailaren arabera sailkatzen (*Volläquivalenz*, *Teiläquivalenz* edo *Nulläquivalenz* dira kontzeptu nagusietako batzuk). Kasu gehienetan, gainera, testuingurua ez zen kontuan hartzen:

“In der Anfangsphase des übersetzungsbezogenen Interesses für Probleme der Phraseologie wurde der Begriff der Übersetzung weitgehend mit der Festlegung zielsprachlicher Äquivalente im Sinne der kontrastiven Phraseologie gleichgesetzt. In den frühesten Arbeiten wurde der Schwerpunkt auf die Erläuterung von Äquivalenztypen und auf die Klassifizierung des Forschungsmaterials nach Äquivalenzrelationen gelegt, wobei der Kontext bei der Besprechung von Belegstellen meist nicht berücksichtigt wurde” (2012)⁴⁹.

Lan honen abiapuntua, esan bezala, itzulpen ikasketak direnez, bi hizkuntza edo gehiagoren arteko alderaketa hori *parole* edo hizketa mailan egingo da; hau da, kasu honetan azterketa ez da sistema mailakoa izango. Funtsezkoa, kasu honetan, ez da bi hizkuntzen arteko sistema fraseologikoetan dauden berdintasun eta desberdintasunak ikertzea. Ikertu nahi dena zera da: jatorrizko testuan dauden UFak xede-testuan nola jaso diren, UFa inguratzen duen testuingurua kontuan hartuz.

⁴⁹Korhonenek hitzak dira, Europhraseko 2012ko kongresuan esandakoak. Hitzaldia sarean ikus daiteke: <http://www.youtube.com/watch?v=q9eDgxIMbm0>.

2.3.2 Ikerketa-lerroak itzulpen-azterketetan

Korhonenen arabera, 1970. hamarkadan ugaritu ziren testuinguru kontuan hartzen zuten itzulpen-azterketak. Oro har, aipatutako hamarkadan, fraseologismoen itzulpena lantzen duen bibliografia nabarmen hazi zen, honako taula honetan ikus daitekeen bezala. Taulako datuak Miederrek 2009an argitaratutako fraseologia-bibliografian⁵⁰ oinarrituta kalkulatu ditugu, “translation” etiketa duten lanak zenbatuz, 702 guztira.



2.5. figura: Itzulpen-azterketen kronologia

Aipatutako hitzaldian, 80. hamarkadatik 2011 arte egin diren lan monografiko eta doktore-tesi adierazgarrienak aipatzen ditu Korhonenek. Honako taula honetan jaso ditugu 11 lanok:

2.1. taula: Fraseologiaren itzulpen-azterketa adierazgarriak historian zehar

| Egilea | Izenburua | Urtea |
|-----------------------------|---|-------|
| Schweizer, Blanche-Marie | Sprachspiel mit Idiomen. Eine Untersuchung am Prosawerk von Günter Grass | 1978 |

⁵⁰Bi liburukitan, fraseologia eta paremiologiarekin lotuta dauden 10.000 argitalpen jaso ditu Wolfgang Miederrek, 1852tik 2007 arte. Hurrenkera alfabetikoa ordenatuta daude, baina liburu bukaeran, gaika ere egin daiteke bilaketa. Guk “itzulpen” etiketa duten lanak bakarrik aztertu ditugu.

| | | |
|-----------------------------|--|------|
| Schue (Xu), Scheng-liang | Übersetzungsprobleme der Redensarten und Sprichwörter. Eingeschränkt auf chinesische Redensarten, deutsche Sprichwörter und deutsche Redensarten jeweils mit Deutsch bzw. Chinesisch als Zielsprache | 1985 |
| Kammer, Ger- linde | Probleme bei der Übersetzung von phraseologischen Einheiten aus dem Russischen ins Deutsche: anhand von Werken V.F. Panovas | 1985 |
| Taraman, Soheir | Kulturspezifik Übersetzungsproblem. Phraseologismen in arabisch-deutscher Übersetzung | 1986 |
| Higi-Wydler, Melanie | Zur Übersetzung von Idiomen. Eine Beschreibung und Klassifizierung deutscher Idiome und ihrer französischen Übersetzungen | 1989 |
| Labno-Falecka, Ewa | Phraseologie und Übersetzen: Eine Untersuchung der Übersetzerbarkeit kreativ-innovativ gebrauchter wiederholter Rede anhand von Beispielen aus der polnischen und deutschen Gegenwartsliteratur | 1995 |
| Segura García, Blanca | Kontrastive Idiomatik: Deutsch-Spanisch | 1998 |
| Kirschnick, Stephanie | In China wirft man keine Perlen vor die Säue! Probleme bei der Übersetzung von Phraseologismen in deutschsprachigen literarischen Werken ins Chinesische | 2006 |
| van Lawick, Heike | Metàfor, fraseologia i traducció. Aplicació als somatismes en una obra [“Furcht und Elend des III. Reiches”] de Bertolt Brecht | 2006 |
| Mitrache, Lilia- na | Metaphern in literarischen Übersetzungen. Eine vergleichende Analyse der sechs deutschen Übersetzungen von Strindbergs Roman "Hemsöborna" | 2006 |
| Ji, Meng | Phraseology in Corpus-Based Translation Studies | 2010 |

Taulan agertzen diren lanetan oinarrituz, eta [Farø](#) (2006), [Halls-](#)

teinsdóttir (2011) eta van Lawickek (2013) diotena kontuan hartuz, hainbat ikerketa-lerro bereiziko genituzke fraseologiaren itzulpen-ikerketaren baitan; besteak beste, fraseologismoen itzulpen-arazo gisa aztertzen dutenak, baliokidetasun mailen sailkapenetan oinarritzen diren azterketak eta corpusetan oinarritzen diren azterketa deskribatzaileak⁵¹.

Ikus dezagun Hallsteinsdóttirrek dioena lehenengo multzoko azterketen inguruan:

“There has been a quite strong focus on problems in translation of phrasemes in phraseological research (...). Most of this problem oriented research relates to the so-called *phraseoactivity* (Phraseoaktivität) and the *additional (semantic) value* (semantischer Mehrwert) of phrasemes” (2011: 283).

Kollerren (2007: 607) arabera, UFek testuetan bete ditzaketen funtzioei, maila denotatiboa baino harago dauden funtzioei, egiten die erreferentzia fraseoaktibitate kontzeptuak (Gréciano 1994). Hau da, UFek testuetan aktibatu daitezkeen ezaugarri batzuk dituzte, goian aipatzen den balio semantiko gehigarri hori, alegia. Literatur testuetan, iragarkietan eta testu politikoetan agertu ohi dira bereziki maila denotatibotik at dauden ezaugarri horiek. Honela jarraitzen du Kollerrek (2007: 607): “Jeder einzelne dieser Werte kann (aber muss natürlich nicht) ein Übersetzungsproblem darstellen, wenn in der jeweiligen Zielsprache keine phraseologische 1:1-Entsprechung vorliegt, mit der der betreffende Wert erhalten bleibt”. Aipuan ikus daitezke, gainera, lan mota horiek preskriptiboak izan daitezkeela: UF bat beste UF batekin itzuli ezin daitekeenean itzulpen arazo bat dago, hain onak ez diren beste irtenbide batzuetara jo beharra dagoelako.

⁵¹Badaude beste ikerketa-lerro batzuk ere, hala nola fraseografiaren baitan egiten diren itzulpen-azterketak (ikusi Torrent), baina lan honen helburua aipatutako lerroen azterketa sakona egin baino guretzat esanguratsuenak diren azterketen berri ematea da.

Horren harira, [Farøk](#) (2006) UFen itzulpenean, itzulpen-estrategiak aztertzen ditu, eta ondorioztatzen du dogma fraseologiko bat dagoela. Dogma hori inon idatzita ez dagoen lege implizitu batek zehazten omen du. Lege horren arabera, L1eko UF bat beste UF baten bidez itzuli beharko litzateke, edo, gutxienez, L1eko irudi fraseologikoa itzuli beharko litzateke. Dogma hori oso zabaldua dagoela dirudi, ez bakarrik itzulpengintzan, lexikografian eta ikerketa fraseologikoetan ere. Honela dio [Hallsteinsdóttirrek](#) (2011: 286):

“The perception of an obligatory equivalence within the linguistic category of phraseology focuses solely on linguistic items in the source text as objects of the language system and it disregards other aspects of translation, both seen as a process and as a text. As a consequence, it generates and maintains an illusion of a mandatory systemic equivalence of phrasemes in translation”⁵².

Bestalde, [van Lawicke](#) (2013: 159) dioten moduan, analisi hauek testu mailakoak izan ohi dira, non irizpide kontrastiboak erabili ohi diren UFen itzulpena aztertzerako orduan.

Bigarren multzoa, goian aipatu bezala, baliokidetasun mailak aztertzen dituzten ikerketa-lanek osatzen dute. Lan horien adierazgarri da, esate baterako, goiko taulan agertzen den [Higi-Wydlerrren](#) (1989) lan enpiriko zabala. Bere corpusa alemaneko hamar literatur testuk eta frantseserako itzulpenek osatzen dute. Corpusetik 3.700 UF erauzi eta aztertzen ditu, eta baliokidetasun mailaren arabera sailkatzen

⁵²Ikusi, esate baterako, [Soliñok](#) dioena, UFak itzultzeko aukeren inguruan hitz egiten duenean: “Es pues –a nuestro modo de ver– la equivalencia la técnica de traducción adecuada para transferir unidades fraseológicas, ya que la complejidad interna de estas unidades impide aplicar operaciones habituales como la traducción literal. (...) No importa la forma del equivalente, ya sea una unidad fraseológica, una unidad simple o compleja o una paráfrasis definitoria. Lo que cuenta es que los dos equivalentes coincidan en su sentido, es decir, denominen el mismo hecho o el mismo estado de cosa, aunque sea mediante significados diferentes y puedan usarse en las mismas situaciones, aunque sí es verdad que siempre es mejor encontrar en la medida de lo posible, un equivalente fraseológico” (2008: 239).

(baliokidetasun oso, partzial eta baliokidetasun eza). Lan horren inguruan Farøk dio oinarri sendoa duen lana dela, baina sailkapen maila horretan geratzen dela, ez duela harago egiten.

Fraseologiaren itzulpenari lotuta, askotan aipatzen den beste lan bat [Segurarena](#) da (ikus [2.1](#) taula). Kasu horretan, corpusa hamabi testuz osatutakoa da: hiru nobela aleman eta beren itzulpenak, alde batetik, eta Vargas Llosaren hiru nobela eta horien alemanerako itzulpenak. Guztira 1.500 lokuziotik gora erauzi ditu, baina aztertu dituenak hiztegieta lokuzio gisa identifikatuta daudenak izango dira. Itzulpen-azterketari dagokionez, bi mailatan egiten du. Lehenengo, baliokidetasun moten arabera sailkatzen ditu lokuzioak (*Volläquivalenz*, *Teiläquivalenz* eta *Nulläquivalenz* bereizten ditu). Bigarrenik, itzulpen arazoak aztertzeaz arduratzen da azken kapituluan, “weil an ihnen besonders deutlich wird, wie gut in einigen und wie wenig in anderen Fällen der Transfer gelungen ist, aber auch um zu klären, auf welche Weise es zu Mißverständnissen gekommen ist, die zu Fehlübersetzungen geführt haben” (1998: 178). [Seguraren](#) arabera, arazo horiek aztertzea garrantzitsua da argi ikus daitekeelako hizkuntza batetik besterako jauzia oso ona izan dela kasu batzuetan, ez hain ona besteetan, eta gaizki-ulertuak egon diren kasuetan, zergatik gertatu diren argitzeko.

[Corpasek](#), berak argitaratutako bilduma batean dagoen artikuluan⁵³, UFak itzultzeko erabili diren prozedura eta teknikak deskribatzen ditu. Horretarako, Tom Sharpe idazle britainiarraren *Wilt* eleberriaren gaztelaniarazko itzulpenaz baliatzen da, eta ekibalentzia maila, itzulpen-prozedura eta itzulpen-estrategiak deskribatzen ditu. Azterketa preskriptibo eta deskribatzaileen artean dagoen ‘tentsioa’ aipatzen du. Izan ere, lehenengo kasuan UF bat beste UF ba-

⁵³Korhonenek, goian aipatutako Europhras 2012ko hitzaldian, itzulpengintzari lotutako hiru bilduma aipatzen ditu: Annette Sabban-en *Phraseologie und Übersetzen* (1999), guk orain aipatutako Corpas Pastorren *Las lenguas de Europa: Estudios de fraseología, fraseografía y traducción* (2000) eta Antonio Pamies, Lucía Luque Nadal eta José Manuel Pazos Breñañak 2011an, Europhras-eko 2010. urteko kongresuaren harira, argitaratutako *Multi-Lingual Phraseology: Second Language Learning and Translation Applications*.

tekin itzultzea egokiena dela azpimarratzen dute⁵⁴, baina Corpasek testu mailan egindako azterketan ikusi du ez dela hori beti erabiltzen den itzulpen-prozedura. Dena den, ondorioetan dioena azpimarratu nahiko genuke:

“Las conclusiones derivadas de este estudio no son representativas ni tienen validez absoluta, pero sí permiten vislumbrar ciertas tendencias en la traducción de la fraseología, que, curiosamente, ponen en tela de juicio algunas de las opiniones vertidas tradicionalmente por los teóricos de la traducción sobre el tema. En todo caso, será necesario realizar investigaciones a gran escala que confirmen o desestimen, por idiosincrásicos e idiolectales, los resultados de nuestro análisis. Ello sólo será posible cuando se disponga de córpora paralelos de textos traducidos en soporte informático y un *software* adecuado de alineación automática. Hasta entonces, habrá que seguir analizando manualmente binomios textuales concretos que nos permitan vislumbrar cuáles son las estrategias y procedimientos preferidos por los traductores, qué riesgos y pérdidas semánticas entrañan, y de qué manera se pueden aplicar dichos resultados a una incipiente pedagogía de la traducción” (2000: 518).

Gaur egungo teknologiari esker, Corpasek 2000. urtean aipatzen zuen hori egia bihurtu da. Izan ere, gero eta gehiago dira itzulpengintzaren alorrean corpusetan oinarritzen diren azterketa deskribatzai-leak⁵⁵. Fraseologiaren itzulpenaren azterketari dagokionez, Jaume I

⁵⁴Ikusi Farøk aipatzen duen dogmaren kontua.

⁵⁵Dena den, gertatzen da corpusekin lan eginagatik, erauzketak, adibidez, eskuz egitea. Hori da, uste dut, Pompeu Fabrako TRADIF proiektuaren baitan edo Cuéllarren ikerketan gertatzen dena, besteak beste. Lehenengo proiektu horren baitan, Brumme eta Spunyak bilduma bat argitaratu zuten 2012an. Bertan, ‘fictional dialogue’ delakoaren itzulpenaren inguruan hausnartzen dute hainbat egilek. Horietako bat Brumme da. Bere helburua da UFek literatur testuetan izan

unibertsitatean, COVALT (Corpus Valencià de Literatura Traduïda) corpusarekin lan egiten duen ikerketa-taldea aipatzea ezinbestekoa da. Aurten argitaratutako bildumaren hitzaurrean aipatzen den moduan, 2001. urtetik, COVALT corpora (ikus 3.2.5) sortu eta aztertea izan da taldearen helburua⁵⁶.

2013ko bildumaz gain, hainbat artikulu argitaratu dituzte taldeko kideek. Esate baterako, ingelesa-katalana azpicorpusean oinarrituz, Marcok 2008an somatismoen itzulpena aztertzeke lehen saiakera egiten du. 2009ko Metako artikuluan, hiru lematatik sortutako somatismoak aztertzeke mugatzen da (*eye, foot* eta *hand*), eta, itzulpen teknika batzuetan oinarrituta, normalizazioaren hipotesia analizatzen du, jatorrizko testuetako eta xede-testuetako fraseologia maila neurtuz. Alemana-katalana azpicorpora, bestalde, Oster eta van Lawickek aztertu dute. Azken horrek 2010ean, adibidez, 221 alemaneko somatismo erauzi, oro har itzultzeke erabili diren teknikak aztertu, eta baliokidetasun maila altua (*Volläquivalente*) duten UFak analizatu zituen. Izan ere, helburua bi hizkuntzetako UFen artean antzekotasun maila altua (*weit verbreitete Idiome*) zerk eragiten duen azterteke zen.

Corpusaren linguistikaren metodologia erabiltzen dute itzulpen-portaerak aztertu ahal izateke. Beraz, Touryk proposatutako ideietan oinarritzen dira COVALT taldeko kideak. Hitzaurrean (2013: 2) honako hau diote: “(...) si som capazes de recopilar quantitats prou

ditzaketen funtzio eta konnotazioen ikuspegi orokor bat eman, eta horiek itzulpenetan jasotzeke aukera azterteke. Honako hau dio azterketa egiteke moduaren inguruan: “Although our study will mainly comprise a descriptive approach to a specific translation problem (the translation of fictional dialogue and particularly of phrasemes) and focus on the linguistic-philological analysis of the source text and the target texts, it also intends to be a methodological contribution to translation criticism” (Brumme 2012: 271).

⁵⁶Unibertsitate berean, 1997 eta 1999 urte bitartean, fraseologia azterteke zen honako ikerketa-proiektuaren markoan: *El discurso prefabricado: pragmática contrastiva de las unidades fraseológicas*. Bi bilduma argitaratu zituzten: *El discurs prefabricat. Estudis de fraseologia teòrica i aplicada* (2000) y *El discurs prefabricat II. Fraseologia i comunicació social* (2006).

grans de textos tradüits i sense traduir, ja siga en forma de textos originals o de textos escrits originalment en la llengua d'arribada, o ambdues coses, llavors hauria de ser possible traçar determinades regularitats, normes o lleis de traducció (Toury, 1995)".

Gure itzulpen-azterketak ere corpus zabal bat dauka oinarri, eta, horren bidez, emaitza adierazgarriak lortzea espero dugu.

2.3.3 Itzulpen-analisirako tresneria kontzeptuala

Unitate fraseologikoen itzulpen-azterketa egiteko, itzulpen aukerak jasotzen dituen eskema batean oinarrituko gara. Ikertzaileak tipologia desberdinetan oinarritu izan dira. Itzulpen eskema edo tipologia izena jarri diogu guk, baina kontuan hartu behar da, alderdi kontzeptualari dagokionez, alor honetan erabiltzen den terminologia ez dela batere bateratua. Besteak beste, hauexek dira hainbat lanetan aurkitu ditugun kontzeptuak: *Prozeduren* (Segura), *procedimientos de traducción* (Corpas), *Übersetzungsverfahren* (Fiedler), *Übersetzungstypen* (Farø) edo *tèchniques de traducció* (Marco).

Ez dugu terminologia horren inguruko azterketa sakonik egingo, baina gure lana deskribatzailea den heinean, termino neutro bat erabili nahi izan dugu. Horregatik, hemendik aurrera, itzulpen-azterketarako eskemaz edo aukerez hitz egingo dugu.

2.3.2 atalean aipatu dugun moduan, Segurak, beste askoren artean, itzulpen arazoak aztertzen ditu, eta, hori egiteko, zortzi prozeduratan (*Prozeduren zur Übersetzung von Idiomen*) oinarritzen da: *Substitution* (UF bat beste UF baliokide batekin itzultzea), *Dilution* (UF bakarra bi UFren bidez itzultzea), *Neutralisierung I* (hitz bakunak erabiltzea itzulpenean), *Neutralisierung II* (parafraasi bidezko itzulpena), *Auslassung* (ez itzultzea), *Kompensation I* (STko hitz bakuna UF bidez itzultzea), *Kompensation II* (STko parafrasia UF bidez itzultzea) eta *Konzentration* (STko bi UF bakar baten bidez itzultzea).

Cuéllar (2000) ere literatur testuetan oinarritzen da itzulpen-azterketa egiteko, baina kopuru aldetik, Segurak baino UF gutxiago

aztertzen ditu: 90 guztira. Hiru jatorrizko testu hartzen ditu abiapuntu gisa, eta jatorrizko bakoitzeko bi xede-testu, bi itzulpen desberdin. Erauzitako UFetan oinarrituta, bost itzulpen-bide erabiltzen ditu itzulpen-azterketa egiteko: (1) UF berdin baten bidez itzultzea, maila semantiko eta formalean berdina dena; (2) UF baliokide baten bidezko itzulpena (esate baterako, *Geld wie Heu haben / tener dinero a montones*); (3) hitzez-hitzezko itzulpen bidez, non emaitza ez den UF bat izango; (4) itzulpen aske bidez, non emaitza, hemen ere, ez den UF bat izango; azkenik, (5), jatorrizko UFa ez itzultzearen aukera ere aipatzen du.

Corpasek ere itzulpen-prozeduren inguruko hausnarketa egiten du. Bost dira aipatzen dituen aukerak: *équivalence* edo STko UF bat beste UF baliokide baten bidez itzultzea, UFa parafraasi bidez itzultzea, omisioa, konpentsazioa edo “introducción de unidades que no están presentes en el TO en otros lugares del TM” (Corpas 2003a: 266), eta kalkoa edo “reproducción del esquema fraseológico semántico-conceptual de la UFO en el TM” (Corpas 2003a: 267).

Fiedlerrek (2008), bestalde, ingelesezko eleberri batetik 630 UF erauzten ditu, eta horren alemanerazko bi itzulpen-aztertzen. UFak erauzi eta aztertu eta gero, lau itzulpen-bide identifikatzen ditu: (1) UF bat beste UF berdin bategatik itzultzea, egitura eta irudia gordez; (2) UF bat UFa ez den beste baliabide baten bidez itzultzea, hala nola parafraasi bidez, hitz-konbinazio libre bidez edo hitz elkartu bidez; (3) UF bat beste UF desberdin bategatik itzultzea, non desberdintasuna irudian eta egituran dagoen; eta, azkenik, (4) UFa ez itzultzea.

COVALT ikerketa-taldeko kide den Marcok egindako itzulpen-tekniken sailkapena Delabastitaren (1996) proposamenean⁵⁷ oinarritzen da, hitz-jokoen inguruan egindako proposamenean, eta, horri bi aldaketa egin ondoren, honako zerrenda hau eratu zuen: *UFa* ⇒ *antzeko UFa*; *UFa* ⇒ *UF desberdina*; *UFa* ⇒ *kolokazioa*; *UFa* ⇒ *UFrik ez*; *UFa* ⇒ *zero*; *Kopia zuzena*; *Kolokazioa* ⇒ *UFa*; *UFrik ez* ⇒ *UFa*.

⁵⁷Zortzi itzulpen-metodotan (*translation methods*) oinarritutako proposamena egiten du: *pun* ⇒ *pun*; *pun* ⇒ *non-pun*; *pun* ⇒ *related rhetorical device*; *pun* ⇒ *zero*; *pun ST* ⇒ *pun TT*; *non-pun* ⇒ *pun*; *zero* ⇒ *pun*; *editorial techniques*.

Hurrengo taulan, UFen itzulpena aztertzeko aipatu ditugun tipologiak jaso ditugu:

2.2. taula: UFen itzulpena aztertzeko sailkapenak

| Segura (1998) | Cuéllar (2000) | Corpas (2003) | Fiedler (2008) | Marco (2013) |
|---------------------------------|--|--------------------------------|-----------------------------------|-----------------------------------|
| UF \Rightarrow UF berdina | UF \Rightarrow UF berdina | UF \Rightarrow UF | UF \Rightarrow UF berdina | UF \Rightarrow antzeko UFa |
| UF \Rightarrow bi UF | UF \Rightarrow UF baliokidea | | UF \Rightarrow UF desberdina | UF \Rightarrow UF desberdina |
| | | | | UF \Rightarrow kolokazioa |
| UF \Rightarrow parafrasia | UF \Rightarrow UFrik ez | UF \Rightarrow parafrasia | UF \Rightarrow UFrik ez | UF \Rightarrow UFrik ez |
| UF \Rightarrow hitz bakuna | | | | |
| UF \Rightarrow \emptyset | UF \Rightarrow \emptyset | UF \Rightarrow \emptyset | UF \Rightarrow \emptyset | UF \Rightarrow \emptyset |
| | UF \Rightarrow hitzez- hitzezko itzulpena | UF \Rightarrow kalkoa | | UF \Rightarrow kopia zuzena |
| Parafrasia \Rightarrow UF | | UFrik ez \Rightarrow UF | | UFrik ez \Rightarrow UF |
| Hitz bakuna \Rightarrow UF | | | | Kolokazioa \Rightarrow UF |
| Bi UF \Rightarrow UF | | | | |

Alde batetik, ikusten da norberak bere beharren arabera sortzen dituela itzulpen-tekniken zerrendak. Baina, era berean, antzekotasunak nabarmenak dira aurkeztu ditugun proposamenen artean. Guztiek aipatzen dute, esate baterako, UF bat beste UF baten bidez itzultzeko aukera, eta gehientsuenek UF antzeko eta desberdinen arteko bereizketa egiten dute. [Marco](#)ren arabera, bereizketa hori da, hain zuzen, definitzen zailena: “la principal dificultad teórica que presenta la clasificació proposada ací rau en el fet que sovint és molt difícil

determinar si la UF del text traduït és semblant a la del text original o, per contra, és diferent” (2013: 170). Bere ustez, bere ikerketa-lanaren helburuak kontuan hartuta, irizpide semantikoetan dago UF antzeko eta desberdinen arteko muga zehazteko gakoa. Hain zuzen ere, bi UF bat badatoz esanahi fraseologikoan, irudian, eta, ondorioz, osagai lexikoetan, orduan antzekoak izango dira.

COVALT ikerketa-taldeko van Lawick ere irizpide horietan oinarritzen da, bere abiapuntua beste ikertzaile baten lana izanagatik. Honako hau dio (van Lawick 2013: 276-277):

“Els criteris segons els quals hem definit la semblança entre dues UF tenen molt en comú amb la definició que Piirainen (2012: 12) dóna del que anomena widespread idioms, que “have the same or a similar lexical structure and the same figurative core meaning in various different languages, including geographically distant and genetically unrelated languages”. Sola o en col·laboració, aquesta estudiosa ha investigat a fons aquest tema, i sempre ha remarcat la universalitat que caracteritza molts somatismes a causa del seu referent anatòmic humà”.

Beraz, bi UF antzekoak izango dira egitura lexiko eta esanahi figuratibo berdina edo antzekoa badute. Esate baterako, *die Beine in die Hände nehmen* lokuzio alemana itzultzerako orduan, euskaraz esanahi figuratibo berdina duen lokuzio bat erabiltzen da gure corpusean (“ziztu bizian”), baina, egitura lexikoa erabat desberdina denez, ez genuke UF antzeko moduan identifikatuko.

Zerrendarekin jarraituz, xede-testuan UFrik ez erabiltzea eta itzulpenean UFak ordainik ez izatea guztiek aipatzen dituzten aukerak dira, eta kalko bidezko itzulpena ere aukera gisa ikusten dute gehientsuenek. Segurak ez du azken hori aukera gisa aipatzen, baina atal bat eskaintzen die interferentziei (*Interferenzen*). Itzulpen prozesuan sortutako akats gisa (*Übertragungsfehler*) ulertzen ditu Segurak horiek, eta STko UFa “kopiatzen” denean sortzen dira.

Iruditzen zaigu gure egoera aztertzeko Seguraren planteamendua ez dela egokiena. Euskaraz, hizkuntza gutxitua eta oraindik normalizazio-prozesuan dagoena izanik, kalkoen garrantzia areagotu egiten da. Honako hau dio, esate baterako, [Alberdik](#) (2010: 32):

“(...) calques are a highly productive resource or mechanism that has often been, and must be, used in the creation of neologisms and new terminology in any language (cf. Gómez Capuz, 2005: 39) and particularly in Basque and languages in similar minority status and unnormalized, since the descriptive character of lexical calques makes them well suited for technical terminology and a good way to avoid excessive ‘surface’ borrowing⁵⁸”.

Kalkoen Behatokiko⁵⁹ hitzaurrera jotzen badugu, ideia bera errepikatzen dutela konturatuko gara:

“Jende askok besterik uste badu ere, lexiko-sorkuntzarako mekanismo emankor eta oparoa da, berez, kalkobidea edozein hizkuntzatan; are gehiago, beren terminologia garatzen eta normalizatzen ari diren hizkuntza gutxituen kasuan. Euskaraz, esate baterako, etengabe ari gara hitz eta termino berriak sortzen, eta haietako asko eta asko kalko bidez sortuak ditugu (ikus Alberdi 2009, Alberdi 2010a, Alberdi 2010b): bereziki, kalko semantikora, lexikora eta fraseologikora jotzen dugu euskarazko termino berriak sortzeko (hiztegi orokorrak eta bereziki espezializatuak arakatu besterik ez dago jokaera horretaz jabetzeko)”.

[Alberdi](#)ren arabera, kalkoak itzulpen bidezko kopiak dira; hau da, beste hizkuntza bateko elementuen esanahiak imitazioz erreproduzitzen dira xede-hizkuntzako elementuak erabiliz (2010: 32). [Aierbek](#)

⁵⁸ [Alberdik](#) hiru kontzeptu desberdintzen ditu: mailegua (*borrowing*), interferentzia (*interference*) eta kalkoa (*calque*).

⁵⁹ <http://www.ehu.es/ehg/kalkoak/?p=hitzaurrea>

ere, administrazio testuetako UFen itzulpena aztertu zuenean, kal-koen erabilera nabarmena aipatu zuen: “Se ha de mencionar, por lo tanto, que en las traducciones de textos administrativos a la lengua vasca nos encontramos, por una parte, con calcos de fórmulas y de locuciones de la lengua del texto original; y por otra, con frases y fórmulas más o menos castizas, lo que, a su vez, origina multiplicidad de unidades semánticamente equivalentes” (2008: 36).

Taularen arabera, aipatzen diren azken aukerak STan UFrik ez egotea, eta, XTan, berriz, UFa egotea edo STko UFa desberdina izatea (kolokazioaren aukera aipatzen du Marcok) dira.

3.

Oinarri metodologikoa

| | | |
|------------|---|-----------|
| 3.1 | Lambert eta van Gorp-en eredia | 85 |
| 3.2 | Corpusgintza | 88 |
| 3.2.1 | Corpus elektronikoen sorrera eta bilakaera | 88 |
| 3.2.2 | Corpus-motak | 90 |
| 3.2.3 | Corpusak xede- eta sorburu-hizkuntzan . | 96 |
| 3.2.4 | Corpusen erabilera itzulpen ikasketetan . | 107 |
| 3.2.5 | Corpusen erabilera ikerketa fraseologikoetan | 111 |
| 3.2.6 | Corpusak ustiatzeko tresnak | 118 |

Kapitulu honetan, lehenik eta behin, gure lanaren oinarri metodologikoa aurkeztuko dugu, Lambert eta van Gorpen eredia, alegia. Gure kasuan, marko metodologiko hori aplikatu ahal izateko corpusen erabilera beharrezkoa denez, corpusgintzaren inguruan jardungo gara ezinbestean; corpusak nondik datozen ikusiko dugu, zein ezaugarri dituzten, ezaugarri horien arabera egon daitezkeen corpus-motak zeintzuk izan daitezkeen, xede- eta sorburu-hizkuntzetan dauden erreferentzia-corpusak zeintzuk diren, itzulpen ikasketetan eta ikerketa fraseologikoetan corpusak nola erabili diren, eta, azkenik, corpusak ustiatzeko tresna baten erabilera aztertuko dugu.

Tymoczkoen arabera, itzulpen ikasketek aurrera egin nahi badute, corpusetan oinarritutako itzulpen-azterketen garapena beharrezkoa da. Itzulpen ikasketen baitan, corpusen garrantzia ikuspuntu deskribatzailearen sorrerarekin nabarmendu zen. Hala, Touryren IIDen baitan, corpusak dira bere marko metodologikoaren funtsa. Touryrentzat corpusak beharrezkoak dira itzulpen-arau eta -legeak aztertzeko. Tymoczkoentzat, ordea, itzulpen ikasketetan corpusak erabiltzearen xede nagusia ez litzateke izan beharko objektibotasunaren eta lege unibertsalen bilaketa. Orduan, zergatik egin corpusetan oinarritutako ikerketa deskribatzaileen aldeko apustua? Bere ustez: “(...) the potential of CTS [corpus translation studies] to illuminate both similarity and difference and to investigate in a manageable form the particulars of language-specific phenomena of many different languages and cultures in translation constitutes the chief appeal of this new approach to Translation Studies” (Tymoczko 1998: 6).

Tymoczkok Touryri egiten dizkion kritikak gora-behera, biek bultzatzen dute corpusen erabilera itzulpen ikasketen baitan.

3.1 Lambert eta van Gorp-en eredua

Lambert eta van Gorpek 1985. urtean proposaturiko eredua izango da ikerketa-lan honen oinarria¹. [Hermans](#) (1999:64) dioten moduan: “This ‘contextual’ model which José Lambert developed in Leuven (partly in collaboration with Hendrik van Gorp) is very much a top-down model, broadly compatible also with Toury’s more recent approach (Toury 1995)”. Goitik beherako eredua izateaz gain, proposamen horrek bi berezitasun ditu: alde batetik, malgua eta irekia da, hau da, norberak bere beharretara moldatu dezake²; eta, bestetik, itzulpen-analisisa ez da isolaturik dauden testuetara mugatzen; ez, testuak sistema baten parte dira. Horregatik, “[the model] needs to account for a range of other factors in addition to the donor and receptor texts. This is why it is conceived as a multi-level operation, based on a communication scheme” ([Hermans 1999](#): 65). Beraz, honako hauek dira Lambert eta van Gorpek proposatzen dituzten maila ezberdinak:

1. Aurretiazko azterketa (*Preliminary data*)
2. Makro mailako azterketa (*Macro-level*)
3. Mikro mailako azterketa (*Micro-level*)
4. Azterketa sistemikoa (*Systemic context*)

Aurretiazko azterketari dagokionez, bi kontu dira landu behar ditugunak. Lehenengo eta behin, historian zehar alemanetik euskarara itzuli diren lanen katalogoa osatuko dugu. Katalogoa eta corpusa

¹Marko metodologiko honetan oinarritu diren beste ikerketa batzuk: [Merino](#) (1994), [Barambones](#) (2009), [Manterola](#) (2011) eta [Zubillaga](#) (2013).

²“Su potencial reside, principalmente, en servir como andamio que ayude en la construcción del modelo, adaptándose y reformándose según fuere pertinente” ([Merino 1994](#): 46).

sortzeko, TRACE ikerketa-taldeak³ proposatutako pausoetan oinarrituko gara. Gutiérrezek (2007: 198) azaltzen du zertan dautzan katalogoak: “En el marco del proyecto TRACE un Corpus 0/Catálogo es un listado lo más exhaustivo posible, preferentemente informatizado, en cuyo caso adquiere la categoría de ‘base de datos’ (Rabadán & Merino 2004), de fichas que contienen diversos campos de información (con)textual (...)”. Gero, katalogo horretatik, irizpide jakin batzuk aplikatuz, corpus 1a osatuko duten testuak aukeratuko ditugu, eta, aukeraketa egin ondoren, AleuskaPhraseo corpora bera sortuko dugu (ikusi 4.2).

Ondoren, makro mailako azterketari ekingo diogu, eta, horretarako, corpuseko testuen paratestuak eta horien itzulpenak aztertuko ditugu (ikusi 5.1). Izan ere, Tahir-Gürçağlarrek (2002: 45) dioten moduan, itzultako testuek itzulpen izaera hori agerian uzten duten ezaugarriak dituzte, eta ezaugarri horietako gehienak itzultako testu hori hasi baino lehen aurki ditzakegu:

“Translated texts can offer us a number of clues hinting at their status as translations. The use of foreign names and foreign cultural elements, the subject matter and an unusual syntax may all alert the reader to the possibility of encountering a translation. Nevertheless, the majority of these clues, such as the title of the text, the name of the author, the name of the translator, the name of the source text, identification of a series the book appeared in, are located before the translated text begins. They appear ‘around’ the translated text, on the cover, on the title page or in a preface; Genette speaks of ‘peritexts’ in this case (1997: 5). Alternatively, such presentational elements can be located outside the book and can be found in bibliographies, in advertisements, in magazines,

³Hainbat unibertsitaterean arteko elkarlanaren emaitza da TRACE ikerketa proiektua. Itzulpena eta zentsura azterzea da proiektuko kideen helburua. Web orrian aurkitu daiteke proiektuari buruzko informazio gehiago: <http://www.ehu.es/trace/colectivo.html>.

in review articles or in interviews; Genette here speaks of 'epitexts' (ibid.)”.

[Genette](#) arabera, paratestuak peritestu eta epitestuen arteko batuketaren emaitza dira. Epitestuak testuarekiko zentzuzko distantzia batera kokatuta daude (esate baterako, elkarrizketak, gutun pribatuak...), eta peritestuak testuan bertan aurkitzen dira (izenburuak, kapituluaren izenburuak, hitzaurreak...). Paraitzulpenari dagokionez, [Garrido Vilariñoren](#) arabera (2011: 76), “if translation is the reading, interpreting, and transfer of texts, then paratranslation is the reading, interpreting and transfer of paratexts”. Beraz, paraitzulpena aztertzeak paratestuen (tituluaren, kapituluaren, irudien...) itzulpena aztertzea esan nahi du.

Azterketa makroestruturala egin ondoren, mikro mailako azterketarekin hasiko gara, hau da, unitate fraseologikoen erauzketa eta analisiarekin. Horretarako, analisia egiteko, itzulpen aukeren eskema bat proposatu eta aplikatuko dugu.

Azkenik, testuinguru sistemikoa izango da ondorioetan landuko duguna. Hori egin ahal izateko, kontzeptu teorikoak mikro mailako azterketan lortutako emaitzekin gurutzatuko ditugu. Izan ere, metodologia hau ez da lineala, zirkularra baizik, eta, horregatik, ondorioetan testuinguru orokor horretara bueltatuko gara. [Hermans](#)ek ondo azaltzen du kiribil formako eskema metodologiko hau:

“This movement from the general to the particular and back again to the general corresponds to the scheme later proposed by Toury (1995:38) in which 'discovery procedures' spiral down from the translation's outward presentation to the detailed confrontation of source and target texts (or sections thereof), followed by 'justification procedures' which climb up again from translation units and first-level tentative generalizations to overall correspondences between the texts and concepts of translation” ([Hermans 1999](#): 65-66).

3.2 Corpusgintza

3.2.1 Corpus elektronikoen sorrera eta bilakaera

Corpusez ari garenean, ezinbestean aipatu behar da John Sinclair. Honela definitzen du ikertzaileak corpusa: “A corpus is a collection of pieces of language text in electronic form, selected according to external criteria to represent, as far as possible, a language variety as a source of data for linguistic research” (Sinclair 2004). Funtsean, beraz, corpusa testu-bilduma elektronikoa da, zeina kanpo-irizpide batzuen arabera aukeratu, eta, ahal den neurrian, hizkuntza-aldaera baten adierazgarri den.

Hurrengo lerroetan, lehenengo eta behin, lehen corpus elektronikoa sortu zenetik corpusgintzak izan duen bilakaera aztertuko dugu labur.

Estatu Batuetako Brown Unibertsitatean sortu zen “Brown Corpus”-a (1967, Kučera eta Francis). Beste saiakera batzuk ere egin ziren gerora, baina 80ko hamarkada arte ez ziren corpus asko sortu. Bi faktore aipatzen ditu Zanettinek (2012: 7) egoera hori azaltzeko: alde batetik, teknologiak ezartzen zituen mugak, eta, bestetik, XX. mendeko bigarren erdian Estatu Batuetan nagusitu zen ikuspuntu chomskyarra. *Mentalist approach* ere deitzen zaio ingelesez, eta, ikuspuntu horren baitan, Chomsky eta bere jarraitzaileei ez zitzaion interesatzen hizkuntzen benetako erabilera aztertzea, haien helburua hizkuntzak gizakion buruetan nola egituratuta dauden aztertzea zen (Kenny 2001: 3). Ikergeia, beraz, makineria kognitiboa da (*generative device*), zeinari esker gizakiok gai garen arau multzo mugatu batzuekin adierazpen kopuru mugagabeak sortzeko. Baina, dagoeneko sortua dagoen adierazpen multzoa aztertzeak ez dauka garrantzirik teoria horren baitan (Lemnitzer eta Zinsmeister 2006: 20). Azken horri, egoera konkretuetan egiten den hizkuntzaren erabilerari, *performance* deitu zion Chomskyk. Aldiz, gizakiok daukagun komunikatzeko gaitasunari, *competence*. Chomskyri interesatzen zaiona azken hori da, eta ikertzailearen intuiziotik abiatuta aztertuko du.

Firth eta bere jarraitzaileentzat, aldiz, hizkuntzak, funtsean, sozialak dira, eta testuinguruari eta gordetzen dituen kulturari lotuak daude (Kenny 2001: 8). Gramatika sortzailean ez bezala, hemen, hizkuntzaren erabilera konkretua da jomugan jartzen dena. Unitate linguistikoen esanahia ezagutzeko, horien kotestu eta kontestua aztertzea ezinbestekoa izango da. Firthek honela zioen: “You shall know a word by the company it keeps” (Firth 1968, Lemnitzer eta Zinsmeisterren 2006: 30)⁴. Funtsean, lan egiteko modua induktiboa da (datuetatik abiatzen dira), eta lan-tresnak corpusak dira⁵.

Gero, Halliday, Stubbs, Tognini-Bonelli eta Sinclair izan ziren, besteak beste, korrante hori garatzen jarraitu zutenak (“neo-Firthian”-ak). Azken hori izan zen, adibidez, 1987an corpusean oinarritutako lehen hiztegia sortu zuena (COBUILD), eta hiztegi horrekin “set new standards in lexicography” (Kenny 2001: 28)⁶. Laburbilduz:

“(…) desde mediados del siglo XX se había venido trabajando en corpus, aunque su desarrollo se vio ralentizado por el impacto de la teoría generativo-transformacional de Chomsky. Teubert (2004: 107) señala el nacimiento simultáneo de ambos paradigmas y cómo, a pesar de

⁴Sinclairrek, aurrerago, ideia hori garatu zuen *idiom principle* kontzeptuarekin. Corpasek honela laburbiltzen du: “Sinclair (2000 [1996] rechaza la palabra como unidad semántica. En su lugar, propone unidades semánticas ampliadas (*extended units of meaning*) que trascienden a la unidad léxica tradicional en sí, pues incluyen sus relaciones de colocación (*collocation*), de coligación (*colligation*), de preferencia semántica (*semantic preference*) y de prosodia semántica (*semantic prosody*)” (2008: 57).

⁵Corpusekin lan egiteko moduaren arabera, bi jarrera desberdindu izan dira: *corpus-based* eta *corpus-driven*. Dikotomia horren inguruko tirabiren inguruan luze eta zabal jardun da Corpas (2008: 50-55), eta ondorioztatzen du *continuum* bateko bi muturrak direla, eta joera, gaur egun, erdibideko jarrera baten alde egitea dela. McEnery et al. lanean ere (2006: 11) *corpus-based* kontzeptua zentzu zabalean erabiltzen da, bi ikuspegiak batzen dituen kontzeptu gisa, alegia. Dena den, aurrerago (3.2.5 atalean) sakonago aztertuko ditugu kontzeptuok.

⁶Edo Corpasek (2008: 31) dioen moduan: “De hecho, la aparición de esta nueva y revolucionaria obra de referencia para la lengua inglesa marcó un antes y un después en la historia de la lexicografía mundial”.

la preponderancia chomskyana inicial, la Lingüística de Corpus siguió avanzando lentamente, dando respuesta, a partir de datos reales, a cuestiones que el paradigma imperante no podía resolver” (Corpas 2008: 27).

90. hamarkadan, erreferentzia-corpus zabalak sortu ziren hainbat herrialdetan. Guztien aitzindari “British National Corpus”-a (1995) izan zen, 100 milioi hitzekin. Gainera, garai hartan, corpusgintzak hiztegitzinta eta hizkuntzalaritzatik haraindiko alorretan izan zuen eragina: itzulpen automatikoan, hizkuntzalaritza konputazionalan, hizkuntzaren pedagogian, itzultzaileen prestakuntzan, itzulpen ikasketa deskribatzaileetan...

Gero, “mega-corpus”-en garaia (Zanettin 2012: 8) iritsi zen. Tamaina handiko corpusak sortu dira azken urteotan, eta asko eta asko interneten kontsultatu daitezke.

3.2.2 Corpus-motak

Sinclairren definiziotik abiatu garenez, corpus elektronikoen bila-kaera izan da ikusi duguna. Hala ere, kontuan hartu behar da ikertzaile batzuentzat elektronikoa izatera hori ez dela ezinbesteko ezaugarria, eta, corpusak definitzerako orduan, ez dutela ezaugarri hori aipatzen. Honela definitzen ditu, esate baterako, Schererrek corpusak: “Ein Korpus ist eine Sammlung von Texten oder Textteilen, die bewusst nach bestimmten sprachwissenschaftlichen Kriterien ausgewählt und geordnet werden” (Scherer 2006: 3). Ikertzaile alemanaren arabera, corpusa testu- edo testu zatien bilduma da, zeina irizpide linguistiko konkretu batzuen arabera aukeratu eta ordenatzen den. Formatua kontuan hartuta, beraz, corpus elektronikoa edo paperezkoak izango ditugu. Dena den, gaur egungo corpusak digitalak izan ohi dira, eta, hemendik aurrera, horietaz bakarrik jardungo gara.

Lemnitzer eta Zinsmeisterren corpusaren definiziotik ondorioztatu daiteke, bestalde, corpusak, iturriaren arabera, idatzizkoak edo ahozkoak izan daitezkeela. Jarraitzen dute esanez, goian aipatu bezala, oro har, corpuseko datuak digitalak direla, eta, datu horiez gain,

corpusak metadaturaz eta etiketa linguistikoz ere osatuta egon daitezkeela: “Die Daten des Korpus sind typischerweise digitalisiert, d.h. auf Rechnern gespeichert und maschinenlesbar. Die Bestandteile des Korpus, die Texte, bestehen aus den Daten selbst sowie möglicherweise aus Metadaten, die diese Daten beschreiben, und aus linguistischen Annotationen, die diesen Daten zugeordnet sind” (2006: 7).

Metadaturak, gure corpusean ikusiko dugun moduan, garrantzitsuak dira datuak sailkatu eta corpusa ustiatzerako orduan. Horregatik, corpusaren balioa handitu egiten da, corpuseko materiala metadaturaz (egilea, itzultzailea, generoa, izenburua... izango dira gure kasuan) osatuta badago (Lemnitzer eta Zinsmeister 2006: 8). Corpus bat anotatuta edo etiketatuta egoteak, aldiz, esan nahi du corpusa osatzen duten datuak (hitzak, esaldiak...) etiketaz hornituta daudela. Lemnitzer eta Zinsmeisterren arabera, anotazio linguistikoarekin hasi baino lehen, testua banatu (*Segmentierung*) egin behar da: “Um die Annotation in Korpora nachvollziehen zu können, muss man sich zunächst über die Einheiten im Klaren sein, die mit der Annotation markiert werden können. Ein Text muss dazu in seine Bestandteile zerlegt werden” (2006: 64). Testuaren egituratik hasi (kapitulua, izenburua, oin oharrak, paragrafoak...) eta esaldi mailaraino egin daiteke banaketa. Esaldia bera ere hitzetan bana daiteke.

Behin corpusa osatzen duten testuak segmentatuta, anotazio linguistikoa egin daiteke. Hor ere, anotazio maila desberdinak daude; esate baterako, maila morfosintaktikoan –Lemnitzer eta Zinsmeisterren arabera, anotazio-mota hau da hedatuen dagoena–, gramatika-kategoriak (*part of speech*) etiketatu daitezke. Edo maila morfologikoan, *token*-ak⁷ aztertzen dira. Horretarako, hitzen lema eta horien informazio morfologikoa bereizten dira: “Hierzu wird das To-

⁷Schererrek honela definitzen ditu *token*-ak: “das konkrete Vorkommen einer sprachlichen Einheit im Korpus” (2006: 33). Hau da, corpusean bere horretan agertzen diren hitz guztiak dira *token*-ak. *Token* desberdinak *type* beretik sortuak izan daitezke. Horregatik, honela definitzen ditu Schererrek *type*-ak: “die abstrakte sprachliche Einheit, die zusammengehörige Tokens wie Wortformen oder Lautvarianten zusammenfasst und dabei von konkreten Merkmalsausprägungen wie Flexions- oder Intonationsmerkmalen abstrahiert” (2006: 33).

ken analysiert und auf seine Grundform, das Lemma, zurückgeführt, die Analyse liefert gleichzeitig morphologische Informationen” (Lemnitzer eta Zinsmeister 2006: 71).

Corpusen bilakaera deskribatu dugunean ikusi dugu corpusen tamaina aldatzen joan dela denboran zehar. Lehen corpus elektronikoa, “Brown Corpus”-a, milioi bat testu-hitzekoa (*token*) zen, eta, gaur egun, ordea, aurki ditzakegu, gurean ere, 200 milioi hitzetik gorako corpusak –ETC (Egungo Testuen corpora) kasu. Schererrrentzat (2006: 16) milioi bat testu-hitzetik beherako corpusak corpus txikiak dira, 100 milioitik gorakoak handiak, eta bilioi batetik gorakoak oso handiak. Dena den, ez dugu ahaztu behar Lemnitzer eta Zinsmeisterrek diotena: corpusaren diseinua eta tamaina lanaren helburuen arabera izango da. Batzuetan, corpus handiak ezinbestekoak izango dira, baina corpus txikiekin ere azterketa interesgarriak egin daitezke (2006: 105).

Zeharka tamainarekin zerikusia duen beste irizpide bat erabilera-eremuarena da. Horren arabera, bi corpus-mota bereizten dira: erreferentzia-corpusak eta corpus-espezializatuak. Lehenengoen kasuan, helburua da “hizkuntzaren erabilera-eremu guztietarako baliagarria edo ‘adierazgarria’ izatea” (IXA eta Elhuyar 2007: 16). Horregatik, hizkuntzaren erabilera-eremu guztien adierazgarri izan behar duela, handi xamarra izan ohi dira⁸. Lemnitzer eta Zinsmeisterren (2006: 106) esanetan, *Kontrollkorpora* gisa erabiltzen dira; hau da, corpus-espezializatuekin lan egiten dutenek erabiltzen dituzte, datuak konparatze aldera. Kennyk (2001: 58) ere gauza bera dio: “Major reference corpora like the BNC and the Cobuild Bank of English

⁸Adierazgarritasunarena gai polemikoa da; hau da, ez da erraza zehazten zer den adierazgarri izatea eta zein irizpide hartu beharko liratekeen aintzat corpus adierazgarri bat sortzeko: “(...) there are differing opinions regarding what can be counted as representative. Also, the question of what sampling techniques should be used to achieve representativeness is contentious. While some scholars propose that a corpus must be defined in linguistic terms (e.g. the distribution of words or other patterns), it is our view that non-linguistic (or extralinguistic) parameters should be used as important definitional criteria also” (McEnery et al. 2006: 5).

can also be used as ‘controls’ in descriptive studies of translation, allowing patterns observed in a source or target text to be set off against what is known about the language in general (Kenny 1998b; Munday 1998)”. IXA eta Elhuyar taldekoek (2007: 16) ohartarazten dute ez dela ereduazko corpusarekin nahastu behar, azken horien bitartez ereduagarria den hizkuntza islatu nahi izaten delako corpusetan, eta, erreferentziazkoetan maiztasuna delako aintzat hartzen dena.

Schererrek “British National Corpus”-aren (BCN) adibidea ematen du, gaur egungo ingeles britainiarraren adierazgarri den 100 milioi hitz inguruko corpusarena, alegia. Bai ahozko (% 10) bai idatzizko (% 90) testuak jasotzen dira, eta, azken horien artean, testu-motei dagokienez, aski aberatsa da.

Corpus-espezializatuek, aldiz, hizkuntza bateko aldaera konkretu bat ikertzeko balio dute, hala nola gazte hizkera, aldizkarietako hizkuntza edo dialekto konkretuak. Schererren hitzetan (2006: 28): “Sie dienen vielmehr dazu, eine bestimmte Varietät einer Sprache wie die Jugendsprache, die deutsche Rechtssprache, die Zeitungssprache, das Hessische oder die Sprachen von Deutsch-als-Fremdsprache-Lernern zu erforschen”. Dena den, ez dugu ahaztu behar aldaera konkretu horren adierazgarri izan beharko luketela.

Iraunkortasunari dagokionez, corpus monitoreak eta estatikoak aurki ditzakegu. Hitzak berak dioen moduan, corpus estatikoa aldatzen ez dena da. Horrek ez du esan nahi betirako *izoztuta* egon behar dutenik (Lemnitzer eta Zinsmeister 2006: 106); izan ere, gerta daiteke noiz edo noiz materiala osatu eta corpusaren bertsio berriak egitea. Bestalde, monitoreak eguneratu egiten dira. Horrela, batzuetan, denbora pasatu ahala, gero eta handiago bihurtzen dira; baina, tamaina ez da beti nahitaez aldatzen. Gurean, Erreduzko Prosa Dinamikoaren (EPD) kasua aipa genezake. EPD corpusean azken bost urtetako argitalpenak jasotzen dira, urtero eguneratzen da, eta, prozesu horretan, 3 milioi hitz berri sartzen dira. Urte berri bateko argitalpenak sartzen direnean, argitalpen zaharrenak kendu egiten dira; horrela, corpusaren tamaina ez da ezinbestean aldatzen.

Corpus garaikide eta historikoen arteko muga zehaztea ez da ho-

rren samurra. Kontua da, alde batetik, Schererrek (2006: 25) dioen moduan, erabakitzea noiztik hitz egin dezakegun gaur egungo hizkuntzaz: XX. mendeko 80. hamarkadatik aurrerako testuez osatutako corpora corpus garaikidea da? Bestalde, gauza jakina da corpusak zahartu egiten direla. Sortu zirenean garaikide izan arren, denbora pasatu ahala, historiko bihur daitezke. Azken finean, corpora zertarako erabiliko den erabakigarria da: gaur egungo neologismoak aztertu nahi baditugu, besteak beste 80. hamarkadako testuez osatutako corpora ez da hain egokia izango. Azterketaren helburuei lotuta, gainera, kasuan-kasuan erabaki behar da azterketa sinkroniko edo diakronikoa egin nahi den; izan ere, aldi jakin baten adierazgarri den corpusak (demagun XX. mendeko corpusak) bai azterketa sinkronikoak bai diakronikoak egiteko balio dezake.

Azkenik, corpusak elebakarrak, elebidunak edo eleaniztunak izan daitezke. Egia da euskaraz corpus elebakarrak gailentzen direla (XX. mendeko euskararen corpus estatistikoa (XXECE), Ereduzko Prosa Gaur (EPG), goian aipatutako EPD, Zientzia eta Teknologiaren corpora (ZTC), Egungo Testuen Corpora (ETC)...), baina, azken urteetan, corpus eleaniztunak ere garatu dira, 3.2.3.1 atalean ikusiko dugun moduan.

Bestalde, corpus paralelo eta konparagarrien arteko bereizketa egiten da. Corpus konparagarriak elebakarrak edo elebidunak izan daitezke; lehenengo kasuan, hizkuntza baten barruan, diskurtso itzuliaren eta jatorrizkoaren arteko desberdintasunak aztertu ohi dira, eta, corpus konparagarri elebidunen kasuan, berriz, hizkuntza desberdinetan, ezaugarri antzekoak partekatzen dituzten testuak dira aztertzen direnak.

Corpus paralelo elebidun eta eleaniztunetan, testuen artean itzulpen harreman bat egon behar da; hau da, hizkuntza bateko jatorrizko testuz eta beste hizkuntza bateko edo batzuetako xede testuz osatuta daude.

Norabidearen arabera, corpus paraleloak norabide bakarrekoak (alemanetik euskarara itzulitako testuz osatutako corpora), noranzko bikoak (alemanetik euskarara eta euskaratik alemanera) edo norabide

aniztunak (bi hizkuntza baino gehiagoren kasuan) izan daitezke.

Itzulpen corpus paraleloen zailtasun nagusia testuak lerrokatzea da. Ikus dezagun Jik (2010: 6) dioena Véronisi (2000: 25) erreferentzia eginez: “On the other hand, for the construction of a PTC [Parallel Translational Corpus], the first technical problem is a proper automatic alignment of source and target texts at word or sentence level, which represents one of the most difficult problems in natural language processing and machine translation”. Baina, lan asko egin da lerrokatzaile automatikoen eremuan, eta horrek onurak ekarri ditu.

Gaur egun, beste arazo batzuk ere sortu dira: testu paralelo lerrokatuek gastu handiak eta egile-eskubide arazo ugari sortzen dituzte, eta, horren ondorioz, itzulpen ikasle eta ikertzaileek ez dute aukerarik horiekin lan egiteko. Horregatik, beste corpus-mota batzuk sortu dira: “small-scale topic-specific PTC, which in fact constitute the mainstream corpora used today in most individual research projects in line with corpus-based translation studies” (Ji 2010: 6).

Orain gutxi, zailtasun horiek guztiak gainditu dituen corpus baten berri izan dugu: DPC edo “Dutch Parallel Corpus”-a⁹. 10 milioi hitzetik gorako corpus hau eleaniztuna da (nederlandera, frantsesa, ingelesa), testu-motei (5 testu-mota) eta itzulpen norabideei (nederlandera-ingelesa, ingelesa-nederlandera, nederlandera-frantsesa, frantsesa-nederlandera) dagokionez orekatua da, lerrokatua eta etiketatua (lemak eta *part-of-speech tags*) dago, metadatu hornitua, eta ez du inolako copyright-arazorik, testuen egile-eskubideak lortu baitituzte.

Laburpen modura, ikus ditzagun hurrengo taulan aipatu ditugun corpus-motak:

⁹Proiektuaren web-orria: <http://www.kuleuven-kulak.be/DPC>. Corpusaren *demo* bertsioa: <http://dpc.inl.nl/indexd.php>.

3.1. taula: Corpus-motak

| Irizpideak | Corpus-motak |
|------------------|--|
| Formatua | elektronikoak / paperezkoak |
| Iturria | ahozkoak / idatzizkoak |
| Etiketatzeredua | gordinak / etiketatuak |
| Tamaina | txikiak / handiak / oso handiak |
| Erabilera-eremua | erreferentzia-corpusak / espezializatuak |
| Iraunkortasuna | estatikoak / monitoreak |
| Denbora | gaur egunekoak / historikoak |
| Hizkuntza(k) | elebakarrak / elebidunak / elea-niztunak |
| | Konparagarriak / Paraleloak |

3.2.3 Corpusak xede- eta sorburu-hizkuntzan

Aurrerago deskribatuko dugun gure corpora espezializatua denez, erreferentzia-corpusak erabiliko ditugu bai sorburu- bai xede-hizkuntzan *Kontrollkorpora* gisa. Horregatik, hurrengo lerroetan, euskal corpus eta corpus aleman adierazgarrienak zeintzuk diren ikusiko dugu, eta, euskararen kasuan, corpusgintzaren bilakaera ere aipatuko dugu labur-labur.

3.2.3.1 Euskal corpusak

[Areta et al.](#) lanean aipatzen den moduan, euskarazko lehen corpora, Orotariko Euskal Hiztegiaren testu-corpora, 1984koa da, eta, hala, beste hizkuntzekin alderatuta, “gure iritzia da euskara ez zela ‘berandu’ iritsi corpusgintzara” (2008: 79). Hurrengo corpora ere,

XX. mendeko euskararen corpus estatistikoa (XXECE) UZEIk osatu zuen, eta Euskaltzaindiaren eskutik iritsi zitzaigun. Kasu horretan, denboran egon zen jauzia nabarmendu behar da: 18 urte pasatu ziren XX. mendeko testuak (1900-1999) jasotzen dituen corpora sortu zen arte. Garrantzi handia izan zuen, gainera, corpus horrek bere garaian, “euskaraz modu “modernoa” osatutako lehenengoa izan zelako, eta gerora sortu ziren beste batzuen eredu ere izan zelako. Oraingoz, tamainaz txiki geratu bada ere, hau da XX. mendeko euskal erakusgarri orokor bakarra” (Urkia 2010: 6).

Denbora-jauzi hori dela eta, Areta et al. lanean honako hau irakur daiteke: “XX. mende amaieran, moteltze nabarmen bat gertatu da, eta corpus ‘handien’ eraketan hamarkada baten atzerapena dugu, gutxienez, inguruko hizkuntzekiko” (2008: 79).

Bai Areta et al. artikuluan bai Urkiaren lanean sortu ziren bi corpusen balioa azpimarratzen da, baina lan horien egileak kexu dira euskaraz corpus erraldoirik ez dagoelako.¹⁰ Urkiaren hitzetan: “(...) oraingoz ez dugu XXI. mendeko euskararen erakusgarri izango den corpus bateratu orokor bat, egungo corpusak integra ditzakeena, azpicorpus gisa nahi bada” (2010: 12).

Aipatutako bi artikuluetan (Areta et al. eta Urkia), 1984tik 2010. urtera arteko idatzizko corpus adierazgarrienak (tamaina aldetik) eta eskuragarri daudenak aipatzen dira, eta guk 3.2 taulan jaso ditugu:

3.2. taula: Idatzizko euskal corpus adierazgarriak (1984-2010)

| Corpusa | Data | Egilea | Tamaina | Hizkuntza |
|--|------|----------------|-----------------|-----------|
| Orotariko Euskal Hiztegiaren testu-corpusa | 1984 | Euskaltzaindia | 5,6 milioi hitz | EU |
| XX. mendeko euskararen corpus estatistikoa | 2002 | Euskaltzaindia | 5 milioi hitz | EU |

¹⁰ Aurrerago aipatuko dugun moduan, gaur ETC corpusak betetzen du hutsune hori.

| | | | | |
|--------------------------------------|------|--|-------------------------|----------------|
| LEGE-bi | 2004 | Deustuko Unibertsitatea | 2,4 milioi hitz | EU, ES |
| Klasikoen Gordailua corpusa | 2005 | Susa argitaletxea | 11,9 milioi hitz | EU |
| Zientzia eta Teknologiaren corpusa | 2006 | EHUko IXA taldea eta Elhuyar Fundazioa | 8,5 milioi hitz | EU |
| Ereduzko Prosa Gaur | 2007 | EHUko Euskara Institutua | 25,1 milioi hitz | EU |
| Ereduzko Prosa Dinamikoa | 2009 | EHUko Euskara Institutua | 15 milioi hitz | EU |
| Zientzia Irakurle Ororentzat corpusa | 2010 | EHUko Euskara Institutua | 16 liburu | EU |
| Eroski Consumer corpusa | 2010 | Elhuyar Fundazioa eta Eleka | 13,6 milioi hitz | EU, ES, CA, GL |
| Lexikoaren Behatokiaren Corpusa | 2010 | Euskaltzaindia | 26 milioi hitzetik gora | EU |

Zerrenda horretatik, alde batetik, corpus eleaniztunak nabarmenduko genituzke. Lehena Deustuko Unibertsitatean sortu zen LEGE-bi corpusa da, eta 2004an argitaratu zen. Gaur egun, Vigoko Unibertsitateko CLUVI web-atarian kontsulta daiteke¹¹. Testu motei dagokienez, espezialitatekoa da, buletinak direlako jasotzen dituen. Bestea, Eroski Consumer Corpusa, ez zen 2010 arte abian jarri, baina aurrerapausoa egin zen, batez ere biltzen dituen hizkuntza kopuruari (euskara, gaztelania, katalana eta galegoa) eta tamainari erreparatzen badiogu. Lehen bertsioa aipatu berri dugun CLUVI atarian kontsulta daiteke. Bertan, 1998-2006 bitarteko aldizkariak jasotzen dira, eta Asier Alcázarrek sortu zuen. Bertsio berriak, berriz, 2012 arteko testuak biltzen ditu, eta Eroski Consumer webgunean dago

¹¹http://sli.uvigo.es/CLUVI/corpus_en.html#eroski

eskuragarri¹².

Bestalde, zerrendarekin jarraituz, tamaina aldetik esanguratsuak diren honako bi corpus hauek aipatuko ditugu: Ereduzko Prosa Gaur (EPG) eta Lexikoaren Behatokiaren Corpora (LBC). Prentsako testuak (2001-2006) eta literatur testuak (2000-2006) biltzen ditu lehenak, eta estatikoa da, 2009an egin zen azken eguneraketa. Corpus hori osatzeko asmotan sortu zen 3.2.2 atalean aipatu dugun Ereduzko Prosa Dinamiko (EPD). Bi desberdintasun nagusi ditu EPG corpusarekiko: urtero-urtero berrituko da (momentuko hizkuntza islatuko duen tresna izatea helburu duelako¹³), eta emaitzak EPG corpusean baino testuinguru zabalago batean ikusteko aukera ematen du.

LBC, aldiz, hedabideetako hizkera jasotzen duen corpus monitorrea da. Euskaltzaindiaren ekimenez sortua izan den arren, elkarlanean garatua izan da; EHUko IXA taldeak, Elhuyar Fundazioak eta UZEIk hartu dute parte proiektuan. Web-orrian adierazten dute, momentuz LBC sortu badute ere, “Euskaltzaindiaren ametsa erreferentzia-corpus handi, orekatu, lematizatu, etiketatu eta linguistikoki anotatua izatea”¹⁴ dela.

Aipatu ditugun bi artikulua, Areta et al. eta Urkiarena, 2008 eta 2010ekoak dira hurrenez hurren. Urkiak 2010ean zioen euskal corpusgintza sendo dagoela (2010: 15). Hurrengo taulan 2011tik aurrera eskuragarri dauden corpusak bildu ditugu. Taulari begiratuta esan dezakegu euskal corpusgintzak sendo jarraitzen duela, eta helburuak bete direla:

3.3. taula: Idatzizko euskal corpus adierazgarriak (2011-2013)

| Corpusa | Data | Egilea | Tamaina | Hizkuntza |
|-----------------------------------|------|--------------------------|------------------|-----------|
| Goenkale | 2011 | EHUko Euskara Institutua | 11 milioi hitz | EU |
| Pentsamenduaren Klasikoak corpusa | 2011 | EHUko Euskara Institutua | 10,7 milioi hitz | EU |

¹²<http://corpus.consumer.es/corpus/>

¹³<http://ehu.es/ehg/epd/>

¹⁴<http://lexikoarenbehatokia.euskaltzaindia.net/aurkezpena.htm>

| | | | | |
|--|------|--------------------------|-------------------------|----------------|
| Gipuzkoako Foru Aldundiaren itzulpenen datu-basea | 2011 | Gipuzkoako Foru Aldundia | Etengabe eguneratzen da | EU, ES (% 90) |
| Bizimena (Bizkaiko Foru Aldundiaren itzulpenen datu-basea) | 2011 | Bizkaiko Foru Aldundia | Etengabe eguneratzen da | EU, ES |
| Zuzenbide corpusa | 2012 | EHUko Euskara Institutua | 6,6 milioi hitz | EU |
| EHUskaratuak | 2012 | EHUko Euskara Institutua | 47 liburu | ES, EN, FR, EU |
| Web Corpusen Ataria (corpus elebiduna) | 2013 | Elhuyar Fundazioa | 18 milioi hitz | EU, ES |
| Web Corpusen Ataria (corpus elebakarra) | 2013 | Elhuyar Fundazioa | 125 milioi hitz | EU |
| Egungo Testuen Corpora | 2013 | EHUko Euskara Institutua | 204,9 milioi hitz | EU |

Goenkale telesaileko elkarrizketak biltzen ditu Goenkale corpusak, eta, horrela, EHUko Euskara Institutuko webgunean irakurri dezakegun moduan, “aukera paregabea dugu ikusteko nolako testuingurua duten euskal hitzek beste erregistro honetan, elkarrizketarenean alegia”¹⁵. *Esnalen* irakurri dezakegunez, entzuleak telebistan ikusten dituen elkarrizketak sortu aurretik, beste hainbat pauso ematen dira: lehenengo, urtean behin, “biblia” egiten da; hau da, urte guztian telesailean gertatuko dena programatzen da. Ondoren, eskaletak egiten dira, hots, kapituluaren eskemak. Gero, tratamendua dator, hau da, eskaletaren narrazio zehaztua, eta, azkenik, elkarrizketak sortzen dira (*Esnal*: 440-442). 2013ko udan, aukera izan genuen Baionan egin ziren itzulpen-jardunaldietan Goenkaleko euskara arduraduna-

¹⁵<http://ehu.es/ehg/goenkale/>

ren hitzaldia entzuteko. Deigarri gertatu zitzaigun zerbait esan zuen: eskaletak gazteleraz egiten dira, eta, horiek abiapuntu hartuta beste guztia euskaraz idazten da. Beraz, zaila da zehazten a) jatorriz euskaraz sortutako edo b) itzulitako testuz osatutako corpus baten aurrean gauden.

Urte berean eta erakunde berberak tamaina bertsuko beste corpus bat argitaratu zuen: Pentsamenduaren Klasikoak corpora. Bertan, Klasikoak elkarteak 1992 eta 2009 artean argitaratu zituen liburuak biltzen dira¹⁶.

Ondoren, hiru corpus-espezializatu jaso ditugu taulan. Gipuzkoako Foru Aldundiaren itzulpenen datu-basea¹⁷ 2006. urtetik elikatzen da, eta UZEIk garatutako eLENA aplikazioa erabiltzen du. Gainera, euskarazko eta gaztelaniazko testuak jasotzen dira batez ere. Bizkaiko Foru Aldundikoak ere testu juridiko-administratiboak biltzen ditu¹⁸, eta EHUKo Euskara Institutuak sortutakoa¹⁹ Euskara juridikoa jasotzen duten testuz osatua dago, 2000. urtetik aurrerako testuz, hain zuzen.

Hizkuntza bat baino gehiago biltzen dituzten corpusekin jarraituz, EHUskaratuak aipatu beharra dago. Ingelesa, frantsesa eta gaztelaniatik euskarara itzulitako testu akademikoak osatuta dago corpus hau, eta 2007, 2009, 2010, 2011 eta 2012an argitaratutako testuak dira biltzen direnak.

Elhuyar Fundazioak ere corpus paralelo bat argitaratu du 2013. urtean Web Corpusen Atari barruan. Webetik automatikoki erauzitako testuz osatutako corpusak dira Web Corpusen Atariko corpus paraleloa eta corpus elebakarra²⁰. Adam Kilgarriffi erreferentzia eginez, Elhuyar Fundazioko [Leturiak](#) dio weba dela “corpus handiak modu erraz, merke eta azkarrean osatzeko modurik onena”. Onar-

¹⁶<http://ehu.es/ehg/pkc/>

¹⁷<http://www.gipuzkoa.net/imemoriak/>

¹⁸<http://apli.bizkaia.net/Apps/Danok/CEMT/Default.aspx?locale=es-ES>

¹⁹<http://www.ehu.es/ehg/zuzenbidea/>

²⁰Hirugarren atal bat ere badauka atari honek, hitz-konbinazioak atala, hain zuzen. Bertan, automatikoki erauzitako bigramak bilatu daitezke.

tzen du corpusak modu horretan sortuz, kalitate eskaseko testu asko jasoko dituela corpusak, baina, era berean, hizkuntza erreala hori dela dio eta corpusak erabilera erreala aztertzeko sortu direla.

Orain arte euskaraz sortu den corpus handiena aurkeztu nahi genuke, Egungo Testuen Corpora edo ETC. [Urkiak](#) aipatzen zuena egia bihurtu da nolabait: hainbat azpicorpusen baturatik erreferentzia-corpus zabal eta orekatua garatu du EHUKo Euskara Institutuak²¹. Oreka hori hainbat arlotan mantendu da: testu-motei dagokionez, urtero bildu dituzten hitz kopuruari dagokionez, eta jatorrizko eta itzulitako testuei dagokionez ere. Dena den, benetan orekatua izateko ahozko testuak ere bildu beharko lituzke²². Eta, bestalde, 204,9 milioi testu-hitzen banaketa ere, jatorrizkoa/itzulpena etiketei dagokienez, ez da orekatua: 35,3 milioi hitzez osatuta dago jatorrizkoei dagokion zatia, 29,6 milioi hitz batzen dituzte itzulpenek eta neutroak 140 milioi dira. Neutro gisa jasotzen direnak prentsako testuak dira batez ere, webgunean agertzen denaren arabera, ezin denean jakin bata edo bestea den, hau da, jatorrizkoa edo itzulpena den.

Azkenik, arlo akademikoan, UPV/EHUKo Itzulpengintza eta Interpretazio sailean, sortu ditugun corpus lerrokatu eta eleaniztunen berri eman nahi genuke. Oraindik argitaratu gabe daude (eta horregatik ez ditugu taulan jaso), baina [Zubillaga et al.](#) artikuluan aipatzen den moduan, hiru dira sortu ditugun corpusak: “Zubillaga’s subcorpus consists of German children’s literature and its translations (AleuskaHGL), Sanz’s subcorpus consists of German narrative texts and their translations (AleuskaPhraseo) and Uribarri’s subcorpus consists of German philosophical texts and their translations (AleuskaFilo)” ([Zubillaga et al.](#) 2015).

²¹Corpusaren osaketaren inguruko datu zehatzak ETCko webgunean daude eskuragarri: <http://www.ehu.es/etc/?p=iturburuak>

²²Euskarazko ahozko corpusen inguruan gehiago jakiteko, begiratu iturri hauek: [Areta et al.](#) (2008) eta [Urkia](#) (2010).

3.2.3.2 Corpus alemanak

Alemanari erreparatzen badiogu, bi corpus aipatzen dira [Areta et al.](#) artikuluan: DWDS corpora²³ eta DeReKo corpora²⁴. Hain zuzen, horiek dira corpus alemanen inguruko eskuliburu edo artikuluetan beti aipatzen diren corpusak ([Lemnitzer eta Zinsmeister](#) (2006); [Scherer](#) (2006); [Sailer](#) (2007)). Lehenak hiru corpus biltzen ditu: XX eta XXI. mendeko *Kernkorpusa* (orekatua eta eskuragarri dagoena), *Ergänzungscorpusa* (funtsean aldizkarietako testuz osatuta dagoena eta neurri batean bakarrik eskuragarri dagoena) eta hainbat corpus-espezializatu. Batez ere, hiztegi gintzan erabiltzeko sortu zen.

Guk erabiliko duguna (eta, ondorioz, hemen sakonago aurkeztuko duguna), berriz, Mannheim-eko IDSn sortutako DeReKo (*Deutsches Referenzkorpus*) corpora da, horien helburua ikerketa linguistikoetan oinarri enpiriko gisa erabiliko den tresna sortzea baita.

Gaur, 2014. urtean, 24 bilioi hitzez osatuta dagoen corpus hau Paul Grebe eta Ulrich Engelek sortu zuten 1964an. 1967an jada 2,2 milioi hitz biltzen zituen, eta gaur egun corpus aleman handiena da. Gainera, etengabe elikatzen dute, eta, handitzen doan heinean, bertso berriak kaleratzen dituzte IDSkoek. Egileen arabera, helburua ez da corpus orekatu eta adierazgarri bat sortzea, ikertzaile bakoitzaren esku dagoelako corpus orekatu eta adierazgarria zer den erabakitzea, bere ikerketa helburuak kontuan hartuta. Honela diote²⁵:

“Although the whole archive may be used as a sample itself, the principle purpose of DeReKo is to serve as a versatile *primordial sample* (“*Ur-Stichprobe*”) (cf. Kupietz and Keibel, 2009) from which specialized subsamples, so-called *virtual corpora* (“*virtuelle Korpora*”), can be drawn” ([Kupietz et al. 2010](#): 1849).


²³<http://www.dwds.de/>

²⁴<http://www1.ids-mannheim.de/kl/projekte/korpora/>

²⁵Sailerrek (2007: 1061) ere gauza bera dio: “The policy of the IDS corpus group is to collect as much material as possible and to make enough meta-information on genre, regional and temporal origin, author, etc., available, so that users can compile a subcorpus according to their own needs”.

Corpusa osatzen duten azpicorpusak, gainera, testu-mota desberdinez osatuta daude, eta egile-eskubide eta baimen kontuengatik ezin dira deskargatu. Bilaketak egiteko, beraz, IDS barruan sortutako software bat erabili behar da: COSMAS II (*Corpus Search, Management and Analysis System*). Hurrengo lerroetan, bilaketak nola egiten diren azaltzen saiatuko gara labur.

Lehenengo eta behin, erabiltzaile gisa izena eman ondoren, izena eta pasahitza sartu behar dira (*Anmeldung*). Behin hori eginda, hurrengo irudian agertzen dena ikusi ahalko dute erabiltzaileek:



3.1. figura: DeReKo-n bilaketak egiteko jarraitu beharreko pausoak

Irudian ikus daitekeen moduan, ondoren, artxiboa eta corpusa aukeratu behar dira. Schererrek dio artxibo eta corpus bat edo beste aukeratzea norberak bilatzen duen horren araberakoa izango dela. Gure kasuan, *Archiv der geschriebenen Sprache* (idatzizko hizkuntzaren artxiboa) aukera ona da, corpus handiena delako, XVIII. mendetik gaur arteko testuz osatua dagoena²⁶. Corpusari dagokionez ere, corpus publiko guztiak batzen dituen aukeratuko dugu (hau da, lehenengo aukera).

Artxiboa eta corpusa aukeratu eta gero, bilatu nahi dena idatzi behar da. Demagun *in die Hand drücken* hitz-konbinazioa nola era-

²⁶ Artxiboen inguruko informazioa: <http://www.ids-mannheim.de/cosmas2/projekt/referenz/archive.html>

biltzen den jakin nahi dugula. Ikusi dezagun hurrengo irudian nola egin dugun bilaketa:



3.2. figura: Bilaketa adibidea COSMAS II-n

Eingabe aukerari dagokion laukitxoan ikus daitekeen moduan, hau da bilatuko duguna: (in /+w1 die /+w1 Hand) /s0 &drücken. /+w1-en bidez, hitzen arteko distantzia definitzen dugu; bat, kasu honetan. *Drücken* aditzaren aurreko ikurrak aditzaren forma guztiak bilatu nahi ditugula esan nahi du, eta, /s0 markaren bitartez, bilaketa esaldiaren mugan egin nahi dugula adierazten da; hots, alde batetik, *drücken* aditza (eta aditz forma guztiak), eta, bestetik, *in die Hand* hitz multzoa (bere horretan) esaldi berean agertzen diren kasu guztiak aurkitu nahi ditugula adierazten da bilaketa horren bidez.

Gero, programak aukera ematen digu, aditzaren forma desberdinen artean, bilaketan sartu nahi ditugunak aukeratzeko, honako irudi honetan ikus daitekeen bezala:



3.3. figura: *Drücken* aditzaren jokaera desberdinak

Azkenik, emaitzak bi modutara bistaratu daitezke: KWIC eran edo testuinguru zabalago batean. Hurrengo irudietan ikus ditzakegu bi aukerok:

The screenshot shows a web interface for searching through a corpus. At the top, there are navigation tabs: 'Über Corpus II', 'Abwählung', 'Suchanfrage', and 'Optimieren'. Below this, there are search filters and a search bar. The search results are displayed in a table with columns for 'Anzahl', 'Aktiv', and 'Alle deaktiv.'. The results list various news items with their dates and titles, such as 'Der grosse Augenblick ist da: Gemeindevater Peter Salzberg...' and 'Einmal über, heißt es auf dem Kinder, dem Alex Bander...'. The interface is in German and includes a search bar with the query 'in (w|f) die (w|f) Hand) /&0 Schicken'.

3.4. figura: *Gesamt-KWIC* aukera

The screenshot shows a web interface for searching through a corpus, similar to the previous one but displaying full text results. The search results are displayed in a table with columns for 'Anzahl', 'Aktiv', and 'Alle deaktiv.'. The results list various news items with their dates and titles, such as 'Der grosse Augenblick ist da: Gemeindevater Peter Salzberg...' and 'Einmal über, heißt es auf dem Kinder, dem Alex Bander...'. The interface is in German and includes a search bar with the query 'in (w|f) die (w|f) Hand) /&0 Schicken'.

3.5. figura: *Gesamt-Volltext* aukera

Azpiatal honekin amaitu aurretik, COSMAS II-k eskaintzen duen beste aukera bat aipatu nahiko genuke: *Kookurrenzanalisi* aukera, Cyril Belicak 1994 eta 1995 bitartean garatu zuena. Aukera horri esker, bilaketako hitzak zein testuingurutan erabiltzen diren ikusteko aukera daukagu. Demagun, adibidez, *Hand* (esku) izena eta *reiben* (igurtzi) aditzaren agerkidetzatza-analisisa egin nahi dugula. Ikus dezagun hurrengo irudian analisiaren emaitza:

| # | LLR | kumul. | Häufig | Kookkurrenzen | syntagmatische Muster |
|----|------|--------|--------|---------------------------|--|
| 1 | 3835 | 1 | 1 | gedrückt bekommen Pistole | 100% Pistole in ... gedrückt bekommen |
| | | 47 | 46 | gedrückt bekommen | 63% in die Hand gedrückt [...] bekommen |
| | | 49 | 2 | gedrückt bekommt Prospekt | 100% bekommt keinen Prospekt in die Hand gedrückt |
| | | 75 | 26 | gedrückt bekommt | 65% bekommt ein ... in die Hand gedrückt |
| | | 77 | 2 | gedrückt Prospekt bekam | 80% bekam ... Prospekt in ... gedrückt |
| | | 82 | 5 | gedrückt Prospekt | 100% einen Prospekt [...] in die Hand gedrückt |
| | | 101 | 19 | gedrückt bekam | 87% bekam einen ... in die Hand gedrückt und |
| | | 105 | 4 | gedrückt Pistole | 100% eine Pistole [...] in die Hand gedrückt |
| | | 112 | 7 | gedrückt bekamen | 57% bekamen ein ... in die Hand gedrückt |
| | | 480 | 368 | gedrückt | 100% in die Hand gedrückt |
| 2 | 3645 | 1110 | 630 | Hand | 98% in die Hand gedrückt/drücken |
| 3 | 127 | 1134 | 24 | Zettel | 66% einen Zettel [...] in die Hand |
| 4 | 74 | 1145 | 11 | Klinke | 72% die Klinke [...] in die Hand |
| 5 | 50 | 1152 | 7 | verdutzen | 42% drückte dem verdutzen |
| 6 | 42 | 1199 | 47 | bekommen | 61% in die Hand gedrückt bekommen |
| 7 | 33 | 1225 | 26 | bekommt | 65% bekommt ein ... in die Hand |
| 8 | 32 | 1232 | 7 | Prospekt | 85% einen Prospekt [...] in die Hand |
| 9 | 31 | 1237 | 5 | Luftballon | 40% drückten einem freundliche Menschen einen Luftballon |
| 10 | 26 | 1243 | 6 | Flyer | 66% einen Flyer [...] in die Hand |
| 11 | 22 | 1262 | 19 | bekam | 57% bekam einen ... in die Hand |
| 12 | 20 | 1267 | 5 | Besen | 80% Besen [...] in die Hand |
| 13 | 19 | 1270 | 3 | Paddel | 33% drückt ... Paddel |
| 14 | 19 | 1275 | 5 | Visitenkarte | 40% drückte ... Visitenkarte |
| 15 | 19 | 1278 | 3 | Briefumschlag | 33% drückt ... Briefumschlag |
| 16 | 17 | 1286 | 8 | Passanten | 62% die ... Passanten [...] in die Hand |
| 17 | 15 | 1290 | 4 | Revolver | 100% Revolver [...] in die Hand |
| 18 | 15 | 1294 | 4 | Scheine | 50% Scheine in |
| 19 | 14 | 1298 | 4 | Umschlag | 50% drückte ... einen Umschlag |

3.6. figura: *Hand* eta *reiben*-en agerkidetza-analisiaren emaitza

Ikus daitekeenez, alemanez pozik gaudenean eskuak igurtzi egiten ditugula adierazten dute taularen goialdean agertzen diren ondorengo hitz hauek: *vergnügt*, *genüßlich*, *zufrieden*. Baita beste batzuen sufrimenduaz poza sentitzen dugunean ere, *schadenfroh*-k adierazten duen moduan. Eta, baita, noski, hotza sentitzen dugunean ere.

3.2.4 Corpusen erabilera itzulpen ikasketetan

Ikusi dugun moduan, corpusak historikoki hiztegitintan erabili izan dira (Urkia 2010). Baina, 90. hamarkada erditik aurrera, beste esparru batzuetara zabaldu ziren. Horien adibide dira goian aipatu berri ditugun *Corpus Based Translation Studies*-ak (CBTS) –edo, euskaraz, corpusetan oinarritutako itzulpen ikasketak. Orduan, testu itzulpen inguruko azterketa deskribatzaileak egiteko erabiltzen hasi ziren corpusak (Corpas 2008: 83-84). Xiao eta Yuek (2009: 239) aipatzen duten moduan: “The marriage between DTS and corpora is only natural, in that corpus linguistics, as a discipline stemming from the description of real linguistic performance, supplies DTS [Descriptive Translation Studies] with a systematic method and trustworthy data”.

Mona Bakerren 1993ko lanak izugarrizko eragina izan zuen Itzulpen Ikasketen baitan. **Corpasen** arabera, Bakerrek zera egin zuen: Sinclairrek proposatutako corpusaren metodologia hartu –hark proposatutako marko teorikoa (gramatika lexikoa) alde batera utziz–, eta metodologia hori erabili Itzulpengintza (Toury) eta Hizkuntzalaritza Aplikatutik (Blum-Kulka) zetozen hipotesiak baieztatu edo errefusatzeko. Beraz, *a priori* ezarritako oinarri teoriko batetik abiatzen da –itzulpen-unibertsalak–, eta corpusak erabiltzen ditu horiek aztertzeko.

Holmesek proposatutako adar deskribatzailearen baitan, corpusaren metodologia erabiliz egin diren azterketak aurkezten dituzte **Xiao eta Yuek** (2009). Adar deskribatzaile horren barruan, produktura, prozesura eta funtziora bideratutako azterketak egin daitezke. **Xiao eta Yueren** arabera, produktura bideratutako itzulpen-azterketa gehienek Bakerrek proposatutako itzulpen-unibertsalak aztertu dituzte: “The majority of product-oriented translation studies attempt to uncover evidence to support or reject the so-called translation universal hypothesis” (2009: 244). Bestalde, itzultzaileen estiloa ere aztertu izan dela adierazten dute. Ingelesari dagokionez, azterketa asko Mona Baker eta bere lankideek Manchesterreko unibertsitatean sortutako corpusean (*Translational English Corpus*, TEC) oinarritu dira.

Kennyk, esate baterako, ez zuen corpus hori erabili, baina Bakerren zuzendaritzapean, alemanetik ingelesera itzulitako literatur-testuz osatutako corpus paraleloa (GEPCOLT) sortu zuen, bi milioi hitzekoa. Esan bezala, bere corpusa paraleloa da, eta horien aldeko apustua egiten du, baina, era berean, Kennyk dio erreferentzia-corpusen erabilera garrantzitsua dela²⁷, “con vistas a detectar posibles desviaciones de los patrones estándares que permitan identificar usos creativos tanto en los originales como en las traducciones” (**Corpas** 2008: 113). Lexiko mailako (hitz eta hitz-konbinazio mailan, hain zuzen) normalizazioa da aztertu nahi duena, eta honela definitzen

²⁷Jatorrizko hizkuntzaren kasuan, BNC erabiltzen du eta alemanaren kasuan, Mannheim-eko corpusa.

du: “when translators opt for conventional target language solutions to problems posed by creative or unusual source text features” (2001: 66). Bere arabera, beste ikertzaile batzuek (Vanderauwera 1985; Øverås 1996 eta 1998; Malmkjær 1998) baieztatu dute normalizazio hipotesia.

Bere kasuan, hitz mailan, alde batetik, *hapax legomena*-k –hau da, behin bakarrik agertzen diren hitzak– identifikatzen ditu, maiztasun zerrendetan oinarrituta. Bestalde, egile batzuk bakarrik erabiltzen dituzten hitzak ere identifikatzen ditu, WordSmith Tools-eko *keywords* aukeraren bitartez. Lehen kasuan, % 44 neutralizatu egiten dira itzulpenetan, eta, bigarrenean, aldiz, apenas normalizatzen da.

Hitz-konbinazio mailan, WordSmith-eko beste aukera baten bitartez, *hiru-gramak* erauzten saiatzen da automatikoki, baina emaitzak horren onak ez direla ikustean, *Auge*-rekin sortutako ezohiko kolokazioak bilatzen ditu, eta nola itzuli diren ikusi. Kasu honetan, normalizazioa % 16koa da, eta itzultzaileen artean, gainera, alde nabarmenak daude. Ikertzaileak dio, agian, corpusaren tamainak eta hitz bakarra aukeratu izanak eragina izan dezakeela emaitzetan. **Corpasek** honako hau gaineratzen du: “Estas son dos evidentes limitaciones del estudio, que dificultan la extrapolación de resultados. Hubiera sido necesario extraer todas las colocaciones de forma automática, en primer lugar, y luego contrastar esos datos con los obtenidos para los corpus de referencia manejados” (2008: 114).

Emaitzei erreparatzen badiegu, normalizazioaren hipotesia kasu batzuetan baieztatu da, baina beste batzuetan ez. Horregatik, **Corpasek** (2008: 114) dio itzulpen-unibertsalak ikerketa zabalagoen marakoan aztertu beharko lirатеkeela, non testu-mota eta hizkuntza-pare desberdinak, eta horiek kokatzen diren inguruaren ezaugarri soziokulturalak aintzat hartu beharko lirатеkeen.

Kennyren azterketa hipotesi batzuetatik abiatzen den arren (beraz, funtsean, *corpus-based* da), dio aukera dagoela hipotesiak corpusean ikusitako erregulartasunetatik egiteko. **Corpasen** (2008: 114) hitzetan: “(...) [Kenny] afirma que el enfoque deductivo podría ser un punto de partida válida para el avance de la reflexión teórica en

este campo, en sustitución de las hipótesis preestablecidas, al estilo de las propuestas à la Toury o à la Baker”.

Hori da, hain zuzen, prozesura bideratutako azterketa baten baitan, [Utkak](#) egiten duena: ez da inongo hipotesitik abiatzen, eta corpusko datuetan oinarrituta egiten du ikerketa²⁸. Horretaz gain, beste berezitasun bat ere badu azterketa horrek. Prozesura bideratuta dagoenez, bere corpusa osatuko duten testu bakoitzarentzat lau testu, Europar Erkidegoko lege-testuak betiere, bildu ditu: jatorrizko testua, itzultzailearen lehen zirriborroa, berrikusitako zirriborroa eta behin betiko bertsioa.

Itzulpen-prozesua corpusen bidez aztertu nahi denean, corpus paraleloak erabili ohi dira ([Xiao eta Yue 2009](#): 246), eta ez konparagarriak, produktura bideratutako azterketen markoan egin ohi den bezala. Dena den, ez dugu ahaztu behar prozesua aztertzeko beste modu batzuk ere badaudela: hala nola, *think-aloud-protocols*, *translog system* edo *eye-tracking*. Metodo esperimental horien haritik, itzulpen prozesua aztertzen duten hiru proiektu nagusi aipatzen ditu [Halversonen](#) (2013: 55): Kopenhageko *Centre for Research and Innovation on Translation and Translation Technology* (CRITT), Eye-to-IT proiektua eta Espainiako PACTE ikerketa taldea. Ikertzailearen arabera, hiru proiektuen helburua itzulpen prozesua aztertzea den arren, “all of the groups include textual (product) data types in their portfolios, enabling combinations of textual (product) variables and process variables. The clearest implementations of this strategy are found in the Eye-to-IT work: textual variables such as syntactic segmentation, idioms, metaphor or text complexity are linked to process variables such as cognitive load, indicated by such measures as pause length, reaction time, or gaze fixation” (2013: 56).

Azkenik, funtziora bideratutako azterketa deskribatzaileak aipatuko ditugu. Itzulpen batek edo batzuek xede hizkuntzako testuin-

²⁸“We are not making any prior assumptions in connection with the present research, as we are determined to apply a corpus-driven approach to the analysis of the process of translation, and all the steps of the research are based on the corpus evidence, and not on any prior theories” ([Utkak 2004](#): 196).

guru soziokulturalean izan dezake(t)en funtzioa edo eragina deskribatzen duten ikerketak dira hauek. Baina, corpusetan oinarritutako horrelako azterketa gutxi dago “possibly because the marriage between corpora and this type of research, just like corpus-based discourse analysis (e.g. Baker 2006), is still in the ‘honeymoon’ period” (Xiao eta Yue 2009: 247).

Esku artean duzuen ikerketa lanean, xede testuetan jarri dugu arreta, eta, zentzu horretan, produktura zuzendutako lana da. Baina, era berean, corpus lerrokatua sortu dugu –sorburu-, zubi- eta xede-testuz osatuta dagoena-, eta itzulpen prozesua aztertzen ere saiatu gara –jakin badakigun arren, corpuseko emaitzak beste emaitza batzuekin osatzea izango litzatekeela idealena itzulpen prozesua ondo aztertzeke.

3.2.5 Corpusen erabilera ikerketa fraseologikoe-tan

Ikerketa fraseologikoari dagokionez, Heinek (2012) metodologia enpirikoaren bilakaera aztertzen du alemanez egin diren azterketetan, eta, horretarako, hiru aldi bereizten ditu: fraseologia aurreko aldia, XX. mendeko fraseologia aldia (1970-2000) eta XXI. mendekoa.

Fraseologia aurreko aldi horretan, 2.2.1 kapituluaren ikusi dugun moduan, atsotitz bildumak egiten ziren batez ere. Heineren arabera, fraseologia enpirikoa ez da corpusgintzarekin hasten, lehen atsotitzlariekin baizik. Wander aipatzen du (guk ere 2.2.1 atalean egin dugun moduan), eta dio bere atsotitz bilduma sortu zuenean, hiru iturri erabili zituela hark datuak lortzeko: corpusak (literatura eta erreferentzia liburuak), behaketa eta galdeketak. Euskararen inguruan aipatu duguna berrikusten badugu, hasierako atsotitzlari eta fraseologoen (Azkue, Izagirre, Garate) metodo berdintsuak erabili zituztela konturatuko gara: beste liburu batzuetara jotzen zuten edo zuzen-zuzenean herritik jasotzen zituzten.

XX. mendean, 3.2.1 atalean aipatu dugun gramatika sortzailearen garapenak eragina izan zuen fraseologiaren ikerketan. Lehenengo

fraseologozat ez zen samurra izan orduan gailentzen zen teoriaren arabera azaldu ezin zitezkeen fenomenoak, unitate fraseologikoak, aztertzea. Burger (1973), Fix (1974/1976) eta Fleischerren (1982) lanak aipatzen ditu Heinek (2012: 168-169). Oro har, intuizioa zen abiapuntua, eta, esaten zutena frogatzeko, hiztegieta jasotzen ziren UFetara jotzen zuten. Fleischer izan zen, agian, bere intuizioak esaten ziona frogatzeko datu errealetara (literatur testuetatik jasotako aipuak, adibidez) gehien jo zuena.

Ondoren, hizkuntzen jabekuntzaren markoan, enpirikoki lan egin zuen beste ikertzaile bat aipatzen du: Annelies Häcki Buhofer. Galdeketa eta behaketa izan ziren erabili zituen lan prozedurak, umeek UFak nola ikasten dituzten aztertzeko.

Aldi honekin jarraituz, hiztegi gintza fraseologikoan corpusek izan duten eragina aztertzen du Heinek (2012: 171-174). Besteak beste, guk azterketa mikrolinguistikoa egiterako orduan erabiliko ditugun bi hiztegi aipatzen ditu: Duden bildumako 11. liburukia (*Redewendungen und sprichwörtliche Redensarten*) eta Schemannen *Deutsche Idiomatik*.

Lehenengoaren kasuan, edizio berriak argitaratu diren heinean, aldatu egin da lan egiteko modua. 1992. urteko lehen edizioan “ohiko” UFak jaso zituzten, eta UF horiek paperezko formatuan zeukaten corpus batetik ateratako adibidez hornitu zituzten. Hurrengo edizioetan (2002, 2008) argitaletxeko corpus elektronikoa erabili dute, ez bakarrik adibide berriagoak erauzteko, besteak beste, UFen maiztasuna frogatzeko ere.

Schemannen hiztegiari dagokionez, berezitasun bat dauka: 1993. urteko edizioan²⁹ jada corpusean oinarritutako analisi bitartez aukeratu zituen hiztegiko UFak. Hiztegiko hitzurrean dioena ere esanguratsua da: “„die Erarbeitung eines idiomatischen Grundwortschatzes für die europäischen Hauptsprachen – u.a. auf der Grundlage statistischer Erhebungen“ unbedingt erforderlich sei, um „die eher auf Intuition und Zufall beruhenden Kurzfassungen und Sammlun-

²⁹Beste edizio berriago bat ere badago, 2011koa, eta hori da, hain zuzen, guk erabiliko duguna.

gen durch zuverlässige Hilfsmittel“ zu ersetzen” (Heine 2012: 172). Hau da, hiztegiak jaso behar dituzten UFak aukeratzeko orduan, prozedura estatistiko bidez egitea proposatzen du, eta intuizioa alde batera uztea. Heinek dioten moduan, Schemannen alemaneko hiztegi hori oinarri hartuta, beste hainbat hizkuntzatan³⁰ hiztegi fraseologi-koak egin dira.

Paremiologian egin diren azterketak aipatuz ematen dio amaiera XX. mendeko aldiari. Oro har, esan daiteke metodologia enpirikoa ez dagoela oraindik oso zabaldua atsotitzen azterketetan³¹.

XXI. mendeko fraseologia garaian, corpus hizkuntzalaritzak eragin nabarmena izan du bai fraseologian bai hizkuntzalaritzan oro har. Heinere (2012: 176) ustez, corpusak nola erabili eta corpusetatik erauzitako datuak nola aztertu finkatzea falta da.

Hiru dira Heinek aipatzen dituen argitalpenak: (1) *Korpora, Web und Datenbanken* (Ptashnyk et al. 2010), (2) *Phraseologie global - areal - regional* (Korhonen et al. 2010) eta (3) *Beiträge zur internationalen Phraseologiekonferenz vom 13.-16.8.2008 in Helsinki* (Korhonen et al. 2008)³².

Bestalde, corpusen inguruan Alemania mailan lan gehien egin duena Mannheim hirian dagoen *Institut für Deutsche Sprache* izan dela adierazten du. Hori ez da bakarrik sortu duten corpus erraldoi horretan islatzen (ikusi 3.2.3.2), argitalpenetan ere. Heinek ez du esplizituki aipatzen, baina, fraseologiari lotuta, IDSren kontestuan, Steyerrek 2004an argitaratu zuen bilduma interesgarria iruditzen zait: Steyerrek berak fraseologia barruan corpusekin lan egiteko hainbat modu deskribatzen ditu, Hausmannek kolokazioen inguruan ere lan-paradigma desberdinak aurkezten ditu, Kennyk corpusean oi-


³⁰Esate baterako: *Idiomatik Deutsch-Spanisch* (Hans Schemann; Carmen Melado Blanco; Patricia Buján; Nely Iglesias; Juan P. Larreta; Ana Mansilla).

³¹Heinek (2012: 174-175) sakonago aztertzen du alderdi hau.

³²Aipatutako lehen argitalpenak bai jorratzen ditu corpusgintza eta fraseologiaren inguruko gai asko, baina, beste bi argitalpenetan, ez zait iruditutako, azterketa sakonik egin ez dudana arren, bereziki gai hori jorratzen denik. Bigarren argitalpenean van Lawicken azterketa azpimarratutako nuke, baina horren inguruan aurrerago jardungo gara.

narritutako itzulpen-azterketa baten emaitzak aurkezten ditu...

Ondoren, corpusekin lan egiteko bi paradigma deskribatzen ditu. Guk ere egin diogu jada ideia horri erreferentzia, labur izan bada ere: *corpus-based* eta *corpus-driven* dikotomiaz ari gara. Hizkuntza desberdinetan erabiltzen den terminologia argitze aldera, ikus dezagun ondorengo eskema hau:



3.7. figura: Corpusekin lan egiteko modu desberdinak

2001. urtean aipatu zituen Tognini-Bonellik eskeman ikus ditzakegun bi paradigmak: *corpus-based* (corpusean oinarritua) eta *corpus-driven* (corpusak zuzendua). Eta, alemanaren kasuan, Steyerrek beste bi termino, baliokide nire ustez, proposatu zituen: *Konsultationsparadigma* eta *Analyseparadigma*.

Corpusean oinarritutako azterketetan, hipotesi batetik abiatzen da ikertzailea eta corpusa kontsultatzen du, hipotesia baieztatu edo errefusatzeko. Steyerren arabera, egokia da lan egiteko modu hori kasu batzuetan, baina, bere ustez, arrisku bat dauka: ikusi nahi dena bakarrik ikusten da, edo, bestela esanda, konkretuki bilatzen den hori bakarrik aurkituko da. Bere hitzetan: “Man sieht nur, was man sehen will bzw. man findet auf diesem Weg nur das, wonach man konkret sucht” (2004: 93). Lan egiteko modu hori fraseologian aplikatzeak esan nahiko luke, Sailerren arabera, UF konkretu batzuk hartzen direla abiapuntu gisa, eta, corpusen bitartez, unitate horien “portaera” deskribatzen dela: “(...) a given set of expressions is taken

as the starting point and the corpus is used to extract the actual behaviour of these expressions” (2007: 1065).

Corpusak zuzendutako paradigmaren markoan, aldiz, abiapuntua estatistikoki definitutako corpus-portaera konkretu bat izan ohi da, eta, corpus-analitik, portaera horien adierazle diren datuak lortuko dira. Sailerren hitzetan: “(...) a particular, mostly statistically defined corpus behavior is taken as the starting point and the analysis returns the items which exhibit such behavior” (2007: 1065). Fraseologiaren kasuan, agerkidetza-analisiak (*Kookurrenzanalyse*) egin ohi dira; hau da, analisi horiei esker, estatistikoki maiz batera agertzen diren unitateak erauzi daitezke: “Sie ermöglicht [die Kookurrenzanalyse] es, sprachliche Einheiten aufzudecken, die statistisch auffällig häufig miteinander vorkommen” (Heine 2012: 179).

Eskemara bueltatuz, ez dugu ahaztu behar McEnery et al. lanean 2006. urteko argitalpenean proposatutakoa. Aurretik aipatu dugun moduan, horien arabera bi paradigmaren arteko mugak lausoak dira, eta, horregatik, *corpus-based* kontzeptua zentzu zabal batean erabiltzen dute, bi paradigmari erreferentzia egiteko: “In our book, the term corpus-based is used in a broad sense, encompassing both corpus-based and corpus-driven approaches (...)” (McEnery et al. 2006: 11). Heine bat dator McEnery et al. lanean esaten denarekin: bien arteko muga zehatza ezartzea ez da erraza, eta *corpus-driven* paradigmaren markoan lan egiten dutenek ere datuak interpretatu behar dituzte; lehenago edo beranduago, beraz, *corpus-based* lan egin behar dute. Hainbat ikertzailek bi paradigmaren arteko bereizketa zurruna egiten badute ere, gu ere ikuspegi malguaren aldekoak gara.

Paradigma horiez gain, Heinek adierazten du corpusak ezinbesteko tresna bihurtu direla ikerketa alor batzuetan; hala nola, hizte-gigintza fraseologikoan, kolokazioen azterketan edo fraseologia kontrastiboan –azken alor horren inguruko lanak aztertu ez dituen arren berariaz artikuluan. Baina, beste alor batzuetan, aldiz, zaila ikusten du corpusen erabilera. Honako hauek aipatzen ditu: esaera zaharrak, UFen erabilera eta ulermena haurrengan, UFen jabekuntza, UFen erabilera eta ezaguera, fraseologia kognitiboa...

Ondorioetan, corpusekin lan egitearen alde agertzen da, baina datuak aztertzeko orduan ikertzaileak intuizioaren eta erabaki subjektiboen mende daudela dio. Corpusen erabileraren bitartez lortu daitekeena, gure iritziz, ikerketak modu sistematikoan egitea da, baina ikertzailea bera da corpusak diseinatzeko dituen, corpusetik datuak erazten dituen, eta emaitza horiek interpretatzen dituen, eta, zentzu horretan, ikerketak beti izango dira subjektibo. Intuizio eta erabaki subjektiboetatik ihes egin baino, gure helburua izan da, metodologia jakin bat erabiliz eta emaitzak alderatuz, ikerketa ahalik eta sistematikoena egitea.

“Die größten Reserven sehe ich allerdings nicht unbedingt in den Korpora selbst oder in der Durchführung anderer empirischer Verfahren, sondern in der Auswertung der Daten. Hier sind die Linguisten im Allgemeinen und damit auch die Phraseologen noch immer viel zu sehr auf ihre Intuition und auf subjektive Entscheidungen angewiesen” (Heine 2012: 183)

Esan bezala, fraseologia kontrastiboari egin egiten dio erreferentzia Heinek, baina artikularen mugek ez diote alor horretan sakontzen uzten. Azpiatal honi amaiera emateko, fraseologia kontrastiboan baino, fraseologiaren itzulpena corpus bidez aztertu duen ikerketa talde bat aipatzea beharrezkoa iruditzen zaigu. 2.3.2 atalean dagoeneko aipatu dugun COVALT (Corpus Valencià de Literatura Traduïda) ikerketa taldeaz ari gara. Atal horretan aipatu bezala, taldeko kideek UFe itzulpena aztertzeko dute hainbat hizkuntza-konbinaziotan, eta, horretarako, COVALT corpusa sortu dute, lau milioi hitzetik gorako corpusa (Guzmán eta Serrano 2006), zeina hiru azpicorpusez osatua dagoen: frantsesa-katalana, ingelesa-katalana, alemana-katalana.

Oro har, honako hau da, Guzmán eta Serranoen arabera, ikerketa proiektuaren helburua: “El proyecto COVALT tiene como objetivo la elaboración de un corpus de obras narrativas y sus traducciones correspondientes publicadas por editoriales valencianas entre 1990 y

2000” (2006: 1744). Lehenengo fasean kontuan hartu dituzten jatorrizko hizkuntzak, goian aipatu bezala, alemana, frantsesa eta ingelesa dira, eta xede-hizkuntza bakarra da, katalana. Corpusarekin batera, kudeaketa-programa bat ere sortu dute: AlfraCOVALT. Honela deskribatzen dute [Guzmán eta Serranok](#) programa horren jatorria eta funtzioa:

“A fin de operar más fácilmente con este corpus paralelo [COVALT] se elaboró un programa gestor, AlfraCOVALT, que por una parte, permite búsquedas entre las diversas entradas según el autor, traductor o la lengua de los textos y, por otra, realiza el alineamiento de frases entre el texto original (TO) y el texto traducido (TT)” (2006: 170).

Kontua da testuak ez daudela lerrokatuta, eta, tresna horrek bilaketak egiten diren momentuan lerrokatzen dituela esaldiak. Beraz, ez dakit zentzu zorrotzean corpus lerrokatua den COVALT corpusa. Corpus moten kapituluan ikusitako tipologiaren arabera, beste ezaugarri hauek izango lituzke: elektronikoa, idatzizkoa (literatur-testuak), gordina, txikia, espezializatua, gaur eguneko eta eleaniztuna.

Gure corpuseko jatorrizko hizkuntza alemana denez, alemana-katalana azpicorpusaren ezaugarriari erreparatuko diegu. Hemezortzi testu-parez osatua dago; horietatik hamabost XX. mendeko autoreen lanak dira (B. Blumenberg, B. Brecht, M. Ende, C. Funke, M. con der Grün, C. Hein, F. Kafka, C. Nöstlinger, L. Rinser, J. Roth eta A. Sommer-Bodenburg), eta hiru autore erromantikoenak (A. Chamisso, E.T.A. Hoffmann, L. Tieck). Guztira, hamaika itzultzailek itzuli dituzte lanok. Xede-irakurleei dagokienez, zortzi liburu haur eta gazteei zuzendutakoak dira, eta hamar publiko orokorrari. Tamainaren aldetik, azpicorpus txikia da: 937.056 testu-hitz ditu guztira.

Marcok, van Lawickek eta Osterrek –ingeleseko eta alemanezko azpicorpusak ustiatzeaz arduratzen direnek, alegia– gorputzeko atalez osaturiko (ikusi [6.2.1](#)) UFak aztertu dituzte. Corpusarekin

lan egiteko modua deskribatu beharko bagenu, bi paradigmaren arteko nahasketa bat dela esango nuke: ez dira zerrenda itxi batetik abiatzen (agian ehuneko ehunetan corpusean oinarritutako azterketa batek egingo lukeen erara), baina ez dituzte ezta modu automatikoan agerkidetzak (*Kookurrenzen*) erauzten. COVALT corpusean maizen agertzen diren gorputzeko atalek sortzen dituzten lokuzio eta unitate fraseologikoak erauzten dituzte. Batzuetan ez da horren samurra izaten unitate fraseologikoak beste hitz-konbinazio batzuetatik bereiztea. Hori dela eta, honako baldintza hau ezartzen du [van Lawickek](#) (2013: 270): “Finalment, hem seleccionat aquelles combinacions de paraules que constaven com a UF en algun dels diccionaris consultats –és a dir, que estan codificades lexicogràficament– o bé que apareixien amb un nombre significativament alt en un corpus monolingüe”.

3.2.6 Corpusak ustiatzeko tresnak

Norberak bere corpora osatzen duenean, horiek prozesatu edo ustiatzeko hainbat tresna daude. Tresna horiek, hain zuzen, izango ditugu hizpide azpialdian honetan.

Guk aztertuko ditugunak UFak direnez, interesgarria iruditzen zaigu fraseologia konputazionala aipatzea, hori arduratzen baita hizkuntz-teknologiak aplikatzeaz, UFak identifikatu, erauzi, aztertu eta errepresentatzeko³³.

Corpasek berak gaineratzen du UFak corpusetan identifikatzea dela fraseologia konputazionalaren baitan dagoen zailtasun handienetako bat (2013: 342). Baina, era berean, ez dela harremanik egon hizkuntzalaritza konputazional eta fraseologiaren artean. Fraseologiaren alorrean, UFei identifikazioa intuizioan oinarrituta egin izan da, eta batez ere idiomatikotasun altua duten UFak landu izan dira.

³³“A la aplicación de TL [tecnologías lingüísticas] para la detección, extracción, análisis y representación de unidades fraseológicas se le denomina “fraseología computacional” (*computational phraseology*) o, más comúnmente en el ámbito del PLN, “procesamiento de expresiones multiverbales” (processing of multi-word expressions [MWE])” ([Corpas](#): 340–341).

Hizkuntzalaritza konputazionalan, berriz, metodo estatistikoak erabiltzen dira, corpusaren hizkuntzalaritza oinarri hartuta. Hori dela eta, azken alor horretan, estatistikoki adierazgarriak diren UF-mota oso desberdinak aztertzen dira. Honako hau dio **Corpasek** hizkuntzalaritza konputazionalaren baitan erabiltzen den neurri unitatearen inguruan: “La unidad de medida, como si dijéramos, es el n-grama, esto es, una secuencia de caracteres separada por espacios” (2013: 342).


Oinarri estatistikoa duten corpusak ustiatzeko tresna ezberdinak aipatzen ditu **Corpasek** (WordSmith’s Tools, AntConc, Compleat Lexical Tutor, Sketch Engine...). Guk mikro mailako azterketan *AntConc* (2014) programa izan denez erabili duguna, hurrengo lerroetan programa horren deskribapen orokorra egingo dugu.

3.2.6.1 Antconc

Programa honek bi ezaugarri nagusi ditu: doakoa da (*freeware*) eta plataforma anitzekoa (*multiplatform*), hau da, bai Windowsen bai Macintoshen bai Linuxen erabili daiteke. Laurence Anthony da programaren sortzailea, eta bere web orritik³⁴ deskargatu daiteke fitxategi exekutagarria. Guk erabiliko dugun bertsioa 3.4.1 da, Windows eta Linuxen.

Programak dauzkan aukerei erreparatzen badiegu, behin corpusa osatzen duten testuak kargatuta, zazpi tresna dauzka erabiltzaileak, zazpi erlaintzetan banatuta, 3.8 irudian ikus dezakegun legez: konkordantzia tresna (*Concordance*), konkordantziak grafikoki irudikatzeko tresna (*Concordance Plot*), fitxategiak ikusteko tresna (*File View*), hitz multzo eta N-gramak (*Clusters/N-Grams*), kolokatiboak (*Collocates*), hitz zerrenda (*Word List*) eta hitz gako zerrenda (*Keyword List*).

³⁴<http://www.antlab.sci.waseda.ac.jp/index.html>



3.8. figura: AntConc programaren interfazea

Hurrengo lerroetan, AntConc programaren eskuliburuan ³⁵ oinarrituta, funtzio nagusiak deskribatuko ditugu:

Konkordantzia tresna

Bilatu nahi duzun hori KWIC (*KeyWord In Context*) formatuan bistaratzen da tresna honen bitartez. Hitzak edo karaktere kateak (*character strings*) bilatu daitezke *Words* aukerarekin. *Regex* aukerarekin, berriz, adierazpen erregular bidezko bilaketak egin daitezke.

Bilaketa konplexuagoak egin nahi badira, *Advanced* botoia erabil dezakegu. Bertan, alde batetik, hitz zerrendak sortu daitezke.

³⁵http://www.antlab.sci.waseda.ac.jp/software/README_AntConc3.2.4.pdf

Horrela, aldi berean hitz bat baino gehiago bilatzeko aukera dago. Bestalde, bilatu nahi duzun hitzaren inguruan distantzia jakin batera (*context horizon*) egon behar duten beste hitz batzuk (*context words*) zehaztu daitezke.

Konkordantziak grafikoki irudikatzeko tresna

Tresna honen bitartez, emaitzak “barra kode” formatuan bistaritzen dira. Barra kodeak testuaren luzera irudikatzen du, eta emaitzak goitik beherako marra baten bidez ikus daitezke. Horrela, emaitzek testuetan duten kokalekuaren irudi garbia daukagu. Bilaketa aukerak konkordantzia tresnarekin ikusi ditugun berberak dira.

Fitxategiak ikusteko tresna

Hemen, corpusa osatzen duten testuak ikus daitezke oso-osorik. Bilaketa aukerei dagokienez, konkordantzia tresnarekin ikusi ditugun berberak dira.

Hitz multzo eta N-grama tresna

Hitz multzoen tresnaren bidez, hitzak berak dioen bezala, hitz bat –edo batzuk– bilaketa laukian sar daite(z)ke, eta programak hitz multzo zerrenda sortzen du, bilaketa laukian sartu dugun hitzaren aurrean eta atzean dauden hitzekin. Bestalde, hitz multzoek izan behar duten hitz kopurua zehaztu daiteke; hau da, bi hitzeko hitz multzo zerrendak sortu daitezke, hirukoak, lauakoak, bostekoak... Horretaz gain, zerrendak ordenatzeko hainbat aukera daude: maiztasuna, hitz hasiera eta hitz bukaera...

N-gramen tresnari esker, lortzen duguna hitz multzo zerrendak dira baita ere, baina, kasu honetan, hitz multzoak automatikoki erauzten dira corpusetik, bilaketa laukian hitzik sartu gabe, alegia. Horrela, corpusean dauden ohiko adierazpenak aurki daitezke. Hitz multzoen tamaina zehazteko eta zerrendak ordenatzeko aukerak *Hitz multzoen* tresnarekin aipatu ditugun berberak dira.

Oro har, bilaketa aukerak konkordantzia tresnarekin ikusi ditugunak dira.

Kolokatibo tresna

Hitz baten kolokatiboak bilatu daitezke tresna honen bitartez, eta, modu horretan, eredu ez-sekuentzialak (*non-sequential patterns*) aztertu daitezke. Tresna honen kasuan ere, emaitzak ordenatzeko hainbat aukera ematen dizkigu AntConck: maiztasun orokorraren hurrenkeran, ezkerreko edo eskuineko hitzaren hurrenkeran, hitzaren hasiera edo bukaeraren arabera, eta estatistikoki lortutako balio baten arabera ere. Balio horrek neurtzen duena da bilatutako hitza eta kolokatiboa zein neurritan dauden lotuta. Bestalde, bilaketa hitza eta kolokatiboen arteko distantzia ere zehaztu daiteke, eta bilaketa aukerak konkordantzia tresnarekin aipatutako berberak dira.

Hitz zerrenda tresna

Corpusean dauden hitzen zerrenda lortu daiteke tresna honen bitartez. Horrela, corpusean maizen erabiltzen diren hitzak zeintzuk diren ikus daiteke. Kasu honetan ere, emaitzak ordenatzeko hainbat aukera daude: maiztasuna, eta hitzen hasiera eta bukaeraren arabera. Bilaketa aukerak, hemen ere, konkordantzia tresnarekin aipatutakoak dira.

Hitz gakoaren zerrenda tresna

Tresna honi esker jakin daiteke erreferentzia-corpus batekin alderatuta, gure corpusean zeintzuk diren ezohiko hitzak. Modu honetan, corpuseko hitz gakoak edo bereziak aurki daitezke.

4.

Aurretiazko azterketa

| | | |
|------------|--|------------|
| 4.1 | Corpus 0: Katalogoa | 124 |
| 4.1.1 | Katalogoaren sorrera | 124 |
| 4.1.2 | HGL-HL azpikatalogoaren deskribapena . | 129 |
| 4.2 | Katalogotik corpusera | 146 |
| 4.2.1 | Corpus 1: irizpideak eta ezaugarriak . . . | 146 |
| 4.2.2 | Corpus 2: sorrera | 152 |
| 4.3 | Corpusaren ezaugarriak | 164 |

Hiru ataletan dago banatuta gure kasuan aurretiazko azterketari dagokion kapitulua. Lehenengo atalean, alemanetik euskarara egindako itzulpenen katalogoa nola sortu dugun azalduko dugu, eta Aleuska katalogoaren ezaugarriak deskribatuko ditugu oro har; jarraian, atal berean, HGL-HL azpikatalogoaren azterketa xehea egingo dugu, azpikatalogo horretatik aukeratuko baititugu AleuskaPhraso corpora osatuko duten testuak. Testu-aukeraketa hori nola egin dugun eta corpora bera nola sortu dugun bigarren atalean aurkeztuko dugu. Hirugarrenik, corpusaren ezaugarriak laburbilduko ditugu.

4.1 Corpus 0: Katalogoa

4.1.1 Katalogoaren sorrera

3.1 atalean aipatu dugun moduan, alemanetik euskarara itzuli diren lanen katalogoa osatzea da hurrengo urratsa. Esan bezala, horretarako, TRACE ikerketa-taldeak proposatutako pausoetan oinarritu gara.

4.1. figura: Narratiba fitxen itxura FileMaker-en

Proiektu horren baitan, Filemaker softwarea erabiltzen hasi ziren

katalogazio-lanak egiteko. Horrela, softwarea euren beharretara egokitu zuten, eta, narratiba-testuen kasuan, 4.1 irudian agertzen den fitxa sortu zuten.

Alemanetik euskarara itzulitako katalogoaren kasuan, Ibon Uribarrik ekin zion 2003an katalogazio-lanari, eta, horretarako, FileMaker programa eta aurkeztutako fitzak erabili zituen. Metodologia berdina aplikatuz, Naroa Zubillagak HGLko 2011 arteko sarrerak eguneratu zituen, eta nik eguneratu ditudanak, bereziki, HGL eta HLko 2013 arteko sarrerak izan dira.

Katalogoa eguneratzeko, hiru iturri nagusi erabili ditugu: Index Translationum datu-basea¹, Euskadiko Liburutegien Bilgunea online katalogoa² eta Azkue Bibliotekaren katalogoa³.

4.2. figura: Index Translationum-en egindako bilaketa

Hizkuntza-konbinazio askotako itzulpenak jasotzen dituen datu-base digitala da Index Translationum. Bi milioi sarreratik gora bilatzen ditu Unescoko katalogoak, eta, webgunean jartzen duenaren arabera, erregularitasunez eguneratzen da. Guri dagokigun kasuan, hau da, alemanetik euskarara egin diren itzulpenen kasuan, 321 emaitza lortu genituen 2013ko azaroan eginiko bilaketan. 4.2 irudian ikus daitekeen moduan, bilatzailea oso tresna erabilerraza da; izan ere,

¹<http://www.unesco.org/xtrans/>

²<http://www.katalogoak.euskadi.net/bilgunea>

³http://www.euskaltzaindia.net/index.php?option=com_content&view=article&id=764&Itemid=445&lang=eu

bilatzaileak “german-basque” konbinazioan itzuli diren liburuak zere-
rendatzen dizkigu bilaketa erraz baten bidez.

1979tik 2008 arteko liburuak dira katalogo honetatik bildu ahal
izan ditugun sarrerak. Kontuan hartu behar den beste kontu bat da
sarrera ugari baztertu egin behar izan dugula, emaitzetan “basque”
etiketa duen sarrera oro jasotzen baita.

Bilgunea, bestalde, “Euskal Autonomia Erkidegoko hainbat era-
kunde publiko eta pribatuetak bibliografia funtsek osatutako ka-
talogo kolektiboa da”⁴. Esan bezala, hainbat erakundek (udal li-
burutegiek, Euskal Herriko Unibertsitateak, Deustuko Unibertsita-
teak, Mondragon Unibertsitateak, Arabako Foru Aldundiak, Labay-
ru Ikastegiak...) hartzen dute parte ekimen honetan, baina katalo-
goa koordinatzeaz Eusko Jaurlaritzako Kultura Saila arduratzen da.
Koordinazio-lan horren baitan, urtean bi aldiz eguneratzen dute Bil-
gunea. Katalogo horren zabala izanik, bilaketak mugatu egin behar
dira. Horregatik, hurrengo irudian ikus dezakegun bilaketa egin du-
gu:



4.3. figura: Bilgunen egindako bilaketa

Beraz, euskara (“baq”) eta alemana (“ger”) etiketak dituzten sa-
rrekerak bilatu nahi izan ditugu. Horrela, abiapuntu gisa balio duen

⁴http://www.katalogoak.euskadi.net/cgi-bin_q81a/bilgunea/09212/ID7a8359f8/NT38?ACC=300&HELPIID=eu-bilgunea

emaitza lortu dugu: 519 liburu. Abiapuntu diogu 519 liburu horietako asko baztertu egin behar izan ditugulako. Esate baterako, euskal argitaletxea bada liburu argitara eman duena, “baq” marka izango du sarrera horrek. Eta, aldi berean, alemanetik gaztelaniara itzultakoa bada, “ger” marka ere izango du. Horrelako kasuak ere 519 sarrera horien parte dira, eta baztertu beharrekoak. Bilatzaile honen abantaila da nahi diren emaitzak markatu eta gorde egin daitezkeela.

Azkenik, Azkue Bibliotekako katalogoan egin genituen bilaketak, hots, Euskaltzaindiako liburutegian. Euskaltzaindiako webgunean irakurri daitekeenez, bost azpikatalogoz dago osatua katalogo nagusia: monografiak, aldizkako argitalpenak, Euskaltzaindiaren argitalpenak, Euzko Gogoia aldizkaria eta Lacombe Biblioteca. Hurrengo irudian ikus daitekeen moduan, bilaketak egiterako orduan, Bilgunean bezala jokatu dugu. Kasu honetan, baina, emaitza kopurua handiagoa izan da: 1601.

The screenshot shows the 'Abys 7' search interface. The main search area is titled 'KATALOGO OROKORRA'. On the left, there are search filters for 'Aspikatalogoak' (set to 'Azkue Bibliotekako Katalogoa'), 'Autoritatea', 'Izenburua', 'Argitaratzailea', 'Argitalpen urtea<>', 'Argitalpen lekua', 'Bilduma', and 'Edozein eremua' (set to 'baq ger'). On the right, there is a search bar with fields for 'Irakurle-zk:' and 'Klasea', and a 'Goratu' button. Below the search bar, there is a section titled 'IRABILTZAILEA' and a section titled 'IRABILTZAILEA' with a list of search results: 'Bilaketa lagundua', 'Bilaketa auzeratu', 'Bilaketa adfina', and 'Historikoa'.

4.4. figura: Azkue Bibliotekan egindako bilaketa

Aipatutako katalogoet gain, beste batzuk ere erabili ditugu kontsulta gisa; besteak beste, Sancho el Sabio Fundazioko katalogoa, Koldo Mitxelena liburutegiko katalogoa edo Biblioteca Nacional de España. Jatorrizko testuen datuak osatzeko, *Deutsche Nationalbibliothek*⁵ kontsultatu dugu.

⁵http://www.dnb.de/DE/Home/home_node.html


Katalogo horietatik jasotako datuak erabili ditugu goian aipatutako FileMaker programako fitxak osatu eta katalogoa eguneratzeko. Fitxa edo sarrera bakoitzeko honako datu hauek biltzen saiatu gara: jatorrizko eta xede-izenburua, jatorrizko eta xede-egilea, jatorrizko eta xede-testuaren argitalpen-urtea, xede-argitaletxea, xede-testuaren argitalpen-lekua, bilduma, generoa, orrialde kopurua eta xede-etiketa.

Aipatu ditugun euskal katalogoei esker, oro har, ez da zaila izan datuok biltzea. Esate baterako, jatorrizko eta xede-egilea, xede-izenburua, jatorrizko argitalpen urtea, generoa, argitaletxea, bilduma, argitalpen-lekua eta orrialde kopurua erraz aurkitu ditugu aipatutako euskal katalogoetan. Jatorrizko izenburua ez da beti jasotzen, eta jatorrizko testuaren argitalpen urtea inoiz ez. Kasu horietan, goian aipatutako Alemaniako liburutegi nazionalera jo dugu, eta, zalantzak izan ditugun kasuetan, egileen web-orrietan bertan egin dugu kontsulta.

Azkenik, bada jasotzeko nahiz defintitzeko bereziki zaila izan den datu bat: xede-etiketa. Testuak alemanetik zuzenean edo beste hizkuntza batetik – eta, beraz, zeharka – itzuli diren biltzen saiatu gara katalogazio-fase honetan. Datu hori biltzerako orduan, katalogoak ez dira oso lagungarri izan, eta, horregatik, argitaletxe edo itzultzaileei galdetu diegu. Dena den, batzuetan ez dugu erantzunik lortu, eta, beste batzuetan, zalantzak izan ditugu. Hori dela eta, sarrera batzuen kasuan, informazio hori ezin izan dugu jaso, eta, beste batzuetan, zalantzazko kasuetan alegia, galdera ikurrak jarri ditugu. Kontuan hartu behar da, gainera, hemendik aurrerako analisietan (makro eta mikro mailakoetan) lortzen ditugun emaitzen arabera, katalogoko datu hauek aldatu egin daitezkeela.

Guztira, berrargitalpenak barne, 710 sarreraz osatutako katalogoa osatu dugu⁶. Generoari erreparatuz gero, desberdintasun nabarmenak daude, kasu bakoitzean itzultzen den liburu kopuruari dagokionez behinik behin. Ikus dezagun hurrengo grafikoa:

⁶Azken eguneraketa 2013ko azaroaren 18an egin zen.



4.5. figura: Katalogoaren banaketa generoka

710 sarrera horietatik, gehien itzuli diren liburuak HGLkoak dira, 445 liburu guztira. Poesiari dagozkionak 144 dira, baina kontuan hartu behar da, katalogoan ditugun sarrera asko eta asko poema solteek osatzen dutela. Jarraian, eta nahiko parekatuta, HL eta saiakera kokatzen dira, 59 eta 54 lanekin hurrenez hurren. Antzerkiari dagokionez, 8 lan besterik ez dira itzuli.

Hurrengo atalean, HGL-HL azpikatalogoa deskribatuko dugu, azpikatalogo horietakoak izango baitira gure corpusa osatuko duten liburuak, aurrerago ikusiko dugun moduan (4.2.1).

4.1.2 HGL-HL azpikatalogoaren deskribapena

Azpikatalogo honek, berrargitalpenak kontuan hartu gabe, HGLko 284 sarrera eta HLko 48 ditu, eta berrargitalpenak kontuan hartuta, berriz, HGLko 445 eta HLko 59. Jaso dugun azken lana 2013koa da, eta, lehena, berriz, 1868koa. Lehen lan hori Arruek egindako *Genovefaren* itzulpena da. Guk HL gisa etiketatu dugu, baina, [Zubillagak](#) bere doktore-tesian aipatzen duen moduan, eztabaidagarria

da erabakia. Dirudienez, jatorrizkoa bai hartzen da HGLtzat, baina euskaraz ez [Etxanizek](#) ez [Zubillagak](#) ez dute HGL barruan sartu; beraz, guk ere HGLan adituak diren ikertzaileen erabakiari eutsiko diogu, eta ez dugu HGL gisa etiketatuko.

Hemendik aurrerako lerroetan, hainbat aldagai aintzat hartuz, HGL-HL azpikatalogoa deskribatuko dugu.

Jatorrizko egileak

Jatorrizko egileei erreparatzen badiegu, 126 jatorrizko egileren lanak itzuli direla esan daiteke. HGLari dagokionez, 96 jatorrizko egileren lanak itzuli dira euskarara eta HLari dagokionez, aldiz, 32renak. Ikus daitekeenez, bi egileren lanak bai HGLan bai HLan itzuli dira, Patrick Süskind eta Christoph Schmidenak, hain zuzen. HGLko jatorrizko egile kopurua HLkoa baino hiru aldiz handiagoa izan arren, proportzionalki –hots, HGL eta HLan itzulitako lan kopurua kontuan hartuta–, HLan jatorrizko egile aniztasuna handiagoa dela esan daiteke.

Proportzio horretatik ondorioztatu daiteke HGLan jatorrizko egile bakoitzari liburu gehiago itzultzen zaizkiola HLan baino⁷. Hain zuzen, alde nabarmenak daude HGL eta HLaren artean. Azken horren kasuan, Kafka izan da gehien itzuli den jatorrizko egilea: bere 6 liburu itzuli dira. Goethe, Joseph Roth eta Zweigen kasuan, 3 izan dira egile bakoitzari itzuli zaizkion liburuak, eta, beste kasu guztietan, 2 liburu edo bakarra itzuli da.

Oro har, [4.1](#) taulan ikus daitekeen moduan, autore klasikoen lanak dira HLan itzuli direnak.

HGLan ere, alde batetik, jatorrizko egile askoren bi liburu edo liburu bakarra itzuli da, [4.2](#) taularen beheko aldean ikus daitekeen moduan. Baina, era berean, egile batzuei itzuli zaien liburu kopurua

⁷Datu hori kalkulatzeko orduan, ez ditugu berrargitalpenak kontuan hartu, betiere itzultzaile bakarra izan bada edizio desberdinak itzuli dituena; hau da, liburu bera itzultzaile desberdinek itzuli badute, orduan bai zenbatu ditugu berrargitalpenak.

HLan baino dezente handiagoa da.

Knisterren kasua da deigarriena: bere 36 liburu itzuli dira. Segidan, Grimm anaiak datoz 14 lanekin, eta, ondoren, Christine Nöstlingerrek (13), Sabine Lohfek (10), eta Mira Lobek eta Angela-Sommer Bodenburgek (9) jarraitzen diete. Honako hiru egile bakoitzaren 8 liburu ditugu euskaratuta: Patricia Schröder, Peter Härtling eta Joachim Masannek. Otfried Preusslerren kasuan, 7 izan dira itzuli diren liburuak. Ondoren, Andreas Schlüter, Erich Kästner, Janosch, Michael Ende eta Thomas Brezina datoz, 6na libururekin. Bost liburu itzuli zaizkie Joachim Friedrich eta Ursula Wölfeli, eta, lau Brigitte Weninger, Cornelia Funke, Frauke Nahrgang, Friedrich Schiller eta Ole Könneckeri. Bi liburuko muga hori gaintitzen duten azkenak honako hauek dira: Gina Ruck-Pauquet, Jo Pestum, Johanna Spyri, Marcus Pfister eta Reiner Zimnik.

HGLaren kasuan, oro har eta salbuespenak salbuespen (Grimm anaien liburuak, kasu), nazioartean arrakasta izan duten egile alemanak dira euskarara itzuli direnak.

4.1. taula: Jatorrizko HL-egile aleman bakoitzari itzuli zaion liburu kopurua


| HL | |
|---|---|
| Franz Kafka | 6 |
| J.W.von Goethe; Joseph Roth; Stefan Zweig | 3 |
| Heinrich Böll; Daniel Glattauer; Günter Grass; Hermann Hesse; E.T.A. Hoffmann | 2 |
| Thomas Bernhard; Bertolt Brecht; Adelbert von Chamisso; Alfred Döblin; Friedrich Dürrenmatt; Max Frisch; Heinrich von Kleist; Thomas Mann; Frans Masereel; Kai Meyer; Herta Müller; Robert Musil; Leo Perutz; Rainer Maria Rilke; Ferdinand von Schirach; Christoph Schmid; Arthur Schnitzler; Georg Schurhammer; Patrick Süskind; Birgit Vanderbeke; Robert Walser; Franz Werfel; Raul Zelik | 1 |

4.2. taula: Jatorrizko HGL-egile aleman bakoitzari itzuli zaizkion liburuak

| HGL | |
|--|----|
| Knister | 36 |
| Jakob/Wilhelm Grimm | 14 |
| Christine Nöstlinger | 13 |
| Sabine Lohf | 10 |
| Mira Lobe; Angela Sommer-Bodenburg | 9 |
| Peter Härtling; Joachim Masannek; Patricia Schröder | 8 |
| Otfried Preussler | 7 |
| Thomas Brezina; Michael Ende; Janosch; Erich Kästner; Andreas Schlüter | 6 |
| Joachim Friedrich; Ursula Wölfel | 5 |
| Cornelia Funke; Ole Könnecke; Frauke Nahrgang; Friedrich Schiller; Brigitte Weninger | 4 |
| Jo Pestum; Marcus Pfister; Gina Ruck-Pauquet; Johanna Spyri; Reiner Zimnik | 3 |
| Marliese Arold; Achim Bröger; Jakob Ecker; Helme Heine; Heinz Janisch; Irina Korschunow; Gudrun Pausewang; Hermien Stellmacher; Tomi Ungerer | 2 |
| Jürgen Banscheraus; Hans Baumann; Kurt Baumann; Rotraut Susanne Berner; Peter Bichsel; Antoni Boratynski; Wilhelm Busch; Georg Bydliniski; Günther Feustel; Urs M. Fiechtner; Angelika Glitz; Michael Grejniec; Wilhelm Hauff; Eveline Hasler; Heidi Hassenmüller; Frederik Hetmann; Friedrich Hoffmann; Heinrich Hoffmann; Franz Hohler; Werner Holzwarth eta Wolf Erlbruch; Thomas Jeier; Hanna Johansen eta Rotraut Susanne Berner; Norman Junge; Dagmar Kekule; Dubravka Kolanović; Ralf König; Rolf Krenzer; Die Krickelkrakels; Ann Ladiges; Marjaleena Lembcke; Rainer Malkowski; Marion Mebes; Rosemarie Mirajkar; Christian Morgenstern; Silke Moritz; Friedrich Heinrich Karl de la Motte; Eva Muggenthaler; Hans-Georg Noack; Moritz Petz; Christiane Pieper; Hans Jürgen Press; Mirjam Pressler; Jeanette Randerath; Rudolf Erich Raspe; Rafik Schami; Ursel Scheffler; Christoph Schmied; Edith Schreiber-Wicke; Renate Schupp; Johannes M. Simmel; Peter Steinbach; Patrick Süskind; Jon Svensson; Uwe Timm; Galsan Tschinag; Franz Xaver Weiser; Piotr Wilkon; Stefan Wolf; Reinhold Ziegler; Klaus Zieschang | 1 |

Argitalpenak urtez urte

Azpiatal honetan, argitalpenek denboran izan duten bilakaera aztertuko dugu. Horretarako, eta katalogoko datuetan oinarrituta, hainbat grafiko prestatu ditugu. Hurrengo grafikoan, esate baterako, HGL-HL azpikatalogo osoaren kronologia ikus daiteke:



4.6. figura: Argitalpenen kronologia HGL-HL katalogo osoa kontuan hartuta

Ikus daitekeen moduan, 1980 arte, joera, salbuespenak salbuespen, urtean liburu bakarra itzultzea izan da. Kontuan hartu behar da tokiko hizkuntzetara itzulpenak egiteko debekua ez zela 1962. urtera arte desagertu (Uribarri 2013: 37). Joera horretatik aldentzen diren hiru data aipatu nahi genituzke, nolabait esanguratsuak dira eta: 1929, 1968 eta 1975.

1929an argitaratu ziren hiru itzulpenak HGLkoak dira. Jatorrizkoak XX. mende hasierako bi egile klasikoren lanak dira: Grimm anaien bi lan eta Christoph Schmiden bat, hain zuzen.

Gure kasuan, 1968 arte itzulpen jarduera oso eskasa da (aipatutako debekua medio). Uribarri (2013: 36) irakur daitekeen moduan, euskarazko argitalpen kopurua ere oro har nahiko urria zen: “entre 1937 y 1950 solo se editan 14 libros en lengua vasca, casi todos de temática religiosa”. Ez gerrate zibilak (1936-1939) ez frankismoak (1939-1975?) ez zioten euskal (itzulpen) produkzioari mesederik egin. Azken urteetan, baina, malgutzen hasi zen euskal argitalpenen inguruko politika.

1968an, bi argitalpen eta berrargitalpen bakarra jaso ditugu katalogoan, grafikoan ikus daitekeen moduan. Alde batetik, Plazido Mujikak itzultitako *Nani eta Noni* berrargitaratu zen, eta, bestalde, erlijioari lotutako bi itzulpen argitaratu ziren lehenengoz: Plazido Mujikak itzultitako *Mendiko argia* eta Friedrich Hoffmannen *Gazteen Biblia*.

Euskarari dagokionez, urte hori, 1968a, garrantzitsua izan zen; izan ere, orduan ospatu zen Arantzazuko bilkura, non euskara batua sortzeko lehen erabakiak hartu ziren. Hala ere, oraindik urte batzuk pasatu beharko ziren, itzulpenen gorakada nabaritu ahal izateko. 1975ean, Franco hil zen urtean, esate baterako, 1968ko egoera bertsua dugu: argitaratutako hiru liburutik bat berrargitalpena da, eta, hirutik bik erlijioaren inguruko gaiak jorratzen dituzte. Bestea Xabier Mendigurenen alemanetik euskararako lehen itzulpena da: *Heidi*.


1980tik aurrera, gorakada nabarmena ikus daiteke. Batez beste, berrargitalpenak kontuan hartu gabe (grafikoko marra gorria), 9 bat liburu itzuli dira urtean 1980tik gaur egun arte. Berrargitalpenak kontuan hartuta (grafikoko marra urdina), aldiz, 14. Berrargitalpenei dagokienez, adierazi behar den beste kontu bat da ia urtero egon direla berredizioak, 1984 eta 2012an izan ezik. Urte indartsuenak 2000. urtea eta 2005etik 2009 arteko tarteak izan dira.

Berredizioak kontuan hartzen baditugu, berriz, puntu goren gisa 1990 eta 2006. urteak nabarmentzen dira. 1990. urtean argitaratutako 25 liburu horietatik 10 liburuxka laburrez osatutako bilduma baten parte dira, *Nire eskulanak bilduma*, hain zuzen. Joxantonio Ormazabalek itzuli zituen Sabine Lohfen hamar liburuok. 2006an, berrargitalpen kopurua oso handia izateaz gain (13), Kika Supersorgina bildumako liburu dezente argitaratu ziren, 10 konkretuki. Gelditzen direnetatik, gazteei baino haurrei zuzendutako liburu laburrak dira gehienak.

Aurkeztu nahi ditugun hurrengo bi grafikoek (4.7 eta 4.8 irudiek) HGL eta HLko itzulpenen bilakaera islatzea dute helburu. Lehen begiratuan argi eta garbi ikusten den moduan, aldeak nabarmenak


dira. Helduen literaturan oso berrargitalpen gutxi daude. Hasierako berrargitalpenak (1885, 1889, 1890, 1905, 1960 eta 1987koak) liburu beraren edizio desberdinak dira, Arruek 1868an itzulitako Christoph Schmiden liburuarenak. Gero, 2000. urtean *Werther* berrargitaratu zen, 2005ean Kafkaren *Metamorfosia*, 2008an Süskinden *Perfumea*, eta, 2011an, Hiria argitaletxean, *Werther* eta *Metamorfosia* eman ziren berriz ere argitara.

HGLaren aldean, HLko bilakaera, gainera, erregularragoa da. Urte bat nabarmentzen da, 1992a, hain zuzen, bilakaera horretan. Sei liburu itzuli ziren, eta horietatik lau Literatura Unibertsala bildumaren baitan argitaratu ziren. Bilduma hori 1990ean sortu zen EIZIE eta Eusko Jaurlaritzaren arteko lankidetzaz hitzarmen bati esker, eta, sortu zenetik, hiru etapa egon dira. 1990-2002 aroan, Ibaizabal argitaletxeak 100 liburu kaleratu zituen; 2002-2010 aroan, Elkar eta Alberdaniak, lankidetzan, 52 liburu kaleratu zituzten, eta, hirugarren aroa 2011. urtean hasi zen. Azken etapa horren arduradunak hiru argitaletxe dira: Alberdania, Erein eta Igela. Esan beharra dago, gainera, bai argitaletxeak eta bai itzultzaileak lehiaketa publikoz aukeratzeko direla. Autore alemanen itzulpenari dagokionez, 1990. urtetik 2013. urtera arte, 14 izan dira euskararatu diren lanak⁸.



4.7. figura: Argitalpenen kronologia HGL katalogoa kontuan hartuta

⁸Informazio gehiago nahi izanez gero, ikusi http://www.eizie.org/Argitalpenak/Literatura_Unibertsala



4.8. figura: Argitalpenen kronologia HL katalogoa kontuan hartuta

Itzultzaileak

Azpiatal hau xede-egileei eskainiko diegu. Horretarako, lehenengo eta behin, HGL-HL azpikatalogoko itzultzaileak zerrendatu ditugu 4.3 taulan, eta bakoitzak itzuli duen liburu kopurua ere zehaztu dugu. Kasu honetan, ez ditugu berrargitalpenak aintzat hartu, itzultzaile bakoitzak zenbat liburu ezberdin itzuli dituen deskribatzea izan delako helburua.

4.3. taula: HGL-HL katalogoko itzultzaileak eta itzuli duten liburu kopurua

| Itzultzailea | Kop. |
|---|------|
| Pello Zabaleta | 33 |
| Xabier Mendiguren Bereziartua | 29 |
| Joxantonio Ormazabal | 14 |
| Lola Erkizia; Inazio Mujika | 12 |
| Mari Eli Ituarte; Juan Luis Urmeneta | 11 |
| Aitor Arana; Iñaki Aristondo | 10 |
| Edurne Azkue; Aiora Jaka | 8 |
| Antton Garikano | 7 |
| Ainhoa Irazustabarrena; Koldo Izagirre; Edorta Matauko; Naroa Zubillaga | 5 |
| Kalekumeak kolektiboa; Juan Legarreta; Gerardo Markuleta; Inazio Mujika | 4 |

| | |
|---|---|
| Itziar Alkorta; Idoia Arruti; Irati Elorrieta; Xabier Gartzia; Matías Múgica; Joan Mari Sarasola; Jose Antonio Sarasola; Jon Suarez; Nuria Sebrango; David Urbistondo; Iñaki Zubeldia | 3 |
| Miren Arratibel; Gabriel Ceberio; Ihintza Elsenaar; Ane Erroteta; Peru Erroteta; Ane Euba; Idoia Gillenea; Igara; Pilar Iparragirre; Xabier Kintana; Xabier Monasterio; Plazido Mujika; J. F. Setien; Ibon Uribarri; Patxi Zubizarreta | 2 |
| Juan Luis Agirre; Joseba Altuna; Margarita Altuna; Xabier Aranburu; Miren Arratibel, Hitzurun; Joxe Austin Arrieta; Yolanda Arrieta; Gregorio Arrue; Rosemiren Artola eta Ane Barandiaran; Aintzane Atela, Hitzurun; Lurdes Auzmendi; José Antonio Azpiroz; Arantxa Azpitarte eta Nekane Umerez; Ainara Barreña; Xabier Barrutieta; Ainhoa Basterretxea; Joxe Mari eta Maialen Berasategi; Ioseba Andoni Berriotxo; Miren Billelabeitia; Itxaro Borda; Arantxa Carbonell eta Joan Mari Sarasola; Andolin Eguzkitza; Jabier Etxebarria; Patxi Ezkiaga; Eduardo Fano; Jose Luis Franco; Julen Gabiria; Joxerra Garzia; Genaro Gomez; Bittor Hidalgo; Felix Ibargutxi; Juan Kruz Igerabide; Iñaki Iñurrieta eta M ^a Jesus Urmeneta; Rufino Iraola; Mari Eli Ituarte eta Itziar Zabala; Joxemari Iturralde; Lurdez Izagirre; Jakintza ikasle jesuslagunak; Aitor Juaristi; Felipe Juaristi; María Jose Kerejeta; Jaime Kerexeta eta Anizeto Zugasti; Endrike Knörr; Josu Landa; Jürgen Lang eta Jurek Ziemkiewicz; Ipolito Larrakoetxea; Imanol Larrea, AKE (Arabera Kultur Elkarte); Jon Legarreta; Juan Luis Lekunberri; Gotzon Lobera; Manu López; Elizabete Manterola; Gabriel Manterola; Fernando Mendizabal; Jon Mirande; Koldo Morales; Eider Mugika; Antton Narbaiza; Josemari Navascues; Ramon Olasagasti; Miren Lourdes Oñederra; Joseba Ossa; Agustin Otxoa de Eribe; Ione Pagonabarraga; Feliciano Paláez; Agustina Pontesta; Ainara Rekalde; Mirene Rodríguez; Ismael Roman; Patxi Salaberria; Tomas Sarasola; Txiliku; Amaia Ugidos; Nekane Umerez; Javier Uriarte; Xabier Uriarte; Hilario Urkia; Itziar Zabala; Xabier Zaldua; Anizeto Zugasti | 1 |

Guztira, 127 itzultzaile aritu dira, zuzenean edo zeharka, literatur lan alemanak euskarara itzultzen. Argi eta garbi ikusten da taulan gehien-gehienek lan bakarra itzuli dutela, eta oso gutxi direla hizkuntza-konbinazio honetan “espezializatu” direnak. Taularen goiko aldeari erreparatzen badiogu, ikusiko dugu 8 itzultzaile (edo itzultzaile bikote) izan direla hamar edo hamar baino liburu gehiago itzuli

dituztenak, eta zortzi horiek izan dira HGL-HL azpikatalogoaren % 39 itzuli dutenak.

Aurreko atalen ildo beretik, kasu honetan ere, HGL eta HL arteko bereizketa egin nahi izan dugu.

Beheko tauletan ikus daitekeen moduan (4.4 eta 4.5 taulak) bai HGLan bai HLan, liburu bakarra edo bi liburu itzuli dituzten itzultzaileak gailentzen dira, baina, HGLan itzultzaile aniztasuna handiagoa da: zortzi itzultzailek liburuaren % 42 itzuli dute HGLan, eta, HLan, aldiz, itzultzaile kopuru berak HLko liburuaren % 64 itzuli du.

HLko zortzi itzultzaile horietatik bostek –Mendiguren, Garikano, Zabaleta, Irazustabarrena eta Elorrietak–, HGLko liburuak ere itzuli dituzte.

Xabier Mendiguren HGL itzultzen hasi zen 1975ean, eta, itzuliko duen zortzigarren liburua da HLkoa, 1992an, hain zuzen. Antton Garikanoren lehen itzulpena, berriz, HLkoa izan zen, eta, HL da batez ere itzuli duen generoa. Salbuespen bakarra 2007ko *Txerrikume pirata* liburua da. Pello Zabaletaren lehen itzulpena 1981ekoa da. HGLko sei liburu itzuli eta gero, 1986an Hessereren *Steppenwolf* euskaratu zuen. Ainhoa Irazustabarrenak, Literatura Unibertsala bilduman, *Hildakoek ez dute hitz egiten* itzuli zuen 2009an. Ondoren itzuli dituen hiru liburuak Janoschen HGLko hiru liburu dira, eta, hirurak Pamiela argitaletxeak argitaratu ditu. 2009tik aurrera, urtero liburu bat itzuli du, izan HGL edo HL. Irati Elorrietaren kasuan, HGL itzultzen hasi zen 2008an, eta, itzuli dituen beste bi liburuak Daniel Glattauer idazle austriarraren HLko liburuak dira.

4.4. taula: HGLko itzultzaileak eta itzuli duten liburu kopurua

| Itzultzailea | Kop. |
|--------------------------------------|------|
| Pello Zabaleta | 29 |
| Xabier Mendiguren Bereziartua | 22 |
| Joxantonio Ormazabal | 14 |
| Lola Erkizia eta Inazio Mujika | 12 |
| Mari Eli Ituarte; Juan Luis Urmeneta | 11 |
| Aitor Arana; Iñaki Aristondo | 10 |
| Edurne Azkue; Aiora Jaka | 8 |

| | |
|--|---|
| Koldo Izagirre | 5 |
| Itziar Alkorta; Kalekumeak kolektiboa; Juan Legarreta; Gerardo Markuleta; Inazio Mujika; Naroa Zubillaga | 4 |
| Idoia Arruti; Xabier Gartzia; Ainhoa Irazustabarrena ; Joan Mari Sarasola; Jose Antonio Sarasola; Nuria Sebrango; Jon Suarez; David Urbistondo; Iñaki Zubeldia | 3 |
| Gabriel Ceberio; Ihintza Elsenaar; Ane Erroteta; Peru Erroteta; Ane Euba; Idoia Gillenea; Igara; Pilar Iparragirre; Xabier Monasterio; Plazido Mujika; J.F. Setien; Patxi Zubizarreta | 2 |
| Joseba Altuna; Margarita Altuna; Xabier Aranburu; Miren Arratibel ; Miren Arratibel, Hitzurun hizkuntza zerbitzuak; Yolanda Arrieta; Rosemiren Artola eta Ane Barandiaran; Aintzane Atela, Hitzurun hizkuntza zerbitzuak; Lurdes Auzmendi; Arantxa Azpitarte eta Nekane Umerez; Ainara Barreña; Xabier Barrutietia; Ainhoa Basterretxea; Joxe Mari eta Maialen Berasategi; Ioseba Andoni Berriotxo; Miren Billelabeitia; Itxaro Borda; Arantxa Carbonell eta Joan Mari Sarasola; Irati Elorrieta ; Jabier Etxebarría; Patxi Ezkiaga; Jose Luis Franco; Julen Gabiria; Antton Garikano ; Genaro Gomez; Bittor Hidalgo; Felix Ibargutxi; Juan Kruz Igerabide; Iñaki Inurrieta eta M ^a Jesús Urmeneta; Mari Eli Ituarte eta Itziar Zabala; Lurdes Izagirre; Aitor Juaristi; Felipe Juaristi; Jaime Kerexeta eta Anizeto Zugasti; Endrike Knörr; María José Kerejeta; Josu Landa; Jürgen Lang eta Jurek Ziemkiewicz; Ipolito Larrakoetxea; Imanol Larrea, AKE (Arabera Kultur Elkarte); Jon Legarreta; Juan Luis Lekunberri; Manu López; Elizabete Manterola; Gabriel Manterola; Fernando Mendizabal; Eider Mugika; Antton Narbaiza; Josemari Navascues; Ramon Olasagasti; Miren Lourdes Oñederra; Joseba Ossa; Agustin Otxoa de Eribe; Ione Pagonabarraga; Feliciano Peláez; Agustina Pontesta; Ainara Rekalde; Mirene Rodríguez; Ismael Roman; Romas Sarasola; Txiliku; Amaia Ugidos; Nekane Umerez; Javier Uriarte; Xabier Uriarte; Hilario Urkia; Xabier Zaldúa; Anizeto Zugasti | 1 |

4.5. taula: HLko itzultzaileak eta itzuli duten liburu kopurua

| Itzultzailea | Kop. |
|--------------------------------------|------|
| Xabier Mendiguren Bereziartua | 7 |
| Antton Garikano | 6 |
| Edorta Matauko | 5 |
| Pello Zabaleta | 4 |
| Matías Múgica | 3 |

| | |
|--|---|
| Irati Elorrieta; Ainhoa Irazustabarrena; Xabier Kintana; Ibon Uri-barri | 2 |
| Juan Luis Agirre; Miren Arratibel; Joxe Austin Arrieta; Gregorio Arrue; José Antonio Azpiroz; Andolin Eguzkitza; Eduardo Fano; Joxerra Garzia; Rufino Iraola; Jakintza ikasle jesuslagunak; Gotzon Lobera; Jon Mirande; Koldo Morales; Patxi Salaberria; Naroa Zubillaga | 1 |

Taulan, beste bi itzultzaile markatu ditugu beltzez, bai HGLan bai HLAN egin dituztelako itzulpenak: Miren Arratibel eta Naroa Zubillaga. Lehenengoak bi liburu itzuli ditu alemanetik euskarara, lehenen 1999an (HGL) eta bigarrena 2007an –HLan berrargitaratu diren liburu gutxi horietatik bat, hain zuzen. Zubillagaren kasuan, HLkoa izan zen itzuli zuen lehen liburua (2007), Literatura Unibertsala bilduman. Beste lau itzulpenak HGLkoak dira.

HL bakarrik itzuli duten horien artean, bi itzultzaile dauzkagu bi liburutik gora itzuli dutenak: Edorta Matauko eta Matías Múgica. Mataukoren kasuan, XX. mendeko idazleen lanak itzuli ditu (Robert Walser, Stefan Zweig eta Joseph Roth), eta, Raul Zeliken liburuaren itzulpena salbuespena da zentzu horretan. Matias Múgicak, berriz, 2001 eta 2003an Joseph Rothen bi liburu itzuli zituen, eta 2013 arte ez du alemanetik beste libururik itzuli. Azken hori *Die Leiden des jungen Wertheren* bertsiio berri bat da. Argitaletxeari dagokionez, hirurak Igelan argitaratu dira.

Nolabait HGLan “espezializatu” diren horietatik hamar edo hamar itzulpenetik gora egin dituzten itzultzaileak aipatuko ditugu jarraian. Joxantonio Ormazabalek, lehen aipatu bezala, 14 liburu itzuli zituen, eta hamar *Nire eskulanak bildumakoak* dira. Lola Erkizia eta Inazio Mujikaren kasuan, biek ala biek Alberdania argitaletxean lan egiten dute, **Zubillagak** aipatzen duen moduan, eta, 2004 eta 2008 urte bitartean, haurrentzako hainbat liburuxka itzuli zituzten elkarlanean. Lola Erkizia da alemana menperatzen duena, eta Inazio Mujikak xede-hizkuntzako xehetasunak zaintzen ditu. Juan Luis Urmeneta, Mari Eli Ituarte eta Iñaki Aristondok itzuli dituzten liburu guztiak bilduma berekoak dira: *Kika Supersorgina* bildumakoak. Az-

kenik, Johanna Spyriren bi lan klasiko izan ezik, Aitor Aranek itzuli dituen beste liburu guztiak bilduma eta egile berarenak dira, *Erregaliz Taldea* bilduman Patricia Schröderrek idatzitako lanak, alegia.

Xede- eta sorburu-egileen arteko harremana deskribatu zuen [Zubillagak](#) bere doktore-tesian, eta, ondorioztatu zuen HGLan ez dela inolako espezializaziorik gertatzen, eta egoera hori oso arrunta dela; izan ere, “hizkuntza indartsuetan eta argitaletxe-sistema oso bote-retsuetan baino ez baita gertatzen itzultzaileak egile jakin batean berezitzea. Baliteke, gainera, HGLa izanda, are gutxiago gertatzea itzultzailea egile jakin batean espezializatzea” ([Zubillaga 2013](#): 355-356). Alemanetik euskaratutako HLari dagokionez behinik behin, esan dezakegu HGLko joera mantendu egiten dela.

HLAN, lan bat baino gehiago itzuli zaizkien jatorrizko egileak berderatzi dira, hurrengo taulan ikus daitekeen moduan, eta, itzultzaileei dagokienez, hemen ere ezin da espezializazioaz hitz egin:

4.6. taula: Jatorrizko egile bakoitzeko itzultzaileak

| Egilea | Lib. | Itzultzailea(k) |
|------------------|------|--|
| Franz Kafka | 6 | A. Garikano; R. Iraola; X. Kintana (2); J. Mirande; N. Zubillaga |
| J. Roth | 3 | E. Matauko; M. Múgica (2) |
| S. Zweig | 3 | E. Matauko (2); X. Mendiguren |
| Heinrich Böll | 2 | J.A. Azpiroz; X. Mendiguren |
| Daniel Glattauer | 2 | I. Elorrieta (2) |
| J.W. von Goethe | 2 | G. Lobera; X. Mendiguren; M. Múgica |
| Günter Grass | 2 | A. Eguzkitza; X. Mendiguren |
| Hermann Hesse | 2 | X. Mendiguren; P. Zabaleta |
| E.T.A. Hoffmann | 2 | A. Garikano; P. Zabaleta |

Ikus daitekeen moduan, lau itzultzaile dira autore beraren bi lan itzuli dituztenak: I. Elorrieta, X. Kintana, M. Múgica eta E. Matauko. Goetheren kasuan, hiru itzultzailek itzuli dituzte bere bi lan. Gertatzen dena da *Werther*ren bi bertsio daudela, bata G. Lobera-

rena (1987) eta bestea aurten Igela argialetxean plazaratu den M. Múgicarena. Honako hau irakur dezakegu Berria egunkarian azken argitalpen horren inguruan:

“(…) Werther gaztearen arrangurak nobela batxilergoko ikasketetan Literatura Unibertsala hautatzen duten ikasle-
leen curriculumean dago –Biblia, Dekameron eta beste
hainbat lanekin batera–, eta maila horretako ikasleengan
pentsatutako argitalpena da Matias Mujikaren itzulpe-
narekin Igelak kaleratu duena, Xabier Olarrak adierazi
duenez. Horregatik du liburuak «Beñat Sarasolak idatzi-
tako hitzaurre argigarri bat», eta baita orri azpiko hainbat
ohar, «zenbait hitz ez oso ezagun argitzeko». Dena den,
adin guztietako irakurleentzako moduko argitalpena da,
Olarraren ustez”⁹.

Garai bakoitzean itzulpenak egiten aritu diren xede-egileen ka-
suan ere, Zubillagak HGLan ondorioztatu duena HLAN zein neurri-
tan gertatzen den ikusiko dugu. Pello Zabaleta izan zen 80ko hamar-
kadan HGLko itzultzailerik emankorrena. HLAN, garai hartako oso
itzulpen gutxi daude, bost konkretuki, eta horietatik bi Zabaletak
egin zituen. 90. hamarkadan, aldiz, Xabier Mendigurenek hartu zion
aurre Zabaletari HGLko itzulpenetan, eta, HLAN ere Mendiguren da
bereziki emankorra: itzuli ziren hamasei liburutik zazpi bereak dira.
Bere atzetik Antton Garikano dago, hiru libururekin. 2000 eta 2011
urte bitartean, Mendiguren eta Zabaletaren izenak agertu agertzen
dira HGLan, baina beste itzultzaile berri batzuei egiten zaie leku.
HLAN antzerako egoera daukagu: Mendigurenen lanik ez dago, Zaba-
letaren itzulpen bakarra aurki dezakegu, eta beste izen berri batzuk
agertu dira. Oro har, itzultzaile ugaritasuna da nabarmentzekoa: 15
itzultzailek 25 lan (berrargitalpenak barne) euskaratu dituzte.

Itzultzaileen atal honekin bukatzeko, itzultzaile eta argialetxeen
arteko harremana aztertu nahi genuke, Zubillagak egiten duen mo-

⁹http://paperekoa.berria.info/plaza/2013-12-04/031/001/goethe_depestre_thompson_eta_blake_igelaren_aurtengo_uztan.htm

duan. Ikertzaileak ondorioztatu du itzultzaile eta argitaletxeen artean lan-loturarik egon ezean –hau da, itzultzaileak argitaletxean lan egin ezean–, orokorrean, itzultzaileek ez dutela argitaletxe jakin bategiko loturarik. Hurrengo zerrendan ikus daitekeen moduan, HLAN ere, bi itzultzailearen lanak bakarrik argitaratu dira argitaletxe bakarrean: Matías Múgicak Igelan argitaratu ditu bere hiru itzulpenak, eta Irati Elorrietaren bi itzulpenak, jatorrizko egile berarenak, Alberdania eta Erein argitaletxeek sortutako Batera sailean argitaratu dira¹⁰. Bi horietaz gain, Mendigurenek eta Garikanok Literatura Unibertsala bilduma barruan lan dezente argitaratu dituztela nabarmendu daiteke (garai bakoitzean zegokion argitaletxean). Oro har, argitaletxe desberdinekin lan egitea da joera.

- X. Mendiguren: Literatura Unibertsala (5), Erein (1), Alberdania (1)
- A. Garikano: Literatura Unibertsala (4), Erein (1), Elkar (1)
- E. Matauko: Susa (1), Erein (1), Igela (2), Txalaparta (1)
- P. Zabaleta: Elkar (2), Erein (1), Alberdania/Erein (1)
- M. Múgica: Igela (3)

¹⁰Gara egunkarian agertzen denaren arabera, sail horren asmoa “beste hizkuntza batzuetan arrakasta izan duten lanen atzetik abiatzea da”; izan ere, Josu Zabaletak esan bezala, “iturburu askotara jotzeak aberastuko gaitu, horrek egingo gaitu autonomo” (http://www.alberdania.net/intranet/upload/docs/recortes/doc_754.pdf). Honako hau gaineratzen dute El Diario Vasco egunkarian: “Kanpoko autoreak euskarara ekartzean, argitaletxeok ez dute «azken kolonizatuak» izan nahi. Ahal dela, gaztelaniari ta frantsesari aurrea hartu nahi diete, baina badakite ekonomikoki ez dela beti posible izango. «Talde handiek eskubideen bahiketa egiten dute askotan. Ez dute uzten beste hizkuntzetan argitara dadin, hartara kompetentzia gutxiago izateko», esan zuen Gimenezek” (<http://www.diariovasco.com/v/20101005/cultura/alberdania-ereinek-batera-bilduma-20101005.html>). Alemana-euskara hizkuntza-konbinazioan, Pello Zabaletak ere Kai Meyerren lan bat itzuli zuen sail horretan, eta, kasu horretan, euskal itzulpena gaztelaniakoa baino lehen argitaratu zen.

- A. Irazustabarrena: Literatura Unibertsala (1), Pasazaite (1)
- I. Uribarri: Literatura Unibertsala (1), Elkar/Jokin Zaitegi Itzulpen Saria (1)
- I. Elorrieta: Alberdania/Erein (2)
- X. Kintana: Lur (1), Erein (1)


Itzulpen modua: zuzenean/zeharka

Datu hau izan da, zalantzarik gabe, biltzen zailena. Lehenik, itzulpenak nola egin diren jakiteko, itzultzaileekin jarri gara harremanetan; baina, beti ez da posible izan. Horregatik, askotan, hutsuneak edo galdera ikurrak jarri behar izan ditugu, eta, katalogo-maila honetan, zuzenean edo zeharka itzuli direnak *ustez* zuzenean edo zeharka (*assumed direct/indirect translations*) itzultitakoak direla azpimarratu nahi genuke. Paratestuak eta testuak aztertu ondoren, gai izango gara katalogoko datuak osatzeko, eta agian behin betiko emaitza batzuetara iristeko.

Eztabaida piztu izan duen beste kontu bat da zer den zuzenean itzultzea eta zer zeharka. Gure kasuan, alemanezko jatorrizko bertsoa erabili ez denean, hau da, zubi-bertsio edo hizkuntza batetik itzuli denean, orduan izango da itzulpena zeharkakoa. HLan, esate baterako, Rufino Iraolak esan zigun Kafkaren *Metamorfosia* gaztelanatik itzuli zuela.

Bestalde, beste bertso batzuk eskura izan arren, itzulpenak jatorrizko bertsiotik abiatuta egin badira, orduan zuzeneko itzulpenez hitz egingo dugu. Ainhoa Irasuztabarrenak, esate baterako, *Hilda-koek ez dute hitz egiten* zuzenean alemanetik itzuli zuela esan zigun, baina ingelesezko eta gaztelaniazko bertsoak ere kontuan izan zituela.

4.9 grafikoan, HGL eta HL artean dagoen aldea irudikatu nahi izan dugu.



4.9. figura: Itzulpen modua HGL eta HLan

Argi eta garbi ikusten da bien arteko aldea: haur eta gazteentzako itzulpenetan alde zuzenean zeharka itzultzea da, eta, HLan, aldiz, zuzenean itzulpenak gailentzen dira. Gainera, adierazi nahi genuke, grafikoak egiterako orduan, berrargitalpenak aintzat hartu ditugula, eta HLan zeharka itzuli diren hamahiru lanetatik bederatzire berrargitalpenak direla. Seguruenik kasualitatea izango da, baina HLan berrargitaratu diren liburu gutxi horiek zeharka itzuli dira (Wertherren azken bertsioa izan ezik).

Zubillagak (2013: 347) dio zuzenean edo zeharka itzultzea egile bakoitzak itzuli duen lan kopuruarekin lotuta egon daitekeela, alemanetik zuzenean itzuli dezakeenak itzulpen bat baino gehiago izango dituelako. Hori hipotesi gisa planteatzen du, baina datuak aztertu ondoren honako hau dio: “garbi dago itzulpen kopuru handiak ez duela esan nahi, nahitaez, zuzenean itzultzen denik” (Zubillaga 2013: 350). Gaineratzen du, hala ere, baieztapen hori dagokion testuinguruan ulertu behar dela. HGLan hamar liburutik gora itzuli duten zortzi itzultzailetik bostek zeharka itzuli dituzte liburuak. Ormazabal kasuan, gehienak 90eko hamarkadan itzuli zituen, eta, garai hartan, lehenasuna euskara bultzatzeko euskarazko argitalpenak sortzeak zuen. Kika Supersorginaren kasuan, liburu asko itzuli di-

ra, eta guztiak zeharka. Aitor Aranaren kasuan ere, bilduma bateko liburuak itzuli ditu batez ere.

Hlan gertatzen denari erreparatzen badiogu, [Zubillagak](#) aipatzen duen hasierako hipotesia baieztatzen da. Liburu bakarra itzuli dutenen artean gertatzen da nabarmenen zeharkakotasunaren fenomenoa. Bi edo bi liburutik gora itzuli dutenen artean, aldiz, joera zuzenean itzultzea da: bi kasutan ez dakigu zein itzulpen bide erabili duten itzultzaileek (Matías Múgica eta Xabier Kintana), baina beste guztiek ustez alemanetik abiatuta egin dituzte itzulpenak.

4.2 Katalogotik corpusera

Behin katalogoa osatu eta deskribatu ondoren, [3.1](#) kapituluan aipatu bezala, katalogotik corpuserako jauzia egin behar da. Horretarako, hainbat irizpide aplikatuz, corpus 1 osatuko duten testuak aukeratu ditugu. Datozen lerroetan, irizpide horiek zeintzuk izan diren azalduko dugu, lehenik eta behin, eta, jarraian, corpus 2, AleuskaPhraseo corpusa, sortzeko emandako pausoak deskribatuko ditugu. Azkenik, corpusaren ezaugarriak laburbilduko ditugu.

4.2.1 Corpus 1: irizpideak eta ezaugarriak

Esan bezala, makro mailako azterketarekin hasi ahal izateko, katalogotik corpuserako jauzia egin behar da. Horretarako, lehenengo eta behin, corpus 1a osatu behar da. Izan ere, [Merinok](#) (2003: 650) dioen bezala: “(...) la noción de corpus 1 o primario (y su correspondiente de corpus secundario) ha resultado indispensable como recurso metodológico en estudios descriptivos acometidos desde muy diferentes perspectivas”. Gainera, azpimarratu behar da corpus 1a osatuko duten testuen aukeraketa ez dela aliritzira egiten; hau da, irizpide jakin batzuk definitu eta aplikatu ondoren aukeratuko dira aztergai izango diren testuak.

Erabilitako irizpideei dagokienez, lehenengo eta behin, muga bat jarri dugu denboran: 1980tik aurrerako testuak aztertzea erabaki

dugu, hizkuntza garaikidea delako aztertu nahi duguna. Bigarrenik, katalogoan jasotzen diren generoen artean –poesia, saiakera, teatroa eta narratiba, hain zuzen–, narratibaren generoa (bai haur eta gazteei zuzendutakoa, bai helduentzako narratiba) aukeratu dugu, hiru arrazoi nagusigatik: dagoeneko ikusiko dugun moduan, katalogoko genero adierazgarriena delako, testu-mota konkretu hauetan UFen agerpen-maiztasuna handia izan ohi delako ([Richter-Vapaatalo 2007](#)), eta UFek literatur testuetan bete ditzazketen funtzioak direla eta (ikus [6.1](#)).

Beste irizpide garrantzitsu bat xede-etiketa da, itzulpenak zuzenean edo zeharka egin diren, alegia (ikus [2.1.1](#)). Alemanetik euskarara nola itzultzen den deskribatu nahi dugun heinean, zuzenean itzulitako testuetatik jasotako emaitzak oso interesgarriak dira. Baina, era berean, zeharkako itzulpenak errealitate bat dira, eta helburua izan da errealitate horrek gure corpusean isla nahikoa izan dezan. Horregatik, gutxi gorabehera, corpusaren % 70 itzulpen zuzenak izango dira, eta % 30 zeharkakoak¹¹. Modu horretan, iruditzen zaigu, bi muturren arteko bidearen aldeko apustua egin dugula. Mutur batean deskribapen hutsetik egindako azterketak egongo lirateke. Horiei jarraiki, gure corpusak errealitatearen ispilu izan beharko luke. Beste muturrean, hizkuntzalaritzaren ikuspuntutik egindako azterketak leudeke. Horien arabera, alemanetik euskararako itzulpenak aztertu nahi baditugu, gaztelaniatik egiten diren itzulpenen azterketa lekuz kanpo egongo litzateke. Esan bezala, gure apustua erdibideko irtenbide baten aldekoa izan da: zeharkako testuek corpusean beren lekua izan dezaten nahi izan dugu, errealitate bat direlako, baina asmoa alemanetik euskarara egindako itzulpenetan UFen itzulpena aztertzea denez, zuzenean egindako itzulpenen portzentaje handiagoa jasotzea erabaki dugu. Gainera, ez dugu ahaztu behar beti dagoela aukera, helburuaren arabera, azpicorpusak sortzeko.

¹¹Dena den, ez dugu ahaztu behar ustezko zuzeneko eta ustezko zeharkako itzulpenez ari garela, eta, beraz, mikro mailako azterketako emaitzek katalogo mailako emaitzak alda ditzaketela, eta hasiera batean proposatutako ehunekoak aldatu daitezkeela.

Laugarrenik, gure helburua ez da jatorrizko egile jakin baten edo xede-egile konkretu baten testuak aztertzea. Hori dela eta, kontuan hartu beharreko beste irizpide bat aniztasunarena izango da; hau da, corpusak jatorrizko egile (JE) eta xede-egile (XE) desberdinak jaso beharko ditu.

Azkenik, beste ikerketa batzuetako emaitzak kontuan hartu dira. Alemanaren kasuan, esate baterako, beste ikerketa lan batzuetako emaitzetan oinarrituta, badakigu Erich Kästner egilearen testuetan UFen agerpen-maiztasuna altua dela ([Richter-Vapaatalo 2007](#)). Horrelako emaitzek, beraz, testuen aukeraketan ere lagun diezagukete.

Horrela, aipatutako irizpideak aplikatuz, corpus 1 osatuko duten testuak aukeratu ditugu. Haur eta gazte literaturari dagokionez, 24 bi- eta tritestu aukeratu ditugu guztira. Horietatik, 15 (% 31,25) ustez zuzenean itzultakoak dira, eta 9 (% 18,75), berriz, zeharka. Helduentzako literaturan ere, 24 bitestu/tritestu izango dira corpus 1 osatuko dutenak. Kasu honetan, ez dugu aukera hain zabala izan, zeharka itzuli den testu kopurua nahiko txikia delako. Horregatik, 19 (% 39,58) zuzenean itzultako testuak dira, eta 5 (% 10,42) zeharka. Goian aipatutako irizpideari jarraiki, beraz, corpus 1aren % 70,83 zuzenean itzultako testuek osatzen dute, eta % 29,17 zeharkakoek. Aniztasunaren irizpidea aplikatuz, bestalde, guztira 30 jatorrizko egile eta 28 xede-egile desberdinek osatuko dute corpusa.

Corpusa diseinatzerako orduan, azpicorpusen tamaina orekatuari baino, aniztasunari eman diogu lehentasuna. Izan ere, badakigu HGLko liburuak laburragoak direla, eta, corpusa 1aren sorrera fasean HGL eta HL azpicorpusak orekatuak izan arren (bakoitzetik 24 testu aukeratu baititugu), corpus 2 sortu eta gero lortuko ditugun porzentajeak ez direla horren orekatuak izango (ikusi [4.3](#) atala). Baina, esan bezala, aniztasunari eman diogu lehentasuna. Gainera, testu-azterketa egiterako orduan, desoreka horiek kontuan hartuko dira. Ondorengo taulan laburbildu ditugu aipatutako datuak:

4.7. taula: Corpus Iaren ezaugarriak

| | Itzulpen modua | | Egileak | |
|---------|----------------|---------|---------|----|
| | Zuzenean | Zeharka | JE | XE |
| HL | 19 | 5 | 17 | 15 |
| HGL | 15 | 9 | 13 | 16 |
| Guztira | 34 | 14 | 30 | 28 |

Hurrengo lerroetan, corpus 1 osatzen duten testuak bildu ditugu lau taulatan. Lehenengo taula ustez zuzenean itzultako HLko 19 liburuak osatzen dute; bigarrenen, ustez zeharka itzultako HLko 5 liburuak agertzen dira; hirugarrena ustez zuzenean itzultako HGLko 15 liburuei dagokio; eta, laugarrenen, ustez zeharka itzultako HGLko 9 liburuak jaso ditugu:

4.8. taula: Corpus 1: ustez zuzenean itzultako HLko liburuak

| J. egilea | J. izenburua | X. egilea | X. izenburua | Kodea |
|-----------------|---------------------------------------|---------------|-------------------------------|-------|
| H. Böll | Ansichten eines Clowns | J. A. Azpiroz | Pailazo baten aburuak | AC |
| H. Böll | Die verlorene Ehre der Katharina Blum | P. Zabaleta | Katharina Blumen ohore galdua | DEKB |
| B. Brecht | Geschichten von Herrn Keuner | J. Garzia | Keuner jaunaren kondairak | GHK |
| A. Döblin | Berlin Alexanderplatz | A. Garikano | Berlin Alexanderplatz | BA |
| M. Frisch | Homo Faber | J. A. Arrieta | Homo Faber | HF |
| J. W. v. Goethe | Die Wahlverwandtschaften | X. Mendiguren | Hautapen-ahaidetasunak | DWV |
| G. Grass | Das Treffen in Telgte | A. Eguzkitza | Batzarra Telgten | DTT |
| G. Grass | Katz und Maus | X. Mendiguren | Katua eta sagua | KM |
| H. Hesse | Steppenwolf | P. Zabaleta | Estepako otsoa | DSW |

| | | | | |
|---------------|---------------------------------------|--------------------|---------------------------------|------|
| F. Kafka | Der Prozess | A. Garikano | Prozesua | DP |
| T. Mann | Der Tod in Venedig | X. Mendiguren | Herioa Venezian | DTV |
| R. Musil | Die Verwirrungen des Zöglings Törless | K. Morales | Törless ikaslearen nahasmenduak | DVZT |
| J. Roth | Der Leviathan | E. Matauko | Leviatana | DL |
| A. Schnitzler | Die Toten Schweigen | A. Irazustabarrena | Hildakoek ez dute hitz egiten | DTS |
| R. Walser | Jakob von Gunten | E. Matauko | Jakob von Gunten | JG |
| F. Werfel | Der Abituriententag | J. L. Agirre | Batxilerren eguna | DA |
| R. Zelik | Der bewaffnete Freund | E. Matauko | Lagun armatua | DBF |
| S. Zweig | Brief einer Unbekannten | E. Matauko | Emakume ezezagun baten gutuna | BU |
| S. Zweig | Schachnovelle | X. Mendiguren | Xake nobela | SN |

4.9. taula: Corpus 1: ustez zeharka itzulitako HLko liburuak

| J. egilea | J. izenburua | X. egilea | X. izenburua | Kodea |
|-----------------|--------------------------------------|--------------|------------------------------------|-------|
| J. W. v. Goethe | Die Leiden des jungen Werther | G. Lobera | Werther | DLW |
| F. Kafka | Die Verwandlung | R. Iraola | Metamorfosia | DV |
| J. Roth | Beichte eines Mörders | M. Múgica | Hiltzaile baten aitormena | BM |
| J. Roth | Die Legende vom heiligen Trinker | M. Múgica | Edale santuaren kondaira | DLT |
| P. Süskind | Das Parfum: Geschichte eines Mörders | M. Arratibel | Perfumea: Hiltzaile baten historia | DPGM |

4.10. taula: Corpus 1: ustez zuzenean itzulitako HGLko liburuak

| J. egilea | J. izenburua | X. egilea | X. izenburua | Kodea |
|-------------------------|---|------------------|---|-------|
| M. Arold | Einfach nur Liebe | P. Zabaleta | Maitasuna besterik ez | EL |
| T. Brezina | Grüsse aus dem Geisterschloss | X. Mendiguren | Diosalak espirituen gaztelutik | GG |
| W. Busch | Max und Moritz | P. Zabaleta | Max eta Moritz | MM |
| M. Ende | Das Gauk- lermärchen | X. Mendiguren | Jojo, pailazo baten historia | DGM |
| M. Ende | Die Zauberschule im Wünschereich | N. Zubillaga | Magia-eskola desioen erreinuan | DZW |
| C. Funke | Das Piratenschwein | A. Garikano | Txerrikume pirata | DPS |
| C. Funke | Reckless: Steinernes Fleisch | A. Jaka | Reckless: Harrizko haragia | RSF |
| C. Funke | Tintenherz | N. Zubillaga | Tinta-bihotz | TH |
| P. Härtling | Lena auf dem Dach | P. Zabaleta | Lena teilatuan | LD |
| E. Kästner | Das doppelte Lottchen | A. Narbaiza | Lotte eta Luisa, hau bizki pare! | DDL |
| J. Masannek | Juli die Viererkette | N. Sebrango | Juli, defentsa onena | JV |
| C. Nöstlinger | Das Austauschkind | X. Mendiguren | Ingeles bat etxean | DAK |
| C. Nöstlinger | Liebe Oma, Deine Susi | P. Zabaleta | Amona maite, zure Susik | LODS |
| O. Preussler | Bei uns in Schilda | P. Zabaleta | Markako eroak | BUS |
| A. Sommer- Bodenburg | Schokolowski: Lustig ist das Hundeleben | E. Azkue | Txokoloski: dibertigarria da txakurren bizitza | SLH |

4.11. taula: Corpus 1: ustez zeharka itzultako HGLko liburuak

| J. egilea | J. izenburua | X. egilea | X. izenburua | Kodea |
|-------------------------|---|-------------------|--|-------|
| P. Härtling | Ben liebt Anna | D. Urbistondo | Benek Anna maite du | BLA |
| E. Kästner | Die Konferenz der Tiere | J. Ossa | Animalien Biltzarra | DKT |
| E. Kästner | Emil und die Detektiven | T. Sarasola | Emilio eta detektibeak | ED |
| E. Kästner | Pünktchen und Anton | J. Legarreta | Puntutxo eta Anton | PA |
| Knister | Hexe Lilli auf der Jagd nach dem verlorenen Schatz | I. Aristondo | Kika supersorgina altxorraren bila | HLJ |
| H. J. Press | Die Abenteuer der “Schwarzen Hand” | P. Iparragirre | Eskubeltz taldearen abenturak | DASH |
| O. Preussler | Das kleine Gespenst | X. Gartzia | Fantasmatoxa | DKG |
| A. Sommer- Bodenburg | Der kleine Vampir in Gefahr | G. Markuleta | Banpiro txikia arriskuan da | DKVG |
| A. Sommer- Bodenburg | Der kleine Vampir zieht um | J. Legarreta | Banpiro txikia etxez aldatzen da | DKVZ |

4.2.2 Corpus 2: sorrera

Behin corpus 1 osatuko duten testuak aukeratuta, corpus 2 sortu-ko dugu “con las unidades bitextuales que interese analizar” (Gutiérrez 2005: 60). Ikusi dugun moduan, hainbat corpus-mota sortzeko aukera dago (ikusi 3.2.2), baina, gure kasuan, AleuskaPhraseo corpusa paraleloa eta eleaniztuna izango da. Horregatik, corpusa eleaniztuna denez, ez gara bitestuetara mugatuko, zeharkako testuen kasuan hiru testu izango ditugu aurrez aurre. Corpus hori nola sortu dugun azalduko dugu jarraian.

4.2.2.1 Digitalizazioa

Lehenengo eta behin, testuak lortu behar dira. [Lemnitzer eta Zinsmeisterrek](#) (2006: 57-58) honela definitzen dute prozesua: “Die erste Frage dürfte sein, wie Sie an die Daten herankommen. Da mehr als 80 % der Texte bereits in Druckvorstufe digitalisiert sind, dürfte das Scannen oder die manuelle Eingabe nur noch eine geringe Rolle spielen. Bei älteren Texten werden Sie aber nicht darum herum kommen. Der Aufwand für diese Aufgabe sollte nicht unterschätzt werden”. Hala ere, gure kasuan testuak hain zaharrak ez izan arren, formatu elektronikoa lortu dugun testu kopurua ez da Lemnitzer eta Zinsmeisterrek dioten bezain handia izan.

Laburbilduz, hiru izan dira testuak lortzeko hartu ditugun bideak. Lehenik, argitaletxe eta itzultzaileengana jo genuen, eta, haiek beti prest egon arren testuak emateko, bide hau ez zen oso emankorra izan, goian aipatu bezala, digitalizatutako testu kopurua ez delako gaur egun oraindik oso handia. Beste testu batzuk sarean bertan lortu genituen; euskararen kasuan, “armiarma” web-orrira jo genuen, eta, alemanezko testuen kasuan, “Zeno” eta “Projekt Gutenberg-DE” orrietara. Behin bi bide horiek agortuta, beste testu guztiak eskaneatu egin genituen.

Testuak eskaneatzeko HP Scanjet 8270 eskanerra eta Readiris Pro 11 softwarea erabili ditugu. Software horrek hainbat aukera ematen dituenez, behin betiko eskaneatze-prozesuarekin hasi aurretik, hainbat proba egin genituen. [Molnárrek](#) (2010: 22) ere berdin jokatu zuen bere corpuseko testuak digitalizatzerako orduan: “Vor dem eigentlichen Scannen müssen bestimmte Vorüberlegungen zur Digitalisierung der Bücher behandelt werden, d. h. vor allem die Fragen, wie sich die Farben und die Auflösung auf das Scanresultat auswirken”. Kolore eta bereizmenarekin hasi aurretik, ikus ditzagun digitalizazio-prozesuaren beste alderdi batzuk.

Lehenengo eta behin, eskanerrak testuak eskaneatzeko bi aukera ematen ditu: zuzen-zuzenean liburua bera eskaneatu daiteke, edo, bestalde, liburutik ateratako fotokopiak eskaneatu daitezke. Lehe-

nengo bidea luzeagoa da, baina emaitzak hobeak direla frogatu ahal izan dugu. Hala ere, liburuak egoera onean badaude eta letra-mota argia baldin bada, bigarren aukera hori, elikadura automatikoa, erabilita lortutako emaitzak ez dira batere txarrak, eta prozesua asko arintzen da. Dena den, guk kasu gehienetan liburuak erabili ditugu.

Bestalde, besterik esan ezean, programak orrien analisi automatikoa egiten du; hau da, automatikoki bereizten ditu testuak eta irudiak, gero karaktere-ezagutzea (OCR) egin ahal izateko. Proba batzuk egin ondoren konturatu ginen prozesu hori (testuak testu gisa markatzea eta irudiak irudi gisa) eskuz egitea azkarragoa eta fidagarriagoa zela.

Bereizmenari dagokionez, aukera ezberdinak dauden arren (75 dpi, 150 dpi, 200 dpi, 300 dpi eta 600 dpi) azkar konturatu ginen, 300 dpi-tik beherako bereizmena aukeratuz gero, emaitzak oso kaskarrak zirela. Molnárrek (2010: 28) ere, proba batzuk egin ondoren, gauza bera dio: “Daraus resultiert, dass die größere Auflösung zur besseren Lesbarkeit beiträgt”. Dena den, kontuan hartu behar da bereizmenigoerarekin eskaneatze denbora ere nabarmen igotzen dela.

Kolore aukeraketak ere badu aurrerago egingo den OCR prozesuarekin zerikusia. Hiru aukera ematen ditu softwareak: zuri beltza, gris-eskala edo kolorea. Gure kasuan, karaktere-ezagutze ahalik eta zehatzena egitea denez helburua, azken aukera alde batera utz dezakegu. Proba batzuk egin ondoren konturatu gara gris-eskalan emaitzak hobeak direla. Baina, kasu honetan ere, eskaneatze denbora igo egiten da: “It goes without saying that greyscale and color images are slower to acquire and require more RAM memory than ‘bilevel’ images” (Rediris eskuliburua: 79).

Karaktere-ezagutza prozesuarekin hasi baino lehen, hizkuntza aukeratu dezakegu. 126 hizkuntza ezberdinen artean egin daiteke aukera, eta, gure kasuan, erabili ditugun hiru hizkuntzak aukeratu ahal izan ditugu.

Molnárrek dioen bezala, laburbildu dezakegu esanez, eskanerraren konfigurazioak eragin zuzena duela lortuko dugun emaitzean: “Die angewendeten Scanner-Einstellungen haben also einen unmittelba-

ren Einfluss darauf, wie das Resultat der OCR-Textverarbeitung sein wird” (2010: 28).

4.2.2.2 Garbiketa

Beraz, testuak RTF formatuan gorde ondoren, hiru motatako dokumentuak ditugu esku artean: eskaneatutakoak RTF formatuan, argitaletxeek emandako PDFak eta internetetik hartutakoak. Eta testu-mota bakoitzak bere berezitasunak ditu. Esate baterako, eskaneatutako testuetan, eskanerrak ez dituenek karaktere batzuk ongi bereizten (m beharrian rn agertzen da askotan, puntua o bezala identifikatzen du maiz, $[j$ beharrian...), eskuz zuzendu behar dira. Kasu horietan, edozein testu-editoreetako zuzentzaileak oso baliagarriak dira. Libreofficen kasuan, adibidez, hizkuntzak pakete bezala instalatzen dira, eta, hizkuntza bakoitzari dagokion hiztegian agertzen ez diren hitzak gorritz markatzen direnez, erraz identifikatzen dira akatsak. Dena den, zuzentzaileek ez dituzte akats guztiak markatzen, eta, eskuz egin beharreko lana denez, testuen garbiketak denbora asko hartzen du.

Bestalde, badaude testu-garbiketa prozesu honetan automatizatu daitezkeen pausoak, formatu-aldaketak kasu. Izan ere, programak paragrafo eta esaldiak ongi bereizi ditzan, hau da, etiketatze-prozesua ahalik eta automatikoena izan dadin, testu txukun bat sortu behar da. Horretarako, besteak beste, ondorengo zerrendan ditugun aldaketak egin behar dira:

- Tabulazioak (\hat{t}) kendu
- Zuriune bikoitza zuriune bakarragatik ordeztu: $(zuriune)(zuriune) \Rightarrow (zuriune)$
- Orga-itzulera bikoitza bakarragatik ordeztu: $\hat{p}\hat{p} \Rightarrow \hat{p}$
- Koma, puntu, puntu eta koma, bi puntu, komatxo, harridura ikur, galdera ikur edo orga-itzulera aurretik dagoen zuriune oro

kendu:

(zuriune),././;/:/"/!//?/^p ⇒ ,././;/:/"/!//?/^p

- Orga-itzulera ondoren dauden zuriuneak kendu: $\hat{p}(\text{zuriune}) \Rightarrow \hat{p}$
- Komatxo edo parentesi aurreko puntua ikurraren ondoren kokatu: ." edo .) ⇒ ". edo).

Hasiera batean, aldaketa horiek eskuz egiten genituen, testu-editoreek dituzten “bilatu” eta “ordeztu” aukerekin. Baina, ondoren, informatikari baten laguntzaz, urrats horiek automatizatzea posible zela ikusi genuen. Hurrengo irudian, dokumentuak garbitzeko aplikazioaren interfazea ikus dezakegu:



4.10. figura: Garbiketa programaren interfazea


Microsoft Access barruan sortutako tresna honek testu-garbiketa segundo gutxiren buruan egitea ahalbidetzen du. Dena den, kontuan izan behar da testua ez dela % 100ean garbi geratzen. Azken gainbegiratu bat egitea ezinbestekoa da. Eta, hala ere, azken gainbegiratu hori egin arren, beti daude aurreragoko faseetan –lerrokatzerakoan, adibidez– zuzendu beharko ditugun akatsak. Esate baterako, eskannerrak puntuak eta komak nahastu ohi ditu. Horregatik, batzuetan, puntuak egon beharko litzatekeen kasuan koma agertu ohi da, edo alderantziz.

4.2.2.3 Lerrokatzea

Behin testuak garbituta, lerrokatu egingo ditugu. Horretarako, TRACE ikerketa proiektuaren markoan sortutako programa bat erabiliko dugu. TRACE proiektuan Leon eta Euskal Herriko Unibertsitateko ikertzaileek hartzen dute parte, eta, hasiera batean, Leon-go unibertsitatean sortu zen 1.0 bertsioa. Guk, informatikari baten laguntzari esker, TRACEaligner 2.0 bertsioa gure beharretara egokitzeko aukera izan dugu.¹²

Lerrokatzen hasi aurretik, testuak etiketatu egin behar dira, edo, beste modu batean esanda, XML fitxategiak sortu behar dira. Gure kasuan, testu bat etiketatuta egoteak esan nahi du, alde batetik, paragrafo, esaldi eta elkarrizketak etiketa (“tag”) bidez markatuta egongo direla, eta, bestalde, testuak metainformazioz hornituko ditugula, gero bilaketak egiteko ezinbestekoa izango den informazioa, alegia. Bertan, testuaren izenburua, egilea, itzultzailea, itzulpen- eta genero-mota... jasotzen dira.


Testuak nola etiketatzen diren ikusteko, has gaitezen programaren interfazea aurkeztuz:



4.11. figura: Etiketatze eta lerrokatze programaren interfazea

¹²Orain, TRALIMA-ITZULIKen baitan, 3.0 bertsioa garatzen ari gara.

Goian, ezkerreko aldean, hiru fitxa daudela ikus dezakegu. Gure kasuan, “narrativa” fitxa aukeratuko dugu, horiek direlako guk etiketatatu eta lerrokatuko ditugun testu-motak. Azpian, ezkerreko aldean, testuaren formatua aukeratu dezakegu. Momentu honetan, titulu eta azpigituluen etiketatzea ez denez garrantzitsua, “nada” aukeratuko dugu beti. Ondoren, “etiquetar” botoia sakatuko dugu, eta etiketatutako nahi dugun TXT fitxategia aukeratuko dugu. Testuak aukeratu ondoren, deskribatu egin behar ditugu; hau da, goian aipatutako metadatuak sartuko ditugu:



The image shows a screenshot of a software window titled "TRACEApp". The window contains a form for entering metadata. The fields are as follows:

| | |
|--------------------|---|
| Autor: | <input type="text"/> |
| Code: | <input type="text"/> |
| Título: | <input type="text"/> |
| Editorial/Exp.AGA: | <input type="text"/> |
| Colección: | <input type="text"/> |
| Fecha: | <input type="text" value="DD/MM/AAAA"/> |
| Idioma: | <input type="text" value="Euskera"/> |
| Traductor: | <input type="text"/> |
| Modo: | <input type="text" value="Original"/> |
| Genero: | <input type="text" value="LIJ"/> |


At the bottom of the form is a button labeled "Guardar Texto".

4.12. figura: Metadatuak

Irudian ikus daitekeen bezala, testua hainbat daturekin hornitzeko aukera daukagu. Guretzat honako hauek izango dira garrantzitsuak: egilea, kodea, izenburua, hizkuntza, itzultzailea, modua (jatorrizko testua, zubi-testua, zuzeneko itzulpena, zeharkako itzulpena) eta generoa (haur eta gazte literatura, eta helduentzako literatura).

Testua gorde ondoren (“Guardar texto” aukeraren bitartez), sortuko den fitxategiari izen bat jarri, eta gorde egin beharko dugu,

eta, horrela, XML fitxategia sortuko da; hala, etiketatze prozesuari amaiera emango diogu. XML fitxategiak ez daudenez software konkretu bati lotuak¹³, beste askoren artean, Notepad++ programa erabili dezakegu fitxategiaren barne-informazioa ikusteko:



4.13. figura: XML fitxategiaren barne-informazioa

Irudi horretan fitxategiaren zati bat besterik ez da ikusten. Garrantzitsuena bi zati nagusi daudela identifikatzea da: alde batetik, <header> etiketaren barnean biltzen dena, eta, bestalde, <text> barruan dagoena. Lehen zati horretan metadatuak aurkitzen dira (izenburua, egilea, kodea, itzultzailea, hizkuntza, modua, generoa), eta, bigarrenean, aldiz, testua bera dago. Testua, era berean, paragrafo, esaldi eta elkarrizketatan banatuta dago. Horiek paragrafo, esaldi eta elkarrizketa gisa markatzeko ere, berariazko etiketak erabiltzen dira (<p>, <s> eta <q>). Goiko irudien gorritz agertzen den “n”-a, kasu honetan, paragrafo, esaldi eta elkarrizketen atributo bat da, eta horiek zenbatzeko balio du. Beheko eskeman, aipatu berri duguna ikus daiteke laburbilduta:


¹³“it [xml-a] is independent of any one hardware or software system” (<http://www.tei-c.org/release/doc/tei-p5-doc/en/html/SG.html>).

Baina lerrokatze-prozesua ez da guztiz automatikoa gure kasuan; hau da, programak testu bakoitza esalditan banatzen du, baina gero guri dagokigu, jatorrizko testuan oinarrituta, jatorrizko testuko esaldia xede-testuko esaldiarekin bat datorrela ziurtatzea. Guretzat esaldi amaiera honako ikurrek markatuko dute: puntuek, bi puntuek, puntu eta komek, eten puntuek, harridura eta galdera ikurrek. Gainera, jatorrizko testua hartuko dugu beti oinarri gisa; esate baterako, jatorrizko testuko esaldi bat bi esalditan itzuli bada, bi esaldi horiek batuko ditugu.

Aldaketa horiek egin ahal izateko, goiko irudian ikus daitezkeen botoiak ditugu. “Combinar” botoiarekin bi esaldi batu genitzake; laukiak gehitu nahi baditugu, “insertar blanco”-n egingo dugu klik; hitzak berak dioen bezala, “dividir”-ekin laukiak zatitu daitezke; “guardar”-ekin hiru testuak TMX formatuko fitxategi bakarrean gorde daitezke; “editar” botoiarekin lauki bakoitzeko informazioa editatu genetzake; testu bakoitza banaka eta XML formatuan gorde nahi badugu, “guardar xml” sakatuko dugu; “deshacer”-ekin azken agindua desegin dezakegu; “eliminar”-en klik eginez, nahi beste lauki kendu ditzakegu, eta, “salir”-ekin, programatik irten gaitezke.

4.2.2.4 Datu-basea: elikatu eta ustiatu

Behin testuak lerrokatuta, datu-basea sortuko dugu. Horretarako, MySQL datu-baseak kudeatzeko sistema erabiliko dugu; hau da, lerrokatutako testu pare/hirukote guztiak jasotzen dituen fitxategi handi bat sortuko dugu, gero bilaketak egin ahal izateko. MySQL erabili ahal izateko, XAMPP instalatu dugu gure ordenagailuan, eta, horren baitan gure datu-basea sortu dugu. Hiru taulatan banatzen den -testuak, esaldiak, hitzak- SQL formatuko fitxategi bat da. Hau da bere itxura hutsik dagoenean:



4.16. figura: Datu-basearen itxura hutsik dagoenean

Datu-basea elikatzen dugun heinean, “registros” jartzen duen zutabeko byte kopurua ere igotzen joango da.

Testu guztiak datu-basean ditugunean, horren ustiaketarekin has gaitezke. Horretarako, sortu dugun datu-basean bilaketak egiteko kontsulta-tresna hau garatu du informatikariak:

| CONSULTAS | | | |
|----------------------------------|------------------------|-------------------------------|-------------------------------|
| Idioma de búsqueda: DEUTSCH (6) | | | |
| Modo de búsqueda: Texto a buscar | | | |
| EXACTO (7) | <input type="text"/> | Idioma columna 2: DEUTSCH (6) | Idioma columna 3: DEUTSCH (6) |
| | | Modo columna 2: TODOS (4) | Modo columna 3: TODOS (4) |
| EXACTO (7) | <input type="text"/> | Distancia-1 (8) | |
| EXACTO (7) | <input type="text"/> | Distancia-1 (8) | Distancia-2 (8) |
| Autor: TODOS (1) | Traductor 2: TODOS (3) | Traductor 3: TODOS (3) | |
| Genero: TODOS (5) | Titulo: TODOS (2) | | |
| | | | Buscar |

4.17. figura: Bilaketak egiteko tresnaren interfazea

Tresna hau aurrez aurre izanda, metadatuaren funtzioa argiago ikusi daiteke. Izan ere, testu bakoitza metadatuaz hornituta dagoenez, posible da, esate baterako, egile (1) konkretu baten testuetan bilaketak egitea. Eta berdina egin daiteke izenburu (2), itzultzaile (3), itzulpen-modu (4) eta generoarekin (5). Gainera, zutabe bakoitzean agertuko den hizkuntza (6) ere aukeratu genezake, eta, kodeari dagokionez, bilaketako emaitzak identifikatzeko balioko digute (ikusi 4.18 irudia). Horretaz gain, hitza(k) bilatzerako orduan, ezkerreko zutabeko goitibeherako menuan (7) hainbat aukera ditugu: “exacto”, “contiene”, “empieza con”, “termina con”, alegia. Horrela, hitza bere horretan bilatu dezakegu, hitz-zati bat, hitzaren hasiera edo hitzaren amaiera.

Gainera, hitz-konbinazioak bilatzeko, eta hitz horien arteko distantzia (8) zehazteko aukera ere izango dugu. Izan ere, [Guia i Marínek](#) (2000: 78) dioen bezala:

“La búsqueda informatizada de las recurrencias de una unidad fraseológica no se puede hacer de una vez por todas, dándole al ordenador la forma canónica de la unidad y pidiéndole que nos encuentre todas sus intertextualizaciones. Éstas solamente se podrán localizar, en los textos tratados, mediante la búsqueda combinada y complementaria de diversas palabras clave o, más concretamente, de diversas raíces de palabras clave”

Bilaketen emaitzei dagokienez, bilatu dugun hitz bakoitza zein testuri dagokion identifikatzeaz gain, garrantzitsua da testuingurua ikustea. Horregatik, bilatu nahi dugun hitzari dagokion esaldia, eta horren aurreko eta ondorengo esaldiak erakutsiko dizkigu kontsultatresnak. Hona hemen adibide bat:

| | | | |
|------|--|---|--|
| DEKB | es wurde noch ungemütlicher, denn Trude B. konnte sich nicht verkneifen, den alten Freund, während sie weiterhin in ihrer Kaffeetasse rührte, mit den Worten zu begrüßen "Hallo Herrenbesuch". (2) | | oraindik gogorrago izan zen. Trude B. k ezin izan bait zuen isilik gorde, bere kafetari eragiten zion bitartean, adiskide zaharra "kaixo jaun -bisitari" batekin agurtzea. |
| DEKB | "Ich nehme an", sagte Blorna verlegen, "Trude hat mal wieder den Nagel auf den Kopf getroffen". (1) | | - Dirudienez -esan zuen lotsati Blornak-, orain ere Trudek iltzeari buru -buruan jo dio. |
| DEKB | "Ja", sagte Sträubleder, "fragt sich nur, ob das immer taktvoll ist". (3) | | - Bai -esan zuen Sträublederrek-, baina ez dakit hori egiaz beti zuzun den. |
| DKVG | Du wolltest bloß nicht zugeben, daß du um ein Haar abgestürzt wärs!". (2) | ¡Tú lo que no querías era admitir que no te has estrellado por un pelo! | Onartu nahi ez zenuena zera zen, txirripaz ez ditzula mutura hurraren kontra apurtu! |
| DKVG | Daß Anton mit seiner Überlegung den Nagel auf den Kopf getroffen hatte, merkte er an der Reaktion des Vampirs. (1) | Por la reacción del vampiro Anton se dio cuenta de que con su observación había dado en el clavo. | Banpíroaren erreakzioaz, Anton bete -betean asmatu zuela ohartu zen. |
| DKVG | ein verlegenes Grinsen huschte über sein Gesicht. (3) | una tímida sonrisa irónica se deslizó hasta su rostro. | irri barre ironiko tiki bat piztu zitzaion aurpegian. |

4.18. figura: Kontsulta-tresnarekin eginiko bilaketaren emaitza

Lehenengo zutabean testuen kodeak ikus ditzakegu; bigarrenean, jatorrizko testua; hirugarrenean, zubi-testua, eta, laugarrenean, xede-testua. Bestalde, kasu honetan, bi agerpen lortu ditugu, eta, agerpen bakoitzeko, hiru esaldi ematen dizkigu programak defektuz: bi-

latu ditugun hitzak (*Nagel, Kopf*) jasotzen dituen esaldia (1), horren aurrekoa (2) eta ondorengoa (3)¹⁴.

4.3 Corpusaren ezaugarriak

[Lemnitzer eta Zinsmeister](#) (2006), [Scherer](#) (2006) eta [IXA eta Elhuyarren](#) (2007) tipologiak kontuan hartuta, AleuskaPhraseo corpusak ondorengo ezaugarriak ditu.

Digitala izateaz gain, goian aipatu bezala, gure corpora eleaniztuna eta paraleloa da; alde batetik, hiru hizkuntzatan idatzitako testuak jasotzen direlako (alemana, euskara, gaztelera), eta, bestalde, jatorrizko testuak eta horien itzulpenak jasotzen direlako.

Gainera, idatzizko testuen corpora da, hau da, literatur-testuez osatua dago. Tamainari dagokionez, 110 testuz, eta, gutxi gorabehera hiru milioi eta erdi hitzez osatuta dagoen corpora izanik, gure helburua betetzeko corpus adierazgarri baten aurrean gaude.

Horretaz gain, AleuskaPhraseo corpora ez da maila morfolo- giko, sintaktiko, morfosintaktiko, semantiko edo pragmatikoan etiketa- tua egongo, baina paragrafoak, esaldiak eta elkarriketak “tag” bidez markatuko dira.

Iraunkortasunari dagokionez, estatikoa izango da, hau da, “es gibt eine abgeschlossene Textmenge, die in einem bestimmten Zeitraum gesammelt wurde und dann für die weiter Verarbeitung gespeichert ist” ([Lemnitzer eta Zinsmeister](#) 2006: 105-106).

Azkenik, ez da erreferentzia-corpus bat (*Referenzkorpus*) goian aipatutako DeReKo izan daitekeen moduan, corpus-berezi edo -espe-

¹⁴Tesiaren amaierako fasean, etiketatze eta lerrokatze programaren 3.0 bertsioa sortu du informatikariak. Erabiltzaileok proposatuta, hainbat doikuntza egin dizkio programari. Orain, esate baterako, prozesu guztiak (etiketatzea, lerrokatzea eta datu-basean bilaketak egitea) interfaze bakarrean ditugu. Horrela, behin testuak lerrokatuta, datu-basera igotzen ditugu, eta bilaketak zuzenean, programan bertan, egin ditzakegu. Beraz, ez da beharrezkoa XAMPP fisiko- ki instalatzea. Bestalde, bilaketen emaitzak ustiatzeko hainbat aukera gehituko dizkio etorkizunean TRACEaligner programari.

ziazializatu baizik (*Spezialkorpus*).

Hurrengo taulan, corpusaren ezaugarri nagusiak bildu ditugu. Alde batetik, HL (helduentzako literatura) eta HGLko (haur eta gazte literatura) datuak bereizi ditugu. Bestalde, itzulpen modu, egile kopuru eta hitz kopuruari dagozkion datuak ditugu. Lehenengoari dagokionez, ustez zuzenean eta zeharka egin direnak jaso ditugu. Egile kopuruari erreparatzen badiogu, jatorrizko eta xede-egileen arteko bereizketa egin dugula ikus daiteke. Eta, azkenik, hitz kopuruari dagokionez, sorburu-, xede- eta zubi-testuetako zenbatekoak banatu ditugu.

4.12. taula: Corpusaren ezaugarri nagusiak

| | Itzulpen modua | | Egileak | | Hitz kopurua | | |
|---------|----------------|----|---------|----|--------------|-----------|---------|
| | ZZ | ZH | JE | XE | JT | XT | ZT |
| HL | 19 | 5 | 17 | 15 | 1.120.534 | 935.530 | 198.274 |
| HGL | 15 | 9 | 13 | 16 | 593.871 | 512.204 | 166.860 |
| Guztira | 34 | 14 | 30 | 28 | 1.714.405 | 1.447.734 | 365.134 |

4.12 taulan jasotako hitz kopuruetan oinarrituta egin ditugu jarraian aurki ditzakegun hiru taulak. Lehenengoan, corpora osatzen duten azpicorpus bakoitzaren portzentajea ikus dezakegu. Datu horien arabera, HGL ZH eta HL ZH azpicorpusak –hau da, zeharkako testuz osatuta daudenak– nahiko antzekoak dira tamaina aldetik. HL ZZ, berriz, beste guztiak baino dezente handiagoa da.

4.13. taula: Corpora osatzen duten azpicorpusen ehunekoetako banaketa

| Azpicorpusa | Ehunekoetako banaketa |
|-------------|-----------------------|
| HGL ZZ | % 22,93 |
| HGL ZH | % 13,14 |
| HL ZZ | % 48,42 |
| HL ZH | % 15,52 |

Honako taula honetan ikus daitekeen legez, HGL eta HL azpi-corpusak ez dira orekatuak. Hala ere, 4.2.1 atalean aipatu legez, desorekaren kontua aurreikusten genuen zerbait da, HGLko testuak laburragoak izan ohi dira eta.

4.14. taula: Ehunekoetako banaketa, testu-motaren arabera

| Testu-mota | Ehunekoetako banaketa |
|------------|-----------------------|
| HGL | % 36,07 |
| HL | % 63,93 |

Zuzeneko eta zeharkako testu kopuruari dagokionez, corpusaren diseinua zehazterako orduan ezarritako irizpidea (% 30 – % 70) neurri handi batean betetzen dela ikus daiteke azken taula honetan:

4.15. taula: Ehunekoetako banaketa, itzulpen-motaren arabera

| Itzulpen-mota | Ehunekoetako banaketa |
|---------------|-----------------------|
| ZZ | % 71,34 |
| ZH | % 28,66 |

Badakigu katalogoak errealitate bat islatzen duela, eta AleuskaPhraseo corpusak beste bat, baina ez dugu ahaztu behar tesiaren helburuak kontuan hartuta eta corpus 1 diseinatzerako orduan ezarritako irizpideak aintzat hartuz lortu dugun emaitza dela corpus 2a.

5.

Azterketa makroestrukturnala

| | | |
|------------|--|------------|
| 5.1 | Paratestuen azterketa | 169 |
| 5.1.1 | Jatorrizko eta xede-egileak | 169 |
| 5.1.2 | Hitzurre eta hitz-atzeak | 171 |
| 5.1.3 | Itzulpen urratsen identifikazioa | 174 |
| 5.1.4 | Epitestuak | 179 |
| 5.2 | Paraitzulpenaren azterketa | 181 |
| 5.2.1 | Izenburuen itzulpena | 182 |
| 5.2.2 | Kapitulu izenen itzulpena | 186 |
| 5.2.3 | Azaleko irudiak | 193 |
| 5.3 | Hitzak, esaldiak, paragrafoak | 202 |
| 5.4 | Behin-behineko ondorio batzuk | 211 |

Paratestuen azterketa egiterako orduan, Genettek (1987) proposatutako kontzeptuetan oinarrituko gara. Genetten arabera, elementu paratestualak, kokapenaren arabera, bi multzotan banatzen dira: alde batetik, peritestuak ditugu, eta, bestetik, epitestuak. Peritestuak testuan bertan aurkitzen dira, eta epitestuak, berriz, testuarekiko zentzuzko distantzia batera kokatuta daude. Peritestu eta epitestuen batuketaren emaitza da paratestua. Ikus dezagun Garrido Vilariñok (2011: 69-70) nola deskribatzen dituen kontzeptuok:

“According to Genette, paratexts are the elements that accompany any written work, such as the title, subtitle, intertitles, prologue, epilogue, notes, dedications, adverts, glossaries, graphical aspects – in short, all those verbal and non-verbal messages that are situated around the text and even outside it, such as interviews with writers, criticism, private correspondence, and so on. They are distinguished according to where in the work they are situated. On one side is the peritext, which includes those elements that appear physically in the work, alongside the text: the title, subtitle, intertitles, the prologue and epilogue, the notes, dedications, adverts and glossaries, and all the non-verbal graphic aspects such as, for example, the choice of font. This is therefore an essentially spatial and material category. On the other side is the epitext, which includes those messages that are situated around the text, but at a certain distance, so that they are usually found outside the work, such as adverts in magazines or newspapers, interviews with the author, contemporaneous criticism, private correspondence, and lectures”.

Paratestuaren azterketari dagokionez, guk biak landuko ditugu atal honetan, peritestuak eta epitestuak. Ondoren, Garrido Vilariñok¹ proposatutako kontzeptu batean oinarrituta – *paratranslation*

¹Vigoko Unibertsitatean, itzulpena eta paraitzulpena lantzen duen ikerketa-

kontzeptua, hain zuzen –, paratestuen itzulpena aztertuko dugu; hau da, liburuen izenburuak nola itzuli diren ikusiko dugu, liburu barruko atalen itzulpena ere deskribatuko dugu, eta liburuetako sorburu- eta xede-azalak ere alderatuko ditugu. Jarraian, sorburu- eta xede-testuen egitura aztertu, eta, hitz, esaldi eta paragrafo kopuruaren inguruko datuak jarriko ditugu irakurlearen eskura. Beraz, azterketa makroestruturalaren bidez, katalogo mailan lortutako emaitzetan sakontzen saiatuko gara. Itzulpen modua izanik, arestian aipatu bezala, zehazten zailena den datua, informazio horretan jarriko dugu arreta berezia, eta bukaeran behin-behineko ondorio batzuk aurkeztuko ditugu.

5.1 Paratestuen azterketa

Testuak zuzenean edo zeharka itzuli diren zehazteaz gain, oro har, makro mailan zein arau dauden deskribatzea interesatzen zaigu. Horregatik, ez gara soilik mugatuko paratestuek itzulpen urratsen inguruan eman diezaguketzen informazioa aztertzeraz; horretaz gain, egile eta itzultzailearen inguruko datuak nola aurkezten diren deskribatuko dugu, itzultzailearen eta itzulpenaren inguruko datuei ere erreparatuko diegu (hala nola hitzaurre eta hitz-atzeei), eta goian aipatutako epitestuak ere izango ditugu hizpide.

5.1.1 Jatorrizko eta xede-egileak

Agertu, corpora osatzen duten xede-testu guztietan agertzen dira jatorrizko eta xede-egileen izenak. Egilearen izena, gainera, liburuko azalean agertzen da beti, gaur egun ohikoa den moduan. Itzultzailearen izena, aldiz, 18 kasutan ageri da liburuko azalean, eta, guztiak

talde bat dago, eta aipatutako ikertzailea, Xoán Manuel Garrido Vilariño, taldeko kide da. Web-orrian aurkitu daiteke informazio gehiago: <http://www.paratraduccion.com/>

helduentzako narratiba liburuak dira². Beste modu batera esanda, AleuskaPhraseo corpuseko HLko liburuen % 75ak azalean darama itzultzailearen izena. Ikus dezagun zer gertatzen den gainerako % 25arekin.

Bi kasutan, itzulpenak argitaletxe, bilduma eta argitalpen-urte berekoak dira; *Estepako Otsoa* eta *Pailazo baten aburuak* liburuekin gertatzen da hori, hain zuzen. Elkar argitaletxeak argitaratu zituen 1986. urtean “Erdal literatura eleberria” bilduma barruan. Argitaletxe horrek HL baitan 1989. urtetik aurrera argitaratu zituen beste liburuetan (*Katharina Blumen ohore galdua* 1989, *Prozesua* 1993, *Homo Faber* 2001, *Hildakoek ez dute hitz egiten*³ 2009), itzultzailearen izena azalean ageri da; beraz, agian, urteak pasatu ahala, itzultzailearen ikusgarritasunaren inguruko argitaletxe-politika aldatzen joan zela ondorioztatu daiteke. Beste bi liburu Hiria argitaletxean kaleratu ziren (*Metamorfosia* eta *Werther*), eta biak ala biak ustez zeharka itzuli dira. Gertatzen diren bien artean ez dago inolako loturarik; bata, *Jakob von Gunten*, Erein argitaletxean argitaratu zen 2005. urtean, eta, argitaletxe horretako liburu bakarra daukagunez corpusean, ezin ziur esan argitaletxearen ohiko jokaera den edo ahaztu egin zaien itzultzailearen izena azalean jartzea. Bestea, *Perfumea* (2007), Alberdania argitaletzekoa da. Argitaletxe bereko beste hiru liburuen kasuan (*Xake-nobela* 1999, *Keuner jaunaren kondairak* 1999, *Batzarra Telgten* 2002), itzultzailearen izena azalean ageri da. Kasu horretan, Elkarren alderantzizko joera daukagu: denboran lehenago egin diren itzulpenetan jarri dute itzultzailearen izena azalean.

HGLari dagokionez, argi ikusten da argitaletxe bakoitzak bere politikak dituela itzultzailearen presentzia gehiago edo gutxiago nabarmentzerako orduan, eta horiek sistematikoki aplikatzen direla:

²HGL eta HLko liburuen artean dagoen alde horri dagokionez, Literatura Unibertsala (LU) bildumaren eragina aipa daiteke. Izan ere, gure corpusean dau den LU bildumako liburu guztiek daramate itzultzailearen izena azalean. Esan liteke eredu bat sortu dela bilduma horri esker, eta beste argitaletxe batzuek eredu horri jarraitzen diotela.

³Alberdaniarekin elkarlanean argitaratu zen azken liburu hori.

- Alfaguara, Desclée de Brouwer (3): izenburu-orrian bakarrik.
- Alfaguara, Zubia (1): izenburu-orrian eta kredituetan.
- Desclée de Brouwer (3): izenburu-orrian eta atzeko azalean.
- Elkar (10), Elkarlanean (1): hamar kasutan izenburu-orrian eta kredituetan; kasu batean (*Fantasmatoxa*) izenburu-orrian bakarrik. Dena den, kontuan hartu behar da azken hori 1983. urtean argitaratu zela. HLAN ere ikusi dugu Elkarren aldaketak egon direla denboran zehar.
- Gero Mensajero (1): kredituetan bakarrik.
- Gero Mensajero, Bruño (1): kredituetan bakarrik.
- Aizkorri (1): kredituetan bakarrik.
- Pamiela (1): Aurreko azal hegalean eta izenburu-orrian.
- SM argitaletxea (2): kredituetan bakarrik.

5.1.2 Hitzaurre eta hitz-atzeak

Hitzaurre edo hitz-atzei dagokienez, HLAN bakarrik aurkitu ditugu. Eta horietan, 14 kasutan: 13 hitzaurre forman eta bakarria hitz-atze gisa. Hemen ere, argitaletxeek sistematikoki jokatzen dutela dirudi, eta beste behin LU bilduma nabarmendu nahiko genuke, AleuskaPhraseo corpusean dauden bilduma horretako liburu guztiak baitaude hitzaurrez hornituta. Paratestuei dagokienez, iruditzen zaigu bilduma horrek eragina izan duela oro har euskal HL itzuliaren argitalpenetan, eta eredu bilakatu dela.

- Alberdania (4): Hiru kasutan (*Xake-nobela*, *Batzarra Telgten* eta *Keuner jaunaren kondairak*), liburuak hitzaurrez hornituta daude. Hitzaurrerik ez daukan bakarria zeharka itzuli den liburua da, *Perfumea*. *Xake-nobela* liburuan, Zweigen bizitza

eta lanen inguruan hausnartzen da sakon; *Batzarra Telgten* liburuan, Andolin Eguzkitza itzultzaileak berak Grassen liburua dagokion testuinguruan kokatu, eta liburu konkretu horren itzulpenaren zergatia azaltzen du; eta, azkenik, *Keuner jaunaren kondairak* liburuan, Brechten biografia sakona aurkezteaz gain, Brechti euskaratu zaizkion lanen inguruan ere hausnartzen du, eta itzulpenari buruzko gogoetak ere egiten ditu Joxerra Garziak, liburuaren itzultzaileak.

- Ibaizabal (5): Guztiak Literatura Unibertsala bilduma barruan argitaratuak dira, eta guztiak daude hitzaurrez hornituta. Kronologikoki, *Herioa Venezian* eta *Hautapen-ahaidetasunak* 1992. urtean kaleratu ziren, eta bietan idazleen biobibliografia nahiko laburrak egiten dira hitzaurrean. Ildo beretik, *Katua eta sagua* liburuan, Grass eta bere lanari buruz idazten du labur Xabier Mendiguren itzultzaileak. Desberdintasun bakarra da, azken kasu horretan, itzultzailearen sinaduraren bitartez, hitzaurrean bertan autoretza onartzen dela. Hiru urte geroago, 1996. urtean, argitaratzen den *Törless ikaslearen nahasmenduak* liburuan, Musilen biobibliografia sakona egiten da. Literatura Unibertsala bildumako azken aroan kaleratu zen gure azken liburuaren kasuan, hots, *Berlin Alexanderplatz* itzulpenaren kasuan, Antton Garikanok idazlearen eta liburu horren inguruko gogoeten inguruan idazten du labur.
- Elkar, Alberdania (1): Bilduma beraren testuinguruan, *Hildakoek ez dute hitz egiten* argitaratu zen 2009. urtean. Hitzaurrean, Schnitzler idazlearen inguruan mintzo da itzultzailea; ondoren, bigarren atal batean, bere obrei buruz idazten du, eta, hirugarren batean, antologiaren sorreraren berri ematen du. Izan ere, ipuin-bilduma da DTS.
- Elkar (5): Ez dute hitzaurrerik (*Estepako otsoa*, *Pailazo baten aburuak*, *Katharina Blumen ohore galdua*, *Prozesua* eta *Homo Faber*).

- Erein (1): Ez dauka hitzaurrerik (*Jakob von Gunten*).
- Kriselu (1): 1987. urtean, *Werther* argitaratu zen lehenengoz euskaraz. Liburu horren hitzaurrean, Goetheren biografia labur-laburra aurki daiteke. Gero, 2000. urtean, Gotzon Loberaren itzulpen berdina berrargitaratu zuen Hiria argitaletxeak. Hitzaurrea jasotzen da, eta editoreek sinatutako idatzi bat gehitzen diote argitalpen berriari. Itzulpen eta itzultzaileen inguruko aipua nabarmentzekoa da: “Goetheren mendeurrena ospatzen dugun urte honetan ezin aproposagoa iruditu zaigu WERTHER euskaraz ematea. Duela urte batzuk Aita Onaindia izan zen, Francoren gartzeletan zegoelarik, Faustoren itzulpena burutu zuena; egun argitara ematen dugun nobela honek balio lingüistiko [sic.] diferenteak ditu ziurrenik, baina Onaindiak berea zuen ikuspegi kultural eta literario berdinak eraginik osatu du itzultzaileak: Munduko literaturaren sena euskal literaturara erakartzea. Gutxiren hurrengoak ziren gure itzultzaileak, gaur egun, ordea, aberats eta dohatsu gara itzulpengintzan; hemen Gotzon Loberak burutu duen itzulpena eredugarritzat har daiteke. Zorionez hobera aldatu dira gauzak Gotzon Lobera bezalako idazle-itzultzaileei esker” (Goethe 2000: 9).
- Hiria (1): Rufino Iraolak dio Kafkaren *Metamorfosia* itzuli zuen heinean, hitzaurrea egiteko obligazioa bereganatu zuela (Kafka 2007: 7). Bertan, Kafkaren obrek beregan izan duten eragina helarazi nahi dio irakurleari.
- Igela (4): Guztiak sail berekoak (*Literatura Saila*) diren arren, bik (*Hiltzaile baten aitormena* eta *Emakume ezezagun baten gutuna*) ez dute hitzaurrerik, eta beste biek, aldiz, izan hitzaurre edo hitz-atze forman, liburuaren inguruko hausnarketa egiten dute. *Edale santuaren kondaira* liburuko hitz-atzean, Morgens-ternek, Rothen lagun minak, azken horri buruz idatzitakoaren berri ematen du, idazlea hobeto ezagutarazte aldera. *Batrile-*

rren eguna liburuko hitzaurrean, bestalde, Werfelen biobibliografia eta liburuaren argumentua aurkezten ditu itzultzaileak.

- Susa (1): *Leviatan* itzulpeneko hitzaurrean, Rothen bizitza eta lanen inguruko informazioa aurki dezake irakurleak.
- Txalaparta (1): Corpusean Txalaparta argitaletxeko liburu bakarra daukagu, *Lagun armatua*, eta ez darama ez hitzaurre ez hitz-atzerik.

5.1.3 Itzulpen urratsen identifikazioa

Itzulpen urratsak identifikatzerako orduan, paratestuko hiru elementuri erreparatuko diogu: jatorrizko izenburua, jatorrizko hizkuntza eta bitarteko bertsioko edizio datuak. Izan ere, alemanezko jatorrizko izenburua agertzen bada eta jatorrizko hizkuntza alemana dela adierazten bada paratestuetan, orduan, suposatu beharko genuke alemanezko jatorrizkotik itzuli direla liburuak. Bestalde, bitarteko bertsiok baten edizio datuak badira agertzen direnak, orduan, liburuak beste bertsiok batetik itzuli direla pentsa genezake.

Jatorrizko izenburua

AleuskaPhraseo corpora osatzen duten 48 xede-testuetatik, sei kasutan ez da jatorrizko izenbururik ageri. Horietatik bi HGLko liburuak dira: *Fantasmatoa* eta *Max eta Moritz*, konkretuki. Goian aipatu bezala, *Fantasmatoak* baditu bere berezitasunak argitaletxe bereko beste liburuekin alderatuz gero. Esan bezala, argitalpen-datak (1983) eragina izan dezake paratestuak aurkezteko moduan. *Max eta Moritz*-i dagokionez, Pamiela argitaletxeko liburu bakarra den heinean, ezin dugu alderaketarik egin. Esan dezakeguna da argitalpen zaindua dela: egile eta itzultzailea aurkezten dira labor aparteko orrialde batean, egilearen argazki bat ere ikus dezakegu, bigarren azal bat ere badago, eta aurkibide bat amaieran.

Bestalde, esan bezala, HLan, lau kasutan (DLWeu, DVeU, JGeu eta DAeu) ez da jatorrizko izenburua aipatzen. Werther (2000. urteko edizioa) eta *Metamorfosia*, goian aipatu dugun moduan, zeharka itzuli dira eta biak Hiria argitaletxeak argitaratu ditu. Erein argitaletxeko liburuak ere, *Jakob von Gunten* liburuak, gure corpusean jasotzen den bakarrak, ez darama jatorrizko izenbururik. Lehen aipatu legez, hitzaurre eta hitz-atzerik ez daukaten liburuen multzoan ere sartzen da. Azkenik, *Batxilerren eguna* liburuaren kasuan, zaila da datu honen faltaren arrazoia zehaztea. Izan ere, argitaletxe bereko gainontzeko hiru liburuetan jatorrizko izenburua zein den zehaztu egiten da.

Beraz, esan dezakegu HGLan, nahiz eta AleuskaPhraseo corpusean ustez alemanetik zuzenean itzuli ez diren liburu batzuk jaso, kasu gehientsuenetan, alemanezko jatorrizko izenburua agertzen dela. HLan, aldiz, seguru zeharka itzuli diren hiru liburutatik bitan ez da jatorrizko izenbururik ageri. Dena den, kontuan hartu behar da argitaletxe berean plazaratu direla bi liburu horiek.

Jatorrizko hizkuntza

Lau liburutan agertzen da berariaz jatorrizko hizkuntza. Hiru kasutan (*Katharina Blumen ohore galdua*, *Prozesua* eta *Maitasuna besterik ez*), jatorrizko izenburuarekin batera alemanetik itzulia dela adierazten da. *Markako eroak* liburuan, berriz, itzultzailearen izenarekin batera adierazten da jatorrizko hizkuntza.

Esan beharra dago, alde batetik, hiru (*Katharina Blumen ohore galdua*, *Markako eroak* eta *Maitasuna besterik ez*) Pello Zabaletak itzuli dituela, eta bestea (*Prozesua*) Antton Garikanok. Beraz, gure buruari galde diezaiokegu ea batzuetan –eta, kasu honetan, zuzeneko itzulpenen kasuan bereziki– itzultzaileak ere eragina izan dezakeen paratestuetan agertzen den horretan. Bestalde, bi argitaletxe dira itzulpen horiek argitaratzearen arduradun: Elkar (*Katharina Blumen ohore galdua*, *Prozesua* eta *Maitasuna besterik ez*) eta SM (*Markako eroak*).

Bitarteko bertsioko edizio datuak

Bitarteko bertsioko edizio-datuak agertzeak itzulpena zeharka egin dela adieraz lezake. Ruzickak (2002: 8–9) dioen bezala, 70. hamarkadan, zapaldurik egon ziren hizkuntzen normalizaziorantz lehen urratsak egiten hasi zirenean, itzulpenek berebiziko garrantzia zuten. Izan ere, autonomia-erkidegoetako barne literatur produkzioa ez zen oso handia, eta, hezkuntza sisteman ere apenas zegoen liburu-rik euskaraz. Horregatik, itzulpenen bidez hizkuntza bultzatzea eta testu produkzioa gehitzea (batez ere haur eta gazteei zuzendutakoa) ezinbesteko bihurtu zen.

Funtsean, hiru faktorek eragin zuten ordura arte gaztelaniarekin lan egiten zuten argitaletxeek euskaraz ere argitaratzeari ekitea:

- Gobernuek zuzenean (diru-laguntzen bitartez) edo zeharka (liburuak erosiz) argitalpenak bultzatu izana.
- Gaztelania-euskara hizkuntza-konbinazioan eginiko itzulpenak oso garestiak ez izatea.
- Lege-egoera berezia. Izan ere, espainiar argitaletxeek kanpoko obra bat gaztelaniara itzultzeko eskubideak erosten zituztenean, kontratuko klausula berezi bati esker, lan hori penintsulako hizkuntza guztietara itzultzeko eskubidea lortzen zuten. Beraz, espainiar argitaletxeentzat onura ekonomikoak agerikoak dira.

AleuskaPhraseo corpusaren kasuan, bost liburutan agertzen dira kredituetan gaztelaniazko edizioetako datuak. Bostak, gainera, HGLko liburuak dira. Beraz, kanpoko argitaletxeek ez dute HL itzultzen. Egoera horrek eragina izan dezake itzulpen moduan. Izan ere, kanpoko argitaletxeek argitara emandako liburuak (edo horiekin harreman estua duten euskal argitaletxeek argitaratutakoak) zeharka itzultzen dira askotan. Baina, ez beti. Esate baterako, SM argitaletzeko bi liburu ditugu (BUSeu eta LODSeu) AleuskaPhraseo corpusean, eta biak ustez zuzenean itzultitakoak dira.

Ikus dezagun honako taula honetan bitarteko bertsioetako datuak jasotzen dituzten liburuak zeintzuk diren eta zein informazio biltzen duten.

5.1. taula: Bitarteko bertsioetako datuak

| Kodea | Jatorrizko bertsioetako datuak | Bitarteko bertsioetako datuak | Itzulpenetako datuak |
|-------|--|--|--|
| DKT | Erich Kästnerren ondorengoak | 1982, Ediciones Alfaguara, S.A.; 1987, Altea, Taurus, Alfaguara S.A.; 1992, Santillana, S.A. | 1993, Santillana S.A., Zubia Editoriala S.A. |
| DKVG | 1985, Rowohlt Taschenbuch Verlag, GmbH, Reinbeck bei Hamburg | 1987, Altea, Taurus, Alfaguara S.A. | 1992, Altea, Taurus, Alfaguara S.A. eta editorial Descleé de Brouwer, S.A. |
| DKVZ | 1980, by Rowohlt Taschenbuch Verlag GmbH | 1985, Ediciones Alfaguara S.A.; 1986, Altea, Taurus, Alfaguara, S.A. | 1990, Altea, Taurus, Alfaguara S.A. eta editorial Descleé de Brouwer, S.A. |
| HLJ | Arena Verlag GmbH, Würzburg, 1998 | Grupo Editorial Bruño, S.L., 1999 | Gero/Mensajero, SAU, 2004 |
| PA | Atrium Verlag, Zürich | 1987, Altea, Taurus, Alfaguara S.A. | 1989, Altea, Taurus, Alfaguara S.A. eta editorial Descleé de Brouwer, S.A. |

Taulako lehenengo lau liburuen kasuan (*Banpiro txikia etxetik aldatzen da*, *Banpiro txikia arriskuan da*, *Puntutxo eta Anton*, eta *Animalien Biltzarra*), badirudi 80ko hamarkada amaiera eta 90eko hamarkada hasiera bitartean, “Grupo Santillana”⁴ elkarteko kide ziren

⁴“Grupo Santillana” 1960an sortu zen eta hainbat argitaletxe batzen ditu.

espainiar argitaletxe eta argitaletxe euskaldunen arteko lankidetzaz dezentez zabaldua zegoela.

Kika Supersorgina liburuaren kasua desberdina dela esango genuke, ez baitago bi argitaletxeren arteko aliantzarik. Hala ere, bi argitaletxeek badute batzen dituen zerbait: biak erlijio-erakundeek sortutako argitaletxeak dira. Bruño argitaletxea La Salle Kristau Eskoletako Anaien Institutuak sortu zuen, eta Mensajero Jesusen Konpainiak sortutakoa da.

Ruzickak (2002: 9) dio zeharkako itzulpenak ohikoak direla, eta kritikak egon badauden arren, ez dela samurra, tamalez, ohitura hori aldatzea. Gaztelaniatik euskarara itzultzen duenari atzerriko beste hizkuntza batetik itzultzen duenari baino gutxiago ordaintzen zaio.

“Brückenversionen-Texte’ zu erstellen, über die ein Werk auf indirektem Weg, d.h. nicht direkt aus der Originalsprache, sondern über eine intermediierende spanische Übersetzung, in die Sprachen der verschiedenen autonomen Regionen übertragen wird, ist bedauerlicherweise immer noch eine gängige Praxis vieler Verlage. Obwohl die Kritik an solchen Praktiken von Seiten der Übersetzungswissenschaft immer lauter wird, sind diese nur sehr schwer zu beseitigen, da das Honorar, das ein Übersetzer bspw. vom Spanischen ins Galicische bezieht, viel geringer ist als das eines Übersetzers aus einer Fremdsprache wie bspw. dem Slawischen oder Skandinavischen”.

Gure iritziz, egoeraren beste interpretazio bat egin daiteke, hain preskriptiboa ez dena. Hasiera batean, zeharkako itzulpenak nahiko ohikoak ziren, batez ere HGLaren kasuan. Gaur, egoera desberdina da. Itzultzaile profesional gehiago dago kanpoko hizkuntzetatik euskarara itzul dezakeena, eta gehiago dira alemanetik euskarara zuzenean egiten diren itzulpenak. Batez ere HLAN gertatzen da hori,

Argitaletxe horien artean, gure taulan ikus ditzakegunak daude: Taurus, Alfguara, Altea, Zubia...

generoaren prestigioagatik edo/eta LU gisako bildumek eredu jakin bat sortzen lagundu dutelako. Guztiarekin ere, iruditzen zaigu garrantzitsua dela azpimarratzea bai hastapenetan bai azken urteotan zeharka egin diren itzulpen asko egin izan ez balira, ez genukeela aukera izango testu horiek guztiak euskaraz irakurtzeko.

5.1.4 Epitestuak

Goian aipatu bezala, testuarekiko distantzia jakin batera kokatu-ta dagoen informazioa da epitetuetakoa, liburutik kanpo dagoena, alegia; hala nola posta pribatu bidez lor dezakeguna, elkarriketetakoa, kritiketakoa... Gure kasuan, alde batetik, itzultzaile eta argitaletxeekin saiatu gara harremanetan jartzen, eta, bestalde, internetera jo dugu informazio bila. Ikus dezagun bide horietatik zein datu lortu ditugun:

Itzultzaileak

Honako itzultzaile hauekin lortu dugu harremanetan jartzea:

- Ainhoa Irazustabarrena: Arestian aipatu dugun moduan, alemanetik zuzenean itzuli zuela esan zigun, baina, ohikoa den moduan, beste bertsio batzuk ere izan zituela kontuan, zehazki gaztelaniazkoa eta ingelesezkoa.
- Petra Elser: Itzultzaile eta argitaletxearen arteko bitartekaritza lana egin zuen *Batzilerren eguna* liburuaren kasuan. Bere arabera, liburua zuzenean alemanetik itzuli zuen itzultzaileak.
- Aiora Jaka: Alemanetik itzuli zuen zuzenean. Alemanetik abiatzen zen, eta, zalantzak zituenean, ingelesezko bertsioa kontsultatzen zuen.
- Gotzon Lobera: Esan zigun zeharkakoa izan zela itzulpena, eta frantsesezko eta gaztelaniazko testuak erabili zituela.

- Miren Arratibel: Itzulpena zeharka egin zuen. Ingeleseko, frantsesezko eta gaztelaniazko bertsoak erabili zituen itzulpena burutzeko.
- Rufino Iraola: DVde liburuaren itzulpena gaztelaniatik egin zuela esan zigun.

Argitaletxeak

HGLaren itzulpena aztertzerako orduan, [Zubillagak](#) argitaletxee-kin hitz egin zuen, katalogoa osatu eta makro mailako azterketa egin ahal izateko. Berak jasotako datuak eta gureak batu ondoren, honako informazio hau lortu ahal izan dugu:

- Elkar: Zabaletak, Mendigurenek eta Garikanok zuzenean itzuli zituzten liburuak, eta, Iparragirre, Gartzia eta Sarasolak, aldiz, zeharka.
- Gero Mensajero: Aristondok zeharka egin zituen itzulpenak, gaztelaniazko bertsiotik abiatuta.
- Alfaguara: Narbaiza eta Azkueren itzulpenak zuzenean eginda-koak omen dira, eta Legarreta eta Ossarenak, berriz, zeharka.
- Igela: Jatorrizko alemanezko liburuak eman zizkion argitale-txeko arduradunak Matías Múgicari.

[Zubillagak](#) (2013: 412) aipatzen duen legez, zuhurtziaz jokatu behar da argitaletxeek emandako informazioarekin. Izan ere, alemana jakiteak edo itzultzaileari jatorrizko bertsoak emateak ez du nahitaez esan nahi itzultzaileak jatorrizko bertso horretatik abiatu direnik. Aleman maila desberdinak daude, alde batetik, eta, bestalde, neurri handiago edo txikiagoan, hizkuntza desberdinetako bertsoak izan ditzake eskura itzultzaileak. Horregatik, ezinbestekoa iruditzen zaigu mikro mailako azterketa ere egitea ikuspegia osatzeko.

Beste datu batzuk

Keuner jaunaren kondairak-en, itzultzailearen (Joxerra Gartzia) inguruan jakin dugu bi urte egin zituela Münsterreko unibertsitatean, eta, 1981ean, gainera, ipuin bat argitaratu zuela alemanez (eta lehiaketa bateko irabazle izan zela). Beraz, alemana badakiela ondorioztatu dezakegu.

Itzultzaileei egiten zaizkien elkarrizketei ere erreparatu diegu, eta Gotzon Egiak 2000. urtean Antton Garikanori egiten dion elkarrizketa batean argi ikusten da alemanetik itzultzen duela⁵.

Gauza bera gertatzen da Pello Zabaletarekin. Senez aldizkariko 10. zenbakian (1990), elkarrizketa egin zioten, eta, bertan, garbi uzten du alemanetik itzultzen duela.

5.2 Paraitzulpenaren azterketa

Paraitzulpenaren kontzeptua Garrido Vilariñon aurkitu dugu. Bere arabera, “(...) *paratranslation* is the reading, interpreting, and transfer of paratexts” (Garrido Vilariño 2011: 76). Hiru eratako paratestuek osatzen dute paraitzulpena: hitzezkoek (*verbal paratext*), irudizkoek (*iconic paratext*), eta hitz eta irudizkoek (*verbo-iconic paratext*). Izenburu eta kapituluaren itzulpena lehenengo multzo horretan sartuko litzateke, eta azaleko irudiak, aldiz, bigarreanean. Honela definitzen ditu hitz eta irudikoak Garrido Vilariñok (2011: 70): “(...) those which arise from the inextricable combination of these two: the verbo-iconic texts, such as the titles, the order of appearance of translators’ names and editors’ names, and so on”. Azken horri, hitz eta irudizkoari, ez diogu erreparatuko, baina bai izenburu, kapitulu eta azalen “itzulpenari”.

⁵<http://www.eizie.org/Argitalpenak/Senez/20001001/garikano>

5.2.1 Izenburuen itzulpena

Garrido Vilariñoren arabera, liburu baten izenburuaren itzulpena ez da itzulpen soila, egokitzapena da; izenburuaren itzulpena liburu hartzen duen gizartean dagoen ideologiaren arabera da, eta kultur-industrian indarrean dagoen merkatuen ideologiaren arabera. Horregatik, argitaratzaileak izan ohi dira (eta ez itzultzaileak) paraitzulpenaren arduradunak: “As I have said, translators are not responsible for the translation of the peritext; neither are they responsible for the paratranslation. This is the role of other mediators, usually editors, commissioners or patrons of the arts” (2011: 73). Eta, hala ere, “currently, in addition to the various loyalties and the recognized (in)visibilities, translators are generally held responsible for all the good and bad decisions (and rather more often the latter) concerning the success or failure of a text, because it is their names that appear on the covers, or at least on the title pages ” (2011: 68).

Ez dugu jakingo, AleuskaPhraseo corpora osatzen duten testuen kasuan, nork izan duen paratestuen itzulpenean azken hitza. Nolanahi den, ikus eta iruzkindu dezagun, honako taula hau oinarri hartuta, liburuaren izenburuen itzulpena:

5.2. taula: Izenburuen itzulpena

| Kodea | Jatorrizko izenburua | Xede-izenburua (EU) | Xede-izenburua (ES) |
|-------|----------------------|---------------------|---------------------|
|-------|----------------------|---------------------|---------------------|

Helduentzako literatura

| | | | |
|----|-------------------------|-------------------------------|-------------------------|
| AC | Ansichten eines Clowns | Pailazo baten aburuak | |
| BA | Berlin Alexanderplatz | Berlin Alexanderplatz | |
| BM | Beichte eines Mörders | Hiltzaile baten aitormena | Confesión de un asesino |
| BU | Brief einer Unbekannten | Emakume ezezagun baten gutuna | |

| | | | |
|------|--|---------------------------------------|--|
| DA | Der Abituriententag | Batxilerren eguna | |
| DBF | Der bewaffnete Freund | Lagun armatua | |
| DEKB | Die verlorene Ehre der Katharina Blum | Katharina Blumen ohore galdua | |
| DL | Der Leviathan | Leviatana | |
| DLT | Die Legende vom heiligen Trinker | Edale santuaren kondaira | La leyenda del santo bebedor |
| DLW | Die Leiden des jungen Werthers | Werther | Las desventuras del joven Werther |
| DP | Der Prozess | Prozesua | |
| DPGM | Das Parfum: die Geschichte eines Mörders | Perfumea: hiltzaile baten historia | El perfume: historia de un asesino |
| DSW | Der Steppenwolf | Estepako otsoa | |
| DTS | Die Toten schweigen | Hildakoek ez dute hitz egiten | |
| DTT | Das Treffen in Telgte | Batzarra Telgten | |
| DTV | Der Tod in Venedig | Herioa Venezian | |
| DV | Die Verwandlung | Metamorfosia | La metamorfosis |
| DVZT | Die Verwirrungen des Zöglings Törless | Törless ikaslearen nahasmenduak | |
| DWV | Die Wahlver- wandtschaften | Hautapen- ahaidetasunak | |
| GHK | Geschichten vom Herrn Keuner | Keuner Jaunaren kondairak | |
| HF | Homo Faber | Homo Faber | |
| JG | Jakob von Gunten | Jakob von Gunten | |
| KM | Katz und Maus | Katua eta sagua | |
| SN | Schachnovelle | Xake nobela | |

Haur- eta gazte-literatura

| | | | |
|-----|--------------------|------------------------|-------------------------------|
| BLA | Ben liebt Anna | Benek Anna maite du | Ben quiere a Anna du |
| BUS | Bei uns in Schilda | Markako eroak | Los locos de Villasimplona |

| | | | |
|-------------|--|--|---|
| DAK | Das Austauschkind | Ingeles bat etxean | Intercambio con un inglés |
| DASH | Die Abenteuer der schwarzen Hand | Eskubeltz taldearen abenturak | Aventuras de “la mano negra” |
| DDL | Das doppelte Lottchen | Lotte eta Luisa, hau bizki pare! | Las dos Carlotas |
| DGM | Das Gauklermärchen. Ein Spiel in sieben Bildern sowie einem Vor- und Nachspiel | Jojo, pailazo baten historia. Zazpi agerraldiko antzerkia, hitzaurrea eta hitzatzearekin | Jojo, historia de un saltimbanqui |
| DKG | Das kleine Gespenst | Fantasmatoxa | El pequeño fantasma |
| DKT | Die Konferenz der Tiere | Animalien biltzarra | La conferencia de los animales |
| DKVG | Der kleine Vampir in Gefahr | Banpiro txikia arriskuan da | El pequeño vampiro en peligro |
| DKVZ | Der kleine Vampir zieht um | Banpiro txikia etxez aldatzen da | El pequeño vampiro se cambia de casa |
| DPS | Das Piratenschwein | Txerrikume pirata | |
| DZW | Ende (1999) | Ende (2010) | |
| ED | Emil und die Detektive | Emilio eta detektibeak | Emilio y los detectives |
| EL | Einfach nur Liebe. Sandra liebt Meike | Maitasuna besterik ez. Sandrak Meike maite du | |
| GG | Grüsse aus dem Geisterschloss | Diosalak espirituen gaztelutik | |
| JV | Juli die Viererkette | Juli, defentsa onena | Juli, el mejor defensa |
| HLJ | Hexe Lilli auf der Jagd nach dem verlorenem Schatz | Kika Supersorgina altxorraren bila | Kika Suberbruja en busca del tesoro perdido |
| LD | Lena auf dem Dach | Lena teilatuan | |
| LODS | Liebe Oma, deine Susi | Amona maite, zure Susik | |

| | | | |
|-----|---|--|-----------------|
| MM | Max und Moritz. Eine Bubengeschichte in sieben Streichen | Max eta Moritz. Zazpi barrabaskeriatan motikoen pasadizo bat | |
| PA | Pünktchen und Anton | Puntutxo eta Anton | Puntito y Antón |
| RSF | Reckless. Steinernes Fleisch | Reckless. Harrizko haragia | |
| SLH | Schokolowski. Lustig ist das Hundeleben | Schokoloski. Dibertigarria da txakurren bizitza | |
| TH | Tintenherz | Tinta-bihotz | |

Oro har, ondorioztatu daiteke HGLko liburuetakoko xede-izenburuak, HLkoen aldean, jatorrizkoen irakurketa hurbil batetik aldentzen direla. Gainera, HLAN zeharka itzuli direnek jasan dute aldaketa gehien (DLW, DV). DVEu liburuak, esate baterako, gehiago jarraitzen dio bitarteko bertsioari, gaztelaniazko *La Metamorfosis* liburuari, alegia⁶.

HGLan, esan bezala, ustez zuzenean itzuli diren batzuk eman digute atentzia, aldaketa gehien jasan dutelako, eta, kasu askotan, gaztelaniazko bertsiotik gertuago daudelako. Hori gertatzen da, adibidez, Mendigurenek itzulitako bi liburu hauekin: *Jojo, pailazo baten historia* eta *Ingeles bat etxean*. Gaztelaniazko bertsioetako izenburuak, hurrenez hurren, hauexek dira: *Jojo, historia de un saltimbanqui* eta *Intercambio con un inglés*. Berdin-berdinak ez izan arren, jatorrizkoak ez dituzten hitzak partekatzen dituzte euskarazko eta gaztelaniazko itzulpenek, hala nola “Jojo” eta “ingeles”. Beraz, gaztelaniazko bertsioak nolabaiteko eragina izan duela dirudi. Oraindik zaila da zehazten zein neurritan egon den interferentzia, baina datu

⁶Aurreko kapituluan ikusi bezala, badaukagu ustez zuzenean egin zen DV-de liburuaren itzulpen bat, Kintanarena (1970), eta, kasu horretan, izenburua gehiago gerturatzen zaio jatorrizkoari: *Itxura-aldaketa*. Wertherren kasuan, gaztelaniazko bertsioetan, izenburu desberdin ugari aurkitu ditugu.

hauek kontuan izango ditugu aurrerago egingo ditugun azterketetan.

BUS liburuari dagokionez, erabat aldatzen da izenburua. Izen berezia (“Schilda”) egokitzeaz gain (“Marka”), esanahia ere aldatzen da. Kasu honetan ere, gaztelaniazko bertsiotik gertuago dago: *Los locos de Villasilplona*. Dena den, hemen kontuan hartu beharreko datu bat dago: gaztelaniazko edizioa euskarazkoa baino urte bat beranduago argitaratu zen (1988an).

Juli, defentsa onena itzulpenaren kasuan ere, gaztelaniazko izenburutik, *Juli el mejor defensa*, gertuago dagoela argi ikusten da, jatorrizko *Juli die Viererkette*-tik baino.

DDL liburuaren kasuan, aldiz, jatorrizkotik aldentzen den arren, ez dirudi gaztelaniazkoan oinarritu denik itzultzailea (*Las dos Carolas*).

HLJ liburuan, deigarriena izen bereziaren itzulpena da, *Hexe Lilli*-tik *Kika Supersorgina*-ra emandako jauzia, alegia. Horren harira, Fischerrek (2011) *Hexe Lilli* bildumaren baitan itzultitako zortzi liburu aztertzen ditu, eta izen berezien itzulpenaren inguruan ondorengo hau dio: “No se sabe por qué la editorial y/o la traductora decidieron cambiar el nombre de la protagonista. Compárese los cambios en italiano (Maga Martina) y en catalán (Tina Superbruixa) con el nombre en otros idiomas: Bruxinha Lili (P), Hekse Lilly (NL), Hekse Lilli (DK), Lilly the Witch (GB), Magic Lili (F), czarodziejka Lili (PL), Lilli (SF), Lili (H)”. Beraz, italierazko eta katalanezko bertsioetan ere izena aldatu egiten da, eta, beste guztietan, berriz, jatorrizkoari eusten zaio. Gure kasuan, gainera, supersorginak gaztelaniazko bertsioiko izen bera du: Kika. Peritestu eta epitestuetan jasotako informazioa kontuan hartuta eta izenburuaren itzulpenari erreparatuta, ziur esan dezakegu HLJ zeharka itzuli dela, eta, beraz, euskal itzulpena gaztelaniazko sistemaren barne kokatzen dela.

5.2.2 Kapitulu izenen itzulpena

Azpiatal honetan, liburuaren barne-egitura deskribatuko dugu. Horretarako, lehenik eta behin, liburuetakako jatorrizko atalak nolakoak

diren ikusiko dugu (mutuak, mutuak ez direnak edo atalik gabeak), eta, ondoren, atal horien itzulpenari erreparatuko diogu.

5.3 taulan ikus daitekeen moduan, liburuen barne-egiturak desberdinak dira.

5.3. taula: Corpuseko testuen barne-egitura

| | Kapituluak | |
|------|---------------------|---------------------|
| | Nolakoak dira STan? | Mantendu dira XTan? |
| AC | Mutuak | Bai |
| BA | Ez dira mutuak | Bai |
| BLA | Ez dira mutuak | Bai |
| BM | Kapitulu gabe | Bai |
| BU | Kapitulu gabe | Bai |
| BUS | Ez dira mutuak | Bai |
| DA | Mutuak | Bai |
| DAK | Ez dira mutuak | Bai |
| DASH | Ez dira mutuak | Bai |
| DBF | Mutuak | Bai |
| DDL | Ez dira mutuak | Bai |
| DEKB | Mutuak | Bai |
| DGM | Kapitulu gabe | Bai |
| DKG | Ez dira mutuak | Bai |
| DKT | Kapitulu gabe | Bai |
| DKVG | Ez dira mutuak | Bai |
| DKVZ | Ez dira mutuak | Bai |
| DL | Mutuak | Bai |
| DLT | Mutuak | Bai |
| DLW | Ez dira mutuak | Bai |
| DP | Ez dira mutuak | Bai |
| DPGM | Ez dira mutuak | Bai |
| DPS | Kapitulu gabe | Bai |
| DSW | Ez dira mutuak | Ez |
| DTS | Antologia bat da | Bai |
| DTT | Mutuak | Bai |
| DTV | Mutuak | Bai |
| DV | Mutuak | Ez |
| DVZT | Kapitulu gabe | Bai |
| DWV | Mutuak | Bai |
| DZW | Kapitulu gabe | Bai |

| | | |
|------|----------------|-----------|
| ED | Ez dira mutuak | Bai |
| EL | Mutuak | Bai |
| GG | Ez dira mutuak | Bai |
| GHK | Ez dira mutuak | Ez |
| HF | Ez dira mutuak | Bai |
| HLJ | Mutuak | Bai |
| JG | Kapitulu gabe | Bai |
| JV | Ez dira mutuak | Bai |
| KM | Mutuak | Bai |
| LD | Ez dira mutuak | Bai |
| LODS | Kapitulu gabe | Bai |
| MM | Ez dira mutuak | Bai |
| PA | Ez dira mutuak | Bai |
| RSF | Ez dira mutuak | Bai |
| SLH | Ez dira mutuak | Bai |
| SN | Kapitulu gabe | Bai |
| TH | Ez dira mutuak | Bai |

Logikoa dirudien moduan, HGLan ohikoenak mutuak ez diren atalez osatutakoak dira, eta, HLAN, berriz, mutuak dira gailentzen direnak. Itzulpenetan, barne-egitura horri eustea da joera. Helduentzako narratibako hiru liburu dira salbuespen bakarrak. *Estepako otsoari* dagokionez, kontua ez da euskarazko bertsiok atal bat gehiago duela; ez, gertatzen dena da euskaraz jatorrizkoan aurkitu ez dugun izenburu bat dagoela, jatorrizko bertsioko “Tracta” amaitzen denean, alegia. Baina, posible izan daiteke itzultzaileak jatorrizko beste bertsiok bat izatea esku artean. Izan ere, Zabaletaren beste itzulpen batzuk ere aztertu ditugu tesi honen baitan, eta, beste kasu guztietan, barne-egitura berdina da.

Keuner jaunaren kondairak liburuko hitzaurrean (1999: 22) irakur daiteke “argitaratu zireneko dataren arabera ordenaturik” daudela kondairak, eta, horregatik, guk kontsultatu dugun jatorrizko bertsioko atalen hurrenkera eta itzulpenekoa ez datoz bat. Hortik taulan jarri dugun “ez” hori.

Azkenik, *Metamorfosia* aipatu behar dugu. Epitestuetako informazioan oinarrituta, badakigu testu hori zeharka itzuli zela, eta,

horrela, gaztelaniazko bertsioari jarraitzen dio barne-egiturak. Jatorrizkoak kapitulu mutuak ditu, eta gaztelaniazko eta euskarazko itzulpenek, berriz, ez dute inolako barne-banaketakirik.

Kapituluen itzulpena aztertzeko, mutuak ez diren atalez osatuta daudenei erreparatuko diegu, HLko 8 libururi eta HGLko 17ri, hain zuzen.

- DSW: Goian esan dugunaz gain, ez digu ezerk atentzioa eman.
- GHK: 87 kapituluz osatuta dago, eta, zehaztu berri dugun bezala, kapituluaren hurrenkeran aldeak daude. Horretaz gain, ez dugu ezer apartekorik ikusi.
- HF: Bi ataletan dago banatuta: *lehen bidaroa* eta *bigarren bidaroa*.
- BA: Deigarri gertatu zaiguna da alemanezko bertsioan egileak kapituluetan bertan erabiltzen duen lokuzio eta esamolde ugaitasuna. Esate baterako, *sich in die Brennesseln setzen*, *Unrecht Gut gedeihet gut*, *Luft in die Sache kommen*, *zum Klappen kommen* edo *Aller Anfang ist schwer*.

Detkenek, bere doktore-tesian, BA liburuaren itzulpenen alderaketa eleaniztuna egin zuen. Horretarako, jatorrizkoa argitaratu eta gutxira kaleratu ziren hiru itzulpen (ingelesazko, frantsesazko eta gaztelaniazkoak) eta 50 urte beranduago argitaratu zen gaztelaniazko beste itzulpen bat aztertu zituen. Azterketaren atal bat, gainera, lokuzio eta hitz-jokoei eskaintzen die. Momentu batean dio BA liburuan lokuzioekin asko jolasten duela Döblinek: bata bestekin nahasten ditu, edo, horrenbeste aldatzen, ezen jatorriz esan nahi zutenaren alderantzizko esanahia hartzen duten. Hori gertatzen da, adibidez, *Unrecht Gut gedeihet gut*-ekin: “Im Roman werden vorgefegte Redensarten nicht nur unverändert montiert, sondern auch umgeformt und dadurch wiederholt in ihr Gegenteil verkehrt,

wie bei ‘Unrecht Gut gedeihet gut’ (S. 191). Diese Verkehrungen werden von allen Übersetzungen nachvollzogen” (Detken 1997: 141). Jatorrizko UFa *unrecht Gut gedeiht nicht* da, eta esan nahi du irabazitakoa bide txarretik irabazi badugu, gaizki irabazia dela. Baina, Döblinek egin dion aldaketarekin, kontrakoa esan nahi du: gaizki irabazi dena, ongi dagoela, alegia. Euskal itzultzaileak, kasu honetan, esanahia itzultzearen aldeko apustua egin du: “gaizki irabazia, ongi irabazia”. Baina, beste batzuetan, hitzez-hitzezko esanahia izan da itzuli duena, eta hedadurazko esanahia ez du jaso. Hori gertatzen da, adibidez, *sich in die Brennesseln setzen* lokuzioarekin. Garikanok “asunetan eseri” gisa itzuli du, eta, hori da, hain zuzen, lokuzioak hitzez hitz esan nahi duena, baina, hedadurazko esanahia honako hau da: norberak bere burua egoera deserosoan jartzea.

- DP: Guk erabili dugun jatorrizko bertsioaren aldean, euskarazko itzulpenean, bi atal gehiago daude: *Bukatu gabeko kapituluak* eta *Idazleak ezabatutako pasarteak*. Hauxe da kredituetan ematen den azalpena: “Alemanetik itzulia. Testu osoa, bukatu gabeko kapituluak eta ezabatutako pasarteak barne”. Itzulpenari dagokionez, ez genuke ezer nabarmenduko.
- DTS: Schnitzlerren ipuinez osatutako antologia da *Hildakoek ez dute hitz egiten*, hamaika ipuinez, hain zuzen, eranskinean ikus daitekeen moduan. Epitestuen atalean lortutako informazioan ikusi dugu nola itzultzaileak gaztelaniazko eta ingelesezko bertsioak ere kontuan izan dituen. Ipuinetako baten izenburuaren itzulpenean sumatu dugu alemanezkoa ez den beste bertsio baten interferentzia: *Ekintza onak, diskrezioz eta fede onez eginak* ipuinean. Izan ere, gehiago gerturatzen da gaztelaniazko bertsiora (*Obras de caridad, con discreción y de buena fe*), alemanezkora baino (*Wohltaten, still und rein gegeben*).
- DLW eta DPGM: zeharka itzuli diren HLko bi liburu hauetan, ez dugu deigarria iruditu zaigun ezer aurkitu.

- RSF: DTSn gertatzen den moduan, kasu honetan ere itzultzaileak ingelesezko bertsioa kontsultatu zuela esan zigun. Hori dela eta, azken bertsio horri ere eman diogu begiratu, eta, kapituluaren itzulpenean, azken bertsio horren interferentzia zantzuak aurkitu ditugu. Esate baterako, jatorrizko bertsioan, *Die Wunderkammern der Kaiserin* agertzen da, “Enperatrizaren mirarien ganberak”, alegia. Euskarazko eta ingelesezko bertsioetan, “enperatriz” desagertu egiten da: *The chambers of miracles* eta *Mirarien ganberak*.
- GG: Hau ustez zuzenean itzultitako testua da, baina iruditu zaigu, batzuetan, gaztelaniazko testuko itzultzaileak erabilitako estrategiak errepikatu egiten direla euskarazkoan. Adibidez, honela dio azken kapituluak: *Gibt sie niemals auf?* Euskarazko bertsioan, *sie* hori *emakume honekin* ordezkutzen da, eta gauza bera gertatzen da gaztelaniazkoan. Hauek dira, konkretuki, itzulpenak: *Emakume honek ez al du etsitzen?* eta *¿Es que esta mujer nunca se rinde?*
- DAK: Bi bertsioen arteko desberdintasun bakarra liburu bukaerara dago. Alemanezko jatorrizko bertsioan, Austrian erabiltzen diren hitzen zerrenda dago, eta, euskarazko bertsioan, berriz, gehitzen dena testuan zehar ingelesez agertzen diren hitz edo esapideen itzulpena da. Hori dela eta, testua xede-kulturara egokitu dela esan daiteke.
- LD, MM eta BUS: Hauek guztiak Zabaletaren itzulpenak dira. Lehenengo bietan ez dugu ezer berezirik aurkitu, baina, hirugarrenean, iruditu zaigu kapitulu batzuen itzulpenak beste bi kasuetan baino gehiago aldentzen direla jatorrizkotik. Adibidez, *Wie die gelernten Maurer*⁷ atala honela itzuli du Zabaletak: *Beti hargin*. Zabaletak asko itzuli du alemanetik euskarara. 5.1.4 atalean zehaztu legez, itzultzaile emankorrena izan

⁷Hitzez hitz: hargin gaituen moduan.

zen 80ko hamarkadan. Horrek estatus berezia ematen dio, eta estatus horrek eragina izan dezake itzultzeko moduan.

- JV: Makro maila honetan ez dugu ezer berezirik aurkitu.
- TH: Kasu honetan ere ez dugu ezer apartekorik aurkitu.
- SLH: Sommer-Bodenburgen liburu honetan ere, kapituluaren izenburuetan erabiltzen diren UFak nabarmenduko genituzke; hala nola *Lass kommen, was will, Um Kopf und Kragen, Morgenstund hat Trüffel im Mund*. Azken esaera zahar horren kasuan, adibidez, modifikazio bat dago alemanezko UFan, ‘Gold’ (urrea) ‘Trüffel’-gatik ordezkatu da. Itzulpenean, euskarazko esaera zahar bat erabiltzen da (*Nahi duenak eguna ondo hasi oiloekin ohera eta txoriekin jaiki*), baina ez dago jatorrizkoko modifikazio hori.
- DDL: zuzenean itzuli da, baina alde hain handiak sumatu ditugunez kapituluaren itzulpenean alemanezko jatorrizko eta euskarazko bertsioaren artean, gaztelaniazkoa ere kontsultatzea erabaki dugu. Hala ere, konturatu gara batzuetan gaztelaniazko bertsiora gerturatzeko den arren euskarazko itzulpena, beste batzuetan ez dela hala gertatzen. Adibidez, alemanezko *Schulwege und Gutenachtküsse*⁸ euskaraz *Agur maitakorrak* da eta gaztelaniaz *Cariñosas despedidas*. Baina, bestalde, alemanezko *Daumen halten!*⁹ euskaratzerakoan *Irrikatzen duzuna gerta bedi* bihurtu da, eta, gaztelaniazkoan, berriz, hitzez-hitzezkoaren aldeko apustua egin dute (*¡Apriétate los pulgares!*). Hori guztia kontuan hartuta pentsa daiteke DDLeu liburuko itzultzaileak hainbat sorburu-testu erabili dituela itzulpena egiteko.
- DKG, ED, DASH, PA, DKVZ, DKVG, BLA: hauek guztiak, arestian aipatu bezala, zeharka itzuli dira, eta, kapituluaren itzul-

⁸Hitzez hitz: ‘Eskolarako bideak eta gau-on-musuak’.

⁹Hitzez hitz ‘erpuuak estutu’ esan nahi du, baina norbaiti zorte ona opa nahi diogunean erabiltzen da UF hori.

penean ikus daitekeen moduan, gehiago jarraitzen diote gaztelaniazko zubi-bertsioari alemanezko jatorrizkoari baino.

5.2.3 Azaleko irudiak

Ez da erraza irudien paraitzulpena aztertzea, hau da, jatorrizko eta xede-testuetako irudien “itzulpena” aztertzea¹⁰. Izan ere, [Gerberren](#) irakur dezakegun moduan, kasu askotan, azal desberdinekin egiten dugu topo. Gure kasuan, ez hainbeste xede-testuetan, baina bai jatorrizkoetan:

“While the significance of the title in granting a ‘pre-reading’ of the text is obvious, it is one of few peritextual features that is inherently ‘bound’ to the verbal text. In other words, titles (in majority of cases) remain unaltered with the publication of new editions while, in contrast, other peritextual features (including the cover art, illustrations and blurb text) are commonly changed with every new edition” ([Gerber 2008](#): 42).

Hurrengo lerroetan, AleuskaPhraseo corpora osatzen duten liburu-
tako azalak aztertuko ditugu, generoka eta argitaletxeka.

Helduentzako literatura

- Alberdania (SN, GHK, DTT, DPGM): Kasu guztietan, azala eta diseinuaren arduraduna Antton Olariaga ilustratzaile eza-guna¹¹ da. Paraitzulpenari dagokionez, GHKeu eta DTTeu

¹⁰Tesi honen markoan, azaleko irudiak bakarrik aztertuko ditugu. Bakarrik esan HLko liburuetan, azalean bakarrik aurkitu ditugula irudiak; haur eta gazteentzako liburuetan, aldiz, ohituta gauden moduan, liburu barruko ilustrazioak ugariak dira.

¹¹*Argian* egindako elkarrizketa batean, Antton Olariagak honako hau dio liburu-
tako ilustrazioen inguruan: “Helduentzat tamalez ez dago ilustrazio-
rik: liburu oso berezietan egoten dira ez dakit zer pintoreren ilustrazioak...
hori galdu da eta pena da. Bateren batek erabaki zuen: ‘Hamabiak eta

itzulpenetan jatorrizko irudiak kontuan hartu direla dirudi. GH-Keu liburuan, esate baterako, Keuner jauna agertzen da bai jatorrizkoan bai itzulpenean, eta, DTTeu liburuan jatorrizko eskua eta luma agertzen dira. DPGMeu itzulpenean, berriz, xede-azalaren diseinua jatorrizkoaren berdina da. Ikus ditzagun, hurrenez hurren, GHKeu, DTTeu eta DPGMeu testuetako jatorrizko eta xede-liburuen azalak.



(a) EU

(b) DE

5.1. figura: GHK liburuko azalak




(a) EU

(b) DE

5.2. figura: DTT liburuko azalak

laurden dira, hemendik aurrera marrazkia umeentzat izango da' (apaiza izango zen seguru asko). Kostoak ere badira... Baina marrazkia txatxukeriek, umekeriekin lotuta dago" (<http://www.argia.com/argia-astekaria/1782/leku-guztietan-ikusten-ditut-binetetako-istorioak>).



(a) EU

(b) DE

5.3. figura: DPGM liburuko azalak

- Elkar (DSW, AC, DEKB, DP, HF): Elkarren kasuan, azaleko ilustrazioen arduradunak pertsona desberdinak dira, eta jatorrizko eta xede-azalen artean ez dago inolako antzekotasunik:
 - DSW: Jose Ignazio Treku.
 - AC: Tomas Hernández Mendizabal, pintore, eskultore eta kartelgilea.
 - DEKB: J.F. Igartua. Azaleko irudiko emakumeak Angela Winkler aktorea da. Izan ere, 1975. urtean izen bera daraman pelikula estreinatua zen Alemanian, eta bertako protagonista Angela Winkler da.
 - DP: Kasimir Malevitx margolariaren lan bat da azaleko irudia (“Ingelesa Moskun”, 1914).
 - HF: Borja Goitia da diseinuaren arduraduna, eta Juantxo Egaña argazkiarena.
- Elkar, Alberdania (Literatura Unibertsala) (DTS): Hemen ere, Alberdaniako liburuekin gertatzen den bezala, Antton Olariaga da azala eta diseinuaren arduraduna. Antologia denez, zaila da paraitzulpenaren azterketa egitea.
- Erein (JG): Azala eta liburuko diseinuaren arduraduna Jose Agustín Iturri da. Azalean agertzen den pertsonaiaren irudia

Robert Walser bera dela dirudi. Jatorrizko edizioko azalarekin, hala ere, ez dago antzekotasunik.

- Hiria (DV, DLW): DVe u itzulpenaren kasuan, jatorrizko eta xede-testuaren artean ez dago loturarik. DLWe u itzulpenak, goian aipatu bezala, bi edizio ditu. Lehena, 1987koa, Krisei-lu argitaletxeak ateratakoa da, eta azaleko irudiaren egiletza ez da inon zehazten. Bigarrena, 2000. urtekoa, Hiria argitale-txeakoa da. Azaleko irudia desberdina da, eta, kredituetan ikus daitekeenaren arabera, “diseinua eta maketazioa” Joseba A. Be-rriotxoaren ardurapean daude. Paraitzulpenari dagokionez, ez dugu loturarik ikusi JTaren eta XTaren artean.
- Ibaizabal (DTV, DWV, KM, DVZT, BA): Corpusean jasotzen diren Ibaizabal argitaletxeko liburuak Literatura Unibertsala bildumako lehen arokoak dira (1990-2002). Badira Ibaizaba-len kudeaketa kritikatu duten ahotsak; esate baterako, Bazka aldizkari elektronikoan honako hau irakur daiteke:

“Ibaizabalek eskolarako literatura publikatzen du gehienbat, eta asmo on hark argitaletxe honek hel-duen arloan zeukan profesionaltasunik ezaren ondo-ria nozitu behar izan zuen: bilduma monotonoa, promozio eskasa... liburu instituzionalak, garbi esan-da. Ibaizabalek ez zuen helduen literaturarik argi-taratu tratua baino lehen –ez bertan sortutakorik ez itzultitakorik–, tratua amaitutakoan hain gutxi. Hi-tzarmen bat bete zuen nola edo hala, eta horraino. Administrazioaren utzikeria nabaria izan da bilduma-ren bizitza tristean: ez zitzaion produktuari jarrai-penik egin, liburuak testutegiak balira bezala eta ez komertzializatu beharreko salgaiak. Beste maila ba-tean, gainerako argitaletxeek ez ikusiarena egin zute-la ematen du, eta itzultzaileek berek ezin izan zuten edo ez zuten nahi izan ardurarik hartu jardun tes-

tualetik harago. Lan handia, korpus ederra... agian egunen batean erreskatatu ahal izango da, apurka, argitarako”¹².

Azalei begiratzeko badiegu, beheko irudietan ikus daiteke nahiko monotonoak direla, batez ere hasierako urteetakoak, DTVe, DWVe eta KMeu, alegia.



(a) DTVe (b) DWVe (c) KMeu

5.4. figura: Ibaizabal argitaletxeko liburuen azalak

Beste bietan dagokienez, estiloa aldatu egiten da, baina sinpleak izaten jarraitzen dute:



(a) DVZTeu (b) BAeu

5.5. figura: Ibaizabal argitaletxeko beste bi libururen azalak

¹²Bazka aldizkari elektronikoa: <http://www.bazka.info/?p=118>

- Igela (DLT, BM, BU, DA): Argitalpen zainduak dira diseinuari dagokionez. Kasu guztietan, azalak margolarien lanak dira, eta hala aitortzen da kredituetan. DLTeu itzulpeneko irudia Edgar Degasena da, BMeu eta BUeu liburukoak Oskar Kokoschkarenak, eta DAeu liburukoa Egon Schielerena da. Lehena margolari frantziarra da, eta beste guztiak austriarrak dira. JTko irudiek eta XTkoek ez dute antzekotasunik.
- Susa (DL): Kredituetan, Wildi egokitzen zaio azaleko irudiaren egiletza, eta ez dauka zerikusirik jatorrizkoarekin.
- Txalaparta (DBF): Azalaren diseinua Esteban Montoriorena da, eta jatorrizko Blumenbar argitaletxeko azalarekin ez dauka inongo loturarik.

Haur eta gazte literatura

- Aizkorri (DZW): Jatorrizko azala bera da, Kathrin Treuberren marrazkiak, hain zuzen.
- Alfaguara eta Descleé de Brouwer (PA, DKVZ, DKVG): Hemen ere, jatorrizko eta xede-testuetako azalak berdinak dira; lehenengoaren kasuan (PA), Walter Trierrenak dira marrazkiak, eta, banpiro txikiaren bi liburuen kasuan, Amelie Glienkerenak.
- Alfaguara eta Zubia (DKT): Azaleko irudia José Belmonterena da. Gaztelaniazko bertsiora jotzen badugu, bi azalak berdinak direla konturatuko gara:



5.6. figura: DKT liburuko azalak

- Descleé de Brouwer (DGM, SLH, GG): DGMeu itzulpenean, azaleko irudia Belén Lucasena da, eta, beraz, ez dauka jatorrizkoarekin inolako antzekotasunik. Beste bien kasuan, jatorrizkoko marrazkiak jasotzen dira. SLHeu liburuan marrazkiak Andrew Knightenak dira, eta, GGeu itzulpenean, berriz, Bernhard Förthenak.
- Elkar (DKG, ED, DASH, BLA, DDL, LD, EL, DPS, TH, RSF): DKGeu eta EDeu liburuen kasuan, azalak gaztelaniazko bertsioaren berdinak dira. EDeu itzulpenaren kasuan, kredituetan, marrazkiak Walter Trierrenak direla adierazten da. DASHeu liburuan gauza berezi bat gertatzen da, azala ingelesezko bertsioaren berdina baita. Kredituei erreparatuz gero, marrazkien inguruan adierazten den bakarra da Hans Jürgen Pressenak direla. BLAeu liburuan, berriz, azala alemanezko jatorrizkoaren berdina da eta gaztelaniazkoaren oso desberdina, ustez zeharka itzuli den arren. DDLeu eta LDeu liburuetan, jatorrizkoaren oso desberdinak dira azalak. ELEu itzulpeneko azala berezi samarra da, Juantxo Egañaren argazki bat da eta. Agian, helduxeagoi zuzenduta dagoelako, eta “bihotz taupadak” bildumakoa delako. DPSeu, THEu eta RSFeu liburuen kasuan, denboran argitalpen berrienak direnen kasuan, jatorrizko azal berdina ikus daiteke itzulpenetan. DPSeu liburuaren inguruan

azpimarratu behar da marrazkilaria nahiko presente dagoela paratestuetan. Bere izena azalean agertzeaz gain, atzeko azal hegalean bere bibliografia eta argazkia ikus ditzakegu.


- Elkarlanean (DAK): Azalean dagoen irudia, liburuko bakarra, ez da jatorrizkoaren berdina. Euskarazko itzulpenean, azalaren ilustrazioa Mikel Leozena da.
- Gero Mensajero (JV): Jan Bircken marrazkiak itzulpenean ere ikus daitezke.
- Bruño, Gero Mensajero (HLJ): Jatorrizko bertsioko azalaren oso antzekoa da itzulpenekoa, baina gaztelaniazko bertsiorekin are antzekotasun handiagoak ditu, beheko irudietan ikus daitekeen moduan. Azalaren diseinuaren arduraduna Miguel Ángel Parriño da.



5.7. figura: HLJ liburuko azalak

- Pamiela (MM): JTko eta XTko azaletan, bietan agertzen dira liburuko protagonistak, Max eta Moritz, baina diseinu aldetik ez dira berdin-berdinak. Itzulpenaren kasuan, diseinua, make-tazioa eta fotokonposaketa Lamiaren esku egon zen.
- SM (BUS, LODS): Badakigu Pello Zabaletak alemanetik zuzenean itzultzen duela, eta, hala ere, gaztelaniazko bertsioko azal

berdina darama BUSeu liburuak. Gainera, euskarazko bertsioa gaztelaniazkoa baino lehenago argitaratu zen. Ikus ditzagun azalak:



(a) EU

(b) ES

(c) DE

5.8. figura: BUS liburuaren azalak

LODS liburuaren kasuan, itzulpenaren azala jatorrizkoaren oso antzekoa da, baina gaztelaniazkoaren are antzekoagoa:



(a) EU

(b) ES

(c) DE

5.9. figura: LODS liburuko azalak

Biak ala biak SM argitaletxean, hau da, kanpoko argitaletxe batean eman dira argitara. Ustez zuzenean itzultakoak dira, baina baliteke itzultzaileak kontrol gutxiago daukan eremuetan –hala nola

azalean edo izenburuaren itzulpenean– gaztelaniaren morrontza agerian geratzea¹³.

5.3 Hitzak, esaldiak, paragrafoak

Atal honetan, hitz, esaldi eta paragrafo kopuruei erreparatuko diegu, eta jatorrizko eta xede-testuen artean dauden aldeak aztertuko ditugu. Hitzak TXT fitxategietatik abiatuta zenbatu ditugu, eta esaldi eta paragrafoak zenbatzeko, berriz, etiketatutako (baina lerrokatu gabeko) XMLetan oinarritu gara.

Guztira, 3.527.273 hitzez osatuta dago corpusa. Beheko tauletan ikus daitekeen moduan, HLko testuen hitz kopurua (2.254.338) handiago da HGLkoena baino (1.272.935). Jatorrizkoak eta itzulpenak alderatzen baditugu, azkar konturatuko gara alemanezko jatorrizkoek baino hitz kopuru txikiagoa dutela euskarazko itzulpenek, bai HLAN bai HGLan. Seguruenik hizkuntzaren egiturarekin izango du horrek zerikusia: euskara, alemana ez bezala, hizkuntza postpositiboa eta eranskaria da. Horrek esan nahi du, esate baterako, alemanez hitz solte gisa funtzionatzen duten artikulua edo preposizioak hitzei “erantsi” egiten zaizkiela euskaraz, eta, horregatik, euskaraz hitz gutxiago zenbatzea ohikoa izan daiteke. Interesgarria da ikustea, gainera, aipatutako hitz-alde hori, alemanezko eta euskarazko hitzen artekoa, nolakoa den. Honako bi taulen eskuineko zutabeetan jaso dugu datu hori:

5.4. taula: Hitz kopurua HLko testuetan

| Kodea | DE | EU | ES | DE-EU |
|-------|--------|--------|----|--------|
| HF | 57.189 | 54.044 | | % 2,83 |
| KM | 37.262 | 34.719 | | % 3,53 |

¹³BUSde eta LODSde liburuen katalanerako eta galegorako itzulpenak ere SM argitaletxeak kaleratu zituen. Batez ere BUSen kasuan igartzen da gaztelaniaren eragina. Azaleko irudia gaztelaniazko eta euskarazkoaren berdina izateaz gain, herriaren gaztelaniazko izena (*Villasimplona*) itzultzen baita bai katalanera (*Nosaltres, els de Vilaximplona*) eta bai galegora (*Os tolos de Vilasimplona*).

| | | | | |
|------|------------------|----------------|----------------|---------------|
| DTT | 35.375 | 32.516 | | % 4,21 |
| AC | 73.585 | 65.330 | | % 5,94 |
| GHK | 9.500 | 8.353 | | % 6,42 |
| SN | 18.248 | 15.901 | | % 6,87 |
| DTV | 25.013 | 21.410 | | % 7,76 |
| DPGM | 75.133 | 63.923 | 79.258 | % 8,06 |
| DTS | 51.969 | 43.939 | | % 8,37 |
| DSW | 60.920 | 51.166 | | % 8,70 |
| DBF | 57.777 | 48.342 | | % 8,89 |
| DEKB | 30.032 | 25.041 | | % 9,06 |
| JG | 42.184 | 35.144 | | % 9,10 |
| DLW | 39.653 | 33.031 | 42.408 | % 9,11 |
| DWV | 78.985 | 65.642 | | % 9,23 |
| BU | 14.229 | 11.786 | | % 9,39 |
| DL | 11.015 | 8.942 | | % 10,39 |
| DVZT | 50.693 | 41.001 | | % 10,57 |
| DA | 47.475 | 38.101 | | % 10,95 |
| DV | 19.151 | 15.273 | 18.413 | % 11,27 |
| BM | 46.129 | 36.458 | 47.537 | % 11,71 |
| DLT | 10.353 | 8.135 | 10.658 | % 12,00 |
| DP | 71.624 | 56.034 | | % 12,21 |
| BA | 157.040 | 121.299 | | % 12,84 |
| | 1.120.534 | 935.530 | 200.534 | % 9,00 |

5.5. taula: Hitz kopurua HGLko testuetan

| Kodea | DE | EU | ES | DE-EU |
|-------|--------|--------|--------|--------|
| SLH | 19.549 | 18.887 | | % 1,72 |
| DKVZ | 23.511 | 21.537 | 24.935 | % 4,38 |
| DZW | 7.098 | 6.469 | | % 4,64 |
| LD | 24.455 | 22.049 | | % 5,17 |
| ED | 26.756 | 24.083 | 28.474 | % 5,26 |
| BLA | 12.797 | 11.394 | 12.917 | % 5,80 |
| GG | 14.478 | 12.851 | | % 5,95 |
| DDL | 24.268 | 21.460 | | % 6,14 |
| DKVG | 21.248 | 18.748 | 22.953 | % 6,25 |
| DASH | 11.933 | 10.475 | 12.574 | % 6,51 |
| HLJ | 12.753 | 11.088 | 13.237 | % 6,98 |
| PA | 24.040 | 20.841 | 25.388 | % 7,13 |

| | | | | |
|------|----------------|----------------|----------------|---------------|
| RSF | 63.287 | 54.629 | | % 7,34 |
| BUS | 23.568 | 20.323 | | % 7,39 |
| TH | 141.756 | 120.569 | | % 8,08 |
| EL | 33.755 | 28.573 | | % 8,31 |
| MM | 2.111 | 1.786 | | % 8,34 |
| DKT | 9.568 | 8.016 | 10.326 | % 8,83 |
| DKG | 15.242 | 12.744 | 16.056 | % 8,93 |
| JV | 24.881 | 20.662 | | % 9,26 |
| LODS | 7.268 | 5.963 | | % 9,86 |
| DPS | 3.448 | 2.819 | | % 10,04 |
| DAK | 31.689 | 25.640 | | % 10,55 |
| DGM | 14.412 | 10.598 | | % 15,25 |
| | 593.871 | 512.204 | 166.860 | % 7,38 |

Batez beste, HGLko testuen arteko aldea txikiagoa da (% 7,38) HLkoen artekoa baino (% 9), baina desberdintasuna ez da horren nabarmena. HLAN, % 2,83 hitz gutxiagorekin, Joxe Austin Arrietaren HF da jatorrizko eta xede-testuaren artean alde txikiena daukana, eta alde handiena, berriz, BAN daukagu: itzulpenak % 12,84 hitz gutxiago ditu. HGLan ere txikien eta handienaren arteko aldea handia da: Azkueren SLH liburuan jatorrizkoan baino % 1,72 hitz gutxiago ditugu, eta DGMeu liburuan, aldiz, % 15,25 gutxiago. Datu hauek ikusita esan liteke HF eta SLHren kasuan, adibidez, zabalkundea dela itzul-tzaileak erabiltzen duen estrategia, batez bestekoak adierazten duena baino hitz dezente gehiago agertzen direlako itzulpenetan. Bestalde, beste muturrean daudenetan (BA eta DGM, kasu), sinplifikaziorako joera izango litzateke nabarmendu beharrekoa. Beste aukera bat litzateke muturrean dauden eta aipatu ditugun testu horiek itzulpen konpilatuak izatea, eta beste testu batzuen interferentzia hitz kopuruan agerian geratzea.

Goian adierazi dugu, esaldi eta paragrafoak zenbatzerako orduan, etiketatutako –baina lerrokatu gabeko– XMLak erabili ditugula. Esaldi amaierak bereizteko, gure etiketatze-programak puntu, puntu eta koma, bi puntuak, eten puntuak, galdera ikurrak eta harridura ikurrak bilatzen ditu, eta hor finkatzen du beti esaldi amaiera (ikusi

4.2.2.3 atala). Hala ere, Zubillagak (2013: 423) bere doktore-tesian aipatzen duen moduan, kontuan hartu behar da errore-tarte bat aurreikusi beharra dagoela. Besteak beste, puntuak ez direlako bakarrik esaldi bukaeretan erabiltzen, edo testuak eskaneatu eta gero sortu diren puntuazio “akatsak” ez ditugulako konpondu. Nolanahi den, ikuspegi orokor bat izateko, datuok fidagarriak iruditzen zaizkigu.

Zubillagaren lanean ez bezala, gurean, euskarazko testuetan esaldi gehiago zenbatu ditugu alemanezko jatorrizkoetan baino (3.483 esaldi gehiago, hain zuzen). Gogora dezagun Zubillagak alemanetik euskarara itzulitako HGLa aztertu duela. Tesi honen markoan, HGL eta HL dira aztertu direnak. Hain zuzen ere, HLko testuetan dago euskaraz esaldi gehiago erabiltzeko joera, eta, beraz, alemanezko esaldiak banatzeko joera. Hipotesi modura esan liteke HLko testuetan konplexutasun sintaktikoa handiago denez, ohikoagoa dela itzulpenetan jatorrizko esaldiak banatu eta esaldi gehiago sortzea. HGLan, aldiz, egitura sintaktiko sinpleagoa duten esaldiak agertu ohi direnez, eutsi egiten zaio egitura horri euskararako itzulpenetan. Ikus ditzagun honako taula hauek:

5.6. taula: Esaldi kopurua HLko testuetan

| Kodea | DE | EU | ES | DE-EU |
|------------|--------------|--------------|------------|---------------|
| DA | 4.616 | 4.530 | | % 0,94 |
| DLT | 703 | 644 | 700 | % 4,38 |
| JG | 3.663 | 3.664 | | % 0,01 |
| DWV | 4.654 | 4.666 | | % 0,13 |
| DVZT | 3.699 | 3.718 | | % 0,26 |
| BA | 13.693 | 13.785 | | % 0,33 |
| DL | 628 | 637 | | % 0,71 |
| KM | 2.419 | 2.466 | | % 0,96 |
| DTT | 2.304 | 2.350 | | % 0,99 |
| GHK | 836 | 856 | | % 1,18 |
| DTV | 1.210 | 1.252 | | % 1,71 |
| DEKB | 1.574 | 1.643 | | % 2,14 |
| DSW | 3.112 | 3.275 | | % 2,55 |
| BM | 3.584 | 3.806 | 3.530 | % 3,00 |
| SN | 1.009 | 1.075 | | % 3,17 |

| | | | | |
|------|-------|-------|-------|---------|
| DBF | 4.674 | 5.023 | | % 3,60 |
| DTS | 3.711 | 4.061 | | % 4,50 |
| HF | 4.732 | 5.291 | | % 5,58 |
| DP | 3.894 | 4.407 | | % 6,18 |
| DLW | 2.644 | 3.020 | 3.043 | % 6,64 |
| BU | 709 | 814 | | % 6,89 |
| AC | 4.682 | 5.390 | | % 7,03 |
| DPGM | 4.101 | 4.735 | 3.871 | % 7,18 |
| DV | 900 | 1.242 | 1.039 | % 15,97 |

Beraz, HLAN, beltzez markatu ditugun eta taularen goiko aldean agertzen diren bi kasuetan bakarrik ikusi dugu euskarazko itzulpenean jatorrizkoan baino esaldi gutxiago dagoela: DA eta DLT liburuetan. Lehenaren kasuan, aldea oso txikia da: DAeu liburuan jatorrizkoan baino % 0,94 esaldi gutxiago dago. Bigarrenaren kasuan, aldea handixeagoa da, eta, aurrez aipatu bezala, paratestuek ematen dizkiguten datuei begiratuta, ez gaude ziur zuzenean edo zeharka itzuli den. Horregatik, gaztelaniazko bertsioa ere jaso dugu corpusean, eta taulan ikus daiteke nola gaztelaniazko bertsio hori alemanekotik oso gertu dagoen, esaldi kopuruari dagokionez; izan ere, gaztelaniazko itzulpenak hiru esaldi gutxiago bakarrik ditu.

Ustez zeharka itzuli direnei erreparatzen badiegu, oro har, taulako beheko aldean kokatzen direla ikus dezakegu; hau da, alemanezko jatorrizkoarekiko jauzia beste kasu batzuetan baino handiagoa da. Gainera, argi ikus daiteke DLW eta DV gehiago gerturatzen direla zubi-bertsioetara, alemanezko jatorrizkora baino. Baina, ez da gauza bera gertatzen DPGM libururekin. Kasu horretan, epitestuetan aipatutakoa gogora ekarriz, hiru bertsio erabili zituen itzultzaileak itzulpena egiteko, eta guk gaztelaniazko zubi-bertsioa bakarrik jaso dugu corpusean. Agian jatorrizko konpilatua erabiltzeak galarazi egiten digu bertsio bakar batekiko lotura hori aurkitzea.

HGLari dagozkion datuak, bestalde, honako taula honetan jaso ditugu. Lehen begiratuan antzeman daitekeen moduan, irudia ez da HLAN bezain argia:

5.7. taula: Esaldi kopurua HGLko testuetan

| Kodea | DE | EU | ES | DE-EU |
|-------------|---------------|---------------|--------------|---------------|
| DKVG | 2.594 | 2.585 | 2.584 | % 0,17 |
| LD | 3.084 | 3.030 | | % 0,88 |
| ED | 2.941 | 2.861 | 2.740 | % 1,38 |
| TH | 12.487 | 12.138 | | % 1,42 |
| EL | 4.107 | 3.986 | | % 1,50 |
| GG | 1.415 | 1.373 | | % 1,51 |
| BLA | 1.861 | 1.768 | 1.775 | % 2,56 |
| HLJ | 1.323 | 1.239 | 1.153 | % 3,28 |
| DGM | 1.666 | 1.532 | | % 4,19 |
| DASH | 1.789 | 1.624 | 1.638 | % 4,83 |
| MM | 482 | 437 | | % 4,90 |
| DAK | 3.166 | 2.844 | | % 5,36 |
| BUS | 2.586 | 2.289 | | % 6,09 |
| SLH | 2.627 | 2.655 | | % 0,53 |
| JV | 2.429 | 2.456 | | % 0,55 |
| RSF | 5.860 | 5.955 | | % 0,80 |
| DDL | 2.832 | 2.895 | | % 1,10 |
| LODS | 900 | 929 | | % 1,59 |
| DPS | 329 | 341 | | % 1,79 |
| PA | 2.584 | 2.681 | 2.613 | % 1,84 |
| DKT | 859 | 900 | 871 | % 2,33 |
| DKVZ | 2.783 | 2.923 | 2.834 | % 2,45 |
| DZW | 471 | 505 | | % 3,48 |
| DKG | 1.293 | 1.406 | 1.387 | % 4,19 |

13 kasutan, Zubillagaren tesian gertatzen dena errepikatzen da: xede-testuetan esaldi gutxiago dago jatorrizkoetan baino. Baina, 11 kasutan joera alderantzizkoa da: euskarazko itzulpenetan esaldi gehiago dago jatorrizkoetan baino.

Zeharka itzuli direnetan, guztietan dago alde txikiagoa gaztelaniazko eta euskarazko bertsioren artean, alemanezko eta euskarazko bertsioren artean baino, bi kasutan izan ezik: HLJ eta ED. Lehenaren kasuan aldea txikia da, baina bigarrenetan tartea nabarmenagoa da: alemanezko testuak baino 80 esaldi gutxiago ditu ustez zeharka itzuli

den testu horrek, eta gaztelaniazkoak baino 121 esaldi gehiago.

Paragrafoen kasuan, euskaraz alemanez baino paragrafo gehiago dago, % 7,49 gehiago, hain zuzen. Eta HL eta HGL arteko aldea are handiagoa da: HLan, euskaraz % 4,40 paragrafo gehiago dago jatorrizkoetan baino, eta, HGLan, alde hori % 9,88koa da. 5.9 eta 5.8 tauletan jaso ditugu emaitza guztiak.

5.8. taula: Paragrafo kopurua HLko testuetan

| Kodea | DE | EU | ES | DE-EU |
|------------|--------------|--------------|-----|----------------|
| BU | 78 | 75 | | % 1,96 |
| DTV | 242 | 220 | | % 4,76 |
| HF | 2.120 | 1.873 | | % 6,19 |
| BA | 2.064 | 1.816 | | % 6,39 |
| DWV | 3.130 | 1.189 | | % 44,94 |
| JG | 121 | 124 | | % 1,22 |
| DPGM | 725 | 760 | 756 | % 2,36 |
| DTT | 418 | 445 | | % 3,13 |
| DL | 138 | 147 | | % 3,16 |
| DVZT | 1.195 | 1.273 | | % 3,16 |
| DA | 1.486 | 1.618 | | % 4,25 |
| DBF | 1.694 | 1.876 | | % 5,10 |
| SN | 130 | 155 | | % 8,77 |
| DLW | 456 | 545 | 544 | % 8,89 |
| DTS | 793 | 974 | | % 10,24 |
| GHK | 217 | 267 | | % 10,33 |
| KM | 378 | 467 | | % 10,53 |
| DLT | 175 | 248 | 266 | % 17,26 |
| DEKB | 191 | 302 | | % 22,52 |
| AC | 865 | 1.407 | | % 23,86 |
| DSW | 447 | 758 | | % 25,81 |
| DV | 118 | 291 | 261 | % 42,30 |
| BM | 490 | 1.226 | 816 | % 42,89 |
| DP | 179 | 1.441 | | % 77,90 |

5.9. taula: Paragrafo kopurua HGLko testuetan

| Kodea | DE | EU | ES | DE-EU |
|-------------|------------|------------|------------|----------------|
| DGM | 641 | 639 | | % 0,16 |
| MM | 429 | 423 | | % 0,70 |
| JV | 795 | 774 | | % 1,34 |
| DKG | 613 | 596 | 591 | % 1,41 |
| LODS | 468 | 300 | | % 21,88 |
| SLH | 1.429 | 1.467 | | % 1,31 |
| RSF | 1.970 | 2.114 | | % 3,53 |
| DPS | 151 | 163 | | % 3,82 |
| DKVG | 1.426 | 1.543 | 1.530 | % 3,94 |
| DKVZ | 1.491 | 1.640 | 1.621 | % 4,76 |
| DZW | 190 | 222 | | % 7,77 |
| DDL | 1.044 | 1.245 | | % 8,78 |
| BUS | 787 | 978 | | % 10,82 |
| BLA | 720 | 904 | 809 | % 11,33 |
| TH | 3.428 | 4.350 | | % 11,85 |
| EL | 1.579 | 2.009 | | % 11,98 |
| GG | 402 | 520 | | % 12,80 |
| LD | 1.049 | 1.369 | | % 13,23 |
| PA | 799 | 1.083 | 1.079 | % 15,09 |
| ED | 942 | 1.287 | 1.118 | % 15,48 |
| DAK | 712 | 989 | | % 16,28 |
| HLJ | 240 | 611 | 597 | % 43,60 |
| DKT | 126 | 336 | 335 | % 45,45 |
| DASH | 286 | 920 | 974 | % 52,57 |

[Zubillaga](#) (2013: 426) dioen moduan, paragrafoak aztertzerako orduan, corpusean jaso ditugun hizkuntzetan elkarrizketen egitura desberdinei begiratzea ezinbestekoa da. Izan ere, alemanez, askotan, narrazioan bertan txertatzen dira elkarrizketak, eta, euskaraz eta gaztelaniaz, berriz, lerro berrietan txertatutako gidoiak erabiltzen dira elkarrizketak sortzeko. Esate baterako, DASH liburuan, alemanezko eta euskarazko testuen arteko aldea oso handia da, taulan ikusi daitekeen moduan, eta euskara eta gaztelaniazkoaren artekoa, aldiz, dezente txikiagoa da. Ikus dezagun elkarrizketak nola egituratzen

diren testu konkretu horretan:

- Alemanezko testu zatia (paragrafo bakarra): <p n="17"> <s n="73"> <q n="17"> "Daß der Mann ohne Absatz eine karierte Hose trägt, wissen wir nun", sagte Felix. </q> </s> <s n="74"> <q n="18"> "Aber sein Gesicht kennen wir noch nicht", entgegnete Rollo. </q> </s> <s n="75"> <q n="19"> "Wenn er das Haus betritt, erwischen wir ihn.</q> </s> <s n="76"> Jeder behält eine Tür im Auge". </s> <s n="77"> -"Und die Fenster?" fragte Adele. </s> <s n="78"> <q n="20"> "Die natürlich auch", sagte Felix.</q> </s> </p>
- Euskarazko bertsioa (bost paragrafo): <p n="35"> <s n="69"> <q n="20"> -Orain badakigu takoirik ez duen gizonak galtza koadrodunak daramatzala -esan zuen Felixek. </q> </s> </p> <p n="36"> <s n="70"> <q n="21"> -Baina aurpegiz ez dugu ezagutzen -erantzun zuen Pottolok. </q> </s> </p> <p n="37"> <s n="71"> <q n="22"> -Etxean sartzen bada, harrapatuko dugu.</s> <s n="72"> Gutako bakoitzak ate bat zaindu behar du. </q> </s> </p> <p n="38"> <s n="73"> <q n="23"> -Eta leihoak? -galdetu zion Idoiak. </q> </s> </p> <p n="39"> <s n="74"> <q n="24">-Noski, horiek ere zaindu behar dira -Felixek. </q> </s> </p>
- Gaztelaniazko bertsioa (bost paragrafo): <p n="37"> <s n="76"> <q n="21"> -Ahora sabemos que el hombre sin tacón lleva un pantalón a cuadros -dijo Félix. </q> </s> </p> <p n="38"> <s n="77"> <q n="22"> -Pero no conocemos todavía su cara -replicó Rollo. </q> </s> <s n="78"> <q n="23"> -Si entramos en la casa le atraparemos. </q> </s> </p> <p n="39"> <s n="79"> Cada uno de nosotros que no pierda de vista una puerta. </s> </p> <p n="40"> <s n="80"> <q n="24"> -¿Y las ventanas? -preguntó Adela. </q> </s> </p> <p n="41"> <s n="81"> <q n="25"> -Naturalmente también hay que vigilarlas -dijo Félix. </q> </s> </p>

Beraz, alemanezko paragrafo bakar horren baliokideak, kasu honetan, bost dira euskara eta gaztelaniazko bertsioetan, elkarrizketen egitura desberdinaren ondorioz.

Gainera, ustez zeharka itzuli diren kasu guztietan, alde txikiagoa dago euskarazko eta gaztelaniazko zubi-bertsioaren artean, euskarazko eta alemanezkoaren artean baino. Beraz, lehen aipatu duguna berresten da.

Bai HLan bai HGLan, bost kasutan dituzte euskarazko itzulpenek jatorrizkoek baino paragrafo gutxiago, tauletan beltzez markatuta agertzen diren kasuetan, konkretuki. DWV liburuaren kasua da bereziki deigarria: % 44,94 paragrafo gutxiago ditu euskarazko itzulpenak. Agian erabili dugun alemanezko bertsioan dago gakoa, lerro-jauziz josia dago eta. DPeu liburuak ere atentzioa ematen du, baina, kasu horretan, tarte handi horren arrazoia aipatutako elkarriketa-egitura dela dirudi.

5.4 Behin-behineko ondorio batzuk

Paratestuen eta paraitzulpenaren azterketatik lortutako datuak aintzat hartzen baditugu, atentzioa ematen du, alde batetik, itzulpenak, oro har, ezin direla bi multzo trinkotan, zuzeneko eta zeharkakoetan, banatu. Bi mutur horien artean ñabardurak daudela, alegia. Hori dela eta, gure beharrak kontuan hartuta, beste kategoria batzuk gehitzea erabaki dugu. Honako taula hauetan ikus dezakegu makro mailako azterketa honetatik lortutako emaitzek zein aldaketa eragin dituzten, batez ere itzulpen moduaren sailkapenari dagokionez.

5.10. taula: Itzulpen modua HGLko testuetan

| Itzulpen modua | Kodea |
|-----------------|--|
| Zuzenekoa | BUS, DPS, DZW, EL, LD, LODS, MM, SLH, TH |
| Aldez zuzenekoa | DAK, DDL, DGM, GG, JV, RSF |
| Zeharkakoa | BLA, DASH, DKG, DKT, DKVG, DKVZ, ED, HLJ, PA |

HGLko testuei dagokienez, ikusi dugu nola DAK, DDL, DGM, GG eta JV testuetako izenburu eta kapitulu izenen euskal itzulpenak, batzuetan, gertuago dauden gaztelaniazko bertsioetik jatorrizko alemanezkotik baino. Hori dela eta, *aldez zuzenean* etiketa jartzea erabaki dugu. RSF da kategoria horren barruan jaso dugun azken

testua. Epitestuetako informazioan oinarrituta dakigu itzultzaileak beste itzulpen bat izan zuela eskura, eta kapitulu izenen itzulpen-azterketa egin dugunean, zubi-bertsioaren interferentzia zantzuak ikusi ditugu, txikiak izan arren.

5.11. taula: Itzulpen modua HLko testuetan

| Itzulpen modua | Kodea |
|----------------------|--|
| Zuzenekoa | AC, BA, BU, DA, DBF, DEKB, DL, DP, DSW, DTT, DTV, DVZT, DWV, GHK, HF, JG, KM, SN |
| Aldez zuzenekoa | DTS |
| Zeharkakoa | DV, BM, DLT |
| Zeharkako konpilatua | DLW, DPGM |

HLko testuen kasuan, *aldez zuzenean* itzultitakoen artean sartu dugu DTS. Izan ere, RSF liburuarekin ikusi dugun modu berean, hemen ere itzultzaileak beste itzulpen bat kontsultatu zuela esan zigun, eta kapituluaren izenburuak aztertzerako orduan interferentzia zantzuak aurkitu ditugu. DLW eta DPGMren kasuan, itzultzaileek esandakoa-gatik dakigu zeharka itzultzerako orduan itzulpen bat baino gehiago izan dutela eskura. Horregatik, zeharkako konpilatu kategoria sortu dugu.

Aipatu berri duguna da, hain zuzen, katalogoko fasetik makro mailako fase honetara aldatu dena: alde batetik, bi kategoria berri sortu ditugu: alde zuzenekoak eta zeharkako konpilatuak. AleuskaPhraseo corpuseko zazpi libururi (DAK, DDL, DGM, GG, JV, RSF, DTS) jarri diegu lehen etiketa hori, eta bi testuri bigarrena (DLW, DPGM).

Guztiarekin ere, ez dugu ahaztu behar datu hauek behin-behinekoak direla, eta azterketan sakondu ahala joango garela doikuntzak egiten. Argi geratu dena eta azpimarratu beharrekoa da errealitatea bi kategoria absolutuk adierazi dezaketena baino konplexuagoa denez, eskema malguago batekin erantzun behar diogula errealitate horri.

6.

Azterketa mikroestrukturala

| | | |
|------------|---|------------|
| 6.1 | UFak eta (literatur) testuak | 215 |
| 6.2 | Aztergai izango diren UFak | 217 |
| 6.2.1 | Aztergaia I: somatismoak | 217 |
| 6.2.2 | Aztergaia II: binomioak | 222 |
| 6.3 | UFen erauzketa: emandako pausoak | 226 |
| 6.3.1 | Aztergaia I: somatismoak | 226 |
| 6.3.2 | Aztergaia II: binomioak | 229 |
| 6.4 | UFen testu-azterketa: emandako pausoak | 240 |
| 6.5 | Somatismoen azterketa JTetan | 244 |
| 6.5.1 | Jatorrizko testuetan oinarritutako azterketa | 245 |
| 6.5.2 | Itzulpen-azterketa: datu orokorrak | 252 |
| 6.5.3 | Itzulpen aukerak banan-banan | 254 |
| 6.6 | Somatismoen azterketa XTetan | 296 |
| 6.6.1 | Xede-testuetan oinarritutako azterketa | 296 |
| 6.6.2 | Itzulpen-azterketa: datu orokorrak | 301 |
| 6.6.3 | Itzulpen aukerak banan-banan | 304 |
| 6.7 | Binomioen azterketa JTetan | 315 |

| | | |
|------------|--|------------|
| 6.7.1 | Jatorrizko testuetan oinarritutako azterketa | 315 |
| 6.7.2 | Itzulpen-azterketa: datu orokorrak | 320 |
| 6.7.3 | Itzulpen aukerak banan-banan | 323 |
| 6.8 | Binomioen azterketa XTetan | 340 |
| 6.8.1 | Xede-testuetan oinarritutako azterketa . . | 340 |
| 6.8.2 | Itzulpen-azterketa: datu orokorrak | 344 |
| 6.8.3 | Itzulpen aukerak banan-banan | 346 |

Paratestu mailako azterketa egin eta gero, kapitulu honetan testu-analisi xehea egingo dugu. Horretarako, lehenik eta behin, UFak testuetan erabiltzen direnean izan ditzaketen funtzioen inguruan jardungo gara. Ondoren, aztergai izango diren UFak –somatismoak eta binomioak– deskribatuko ditugu, eta AleuskaPhraseo corpusetik nola erauzi eta aztertu ditugun azalduko dugu. Azken lau ataletako xedea somatismo eta binomioen itzulpen-azterketa egitea izan da. Bai somatismo eta bai binomioen kasuan, bilaketak bi norabidetan egin ditugu: jatorrizko testuetatik, eta xede-testuetatik abiatuta. Izan ere, interesgarria iruditzen zaigu sorburu-testuetan UFrik ez egonagatik (edo ezer ez egonagatik), xede-testuetan erabiltzen diren UFak aztertzea.

6.1 UFak eta (literatur) testuak

Mikro mailako azterketa honetan testu mailako analisisia egingo dugunez, garrantzitsua da ikustea zein diren UFek izan ditzaketen ezaugarriak testuetan agertzen direnean. Gainera, testu-motaren arabera, UFen funtzio eta ezaugarriak ez dira berdinak izango. [Kollerrek](#) (2007: 607) honako hau dio, besteak beste, literatur testuen inguruan:

“Ein und derselbe phraseologische Ausdruck kann in deutlich verschieden markierten Situationen oder Textsorten verschiedene Wirkungen haben. Das breite Spektrum dieser *potentiellen* Werte zeigt sich besonders deutlich in literarischen Texten, Werbetexten und politischen Texten”.

Lehenago ikusi dugun bezala (ikusi [2.2.2.2](#)), UF berriak sortu daitezke UFen egitura formala aldatuz. Bestalde, UF bakarra erabili beharrean, kate fraseologikoak erabiltzea egilearen beste baliabide bat izan daiteke. AleuskaPhraseo corpusean, esate baterako, honako adibide hau aurkitu dugu: “Wir Pechvögel waren dem Weinen nahe. Der Bärenwirt *raufte sich voller Verzweiflung das Haar* und

der Schmied *rang die Hände*. Was sollten wir anfangen?” (BUSde). Esaldi berean bi somatismo desberdin erabiltzen dira, kate fraseologikoa delakoa sortuz.

Gerta daitekeen beste zerbait UFaren bi esanahiak aktibatu edo eguneratzea da. Gainera, van Lawickek (2013: 148) dio bi esanahiak –fraseologikoa eta hitzez-hitzezkoa– aktibatzen direnean, UFen *erabilera markatuaz* (*ús marcat*) hitz egiten dela. Honako adibide hau aurkitu dugu, esate baterako, gure corpusean: “Mach doch ein Ende. *Du hast es in der Hand*. *Ich habe nur ein Beil in der Hand*” (BAde). Hau da, *etwas in der Hand haben*-ek hitzez hitz ‘zerbait eskuan izan’ esan nahi du, eta fraseologikoki ‘zerbait norbaiten esku egon’. Aurreko adibidean, bi esanahi horiek aktibatzen dira. Hauxe da euskarazko itzulpena: “Buka ezak behingoz. *Hire esku daukak*. *Nik aizkora besterik ez zeukaat eskuan*” (BAeu).

UFak azalpen metalinguistikoz nabarmentzea ere ez da ezohikoa. Haurrei zuzendutako liburuen inguruan dio Burgerrek idazleek fraseologia kontu handiz erabili behar dutela. Horregatik, askotan, azalpen metalinguistikoek baliatzen dira, Burger beraren (2007: 176) adibide honetan ikus daitekeen bezala:

“[Die Mutter hätte beinahe Antons Vampir-Geheimnis entdeckt.] Anton horchte, wie sie auch die Tür zum Nebenzimmer schloß, dann ließ er sich erschöpft auf das Bett sinken. “*Um ein Haar!*” murmelte er. “Welches Haar?” fragte Anna neugierig und kam unter dem Bett hervorgeklettert. “Das sagt man so”, erklärte Rüdiger [ihr älterer Bruder] herablassend, “aber Anna ist eben noch ein Baby und weiß es nicht!” (Sommer-Bodenburg, *Der kleine Vampir*).

Argi ikusten da adibidean *Um ein Haar* UFaren erabilera didaktikoa, *Das sagt man so* azalpen metalinguistikoaren bidez¹. Dena den, horien erabilera ez da beti didaktikoa. Hona hemen AleuskaPhraseo

¹Euskarazko bertsioan, UF desberdin bat erabiltzen da, eta, Annari azalpena ematerako orduan, jatorrizkoa baino zehatzagoa da. Ikus dezagun itzulpena:

corpusean helduen literaturan aurkitutako adibide bat: “Ich fing an, Geld auszugeben - mit vollen Händen, wie man sagt” (BMde)².

Bestalde, [Eismannek](#)³ dioen bezala, UFek testuari koherentzia eta kohesioa eman diezaioke. Esate baterako, sekuentzien arteko lotura gisa funtziona dezakete, esandakoaren laburpen modura eta etortzeaz dagoenari buruzko aipamen gisa⁴.

6.2 Aztergai izango diren UFak

Atal honetan, lehenik eta behin, somatismoak deskribatuko ditugu. Ondoren, gauza bera egingo dugu bigarren aztergaiarekin, binomioekin, alegia.

6.2.1 Aztergaia I: somatismoak

Gutxienez gorputz atal batez osatuta dauden fraseologismoak dira somatismoak, eta, jarraian ikusiko dugun moduan, ikerketa lan askoren aztergai izan dira.

“Ondoren, gelatik irten zen atea danbateko batez itxiz. Antonek beste gelako atearen danbatekoa entzun arte itxaron zuen eta gero, ohe gainean etzan zen, lur jota. -Txiripaz libratu gara! -murduskatu zuen. -Zer da *txiripaz libratzea?* -galdetu zuen Annak jakinminez, burutxo ohe azpitik ateraz. -Honelako estutasunetan erabiltzen den esamolde bat -azaldu zion Rüdigerrek modu txarrez eta gero, Antoni zuzenduz, hauxe gaineratu zuen-: Anna gazteegia da oraindik gure hizkera berezia ulertzeko” ([Sommer-Bodenburg](#) 1993: 94).

²Honen itzulpena aurrerago azalduko dugun arren, aurreratu nahiko genuke itzulpenean azalpen metalinguistikoa agertzen den arren, jasotzen den ustezko UFa ez dela UF bat euskaraz.

³“Größere Prosawerke sind zwar nicht ausschließlich “phraseologisch” bestimmt, doch müssen Phraseme in ihnen nicht nur die Funktion, bestimmte Bilder und Szenen anschaulicher zu machen, Dialoge zu beleben bzw. Sprechweisen zu kennzeichnen usw. haben. Oft dienen sie der Kohäsion und der Verknüpfung bestimmter Textteile, oft sind sie leitmotivisch oder von entscheidender Bedeutung für einen Text (...)” (2007: 325).

⁴Ikusi [Segura](#) (1998) ezaugarri hau sakonago aztertzeko.

Kim-Wernerrek (1996) hiztegitza elebidunaren (alemana-koreera) ikuspuntutik aztertu zituen somatismoak bere doktore-tesiaren markoan. Besteak beste, kuantitatiboki adierazgarriak direlako aukeratu ditu somatismoak, eta konkretuki idiomatikotasun oso eta partziala duten somatismoak aztertzen ditu. Lehenengoen kasuan, ez dago loturarik esanahi figuratibo eta UFaren esanahi osoaren (*Gesamtbedeutung*) artean. Bigarren kasuan, aldiz, hitzez-hitzezko esanahi eta esanahi fraseologikoaren arteko lotura metaforikoa da. Gaineratzen du somatismo asko bigarren multzokoak direla, “da Somatismen durch Nahvollziehbarkeit des Metaphorisierungsprozesses gekennzeichnet sind” (1996: 9). Hau da, somatismoen kasuan, prozesu metaforikoak ulertu egin daitezke, somatismoaren baitan dagoen irudiak hitzez-hitzezko esanahiaren eta esanahi fraseologikoaren arteko lotura helarazten digulako: “Das Bild, das sich aus der wörtlichen Bedeutung des Phraseologismus ergibt, stellt eine Beziehung zwischen den Bedeutungen der freien und der phraseologischen Wortverbindungen her” (1996: 17).

Segurak (1998) literatur testuetako lokuzioak aztertzen ditu oro har, baina aztertzen dituen asko somatismoak dira. Aipatzen du, gainera, somatismo eta UF zinetikoen maiztasuna oso altua dela literatur testuetan (1998: 77).

Somatismoak aztertzea erabaki zuen beste ikertzaile bat Wotjak (2000) da. Izan ere, “de cálculos hechos por lingüistas soviéticos se desprende que más de 3.000 son somáticas, contienen un lexema de base que se refiere a una parte del cuerpo humano” (2000: 186).

2001. urtean argitaratutako liburuan, bi hizkuntzen arteko corpus fraseologiko idiomatikoak sistematikoki aztertzeko irizpide batzuk finkatzen ditu Larretak, eta praktikan jartzen, alemanezko eta espainolezko somatismoen azterketa kontrastiboa eginez. Honela definitzen ditu somatismoak, eta, beraz, bere lanaren ikergaia: “Objeto de este trabajo son fraseolexemas (FrL) del alemán y el español con un componente interno que designe una parte del cuerpo humano o animal, unidades que en fraseología se denominan somatismos (SO)” (2001: 11).

Bere doktore-tesian (2006), somatismoak aztertzen ditu [van La-wicke](#)k, bai fraseologia kontrastiboaren ikuspuntutik bai itzulpengintzaren ikuspuntutik. Azken azterketa hori egiteko, Bertolt Brecht-en *Frucht und Elend des III. Reiches* (1988) liburuaz eta haren bi itzulpenez (katalanera eta espainolera) baliatzen da, eta azterketa maila kuantitatibo eta kualitatiboan egiten du. Kuantitatiboki, itzulpenetan eta jatorrizko testuetan fraseologismo kopurua nahiko parekoa dela ondorioztatzen du; bestalde, itzulpen teknikei dagokienez, metaforak beste metafora baten bidez (izan metafora berdin edo desberdin bidez) itzuli diren kasuen portzentaje altua nabarmentzen du, besteak beste. Dena den, autoreak berak onartzen du emaitzak corpus handiago batekin berretsi beharko lirakeela. Eta hori da, hain zuzen, 2013an argitaratutako azterketan egiten duena Ulrike Osterrekin batera. COVALT proiektuko (ikus [2.3.2](#)) alemana-katalana literatur azpicorpusean oinarrituta, somatismoen itzulpena aztertzen dute. Proiektu beraren barruan, Marcok ([2008](#); [2009](#); [2013](#)) ere somatismoak aztertzen ditu, ingelesa-katalana hizkuntza-konbinazioan. Azken horrek ere oinarri somatikoa duten UFen itzulpena aztertzen du, hizkuntza guztietan UF kopuru handi bat gorputzari lotuta dagoelako. Izan ere, ikuspuntu kognitibotik, “el cos és el centre focalizador de la nostra experiència com a humans, per la qual cosa no és estrany que tot sovint projectem aquesta experiència –la més immediata possible– sobre esdeveniments més allunyats i més abstractes” ([Marco 2013: 165](#)).

[Sadikajen](#) helburua, berriz, albanierazko eta alemanezko fraseologismo konkretu batzuen kontzeptu metaforikoak aztertzea da, maila kontrastiboan betiere. Horretarako, bi hiztegi fraseologiko elebakarretatik erauzten ditu UFak (Duden eta Schemann, hain zuzen), eta, gero, IDSekoa erreferentzia corpus elebakarrean (ikus [3.2.3.2](#)) aztertzen du erauzitako UFen maiztasuna.

Corpus handietan oinarrituta, hizkuntza desberdinetako (ingelesa, alemana, suediera, errusiera eta finlandiera) aditz somatismoen erabilera aztertzen da [Niemi et al.](#) lanean. Alde batetik, honako hau diote: “Across languages idioms typically use parts and processes

of the human body to express various acts and mental or physical states (e.g., haul ass, lose one's head)” (2010: 67). Eta, hori horrela izan arren, hau da, gorputzeko atalez osaturik dauden lokuzioak asko izan arren kopuruari dagokionez, horiek aztertzen dituzten ikerketa konparatiboak gutxi direla azpimarratzen dute.

Liburu berean, [Quasthoff et al.](#) lanean, UFetan agertzen diren ohiko hitzak zeintzuk diren azertu nahi da, besteak beste. 5.058 UFtan oinarrituta, maizen agertzen diren izenen zerrenda egiten dute, eta, [van Lawicke](#)k dioen moduan, “(...) han arribat a la conclusió que hi predominen els de referència somàtica, al costat d'altres paraules procedents de la vida quotidiana i alguna de l'àmbit religiós” (2013: 153). Hain zuzen ere, lehen bost hitzetatik lau gorputzeko atalak dira (*Kopf, Hand, Augen* eta *Ohren*; buru, esku, begi eta belarri, alegia).

[Staffeldt eta Ziemek](#) (2008, 2011) ere somatismoak aztertzen dituzte, eta ideia bera errepikatzen dute: fraseologia barruan, azpimultzo zabalena osatzen dute somatismoek, eta azpimultzo hori da, gainera, fraseologiaren mailaketan zaharrenetarikoa: “Sie stellen die umfangreichste phraseologische Subgruppe dar, die zudem zu den ‘ältesten Schichten der Phraseologie’ gehört, wie Földes und Kühnert (1992: 31) bereits vor 15 Jahren bemerkt haben (2008: 457)”.

Ni-k alemanezko eta txinerazko somatismo batzuk alderatzen ditu; *begia*, *sudurra* eta *belarria* oinarri gisa dituzten fraseologismoak, hain zuzen. Konparazio hori maila kognitiboan egiten du; hau da, bere helburua da somatismoen bidez, *begiek*, *sudurrek* eta *belarriek* sortzen dituzten esanahi sinbolikoak bi hizkuntza horien artean alderatzea. Bere hitzetan: “Meine Dissertation, deren Entwurf hier vorgestellt wird, verfolgt als Hauptziel, die Symbolbedeutungen der Sinnesorgane Auge, Ohr und Nase anhand der Somatismen im Deutschen und im Chinesischen zu vergleichen” (2011: 83). Somatismoen osagai diren gorputz atalak, bai alemanez bai txineraz, fraseologikoki oso produktiboak direla dio.

Somatismoen zati garrantzitsu bat UF zinetikoek osatzen dutenez, horiek hemen aipatzea ezinbestekoa iruditzen zaigu. [2.2.2.3](#) ata-

lean aipatu ditugu dagoeneko somatismo-mota berezi hauek. Ekar dezagun gogora [Seguraren](#) (1998: 77) definizioa: “(...) Ausdrücke, die ein außersprachlich kommunikatives Verhalten repräsentieren. Das non-verbale Verhalten besteht aus Mimik, Gestik und Paralinguistik”. Beraz, hitzezkoak ez diren jokaerak (keinu edo mugimenduak) adierazten dira esapide hauen bidez, eta jokaera horiek esanahi (fraseologiko) bat dute. Esate baterako, Intza proiektuko webgunean aurki daitezkeen *burua makurtu* litzateke UF zinetiko bat. Hitzezkoa ez den mugimendu horretaz gain, UFak “umildu” esanahi fraseologikoa dauka⁵.

Aurrez aipatu legez, UF zinetikoez gain, UF sasi-zinetikoak ere badaude. Honela definitzen ditu [van Lawicke](#)k: “Es parla de pseudocinegramas quan les expressions es basen en gestos irrealis o imaginats” (2013: 154). [2.2.2.3](#) atalean aipatu ditugu alemanezko adibide batzuk: *sich die Haare raufen, die Hand ins Feuer legen, das Herz auf der Zunge tragen*.

UF zinetikoen azterketan, hiru kontu hartu behar dira aintzat [van Lawicken](#) arabera (2013: 155). Lehenik eta behin, hizkuntzen artean sasiadiskideak aurki ditzakegu. Aipatzen duen beste kontu bat hiztegitantzari lotua dago. Izan ere, hiztegitileek UF zinetikoak kolokaziotzat hartu ohi dituzte, eta, ondorioz, kolokazioekin gehiengotan gertatzen den legez, ez dira hiztegitan jasotzen. Horren aurrean, corpus elebakarren erabileraren alde egiten du [van Lawicke](#)k. Hiztegitantzaren kontu horri lotuta, azken arazo bat planteatzen du [van Lawicke](#)k: UF zinetiko batek izan ditzakeen esanahi fraseologiko desberdinak zehazterakoan sortu daitezkeen zailtasunak.

Laburbilduz, atal honetan aipatutako guztia kontuan hartuta argi dago somatismoak asko erabiltzen direla hizkuntzetan, eta horien azterketatik lortuko ditugun emaitzak, kuantitatiboki gutxienez, adierazgarriak izango direla. Gainera, alde praktikoari begiratuz, [van Lawicke](#)k (2013: 153) dioen moduan, hitz gakoan (somatismoen kasuan, gorputzeko atalak lirateke) bilaketa erraza da corpusaren me-

⁵<http://intza.armiarma.com/cgi-bin/bilatu2.pl?eremu1=giltzarriak&hitzal=buru&eremu3=1&fitxa=1>

todologiari esker. Horregatik ere aukeratu ditugu somatismoak.

6.2.2 Aztergaia II: binomioak

Bigarrenik aztertuko ditugun hitz-konbinazioek izen ugari dituzte: *Zwillingsformeln* edo *Wortpaare* alemanez, *binomials* edo *tautological word pairs* ingelesez, *frases binomiales* edo *pares tautológicos* gaztelaniaz, eta, hitz konposatuei dagokienez, [Azkaratek](#) *hitz elkartu tautologiko* terminoa erabiltzen du bere doktore-tesian. Izenak izen, atal honetan, hainbat ikertzailek UF-mota hauen inguruan egin dituzten hausnarketak aurkeztuko ditugu.

Ingelesa eta txekieran oinarrituta, [Čermáček](#) binomioek dituzten ezaugarri formal eta semantikoen ikuspegi orokor bat ematen digu 2010eko bere artikuluan. Bertan, honela definitzen du aztergaia: “Binomials are an old and widespread type of idioms and non-idioms, made up of binary word combinations (stable and not stable, ad hoc formations) to be found in many languages (*binomials*, *Wortpaare*, *ordpar*, *frases binomiales*, *binomiály*) that happen to have to be made of several types of combination and have more than one function” (2010: 309). Beraz, oro har, bi elementuz osatuta egon ohi dira (aurrerago *trinomials*-ak ere badaudela dio, hiru elementuz osatutakoak), hainbat hizkuntzatan aurki ditzakegu, UF oro bezala finkoak dira (baina, binomioen egituran oinarrituta, *ad hoc* sortutako hitz-konbinazioak ez dira ezohikoak), eta, [Piirainenek](#) dioen moduan, binomioa osatzen duten osagaiak kategoria gramatikal berekoak dira, semantikoki erlazionatuta daude, eta juntagailu bidez lotuak egon ohi dira: “Binomials, also called irreversible binomial idioms, binomial pairs, or wordpairs, are sequences of two or more constituents that belong to the same grammatical category, have some semantic relationship and are joined by a conjunction like *and* or *or*” (2012: 43).

Alemanaren kasuan, Burgerrek bere sailkapenean (ikusi [2.2.3](#)) bi motatako binomioak desberdintzen ditu: hitzen errepikapenean oinarritzen direnak (*Modellbildungen*), *von Mann zu Mann*, kasu, eta

kategoria bereko hitzak preposizio edo juntagailu bidez elkartzen direnean sortzen diren hitz-konbinazioak (*Zwillingsformeln*); esate baterako, *klipp und klar*.

Aurrerago, Müllerrek (2009) binomioen azterketa sakona egiten du. Alde batetik, binomioen osagaien arteko harreman semantikoari dagokionez, bederatziz maila aurkezten dizkigu bere monografian, eta maila bakoitza adibidez hornitzen du (2009: 33-35):

- Osagaien artean ez dago inolako harreman semantikorik: *Rotz und Besen heulen* (hitzez hitz: mukiak eta erratzak negar egin)
- Bien artean badago nolabaiteko lotura, baina ez da oso estua: *von Tellern und Silber (essen)* (hitzez hitz: plateretatik eta zilarretik jan). Platerak zilarrezkoak izan daitezke.
- Ez daukate harreman zuzenik: *Herz und Schmerz* (hitzez hitz: bihotza eta mina).
- Aurkako esanahiak dituzte, antonimoak dira: *dick und dünn* (lodia eta argala).
- Zerikusia dute: *Papier und Bleistift* (papera eta boligrafoa).
- Ez daukate esanahi bera, baina kontzeptu orokor beraren baitan sar ditzakegu: *Hemd und Hose* (arropa) (hitzez hitz: al-kandora eta prakak).
- Oso esanahi antzekoak dituzte: *Feuer und Flamme* (hitzez hitz: sua eta garra).
- Sinonimoak dira: *Art und Weise* (hitzez hitz: era eta modua).
- Hitz berberaz osatuak daude: *Hand in Hand* (hitzez hitz: eskua eskuan).

Egiturari erreparatzen badiogu, bestalde, hamalau eredu proposatzen ditu Müllerrek berak alemanarentzat:

- X (,) X: *bitte, bitte* ('mesedez, mesedez').
- X (,) Y: *gesagt, getan* ('esan eta egin').
- X und/oder/wie/weder ... noch/aber/... Y: *langsam aber sicher* ('poliki baina seguru').
- X und/oder X: *besser und besser* ('gero eta hobe').
- X um/für X: *Wort für Wort* ('hitzez hitz').
- von X zu X: *von Tag zu Tag* ('egunetik egunera').
- von X bis/aus/zu/nach Y: *von Anfang bis Ende* ('hasieratik bukaerara').
- X wie/als Y: *damals wie heute* ('lehen eta orain').
- X ist/bleibt/sind X: *geschenkt ist geschenkt* ('opariak opariak dira').
- X ist/sind Y: *Sport ist Mord* ('kirola hilketa da').
- X Präp X: *Hand in Hand* ('eskutik helduta').
- X Präp Y: *Hand aufs Herz* ('eskua bihotzean').
- Genitibo-egiturazkoak: *Qual der Wahl* ('aukeratzeak dakarren tormentua').
- Adjektibo-izen egiturazkoak: *Schluss mit lustig* ('amaitu dira txorakeriak').

Itzulpen ikerketei dagokienez, [Pontrandolforen](#) tesia aipatu nahiko genuke; izan ere, zuzenbide alorreko testuez osatutako corpus hirueledun konparagarri batetik, beste batzuen artean, bikote eta hiru-kote lexikoak (*dobletes y tripletes léxicos*) erauzi, eta horien itzulpena aztertzen du. Bere arabera, fraseologia juridikoaren alorrean egin ziren lehen ikerketak binomioen ingurukoak izan ziren, eta, horien

baitan, [Gustaffsonen](#) lanak (1984) izan ziren aitzindari. UF-mota konkretu hauek erauzterako orduan, WordSmith Tools-eko *Cluster* funtzioa erabiltzen du.

[Touryk](#), bestalde, Itzulpen Ikasketa Deskribatzaileen ikuspuntu-tik, ariketa metodologiko bat aurkezten du bere liburuko zazpigarren kapituluaren (2012: 131–141). Bertan, *conjoint phrases of near-synonyms*-ak⁶ aukeratzen ditu ariketaren oinarri gisa. Ez du fenomenoaren izendapenean sakontzen, ez delako hori kapituluaren xedea, baina izen desberdinak erabiltzen direla aipatzen du (*tautological word pairs, repetitive word pairs, binomial expressions*), eta definitu ere definitzen ditu: “Conjoint phrases of near synonyms consist in two (occasionally more than two) synonymous or near-synonymous items of the same part of speech, combined to form a single functional unit” (2012: 132). Beraz, gutxienez bi hitzez osatuta dauden hitz-konbinazioak dira, zeinak kategoria gramatikal bereko sinonimo edo sinonimo partzialez osatuta dauden eta funtzio-unitate bakarra osatzen duten.

Metodologiari dagokionez, bost urrats desberdintzen ditu: lehenengo, zer diren eta zergatik izan daitezkeen aztergai adierazgarriak azaltzen du; ondoren, hebreerazko itzulpenetan nola erabiltzen diren aztertzen du; hurrena, lehen mailako orokortzeak (*first-level generalizations*) proposatzen ditu, hau da, jatorrizko eta xede-testuaren arteko harremana nolakoa den deskribatzen du, zein den baliokidetasunaren araua eta atzean dagoen itzulpen kontzeptua. Ondoren, bigarren mailako orokortzeek (*second-level generalizations*) eta etorkizuneko ikerketa proiektuez dihardu. Horri lotuta, ikerketetako emaitzak kontuan hartuz, hipotesi orokorrak proposatu ahalko liratekeela dio, itzulpenaren teoriarik eragina izan dezaketenak. Hauxe da, kasu konkretu honetan, [Touryk](#) egiten duen baieztapena:

“In our case, one possible claim could be that abundant use of conjoint phrases of near-synonyms, binomials or

⁶Gaztelaniazko itzulpenean, Rabadán eta Merinok *pares tautológicos de sinónimos parciales* terminoa erabiltzen dute.

free combinations, especially in lieu of single lexical items or as outright additions, may represent a **universal of translation into systems which are young, or otherwise ‘weak’**, perhaps as part of an attempt to develop indigenous linguistic capabilities in the face of this sensed weakness” (2012: 140).

Touryren arabera, beraz, hebreerazko itzulpenetan jatorrizko testuetan baino gehiago erabiltzen direnez hitz-konbinazio berezi hauek (eta gehienetan, gainera, jatorrizko testuetan UFrik ez dagoen kasuak direnez), hitz-konbinazio horien erabilera anitza itzulpen-unibertsal bat izan liteke, gazteak edo “ahulak” diren sistemetan.

Azkenik, emaitza horiek adar aplikatuan izan ditzaketen ondorioen inguruan hausnartzea litzateke bosgarren pausoa. Touryren hitzetan: “One objective of using such findings may well be to model one’s future strategies on actual translation behaviour, past or present, only this time in fuller consciousness and under much more control” (2012: 141).

6.3 UFen erauzketa: emandako pausoak

Ondorengo lerroetan, aipatutako bi aztergaiak nola landu ditugun deskribatuko dugu.

6.3.1 Aztergaia I: somatismoak

Hasteko, AleuskaPhraseo corpusean oinarrituz, izen-zerrendak sortu ditugu AntConc-en laguntzaz, eta 6.1 taulan ikus ditzakegu zeintzuk diren bi hizkuntzetan maizen agertzen diren izenak⁷:

⁷Corpusa ez dagoenez lematizatuta, eskuz lotu behar izan ditugu hitz baten aldaera guztiak. Euskaraz, gainera, prozesua ez da batere sinplea, hizkuntza aglutinatzailea izanik aldaera kopurua dezente handia baita. Esate baterako, *esku*-ren 38 forma desberdin jaso ditugu. Alemanaren kasuan, bestalde, *Hand*-en 4 forma besterik ez ditugunez, maiztasuna kalkulatzeko errazagoa izan da. Corpusa

6.1. taula: Corpusean maizen agertzen diren hamar izenak

| Izena (DE) | Kopurua | Izena (EU) | Kopurua |
|-------------|---------|----------------|---------|
| Hand | 2.664 | buru | 4.366 |
| Herr | 2.387 | ama | 3.861 |
| Mann | 2.177 | etxe | 3.209 |
| Mensch | 2.132 | esku | 3.068 |
| Frau | 1.980 | hitz | 2.930 |
| Auge | 1.878 | gizon | 2.775 |
| Haus | 1.786 | urte | 2.730 |
| Kopf | 1.598 | gauza | 2.314 |
| Mutter | 1.563 | begi | 2.216 |
| Leben | 1.562 | aurpegi | 1.633 |

Beraz, euskaraz ere, gorputz atalak *top ten* zerrendan sartzen dira: taulan ikus daitekeen bezala, maizen agertzen diren hamar euskal izenetik lau gorputzeko atalak dira. Horrek ez du esan nahi agerpen guztien atzean UF bat aurkituko dugunik, ezta inondik ere, baina hitzen agerpen kopurua eta horiek UFetan agertzeko aukera lotuta daudenez, *Hand* eta *esku* bezalako hitzak fraseologikoki produktiboak direla susma dezakegu: “frequent words have strong phraseological tendencies, and the more frequent a word is the more likely it will appear in multi-word units” (Milizia eta Spinzi 2008: 328).

Aurreko emaitzak ikusita, *Hand* eta *esku* hitzez osatutako UFak aztertzea erabaki dugu. 6.1 taulan ikus daitekeen moduan, AleuskaPhraseo corpusean alemanez gehien agertzen den gorputz atala da *Hand*, eta *esku*-ren agerpen maiztasuna ere handia da.

Bilaketak egiterako orduan, ez gara hitzetatik abiatu (hau da, ez dugu bilatzaileko “exacto” aukera erabili), lemetatik baizik. Horrela, *Hand* eta *Händ*-ekin hasten diren hitz guztiak bilatu ditugu. Alderantzizko norabidean, gauza bera egin dugu *esku*-rekin.

lematizatua izateak baditu bere abaintailak, noski, eta seguruenik etorkizunean egingo dugun zerbait da, baina gure lehen tasuna corpusa sortzea izan da kasu honetan.

Lehenengo bilaketa horretan lortzen ditugun emaitzak, nolabait esateko, emaitza gordinak dira, eta gure kasuan horrek esan nahi du UFak UF ez direnetatik bereizi behar ditugula, eskuz. Azterketaren fase honetan, hainbat arazorekin egin dugu topo, eta beste hainbeste erabaki hartu behar izan ditugu. Hona hemen arazo eta konponbi-deak:

- UF-mota oro aztertzea erabaki dugu. Era honetan, kolokazio izatetik gertuago dagoen *jm die Hand geben* gisako UFak bildu ditugu, alde batetik, baina, bestalde, motibazio maila baxuagoa dutenak ere jaso ditugu, hala nola *Hand drauf!* edo *die Beine in die Hand nehmen*. Hala ere, beti ez da horren erraza izan hitz-konbinazio libre eta UFen arteko muga hori zehaztea. Alemanaren kasuan, hiztegiak lagungarriak dira, aurkitu ditugun ia UF guztiak Duden 11 edo Schemannen hiztegian jasotzen direlako. Hala ere, Duden Stilwörterbuch⁸ eta DeReKo corpusera ere jo dugu zalantza kasuetan, batez ere, kolokazioen kasuan⁹.

Euskarari dagokionez, aldiz, UFak ez dira hiztegieta horren sistematikoki jasotzen. Alde batetik, hemen ere, zalantzak izan ditugu hitz-konbinazio batzuk kolokazio gisa definitzerako orduan (adibidez, *isilpean* edo *ezkutuka* kolokazioak dira?); eta, bestalde, literaturan tradizioz ez duten hitz-konbinazioekin ere egin dugu topo. Esate baterako, gure corpusean aurkitu dugun “eskua sutan jarri” UFa da euskaraz? Hiztegieta ez da jasotzen, baina corpusak kontsultatuz gero, erabili erabiltzen dela ikusi dugu, batez ere prentsako testuetan eta Goenkale corpusean. Beraz, bereziki xede-testuetako UFak aztertzerako orduan, euskal corpusetara jotzea ezinbestekoa iruditu zaigu; hau da, euskal corpus elebakarrak erreferentzia corpus gisa erabili ditugu. Kontsultatu ditugunak OEH, XXECE eta ETC izan dira, batik bat. Azken horren baitan, bereizketa egin du-

⁸Dudenen estilo hiztegia, bigarren liburukia.

⁹Kasu konkretu bakoitzean ikusiko dugu corpusetik erauzitako UFak nola jasotzen diren hiztegieta, baldin eta jasotzen badira.

gu prentsako testu, jatorrizko, itzulpen eta Goenkale telesaileko testuen artean.

- Alemanez, *Hand*-ekin osatzen diren hitz elkartuak aurkitu ditugu corpusean. Batzuk baztertu egin ditugu *–Handumdrehen*, kasu-, baina hitz elkartu horren baitan UF bat identifikatu baldin badugu, orduan jaso egin ditugu. Adibidez, AleuskaPhraseo corpusean *sich die Hände reiben* edo *die Händchen halten* gisako UFak jaso ditugu. Hori dela eta, *händereibend* edo *Händchenhalten* gisako hitz elkartuak ez baztertzea erabaki dugu.
- *Handen* sinonimo izan daitezkeen hitzetatik sortutako UFak ez ditugu jaso. *Auf eigene Faust handeln* gisakoak, alegia.
- Zeharkako itzulpenen kasuan, itzulpen-azterketa konplexuagoa da: lehenengo eta behin, alemanezko eta gaztelaniazko testuak aztertu ditugu, eta UFak nola itzuli diren deskribatu dugu; ondoren, gaztelaniazko eta euskarazko testuak alderatu ditugu, eta, azkenik, alemanezko eta euskarazkoaren arteko lotura ere analizatu dugu.

6.3.2 Aztergaia II: binomioak

Corpusari ahalik eta etekin handiena ateratzeko asmoz, lanaren bigarren zati honetan, erauzi eta aztertuko ditugun hitz-konbinazioak modu automatikoagoan erauzi nahi izan ditugu; hau da, corpusari galdetuko diogu zeintzuk diren maizen erabiltzen diren hitz-konbinazioak, bai jatorrizko testuetan, bai xede-testuetan.

Horretarako, dagoeneko aipatu dugun (ikusi 3.2.6) tresna bat erabiliko dugu, AntConc programa, eta, bertan, alemanezko eta euskarazko N-Gramak erauzi ditugu.

Lehenik eta behin, corpusa osatzen duten testuak kargatu ditugu AntConc-en *–lehenik jatorrizkoak*, eta, ondoren, *xede-testuak–*, eta, “Clusters / N-Grams” erlaitz barruan, gutxienez bi aldiz agertzen

diren hiru-gramak bilatzeko esan diogu programari. Hainbat arrazoigatik ez ditugu behin agertzen diren hitz-konbinazioak kontuan hartu: programak denbora dezente behar du guztiak erazteko, eta lortutako emaitza guztiak eskuz aztertzeak oso luze joko luke. Bestalde, hiru-gramak bakarrik erazi ditugu, 6.2.2 atalean ikusi dugun moduan, ohikoenak “binary word combination”-ak direlako¹⁰, eta hiruko konbinazio horietan bi eta lauokak ere identifika daitezkeelako maiz. Esate baterako, *von Zeit zu* agertzen bada programak egindako zerrendan, *Concordance* atalera jo dezakegu, horren atzean *von Zeit zu Zeit* UFa dagoen frogatzeko.

Ikus dezagun AntConc-ek sortzen duen zerrenda, goian aipatutako ezarpenak aintzat hartuta:

| Rank | Freq | Range | N-gram |
|------|------|-------|----------------------|
| 1 | 226 | 33 | ich weiß nicht |
| 2 | 192 | 39 | in der hand |
| 3 | 190 | 33 | es war ein |
| 4 | 172 | 36 | hin und her |
| 5 | 163 | 1 | das kleine gespenst |
| 6 | 140 | 1 | die schwarze hand |
| 7 | 126 | 23 | schüttelte den kopf |
| 8 | 120 | 32 | in diesem augenblick |
| 9 | 114 | 23 | in der welt |
| 10 | 110 | 30 | sich auf die |
| 11 | 107 | 32 | den kopf und |
| 12 | 106 | 29 | in der nacht |
| 13 | 105 | 27 | in der küche |
| 14 | 104 | 25 | daß er sich |
| 15 | 103 | 16 | zum ersten mal |
| 16 | 100 | 22 | es ist ein |
| 17 | 99 | 29 | auf den boden |
| 18 | 99 | 30 | auf der straße |
| 19 | 98 | 29 | auf den tisch |
| 20 | 98 | 28 | und es war |
| 21 | 95 | 20 | als hätte er |
| 22 | 94 | 30 | aber es war |

6.1. figura: Jatorrizko testuetatik erazutako 3-gramak

Ezkerreko zutabean, AleuskaPhraseo corpora osatzen duten jato-

¹⁰ *Biko* hitza erabili arren, hiru unitatez osatzen dira, oro har, binomio horiek: bi elementu nagusi eta loturazko hitz bat.

rrizko 48 testuak ikus ditzakegu TXT formatuan. Irudiaren beheko aldean, berriz, bilaketa aukerak ditugu. Gure kasuan, esan bezala, N-gramak erauzteko esan diogu programari, hiru unitatez osatutakoak eta gutxienez bi aldiz agertzen direnak, eta emaitzak maiztasunaren arabera ordenatzeko. Irudian ikus dezakeguna lehen 22 emaitzak dira. Alde batetik, gorputz atalekin osatutako unitateek ematen dute atentzioa (*in der Hand, schüttelte den Kopf*), eta, bestalde, 172 aldiz 36 testu desberdinetan erabiltzen den *hin und her* binomia ere gertatu zaigu deigarri. Zerrendan aurrera egin ahala, horrelako beste UF (edo UF izan daitezkeen) asko aurkitu ditugu: *auf und ab* (90 aldiz), *ganz und gar* (50 aldiz), *nach und nach* (42 aldiz), *hie und da* (38 aldiz), *hin und wider* (30 aldiz), *Tag und Nacht* (27 aldiz), *hier und da* (18 aldiz), *auf und nieder* (16 aldiz), *da und dort* (14 aldiz), *durch und durch* (14 aldiz), *drauf und dran* (13 aldiz), *weit und breit* (13 aldiz), *dann und wann* (12 aldiz), *kreuz und quer* (12 aldiz), *Schritt und Tritt* (11 aldiz), *einzig und allein* (10 aldiz), *kurz und gut* (10 aldiz)...

Berdin jokatu dugu euskarazko testuekin: AntConc programan 48 xede-testuak kargatu ditugu, eta programari euskarazko hiru-gramak erauzteko eskatu diogu. 6.2 irudian ikus daitekeen moduan, diskurtso-markatzaile bat edo loturazko lokuzio¹¹ bat, *hain zuzen ere*, da agerpen gehien dituen (202) euskal hiru-grama AleuskaPhraseo corpusean. Hamahirugarren lekuan ere beste loturazko lokuzio bat daukagu, *hala eta guztiz*. Bestalde, euskaraz ere binomio ugari aurkitu ditugu: *behin eta berriz* (188), *behin eta berriro* (145), *argi eta garbi* (88 aldiz), *batera eta bestera* (86 aldiz), *gora eta behera* (85 aldiz), *nola edo hala* (57 aldiz), *zur eta lur* (57 aldiz), *bat edo beste* (46 aldiz), *zer edo zer* (36 aldiz), *hara eta hona* (37 aldiz), *gau eta egun* (35 aldiz), *harri eta zur* (27 aldiz), *kosta ahala kosta* (25 aldiz), *noiz edo noiz* (20 aldiz), *han eta hemen* (19 aldiz), *noiz edo behin* (17 aldiz), *orduak eta orduak* (17 aldiz), *asko eta asko* (16 aldiz), *non edo han* (16 aldiz) *estu eta larri* (14 aldiz), *hainbat eta hainbat* (14

¹¹Loturazko lokuzio horien barruan, [Urizarrek](#) bere tesian (2012: 109) lokailu-lokuzio gisa jasotzen du *hain zuzen ere*.

aldiz), *jo eta ke* (14 aldiz), *jira eta bira* (12 aldiz), *atzera eta aurrera* (11 aldiz), *atzera eta aurrera* (11 aldiz), *jo ta jo* (11 aldiz), *luze eta zabal* (11 aldiz), *milaka eta milaka* (10 aldiz)...


| Rank | Freq | Range | N-gram |
|------|------|-------|-------------------|
| 1 | 202 | 33 | hain zuzen ere |
| 2 | 200 | 1 | esan zuen kk |
| 3 | 196 | 37 | behar izan zuen |
| 4 | 188 | 32 | behin eta berriz |
| 5 | 164 | 27 | barre egin zuen |
| 6 | 156 | 36 | egin zuen eta |
| 7 | 154 | 26 | eta hala ere |
| 8 | 149 | 33 | bat besterik ez |
| 9 | 145 | 26 | behin eta berriro |
| 10 | 145 | 39 | zer esan nahi |
| 11 | 143 | 25 | oihu egin zuen |
| 12 | 142 | 29 | da esan zuen |
| 13 | 142 | 31 | hala eta guztiz |
| 14 | 135 | 33 | bat egin zuen |
| 15 | 128 | 30 | nahi izan zuen |
| 16 | 127 | 35 | ere ez zuen |
| 17 | 126 | 28 | ez al da |
| 18 | 120 | 36 | egin behar izan |
| 19 | 120 | 30 | zer egin behar |
| 20 | 112 | 28 | eta esan zuen |
| 21 | 111 | 30 | eta guztiz ere |
| 22 | 109 | 30 | ere ez zen |

6.2. figura: Xede-testuetatik erauzitako 3-gramak

Lokailu funtzioa duten lokuzio horien azterketa interesgarria izan daitekeen arren, jatorrizko eta xede-testuetan aurkitu dugun binomio kopurua kontuan hartuta, alde batetik, eta Touryk berak *conjoint phrases of near synonyms* horien inguruan egindako azterketaren emaitzak aintzat hartuta, bestetik, iritsi ginen UF-mota hau lantzeraz.

Binomioak erauzteko, aurreko atalean (ikusi 6.2.2) jaso dugun alemanezko binomio-egituren zerrendan oinarrituta, binomioetan ager-

tzen diren loturazko hitzen zerrenda osatu dugu¹², eta, zerrenda horretatik abiatuta, hiru-gramak erauz ditzan eskatu diogu programari, 6.3 taulan ikus daitekeen legez:



6.3. figura: alemanezko 3-gramen erauzketa zerrendan oinarrituta

Euskal testuekin gauza bera egin dugu, baina, kasu honetan, hitz-zerrenda lehenengo bilaketan lortutako emaitzetan oinarrituz osatu dugu¹³. Lehen begiratuan jada binomio ugari identifika daitezke:

¹²Honako hauek dira zerrendan sartutako hitzak: *und, oder, weder, noch, aber, wie, in, vor, von, vom, an, am, für, nach, ohne, aufs, im, zu, bei, in, über, auf, unter, mit, ohne, bis, um, mal, als, ist, sind, ins*. Hitzen aurretik eta atzetik izartxoak (*) jarri ditugu 6.2 irudian ikus daitekeen moduan, hala egin ezean, hitz horiekin hasten diren N-gramak bakarrik bilatzen dituelako programak.

¹³Euskararen kasuan zerrenda askoz laburragoa da: *eta, edo, ala, ahala*.

| | | | | |
|-------------|----|----|----|--------------------|
| DA_EU.txt | 4 | 88 | 25 | argi eta garbi |
| DAK_EU.txt | | | | |
| DASH_EU.txt | 5 | 86 | 20 | batera eta bestera |
| DBF_EU.txt | 6 | 85 | 24 | gora eta behera |
| DDL_EU.txt | 7 | 62 | 20 | eta bat-batean |
| DEKB_EU.txt | | | | |
| DGM_EU.txt | 8 | 58 | 11 | eta, hala ere |
| DKG_EU.txt | 9 | 57 | 22 | nola edo hala |
| DKT_EU.txt | | | | |
| DKVG_EU.txt | 10 | 57 | 18 | zur eta lur |
| DKVZ_EU.txt | | | | |
| DL_EU.txt | 11 | 55 | 18 | eta hala ere |
| DLT_EU.txt | 12 | 52 | 20 | eta ez zuen |
| DLW_EU.txt | | | | |
| DP_EU.txt | 13 | 46 | 22 | bat edo beste |
| DPGM_EU.txt | 14 | 44 | 19 | eta ez zen |
| DSP_EU.txt | | | | |
| DSW_EU.txt | 15 | 41 | 22 | eta zergatik ez |
| DTS_EU.txt | 16 | 37 | 10 | hara eta hona |
| DTT_EU.txt | | | | |
| DTV_EU.txt | 17 | 36 | 11 | zer edo zer |
| DV_EU.txt | 18 | 35 | 23 | gau eta egun |
| DVZT_EU.txt | | | | |

6.4. figura: euskarazko 3-gramen erauzketa zerrendan oinarrituta

AntConc-ekin lortu dezakegun beste emaitzetako bat *type* eta *token* kopurua denez¹⁴, erraz ikus dezakegu ea alderik dagoen bilaketak hitz-zerrendarekin eta hitz-zerrendarik gabe egitearen artean. Datuak modu argian erakuste aldera, hurrengo taulan *type* eta *token*-ei dagozkien kopuruak bildu ditugu. Lehenengo zutabean, hitz zerrendarik gabe lortutako emaitzak jaso ditugu; bigarrenean, berriz, hitz zerrendarekin lortutakoak, eta, azkenengo zutabean, eskuz erauzitako binomioak bildu ditugu, bigarren zutabeko emaitzetan oinarrituta lortutakoak.

6.2. taula: *Typen eta tokenak*

| | 3-gramak hitz zerrenda gabe | 3-gramak hitz zerrendarekin | Binomioak |
|-------------------|--------------------------------|--------------------------------|-----------|
| <i>Type</i> (JT) | 113.441 | 24.028 | 203 |
| <i>Token</i> (JT) | 385.841 | 85.682 | 1.456 |
| <i>Type</i> (XT) | 56.666 | 4.185 | 253 |
| <i>Token</i> (XT) | 188.300 | 13.831 | 2.563 |

¹⁴6.1 eta 6.2 irudietan ikus daiteke datu hori. *Total No. of N-Gram Types* eta *Total No. of N-Gram Tokens* ondoren, bi zenbaki agertzen dira; hurrenez hurren, *type* eta *token* kopuruak dira.

Taulan argi ikusten den moduan, badago aldea binomioak erauzterako orduan abiapuntu gisa zerrenda bat edo beste hartu. Egia da, kasu honetan, *corpusa* lematizatuta izateak eta bilaketak kategoria gramatikalen arabera egiteko aukera izateak binomioen bilaketa erraztuko lukeela. Baina, ez dugu ahaztu behar gure lehentasuna, *corpusa* lematizatzea baino, *corpusa* sortu eta hori egiteko beharrezko tresneria garatzea izan dela. Gainera, lehen aipatu bezala, seguruena etorkizunean egingo dugun zerbait izango da.

Edozein modutan, baditugu dagoeneko aztergai izan daitezkeen alemanezko 203 binomio-mota desberdin (1.456 guztira) eta euskarazko 253 (2.563 guztira)¹⁵. Edo, hobeto esanda, binomio izan daitezkeenak. Izan ere, batzuetan argi dago zer den binomioa eta zer ez, baina, besteetan, adibide konkretuak testuinguruan aztertu beharko dira. Müllerrek ere dio askotan testuinguruak erabakitzen duela hitz-konbinazioa binomioa den edo ez: “Oft entscheidet erst der Kontext, ob das Wortpaar eine Zwillingsformel ist oder eine bloße Nebeneinanderstellung wie bei der reinen Aufzählung” (2009: 35). Guk, hasiera batean, zalantzazko kasuak ere jaso ditugu.

Erauzitako *token*-kantitate handia dela eta, irizpide kuantitatiboa oinarri hartuta, aztergai izango den lagin adierazgarri bat zehaztea beharrezkoa iruditzen zaigu, bai alemanezko bai euskarazko UFei dagokienez. Horretarako, badago formula estatistikoko bat –beste ikerketan batzuetan ere aplikatu dena (esate baterako, Izquierdo 2012)– lagin adierazgarri baten tamaina zehazteko baliagarri dena:

$$n = \frac{N}{(N - 1)E^2 + 1}$$

N-ari dagokiona, gure kasuan, erauzitako binomioak dira (1.456 alemanaren kasuan eta 2.563 euskararen kasuan), E errore-margina da (% 0,05), eta n lortu nahi dugun lagin adierazgarria. Formularen arabera, 314 alemanezko binomio eta 346 euskarazko binomio erauzi beharko genituzke, lagin adierazgarri batekin lan egin ahal izateko. Behin kopuru hori lortuta –edo, beste modu batera esanda, behin

¹⁵Zerrenda horiek II eta III eranskinetan bildu ditugu.

irizpide kuantitatiboa zehaztuta-, hurrena zein binomio erauzi erabaki behar da, irizpide kualitatiboetan oinarrituta. Izan ere, gure binomioen zerrendan mota desberdinetakoak ditugu, lau azpicorpusetan (HGL ZZ, HGL ZH, HL ZZ eta HL ZH) barreiatuta daudenak, agerraldi kopuru desberdinak dituztenak... Estatistikoki lagin estratifikatu deritzona daukagu.

Aniztasuna bermatze aldera, bi hizkuntzetako binomio zerrendak egituraren arabera taldetan banatu ditugu. Alemanaren kasuan, adibidez, zortzi multzo sortu ditugu (*X und/oder... Y*, *X und/oder X*, *X um/für X*, *X Präp Y*, *X Präp X*, *von X zu X*, *von X bis/auf/zu/nach Y* eta *X wie/als Y*), eta, multzo bakoitzetik, binomio-lagin adierazgarri bat aukeratu dugu, hainbat irizpidetan oinarrituta.

X und/oder... Y egitura duten binomioek osatzen dute talderik handiena (1.070 binomio guztira). Multzo horren kasuan, 6.3 taulan agertzen diren 138 *token*-ak aukeratzeko orduan, bi irizpidetan oinarritu gara. Alde batetik, binomioa osatzen duten elementuen esanahiari begiratu diogu, eta ia sinonimo diren hitzez osatuta daudenak aukeratu ditugu, Touryren *conjoint phrases of near synonyms*-ak, alegia. Bestalde, lotura-hitz gisa *oder* juntagailua duten binomioak aukeratu ditugu.

X und/oder X multzoa 122 binomiok osatzen dute guztira. 6.3 taulan dauzkagun hiru binomio desberdinetatik bi maiztasunaren kriterioan oinarrituta aukeratu ditugu; adierazgarria iruditzen baitzaigu UF bat 16 edo 15 aldiz agertzea. Agerraldi kopuru handiak, gainera, erkaketak egitea ahalbidetzen digu. Bestalde, *so oder so* binomioa egituran oinarrituta hautatu dugu; izan ere, multzo horren barruan, *oder* juntagailua duen binomio bakarra da. Multzo honetatik, orotara, 38 dira aztertuko ditugun binomioak.

51 binomiok osatzen dute zerrendan hurrena agertzen den multzoa (*X um/für X*), eta guk maizen erabiltzen dena (14 aldiz) aukeratu dugu, *Tag für Tag*, hain zuzen.

X Präp Y taldeari dagokionez, hiru binomio desberdinek osatzen dute: zerrendan agertzen diren biak *–ein für allemal* (11 agerraldi)

eta *schwarz auf weiß*¹⁶– eta *Hand*-ekin osatutako somatismo batek (*Hand aufs Herz*). Hirugarren hori dagoeneko aztertu dugunez aurreko ataletan, beste biak aukeratu ditugu. Gainera, *ein für allemal* eta *schwarz auf weiß* maizen agertzen direnak dira.

Hurrengo multzoa 61 binomioz osatuta dago, eta *Arm in Arm* da talde horretan agerraldi gehien duena (26). Horretaz gain, somatismoa ere bada, eta horregatik aukeratu dugu. Irizpide berean oinarrituta aukeratu dugu *von Kopf bis Fuß* (9 agerraldi) binomioa, UF somatikoa ere badelako, alegia.

Azken bi binomioen kasuan (*von Zeit zu Zeit* eta *nach wie vor*), argi dago agerraldi kopuruagatik aukeratu ditugula, bata 49 aldiz eta bestea 25 aldiz agertzen baitira AleuskaPhraseo corpusean.

Honako taula honetan jaso ditugu aztergai izango diren alemanezko 314 binomioak:

6.3. taula: Alemanezko binomioen behin betiko zerrenda

| Binomioak | Maizt. | Egitura | Kriterioa |
|-----------------------|--------|-----------------|-----------|
| mehr oder weniger | 18 | X und/oder... Y | Egitura |
| Art und Weise | 16 | X und/oder... Y | Esanahia |
| einzig und allein | 10 | X und/oder... Y | Esanahia |
| an Ort und Stelle | 8 | X und/oder... Y | Esanahia |
| nie und nimmer | 8 | X und/oder... Y | Esanahia |
| früher oder später | 7 | X und/oder... Y | Egitura |
| fix und fertig | 5 | X und/oder... Y | Esanahia |
| warum und wieso | 5 | X und/oder... Y | Esanahia |
| (über) kurz oder lang | 4 | X und/oder... Y | Egitura |
| hin oder her | 4 | X und/oder... Y | Egitura |
| tief und fest | 4 | X und/oder... Y | Esanahia |
| allem und jedem | 3 | X und/oder... Y | Esanahia |
| dieser oder jener | 3 | X und/oder... Y | Egitura |
| für immer und ewig | 3 | X und/oder... Y | Esanahia |
| Grund und Boden | 3 | X und/oder... Y | Esanahia |

¹⁶Kontuan izan *schwarz auf weiß* binomioak 5 agerraldi dituela AleuskaPhraseo corpusean, II eranskineko taulan ikus daitekeen moduan. Zerrenda honetan, berriz, 4 aldiz agertzen dela jarri dugu, behin ez delako binomio gisa erabiltzen, hitz-konbinazio libre gisa baizik.

| | | | |
|-------------------------|----|-------------------------|------------|
| gut und gern | 3 | X und/oder... Y | Esanahia |
| laut und deutlich | 3 | X und/oder... Y | Esanahia |
| ruhig und gelassen | 3 | X und/oder... Y | Esanahia |
| Ecken und Enden | 2 | X und/oder... Y | Esanahia |
| Ehre und Ruhm | 2 | X und/oder... Y | Esanahia |
| Frieden und Ruh | 2 | X und/oder... Y | Esanahia |
| heil und gesund | 2 | X und/oder... Y | Esanahia |
| Herr und Meister | 2 | X und/oder... Y | Esanahia |
| klar und deutlich | 2 | X und/oder... Y | Esanahia |
| klar und verständlich | 2 | X und/oder... Y | Esanahia |
| Rauch und Qualm | 2 | X und/oder... Y | Esanahia |
| Ruhe und Ordnung | 2 | X und/oder... Y | Esanahia |
| schlicht und einfach | 2 | X und/oder... Y | Esanahia |
| Schutt und Asche | 2 | X und/oder... Y | Esanahia |
| Sitten und Gebräuche | 2 | X und/oder... Y | Esanahia |
| steif und fest | 2 | X und/oder... Y | Esanahia |
| Ziel und Ende | 2 | X und/oder... Y | Esanahia |
| durch und durch | 16 | X und/oder X | Maiztasuna |
| mehr und mehr | 15 | X und/oder X | Maiztasuna |
| so oder so | 7 | X und/oder X | Egitura |
| Tag für Tag | 14 | X um/für X | Maiztasuna |
| ein für allemal | 11 | X Präp Y | Maiztasuna |
| schwarz auf weiß | 4 | X Präp Y | Maiztasuna |
| Arm in Arm | 26 | X Präp X | UF-mota |
| von Kopf bis Fuß | 9 | von X bis/auf/zu/nach Y | UF-mota |
| von Zeit zu Zeit | 49 | von X zu X | Maiztasuna |
| nach wie vor | 25 | X wie/als Y | Maiztasuna |

Euskararen kasuan, irizpide kuantitatiboaren arabera, 346 binomioz osatutako lagina sortu beharko genuke. Binomio horiek aukeratzeko orduan, berdin-berdin jokatu dugu. Lehenik eta behin, hiru multzo osatu ditugu binomioen egituren oinarrituta ($X \text{ eta/edo/ala } Y$, $X \text{ eta/edo/ahala/ala } X \text{ eta } X$ (-) X), eta, ondoren, irizpide kualitatibo jakin batzuk ezarri ondoren, euskarazko binomioen behin betiko zerrenda sortu dugu.

Euskarazko lehenengo binomio-multzoa, $X \text{ eta/edo/ala } Y$ egituren oinarritzen dena, emankorrena da. Orotara, 1.491 binomiok osa-

tzen dute, eta guk horietatik 278 aukeratu ditugu. Hautaketa egiteko erabili ditugun irizpideak bi izan dira: alde batetik, alemanezkoekin egin dugun legez, ia-sinonimo diren hitzez osatuta daudenak aukeratu ditugu, eta, bestalde, maiztasunaren irizpidean oinarrituta, agerraldi dezente dituen beste binomio bat, *zur eta lur*, aztertuko dugu.

Bigarren multzotik $-X$ *eta/edo/ahala/ala* X multzotik, alegia-*kosta ahala* *kosta*-ren aldeko apustua egin dugu. Izan ere, loturazko hitza (*ahala*) beste guztien desberdina da, eta, beraz, binomioa osatzen duten elementuetan oinarrituta egin dugu hautua. Guztira, 301 binomiok osatzen dute talde hau, eta, taulan ikus daitekeen legez, guk 26 aztertuko ditugu.

Hirugarrenik, X (-) X multzotik *dir-dir* (*egin*) binomioa aukeratu dugu, UF-motan oinarrituta, aukeratu ditugun beste binomioak ez bezala, hirugarren multzoko hau onomatopeia delako. Multzoa osatzen duten 771 UFetatik 36 izango dira analizatuko ditugunak.

Orotara, aztertuko ditugun euskarazko binomioak, beraz, honako 340 hauek izango dira.

6.4. taula: Euskarazko binomioen behin betiko zerrenda

| Binomioak | Maizt. | Egitura | Kriterioa |
|------------------------------|--------|-----------------|------------|
| argi eta garbi | 89 | X eta/edo/ala Y | Esanahia |
| zur eta lur | 59 | X eta/edo/ala Y | Maiztasuna |
| nola edo hala | 56 | X eta/edo/ala Y | Egitura |
| estu eta larri | 14 | X eta/edo/ala Y | Esanahia |
| jira eta bira | 12 | X eta/edo/ala Y | Esanahia |
| jaun eta jabe | 9 | X eta/edo/ala Y | Esanahia |
| korrika eta presaka | 8 | X eta/edo/ala Y | Esanahia |
| su eta gar | 9 | X eta/edo/ala Y | Esanahia |
| jira eta buelta | 4 | X eta/edo/ala Y | Esanahia |
| egiaz eta benetan | 2 | X eta/edo/ala Y | Esanahia |
| guztiz eta erabat | 2 | X eta/edo/ala Y | Esanahia |
| jauzika eta itzulipurdika | 2 | X eta/edo/ala Y | Esanahia |
| mesedez eta faborez | 2 | X eta/edo/ala Y | Esanahia |
| oihuka eta garrasika | 2 | X eta/edo/ala Y | Esanahia |
| pozik eta alai | 2 | X eta/edo/ala Y | Esanahia |

| | | | |
|-------------------------|----|-----------------------|----------|
| saltoka eta brinkoka | 2 | X eta/edo/ala Y | Esanahia |
| zalaparta eta iskanbila | 2 | X eta/edo/ala Y | Esanahia |
| zuzen eta bidezkoa | 2 | X eta/edo/ala Y | Esanahia |
| kosta ahala kosta | 26 | X eta/edo/ahala/ala X | Egitura |
| dir-dir | 36 | X (-) X | UF-mota |

4.2.2 atalean zehaztu legez, corpora sortzerakoan egin dugun lanaren ondorioz, gai izango gara binomio horiek guztiak corpusetik erauzteko. Binomioak erauzi eta gero ikusiko dugu nolakoa den horien banaketa AleuskaPhraseo corpusean; hau da, zenbatekoa den azpicorpus bakoitzetik erauzi dugun binomio kopurua, eta ea kopuru hori azpicorpusen tamainekiko proportzionala den.

6.4 U Fen testu-azterketa: emandako pausoak

Lortutako emaitzak –erauzitako UFak, testuingurua barne– Excel taula batean gorde ditugu. Honako datu hauek bildu ditugu sarrera bakoitzeko:

- Kodea (K)
- Jatorrizko UFa, hiztegiko forma (JUF HIZTEGIA)
- Jatorrizko UFa, testuko forma (JUF TESTUA)
- Jatorrizko testu pasartea (DE)
- Zubi-bertsioko testu pasartea (ES)
- Xede-testuko pasartea (EU)
- Xede-testuko UFa, hiztegiko forma (XUF HIZTEGIA)
- Xede-testuko UFa, testuko forma (XUF TESTUA)

- Itzulpen aukera
- Oharrak

Hona hemen adibide bat:

| K | JUF HIZTEGIA | JUF TESTUA | DE | EU | XUF HIZTEGIA | XUF TESTUA | ITZULPEN AUKERA | OHARRAK |
|-----|--|--|---|---|--|------------|------------------|---|
| BUS | für jmdn/etwas die/seine Hand/Hände ins Feuer legen | FÜR ETWAS DIE HAND INS FEUER LEGEN | Auch sie hätten, wenn sie in unsere Lage gekommen wären, um kein Haar anders gehandelt. Dafür lege ich die Hand ins Feuer. | Gure egoeran aurkitu izan balira, guk bezala, berdin-berdin, jokatuko zuten. Eskua sutan jarriko nuke! | Ez da jasotzen. Jasotzen dena: lepoa egin, burdina gorria eskuetan hartu | | UF→kopila zuzena | OEH: ez; XKECE: ez; Prentsa: 22; J: 1; t5; Goenkale: 17; poner la(s) mano(s) en el fuego por alg (Schemann) |

6.5. figura: Nola antolatu ditugun bilatzailetik erauzitako emaitzak Excel baliatuz

4.2.2.4 atalean aipatu bezala, corpusaz gain corpus horretan bilaketak egiteko kontsulta-tresna garatu du informatikariak, eta, horri esker, corpusetik UFak erauzteko gai gara. Bilatzaile horretatik Excel taulara zuzenean esportatzen ditugun datuak honako hauek dira: liburuaren kodea, jatorrizko testu pasartea alemanez, zubi-bertsioiko testua gaztelaniaz –ustez zeharka itzulitakoa bada– eta xede-testuko pasartea euskaraz.

Bai jatorrizko bai xede-UFen kasuan, bestalde, hiztegiko eta testuko formak bereizi ditugu. Horren helburua UFek testuetan izan ditzaketen aldaera ezberdinak jasotzea da. Euskarari dagokionez, dagoeneko aipatu dugu Aierberen (2008) lana. Ikertzailearen arabera, aldakortasuna edo finkotasun gabezia euskararen eta euskal fraseologiaren ezaugarria da, bai hizkuntza estandarri bai hizkuntza espezializatuari dagokionez. Ikusteko dago alemanetik euskarara itzulitako literatur testuetatik erauzitako UFetan ere fenomeno bera gertatzen den.

Itzulpen aukerei dagokionez, lehenago (ikusi 2.3.3) aipatu ditugun aukera nagusietan oinarritu garen arren, itzulpen-azterketari ekin diogunean, guk ere eskema gure beharretara moldatu behar dugula

ohartu gara berehala. Hauexek dira aurkitu ditugun itzulpen auke-
rak:

- $UF \Rightarrow$ *antzeko UFa*
- $UF \Rightarrow UF$ *desberdina*
- $UF \Rightarrow UFrik$ *ez*
- $UF \Rightarrow$ *kopia zuzena*
- $UF \Rightarrow$ *zeharkako kopia*
- $UF \Rightarrow$ *beste baliabide erretoriko bat*
- $UF \Rightarrow \emptyset$
- $UF \Rightarrow UF$
- $UFrik$ *ez* $\Rightarrow UF$
- $UFrik$ *ez* \Rightarrow *zeharkako kopia*
- $\emptyset \Rightarrow UF$

Gure zerrenda besteetatik desberdintzen duena, funtsean, *zehir-
kako kopia* aukera da. Adibide baten bidez azalduko dugu zergatik
iruditu zaigun beharrezkoa, gure kasuan, kopia zuzen eta zeharkako
kopien arteko bereizketa egitea.

6.5. taula: Zuzeneko eta zeharkako kopiak bereizteko adibideak

| | Sorburu-testua | Xede-testua | Itzulpen aukera |
|---|---|---|--|
| 1 | Kinder muss man so lange an der Hand führen , bis sie den rechten Weg genau kennen!?. (DAKde) | Haurrak eskutik gidatu behar dira harik eta bide zuzena berezteko gai diren arte. (DAKeu) | $UF \Rightarrow$ <i>zuzeneko kopia</i> |

| | | | |
|---|--|--|------------------------------------|
| 2 | Kann jedem mal passieren, daß ihm die Hand ausrutscht , wenn er in Rasche ist". (BAde) | Edonori gertatzen zaiok, amorrázita dagoenean eskuak alde egitea ". (BAeu) | <i>UF</i> ⇒ <i>zeharkako kopia</i> |
|---|--|--|------------------------------------|

6.5 taulako adibideak ustez zuzenean itzultitako liburuetatik erauzi ditugu. Lehen adibidean, *an der Hand führen* UF alemana daukagu, zeinak ‘norbait eskutik eraman’ esan nahi duen, zentzu fraseologikoan¹⁷. Hitzez hitz, berriz, ‘norbait eskutik gidatu’ esan nahi du, eta, horrela, hitzez hitz itzuli da euskarara. Euskarazko hitz-konbinazio hori ohikoa den ala ez ikuste aldera, ETC corpusean egin dugu kontsulta. Bi agerraldi besterik ez ditugu aurkitu: bata Goenkale telesaileko corpusean, eta bestea itzultitako testu batean. Hori dela eta, ezohiko hitz-konbinazio gisa ere markatu dugu.

Bigarren kasuan, berriz, *jmdm rutscht die Hand aus* alemanezko UFak ‘eskuak irrist egin’ esan nahi du hitzez hitz, eta esanahi fraseologikoa ‘norbaiti belarrondoko bat ematea’ litzateke. Euskaraz, *eskuak alde egin* erabili du itzultzaileak, gaztelaniazko UF baten (*escapársele a alguien la mano*, María Moliner; *escapársele/írsele a alguien la mano*, Schemann) oso antzekoa den hitz-konbinazioa, alegia. Iruditzen zaigu, beraz, horrelako kasuetan, jatorrizko testuko interferentzia baino, zeharkako testu baten interferentzia dagoela. Kasu horiek zeharkako kopia gisa markatu ditugu.

Beraz, ustez zuzenean itzultitako bi testu hauen kasuan, bi interferentzia-mota desberdinen aurrean gaude: alde batetik, lehenengo adibidean, jatorrizko testuaren interferentzia izango genuke, testu-interferentzia, alegia. Eta, bigarrenean, berriz, itzultzailearen buruan dagoen beste hizkuntza baten interferentzia daukagu, nolabaiteko interferentzia kognitiboa, alegia. Hala ere, corpuseko datuetan oinarrituta ezin dugu ziur jakin zeharkako kopien kasuan itzultzai-

¹⁷Schemann-en hiztegi elebidunaren arabera, gaztelaniazko baliokidea *llevar a un niño/a un enfermo... de la mano* litzateke.

leak gaztelaniazko bertsioa ere kontsultatu duen, eta, beraz, jatorrizko konpilatu baten aurrean gauden. Horrela balitz, interferentzia ez litzateke kognitiboa izango, testuala baizik.

Excel taulara bueltatuz, azken zutabeen oharrak daude. Bertan, batez ere euskarazko corpus elebakarretan eta euskarazko hiztegieta egindako bilaketen emaitzak bildu ditugu, kontsulta egitea beharrezkoa iruditu zaigun kasuetan betiere. Aurretik aipatu dugun moduan, alde batetik, OEH eta XXECE corpusetan egin ditugu bilaketak, kasuan-kasuan aztertu dugun UFak tradizioz duen ikuste aldera. Bestalde, hitz-konbinazioak gaur egun nola erabiltzen diren aztertzeko, ETC corpusera jo dugu. Tresna horrek, gainera, 3.2.3.1 azpiatalean ikusi bezala, aukera ematen du bilaketen emaitzak irizpide desberdinen arabera sailkatzeko. Guk *jatorrizkoa/itzulpena* etiketei erreparatu diegu bereziki. Jatorrizkoen multzoa, hitzak berak dioen moduan, jatorriz euskaraz idatzitako testuz osatuta dago. Literatur testuak dira atal honetan gailentzen direnak, baina, esate baterako, Goenkaleko elkarriketek ere jatorrizko etiketa daramate. Beraz, bilaketen emaitzak aztertzerako orduan, desberdindu egin ditugu literatur testuak eta telebistakoak. Bestalde, itzulpenek osatzen duten azpicorpusaz gain, badago beste bat ‘neutro’ gisa definitzen dena. Batez ere, prentsako testuz osatuta dago, baina, esate baterako, Wikipediako testuak ere jasotzen dira. Azken horiek ez ditugu kontuan hartu.

6.5 Somatismoen azterketa JTetan

Atal honetan, lehenik eta behin, jatorrizko testuetan oinarritutako azterketa egingo dugu, eta ondoren helduko diogu itzulpen-azterketari. Horretarako, datu orokorrak analizatuko ditugu, alde batetik, eta bestalde, itzulpen aukerak ikusiko ditugu banan-banan.

6.5.1 Jatorrizko testuetan oinarritutako azterketa

Zenbakiei erreparatzen badiegu, AleuskaPhraseo corpusean dauden *Hand* hitzaren 2.664 aldaera horietatik 302 UF (*token*) erauzi ditugu guztira; horien artean, 71 UF desberdin (*type*) daude.

Analisian abiatu aurretik esan daiteke HLko testuetan UF trinkotasuna handiagoa dela HGLko testuetan baino; HGLan, *Hand* hitza 1.118 aldiz agertzen da, eta 99 izan dira identifikatu ditugun UFak (beraz, % 8,85 da UF); HLAN, berriz, 1.546 hitz ditugu, eta 203 UF erauzi ditugu (% 13,13 da UF). Helduen literaturan UF gehiago aurkitu izanaren arrazoietako bat izan daiteke testu-mota horietan hizkuntzaren erabilera konplexuagoa dela. Hala ere, ez dugu ahaztu behar somatismo-mota jakin bat bakarrik aztertu dugula, eta interesgarria dela beste UF batzuk ere analizatzea, aurrerago egingo dugun moduan, emaitzak alderatu ahal izateko.

Erauzitako UFak AleuskaPhraseo corpora osatzen duten lau azpicorpusetan nola banatzen diren ikusteko, hurrengo taula prestatu dugu. Izan ere, 4.3 atalean ikusi bezala, azpicorpus batzuk beste batzuk baino handiagoak dira, eta zentzuzkoa litzateke azpicorpus handiagoetan UF kopuru handiagoa aurkitzea. Horregatik, bi balore jaso ditugu: alde batetik, bigarren eta hirugarren zutabeetan, erauzi dugun somatismo kopurua jaso dugu, balore absolutua eta portzentajea, eta, azken zutabeetan, berriz, corpus 2ko egituren oinarrituta, azpicorpus bakoitzaren portzentajeak, 4.13 taulan jaso ditugunak, alegia.

6.6. taula: Erauzitako binomioen banaketa corpusean

| | UF kopurua | Portzentajea | Corpus 2 |
|--------|------------|--------------|----------|
| HGL ZZ | 58 | % 19,21 | % 22,93 |
| HGL ZH | 41 | % 13,58 | % 13,14 |
| HL ZZ | 167 | % 55,30 | % 48,42 |
| HL ZH | 36 | % 11,92 | % 15,52 |

HL ZZ azpicorpusetik erauzi dugu somatismo gehien, eta, oro har, HLko testuetan *Hand*-ekin osatutako somatismo gehiago aurkitu dugula esan daiteke, HGLko testuetan baino. Esan bezala, hizkuntza konplexuagoaren adierazle izan daiteke hori.

Hurrengo taulan ikus daiteke zein testutan dagoen UF dentsitate handiena, testu bakoitzeko *Hand*-en agerraldi kopurua kontuan hartuz. Atentzioa eman digute Kästnerren testuek. Izan ere, gure corpuseko autore horren liburuetatik erauzitako UF kopurua, *Hand* hitzaren agerraldi kopurua kontuan hartuta, nahiko altua da. Gure emaitza horrek berretsi egingo luke Richter-Vapaatalok bere doktoresian ondorioztatutakoa: “Ebenso wird es deutlich, dass Kästners Kinderbücher insofern außergewöhnlich sind, als in ihnen nicht nur erheblich mehr Phraseologie auftritt als bei den meisten anderen Autoren (ausgenommen vielleicht Preußler), (...)” (2007: 297). Ikertzaileak bi corpus txiki sortu zituen: batean, Kästnerren testuak bildu zituen, eta, bestean, egile desberdinenak (Preußler, Ende, Nöstlinger, Maar, Boie eta Funke). Fraseologismoak erauzten ditu guztietatik, eta bukaeran dio beste egileekin alderatuta, Kästnerren liburuetan ohikoa dena baino UF gehiago erabiltzen direla. Norbaitekin alderatzekotan Preußlerrekin alderatu daitekeela bakarrik. Gure corpusean ere, Preußlerren liburu bat, BUS, zerrendaren goialdean kokatzen da.


6.7. taula: Testu bakoitzeko *Hand* hitz eta UF kopurua

| Kodea | UF | <i>Hand</i> | Ehunekoa | Testua | Jat. egilea |
|-------------|----|-------------|----------|--------|----------------|
| DKT | 2 | 3 | 66,67 | HGL | Kästner |
| GHK | 2 | 3 | 66,67 | HL | Brecht |
| DEKB | 7 | 15 | 46,67 | HL | Böll |
| ED | 9 | 27 | 33,33 | HGL | Kästner |
| BUS | 7 | 21 | 33,33 | HGL | Preußler |
| DTT | 11 | 35 | 31,43 | HL | Grass |
| PA | 17 | 58 | 29,31 | HGL | Kästner |
| DZW | 1 | 4 | 25,00 | HGL | Ende |
| BLA | 6 | 25 | 24,00 | HGL | Härtling |
| DLW | 13 | 56 | 23,21 | HL | Goethe |
| DDL | 11 | 50 | 22,00 | HGL | Kästner |
| JG | 11 | 52 | 21,15 | HL | Walser |

| | | | | | |
|-------------|----|-----|-------|-----|-------------|
| BM | 13 | 70 | 18,57 | HL | Roth |
| SLH | 2 | 11 | 18,18 | HGL | Sommer-Bod. |
| DWV | 11 | 61 | 18,03 | HL | Goethe |
| LD | 8 | 51 | 15,69 | HGL | Härtling |
| DSW | 10 | 67 | 14,93 | HL | Hesse |
| BA | 35 | 249 | 14,06 | HL | Döblin |
| DVZT | 6 | 45 | 13,33 | HL | Musil |
| EL | 5 | 38 | 13,16 | HGL | Arold |
| AC | 13 | 100 | 13,00 | HL | Böll |
| DTS | 15 | 116 | 12,93 | HL | Schnitzler |
| DAK | 2 | 17 | 11,76 | HGL | Nöstlinger |
| DPGM | 8 | 75 | 10,67 | HL | Süskind |
| HF | 9 | 86 | 10,47 | HL | Frisch |
| DA | 9 | 86 | 10,47 | HL | Werfel |
| DP | 19 | 186 | 10,22 | HL | Kafka |
| DKG | 1 | 11 | 9,09 | HGL | Preußler |
| DTV | 3 | 36 | 8,33 | HL | Mann |
| JV | 3 | 37 | 8,11 | HGL | Masanek |
| DKVG | 2 | 26 | 7,69 | HGL | Sommer-Bod. |
| KM | 4 | 54 | 7,41 | HL | Grass |
| DKVZ | 2 | 27 | 7,41 | HGL | Sommer-Bod. |
| SN | 2 | 29 | 6,90 | HL | Zweig |
| DV | 2 | 38 | 5,26 | HL | Kafka |
| TH | 15 | 307 | 4,89 | HGL | Funke |
| GG | 1 | 31 | 3,23 | HGL | Brezina |
| RSF | 3 | 153 | 1,96 | HGL | Funke |
| DASH | 2 | 175 | 1,14 | HGL | Press |
| DBF | 0 | 44 | 0,00 | HL | Zelik |
| HLJ | 0 | 29 | 0,00 | HGL | Knister |
| BU | 0 | 22 | 0,00 | HL | Zweig |
| DLT | 0 | 12 | 0,00 | HL | Roth |
| DGM | 0 | 10 | 0,00 | HGL | Ende |
| DL | 0 | 9 | 0,00 | HL | Roth |
| MM | 0 | 3 | 0,00 | HGL | Busch |
| DPS | 0 | 2 | 0,00 | HGL | Funke |
| LODS | 0 | 2 | 0,00 | HGL | Nöstlinger |

Testu bakoitzean *Hand* hitza eta bere eratorriak zenbat aldiz agertzen diren jakiteko, *Antconc* programako *Concordance Plot* aukera

erabili dugu. Bilatu nahi ditugun hitzak sartu eta gero¹⁸, programak testu bakoitzean dagoen hitz kopurua ematen digu segundu gutxiren buruan, eta nahi izanez gero, hitzok testuaren zein zatitan agertzen diren ere jakin daiteke. Hurrengo irudian ikus daiteke nola jasotzen dugun informazio hori *Antconc* programaren bidez:



6.6. figura: *Antconc*-eko *Concordance Plot* aukera

Ezkerreko zutabean, AleuskaPhraseo corpuseko jatorrizko testuak ikus daitezke; eskuinekoan, testu bakoitzean dagoen hitz kopurua (*number of hits*) eta hitz horiek testuan nola banatzen diren ikus dezakegu; beheko aldean, gainera, guztira lortutako agerraldi kopurua ematen digu programak. Esate baterako, BA eta DASH liburuetan, askotan agertzen da *Hand* hitza (eta bere eratorriak). Azken horren kasuan ez da harritzekoa, *Eskubeltz taldearen abenturak* liburuan maiz agertzen baita *esku* hitza, bai jatorrizkoan, bai xede-testuan.

Azterketarekin jarraituz, 6.8 taulan, erauzitako somatismo guztiak jaso ditugu, eta agerpen-maiztasunaren arabera sailkatu. Aipatu

¹⁸Kasu honetan: *Hand, Hände, Händchen, Händen*.

bezala, UFen hiztegiko forma jasotze aldera, hiru hiztegi kontsultatu ditugu: Duden 11, Schemannen hiztegia eta Duden Stilwörterbuch. Jaso ditugun 71 UF somatiko desberdin horietatik, 67 agertzen dira Schemannen, eta 46, berriz, Duden 11 hiztegian. Schemannen agertzen ez diren laurak honako hauek dira: *besser einen/den Spatz in der Hand, als eine/die Taube auf dem Dach, die Beine in die Hand nehmen, Hände weg!* eta *jede Hand brauchen*.

Lehena esaera zaharra da, eta Duden 11 hiztegian, esate baterako, jasotzen da. Bigarrena lokuzio bat da, eta arraroa iruditzen zaigu Schemannek ez jasotzea. Hirugarrena ez da Duden 11 hiztegian ere jasotzen, baina bai estilo hiztegian. Eta azkena ez da kontsultatu ditugun hiztegietan agertzen, baina DeReKo corpusean bilaketa egin dugu, eta, agerpen kopuru altua kontuan hartuta, jasotzea erabaki dugu¹⁹.

Taulan ikus daitekeen moduan, gehien erabiltzen direnak –hau da, zerrendaren goialdean kokatzen direnak– kolokazio izatetik gertuago dauden UF horiek dira.

6.8. taula: Jatorrizko testuetatik erauzitako UFak eta horien agerraldi kopurua

| | UF | HGL | HL | Guztira |
|--|----|-----|----|---------|
| jmdm die Hand (zur Versöhnung/(...)) geben | 23 | 24 | 47 | |
| jmdm die Hand (zur Versöhnung/(...)) reichen | 3 | 33 | 36 | |
| jmdm Geld/... in die Hand drücken | 18 | 7 | 25 | |
| jmdm die Hand drücken | 6 | 12 | 18 | |
| sich/jmdm die Hand/Hände schütteln | 7 | 9 | 16 | |
| sich (vor Vergnügen/Schadenfreude/... Kälte/.../zufrieden/...) die Hände reiben | 8 | 4 | 12 | |
| jmdm in die Hand/in die Hände fallen/kommen | 3 | 6 | 9 | |
| etwas/jmdn (fest) in der Hand haben | 3 | 5 | 8 | |

¹⁹Duden 11 hiztegiari dagokionez, jasotzen duen UF kopurua txikiagoa da, alde batetik, kolokazioak ez direlako jasotzen, eta, bestalde, iruditzen zaigu gar-denak diren UF asko eta asko (*in falsche Hände geraten, jmdm die Hand bieten...*) ez dituela *Redewendung* gisa identifikatzen.

| | | | |
|---|---|---|---|
| Hand in Hand gehen mit etw | | 8 | 8 |
| Händchen halten | 1 | 5 | 6 |
| Hand darauf/dadrauf/auf das/ein | 1 | 4 | 5 |
| Versprechen/... geben | | | |
| die Hände ringen | 5 | | 5 |
| zur Hand sein | | 5 | 5 |
| unter der Hand | | 5 | 5 |
| (jmdm) [schwer/leicht/gut/flott] von der | | 4 | 4 |
| Hand gehen | | | |
| ...rechter/zur rechten Hand | | 4 | 4 |
| (selbst) (mit) Hand anlegen (bei etw) | 3 | | 3 |
| ...linker/zur linken Hand | 3 | | 3 |
| alle/beide Hände voll zu tun haben (mit etw) | 1 | 2 | 3 |
| die Hände über dem Kopf zusammenschlagen | 1 | 2 | 3 |
| etw (nicht) (mehr) aus der Hand geben | 1 | 2 | 3 |
| etw/die Sache/.../(die Leitung) (selbst/...) in | | 3 | 3 |
| die Hand/in seine Hände nehmen | | | |
| freie Hand haben | | 3 | 3 |
| Hand aufs Herz! | | 3 | 3 |
| jmdm (das Glück/...) aus der Hand lesen | | 3 | 3 |
| mit Herz und Hand dabei/bei einer Sache | | 3 | 3 |
| sein | | | |
| rasch/schnell/sofort/... mit | | 3 | 3 |
| Erklärungen/.../mit hilfreichen | | | |
| Maßnahmen/... bei der Hand sein | | | |
| seine/die [schützende oder helfende] Hand | | 3 | 3 |
| über jmdn/(seltener:) über jmdm halten | | | |
| (klar/(glatt)) auf der Hand liegen | | 3 | 3 |
| bei etw seine/(die) Hände (mit) im Spiel | | 2 | 2 |
| haben | | | |
| für jmdn/etwas die/seine Hand/Hände ins | | 2 | 2 |
| Feuer legen | | | |
| in jmds Hand/Händen liegen/stehen | | 2 | 2 |
| jmdm (ein wenig/...) zur Hand gehen | | 2 | 2 |
| jmdm etw/(die Leitung/...) aus der Hand | | 2 | 2 |
| nehmen | | | |
| jmdm etwas in die Hand/in die Hände spielen | | 2 | 2 |
| sich mit Händen und Füßen gegen etw | | 2 | 2 |
| sträuben/wehren | | | |
| von Hand zu Hand gehen | | 2 | 2 |
| (die) letzte Hand an etw legen | 1 | | 1 |

| | | |
|---|----|---------|
| (es ist besser/...) die Hände davon (zu) lassen | 1 | 1 |
| an der Hand führen | 1 | 1 |
| besser einen/den Spatz in der hand, als eine/die Taube auf dem Dach | 1 | 1 |
| die Beine in die Hand nehmen | 1 | 1 |
| die Hände in de Hüfte(n) stemmen | 1 | 1 |
| durch viele Hände gehen | 1 | 1 |
| eine feste Hand brauchen | 1 | 1 |
| eine gute/schöne Hand schreiben | 1 | 1 |
| etw bei der Hand haben | 1 | 1 |
| etw fest in der Hand halten | 1 | 1 |
| etw von langer Hand planen/vorbereiten | 1 | 1 |
| durch js Hand /Hände gehen | 1 | 1 |
| etw zur Hand haben | 1 | 1 |
| freie Hand lassen | 1 | 1 |
| Hand an sich legen | 1 | 1 |
| Hand und Fuß haben | 1 | 1 |
| Hände weg! | 1 | 1 |
| in falsche/(unrechte) Hände geraten/kommen | 1 | 1 |
| in guten/schlechten Händen sein/liegen | 1 | 1 |
| in jmds Hand/Händen sein | 1 | 1 |
| in schlechte Hände geraten/kommen | 1 | 1 |
| jede Hand brauchen | 1 | 1 |
| jmdm (ein wenig/...) an die Hand gehen | 1 | 1 |
| jmdm die Hand (zur Versöhnung/(...)) bieten | 1 | 1 |
| jmdm rutscht die Hand aus; jmds Hand rutscht aus | 1 | 1 |
| jmdm sind die Hände/Hände und Füße gebunden | 1 | 1 |
| jmds Schicksal/weiterer Lebensweg/... ist (ganz/...) in js Hand gegeben | 1 | 1 |
| mit (den) Händen zu greifen sein | 1 | 1 |
| mit leeren Händen | 1 | 1 |
| mit vollen Händen sein Geld ausgeben/schenken/(geben)/... | 1 | 1 |
| um jmds Hand anhalten | 1 | 1 |
| um jmds Hand bitten | 1 | 1 |
| von jmds Hand | 1 | 1 |
| Total | 99 | 203 302 |

6.5.2 Itzulpen-azterketa: datu orokorrak

Adibide konkretuen azterketari heldu aurretik, datu orokorrak aurkeztuko ditugu. Horretarako, bi taula prestatu ditugu; 6.9 taulan, balore absolutuak jaso ditugu, eta 6.10 taulan, berriz, portzentajeak.

6.9. taula: Itzulpen aukeren balore absolutuak

| | HGL ZZ | HL ZZ | HGL ZH | HL ZH | Guztira |
|------------------------|--------|-------|--------|-------|---------|
| UF⇒UF antzekoa | 9 | 52 | 3 | 14 | 78 |
| UF⇒UF desberdina | 17 | 55 | 24 | 11 | 107 |
| UF⇒UF ez | 21 | 39 | 5 | 7 | 72 |
| UF⇒kopia zuzena | 5 | 16 | 6 | 2 | 29 |
| UF⇒zeharkako kopia | 6 | 4 | 3 | 1 | 14 |
| UF⇒beste baliabide bat | 0 | 1 | 0 | 0 | 1 |
| UF⇒∅ | 0 | 0 | 0 | 1 | 1 |
| Guztira | 58 | 167 | 41 | 36 | 302 |

6.10. taula: Itzulpen aukeren ehunekoetako banaketa

| | HGL ZZ | HL ZZ | HGL ZH | HL ZH | Guztira |
|------------------------|--------|--------|--------|--------|---------|
| UF⇒UF antzekoa | 15,52 | 31,14 | 7,32 | 38,89 | 25,83 |
| UF⇒UF desberdina | 29,31 | 32,93 | 58,54 | 30,56 | 35,43 |
| UF⇒UF ez | 36,21 | 23,35 | 12,20 | 19,44 | 23,84 |
| UF⇒kopia zuzena | 8,62 | 9,58 | 14,63 | 5,56 | 9,60 |
| UF⇒zeharkako kopia | 10,34 | 2,40 | 7,32 | 2,78 | 4,64 |
| UF⇒beste baliabide bat | 0,00 | 0,60 | 0,00 | 0,00 | 0,33 |
| UF⇒∅ | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 2,78 | 0,33 |
| Guztira | 100,00 | 100,00 | 100,00 | 100,00 | 100,00 |

Ikus daitekeen moduan, oro har, UF bat beste UF baten bidez –izan antzekoa edo desberdina– itzultzeko aukera (% 61,26) gailentzen da. Ondoren, nabarmendu daiteke % 23,84koa dela xede-testuan UFrik erabili ez den kasuen portzentajea. Hirugarren lekuan kopiak ditugu –izan zuzeneko nahiz zeharkakoak. Kasuen % 14,24k kopia bidez itzuli du jatorrizko testuko UFa. Beste ikerketa batzuekin al-

deratuta (Marcozen kasuan, adibidez, portzentajea nabarmen baxua-go da, % 0,39), kopuru hori adierazgarria iruditzen zaigu. Azkenik, beste baliabide erretoriko bat erabiltzea edo omisio bidezko itzulpena kasu bakan batzuetan besterik ez da gertatzen.

Honako taula honetan, berariaz begiratuko diogu HGL eta HLaren arteko aldeari.

6.11. taula: Itzulpen aukeren ehunekoetako banaketa, testu-mota kontuan hartuta

| | HGL | HL |
|------------------------|--------|--------|
| UF⇒UF antzekoa | 12,12 | 32,51 |
| UF⇒UF desberdina | 41,41 | 32,51 |
| UF⇒UF ez | 26,26 | 22,66 |
| UF⇒kopia zuzena | 11,11 | 8,87 |
| UF⇒zeharkako kopia | 9,09 | 2,46 |
| UF⇒beste baliabide bat | 0,00 | 0,49 |
| UF⇒∅ | 0,00 | 0,49 |
| Guztira | 100,00 | 100,00 |

6.11 taulan, HGLaren eta HLaren arteko erkaketaren emaitzak bildu ditugu. Zenbakiei erreparatu eta gero, bi dira aipatu nahi genituzkeen kontuak. Alde batetik, HGLko testuetan UF bidezko itzulpenen ehunekoa (% 53,53) HLko testuetakoa baino (% 65,02) txikiagoa da; hau da, zenbaki gordinei erreparatuz gero, HLan neurri handiagoan gordetzen da jatorrizko testuen izaera fraseologikoa. Beraz, ondorioztatu daiteke testu-motaren estatusak eta hartzaile-motak eragina izan dezaketela fraseologiaren erabileran. Kasu honetan, esate baterako, HLko testuek prestigio handiagoa izateak eta publiko helduago bati zuzenduta egoteak unitate fraseologikoak HGLan baino neurri handiagoan erabiltzea eragin dezakete.

Bestalde, HGLan hitzez-hitzezko itzulpen gehiago dago (% 20,2) HLan baino (% 11,33). Kopiek interferentziaren adierazle gisa funtziona badezakete, argudia daiteke interferentzia gehiago “onartzen” dela HGLko testuen itzulpenean HLkoan baino.

Zuzenean eta zeharka itzuli diren testuen kasuan, datu deigarri bat aurkitu dugu, 6.12 taulan ikus daitekeen moduan: zeharkako testuetan UF bidezko itzulpenen portzentajea (% 67,53) handiagoa da zuzenean itzulitako testuetan baino (% 59,11). Zeharkako testuetako xede-UF horiek, bestalde, UF desberdinak izan ohi dira bereziki (% 45,45), zuzenekoetan baino proportzio handiagoan (% 32,00). Ez dugu ahaztu behar, euskarazko xede-testuak zeharka, zubi-bertsio batetik abiatuta, itzuli arren, alderatu ditugunak alemanezko eta euskarazko testuak direla, eta gaztelaniazko testuan UFa agertu edo ez agertzeak eragina izango duela euskarazko bertsioan, eta gure emaitzetan.

Datu horietan oinarrituta, beraz, ondorioztatu daiteke zeharkako testuetan, UFen erabileraren bitartez, xede-testuetan konplexutasun fraseologikoa gordetzeko ahalegina nabarmenagoa dela; beharbada, jatorrizkotik zuzenean itzuli ez izana konpentsatzeko ahaleginetan.

6.12. taula: Itzulpen aukeren ehunekoetako banaketa, itzulpen modua kontuan hartuta

| | ZZ | ZH |
|------------------------|--------|--------|
| UF⇒UF antzekoa | 27,11 | 22,08 |
| UF⇒UF desberdina | 32,00 | 45,45 |
| UF⇒UF ez | 26,67 | 15,58 |
| UF⇒kopia zuzena | 9,33 | 10,39 |
| UF⇒zeharkako kopia | 4,44 | 5,19 |
| UF⇒beste baliabide bat | 0,44 | 0,00 |
| UF⇒∅ | 0,00 | 1,30 |
| Guztira | 100,00 | 100,00 |

6.5.3 Itzulpen aukerak banan-banan

6.5.3.1 UF⇒antzeko UFa

Aurreko ataleko grafikoan ikusi dugun moduan, jatorrizko UFen % 25 inguru itzuli da UF antzeko baten bidez euskarara. COVALT ikerketa taldeko kideen emaitzekin alderatuz gero, bai alemana-katalana

bai ingelesa-katalana hizkuntza-konbinazioan, portzentaje altuagoak aurkitu ditugu. **Marcok** dio ez dela harritzekoa ingelesa eta katalana bezalako hizkuntzen kasuan UF antzeko asko aurkitzea:

“Tenint en compte, d’una banda, que les llengües que ens ocupen ací són llengües europees amb un bagatge històric i cultural parcialment compartit, i d’una altra banda que l’estudi se centra en els somatismes i que l’experiència del cos és compartida per tota la humanita, no és estrany que l’anàlisi del corpus ens fornesca molts exemple de similitud entre segment del TO i segment del TM per causa de la coincidència sistèmica o isomorfisme de l’anglès i el català” (2013: 192).

Gure kasuan, agian, alemana eta euskararen isomorfia maila, *Hand* eta *esku*-rekin sortutako UFei dagokienez behinik behin, txikiagoa da, beste hizkuntzetan aurki daitekeenarekin alderatuz gero.

Horretaz gain, UF bat beste UF antzeko baten bidez itzuli diren 78 kasuetatik ia % 70 honako UF zinetiko hauek osatzen dute: *jmdm die Hand geben* = *eskua eman*, *jmdm die Hand drücken* = *eskua estutu* eta *jmdm die Hand reichen/hinreichen* = *eskua luzatu*.

6.13. taula: *Eskua eman, eskua estutu, eskua luzatu*

| | | |
|---|--|---|
| 1 | “Jetzt hab ich ihm nicht einmal die Hand zum Abschied gegeben ”, sagte ich zur Mama. (DAKde) | – Despeditzeko eskua eman ere ez diot egin -esan nion amari. (DAKeu) |
| 2 | knieend nahm er von Ottilien, mit einem herzlichen Haendedruck von Nanny Abschied (...) (DWVde) | belauniko esan zion adio Ottiliari eta bihotzez eskua estutuz Nannyri (...) (DWVeu) |
| 3 | “Nun”, sagte der Geistliche, und reichte K die Hand , “dann geh”. (DPde) | –Tira –esan zuen apaizak, Kri eskua luzatuz –, zoaz bada. (DPeu) |

Kasu horietan guztietan, esanahia eta osagaiak berdinak direnez jatorrizko eta xede-UFetan, UF antzekotzat jo ditugu.

Zeharkako itzulpenetan, oro har (11 kasutan), alemanezko UFa beste UF antzeko baten bidez itzuli da gaztelaniara, eta gaztelaniazko UF hori, era berean, euskaraz, beste UF antzeko batekin itzuli da. Joera hori den arren, hiru salbuespen aurkitu ditugu HLko testuetan, non euskarazko UFa alemanezkoaren antzekoa baina gaztelaniazkoaren desberdina den. Ikus dezagun adibide bat:

6.14. taula: Zeharkako itzulpena: *jmdm die Hand reichen, dar la mano, eskua luzatu*

| | | |
|---|---|--|
| Gestern, als ich wegging, reichte sie mir die Hand und sagte: “Adieu, lieber Werther!”. (DLWde) | Ayer, cuando me retiraba, me dio la mano , diciéndome: “Buenas tardes, querido Werther”. (DLWes) | Atzo, banindoala, eskua luzatu zidaan , honelaxe esan zidala: “Gau on, Werther maitea”. (DLWeu) |
|---|---|--|

Adibide horretan, alemaneko *jmdm die Hand reichen, dar la mano a alguien*-en bidez itzultzen da. UF desberdin gisa markatu ditugu aditza –eta, beraz, osagai lexiko bat– desberdina delako. Euskaraz, berriz, *eskua luzatu* erabiltzen da, eta, horrela, euskarazko UFak alemanezkoak dituen osagaiak berdinak ditu.

Hala ere, kontuan izan behar dugu jatorrizko UF zinetiko horiek ez direla beti UF antzeko baten bidez itzuli, hurrengo atalean (ikus 6.5.3.2) ikusiko dugun moduan.

Antzeko UF bidez itzuli den beste % 30aren kasuan, honako 13 UF desberdin hauek aurkitu ditugu: *von Hand zu Hand gehen, eskuz esku; jmdm in die Hände fallen, norbaiten eskuetan erori; in jmds Hand sein, norbaiten eskuetan egon; in guten Händen sein, esku onetan egon; mit leeren Händen sein, esku hutsik; jmdm aus der Hand lesen, eskua irakurri; etwas in der Hand haben, norbaitek zerbait bere esku/eskuetan izan; von jmds Hand, norbaiten eskuz; zur Hand sein, eskura izan; jmdm sind die Hände gebungen, eskuak lotuta bukatu;*

unter der Hand, eskupetik; bei der Hand sein, eskura izan eta in jmds Hand liegen, norbaiten esku egon. Honako taula honetan zuzenean itzulitako adibide batzuk ikusiko ditugu, eta 6.16 eta 6.17 tauletan, berriz, zeharkako adibideak izango dira aztertuko ditugunak:

6.15. taula: Antzeko UF bidez itzulitako adibideak

| | | |
|---|---|---|
| 1 | Die beiden nur stilistisch unterschiedlichen Manifestentwürfe gingen , kaum angelesen, von Hand zu Hand . (DTTde) | Manifestu-zirriborro biak, ezberdintasun estilistiko hutsak zituztenak, eskuz esku joan ziren, irakurriak izan gabe ia. (DTTeu) |
| 2 | Die Vorstellung, einem Verbrecher in die Hände gefallen zu sein , streifte träumerisch. (DVZTde) | Gaizkile baten eskuetan erori izanaren ideia amets baten modura pasatu zitzaion burutik; (DVZTeu) |
| 3 | Basini ist in unserer Hand , wir können mit ihm machen, was wir wollen, meinetwegen kannst du ihn zweimal täglich anspucken: (DVZTde) | Basini gure eskuetan zegok , eta nahi duguna egin zezakeagu berarekin; nigatik tu egin diezaiokek, bi aldiz egunero: (DVZTeu) |
| 4 | K wußte es nicht, wohl aber hielt er es für feststehend, daß seine Verteidigung nicht in guten Händen war . (DPde) | Kk ez zekien, baina bistakoa iruditzen zitzaion bere defentsa ez zegoela esku onetan . (DPeu) |
| 5 | “Oder wollt ihr den Kaiser mit leeren Händen willkommen heißen? (BUSde) | —Edo esku hutsik eman behar al diogu ongietorria Kaiserrari? (BUSeu) |
| 6 | Es gab eine Wahrsagerin, die -als Zigeunerin verkleidet- den Gästen aus der Hand las und ihnen das Blaue vom Himmel vorlog. (ELde) | Bazegoen sorgin bat ere, ijitoz jantzirik, eskua irakurri eta zeru osoa agintzen zuena. (ELeu) |
| 7 | “Gewisse Ungerechtigkeiten, deren Opfer ich geworden bin, können nicht meine klare objektive Einsicht trüben, daß der Führer-seine Stimme bebte tatsächlich -"der Führer die Rettung schon in der Hand hat ". (ACde) | —Jasan behar izan ditudan zenbait injustizik ez dute ene ikusmoldea lanbrotzen, Führerrak —eta, benetan, ahotsa dardarka zuen—, Führerrak salbamena jadanik bere eskuetan duela ikusteko. (ACEu) |

| | | |
|----|---|--|
| 8 | Hermine, am Tisch eines Restaurants, plötzlich von Wein und Speisen weg in ein abgründiges Gespräch verloren, furchtbaren Ernst im Blick, wie sie mir sagte, daß sie mich nur darum in sich verliebt machen werde, um von meiner Hand getötet zu werden. (DSWde) | Hermine, restaurante bateko mahaian, kolpetik ardoa eta janariak ahazturik hondorik gabeko elkarrizketa batean murgildurik, begiradan seriotasun beldurgarria, niri esaten zidala, nola berarekin enamorarazi behar ninduen, bera nire eskuz erail nezan. (DSWeu) |
| 9 | Eine anständige Landkarte, wie bei der Swissair immer zur Hand , gab es hier nicht, und was mich nervös machte, war lediglich diese idiotische Information: (HFde) | Behar bezalako maparik ez eskura , Swissair -enean ez bezala, eta ni informazio ergel haretzek urduritzen: (HFeu) |
| 10 | Sie sitzen da und schütteln die Köpfe, Krach mit dem Verein möchte keiner haben. Da sind einem ja die Hände gebunden , und man liegt auf der Straße. (BAde) | Eserita daude, buruari eragiten, inork ez du istilurik nahi elkartearekin. Eskuak lotuta bukatzen duk kale gorrian. (BAeu) |
| 11 | Wenn ich dir zum Beispiel täglich was gebe, was zu verkoofen oder unter der Hand abzusetzen und du hast gute Freunde und ihr könnt dicht halten, dann setzt du das ab und du verdienst schön mit”. (BAde) | Nik hiri konparazio batera egunero zerbait ematen badiat, saltzeko edo eskupetik emateko , eta lagun onak eduki eta txintik ez esateko gauza bazarete, hartara aurrera egin eta poliki irabaziko duk”. (BAeu) |
| 12 | in der Geschichte waren ihr Namen und Jahrzahlen nicht gleich bei der Hand ; (DWVde) | historian ez zituen berehala eskura ez izenak eta ez datak; (DWVeu) |

Lehenengo laurak (*von Hand zu Hand gehen, jmdm in die Hände fallen, in jmds Hand sein* eta *in guten Händen sein*) [Oster](#) eta [van Lawicke](#) ere jasotzen dituzte alemana-katalana hizkuntza-konbinazioan. Zuzenean itzulitako azkeneko adibideari dagokionez, bestalde, bi UFek esanahi fraseologiko eta osagai lexiko berdinak izan arren, iruditzen zaigu euskarazko testuak ez duela pragmatikoki erabat funtzionatzen. Gakoa “berhala” hitzean egon liteke. ETC corpusean

“berehala eskura izan” bilatu dugu. Oso emaitza gutxi lortu ditugu –hiru, hain zuzen ere–, eta objektua, norbaitek berehala eskura izan dezakeen hori, objektu fisiko bat da beti: diru kopuru jakin bat, argazki bat... AleuskaPhraso corpuseko adibidean, bestalde, izenak eta datak dira berehala eskura ez dituenak. Horregatik, jatorrizkoak ez bezala²⁰, euskarazkoak, *semantic preference*²¹ delakoa dela eta, funtzionatzen ez duela iruditzen zaigu.

Zeharka itzuli den ondorengo adibide honetan ikus daiteke nola bai alemanetik gaztelaniarako jauzia bai gaztelaniatik euskararako UF antzeko bidez egiten den.

6.16. taula: *in jmds Hand liegen, estar en mano de alguien, norbaiten esku egon*

| | | |
|---|--|--|
| Noch liegen die Entscheidungen in deiner Hand. (DPGMde) | Las decisiones aún están en tu mano. (DPGMes) | Zeure esku dago erabakia. (DPGMeu) |
|---|--|--|

6.17 taulan, ordea, gaztelaniara UF bidez itzuli da jatorrizko *unter der Hand* somatismoa –UF desberdin bidez, hain zuzen–, eta euskaraz, berriz, UF alemanaren antzeko UF bat erabiltzen da –*eskupetik*, alegia.

²⁰DeReKo corpusean bilaketa egin dugu (gleich /s0 (bei /+w1 der /+w1 Hand)), eta 74 emaitza lortu ditugu. Konturatu gara “gleich bei der Hand”-en agerkideen izaera askotarikoa dela: objektu fisikoekin konbina daiteke (*Werkzeug, Übersetzung, Taschentuch...*), pertsonekin (*einen Experten, einen Kandidaten, Models...*) eta hitz abstraktuagoekin (*Erfolgsrezept, Beispiele, Zitat...*).

²¹“(...) semantic preference is understood as the semantic field a word’s collocates predominantly belong to (...)” (Oster eta van Lawick 2008: 335). Metodologiaren atalean ere egin diogu erreferentzia kontzeptu honi (ikusi 3.2.1).

6.17. taula: *unter der Hand, por debajo de cuerda, eskupetik*

| | | |
|---|---|---|
| Aber in dieser Woche ließ mich meine Mutter nicht in die Schule gehen, und nur unter der Hand gewissermaßen erfuhr ich von all den Vorbereitungen. (BMde) | Pero mi madre no me dejó ir a la escuela esa semana, y sólo me enteré de todos los preparativos por debajo de cuerda. (BMes) | Niri, ordea, amak ez zidan aste-bete hartan eskolara joaten utzi, eta nola edo hala eskupetik baizik ez nuen jakin prestaerak zertan ziren. (BMeu) |
|---|---|---|

6.15 taulako azken adibidean ikusi dugun moduan, hemen ere iruditzen zaigu euskarazko UFak ez duela horren ongi funtzionatzen, lehen tasun semantikoa dela eta. *Zerbait eskupetik jakin* UFa erabiltzen da xede-testuan. ETCra jo dugu *eskupetik* nola erabiltzen den ikusteko. Lehenik eta behin, agerraldi kopuru txikiak eman digu atentzioa: 22 aldiz agertzen da, eta guk hemen erabiltzen dugun zentzuan 14 aldiz. Bestalde, batez ere itzulpenetan erabiltzen da (9 aldiz), eta diruarekin lotutako testuinguruetan: norbaiti eskupetik ordaindu, norbaiti eskupetik sos pixka bat eman, zerbait eskupetik jaso, zerbait eskupetik saldu, dirua eskupetik eman, dirua eskupe-tik pagatu, dirutzak eskupetik eman... Iruditzen zaigu itzultzaileak forma aldetik oso antzekoa den UFa erabili duela xede-testuan, eta horren “naturala” ez den emaitza lortu duela²².

Marcok 2009ko artikuluan argudiatzen du UFak erabiltzea normalizazioaren adierazle izan daitekeela, UFak xede-hizkuntzako egitura estandarizatuak direlako. Baina atal honetan ikusi ditugun bi adibideren kasuan, xede-testuetan UFak erabili arren, ez dira xede-testuetan ohikoak diren egitura konbentzionalak sortu. Beraz, UFak erabiltze hutsak ez du esan nahi xede-hizkuntzan egitura estandariza-

²²Ingeleseaz emaitza naturalagoa dela iruditzen zaigu: “But during that week my mother would not let me go to school, and I only learned about the preparations by roundabout means” (Roth 1938).

tuak sortzen direnik. Horregatik, agian, normalizazio edo estandarizazioa neurtu eta aztertzeko, beste parametro batzuk erabili beharko lirateke.

6.5.3.2 $UF \Rightarrow UF$ desberdina

UF desberdin bidez itzuli den UFen portzentajea, gure kasuan, nahiko altua da, % 35,43koa, eta, horrela, gehien erabili den itzulpen aukera da. Ez da gauza bera gertatzen Marco eta Oster eta van Lawicken kasuan. Haiek UF desberdin eta kolokazio bidezko itzulpenak desberdintzen dituzte. Bi horien batuketa gure emaitza baino baxuagoa da bi kasuetan.

$UF \Rightarrow UF$ desberdin bidezko itzulpen aukera honetan datu ugari aztertu ditugunez, bost azpiatal sortu ditugu: 1) *eskua eman* erako somatismoak, 2) UF zinetiko bat: *die Hände ringen*, 3) formaren aldeko hautua, 4) esanahi aldaketa eta 5) osagai lexikoen aldaketa.

***Eskua eman* erako somatismoak**

Lehenik eta behin, HGLko bi kasu aipatu nahi genituzke (ikusi 6.18 taula). Bi itzultzaile desberdinek itzultitako bi testu dira, baina bietan itzultzaileak jatorrizko UFa xede-hizkuntzara / kulturara egokitzen saiatzen dira; beraz, onargarritasunaren alde egiten dute.

BUSde liburuan, ikasleak eskua estutzen dio alkateari egindako tratuagatik. Euskarazko bertsioan, ordea, estudianteak eskerrak ematen dizkio alkateari. Eskua ematearen ondorio gisa interpretatu daiteke eskerrak ematea, baina, nolana den, xede-testuko UFa desberdina da esanahi fraseologiko, osagai lexiko eta irudiari dagokionez.

Bigarren kasuan, DDLde liburuan, alabak eskua eman nahi dio aitari, agur esan eta alde egin nahi baitu. Euskaraz, bestalde, alabak musu eman nahi dio aitari. Badaezpada, gaztelaniazko bertsioa ere kontsultatu dugu azken kasu honetan. Bertan, euskaraz ez bezala, alabak eskua luzatzen dio aitari, eta honek estutu egiten dio gero. Beraz, ez dirudi gaztelaniazko bertsioak eragina izan duenik.

6.18. taula: Egokitzapen adibideak HGLan

| | | |
|---|---|---|
| 1 | Der fahrende Schüler steckte den Beutel ein, gab dem Bürgermeister die Hand und versicherte: (BUSde) | Estudiante ibiltariak boltsatxoa gorde, alkateari eskerrak eman eta ziurtatu zuen: (BUSeu) |
| 2 | Das Kind nickt langsam und hält ihm zum Abschied schüchtern die Hand hin. “Hör, Luise — ich hab’s nicht gern, wenn sich andere Leute für mich den Kopf zerbrechen, auch meine Tochter nicht! Ich weiß selber, was für mich am besten ist.” “Natürlich, Vati”, sagt sie ruhig und leise. Noch immer hält sie die Hand zum Abschied ausgestreckt. Er drückt sie schließlich doch und sieht dabei, daß dem Kind Tränen an den Wimpern hängen. (DDLde) | Alaba aitari musu bat ematera abiatu da eta honek esan dio: —Entzun, Luisa. Ez zait gustatzen bestek nik zer egin behar dudan esaten ihardutea. Ezta nere alabak ere. Ongi dakit nik zer den neretzat onena. —Jakina, aita —erantzuten dio apal eta uzkur. Aitak alabari musu ematean , honen betileetan barrena malko-isuria nabaritzen du. (DDLeu) |

HGLan zuzenean itzuli diren testuei dagokienez, beste alde batetik, DTS liburuaren kasua aipatu nahi genuke. Bertan, zazpi aldiz agertzen dira alemanez honako hiru UF hauek: *jmdm die Hand reichen*, *jmdm die Hand drücken* eta *jmdm die Hand schütteln*. Euskarazko itzulpenean, berriz, UF bakarra *-eskua eman*, alegia- erabiltzen da zazpi kasuetarako. Ondorioz, kasu konkretu honetan, xede-testua ez da jatorrizkoa bezain aberatsa, eta, kasu jakin honetan, estandarizazioaren legea beteko litzateke.

Osterantzean, hala ere, zuzenean itzulitako testuei dagokienez, aniztasuna da nagusi. Ikus ditzagun nola euskaratu diren jatorrizko lau UF nagusiak:

- *jmdm die Hand geben*, *sich die Hand/Hände geben* ⇒ *eskua luzatu* (4), *eskerrak eman* (1), *bostekoa luzatu* (1), *elkarri bostekoa eman* (1).

- *jmdm die Hand reichen, sich die Hand reichen* ⇒ *eskua eman* (9), *bostekoa eman* (1).
- *jmdm die Hand drücken* ⇒ *eskua luzatu* (1), *musu eman* (1), *bostekoa eman* (3), *eskua eman* (6).
- *jmdm die Hand schütteln* ⇒ *eskua eman* (3), *bostekoa eman* (5), *eskua tinkatu* (1).

Zeharka itzuli diren testuei erreparatzen badiegu eta itzulpen prozesuan jartzen badugu arreta, ikusiko dugu nola AleuskaPhraseo corpuseko 22 kasuetatik, alemanetik gaztelaniarako itzulpenean, jatorrizko UFa antzeko UF batekin itzuli den, eta, gaztelaniatik euskarako itzulpenean, berriz, xede-testuko UF guztiak desberdinak diren. Oraindik ezin dugu ezer ondorioztatu, baina itzultzaileek zeharka itzultzen dutenean, badirudi ahalegin berezi bat egiten dutela zubibertsiotik aldentzeko.

Gainera, aipatutako 22 kasu horietatik, euskaraz 17 aldiz “bosteko” hitzarekin sorturiko UFren bat erabiltzen da, *bosteko eman* edo *bostekoa luzatu* kasu. Lagunarteko hizkerakoa izanik itzulpen jator bat sortzeko ahalegin berezi bat egon liteke horren atzean. Izan ere, itzultzaileak badaki zeharka itzultzen ari dela, egoeraren jakitun da, eta zeharkakotasun hori konpentsatzeko, xede-hizkuntzan jatortasuna bilatzeko ahalegin berezi bat atzeman daiteke, lehen aipatu dugun moduan (ikus [6.5.2](#))²³.

UF zinetiko bat: *die Hände ringen*

UF desberdin bidez itzuli direnekin jarraituz, beste kasu bat aipatu nahiko genuke, *die Hände ringen*-en kasua, hain zuzen ere. Duden hiztegian honela definitzen dute UFa: “(die Hände) aus Verzweiflung, Angst o. Ä. falten, ineinander verschränkt gegeneinanderpressen und

²³Zubillagak ere gauza bera ondorioztatzen du iseken eta madarikazioen itzulpenaren azterketa egin eta gero.

so in drehender Bewegung die Handflächen aneinanderreiben”. Be-raz, norbait etsiak edo beldurrak jota (edo antzeko egoera batean) dagoenean, hark eskuekin egiten duen mugimendua adierazten du UFak. Gaztelaniaz Schemannen hiztegian agertzen den baliokidea “retorcerse las manos” da; euskaraz, ordea, hiztegietan behintzat, ez dugu baliokide fraseologiko zuzenik aurkitu. 6.19 taulako adibideetan, *eskuak astindurekin* itzuli da²⁴.

6.19. taula: *die Hände ringen, eskuak astindu*

| | | |
|---|---|---|
| 1 | <p>Lena zieht sich in ihr Zimmer zurück, rekelte sich in ihrem bequemen Sessel, versucht Ruhe zu finden, zu lesen. Da schellt es wie toll an der Wohnungstür. “Kannst du mal, Cora?” ruft Mam. “Nee”, gibt die kurz angebunden aus der Küche zur Antwort. “Lena!” Lena denkt gar nicht daran, sich zu beeilen. Selbst wenn es schon wieder Sturm klingelt. »Die spinnen doch alle«, teilt Lena laut der Umgebung mit und reißt die Tür auf. Vor ihr steht händeringend Herr Helbling. Er ist außer Atem, muß die Treppe in Rekordzeit heraufgerannt sein. (LDde)</p> | <p>Lena bere gelan ezkututzen da, aulki eroso batean erdi etzan eta, bake pixka baten bila, irakurtzen hasten da. Bapatean eroen moduan entzuten da jotzen etxeko atean. -Irekiko duzu zuk, Kora? -hots egiten du amak. -Ez! -erantzuten dio umore txarrez sukaldetik. -Lena! Lenak ez dauka presarik batere. Berriro ekaitzaren moduan jotzen badu ere. -Erotuta daude horratio horiek! -adierazten die guztiei eta atea irekitzen du. Aurrean dauka Helbling jauna, eskuak astintzen. Arnasestuka dago, eskailerak igotzen markak hautsi izan behar ditu. (LDeu)</p> |
|---|---|---|

²⁴Aurrerago ikusiko ditugu UF hau itzultzeko beste aukera batzuk.

| | | |
|---|--|--|
| 2 | <p>Sie nimmt ihn an der Hand, zieht ihn hinter sich her in die Wohnung hinein. Er wehrt sich: “Nein, nein! Unten wartet doch die Polizei.” “Was?” Das ist Mam aus dem Zimmer. “Das kann nicht wahr sein!” Das ist Tante Cora aus der Küche. Beide erreichen Herrn Helbling gleichzeitig. Der ringt die Hände, blickt über die Köpfe der beiden Frauen hinweg: “Dieser Trottel. Ich kann das nicht anders sagen. Verzeiht. Da hat so ein Dummkopf... Du große Güte.” (LDde)</p> | <p>Eskutik heldu eta berarekin sartzen du etxera. Ezetz egiten du berak: -Ez, ez! Behean polizia dago zain! -Zer? -ama da, bere gelatik. -Ez da egia izango! -izeba Kora da, sukaldetik. Biak iristen dira batera Helbling jaunaren ondora. Honek eskuak astintzen ditu, bi emakumeen buruez gaindi begiratzan du: -Astapito hori, gero! Ezin dut besterik esan. Barkatu. Babo handi batek hor... Jainko maitea! (LDeu)</p> |
|---|--|--|

Adibide horiei begiratu eta gero, zalantza egin dugu: zer adierazten da mugimendu horrekin euskaraz? ETC corpusera jo dugu, eta literatur testuei erreparatu diegu (hor aurkitu baitugu agerraldi gehien). Konturatu gara jatorrizko testu eta testu itzulien artean badagoela desberdintasun bat: bigarrenetan, esanahi desberdin gehiago adierazteko erabiltzen da keinu hori. Jatorrizkoetan, agurtzeko keinu gisa erabiltzen da²⁵, “txalo egin” esanahiarekin²⁶, nazka adierazteko²⁷ edo, besterik gabe, keinu gisa²⁸. Itzulpenetan, horietaz gain, senti-

²⁵“Bazterretik agurtu egiten dituzte eskuak astinduz, larruzko jakak besoetan zintzilik”.

²⁶“Gainerakoengandik ezin zezakeen inongo laguntzarik espero, harriak hartzera ere ez ziren makurtuko, baina eskuak ondo astinduko zituzten besteak txalotzeko”.

²⁷“Demetriok eskuak astindu zituen, nazka imintzioz”.

²⁸“Bloody marya prestatzen ari zela segundoro gelditu behar izan zuen eskuak indarrez astintzeko (...)”.

mendu ugari adierazten ditu: urduritasuna²⁹, eromena³⁰, harridura³¹, etsipena³², mespretxua³³... Badirudi jatorrizko testuak eragiten due-la esanahi aniztasun hori. Hala, xede-hizkuntzan konbentzionalak ez diren egiturak erabiltzen diren neurrian, itzulpenek gehiago jotzen dute egokitasunera, eta, beraz, hemen ere, UFe erabilerak ez du estandarizazioaren adierazle gisa funtzionatzen.

Gure kasuan, testuinguruak ematen dio esanahia hitz-konbinazioari, *eskuak astinduri* alegia, 6.19 taulan ikus daitekeen moduan.

Beste UF batzuk ere markatu ditugu beltzez aipatutako taulan, eta bi kasutan –*Sturm klingeln* eta *über jmds Kopf hinweg*, hain zuzen– hitzez hitz itzuli dira. Azken lerroko enuntziatu fraseologikoa, berriz, “Du große Güte”, erabat egokitu da euskarara. Beraz, oso pasarte txikian, itzultzaile berak hainbat estrategia erabili ditu.

Formaren aldeko hautua

Atal honetan bi UFri³⁴ dagozkien lau adibide aipatuko ditugu. Gogora dezagun, UF desberdin bidez itzuli direla.

Lehen adibidea *Hand und Fuß haben* UFari³⁵ dagokio, eta Duden 11 hiztegiaren arabera, ondo pentsatutako edo sakon hausnartutako zerbaiti egiten dio erreferentzia³⁶. Euskaraz, planak *buru eta belarri duela* esaten da. *Buru-belarri* lokuzioa ezaguna da, baina hemen ez da UFa zentzu horretan erabiltzen. Beste UF antzekorik ezagutzen ez

²⁹“Barrualdean, ugazabandreak modelo biak prestatzen ziharduen, belauniko, orratzak ahoan, eta eskuak astintzen zituen urduri eta errieta egiten zien neskei hain hanka laburrak izateagatik”.

³⁰“[...] –eskuak astindu zituen erotuta–, hiri zuloan!”

³¹“Sendagileak eskuak astindu zituen, izugarrikeriaren bat entzun izan balu bezala”.

³²“Eta eskuak astintzen zituzten etsi-etsian hartutako erabaki haiengatik”.

³³“Bertako turkoak, bisirren eraikuntzari lehen harrotasunez begiratzen ziontenak, hasiak ziren orain destainaz begiak kliskatzen eta eskuak astintzen”.

³⁴Biak ala biak binomioak dira, eta, aurrerago berariaz aztertuko dugun arren UF-mota hau, *Hand*-ekin sortutakoak atal honetan landuko ditugu.

³⁵Hitzez hitz: esku eta oin izan.

³⁶“Gut durchdacht sein”.

genuenez, Intza proiektuko webgunera jo dugu azalpen bila. Bertan, *ez buru eta ez belarri (egin...)* eta *buru eta belarri* lokuzioak jasotzen direla ikusi dugu. Bigarrenak *buru-belarriren* esanahi bera dauka: saiaturik, amorruan, bete-betea. Lehenengoa, berriz, zerbait molderik gabe, trakets egiten denean erabiltzen da. AleuskaPhraseo corpuseko adibidean, hain justu, azken horren alderantzizko zentzua dauka, eta pentsa liteke itzultzailea UF horretatik abiatu dela, eta modifikatu egin duela, literatur testuetan askotan gertatzen den legez. Gure ustez, baina, jatorrizko UF hori, *ez buru eta ez belarri (egin...)*, hain ezaguna ez denez, eta, gainera, itzultzaileak modifikatu egiten duenez, euskarazko testuak ez du pragmatikoki horren ongi funtzionatzen.

Testu berean hiru aldiz erabiltzen den alemanezko beste UFa *mit Herz und mit Hand*³⁷ da. Zein den testuingurua, zerbait fundamentuz, ganoraz, bihotz-bihotzez egiten dela adieraz dezake UFak. Euskaraz itzultzaileak *hezur eta mami*³⁸ erabiltzen du sistematikoki hiru kasuetan. Alemanezko UFa modu berean itzuli arren kasu guztietan, jatorrizkoak daukan esanahia ez da itzulpenetan berdin jasotzen, eta, azken bi kasuetan bereziki, funtzio pragmatikoa ez dela erabat betetzen iruditzen zaigu.

6.20. taula: Forma jasotzearen aldeko kasuak

| | | |
|---|---|--|
| 1 | <p>“Der Plan mit dem Ochsen hat Hand und Fuß! Sein einziger Fehler ist, dass er nicht von mir stammt. Aber das soll uns nicht hindern, ihn auszuführen!” (BUSde)</p> | <p>—Zekorraren plan horrek badu buru eta belarririk! Duen akats bakarra da neuk ez pentsatu izana. Baina hori ez da eragozpen bete dezagun! (BUSeu)</p> |
|---|---|--|

³⁷Hiztegietan agertzen den formatik pixka bat aldentzen da; *mit Herz und Hand* da, izan ere, hiztegietan ikusi duguna. Hitzez hitz ‘bihotz eta eskuarekin’ esan nahi du.

³⁸Hezur eta mami: en carne y hueso (Elhuyar).

| | |
|--|--|
| <p>2 Schöne Federn in den Betten, Branntwein, Bier und Zigaretten, Mensch, bei uns da läßt sich leben, unsere Aufsicht hat sich uns ergeben mit Herz und mit Hand, wir wollen den Beamten Militärstiefel geben, ihr sollt uns Zigaretten geben, mit Herz und mit Hand. (BAde)</p> | <p>Ohean luma eder harroak, pattarra, ardoa eta zigarroak, hura bai bizitza, zaindaria gure ondoan hezur eta mami, guk funtzionarioei bota militarrek eman, zuek guri zigarroak eman, hezur eta mami. (BAeu)</p> |
| <p>3 Ihr sollt uns saufen lassen mit Herz und mit Hand, wir wollen euch verkaufen lassen Militärstiefel, Uniformen noch aus dem Krieg, die werden wir nicht umarbeiten, die könnt Ihr gleich verkaufen, das Geld davon können wir brauchen, weil wir arme Gefangene sind. (BAde)</p> | <p>Zuek guri edaten utzi hezur eta mami, guk zuei saltzen utzi bota militarrek, gerrako uniformeak, ez ditugu josiko, nahi duzuenean jarri saltzeko, ongi etorri dirua, gu gara preso gaixoak. (BAeu)</p> |

Binomioaren forma jasotzeko ahalegina azpimarratuko genuke kasu hauetan, funtzio pragmatikoaren kaltetan.

Esanahi aldaketa

Jatorrizko eta xede-testuetako UFak semantikoki desberdinak direnez, UF desberdin gisa sailkatu ditugu. Gure kasuan, hainbat faktorek eragin dute xede-hizkuntzako UFak jatorrizkoaren esanahi bera ez izatea. Alde batetik, testuak jatorrizkoa ez den beste testu batek itzultzeak eragin lezake esanahi aldaketa hori; horrelako egoeretan, zubi-testuan esanahi desberdina duen UF bat erabiltzen denez, euskarazko testuan gaztelaniazko testu horretako UFa erabiltzen da. Aurkitu ditugun bi kasuetatik bat jaso dugu 6.21 taulan. Bertan, jatorrizko testuan *jmdm die Hand auf etwas geben* daukagu, eta, xede-testuetan, *dar la mano a alguien* eta *eskua luzatu*. ‘Norbaiti eskua estutu eta zerbait hitzematea’ esan nahi du alemanezko UFak. Euskaraz, berriz, esku-estutze hori da itzultzen dena (gaztelaniaz ere

hala egin delako), eta, beraz, esanahia ez da jatorrizkoaren berdinberdina.

6.21. taula: Zeharkakotasuna eta esanahi aldaketa

| | | |
|---|--|---|
| wenn Sie nun mein sein wollen fürs Deutsche, so gehen Sie und bitten sich's von meinem Herrn aus, und ich will zu Ihrer Dame gehen". - ich gab ihr die Hand darauf , und wir machten aus, daß ihr Tänzer inzwischen meine Tänzerin unterhalten sollte. (DLWde) | Por lo tanto, si queréis bailar conmigo la alemana, id a pedirme a mi caballero, mientras yo hablo a vuestra dama". Después le di la mano , y se convino en que, mientras nosotros bailábamos juntos, su caballero acompañaría a mi pareja. (DLWes) | Beraz, alemaniarra nirekin dantzatu nahi baduzu, eska nazazu nire lagunkidearen aurrean, ni zure lagunkidearekin mintzatu bitartean". Harrez gero, eskua luzatu nioan eta, gu elkarrekin dantzatu bitartean, gizonak nire biko kidea lagunduko zuela hitzartu zuan. (DLWeu) |
|---|--|---|

Beste behin ere agertzen da *jmdm die Hand auf etwas geben* UFa DLWde liburuan. Kasu horretan ere, jatorrizko eta xede-testueta-ko UFen esanahia desberdina da. Hilzorian dagoenak bere umeen ama izateko eskatzen dio Lotteri, eta horrek hala egingo duela hitzematzen dio. Euskaraz, adibidean ikus daitekeen moduan, hitzeman beharrean, Lottek eskua estutzen dio hilzorian dagoen amari, gaztelaniazko bertsioari jarraituz. Horrela, euskarazko bertsioan ez dago UFrik, eta esanahia aldatu egiten da.

6.22. taula: *jmdm die Hand auf etwas geben, estrechar la mano, eskua estutu*

| | | |
|--|--|---|
| und zu mir sagte: “sei ihre Mutter!” – Ich gab ihr die Hand drauf! “Du versprichst viel, meine Tochter”, sagte sie, (DLWde) | Por toda respuesta estreché su mano. “Mucho me prometes, hija mía -me dijo-.” (DLWes) | Erantzun bakartzat haren eskua herstutu nuen. “Hagitz agintzen didan, ene alabatxoa, esan zidan: (DLWeu) |
|--|--|---|

Maila semantikoan aldaketak jasan dituen beste UF bat *mit jmdm Händchen halten* da. Hitzez hitz ‘norbaitekin eskutxoak heldu’ esan nahi du, eta hedaduraz *eskukak egin* esanahia dauka –hau da, gaztelaniazko *hacer manitas*-en baliokidea litzateke. AleuskaPhraseo cor-puseko adibideetan, sei aldiz agertzen da: lau kasutan UF desberdin bidez itzuli da, eta bi aldiz hitz-konbinazio librez.

6.23. taula: *Händchen halten*

| | | |
|---|---|---|
| 1 | Sie gehörte nicht zu Züpfner, und dieses dumme Händchenhalten machte mich krank. (ACde) | Ez zen Züpfnerrentzat emakumerik egokiena eta eskutxoak elkar emate horrek nahastuta utzi ninduen. (ACeu) |
| 2 | Ich dachte an das Händchenhalten. (ACde) | Eskutxoak elkar emate hartaz pentsatu nuen. (ACeu) |
| 3 | Das Händchenhalten mit Marie war offenbar nichts Ernsthaftes gewesen. (ACde) | Marie eta biak eskutik joatea ez zen, zirudienez, ezer serioa izan. (ACeu) |
| 4 | Ich wollte ihr ja nur helfen; denn mit Händchenhalten und Espadrilles Ausziehen war ihr nicht geholfen. (HFde) | Nik lagundu besterik ez nion egin nahi; eskutxotik heldu eta zapatillak eranztea, hori ez baitzen inolako laguntza. (HFeu) |
| 5 | Was wird aus Blorna, wenn er nicht mehr die Möglichkeit hat, Katharina zu besuchen und mit ihr - man sollte es jetzt nicht länger verschweigen! - Händchen zu halten. (DEKBde) | Zer gertatuko zaio Blornari, Katharina bisitatu ezin badu eta hari -ezin gorde daiteke gehiago esan gabe- eskuak hartu ezin badizkio? (DKEBeu) |

| | | |
|---|---|---|
| 6 | Sie träumte, sie und Meike würden händchenhaltend über den Rummelplatz gehen. (ELde) | Ametz egiten zuen bera eta Meike eskuak harturik feria-lekuan barrena zebiltzala. (ELeu) |
|---|---|---|

Ikus daitekeen moduan, azken bi testuetako adibideak dira UF ez direnak, eta bi-biak itzultzaile berak modu berean itzuli ditu, Pello Zabaletak, lehena 1989an eta bigarrena 2007an. Datu horiek kontuan hartuta eta jatorrizko UFaren esanahia aldatu egiten dela jakinda, harrigarria iruditzen zaigu bi testuetako UFak berdin-berdin itzultzea. Beste kasuetan, gehienetan, euskaraz *txo* atzizki txikigarria erabiltzen dela ikus daiteke. Baina, euskaraz, ez dauka alemanez izan dezakeen konnotazioa.

Osagai lexikoen aldaketa

Azpiatal honekin, UF desberdinen atalari emango diogu amaiera. Aipatuko ditugun kasuetan, jatorrizko UFak UF desberdin bidez itzuli dira, eta, batzuetan, xede-testuan osagaiak aldatu arren, UFak somatismo izaten jarraitzen du, baina, beste batzuetan, osagai lexikoen aldaketak UFak sortzen duen irudia erabat aldatzea eragin du.

Hamabost kasutan erabiltzen da somatismo desberdin bat xede-testuan. Osagairen bat desberdina izan arren, esanahi fraseologiko bera duten UFak dira gehienak. 6.24 adibidean, esate baterako, aditza da bi UFetan aldatzen dena, baina biek esanahi bera dute, ‘lagundu’, alegia.

6.24. taula: *Hand anlegen, eskua eman*

| | |
|---|--|
| “Jetzt steht er noch da und gafft, der Tropf, statt Hand anzulegen ”, sagt er dann. (JGde) | “Horra gibel-handi hori, eskua eman ez-eta, hor egonean”, dio orduan. (JGeu) |
|---|--|

Hamabost kasu horietatik atentzioa eman diguten beste lau bildu ditugu 6.25 taulan.

6.25. taula: Osagai lexiko desberdina

| | | | |
|---|---|--|---|
| 1 | “Der Herr Kapellmeister?” brummt er. “I weiß net, ob er droben ist!” “Im Atelier ist Licht”, sagt sie. “Also ist er da! Hier!” Sie drückt ihm Geld in die Hand und eilt an ihm vorbei. (DDLde) | —Zuzendari jauna? —dio azken honek—. Ez dakit goian egongo den. —Estudioan argia ikusi dut. Beraz hemen dago. Tori!—. Eskupekoa eman eta behetik gora hasten da azkar emakumea. (DDLeu) | |
| 2 | Ich zweifelte nicht mehr daran, einem Räuber und Schwindler in die Hände gefallen zu sein , und trotzdem legte ich das Schulgeld gehorsam hin. (DAde) | Ez nuen gehiago zalantzan jarri lapur eta iruzurgile baten atzaparretan eroria nintzela ; guztiarekin ere, otzanduta, dirua luzatu nion. (DAeu) | |
| 3 | Er konnte mich jeden Augenblick verraten. Er hatte mich sozusagen in der Hand . (BMde) | Podía traicionarme en cualquier momento. Me tenía, como quien dice, en sus manos . (BMes) | Noiznahi egin ziezadakeen traizio. Bere atzaparretan ninduen, nolabait . (BMeu) |

| | | | |
|---|---|--|--|
| 4 | Und Jünglinge werden nächtelang zu Mandolin Klängen heulend unter ihrem Fenster sitzen... dicke reiche alte Männer auf den Knien rutschend ihren Vater um ihre Hand anbetteln... (DPGMde) | Y los jovencitos vociferarían noches enteras bajo su ventana, al son de la mandolina... ricachones gordos y viejos caerían de hijos ante su padre para pedir su mano... (DPGMes) | Eta mandolinaren soinuaz lagunduta, gaztetxoak haren leihopean kantari arituako ziren, gaua joan gaua etorri... agure aberats okituak haren aitaren aurrean belaunikatuko ziren neskaren eskua eskatzeko... (DPGMeu) |
|---|---|--|--|

Lehenengo adibidean *jmdm Geld in die Hand drücken* somatismoa daukagu alemanez, zeinak hitzez hitz ‘norbaiti dirua eskuan estutu’ esan nahi duen; esanahi fraseologikoa, bestalde, ‘norbaiti dirua bidenabar, disimuluan, ezkutuan eman’³⁹ da. Euskarazko itzulpean, emakume dotore batek zuzendari jaunaren etxeko atezainari eskupekoa ematen dio; beraz, dirua eman, eta badoa azkar batean zuzendariaren bila. Aipatu dugu dagoeneko testu honetako beste adibide bat (ikus 6.18). Bietan, xede-hizkuntzan naturala den irtenbidea aurkitzen saiatzen da itzultzailea. Kasu hartan, gaztelaniazko bertsioa kontsultatu genuen, eta ondorioztatu ez diola hari jarraitzen. Hemen, ordea, gaztelaniaz ere “dar una propina” erabiltzen da⁴⁰. Beraz, euskarazko itzulpenak gertuagotik jarraitzen dio gaztelaniazkoari jatorrizko alemanezkoari baino, eta itzultzailea jatorrizko konpilatuan oinarritu baldin bada, nahiko argi dago interferentzia testu mailakoa dela.

Taulako beste hiru kasuetan konnotazioa aldatzen da; *norbaiten atzaparretan erori/egon*, gure iritziz, *norbaiten eskutan erori/egon*

³⁹*jmdm etw in die Hand drücken*: beiläufig oder verstohlen geben (Duden Stilwörterbuch).

⁴⁰–¡El maestro Palfy? No sé si estará arriba. –En el estudio hay luz –dice ella–; eso significa que está. ¡Tome! –Y **le da una propina** mientras sube con rapidez al estudio (Kästner 1957).

baino indartsuagoa delako, alde batetik, eta *norbaiten eskua eskatu*, bestalde, *norbaiten eskua behin eta berriz eskatu* (*um jmds Hand anbetteln*) baino neutroagoa delako.

Somatismoa ez den UF desberdin bidez itzuli diren kasuak 16 dira (12 zuzenekoak eta 4 zeharkakoak). Irudiari dagokionez, euskarazko UFak ez dira jatorrizkoak bezain grafikoak, eta UF-motari dagokionez, asko kolokazioak dira. Ikus ditzagun adibide batzuk:

6.26. taula: *lanpetuta egon, garaipen bat lortu, -z arduratu*

| | | |
|---|---|--|
| 1 | <p>aber ich hatte alle Hände voll damit zu tun, Bastas Messer und Capricorns Schwert von mir fern zu halten. (THde)</p> | <p>Lanpetuta nengoen, ordea, Bastaren labana eta Kaprikornioren ezpata zaindu behar nituelako. (THEu)</p> |
| 2 | <p>Die Sache wurde natürlich in ganz korrekter Weise erledigt, aber ich weiß ja doch ganz bestimmt, daß ich mich auch damals geschlagen hätte, wäre nicht plötzlich eine wahnwitzige Angst über mich gekommen, daß mein Gegner mir eine Wunde an der Stirne beibringen und dem Schicksal damit einen neuen Trumpf in die Hand spielen könnte... (DTSde)</p> | <p>Jakina, arazoa era guztiz egokian konpondu zen, baina erabat ziur nago, orduan ere elkar joka amaituko genuela, bat-batean ez balitzait ernatu beldur burugabe bat, nire aurkariak ez ote zidan bekokian zauri bat eragingo eta, hala, patuak ez ote zuen beste garaipen bat lortuko. (DTSeu)</p> |

| | | | |
|---|--|--|--|
| 3 | Manchmal dachte er daran, beim nächsten Öffnen der Tür die Angelegenheiten der Familie ganz so wie früher wieder in die Hand zu nehmen ; (DVde) | A veces pensaba que iba a abrirse la puerta de su cuarto, y que él iba a encargarse de nuevo, como antes, <i>de</i> los asuntos de la familia. (DVes) | Gelako atera ireki egingo zela pentsatzen zuen batzuetan, eta ostera ere, lehenago bezalaxe, familiako arazoez bera arduratuko zela. (DVeU) |
|---|--|--|--|

Corpuseko adibideetan ikus daitekeen moduan, *lanpetuta egon, garaipen bat lortu* eta *-z arduratu* ez dira jatorrizko somatismoak bezain grafikoak. Xede-hizkuntzan ohikoa, konbentzionala denaren alde egiten da itzulpenetan. Zeharkako itzulpenetan kontuan hartu behar da zubi-bertsioan somatismorik ez dagoela, eta zubi-testuak eragin duela, beraz, euskaraz hitz-konbinazio horiek erabiltzea. Oro har, onargarritasunerako joera da kasu hauetan azpimarratu beharrekoa.

6.5.3.3 UF ⇒ UFrik ez

Xede-testuetan UFrik erabili ez diren kasuak 72 dira guztira. Beraz, kopuruari dagokionez, ez dira gutxi. Baina, kopuruak kopuru, gehiago interesatzen zaigu edukiari erreparatzea. Horrela, ikusi dugu hitz bakarra erabiltzen dela ordain gisa kasu batzuetan; beste batzuetan, parafraasi bidezko itzulpenak aurkitu ditugu. Kasu batean zein bestean, maila semantikoan aldaketak jasan dituzten UFak aurkitu ditugu, eta horiek izango dira, lehenik eta behin, atal honetako hizpide. Ondoren, jatorrizko testuetan maiz agertzen den UF baten itzulpena ere aztertuko dugu.

Esanahi aldaketa

Dagoeneko aipatu dugun UF baten itzulpena aztertu nahi dugu, *jmdm die Hand auf etwas geben* UFarena, hain zuzen. Goiko kasuan (ikusi 6.21 eta 6.22 taulak), UF horren itzulpena zubi-testuak

baldintzatzen zuen. Kasu honetan, berriz, ustez zuzenean egindako itzulpen baten aurrean gaude, eta, gure iritziz, jatorrizko testuaren esanahia aldatu egiten da xede-testuan.

UF alemanak, goian aipatu dugun moduan, ‘norbaiti eskua estutu eta zerbait hitzeman’ esan nahi du. DDL liburuko pasarte honetan, Lotteren eta Luisaren aitarekin ezkondu nahi duen emakumeak, Luisa konbentzitu nahian, promes egiten dio horri: elkarrekin bizi ondoren, adiskiderik onenak bilakatuko direla ziurtatzen dio. Euskarazko bertsioan, emakumeak bere hitza eman beharrean, eskua luzatzen dio Luisari. Horrela, xede-testuko esanahia, pasarte horretakoa, lauso samarra dela iruditzen zaigu.

6.27. taula: *jmdm die Hand auf etwas geben, tori eskua!*

| | |
|---|---|
| Paß auf — wenn wir erst einige Zeit mitsammen gewohnt und gelebt haben, werden wir die besten Freundinnen geworden sein! Wir wollen uns beide rechte Mühe geben. Meine Hand darauf! ”. (DDLde) | Begira, elkarrekin aldi batez bizi ondoren, ziur izan adiskiderik onenak bilakatuko gara. Saiatuko al gara horretan? Tori eskua! (DDLeu) |
|---|---|

HLko testu batean (BA), bestalde, UF aleman hori bera itzultzerako orduan, xede-testuan ez da esanahia aldatzen:

6.28. taula: *jmdm die Hand auf etwas geben, hitzeman, bene-benetan*

| | | |
|---|--|---|
| 1 | Franz winkt: “Du läßt die Finger von dem, Herbert, der gehört dir nicht. Gibst mir die Hand drauf? ”. (BAde) | Franzek keinuka: “Ez hadi arrimatu ere egin, Herbert, ez duk hire arazoa. Hitzemaidak ”. (BAeu) |
| 2 | Komm, wir trinken den Topp aus, und dann, wir verrechnen übermorgen, wo wohnste, schreib mal auf, redlich geteilt, Hand druff ”. (BAde) | Tira, edan dezagun azken hondarra, eta gero, kontuak egingo ditiagu etzi, non bizi haiz, idatzidak, xuxen banatuko diagu, bene-benetan ”. (BAeu) |

Taulan ikus daitekeen moduan, HLan zuzenean itzuli den testu batean, alemanezko UF hori bera *hitzemanekin* itzultzen da behin, eta errepikapen bidez beste behin (beste baliabide erretoriko bat erabiliz, alegia). Beraz, bi kasuetan esanahia gordetzen da, eta, bigarren kasuan, gainera, errepikapena UFa konpentsatzeko ahalegin gisa uler daiteke.

Zuzenean itzulitako testuekin jarraituz, BA liburuko beste pasarte bat ekarri nahi genuke hona, irudipena baitaukagu jatorrizko UFaren esanahia ez dela xede-testuan berdin-berdin jaso. Ikus dezagun pasartea:

6.29. taula: *Hände weg von, utikan jendea*

| | |
|--|---|
| Verflucht, laß dich nicht mit die Menschen ein, geh deiner eigenen Wege. Hände weg von die Menschen. (BAde) | Zer arraio, ez hadi jendartean nahasi, har ezak heure bidea. Utikan jendea. (BAeu) |
|--|---|

Alemaneko UFak, *Hände weg von etwas* horrek, zerbait ez ukitze-ko edo bakean uzteko agindua adierazten du. Euskarazko testuan, *utikan* interjekzioaren erabilera UFak sortzen duen irudia konpentsatzeko ahalegin gisa interpreta liteke. Baina esanahian jartzen badugu arreta, interjekzio horren bidez, jatorrizkoan ez bezala, jendea arbuia dezala esaten ari zaio norbait liburuko beste pertsonaia bati, Gottlieb-i konkretuki.

Zeharka itzuli diren testuetan, bestalde, HGLko kasu bat eta HLko bi aipatu nahi genituzke. DKGde liburuan, goian aipatutako (ikusi 6.5.3.2) UF zinetikoa daukagu berriro: *die Hände ringen*. DKGde liburuan, etsipena adierazteko erabiltzen da, gaztelaniaz *retorcerse las manos*-ekin itzultzen da, eta euskarazko ordain gisa *eskuak igurtzi* daukagu. Gure iritziz, euskaraz ohikoa den hitz-konbinazioa emateko ahalegina dago, baina semantikoki ez da beste testuetan esaten dena jasotzen.

6.30. taula: *die Hände rigen, retorcerse las manos, eskuak igurtzi*

| | | |
|--|---|---|
| “Um Himmels willen!” rief er und rang die Hände. “Was für ein Unglück, Kinder! (DKGde) | —¡Vaya por Dios! —exclamó retorciéndose las manos. —¡Qué desgracia, niños! (DKGes) | —Ai, ene! -esan zuen eskuak igurtziz. —Hau zoritxarra, haurrak! (DKGeu) |
|--|---|---|

HLko testuen kasuan, gaztelaniazko bertsioak baldintzatuta, euskarazko bertsioetan ez da jatorrizko UFen esanahia jasotzen. Bi kasuak DLW liburukoak dira; bata aipatu dugu dagoeneko (ikus 6.22), eta bestea 6.31 taulan ikus dezakeguna da.

6.31. taula: *mit Händen greifen können*

| | | |
|--|---|--|
| (...) das will niemand gern glauben, und mich dückt, man kann es mit Händen greifen. (DLWde) | pero, por más que para mí sea una verdad inconclusa, nadie consiente en creer que (...) (DLWes) | baina, niretzat egia, burutugabea izan arren, inork ez dik (...) (DLWeu) |
|--|---|--|

Jatorrizko testuan *mit Händen greifen können* UFa erabiltzen da, eta adierazi nahi da zerbait, idazten duen horren iritziz, agerikoa dela, begien bistakoa dela (‘offesichtlich sein’). Gaztelaniazko ordaina, berriz, “por más que para mí sea una verdad inconclusa da”, eta euskarak gertutik jarraitzen dio zubi-bertsioari (“niretzat egia, burutugabea izan arren”). Hala, bi itzulpenetan, ez da ez UFa ez esanahia gordetzen.

Ezohiko hitz-konbinazioak

Azpiatal honetan aipatuko ditugun lau kasuetan, UFrik erabili ez arren itzulpenetan, “esku” hitza jasotzeko ahalegina ikusten da, alde

batetik, baina, aldi berean, xede-hizkuntzan ezohikoak diren hitz-konbinazioak sortzeko joera dago.

6.32. taula: Ezohiko hitz-konbinazioak

| | | |
|---|---|---|
| 1 | Wir Pechvögel waren dem Weinen nahe. Der Bärenwirt raufte sich voller Verzweiflung das Haar und der Schmied rang die Hände . (BUSde) | Gizarajook negar egiteko puntuan geunden. Ostalariak, amorruz beterik, ileak ateratzen zituen burutik; errementariak eskuak atzaparkatzen zituen . (BUSeu) |
| 2 | “Na, du kommst ja auch schon”, empfing Sandra Jan und stemmte die Hände in die Hüften . “Ich warte hier schon seit Stunden”. (ELde) | —Iritsi zara azkenean zu ere —eman zion Jani ongietorria Sandrak, eskuak gerrian lotzen zituen bitartean. Orduak daramatzat zure zain. (ELeu) |
| 3 | wir müssen ihm auch die Fortpflanzung aus der Hand nehmen . (HFde) | ugalkuntza ere kendu egin behar diogu eskumenetik . (HFeu) |
| 4 | Der liebe Gott! Er machte es mit Seuchen; wir haben ihm die Seuchen aus der Hand genommen . (HFde) | Jainko maitea! Beronek, hain zuzen ere, izurriteen bidez orekatzen baitzuen biztanletza; kendu egin dizkiogu izurriteok eskumenetik , ordea. (HFeu) |

Lehenengo kasuan, bi UF jarraian daude⁴¹ jatorrizko testuan: *sich das Haar raufen* (‘völlig verzweifelt sein’, etsiak jota egon) eta hainbat aldiz aipatu dugun *die Hände ringen* UF zinetikoa. Euskarazko itzulpenean, bi kasuetan ezohiko irudiak sortzen direlakoan gaude; izan ere, amorratuta zaudenean *burutik ileak ateratzea* eta *eskuak atzaparkatzea* ezohiko hitz-konbinazioak dira. ETC corpusean, esate baterako, ez dugu hitz-konbinazio horien adibiderik aurkitu.

Ondoren, beste UF zinetiko bat daukagu: *die Hände in die Hüften stemmen*. Schemannen hiztegi elebidunaren arabera, gaztelaniazko ordaina *ponerse en jarras* litzateke, eta euskarazko hiztegi-baliokideak *eskuak gerrian*, *eskuak aldaketan/gerrian jarri* (Zehazki),

⁴¹Dagoeneko aipatu dugun kate fraseologikoa dago hemen (ikusi 6.1).

hazta egin (Elhuyar), *besoak hazta egin* (Intza) edo *gerrian eskuak azta eginda* (Mokoroa) lirateke. Zabaletak sortu duen esapidea, *eskuak gerrian lotu*, bestalde, ez dugu ez hiztegietan ez ETC corpusean aurkitu.

Azkenik, HF liburuan, bi aldiz agertzen da *jmdm etwas aus der Hand nehmen* UFa ('Norbaiti zerbait kendu' esan nahi du), eta Joxe Austin Arrietak hitz-konbinazio bera erabiliz itzultzen ditu bi pasarteak; *norbaiti zerbait eskumenetik kendu* da, alegia, berak egiten duen itzulpena. ETC corpusean, ordea, *eskumenetik kenduren* hiru agerraldi besterik ez ditugu aurkitu, eta horietatik bi Arrietaren itzulpenetan, hain zuzen.

Jmdm etwas in die Hand drücken UFa

Ez dugu *UF* ⇒ *UFrik* ez atala amaitu nahi jatorrizko testuetan dezente agertzen den UF bat aipatu gabe. Dagoeneko aipatu dugu (ikus 6.25 taula), *jmdm etwas in die Hand drücken* ('norbaiti zerbait bidenabar, disimuluan, ezkutuan eman') esapideaz ari gara. Jatorrizko testuetan 25 aldiz agertzen da, eta itzulpen aukerak ugariak dira: *eskupekoa eman*, *luzatu*, *estutu*, *norbaiten eskuetan utzi*, *eskura pasatu*, *erakutsi*, *eskuan/eskuetan jarri*, *eman* eta *eskuan estutu*. Azken hiru horiek dira sarrien aurkitu ditugunak, eta azkena HLaN zuzenean itzulitako testuetan bakarrik. Aukera hori da jatorrizko testuari gertuen jarraitzen diona. Ikus ditzagun adibideak:

6.33. taula: *jmdm etwas in die Hand drücken*, *eskuan zerbait estutu*

| | | |
|---|--|---|
| 1 | es war, so schien mir, der Mann, der damals das Plakat getragen und mir das Büchlein in die Hand gedrückt hatte . (DSWde) | hura zen, hala iruditu zitzaidan, beste hartan iragarkia zeraman gizona eta eskuetan txostena jarri zidana . (DSWeu) |
| 2 | Ottilien wurde das Blaettchen in die Hand gedreuekt , den ersten Augenblick, wo er sich ihr naechern konnte. (DWVde) | Ottiliari eskuan estutu zion orritxo a beragana hurbildu ahal izan zen uean. (DWVeu) |

| | | |
|---|---|---|
| 3 | Da holte an der nächsten Laterne der dicke Asthmatiker ein Pack Postkarten aus seiner Tasche, sah Franzen betrübt an, drückte ihm zwei in die Hand: (BAde) | Halako batean, hurrengo kaleargian, asmatiko lodiak txartel-pakete bat sakelatik atera, atsekabeturik Franzi begiratu, eta haietako bi estutu zizkion eskuan: (BAeu) |
| 4 | Drückt Franz die Postkarte in die Hand , infolge widriger Umstände zurücktreten. (BAde) | Franzi txartela eskuan estutzen dio , gorabehera oker batzuegatik tratua hautsi beharra. (BAeu) |
| 5 | Und auf der kleinen Insel mit der Persilsäule muß er ihr die Blumen in die Hand drücken. (BAde) | Eta Persil zutoinaren uharte txikian estutu behar dizkio Franzek loreak eskuan. (BAeu) |

Alde batetik, atentzioa ematen du zein modu sistematikoan itzulzen diren jatorrizko UFak, bereziki BAeu liburuan. Hala ere, beste behin ere agertzen da BAde liburuan UF hori bera, eta, kasu horretan, itzultzaileak beste bide bati heltzen dio.

6.34. taula: *jmdm acht Groschen in die Hand drücken*

| | |
|---|---|
| Sonst bin ich ein Ochse, und er hat recht, daß er mir seine acht Groschen in die Hand drückt ". (BAde) | Bestelakoa inuzente hutsa dun, eta lau sos ematen dizkionak ondo egiten din". (BAeu) |
|---|---|

Ikus daitekeen moduan, testu alemaneko “zortzi txanponak” (“acht Groschen”) “lau sos” dira euskaraz. Gaztelaniazko *cuatro cuartos*, *perras* ekarri digu gogora horrek, eta badaezpada gaztelaniazko bertsoan (Döblin 1996) ere begiratu dugu. Hauxe da aurkitu duguna: “Si no, sería un burro y tendría razón quien me **diera los cuatro cuartos**”. Ezin dugu jakin gaztelaniazko testuaren interferentzia egon den ustez zuzenean itzulitako testu honen kasuan, edo interferentzia beste mota batekoa izan den. Nolanahi den, kasu konkretu hau zeharkako kopia gisa markatu dugu.

HGLan ustez zuzenean itzuli den beste testu baten kasuan, antzeko egoerarekin egin dugu topo. Jatorrizko testuan norbaitek beste bati erabat zimurtua dagoen billete bat estutzen dio eskuan, eta, euskaraz, berriz, txanpon mordo bat dira bata besteari luzatzen dizkietenak. Gaztelaniazko bertsiora jo dugu hemen ere, eta badi-rudi azken bertsio horrek nolabaiteko eragina izan duela euskarazko testuan, 6.35 taulan ikus daitekeen moduan. Beraz, jatorrizko konpilatuaren zantzuak nabarmen dira kasu jakin honetan.

6.35. taula: *jmdm einen mehrfach gekniffenen Schein in die Hand drücken*

| | | |
|---|--|--|
| (...) drückt der Frau einen mehrfach gekniffenen Schein in die Hand und läuft zu Lotte zurück. (DDLde) | (...) tiende a la mujer un puñadito de monedas y corre presurosa hacia Carlota. (DDLes) | (...) txanpon mordo bat luzatzen dio andreari. Jarraian korrika abiatzen da Lotterengana. (DDLeu) |
|---|--|--|

6.5.3.4 UF⇒kopia zuzena

Goian esan bezala, beste ikerketa batzuetako emaitzekin alderatuta, gure kasuan kopien portzentajea nahiko altua da. Kopia zuzenei dagokienez –hau da, jatorrizko UFari oso gertutik jarraitu dioten itzulpen aukerak, neurri handiago edo txikiagoan alemanetik hitzez hitz itzultzen diren horiek–, kasuen % 9,60 osatzen dute. HGLan kasu gehiago daude HLAN baino, eta zeharka itzultitakoetan zuzenean itzultitakoetan baino gehiago, baina aldea ez da horren nabarmena. Hurrengo lerroetan, aukera honi dagozkion 29 kasuak aztertuko ditugu.

Ezohiko hitz-konbinazioak

Alde batetik, jatorrizko UFak zuzenean alemanetik kopiatzearen ondorioz, euskaraz sortutako ezohiko hitz-konbinazioak jaso ditugu 6.36 taulan. Lehen bi adibideak HGLkoak dira, eta beste guztiak HLkoak. Sei adibide horiez gain, baditugu hamaika gehiago corpusean, baina kasu adierazgarrienak jasotzea erabaki dugu.

6.36. taula: Ezohiko hitz-konbinazioak euskaraz

| | | |
|---|---|--|
| 1 | “War es dir peinlich?” wollte Meike wissen, nachdem der Vorhang zum letzten Mal gefallen war und sie Hand in Hand von der Bühne gingen . (ELde) | —Lotsatu egin zara? —jakin nahi izan zuen Meikek, oihala azken aldiz erori eta eskua eskutan jokalekutik alde egiten zutela . (ELeu) |
| 2 | Kinder muss man so lange an der Hand führen , bis sie den rechten Weg genau kennen!"(DAKde) | Haurrak eskutik gidatu behar dira harik eta bide zuzena berezteko gai diren arte (DAKeu) |
| 3 | “Eine unbedeutende Nachhilfe”, sagte er, indem er eine letzte Hand an Aschenbachs Äußeres legte . (DTVde) | Azken ukitutxo bat —esan zuen azken esku bat emanez Aschenbachen kanpoaldeari. (DTVe) |
| 4 | Er wehrt sich tapfer und wild mit Händen und Füßen , aber es hilft nichts, es geht über ihn, er muß müssen. (BAde) | Eskuekin eta hankekin defendatzen da sendo eta gogor, baina alferrik da, bera baino gehiago da, beharra behar. (BAeu) |
| 5 | Er hielt natürlich nicht seine schützende Hand über alle, nicht über den Lederhändler Marx und den Kommunisten Krupu. (ACde) | Bere esku babeslea ez zuen , noski baino noskiago, guztien gain ipintzen , ez zuen Marx larru merkataria edo Krupu komunistaren gain ipini. (ACeu) |
| 6 | Hand aufs Herz , ist es ein anständiger Beruf oder nicht?". (BAde) | Eskua bihotzean , itxurazko lanbidea al da?". (BAeu) |

Lehenengo adibidean, bi neskak “eskuak eskutan” egiten dute alde jokalekutik, hau da, eskutik helduta. Hitz-konbinazio hori ez dugu inongo corpusetan aurkitu. Gogora dezagun, hala ere, testu berean

ezohikoa den beste hitz-konbinazio batez (“eskuak gerrian lotu”) ere aritu garela aurreko azpiatalean (ikusi 6.32).

Bigarrenik, “eskutik gidatu” hitz-konbinazioa daukagu xede-tes-tuan, zeina “an der Hand führen” UFaren kopia zuzena den. ETC corpusean, esate baterako, euskarazko egituraren agerraldi bakarra aurkitu dugu.

Hirugarren kasuan, *eine letzte Hand an etwas legen* UFak ‘zerbait azkendu, zerbaiti azken ukitua eman’ esanahia dauka. Gure corpuseko adibidean, ordea, “azken esku bat eman” erabiltzen da. Berriz ere, corpusetara jo dugu, eta bi agerraldi aurkitu ditugu: bata itzulitako testu batean⁴² eta bestea prentsako testu batean⁴³.

Laugarren adibideko UFak, *sich mit Händen und Füßen gegen etwas wehren*-ek, ‘eginahal guztian zerbaiti aurre egin’ esanahia dauka zentzu fraseologikoan⁴⁴, eta, hitzez hitz, itzulpenean ikus dezakegun moduan, ‘eskuekin eta hankekin defendatu’ esan nahi du. Horrela, hemen ere, zentzu literala kopiatzen da, eta ohikoa ez den hitz-konbinazioa sortzen.

Azken aurreko adibideko UFa ere hitzez hitz itzuli da. *Seine schützende Hand über jmdn halten*-ek ‘norbait babestu’ esan nahi du kasu honetan⁴⁵. Alde batetik, hitzez-hitzezko itzulpen hori daukagu, baina esaldi berean “noski baino noskiago” hitz-konbinazioa ere daukagu, alemanezko “natürlich”-en baliokide litzatekeena hemen. Badirudi,

⁴²“Lan hori egiten genuen tigre larru itxurako oihal-etxola batzuei **azken eskua emaitako**: 4 oihal-etxola puska elgarri botoinaturik lau gizonen aterbe izan zitezkeen”.

⁴³“Formakuntza huni jarraipen bat eta nolabait **azken esku bat eman nahian**, Euskal Herriko Parrophia-Abesbatzen Elkargoak deitzen ditu formakuntza huntan parte hartu duten guziak Ezpeletan iraganen den ospakizunera, otsailaren 9 an, igandez”.

⁴⁴*Oponerse/resistirse a algo con todas sus fuerzas* (Schemannen hiztegi elebiduna).

⁴⁵Zentzu erlijiosoan erabiltzen bada, Schemannen hiztegi elebidunean gaztelaniaz ematen den ordaina *extender su mano protectora sobre algo/alg.* da. Baina, hemen bezala, beste testuinguru batean erabiliz gero, “proteger/amparar a alg.”, “estar bajo la protección de alg.” edo “estar al amparo de alguien” lirateke hiztegi baliokideak.

euskaraz “arrotz” samarra den hitz-konbinazio hori konpentsatzeko, “jator” kutsua emango dion zerbait erabiltzen duela itzultzaileak. ETCra jo dugu berriz, eta “noski baino noskiago” batez ere jatorriz euskaraz sortutako testuetan erabiltzen dela ikusi dugu.

Azkenik, *eskua bihotzean* da atal honetan ikusi ditugun adibide guztietatik euskaraz ohikoena dena, gehien erabiltzen dena. Baina, hemen jartzea erabaki dugu OEH eta XXECE corpusetan egin ditugun kontsuluten arabera, tradizioan erabili den UFa “eskuan bihotza” delako. Eta, ETC corpusean egin ditugun kontsuluten arabera, erabili erabiltzen da *eskua bihotzean*, baina agerraldi kopurua, zazpi, ez zaigu horren adierazgarria iruditu.

Adibideak ikusi ondoren esan daiteke jatorrizko UFak nahiko gardenak direnez eta testuinguru jakin batean kokatzen direnez, UF horiek hitzez hitz itzuli izanagatik ere, ez dela xede-testuetako ulermena oztopatzen. Baina jatorrizkoak ohiko UFak dira, eta xede-testuetako hitz-konbinazioak, berriz, ez dira horren ohikoak. Beraz, ikuspuntu pragmatikotik, maiztasunari dagokionez, ez datoz bat. Itzulpen prozesuari erreparatzen badiogu, esan dezakegu UFen gardentasunak eragina izan dezakeela itzulpenean.

Maila pragmatikoan: lehentasun semantikoa

Kopia zuzenekin jarraituz, azpiatal honetan, ikuspuntu pragmatikotik hain konbentzionala ez den itzulpen kasu bat aurkeztuko dugu. Dagoeneko aipatu ditugu horrelako beste bi kasu, horiek ere HLkoak (ikusi 6.15 eta 6.17).

6.37 taulan ikus daitekeen moduan, jatorrizko testuan, *freie Hand haben* UFaren bariante bat daukagu: *freie Hand bekommen*. Euskaraz, *eskuak libre geratu* erabiltzen da. ETC corpusean bilaketa egiten badugu, ikusiko dugu *eskuak libre izan/eduki/utzi* erabiltzen dela, bereziki prentsako testuetan, eta zentzu fraseologikoan erabili ere. Baina, kasu horietan, *eskuak libre* dituen hori pertsona bat izan ohi da, eta, hemen, berriz, mesozefaloari geratzen zaizkio *eskuak libre*. Horregatik diogu euskarazko testuan pragmatikoki konbentzionala ez

den emaitza daukagula. Gaztelaniazko bertsioa ere kontsultatu dugu, itzultzaileak kasu horretan zer egin duen ikusteko: “Todo eso, como queda dicho, pudo hacerlo Reinhold porque unos vasos de aguardiente le habían narcotizado el cerebro y, como consecuencia, **su mesocéfalo**, que, en general, era lo más hábil en él, **quedó en libertad para actuar**” (Döblin 1996). Kasu horretan, itzultzaileak ez du *esku*-rekin osatutako UFa erabiltzen, UF desberdin bat baizik. Horretaz gain, atentzioa eman digu euskarazko eta gaztelaniazko itzulpenek aditz berbera erabiltzen dutela (*geratu*, *quedar*), alemanezkoaren desberdina dena (*bekommen*), eta beste interferentzia zantzu batzuk ere badaudela; esate baterako, *tüchtig* adjektiboa itzultzerako orduan, *hábil* erabiltzen da gaztelaniaz eta *abil* euskaraz. Hori guztia kontuan hartuta iruditzen zaigu gaztelaniazko bertsio horrek neurri handiago edo txikiagoan eragina izan duela euskarazkoan.

6.37. taula: Lehentasun semantikoa

| | |
|--|---|
| <p>Alles dieses konnte, wie gesagt, Reinhold, weil ein paar Glas Schnaps sein Großhirn narcotisierten und infolgedessen sein Mittelhirn freie Hand bekam, das bei ihm im ganzen tüchtiger war. (BAde)</p> | <p>Hori dena, esan bezala, egiteko gauza izan zen Reinhold, izan ere baso pare bat pattarrek garuna narcotizatu eta, ondorioz, eskuak libre geratu zitzaizkion bere mesozefaloari, huraxe izanik, oro har, bere parterik abilena. (BAeu)</p> |
|--|---|

Modifikazio kasu bat

Hurrengo kasua ere kopia zuzen gisa identifikatu dugu; izan ere, alemanezko atsotitz bat (*besser einen/den Spatz in der Hand, als eine/die Taube auf dem Dach*) modifikatu egiten da jatorrizko testuan (*besser ein Spiegelein in der Hand als zwei an der Wand*), eta euskaraz kopiatu egiten da UF modifikatu hori.

Euskaraz, UF aleman horren baliokide ugari daude⁴⁶. Zehazki

⁴⁶Ikusi: <http://www.ametza.com/bbk/htdocs/garatec.htm> (Gotzon Gara-

hiztegia, esate baterako, honako hau aurkitu dugu: *bat hobe eskuan, bi haizean baino*. Horren modifikazio gisa uler liteke euskarazko bertsioko itzulpena, eta horrela azalpen metalinguistikoa ere (“ezagutzen duk aspaldiko esaera zaharra”) ez litzateke lekuz kanpo egongo. Beraz, interferentzia positiboa litzateke honako hau.

6.38. taula: Modifikazioa

| | |
|--|---|
| Du kennst ja aber das alte weise Wort: ein Spiegelein in der Hand ist besser als zwei an der Wand. (DSWde) | Baina ezagutzen duk aspaldiko esaera zaharra: ispilutxo bat eskutan nahiago, bi horman esegita baino. (DSWeu) |
|--|---|

Zuzeneko edo zeharkako kopiak?

Zalantzazko gisa markatu ditugu hurrena aipatuko ditugun kasuak; izan ere, zaila da zehazten jatorrizko edo zubi-hizkuntzaren eraginez sortu diren itzulpenak, hau da, zaila da zehazten zuzeneko edo zeharkako kopiak diren.

Jatorrizko testuetan agertzen diren UFak honako hauek dira: *für jmdn/etwas die/seine Hand/Hände ins Feuer legen* (3 aldiz guztira) eta *sich (vor Vergnügen/Schadenfreude/... Kälte/... /zufrieden/...) die Hände reiben* (12 aldiz guztira). Hitzez-hitzeko itzulpena eginez gero, lehenak “eskua(k) sutan jarri” esan nahiko luke, eta bigarrenak, berriz, “eskuak igurtzi”. Dakigun moduan, gaztelaniaz ere badaude, kasu hauetan, oso antzekoak diren eta asko erabiltzen diren UFak: *poner la mano en el fuego* eta *frotarse las manos*, alegia.

6.39. taula: Zalantzazko kasuak

| | | |
|---|--|---|
| 1 | Dafür lege ich die Hand ins Feuer. (BUSde) | Eskua sutan jarriko nuke! (BUSeu) |
|---|--|---|

teren hiztegia).

| | | | |
|---|--|---|---|
| 2 | “Na, bei dem ganzen Kuchen!”. Sie rieb sich die Hände . (SLHde) | | “Horrenbeste tarta eta abarrekin!”. Neskatoak eskuak igurtzi zituen . (SLHeu) |
| 3 | “Den hätten wir”, sagte er und rieb sich die Hände . (EDde) | Pronto volvió Gustavo y dijo, frotándose las manos : —¡Ya es nuestro! (EDes) | Laster itzuli zen Gustabo eta, eskuak igurtziz , esan zuen: —Gurea duk! (EDeu) |

Euskaraz, hiztegi mailan behinik behin, badaude alemanezko eta gaztelaniazko UF horien ordain gisa funtziona dezaketen UFak. Alde batetik, *lepoa egin* edo *burdina gorria eskuetan hartu* aurkitu ditugu hiztegietan, eta, bestalde, Intza proiektuko webgunean *eskuak berotu* agertzen da *frotarse las manos*-en baliokide gisa. Baina, Aleuska-Phraseo corpuseko kasuetan, *die Hand ins Feuer legen* edo *sich die Hände reiben* agertu den bakoitzean (15 aldiz guztira), alemanezko (eta gaztelaniazko) UFaren hitzez-hitzezko kopia egin da. Datu hori aintzat hartuz esan daiteke kasu horietan egokitasunerako joerak indar handiagoa daukala onargarritasunerakoak baino.

Euskal corpusetara ere jo dugu, *eskua sutan jarri* eta *eskuak igurtzi* zein neurritan erabiltzen diren ikusteko. Lehenengoaren kasuan, batez ere prentsako testuetan (22 agerraldi) eta Goenkalen (17 agerraldi) agertzen da, eta, literatur testuetan, itzulpenetan (5 agerraldi) jatorrizkoetan (agerraldi bakarra) baino gehiago. Bigarrenari dagokionez, oro har gehiago erabiltzen dela esango genuke: prentsako testuetan erabiltzen da gehien (29 agerraldi), eta itzulpenetan (16 agerraldi) jatorrizkoetan (11 agerraldi) baino gehiago hemen ere. Prentsako testuetan agerraldi gehiago aurkitzea logikoa da, 3.2.3.1 atalean aipatu dugun moduan, prentsako testuz osatutako azpicorpua baita (“neutro” gisa identifikatzen dena) hitz kopuru handiena biltzen duena ETC corpusean.

Itzulpenean eragina izan dezakeen beste faktore bat, beraz, gaztelaniaz eta alemanez antzekoa den UF bat egotea izan daiteke; hau

da, alemanez eta gaztelaniaz errotuta dauden UFen kasuan, euskaraz kopiaren alde, eta esapide jatorragoak edo tradizio luzeagoa dutenak erabiltzearen aurka egiten da.

6.5.3.5 UF⇒zeharkako kopia

Dagoeneko azaldu dugu nola ulertzen ditugun guk zeharkako kopiak, eta saiatu gara adibide baten bidez fenomeno hori azaltzen (ikus 6.5). Hain zuzen ere, zeharkako testu edo hizkuntza baten eragina jasan duten UFek osatuko dute, gure kasuan, zeharkako kopien multzoa.

Azpiatal honetan, AleuskaPhraseo corpuseko 14 kasuetatik adibide argienak erakutsiko dizkizuegu. Garrantzitsua iruditzen zaigu zuzeneko itzulpenetan aurkitutako adibideak eta zeharkakoetan aurkitutakoak bereiztea. Izan ere, ustez zuzenean itzuli diren horietan, zeharkako kopiak itzultzailearen buruan dagoen beste hizkuntza baten interferentziaren eraginez edo jatorrizko konpilatuak erabiltzearen eraginez sortuak izango dira neurri handiago edo txikiagoan. Hori dela eta, zeharkako kopia kognitiboez edo testualez hitz egin daiteke kasu horietan. Zeharkako itzulpenetan, berriz, alderatzen ditugunak alemanezko eta euskarazko bertsioak direnez, interferentzia zubi-testuarena da kasu gehienetan. Horregatik, hemen, zeharkako kopia testualaz hitz egin dezakegu. Laburbilduz, produktuari begiratzen badiogu, bai zuzeneko eta bai zeharkako itzulpenen kasuan, zeharkako kopiez hitz egin behar dugu, alderatzen ditugunak alemanezko jatorrizkoa eta euskarazko xede-testua direlako; baina, prozesuari begiratzen badiogu, desberdin aztertu behar ditugu zuzeneko eta zeharkako itzulpenak.

Hasteko, zuzeneko itzulpenak aztertuko ditugu, eta, horien barruan, HGLko lau adibide ikusiko ditugu:

6.40. taula: HGLko testuak

| | | |
|---|---|---|
| 1 | Boris stand dicht hinter ihm und rang seine grünen Hände , weil ihm die anderen Monster so Leid taten. (GGde) | Boris bere atzean itsatsirik zegoen eta beste munstroek ematen zioten penarengatik esku berdeak bihurritzen ari zen . (GGeu) |
| 2 | Der Herr Direktor schlägt die Hände überm Kopf zusammen und tut überhaupt, als sei er der Verzweiflung nahe. “Entsetzlich!” sagt er. (DDLde) | Zuzendari jaunak, eskuak burura eramanez , zalantzak jota dirudi: –Izugarria, izugarria! –besterik ez daki esaten-. (DDLeu) |
| 3 | “Solche großen Hunde brauchen eine feste Hand! ”. (SLHde) | “Horrelako txakur handiek esku gogorra behar dute! ”. (SLHeu) |
| 4 | Mo hatte sich ein paar Taschenbücher gekauft, sie sahen so abgegriffen aus, als wären sie schon durch viele Hände gegangen . (THde) | Mok poltsikoko liburu batzuk erosi zituen, oso erabiliak ziruditenak, esku askotatik pasatu izan balira bezala. (THeu) |

Lehenengo adibideko UFaren beste hiru kasu aztertu ditugu da-goeneke: *die Hände ringen* UF zinetiko alemana “eskuak astindu” bidez itzuli da bi aldiz (LDeu), “eskuak atzaparkatu” bidez behin (BUSeu), “eskuak igurtzi” erabili da zeharkako testu batean (DK-Geu), eta, kasu honetan, “eskuak bihurritu” da xede-testuan daukagun itzulpen aukera. Kasu konkretu hau iruditzen zaigu gaztelaniazko *retorcerse las manos*-en kopia dela, eta, GGeu ustez zuzenean itzuli denez, zeharkako kopia gisa markatu dugu, interferentzia ez datorrelako jatorrizko testu alemanetik, bitarteko testu edo hizkuntza batetik baizik. Hala ere, ETCko emaitzek erakusten duten moduan, kontuan hartu behar da “eskuak bihurritu” hitz-konbinazioa ez dela horren ezohikoa euskaraz. Jatorriz euskaraz idatzitako testuetan lau agerraldi aurkitu ditugu, itzulitako testuetan hemezortzi aldiz agertzen da, eta prentsako testuetan, agerraldi bakarra dago. OEH eta XXECE corpusetan, bestalde, ez dugu kasu bakar bat ere aurkitu. Laburbilduz, “eskuak bihurritu” ez da historikoki erabili, baina hipot-

tesi modura esan liteke itzulpenaren bitartez normalizatzen ari dela hitz-konbinazio horren erabilera.

Bigarren kasuan, *die Hände überm Kopf zusammenschlagen* UFa daukagu. Hitzez-hitzeko esanahia honako hau da: ‘eskuak bata bestearen aurka buru gainetik jo’. Zentzu fraseologikoan, eskuekin keinu hori egiten denean, izua adierazi nahi da (‘entsetzt sein’, Dudenen arabera). Gaztelaniazko baliokidea, Schemannen hiztegi elebidunaren arabera, *llevarse las manos a la cabeza* lagunarteko UFa litzateke. Euskarazko bertsioa, “eskuak burura eramán”, azken horren kopia iruditzen zaigu. Hala ere, gaztelaniazko itzulpena kontsultatu eta gero, ez dugu uste testu horretan oinarritu denik euskal itzultzailea, eta, beraz, testu-interferentzia baino, interferentzia kognitiboa gertatzen dela esango genuke. Honela dio gaztelaniazko itzulpenak: “El señor director **levanta los brazos** fingiendo desesperación. –¡Espantoso! –dice–. ¿Y qué va a pasar cuando seáis unas señoritas y alguien quiera casarse con vosotras?” (Kästner 1957).

Aurreko adibidearekin egin dugun moduan, hemen ere corpusetara jo dugu, hitz-konbinazio horren erabilera beste testu-mota batzuetan nolakoa den ikusteko. OEH eta XXECE corpusetan ez dugu agerraldirik aurkitu, baina bai ETC corpusean: agerraldi gehien prentsako testuetan aurkitu dugu –32 aldiz, ondoren jatorrizko testuetan –12 aldiz–, eta, azkenik, itzulpenetan –3 aldiz. Oro har, norbaitek zerbait sinetsi ezin duenean, edo asaldatuta edo aztoratuta dagoenean erabiltzen da, baina beti ez da erraza zehazten zein zentzutan erabiltzen den. Azalpen metalinguistikoek lagundu ohi dute esanahia ulertzen (gure corpuseko adibidean “zalantzak jota dirudi”-rekin gertatzen den legez).

Hirugarrenik, *eine feste Hand brauchen* somatismoari erreferentzia egin nahi genioke. ‘Esku sendoa, irmoa...’ esan nahi du UF horrek hitzez hitz, eta, hedaduraz, zentzu fraseologikoan, ‘gogor edo zorrotz jokatu behar dela’ esan nahiko luke. Kasu honetan, euskarazko bertsioan, “txakur handiek esku gogorra behar” dutela esaten da, eta, gure iritziz, gaztelaniazko “mano dura” dago itzulpen horren atzean. ETC corpusean, prentsako testuetan agertzen da batez

ere, eta gutxi literatur testuetan. Prentsako testu horietan atentzia eman digu “esku gogor” kakotx artean agertzen dela sarri: “ (...) bere jardueran «esku gogorarekin» jokatzeko prest dagoela erakusten du”, “Senatari denetik, berriz, «esku gogorreko» agertu da”, “(...) eta «esku gogorra» eskatuz”, “(...) erraz aurkituko dute «esku gogoraren» aldeko prentsa mota bat”... Kakotxen erabilerak adieraz dezake hiztunak jakitun direla hitz-konbinazio hori mailegua dela.

Azkenengoz, *durch viele Hände gehen* UFa daukagu jatorrizko testuan. Hitzez hitz esan nahi duena da ‘liburuak esku askotatik joan direla’, eta fraseologikoki adierazten dena da liburuak pertsona askok erabili dituztela. Kasu honetan, UFa nahiko gardena da, eta itzultzaileak jatorrizko UFaren oso antzekoa den hitz-konbinazioa erabiltzen du euskaraz. Baina, iruditzen zaigu gaztelaniazko *pasar por muchas manos*-en are antzekoagoa dela⁴⁷. Goian ikusi berri ditugun kasuen aldean, ETCko agerraldi kopurua kasu honetan txikiagoa da: 6 agerraldi aurkitu ditugu prentsako testuetan, 2 jatorriz euskaraz idatzitakoetan, eta bakarra Goenkalen.

HLko testuei dagokienez, dagoeneko aipatu ditugun adibideez gain (ikusi 6.5 eta 6.34), beste bi aztertu nahi genituzke.

6.41. taula: HLko testuak

| | | |
|---|--|--|
| 1 | (...) ich hätte wohl eingesehen, daß ich dem Osten in die Hand spiele , und die unabhängige Presse schrieb, ich habe offensichtlich jeglicher Radikalität und dem Engagement abgeschworen. (ACde) | (...) ni, noski baino noskiago, ekialdekoei jokoa egiten ari nintzaiela konturatu izango nintzela; eta prentsa independenteak idatzi zuen, nik edozein erradikalizazio mota eta edonolako postura pertsonaletan sartzea baztertu egin nuela. (ACeu) |
|---|--|--|

⁴⁷Schemann-en *pasar por muchas manos* UFa jasotzen da *durch viele Hände gehen*-en baliokide gisa.

| | |
|---|---|
| <p>2 Nicht für unmöglich hielt ich es anfangs, daß Herr von Umprecht zu der Art von phantastischen Lügnern gehörte, die eine Mystifikation unter Schwierigkeiten von langer Hand vorbereiten, um sich interessant zu machen. (DTSde)</p> | <p>Hasieran ez zitzaidan ezinezkoa iruditu Von Umprecht jauna gezurri ameslarien gisakoa izatea, zailtasunen aurrean, aurrerapen handiz eta beren burua nabarmentzeko, iruzur bat prestatzen duten horietakoa. (DTSeu)</p> |
|---|---|

ACn, *jmdm in die Hand spielen* UFa daukagu jatorrizko testuan, eta euskaraz “norbaiti jokoa egin” hitz-konbinazioa. UF alemanak ‘norbaiti eskuan jolastu’ esan nahi du hitzez hitz, eta fraseologikoki, berriz, ‘norbaiten mesedetan zerbait egin’. Iruditzen zaigu euskarazko itzulpena gaztelaniazko UF baten kopia dela, *hacer a alguien el juego*⁴⁸ UFarena, alegia. Ustez zuzenean itzulitako testua denez, zeharkako kopia gisa markatu dugu. Corpusetan euskarazko hitz-konbinazio horren inguruko bilaketa egin eta gero, ETC corpusean bakarrik lortu dugu emaitzaren bat, eta hor prentsako testuetan bakarrik, hamazazpi agerraldi, hain zuzen ere.

Bigarren adibidean, *von langer Hand* UF alemana dago jatorrizko testuan, eta euskal itzultzaileak *aurrerapen handiz* erabili du. UF alemanaren esanahia hori da hain justu, ‘zerbait denbora luzez eta arretaz prestatu’. Gure iritziz, gaztelaniazko *con mucha antelación* egon liteke euskarazko itzulpen horren atzean. Gaztelaniazko bertsoa kontsultatu dugu, bertan UFa nola jasotzen den ikusteko, eta “preparar algo durante largo tiempo” erabiltzen da. Beraz, ez dirudi gaztelaniazko testu-interferentzia egon denik, baina ezin dugu jakin euskal itzultzaileak kasu konkretu honetan beste itzulpen batzuk kontsultatu dituen. Ez bada horrela izan, interferentzia kognitiboa gertatzen dela esango genuke. Hala ere, kontuan hartu behar da Elhuyar hiztegi elebidunean *con mucha antelación*-en ordain gisa, besteak beste, *aurrerapen handiz* jasotzen dela (Zehazkin⁴⁹ ez beza-

⁴⁸Obrar de modo que le aproveche a él, involuntaria o inadvertidamente en general (RAE).

⁴⁹Con mucha antelación, askoz lehenago (Zehazki).

la). Zentzu horretan, interferentzia instrumentala ere izan daiteke. Corpusetan egindako kontsultetan, bestalde, ez dugu agerraldi kopuru handia aurkitu. Hamar aldiz agertzen da ETC corpusean: hiru prentsako testuetan eta zazpi itzulpenetan.

Orain, zuzenekoak alde batera utzita, zeharkako itzulpenen azterketari helduko diogu.

Zeharka egin diren itzulpenetan, zeharkako kopia gisa markatu ditugun kasu gehientsuenak zuzeneko kopia gisa ere markatu ahalko genituzke. Gogora dezagun, itzulpen prozesuari ere erreparatzen diogun arren itzulpen-azterketa egiterako orduan, grafikoak egiteko, alemanezko eta euskarazko testuak izan direla alderatu ditugunak. Eta, oro har, gaztelaniazko bertsoietan agertzen diren UFak zuzenean euskarara itzultzeagatik identifikatu ditugu zeharkako kopia gisa; hau da, zeharkako kopia testualak lirateke gehientsuenak. Baina ez guztiak.

6.42 taulako adibidean, esate baterako, dagoeneko aipatu dugun *die Hände über dem Kopf zusammenschlagen* UF alemana daukagu, zeina gaztelaniara UF desberdin bidez itzuli den, eta euskarara gaztelaniazko UFaren kopia zuzen bidez. Esan bezala, baina, jatorrizko testu alemana eta euskarazko xede-testua erkatzen baditugu, zeharkako kopia testuala litzateke euskaraz daukaguna.

6.42. taula: HGLko adibidea

| | | |
|--|---|--|
| Jens schlug die Hände über dem Kopf zusammen und Bernhard hielt ihn zurück. (BLAde) | Jens se llevó las manos a la cabeza y Bernhard intentó calmarlo. (BLAes) | Jensek eskuak burura eraman zituen eta Bernhard saiatu zen hau lasaitzen. (BLAeu) |
|--|---|--|

Ustez zeharka itzuli den HLko hurrengo adibidean, bestalde, beste egoera baten aurrean gaude. Jatorrizko testuko *mit vollen Händen Geld ausgeben* UFA, beste UF antzeko baten bidez itzuli da gaztelaniara; hain zuzen, *gastar dinero a manos llenas*-en bitartez. Euskarazko itzulpena, ordea, gaztelaniazko beste UF baten kopia dela iru-

ditzen zaigu, RAE hiztegian jasotzen den *echar algo por la ventana*-rena (‘Desperdicarlo o malgastarlo’), alegia. Eta, *Dirua leihotik bota* hitz-konbinazioaren itxura fraseologikoa nabarmentzeko, azalpen metalinguistikoa (“esaera den bezala”) erabiltzen da. ETCko emaitzen arabera, lau aldiz bakarrik aurkitu dugu hitz-konbinazio hori, guztiak prentsako testuetan. Edozein modutan, ezin dugu ahaztu testu konkretu honen kasuan, paratestu mailako azterketan ezin izan dugula ziur jakin zuzenean edo zeharka itzuli den (ikus 5. kapitulua).

6.43. taula: HLko adibidea

| | | |
|--|--|---|
| Ich fing an, Geld auszugeben - mit vollen Händen , wie man sagt. (BMde) | Comencé a gastar dinero a manos llenas , como suele decirse. (BMes) | Hasi nintzen dirua leihotik botatzen , esaera den bezala. (BMeu) |
|--|--|---|

6.5.3.6 UF ⇒ ∅

Kasu bakarra aurkitu dugu. HLko testua da, eta, kasu honetan, zeharka egin da itzulpena. *Jmdm etwas in die Hand drücken* UFa da jatorrizko bertsioan agertzen dena, gaztelaniara itzuli itzultzen da, baina euskaraz desagertu egiten da. Ez dugu ahaztu behar itzultzaileak frantsesezko itzulpenean ere oinarritu zela esan zigula.

6.44. taula: UFa desagertu den kasu bakarra

| | | |
|--|--|---|
| Das fiel mir auf wie ein Donnerschlag, ich drückte ihr ein Stück Geld in die Hand und verließ sie eilend. (DLWde) | Estas palabras me hirieron como un rayo. Puse una moneda de plata en las manos de la anciana y me alejé casi corriendo. (DLWes) | Hitzok tximista baten antzera zauritu nindiaten, ia antxitxiketan urrutiratu ninduan. (DLWeu) |
|--|--|---|

6.6 Somatismoen azterketa XTetan

Aurreko atalean *Hand*-ekin egin dugun moduan, lehenik eta behin, xede-testuetan oinarritutako azterketa aurkeztuko dugu hemen ere, eta, ondoren, itzulpen aukerak analizatuko ditugu, datu orokorren taula eta grafikoak aztertuz eta itzulpen aukerak banan-banan aztertuz.

6.6.1 Xede-testuetan oinarritutako azterketa

Kasu honetan, bilaketak xede-testuetatik abiatuta egin ditugu. Horrela, dagoeneko aurreko atalean aipatu ditugun UFak aurkitu ditugu, baina, horietaz gain, *esku*-rekin osatutako beste hainbat somatismo ere; hau da, xede-testuetan *esku*-rekin osatutako UF guztiak ez dira sortu jatorrizkoan *Hand*-ekin osatutako UF bat zegoelako. Hain zuzen ere, xede-testuetan *esku*-rekin sortutako 146 kasutan, jatorrizko testuan ez dago UFrik, eta, 56 kasutan, jatorrizko testuan beste UF desberdin bat dago, *Hand*-ekin osatutako somatismoa ez dena, alegia.

Esku eta bere eratorrien agerpen-maiztasunari erreparatzen badiogu, badakigu guztira 3.068 aldiz agertzen dela AleuskaPhraso corpuseko xede-testuetan: 1.164 aldiz HGLko testuetan, 1.904 aldiz HLkoetan. Azken horietan, HGLan baino UF gehiago erauzi ditugu (231 HLAN eta 95 HGLan), *Hand*-ekin gertatzen zen bezala. Ikus ditzagun datu guztiak hurrengo taulan:

6.45. taula: *Esku* eta *Hand*: hitzaren agerraldi kopuruaren eta UF kopuruaren arteko proportzioa

| | HGL | | | HL | | |
|------|--------------|------|------|--------------|------|-------|
| | Hitz kopurua | UFak | % | Hitz kopurua | UFak | % |
| Esku | 1.164 | 95 | 8,16 | 1904 | 231 | 12,13 |
| Hand | 1.118 | 99 | 8,85 | 1.546 | 203 | 13,13 |

Beraz, bi hizkuntzen artean ez dago horren alde handia, UF-trinkotasunari dagokionez, baina bai HGL eta HLko testuen artean. Lehen aipatu bezala, helduen literaturan erabiltzen den hizkuntza konplexuagoarekin izan dezake lotura emaitza horrek.

Bestalde, azpicorpus bakoitzetik erauzi dugun somatismo kopurua ere kalkulatu dugu oraingo honetan. Alemanezko somatismoekin ikusi ditugun joera berdinak errepikatzen dira *esku*-rekin sortutako somatismoekin: HLko testuetan somatismo gehiago erauzi ditugu HGLkoetan baino, eta HL ZZko kopuru altua da bereziki deigarria. Desberditasun nabarmenena HGL ZH azpicorpusean aurkitu dugu: euskarazko somatismoen kasuan, gutxiago erauzi ditugu; HGL ZZ azpicorpusean, ordea, pixka bat gehiago.

6.46. taula: Erauzitako euskarazko somatismoen banaketa corpusean

| | UF kopurua | Portzentajea | Corpus 2 |
|--------|------------|--------------|----------|
| HGL ZZ | 67 | % 20,55 | % 22,93 |
| HGL ZH | 28 | % 8,59 | % 13,14 |
| HL ZZ | 189 | % 57,98 | % 48,42 |
| HL ZH | 42 | % 12,88 | % 15,52 |

Hand-ekin egin dugun moduan, *esku*-rekin ere hitzaren agerpen kopurua eta horiekin sortutako UF kopuruaren arteko proportzioa aztertu dugu testu bakoitzean, eta hemen ere *Antconc* programa erabili dugu testu bakoitzeko hitz kopurua zein den jakiteko.

6.7 taulako datuekin alderatuz gero, Mendigurenen kasuan atenzioa ematen du kasu batzuetan STetan lema eta UFen arteko proportzioa ez dela oso altua, eta, xede-testuetan, berriz, bai; hau da, xede-testuak fraseologikoki aberatsagoak direla esan daiteke. Zabalaren kasuan, aldiz, bai sorburu- bai xede-testuetan, proportzioa nahiko altua da; beraz, gorde egiten da aberastasun fraseologiko hori.

6.47. taula: Testu bakoitzeko lema eta UF kopurua

| Kodea | UF | <i>Esku</i> | Ehunekoa | Testua | Xede-egilea |
|-------|----|-------------|----------|--------|-------------|
| DGM | 7 | 18 | 38,89 | HGL | Mendiguren |
| GHK | 1 | 3 | 33,33 | HL | Garzia |
| DWV | 27 | 110 | 24,55 | HL | Mendiguren |
| DAK | 7 | 31 | 22,58 | HGL | Mendiguren |
| DKG | 3 | 14 | 21,43 | HGL | Gartzia |
| DKVZ | 8 | 40 | 20,00 | HGL | Legarreta |
| DEKB | 9 | 46 | 19,57 | HL | Zabaleta |
| DL | 2 | 14 | 14,29 | HL | Matauko |
| BUS | 4 | 28 | 14,29 | HGL | Zabaleta |
| ED | 5 | 36 | 13,89 | HGL | Sarasola |
| DASH | 2 | 17 | 11,76 | HGL | Iparragirre |
| SN | 4 | 36 | 11,11 | HL | Mendiguren |
| DPGM | 13 | 122 | 10,66 | HL | Arratibel |
| DBF | 7 | 68 | 10,29 | HL | Matauko |
| DTT | 5 | 49 | 10,20 | HL | Eguzkitza |
| DVZT | 6 | 64 | 9,38 | HL | Morales |
| SLH | 1 | 13 | 7,69 | HGL | Azkue |
| PA | 4 | 64 | 6,25 | HGL | Legarreta |
| DLW | 3 | 49 | 6,12 | HL | Lobera |
| JV | 3 | 52 | 5,77 | HGL | Sebrango |
| GG | 2 | 35 | 5,71 | HGL | Mendiguren |
| AC | 7 | 128 | 5,47 | HL | Azpiroz |
| DA | 5 | 94 | 5,32 | HL | Agirre |
| BM | 5 | 96 | 5,21 | HL | Múgica |
| KM | 4 | 77 | 5,19 | HL | Mendiguren |
| DP | 10 | 195 | 5,13 | HL | Garikano |
| DLT | 1 | 20 | 5,00 | HL | Múgica |
| HF | 5 | 105 | 4,76 | HL | Arrieta |
| BA | 12 | 256 | 4,69 | HL | Garikano |
| DSW | 4 | 86 | 4,65 | HL | Zabaleta |
| LD | 3 | 66 | 4,55 | HGL | Zabaleta |
| HLJ | 1 | 22 | 4,55 | HGL | Aristondo |
| BU | 1 | 23 | 4,35 | HL | Matauko |
| BLA | 1 | 23 | 4,35 | HGL | Urbistondo |
| DTV | 2 | 47 | 4,26 | HL | Mendiguren |
| TH | 15 | 366 | 4,10 | HGL | Zubillaga |
| RSF | 7 | 194 | 3,61 | HGL | Jaka |

| | | | | | |
|-------------|---|-----|------|-----|--------------|
| EL | 1 | 44 | 2,27 | HGL | Zabaleta |
| DDL | 1 | 54 | 1,85 | HGL | Narbaiza |
| JG | 1 | 58 | 1,72 | HL | Matauko |
| DTS | 2 | 124 | 1,61 | HL | Irazustabar. |
| DV | 0 | 34 | 0,00 | HL | Iraola |
| MM | 0 | 3 | 0,00 | HGL | Zabaleta |
| LODS | 0 | 2 | 0,00 | HGL | Zabaleta |
| DZW | 0 | 8 | 0,00 | HGL | Zubillaga |
| DKVG | 0 | 30 | 0,00 | HGL | Markuleta |
| DPS | 0 | 3 | 0,00 | HGL | Garikano |
| DKT | 0 | 1 | 0,00 | HGL | Ossa |

Hurrengo taulan bildu ditugunak xede-testuetan *esku*-rekin osatutako somatismo guztiak dira -326, hain zuzen.

6.48. taula: Xede-testuetatik erauzitako UFak eta horien agerraldi kopurua

| | UF | HGL | HL | Guztira |
|--|----|-----|----|---------|
| —en esku; norbaitek zerbait bere esku izan, hartu | 19 | 61 | 80 | |
| esku(a) eman | 12 | 41 | 53 | |
| esku hartu | 3 | 33 | 36 | |
| eskua luzatu | 6 | 24 | 30 | |
| —en esku(e)tan; Zerbait eskuan, eskuetan, izan, eduki | 14 | 13 | 27 | |
| eskura (izan, egon, eduki, jarri, ekarri... aditzekin) | 6 | 18 | 24 | |
| —en esku(e)tan erori; Norbait norbaiten eskuetan erori | 3 | 3 | 6 | |
| esku artean | 5 | 1 | 6 | |
| eskua estutu | 2 | 4 | 6 | |
| esku artetik ihes egin, eskuen artetik isuri | 2 | 3 | 5 | |
| eskua sartu | 1 | 3 | 4 | |
| eskua(k) ezarri | 3 | 1 | 4 | |
| esku ona izan | 2 | 1 | 3 | |
| nor bere eskuko izan, egon | 1 | 2 | 3 | |
| —EN ESKUETARA IRITSI | 2 | 1 | 3 | |
| eskua luzatu | 1 | 2 | 3 | |

| | | | |
|----------------------------|----|-----|-----|
| esku-hutsik | 1 | 2 | 3 |
| —en eskuz | 1 | 1 | 2 |
| eskutik utzi | 1 | 1 | 2 |
| eskuz egin(a) | 2 | | 2 |
| bigarren eskuko | 1 | 1 | 2 |
| -en eskutik | | 2 | 2 |
| esku bete | | 2 | 2 |
| norbaiten eskua eskatu | 1 | 1 | 2 |
| ESKUAK ASTINDU | 2 | | 2 |
| eskuz esku | | 2 | 2 |
| norbait eskutik heldu | | 2 | 2 |
| ESKU HUTSEZ (ZERBAIT EGIN) | 1 | | 1 |
| -EN ESKUETATIK ASKATU | 1 | | 1 |
| eskura eman | 1 | | 1 |
| ESKUETATIK KENDU | | 1 | 1 |
| NORBAITI ESKUA IRAKURRI | 1 | 1 | 2 |
| esku onetan egon | | 1 | 1 |
| eskua tinkatu | | 1 | 1 |
| ESKUAK LOTUTA (BUKATU) | | 1 | 1 |
| ESKUTIK JOAN | | 1 | 1 |
| Guztira | 95 | 231 | 326 |

Datu gordin hauek adieraz dezakete “esku” euskaraz fraseologi-koki produktibo samarra dela, eta, horregatik, itzulpenetan UF kopuru handia aurkitzeko aukera asko egon daitekeela. Gure tesiaren asmoetatik kanpo geratzen den arren, interesgarria izango litzateke aztertzea zer gertatzen den beste gorputz atal batzuekin osatutako euskal somatismoen itzulpenarekin.

6.48 taulan, *esku*-rekin osatutako 36 somatismo desberdin ikus daitezke. Jaso ditugun formak hiztegiko formak dira –aurkitu ditugun heinean jaso ditugunak, behinik behin. Letra larrietan daude-nak dira, hain zuzen, kontsultatu ditugun sareko hiztegieta (Elhuyar, Zehazki, Hauta Lanerako Euskal Hiztegia) aurkitu ez ditugunak. Edonola ere, datu hori jatorrizko testuan *Hand*-ekin sortutako somatismoen *type/token* proportzioarekin alderatuz gero⁵⁰, badirudi eus-

⁵⁰Gogora dezagun 302 UF aurkitu ditugula jatorrizko testuetan, eta horietatik

karaz *esku*-rekin osatutako UF gehiago dagoela; baina, aldi berean, alemanez baino gehiago errepikatzen dira, aniztasun gutxiago dago, alegia⁵¹.

6.6.2 Itzulpen-azterketa: datu orokorrak

Itzulpen-azterketa alderantzizko zentzuan egiterako orduan, hau da, bilaketak xede-testutik abiatuta egin ditugunean, lau itzulpen aukera aurkitu ditugu:

UF ⇒ **UF** xede-testuan *esku*-rekin osatutako somatismo bat aurkitu dugu, eta jatorrizko testuan beste fraseologismo desberdin bat dago, *esku*-rekin zerikusirik ez daukana⁵².

UF ez ⇒ **UF** xede-testuan *esku*-rekin osatutako somatismo bat aurkitu dugu, eta jatorrizko testuan ez dago UFrik.

UF ⇒ **zeharkako kopia** xede-testuan *esku*-rekin osatutako hitz-konbinazioa aurkitu dugu, gaztelaniaren eraginez sortu dena, eta jatorrizko testuan beste fraseologismo desberdin bat dago, *esku*-rekin zerikusirik ez daukana.

UF ez ⇒ **zeharkako kopia** xede-testuan *esku*-rekin osatutako hitz-konbinazioa aurkitu dugu, gaztelaniaren eraginez sortu dena, eta jatorrizko testuan ez dago UFrik.

71 direla desberdinak.

⁵¹Baina, ez dugu ahaztu behar alemanezko UFen hiztegiko formak biltzera-ko orduan, hiztegi espezializatuetera jo dugula, eta, horietan, askoz zehatzago jasotzen dituztela UFak. Esate baterako, Schemannen hiztegian, *Hand*, *Hände*, eta *Händen* hitzak hiztegiko sarrera gisa bereizten dira, eta bakoitzaren barruan UF desberdinak aurki ditzakegu. Euskaraz, berriz, oro har hiztegi orokorretan egin ditugu bilaketak, eta horrek emaitzetan eragina izan dezakeelakoan gaude. Adibidez, *zerbait eskuan/eskuetan izan/eduki* sarrera bat eta bakarra da gure zerrendan.

⁵²Kasu honetan, **UF** ⇒ **antzeko UF** itzulpen-aukera analisitik kanpo geratu da, aurreko atalean, *Hand*-ekin osatutako somatismoen itzulpenaz aritu garenean, aztertu ditugulako.

6.49 taulan ikus daitekeen moduan, bigarren aukera da –hots, jatorrizko testuan UFrik ez egonagatik, edo, bestela esanda, jatorrizko testuan UF-estimulurik ez izan arren, xede-testuan somatismoa erabili denekoa– gehien aurkitu duguna (146 aldiz). Kasu guztietan gailentzen den aukera da, baina HLAN zeharka itzuli diren testuetan aurkitu dugun portzentajea da bereziki nabarmentzen dena (% 90,91). Itzulpen-aukera ohikoena izateak adieraz dezake, lehen esan bezala, euskaraz *esku*-rekin osatutako somatismoak produktiboak direla, eta somatismo horien erabilera, beraz, itzulpen-aukera logikoena dela. Bigarrenik, 56 aldiz aurkitu dugu $UF \Rightarrow UF$ aukera, eta, azkenik, xede-testuan jatorrizkoa ez den beste hizkuntza bateko UF baten 9 kopia –zeharkako kopiak, alegia– zenbatu ditugu. Berziki HGLan zeharka itzuli diren testuetan ageri den portzentajeak eman digu atentzioa (% 12,50). Oro har, zeharkako kopia horien presentzia azpimarratzekoa dela iruditzen zaigu, portzentajeak bere horretan oso altuak ez izan arren, beste ikerketa lan batzuetan aipatu ere ez baita egiten itzulpen aukera hau. 6.50 taulan, itzulpen aukerak nola banatzen diren ikus dezakegu, testu-mota eta itzulpen modua aintzat hartuta.

6.49. taula: Itzulpen aukeren balore absolutuak

| | HGL ZZ | HL ZZ | HGL ZH | HL ZH | Guztira |
|-------------------------------------|--------|-------|--------|-------|---------|
| UF \Rightarrow UF | 12 | 33 | 9 | 2 | 56 |
| UF ez \Rightarrow UF | 36 | 79 | 11 | 20 | 146 |
| UF \Rightarrow zeharkako kopia | 2 | 2 | 1 | 0 | 5 |
| UF ez \Rightarrow zeharkako kopia | 1 | 0 | 3 | 0 | 4 |
| Guztira | 51 | 114 | 24 | 22 | 211 |

6.50. taula: Ehunekoetako banaketa, testu-mota eta itzulpen moduaren arabera

| | HGL ZZ | HL ZZ | HGL ZH | HL ZH | Guztira |
|------------------------|--------|-------|--------|-------|---------|
| UF \Rightarrow UF | 23,53 | 28,95 | 37,50 | 9,09 | 26,54 |
| UF ez \Rightarrow UF | 70,59 | 69,30 | 45,83 | 90,91 | 69,19 |

| | | | | | |
|-----------------------|--------|--------|--------|--------|--------|
| UF⇒zeharkako kopia | 3,92 | 1,75 | 4,17 | 0,00 | 2,37 |
| UF ez⇒zeharkako kopia | 1,96 | 0,00 | 12,50 | 0,00 | 1,90 |
| Guztira | 100,00 | 100,00 | 100,00 | 100,00 | 100,00 |

Hurrena, HGL eta HLko testuen arteko bereizketa islatzen duen taula ikus dezakegu. Goian aipatu dugun moduan, zeharkako kopien portzentajea altuagoa da HGLko testuetan (% 9,33 guztira). HLko testuetan, bestalde, HGLkoetan baino UF gehiago aurkitu dugu, bereziki jatorrizko testuan UFrik ez dagoen kasuetan. Beraz, HLko xede-testuak HGLkoak baino “fraseologikoagoak” direla ondoriozta daiteke, eta HGLan, berriz, gehiago “onartzen” dela interferentzia.

6.51. taula: Ehunekoetako banaketa, testu-motaren arabera

| | HGL | HL |
|-----------------------|--------|--------|
| UF⇒UF | 28,00 | 25,74 |
| UF ez⇒UF | 62,67 | 72,79 |
| UF⇒zeharkako kopia | 4,00 | 1,47 |
| UF ez⇒zeharkako kopia | 5,33 | 0,00 |
| Guztira | 100,00 | 100,00 |

Azkenik, zuzenean eta zeharka itzulitako testuen arteko bereizketa egiten badugu, azpimarratuko genuke zeharka itzulitakoetan zeharkako kopia gehiago aurkitu dugula (% 8,69) zuzenean itzulitakoetan baino (% 3,03). Bestalde, zuzenean itzulitako testuetan, xede-testuetan aurkitutako UFeen portzentajea altuagoa da, baina bien arteko aldea ez da horren adierazgarria, [6.52](#) taulak erakusten duen legez.

6.52. taula: Ehunekoetako banaketa, itzulpen moduaren arabera

| | ZZ | ZH |
|--------------------|-------|-------|
| UF⇒UF | 27,27 | 23,91 |
| UF ez⇒UF | 69,70 | 67,39 |
| UF⇒zeharkako kopia | 2,42 | 2,17 |

| | | |
|-----------------------|--------|--------|
| UF ez⇒zeharkako kopia | 0,61 | 6,52 |
| Guztira | 100,00 | 100,00 |

6.6.3 Itzulpen aukerak banan-banan

6.6.3.1 UF⇒UF

Ikusi dugun moduan, itzulpen aukera honi dagozkion 56 kasu ditugu, eta portzentajerik altuenak HGLko testuetan eta zuzenean itzulitakoetan aurkitu ditugu. Gainera, 36 kasutan, aditz desberdinekin konbinatuz, honako UF hau errepikatzen da: *-en esku / esku(e)tan egon / izan / eduki / geratu / utzi / jarri / erori*. Beraz, zerbait norbaiten menpe dagoenean, norbaiti dagokionean, euskaraz *esku*-rekin osatutako somatismoa erabiltzea ohikoa dela dirudi.

Badirudi jatorrizko hizkuntzan, alemanez, UF aniztasun handiagoa dagoela ideia hori adierazteko. Alemanez, esate baterako, ordain hauek aurkitu ditugu AleuskaPhrasen corpusko adibideetan: *es liegt an jmdm, ob..., wenn es nach jmdm ging(e), angewiesen sein auf, zur Verfügung stellen/stehen/sein, jmdm verfallen sein, jmdm etwas zutrauen, etwas in seiner Gewalt haben...*

Gaztelania zubi-hizkuntza gisa erabili den kasuetan, hau da, zeharkako itzulpenetan, zubi-bertsio horretan askotan aditz bakarra aurkitu dugu baliokide gisa: *encargar, entregar, dejar, trincar* edo *obtener*, kasu. Beraz, euskararen aldean, alemanez eta gaztelaniaz aniztasun handiagoa dago, kasu hauetan behinik behin. Ikus dezagun adibide bana:

6.53. taula: *-en esku/esku(e)tan egon/izan/eduki/geratu...*

| | | |
|---|---|--|
| 1 | Wenn's nach mir ginge , würde ich euch beide auf den Mond schießen, (...) (LDde) | “Hara, nire esku balego , ilargira bidaliko zintuzketet, (...) (LDeu) |
|---|---|--|

| | | | |
|---|--|--|--|
| 2 | “Alles überläßt er mir!” beschwerte er sich. (DKVZde) | –¡Todo me lo deja a mí! –se quejó. (DKVZes) | –Dena utzi du nire eskuetan! –kexatu zen. (DKVZeu) |
|---|--|--|--|

Lehenengo adibidean, *nire esku balego* somatismoa erabiltzen da *wenn’s nach mir ginge*-ren baliokide gisa, somatismoa ez den beste aukera batzuk ere badauden arren. Bigarren kasuan, alemanezko jatorrizko testuan ez dago UFrik, zubi-bertsioan ere aditz bakarra erabiltzen da, eta, euskaraz, berriz, somatismoa daukagu.

Beste kasu batzuetan, jatorrizko testuko UFa beste gorputz atal batekin osaturiko somatismoa da: *durch die Finger schlüpfen, in die Arme laufen* edo *im Auge haben*, besteak beste. Kolokazioak eta enuntziatu fraseologikoak ere aurkitu ditugu. Edozein modutan, batzuetan xede-testuan *esku*-rekin osatutako somatismoak erabiltzeak aukera “logikoa” dirudi, baina beste batzuetan, badirudi itzultzaile somatismoa erabiltzen ahalegintzen dela, testuko izaera fraseologikoa gordetze aldera.

6.54 taulan, esate baterako, lehenengo adibideko itzulpena aukera “logiko” deritzogun horietakoa litzateke, eta bigarrena, berriz, “bihurriagoa” iruditzen zaigu. Izan ere, aita “beti kartetan dabilen horietakoa” dela esan beharrean, “kartak eskutik uzten ez dituen horietako” dela dio xede-testuak, eta, beraz, euskarazko emaitza ez da jatorrizkoa bezain ohikoa.

6.54. taula: UF⇒UF

| | | |
|---|---|---|
| 1 | nur Zesen ging leer aus und lief, von Greffingers Spott verletzt, zum Fluß, wo er mit sich allein sein wollte. (DTTde) | Zesen bakarrik geratu zen esku-hutsik , eta, Greffinger-en txantxek minduta, ibai aldera joan zen, bere buruarekin bakarrik egon gura zuelako. (DTTeu) |
| 2 | Ihr Vater nämlich, der schon lang tot ist, war früher einer, der immer Karten gespielt hat . (DAKde) | Aspaldi batean hil zitzaion aita, eskutik kartak uzten ez dituen horietako bat izan zuen. (DAKeu) |

6.6.3.2 UF ez⇒UF

Esan bezala, itzulpen aukera hau da guztietan erabiliena, eta, HLAN, gainera, HGLAN baino gehiago erabiltzen da. Hori horrela izanik, interesgarria iruditzen zaigu atal honetan aztertzea zerk eragiten duen xede-testuan somatismoa erabiltzea, jatorrizko testuan “estimulu fraseologikorik” ez dagoenean.

Alde batetik, kasu batzuetan, jatorrizko testuko lexema baten hiztegi mailako euskal ordaina *esku*-rekin osatutako somatismoa da, eta, horrela, somatismoa erabiltzeak aukera “logikoa” dirudi.

Hurrengo bi adibideetan ikus daitekeen moduan, askotan euskarazko *esku hartu*-rekin gertatzen da hori. Lehenengo kasuan, alemanezko izen bat (*Eingreifen*) euskarazko lokuzio batekin itzultzen da (*esku hartu*). Bigarren adibidean, somatismo bera erabiltzen da *intervenir* aditzaren ordain gisa.

6.55. taula: Sistema mailako baliokideak

| | | | |
|---|---|---|--|
| 1 | Immerhin wirkte die unvermutete Chance, dank seines Eingreifens unsere Partie gegen einen Weltmeister auf Remis zu bringen, zauberisch. (SNde) | | Guztiarekin ere, sorginkeria generitzon, haren esku hartzeari esker, orain, ustekabean, munduko txapeldun baten aurka berdinketa bat egiteko aukera sortzeari. (SNeu) |
| 2 | Und wenn die Polizei mal eingriff und einen dieser Oberschurken ins Gefängnis steckte, (...) (DPGMde) | Y cuando la policía intervenía y encerraba en la cárcel a uno de aquellos canallas, (...) (DPGMes) | Eta poliziak esku hartu eta frikun haien buruzagiren bat espetxera sartzen bazuen, (DPGMeu) |

Esku hartu-ri dagokionez, zeharka itzuli den beste kasu bat aipatu

nahi genuke.

6.56. taula: *tomar parte, esku hartu*

| | | |
|---|--|---|
| Albert, der sich endlich ins Gespräch mischte , trat auch auf des Alten Seite. (DLWde) | Alberto, que hasta entonces había permanecido silencioso, tomó parte en la discusión para apoyar lo dicho por el anciano. (DLWes) | Albertok, ordura arte isilik egon zela, eztabaidan eskuhartu zuen agureak esandakoaren alde agertzeko. (DLWeu) |
|---|--|---|

Adibidean ikus daitekeen moduan, gaztelaniaz *tomar parte* (en una discusión) lokuzioa agertzen da. Gaztelania-euskara hiztegi-tara jotzen badugu, *parte hartu* eta *esku hartu* ordainak agertzen zaizkigu hurrenez hurren. ETC corpusean bilaketa azkar bat besterik ez dugu egin, baina corpuseko datuen arabera, “eztabaidan parte hartu” dezente gehiago erabiltzen da. Zeharka itzuli den testu honetan, bestalde, “eztabaidan esku hartu” daukagu. Gaztelaniazko testutik aldentzeko ahalegina egon daiteke itzulpen-aukera horren atzean.

Azpiatal honen hasieran egindako galderara bueltatuz, *esku*-rekin osatutako somatismoa erabiltzea hobesten dela dirudi beste kasu batzuetan (jatorrizkoan UFrik ez dagoenean), eta, horrela, itzulpenak adierazkorragoak dira batzuetan, zehatzagoak ere kasu batzuetan, eta besteetan informazioa gehitzen da. Ikus ditzagun adibide batzuk:

6.57. taula: Itzulpenen balio gehigarria

| | | |
|---|---|---|
| 1 | (...), daß beide über Äußerungen verfügen von ihren Eltern, Großeltern und Seitenlinien, die dasselbe besagen: (BAde) | (...), eta argi dago biek dituztela eskura gurasoen, aitona-amonen eta denetariko senideen esanak, beti berdinak: (BAeu) |
|---|---|---|

| | | |
|---|--|---|
| 2 | er fühlte sich absolut nicht zu harmlos heiteren Festlichkeiten und Unterhaltungen gelaunt. (DVZTde) | ez zuen inolako gogorik kaltegabeko ospakizun alaitsuetan eta dibertimenduetan esku hartzeko. (DVZTeu) |
| 3 | (...) ich habe ihr angeboten, ihre Autostop-Fahrt mit mir zu machen, da ich den Citroën von Williams hatte , (...) (HFde) | eskaintza luzatua nion bere autostop -bidaia nirekin egin zezan, nik eskura neukalako Williamsen Citroëna,(...) (HFeu) |
| 4 | Was weg ist, ist dunkel, was aber da ist , ist hell. (GHKde) | Iragan den hura ilun da, bai; eskura dagoena , berriz, argi'. (GHKeu) |
| 5 | (...) doch gleichzeitig gelang es Basta, sich zu befreien. (THde) | (...) baina, une hartan bertan, Bastak Moren eskuetatik askatzea lortu zuen. (Theu) |
| 6 | (...) deshalb hatte sie ihm vor ein paar Jahren ein Schild für seine Werkstatt gebastelt , auf dem Mortimer Folchart, Bücherarzt stand. (THde) | (...) horregatik egin zuen zuela urte batzuk bere esku hutsez idazkun bat aitaren tailerrean jartzeko: Mortimer Folchart, Liburuen Medikua. (Theu) |
| 7 | “Wer’s glaubt”, sagte Tobi und schicksalsergeben verließ er Jules Zimmer. (SLHde) | “Konta iezaiozu hori beste bati” esan zuen Tobik eta bere burua patuaren eskuetan utzita , Juleren gelatik irten zen. (SLHeu) |

| | | | |
|---|--|---|--|
| 8 | Jetzt bin ich viel zu neugierig”. (DKVZde) | Ahora tengo demasiada curiosidad. (DKVZes) | Orain jakinmin gehiegi daukat esku artean . (DKVZeu) |
| 9 | Aber die Grasser Richter ließen sich die Sache nicht mehr entwenden . (DPGMde) | Pero el tribunal de Grasse no se dejó arrebat ar el caso. (DPGMes) | Grasseko epaileek, ordea, ez zuten kasua eskuetatik ken ziezaieten onartu. (DPGMeu) |

Lehenengo adibidean, alemanez, aditz eta preposizioz osatutako hitz-konbinazioa daukagu (*über etwas verfügen*), zeinak ‘zerbait izan’ esan nahi duen. Euskaraz, *izan*-ekin bakarrik ere funtzionatuko luke esaldiak, baina itzulpenean *eskura izan* somatismoa daukagu.

Bigarren kasuan ere, *esku hartu*-rik gabeko esaldiak ere funtzionatuko luke: “ez zuen kaltegabeko ospakizun alaitsu eta dibertimendutarako gogorik”.

Hirugarren adibidean, jatorrizkoan ez dagoen informazioa gehitzen da, narratzaileak Williamsen Citröena *eskura* zuela dioenean. Hurrengo adibidean, iruditzen zaigu xede-testua jatorrizkoa baino zehatzagoa dela. Izan ere, jatorrizkoan *da* erakuslea erabiltzen da, eta, xede-testuan, berriz, argi dagoen hori *eskura* dagoena dela zehazten da.

Bost eta seigarren adibideko xede-testuak, bestalde, jatorrizkoak baino adierazkorrago eta zehatzagoak direla iruditzen zaigu. Alemanezko testuak dio, lehenengo kasuan, Bastak askatzea lortzen duela, eta, xede-testuan, berriz, “Bastak Moren eskuetatik askatzea” lortzen duela agertzen da. Bigarren kasuan, alemanezko “basteln” aditza daukagu, zeinak ‘zerbait eskuz egin’ esan nahi duen⁵³, eta, xede-testuan, Meggiek “bere esku hutsez” egin zuen idazkuna.

HGLko adibideekin jarraituz, hurrengo adibideko jatorrizko testuan “schicksalsergeben” adjektiboa daukagu, zeina “Schicksal” (pa-

⁵³Duden: durch kleinere Handwerksarbeiten [als Hobby] herstellen, [nach eigenen Ideen] anfertigen.

tua) izenaz eta “ergeben” (amore eman) aditzaz osatuta dagoen, eta zeinak ‘etsi’, ‘etsiak hartu’ esan nahi duen. Itzulpenean, patuaren irudia jasotzearen alde egin da, eta, emaitza adierazkorra eta bizia den arren, apur bat behartua ere bada.

Hurrena, zeharka itzuli den testu bateko adibidea daukagu. Jatorrizko testuan eta zubi-bertsioan “jakin-mina izan” erabiltzen da (*neugierig sein* eta *tener curiosidad*). Euskaraz, berriz, “jakin-mina esku artean izan” da agertzen dena. Aurretik ikusi ditugun beste kasuetan ez bezala, hemen somatismoaren bidez ez da emaitza naturalagoa sortzen. Are, iruditzen zaigu ezohikoa den hitz-konbinazioa sortzen dela.

Azken adibidean, euskarazko itzulpenak *esku*-rik gabe ere (“ez zuten kasua ken ziezaieten onartu”) funtzionatuko lukeen arren, itzulpenean *esku*-rekin osatutako somatismoa daukagu. Hala, euskarazko itzulpena biziagoa dela iruditzen zaigu. Iruditzen zaigu, beraz, testu aberatsagoa sortzeko ahalegina dagoela.

6.6.3.3 UF⇒zeharkako kopia

Aipatu bezala, zeharkako kopia gehiago aurkitu ditugu HGLko testuetan, HLkoetan baino, eta, horrela, argudia liteke gehiago onartzen dela interferentzia HGLko itzulpenetan. Azpiatal honetan, *UF⇒zeharkako kopia* aukera barruan aurkitu ditugun bost kasuak aztertuko ditugu. Has gaitezen zuzenean eginiko itzulpenekin:

6.58. taula: Zuzeneko itzulpenak

| | | |
|---|--|---|
| 1 | Wat ick nötig habe, kann ick mir jeden Tag an die Finger abzählen . (BAde) | Nik zer behar dudan, eskuko hatzekin konta zezakeat egunero. (BAeu) |
| 2 | Es kommt zu Gereiztheiten und Spannungen, schließlich Handgreiflichkeiten zwischen zwei sehr sehr lange befreundeten Männern. (DEKBde) | Urte luze-luzeetan adiskide izan diren bi gizonen artean haserrea eta tentsioak sortzen dira, azkenik eskuetara etorri arte . (DEKBeu) |

| | | |
|---|---|--|
| 3 | <p>“Wo soll denn in dieser gottverlassenen Einöde ein Dorf sein? (THde)</p> | <p>—Nola egongo da, ba, Jainkoaren eskutik utzitako desertu honetan herri bat? (THEu)</p> |
| 4 | <p>“Ich weiß nicht, wer Sie sind und was Sie und all diese Flintenmänner in diesem gottverlassenen Dorf treiben, es interessiert mich auch nicht. (THde)</p> | <p>—Ez dakit nor zaren eta zer egiten duzun eskopetadun gizon hauekin guztiakin Jainkoak bere eskutik utzitako herri honetan. Bost axola niri. (THEu)</p> |

Lehenengo adibidean, alemanez, *sich etwas an den Fingern abzählen können* UFa daukagu. Hitzez hitz ‘zerbait hatzekin kontatu ahal izan’ esan nahi du, eta RAE hiztegian agertzen den gaztelaniazko *contar algo con los dedos de una mano* UFaren oso antzekoa da. Euskarazko itzulpenean, iruditzen zaigu gaztelaniazko UF horrek eragina izan duela, *eskuko hatzekin kontatu* somatismoa *contar algo con los dedos de una mano*-ren hitzez-hitzeko itzulpena baita.

Bigarren kasuan, *eskuetara etorri* hitz-konbinazioa erabiltzen da, zeinak gaztelaniazko *venir/llegar a las manos*-en antz handia daukan, eta euskaraz ezohiko den.

6.59 taulako bi adibideetan, jatorrizko testuan UF antzekoak ditugu: biak Schemannen jasotzen den *eine gottverlassene Gegend (...)* UFtik eratorriak iruditzen zaizkigu, eta horregatik bildu ditugu atal honetan. Abandonatutako, utzitako leku bati egiten dio erreferentzia UFak. UFaren osagai nagusi den *gottverlassen* hitz konposatua bi elementuz osatua dago: jainko eta abandonatu. Euskarazko itzulpenak gaztelaniazko UF baten antz handia duela iruditzen zaigu –*dejado de la mano de Dios*⁵⁴, hain zuzen–, eta horregatik markatu dugu zeharkako kopia gisa. Beste modu batera esanda, iruditzen zaigu gaztelaniazko “mano” horrek eragiten duela euskaraz “esku” erabiltzea, alemanezko jatorrizkoan ez baitago *Hand*-ekin osatutako somatismorik.

⁵⁴Dejado de la mano de Dios: completamente abandonado a su suerte (María Moliner).

Bestalde, zeharka itzuli diren testuetan, honako kasu hau aurkitu dugu:

6.59. taula: Zeharkako itzulpena

| | | |
|--|--|---|
| “Wenn ich aber wieder etwas hören sollte, dann werde ich handgreiflich ”. (PAde) | —Pero como vuelva a oír algo de ti, llegaremos a las manos . (PAes) | —Baina zerbait egin duzula entzuten badut, eskuetara helduko gara . (PAeu) |
|--|--|---|

Dagoeneko aipatu dugu alemanezko testuan agertzen den UFa: *handgreiflich werden*, alegia. Zuzenean itzuli den beste adibidean, *eskuetara etorri*-rekin itzuli da jatorrizko UFa, eta hemen ere hitz-konbinazio oso antzekoa erabiltzen da, *eskuetara heldu*, zubi-bertsioaren hitzez-hitzezko itzulpena kasu honetan; beraz, zeharkako kopia testual baten aurrean gaude. ETC corpusean ez dugu hitz-konbinazio hori zentzu horretan erabiltzen den kasurik aurkitu.

6.6.3.4 UF \Rightarrow zeharkako kopia

Azkenik, jatorrizko testuan UFrik ez, eta xede-testuan zeharkako kopia gisa identifikatu ditugun lau kasuak ikusiko ditugu. Aurreko atalean egin bezala, lehenengo, zuzeneko itzulpenak, eta, ondoren, zeharkakoak aztertuko ditugu.

HGLko adibide honetan, “sich melden” aditza daukagu jatorrizko testuan, ‘hitz egin’ zentzuan erabiltzen dena. Gure iritziz, euskarazko itzulpeneko *esku hartu*-ren atzean gaztelaniazko “intervenir” aditza egon liteke. Zehazki hiztegian agertzen den moduan, “intervenir” aditzak bi adiera izan ditzake; ‘parte hartu’ edo ‘esku hartu’ zentzuan erabili daiteke⁵⁵, eta baita mintzatu zentzuan ere⁵⁶. Kasu honetan, bigarren zentzu hori dauka, baina *esku hartu* da erabiltzen dena.

⁵⁵Zehazki: intervenir en un conflicto, gatazka batean esku hartu.

⁵⁶Zehazki: intervino en el Foro de las Culturas, Kulturen Foroan mintzatu zen.

Hainbat hipotesi egon daitezke, baina nahiko argi dago gaztelaniazko “intervenir” aditzak nolabaiteko eragina izan duela.

6.60. taula: Zuzeneko itzulpena

| | |
|--|---|
| Frank Steinchen meldete sich dann als Erster. “Max, bitte verzeihen Sie uns. Wir waren ungerecht. Ich möchte mich im Namen aller Monster bei Ihnen entschuldigen!” (GGde) | Orduan Frankensteintxok esku hartu zuen lehenik. -Mesedez, Max, barkatu. Bidegabe jokatu dugu zurekin -onartu zuen-, Zurekin desenkusatu nahiko nuke munstro guztien izenean. (GGeu) |
|--|---|

Zeharkako hurrengo hiru kasuak ere HGLkoak dira. Lehenengo bi adibideetan, alemanez “helfen” eta “nachhelfen” aditzak ditugu, ‘lagundu’ esan nahi dutenak. Gaztelaniaz, bi kasuetan, *ehar una mano a alguien* somatismoa erabiltzen da, eta, euskaraz, gaztelaniazko UF horren hitzez-hitzezko kopia da bi kasuetan daukaguna, *esku bat bota*, alegia. Euskal corpusetan hitz-konbinazio hori zein neurritan erabiltzen den ikuste aldera, XXECE eta ETC kontsultatu ditugu. Lehenengoan ez dugu agerraldirik aurkitu; beraz, tradiziorik ez daukala esan dezakegu. Bigarreanean, berriz, 15 aldiz aurkitu dugu guztira, 2 jatorrizko testuetan, 2 itzulpenetan, 8 prentsan eta 3 Goenkalen. Gainera, asko XXI. mendearen amaierakoak dira.

Azken adibidean, alemanezko testuan, *von allen guten Geistern verlassen sein* UFaren modifikazioa daukagu. Alemanezko UF horren bitartez adierazten dena da norbaitek burugabe jokatzeko duela. Gaztelaniazko bertsioan, esanahi desberdina duen beste somatismo baten *dejado de la mano de Dios*, alegia– modifikazioa dagoela iruditzen zaigu: “jainkoaren eskutik utzita” egon beharrean, “banpiro onen eskutik utzita” dagoela esaten diote. Hain zuzen, gaztelaniazko UF modifikatu hori da euskarara hitzez hitz itzultzen dena. Ondorioz, UFa jasotzeko ahalegina egon arren, esanahia aldatu egin denez, iruditzen zaigu kasu honetan ez gaztelaniazkoak ez euskarazko testuak ez dutela pragmatikoki ongi funtzionatzen.

Zeharkako itzulpenetan aurkitutako kopia kasu hauek ere, ondo-

rioz, zeharkako kopia testualak dira.

6.61. taula: Zeharkako itzulpenak

| | | | |
|---|--|---|---|
| 1 | Verschwindest du freiwillig, oder muß ich nachhelfen? ". (DKGde) | ¿te esfumas por las buenas o he de echarte una mano? (DKGes) | onean aldegingo duzu ala esku bat bota behar dizut? (DKGeu) |
| 2 | “Man hat Ihnen also geholfen? ” fragte der Uhu schließlich. “ Man hat , wie Sie sehen”, sagte das kleine Gespenst. (DKGde) | —¿Le han ayudado a usted? -preguntó el búho por último. — Me han echado una mano como puede usted ver -dijo el fantasmita. (DKGes) | —Lagundu al dizute? —galdetu zuen hontzak azkenean. — Esku bat bota didate , ikus dezakezunez —esan zion fantasmatoak. (DKGeu) |
| 3 | Du bist wohl von allen guten Vampiren verlassen! ". (DKVZde) | ¡Tú estás dejado de la mano de los vampiros buenos! (DKVZes) | Zu banpiro onen eskuetatik utzita zaude! (DKVZeu) |

Orain arte aztertutako itzulpenetan, gaztelaniatik euskararako itzulpenetan, gaztelaniazko UFa bost aldiz itzuli da hitzez hitz euskarara, euskaraz gaztelania kutsua duten eta ez hain jatorrak diren testuak sortuz. HGLko itzulpen horiek guztiak (DKTeu, DKGeu, PAeu eta DKVZeu) 80ko hamarkada amaierako eta 90. hamarkada hasierakoak dira. Badakigu HGL ZH azpicorpusa osatzen duten testu gehientsuenak (ez guztiak, hala ere) aipatutako aldi horretan argitaratu zirela, baina, kontu handiz bada ere, argudia liteke –zeharkako itzulpenen kasuan, behinik behin– testu onargarri edo egokiak sortzeko joera aldatu egin dela denbora pasatu ahala. Hala, hasieran, itzulpenak sortzea behar-beharrezkoa zen garaian, lehentasuna ez zen testu onargarriak sortzea, baina, hipotesi modura proposa liteke, denbora pasatu ahala, euskaraz testu jatorragoak sortu direla.

Euskal testu itzulietan *esku*-rekin osatutako somatismoak aztertu eta gero esan dezakegu somatismo-mota horiek nahiko produktiboak direla euskaraz, eta interesgarria izango litzatekeela, etorkizune-

ra begira eta emaitzak osatze aldera, euskaraz horren maiz erabiltzen ez diren gorputz ataletatik abiatuta, somatismoen itzulpen-azterketa gehigarriak egitea.

6.7 Binomioen azterketa JTetan

Somatismoekin egin dugun legez, binomioen kasuan ere bi norabidetan egingo dugu mikro mailako azterketa hau. Atal honetan, jatorrizko testuetatik abiatuko gara, eta, lehenik eta behin, jatorrizko testuetatik erauzi ditugun binomioak aztertuko ditugu; ondoren, itzulpen-azterketatik ateratako datu orokorrak aurkeztuko ditugu, eta, azkenik, itzulpen aukerak landuko ditugu banan-banan.

6.7.1 Jatorrizko testuetan oinarritutako azterketa

6.3.2 kapituluan dagoeneko esan bezala, 314 binomioz osatutako lagin adierazgarri bat erauzi dugu corpusetik, hainbat irizpidetan oinarrituta.

Beheko taulan (6.62) ikus daiteke, alde batetik, nola banatzen diren erauzitako binomioak AleuskaPhraseo corpora osatzen duten lau azpicorpusetan (HGL ZZ, HGL ZH, HL ZZ eta HL ZH). Bestalde, azpicorpusen tamaina desberdina denez (ikusi 4.3), gure corpus 2 osatzen duten azpicorpus bakoitzaren tamainari ere erreparatu diogu, argi eta garbi ikusteko nondik erauzi dugun binomio kopuru handiagoa edo txikiagoa.

6.62. taula: Erauzitako alemanezko binomioen banaketa corpusean

| | UF kopurua | Portzentajea | Corpus 2 |
|--------|------------|--------------|----------|
| HGL ZZ | 55 | % 17,52 | % 22,93 |
| HGL ZH | 12 | % 3,82 | % 13,14 |
| HL ZZ | 202 | % 64,33 | % 48,42 |
| HL ZH | 45 | % 14,33 | % 15,52 |

HL ZZ azpicorpusetik erauzi dugu binomio gehien, eta, azpicorpusen tamaina kontuan hartuta, oro har HLko testuetan binomio gehiago aurkitu dugu HGLko testuetan baino. Datu hori bat dator somatismoen azterketan aurkitutakoarekin (ikusi 6.5.1), baina hemen aldeare nabarmenagoa da. Aipatutako azpiatalean esan bezala, helduentzako literaturan UF gehiago erauzi izana lotuta egon daiteke testu-mota horietan erabiltzen den hizkuntza konplexuagoarekin. HGLko testuei dagokienez, HGL ZH azpicorpuseko datua da deigarria: 12 binomio besterik ez ditugu erauzi.

Hurrena, testu bakoitzetik erauzitako binomio kopurua jasotzen duen taula daukagu. Zerrendaren goialdeari erreparatzen badiogu, azkar konturatuko gara 10 binomio baino gehiago dituzten 15 testuen artean, bi besterik ez direla HGLkoak, TH eta BUS, hain zuzen. Somatismoen kasuan ere, Preußlerren BUS liburuan, *Hand* hitzaren agerraldi kopurua eta *Hand*-ekin osatutako somatismo kopuruaren arteko proportzioa nahiko altua da. Beraz, badirudi testu honen izaera fraseologikoa, HGLko beste batzuen aldean, nabarmenagoa dela.

Somatismo eta binomioen alderaketarekin jarraituz, lehenengoen kasuan Kästnerren testuek eman ziguten atentzioa, somatismo proportzio altuagatik. Kasu honetan, hala ere, ezin dugu gauza bera ondorioztatatu, zerrendaren behealdean agertzen baitira. Bestalde, testuen luzera ez dugu kontuan hartu, eta faktore garrantzitsua izan daiteke testu bateko UF-trinkotasuna neurtzerako orduan.

6.63. taula: Testu bakoitzeko binomio kopurua

| Kodea | UF | Testua | Jat. egilea |
|-------|----|--------|-------------|
| HF | 29 | HL | Frisch |
| DPGM | 27 | HL | Süskind |
| BA | 24 | HL | Döblin |
| JG | 21 | HL | Walser |
| DWV | 16 | HL | Goethe |
| DSW | 15 | HL | Hesse |
| DTS | 14 | HL | Schnitzler |
| BM | 13 | HL | Roth |
| TH | 13 | HGL | Funke |

| | | | |
|------|----|-----|----------------------|
| DBF | 13 | HL | Zelik |
| DVZT | 12 | HL | Musil |
| KM | 12 | HL | Grass |
| BUS | 11 | HGL | Preußler |
| DP | 11 | HL | Kafka |
| DEKB | 10 | HL | Böll |
| AC | 6 | HL | Böll |
| GG | 6 | HGL | Brezina |
| DZW | 5 | HGL | Ende |
| DA | 5 | HL | Werfel |
| DL | 5 | HL | Roth |
| DAK | 4 | HGL | Nöstlinger |
| JV | 4 | HGL | Masannek |
| LD | 3 | HGL | Härtling |
| EL | 3 | HGL | Arold |
| DKG | 3 | HGL | Preußler |
| DTV | 3 | HL | Mann |
| DKVG | 3 | HGL | Sommer- Bodenburg |
| SN | 3 | HL | Zweig |
| ED | 2 | HGL | Kästner |
| DTT | 2 | HL | Grass |
| DV | 2 | HL | Kafka |
| DGM | 2 | HGL | Ende |
| LODS | 2 | HGL | Nöstlinger |
| DLT | 2 | HL | Roth |
| DKT | 1 | HGL | Kästner |
| PA | 1 | HGL | Kästner |
| DLW | 1 | HL | Goethe |
| DDL | 1 | HGL | Kästner |
| DKVZ | 1 | HGL | Sommer- Bodenburg |
| RSF | 1 | HGL | Funke |
| HLJ | 1 | HGL | Knister |
| BU | 1 | HL | Zweig |
| GHK | 0 | HL | Brecht |
| BLA | 0 | HGL | Härtling |
| SLH | 0 | HGL | Sommer- Bodenburg |
| DASH | 0 | HGL | Press |
| MM | 0 | HGL | Busch |

| | | | |
|-----|---|-----|-------|
| DPS | 0 | HGL | Funke |
|-----|---|-----|-------|

Atal honi amaiera emateko, erauzi ditugun binomio-*type* guztiak zerrendatu ditugu 6.64 taulan, eta zein azpicorpusetan aurkitu ditugun ere zehaztu dugu. Zerrenda honetan, guztira, 45 *type* daude, eta ez datoz bat 6.3 taulako zerrendan jasotako 42ekin. Kontua da azken zerrenda horretan jaso ditugun bi binomio (*durch und durch* eta *Grund und Boden*) bere horretan erabili daitezkeela, hau da, 6.3 taulan jaso ditugun bezala, edo aditz jakin batzuekin konbinatu daitezkeela (*jmdm durch und durch gehen, (einen Ort) in Grund und Boden schießen* eta *jmdn in Grund und Boden kritisieren/...*), eta hiztegiatan sarrera desberdin gisa –beraz, binomio desberdin gisa– jasotzen direla.

Bestalde, binomioen kasuan ere, UFen hiztegiako forma bilatze-rako orduan, bi hiztegi fraseologikotan (Duden 11 eta Schemannen hiztegia) eta estilo hiztegi batean (Duden Stilwörterbuch) egin dugu kontsulta. Binomioak hiztegiatan agertu ezean, IDSkö DeReKo corpusera (3.2.3.2) jo dugu. Erauzitako 45 binomio desberdin horietatik, bederatzi ez ditugu Duden 11 hiztegian aurkitu. Bederatzi horietatik bat somatismoa da (*Arm in Arm*), eta beste guztiak ia-sinonimo gisa izendatu ditugunak dira: *warum und wieso/(weshalb)*, *laut und deutlich, (die) Sitten und Gebräuche, jmdm etwas klar und deutlich sagen, mein/dein/... Herr und Gebieter/Meister, Ruhe und Ordnung, Ehre und Ruhm, Frieden und Ruh* eta *Ziel und Ende*.

Somatismoekin aipatu bezala, badirudi Duden 11 hiztegiak ez dituela jasotzen gardenak diren UFak. Baina, era berean, *schlicht und einfach* gisako binomioak jaso jasotzen dira.

Azkenik, honako bost binomio hauek ez ditugu hiztegiatan aurkitu, eta, DeReKo corpusean egindako bilaketaren emaitzetan oinarrituta, horiek ere aztertzea erabaki dugu: *tief und fest (schlafen)* (495 agerraldi), *ruhig und gelassen* (843 agerraldi), *heil und gesund* (111 agerraldi), *klar und verständlich* (726 agerraldi) eta *Rauch und Qualm* (82 agerraldi).

6.64. taula: Jatorrizko binomioak

| Binomioa | HGL | HL | Guztira |
|--|-----|----|---------|
| von Zeit zu Zeit | 4 | 45 | 49 |
| Arm in Arm | 3 | 23 | 26 |
| nach wie vor | 4 | 21 | 25 |
| mehr oder minder/weniger | 2 | 16 | 18 |
| die Art und Weise | 0 | 16 | 16 |
| durch und durch | 1 | 14 | 15 |
| mehr und mehr | 7 | 8 | 15 |
| Tag für Tag | 1 | 13 | 14 |
| ein für alle Mal | 1 | 10 | 11 |
| einzig und allein | 0 | 10 | 10 |
| von Kopf bis Fuß | 5 | 4 | 9 |
| an Ort und Stelle etw. entscheiden/... | 2 | 6 | 8 |
| nie und nimmer | 3 | 5 | 8 |
| so oder so | 2 | 5 | 7 |
| früher oder später | 1 | 6 | 7 |
| fix und fertig sein | 2 | 3 | 5 |
| warum und wieso/(weshalb) | 1 | 4 | 5 |
| tief und fest | 4 | 0 | 4 |
| über kurz oder lang | 2 | 2 | 4 |
| hin oder her | 0 | 4 | 4 |
| schwarz auf weiß | 1 | 3 | 4 |
| alles und jedes | 1 | 2 | 3 |
| auf immer und ewig | 3 | 0 | 3 |
| ruhig und gelassen | 2 | 1 | 3 |
| laut und deutlich | 0 | 3 | 3 |
| gut und gern | 0 | 3 | 3 |
| dieser und/oder jener | 0 | 3 | 3 |
| (die) Sitten und Gebräuche | 1 | 1 | 2 |
| ein Haus/eine Stadt/... in Schutt und Asche legen path selten | 1 | 1 | 2 |
| heil und gesund | 1 | 1 | 2 |
| klar und verständlich | 1 | 1 | 2 |
| Rauch und Qualm | 2 | 0 | 2 |
| steif und fest | 1 | 1 | 2 |
| jmdm etwas klar und deutlich sagen/... | 1 | 1 | 2 |
| mein/dein/... Herr und Gebietler/Meister | 1 | 1 | 2 |

| | | | |
|--|----|-----|-----|
| Ruhe und Ordnung | 1 | 1 | 2 |
| schlicht und einfach | 2 | 0 | 2 |
| (einen Ort) in Grund und Boden schießen | 1 | 0 | 1 |
| in Grund und Boden kritisieren/... | 0 | 1 | 1 |
| Ehre und Ruhm | 1 | 1 | 2 |
| an allen Ecken [und Enden/Kanten] | 0 | 2 | 2 |
| Frieden und Ruh | 0 | 2 | 2 |
| Ziel und Ende | 0 | 2 | 2 |
| Grund und Boden | 0 | 1 | 1 |
| jmdm durch und durch gehen | 1 | 0 | 1 |
| Guztira | 67 | 247 | 314 |

6.7.2 Itzulpen-azterketa: datu orokorrak

Jarraian ikus daitezkeen bi tauletan jatorrizko binomio alemanak nola euskaratu diren ikus daiteke, dagoeneko aipatutako itzulpen aukeretan oinarrituta.

Alemanezko binomioen % 51 inguru UF bidez itzuli da euskarara, batez ere UF desberdin bidez (% 33,44). Kopurua nahiko adierazgarria den arren, somatismoen itzulpenarekin alderatuta, UF bidezko itzulpen gehiago aurkitu dugu somatismoen kasuan (% 61,26). Xede-testuetan UFrik erabili ez diren kasuak, bestalde, gehiago dira hemen: somatismoen % 24 inguru itzuli da hitz-konbinazio librez, eta, binomioen kasuan, berriz, kopuru hori ia % 30era iristen da. Kopiei dagokienez, zeharkako kopiarik aurkitu ez dugula nabarmendu daiteke, eta zuzeneko kopia kopuru berdintsua daukagula somatismo eta binomioen kasuan. Bukatzeko, omisio bidezko itzulpen aukera iruditu zaigu deigarria, batez ere somatismoekin lortutako emaitzarekin alderatzen badugu. Orduan, kasu bakarra aurkitu genuen, eta, orain, berriz, 21 daukagu.

6.65. taula: Itzulpen aukeren balore absolutuak

| | HGL ZZ | HL ZZ | HGL ZH | HL ZH | Guztira |
|----------------|--------|-------|--------|-------|---------|
| UF⇒UF antzekoa | 8 | 40 | 1 | 5 | 54 |

| | | | | | |
|--------------------------------------|----|-----|----|----|-----|
| UF \Rightarrow UF desberdina | 20 | 63 | 5 | 17 | 105 |
| UF \Rightarrow UF ez | 12 | 58 | 5 | 18 | 93 |
| UF \Rightarrow kopia zuzena | 11 | 22 | 0 | 1 | 34 |
| UF \Rightarrow zeharkako kopia | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 |
| UF \Rightarrow beste baliabide bat | 3 | 4 | 0 | 0 | 7 |
| UF $\Rightarrow\emptyset$ | 1 | 15 | 1 | 4 | 21 |
| Guztira | 55 | 202 | 12 | 45 | 314 |

6.66. taula: Itzulpen aukeren ehunekoetako banaketa

| | HGL ZZ | HL ZZ | HGL ZH | HL ZH | Guztira |
|--------------------------------------|--------|--------|--------|--------|---------|
| UF \Rightarrow UF antzekoa | 14,55 | 19,80 | 8,33 | 11,11 | 17,20 |
| UF \Rightarrow UF desberdina | 36,36 | 31,19 | 41,67 | 37,78 | 33,44 |
| UF \Rightarrow UF ez | 21,82 | 28,71 | 41,67 | 40,00 | 29,62 |
| UF \Rightarrow kopia zuzena | 20,00 | 10,89 | 0,00 | 2,22 | 10,83 |
| UF \Rightarrow zeharkako kopia | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 0,00 |
| UF \Rightarrow beste baliabide bat | 5,45 | 1,98 | 0,00 | 0,00 | 2,23 |
| UF $\Rightarrow\emptyset$ | 1,82 | 7,43 | 8,33 | 8,89 | 6,69 |
| Guztira | 100,00 | 100,00 | 100,00 | 100,00 | 100,00 |

HGL eta HLko testuen arteko erkaketari dagokionez (6.67 taula), alderik handiena kopia zuzenetan aurkitu dugu: HGLan hitzez-hitzezko itzulpen gehiago zenbatu ditugu HLAN baino.

Somatismoen taulari erreparatzen badiogu, joera bera ikus daiteke: HGLan hitzez-hitzezko itzulpen gehiago daude; baina, somatismoen kasuan, bi testu-moten arteko aldea ez da horren nabarmena. Jatorrizko testuko UFak hitzez hitz itzultzearen ondorioz euskaraz ezohiko hitz-konbinazioak sortu ohi direnez (ikusi 6.36 taula), argudia liteke onargarritasunerako joera handiagoa dela HLko testuen itzulpenean, eta joera hori nabarmenagoa dela binomioen kasuan. Hala ere, kontuz ibili beharra dago hipotesi horrekin, jatorrizko testuko interferentzia positiboa ere izan baitaiteke, Touryk dioen moduan.

Horretaz gain, xede-testuetan antzera jasotzen da jatorrizko testuen izaera fraseologikoa. Somatismoen kasuan ez zen gauza bera

gertatzen: HLAN, UF bidezko itzulpen gehiago zegoen HGLan baino. Somatismo eta binomioen kasuan mantentzen den joera da HLAN UF antzeko gehiago zenbatu ditugula. Azken datu horrek adierazi dezake HLAN egokitasunerako joera handiagoa dela HGLko testuen itzulpenean baino. Azken bi itzulpen aukerei erreparatuz gero, argi ikusten da HGLan beste baliabide batzuk gehiago erabiltzen direla, eta omisioak, berriz, ohikoagoak direla HLko testuetan.

6.67. taula: Itzulpen aukeren ehunekoetako banaketa, testu-mota kon-tuan hartuta

| | HGL | HL |
|--------------------------------------|--------|--------|
| UF \Rightarrow UF antzekoa | 13,43 | 18,22 |
| UF \Rightarrow UF desberdina | 37,31 | 32,39 |
| UF \Rightarrow UF ez | 25,37 | 30,77 |
| UF \Rightarrow kopia zuzena | 16,42 | 9,31 |
| UF \Rightarrow zeharkako kopia | 0,00 | 0,00 |
| UF \Rightarrow beste baliabide bat | 4,48 | 1,62 |
| UF $\Rightarrow\emptyset$ | 2,99 | 7,69 |
| Guztira | 100,00 | 100,00 |

Somatismoekin gertatzen zen ez bezala, binomioen kasuan, ez du-gu UF bidezko itzulpen gehiago aurkitu zeharkako testuetan zuzene-koetan baino. Aitzitik, nahiko orekatua da kasu honetan daukagun emaitza: zuzenekoetan UF bidezko itzulpena % 50,97koa da, eta, zeharkakoetan, aldiz, % 49,12koa. Bestalde, xede-testuetan UFrik ez erabiltzea askoz ohikoagoa da zeharkako testuetan. Hitzez-hitzeko itzulpenak, aldiz, zuzenekoetan hobesten dira. Datu horren arabera, argudia liteke zeharkako testuetan nabarmenagoa dela forma konben-tzionalen aldeko joera, eta sorburu-hizkuntza alemana edo gaztela-nia izateak itzultzailearen jokabidea baldintzatu dezakeela. Omisioen kasuan, tartea oso handia ez izanagatik, gehiago gertatzen da zehar-kakoetan zuzenekoetan baino.

6.68. taula: Itzulpen aukeren ehunekoetako banaketa, itzulpen modua kontuan hartuta

| | ZZ | ZH |
|------------------------|--------|--------|
| UF⇒UF antzekoa | 18,68 | 10,53 |
| UF⇒UF desberdina | 32,30 | 38,60 |
| UF⇒UF ez | 27,24 | 40,35 |
| UF⇒kopia zuzena | 12,84 | 1,75 |
| UF⇒zeharkako kopia | 0,00 | 0,00 |
| UF⇒beste baliabide bat | 2,72 | 0,00 |
| UF⇒∅ | 6,23 | 8,77 |
| Guztira | 100,00 | 100,00 |

6.7.3 Itzulpen aukerak banan-banan

Jarraian, banan-banan aztertuko ditugu alemanetik euskararako binomioen itzulpenean aurkitu ditugun sei itzulpen aukerak: $UF \Rightarrow$ *antzeko UFa*, $UF \Rightarrow$ *UF desberdina*, $UF \Rightarrow$ *UFrik ez*, $UF \Rightarrow$ *kopia zuzena*, $UF \Rightarrow$ *beste baliabide bat* eta $UF \Rightarrow \emptyset$.

6.7.3.1 $UF \Rightarrow$ antzeko UFa

Dagoeneko aipatu bezala, alemanezko binomioen % 17 inguru itzuli da UF antzeko bidez euskarara, somatismoen portzentajearekin alderatuta -% 25 inguru-, beraz, neurri txikiagoan. Bi hizkuntzen arteko isomorfia maila are baxuagoa da kasu honetan.

Gainera, kasu gehienetan -46 kasutan, hain zuzen-, xede-hizkuntzan erabiltzen den UF hori UF gisa sailkatu dugu euskal hiztegie-tan hala jasotzen delako. Baina, zortzi kasutan -zuzeneko itzulpe-nak guztiak-, euskal corpusetan egindako bilaketen emaitzak kontuan hartuta jaso ditugu xede-testuetako hitz-konbinazioak UF gisa. Ikus ditzagun bi adibide:

6.69. taula: Hiztegieta jasotzen ez diren antzeko UFak

| | | |
|---|--|---|
| 1 | Um die Sitten und Gebräuche seiner Bewohner gründlich zu studieren (...) (DZWde) | Bertakoen ohitura eta usadioak sakon aztertu nahi nituenez (...) (DZWeu) |
| 2 | “Mein Gott”, sagte mein Vater laut und in einer neuen Tonlage, die mir ganz fremd an ihm war, “sprich doch laut und deutlich und mach die Augen auf. (ACde) | –Jaunaren izenean –esan zuen aitak ozenki eta nik ordura arte entzun ez nion doinu berezi batean–, mintza hadi mintza hadi ozenki eta garbi , eta ireki itzak begiak. (ACeu) |

Ikus daitekeen moduan, jaso ditugun bi adibideak ia-sinonimoen multzokoak dira; izan ere, aipatu berri ditugun zortzi kasuetatik sei multzo horretakoak dira.

Lehenengo adibidean, *ohitura eta usadioak* UFa daukagu euskaraz. Euskarazko bi corpusetan egin dugu kontsulta, XXECE eta ETC corpusetan. Lehenengoan, 6 aldiz agertzen da *ohitura eta usadio*, eta, bigarrenean, 42 aldiz. Kopuru horiek aintzat hartuta, UF gisa identifikatu dugu. Alemanezko UF hori bera beste behin ere agertzen da HLko testu baten, JGde liburuan, alegia. Kasu horretan, itzulpenak jatorrizkoari gertutik jarraitzen dionez eta euskaraz ohikoa ez den hitz-konbinazioa sortzen denez, kopia zuzen gisa identifikatu dugu. “Ohiturak eta azturak” itzulpen aukera da JGeu liburuan erabiltzen dena. Gainera, “aztura” hitza, ETC corpusaren arabera, nabarmen gehiago erabiltzen da itzulpenetan (524 aldiz), jatorrizko testuetan baino (145 aldiz). Badirudi, hizkuntza jasoagoa erabiltzeko joera gailentzen dela HLko testu honen kasuan, ezohiko hitz-konbinazioa sortuz (8 agerraldi besterik ez ditugu aurkitu ETC corpusean).

Laut und deutlich UFari dagokionez, hiru aldiz aurkitu dugu AleuskaPhraseo corpusean: bi aldiz ACde liburuan eta behin DPde liburuan. ACEu liburuko bi agerraldietan berdin itzuli da: *ozenki eta garbi* UFarekin. Kasu honetan, XXECE corpusean ez dugu agerraldirik aurkitu, baina ETC corpusean 51 aldiz agertzen denez, UF gisa sailkatu dugu. Hala ere, kontuan hartu behar da, alde batetik, itzul-

penetan jatorrizkoetan baino gehiago erabiltzen dela, eta gaztelaniaz ere badagoela oso antzekoa den hitz-konbinazioa, *alto y claro*, alegia. Beraz, ez dakit esku artean dugun hau ez ote den zeharkako kopia. DPko adibidean, bestalde, euskaraz askoz ohikoagoa den UFa erabiltzen da: *argi eta garbi*. Osagai lexikoak ez dira jatorrizko UFaren berdinak (horregatik identifikatu dugu UF desberdin gisa), baina ohikoagoa den hitz-konbinazioa erabiltzen da.

Ustez zuzenean itzuli diren testuekin jarraituz, goian esan bezala, 46 kasutan hiztegietan jasotzen den UFa erabili da euskal itzulpenetan. Hauexek dira, hain zuzen, aurkitu ditugunak: *argi eta garbi*, *burutik oine(ta)ra(ino)*, *gutxi gora-behera*, *gutxiago edo gehiago*, *gutxi-asko*, *bat edo beste*, *egunez egun*, *egunean-egunean*, *behin eta betiko*, *behin betiko*, *aldian-aldian*, *alditik aldira*, *lehenago edo beranduago/geroago* eta *besoz beso*. Zerrendako azken UFa iruditu zaigunez deigarria, horren adibide bat jaso dugu 6.70 taulan.

Nahiko maiz agertzen da *Arm in Arm* somatismoa gure corpusean, 26 aldiz, hain zuzen. Hiru aldiz, HL ZZ azpicorpusean, *besoz beso*-rekin itzuli da. Hiztegietan jasotzen den arren (eta ETC corpusean ere 74 agerraldi izanagatik), askoz ohikoagoa da honako beste UF hau: *besotik helduta*. ETC corpusean ere agerraldi dezente gehiago aurkitu ditugu, 478. AleuskaPhraseo corpusean, 22 aldiz erabili da *besotik helduta* UFa xede-testuetan. HGLko beste kasu batean (JVde), bestalde, ez da UFrik erabili, eta esanahia aldatu da, “elkarri sorbaldatik helduta” hitz-konbinazioarekin itzuli baita “Arm in Arm standen wir da” esaldia.

6.70. taula: *Arm in Arm*

| | |
|---|---|
| Auf der staubigen Straße gehen die beiden Arm in Arm . (BAde) | Kale haustuan besoz beso doaz. (BAeu) |
|---|---|

Bestalde, zeharkako itzulpenetan, somatismoekin aurkitu dugun joera bera daukagu UF antzeko bidezko itzulpenetan: sei kasutatik bostetan, alemanetik gaztelaniarako jauzia UF antzeko bidez giten

da (esate baterako, *Tag für Tag* itzultzeko, gaztelaniazko *día tras día* UFa erabiltzen da), eta euskaraz gaztelaniazkoaren (eta alemanezkoaren) antzeko UFa erabiltzen da (*egunegun*, kasu honetan).

6.7.3.2 UF ⇒ UF desberdina

Somatismoen azterketan lortutako emaitzekin alderatuz gero, itzulpen aukera hau proportzio oso antzekoan erabili da alemanezko binomioen euskararako itzulpenean. Binomioen % 33,44 itzuli da UF desberdin bidez euskarara; somatismoen kasuan, portzentajea % 35,43koa da.

Maizen erabiltzen den itzulpen aukera izanik, datu asko izan ditugu esku artean, eta, horregatik, hiru zatitan banatu dugu azpiatal hau: lehenengo, zuzeneko itzulpenak aztertuko ditugu; ondoren, binomio jakin baten (*von Zeit zu Zeit*) itzulpena aztertuko dugu, eta, azkenik, zeharkako itzulpenen analisisia egingo dugu.

Zuzeneko itzulpenak: HGL eta HLko testuen arteko aldea

Beraz, UF desberdin bidezko itzulpenen ehunekoak altu samarra da bai somatismoen bai binomioen kasuan. Batzuetan, aukera logikoena dirudi UF desberdin hori erabiltzeak, osagai lexiko desberdinez osatuta egonagatik, jatorrizko eta xede-UFen arteko lotura oso estua delako; hala nola, HLko adibide honetan:

6.71. taula: Bi UFen arteko lotura estua

| | |
|---|---|
| Nie und nimmer erreicht man mit Empfindungen, wie die sind, mit denen ich der Welt gegenüberstehe, je Großes, (...) (JGde) | Munduari aurre egiteko darabildan sentierarekin ez dago sekula santan ezer handi lortzerik, (...) (JGeu) |
|---|---|

Nie und nimmer eta *sekula santan* UFak desberdinak dira egiturari dagokionez (alemanezkoa ia-sinomioen multzokoa da, euskaraz-

koa, aldiz, ez) eta binomioa osatzen duten elementuei dagokionez, baina semantikoki gauza bera esan nahi dute, eta pragmatikoki ere berdin-berdin funtzionatzen dute. Bien arteko lotura estua dela eta, xede-testuko emaitzak ez gaitu harritzen.

Beste kasu batzuetan, berriz, badirudi ahalegin berezi bat egiten dela xede-testuetan, jatorrizkoan dagoen UFa jasotzeko, eta, ondorioz, batez ere HLko testuetan, hitz-konbinazio behartuak sortzen direla batzuetan, eta, beraz, egokitasunerako joera nabarmenagoa dela. 6.72 taulan, egoera hori islatzen duten adibide batzuk ikusiko ditugu.

Lehenengo kasuan, *jmdn in Grund und Boden verfluchen* UF alemana daukagu. Esanahiari begiratzen badiogu, ia-sinonimoen multzokoa da, *Grund* eta *Boden*-ek gauza bera esan nahi baitute: lur. Fraseologikoki, berriz, *in Grund und Boden*-ek ‘erabat, guztiz, oso’ esanahia dauka. HFko adibidean, pertsonaia nagusiak irudikatzen du nola, gertatutakoa eta gero, Hanna, ama, biraoak bota eta bota hasiko zaion. Itzulpenean, *goitik behera* UFa erabiltzen da, euskaraz ohikoa dena. Behartua iruditzen zaiguna “goitik behera madarikazioka hasi” hitz-konbinazioa da. Corpusetan ez dugu bere horretan aurkitu. “Goitik behera” nola erabiltzen den sakonago aztertu behar-ko litzateke, baina ETC corpusean 5.793 aldiz agertzen da, eta ezin ditugu kasu guztiak banan-banan aztertu.

6.72. taula: Hitz-konbinazio behartuak HLko testuetan

| | | |
|---|---|---|
| 1 | dabei war ich ja gefaßt darauf, daß sie, die Mutter, mich in Grund und Boden verflucht , obschon ich andererseits, sachlich betrachtet, wirklich nichts dafür kann. (HFde) | nahiz eta ni aurre-etsita egon, une batetik bestera, Hanna ama madarikazioka hasiko zitzaidala goitik behera : halakorik ez, ordea; izan ere, gauzak hotzean begiratuta, egin nuena baino gehiago egitea ez baitzegoen nire esku. (HFeu) |
| 2 | Durch und durch entmutigt, wagte ich gar nicht, mich umzuschauen, ob sie noch neben mir sei. (JGde) | Goitik behera lur jota, ez nintzen ausartu ingurura begiratzen, artean nire ondoan ote zegoen ikusteko. (JGeu) |

| | | |
|---|---|---|
| 3 | Ein durch und durch friedliches Bild: (DEKBde) | Egiaz eta benaz irudi baketsu bat: (DEKBeu) |
| 4 | Ich habe am Tisch reicher Leute gegessen, und ich werde die Art und Weise , wie ich mich benommen habe, nie vergessen. (JGde) | Jende aberatsen mahaira eserarazia, ez dut inoiz ahaztuko nire portaeraren nondik norakoa . (JGeu) |

Antzeko zerbait gertatzen da taulako hurrengo adibidean, JG testuan. Kasu horretan, jatorrizko UFa *durch und durch* da, eta, aurreko adibidean bezala, ‘erabat, guztiz, oso’ esan nahi du. “Durch und durch entmutigt” horrek, beraz, ‘batere gogorik gabe’ esanahia dauka. JGeu liburuan, aurreko kasuan bezala, *goitik behera* UFa erabiltzen da, eta, aurreko kasuan bezala, behartua iruditzen zaigu “goitik behera lur jota” hitz-konbinazioa. ETC corpusean egin dugun bilaketan, hitz-konbinazio hori bilatuta behintzat, ez dugu emaitzarik lortu.

Zeharka itzuli den DPGM liburuan, *durch und durch* binomioa modu naturalagoan itzuli dela iruditzen zaigu. Alemanezko esaldi hau “Und er sagte sich, daß er es wolle, weil er **durch und durch** böse sei” honela itzuli da: “Eta bere buruari erantzun zion gaiztoa zelako egin nahi zuela, **ezin gaiztoagoa** zelako”. Gaztelaniazko itzulpenean **absolutamente** adberbioa erabiltzen da. Zeharkako testuetan onargarritasunerako joera handiagoa dagoela adierazi dezake adibide horrek.

Hirugarren adibidean, UF berbera daukagu, *durch und durch*. Xede-testuko *egiaz eta benaz* UFa ez da oso ohikoa euskaraz. ETC corpusean, esate baterako, agerraldi bakarra aurkitu dugu, itzulitako testu batean. Euskal hiztegiei dagokienez, Mokoroaren hiztegi espezializatuan bakarrik aurkitu dugu. Beraz, iruditzen zaigu, xede-testuko itzulpen aukera, kasu honetan, behartua dela UF horren erabilerari dagokionez, ez baita oso ezaguna eta ez delako maiz erabiltzen. Gogora dezagun, bestalde, DEKBeu Zabaletak itzuli duela, eta somatismoen azterketan ere egin dugula topo antzeko kasuekin

(ikus, adibidez, 6.20).

Azkenik, ia-sinonimoen multzokoa den *die Art und Weise* binomioa daukagu. *Eta* juntagailuarekin lotuta dauden bi izenek ‘modu’ esan nahi dute, eta esaldiak esan nahi duena da lehen pertsonan idazten duen horrek ‘ez zuela inoiz ahaztuko nola jokatu zuen’. Itzulpean, “nire portaeraren nondik norako”-rekin, badirudi itzultzaileak UFa jasotzeko ahalegina egin duela, hitz-konbinazio konbentzional baten kaltetan.

Oro har, 6.72 taulako adibideei erreparatuta, HLko testu horietan formaren alde egiten da esanahiaren kaltetan; beste modu batean esanda, baliokide fraseologiko bat eman beharra ikusten da, eta formari eusten zaio, baina ez pragmatikari. Autore kanonikoek sortutako testuak izatea itzultzen direnak eragina izan dezake itzultzailearen jardunean. Itzultzailea jakitun da testu literario berezi bat daukala esku artean. Testuen izaera kanoniko horrek ere eragina izan dezake jatorrizkoarekiko lotura horretan.

Hurrena, HL eta HGLko testuetan erabilitako itzulpen aukeren arteko aldea ikusteko, adibide batzuk aztertuko ditugu.

6.73. taula: UF desberdinak HGLko testuetan

| | | |
|---|--|---|
| 1 | Meggie schief tief und fest , das Gesicht in einen grauen Pullover gedrückt. (THde) | Meggie lozorroan zegoen , aurpegia jertse gris baten kontra estututa. (THEu) |
| 2 | Er schief tief und fest . (THde) | Lo seko zegoen. (THEu) |
| 3 | (...) während Mug einen mechanischen Kobold machte, der steif und fest behauptete der wahre Mug zu sein und sogar damit drohte, Mug wegzuzaubern, wenn er ihm noch länger widerspräche. (DZWde) | Mugek, bestalde, iratxo mekaniko bat sortu zuen, esan eta esan aritzen zena bera zela Mug eta, are, hori horrela ez zela esaten jarraitzen bazuten, benetako Mug desagerraraziko zuela mehatxu egiten zuena. (DZWeu) |

Itzulpen horietan ere UF desberdinak erabili dira, baina ikusiko ditugun kasuetan, xede-hizkuntzan –HLan ikusi ditugun adibideen aldean, behinik behin– ohikoagoak diren hitz-konbinazioak eta esaldiak

sortu dira. Taulako lehenengo bi adibideetan, *tief und fest* binomioa daukagu, eta guztietan *schlafen* aditzarekin agertzen da. ‘Sakon lo egin’ esanahi fraseologikoa dauka hitz-konbinazio horrek, eta itzulpenetan euskarazko bi UF desberdinekin egin dugu topo: *lozorroan egon* eta *lo seko egon*.

Azken adibidean, ia-sinonimoen multzoko beste UF aleman bat daukagu: *steif und fest (behaupten)*. ‘Zerbait behin eta berriz esan’ esanahia dauka kasu honetan, eta aditzaren errepikapenean oinarritzen den euskarazko *esan eta esan-ek* zentzu hori bera ematen dio esaldiari.

Alemanezko UF hori, *steif und fest*, HLko testu batean ere agertzen da. Bi itzulpenen arteko aldea ikuste aldera, HFko adibide hori aztertuko dugu. 6.74 taulan ikus daitekeen moduan, gertuagotik jarraitzen dio kasu honetan jatorrizko testuko binomioaren egiturari, eta euskaraz sortzen den hitz-konbinazioa, “serio eta irmo”, ez da oso ohikoa: 9 agerraldi zenbatu ditugu ETC corpusean, horietatik bat HFkoa da.

6.74. taula: *Steif und fest* binomioa

| | |
|--|--|
| er behauptete steif und fest , man könne diese Hieroglyphen und Götterfratzen nicht fotografieren, sonst wären sie sofort tot. (HFde) | baina berak halaxe esan zigun, serio eta irmo esan ere , ezin omen zirela hieroglifiko eta jainko-maskara haiek argazkitan atera, bestela derrepente hiltzen omen zinela-eta. (HFeu) |
|--|--|

Adibide horiek guztiak ikusita, HGLan onargarritasunerako joera gailentzen dela dirudi, eta, HLAN, berriz, gehiago gerturatzen direla oro har egokitasunaren muturrera.

Kasu konkretu bat: *von Zeit zu Zeit* binomioa

AleuskaPhraseo corpusean maiz (49 aldiz) agertzen den binomioa denez eta horrek erkaketak egiteko aukera ematen digunez, berariaz

aztertuko dugu *von Zeit zu Zeit* binomia. Gainera, itzulpen aukera gisa UF desberdin bidezkoa denez gailentzen dena (kasuen % 60 inguru), azpiatal honetan aztertzea erabaki dugu.

Maiztasun handia izateak ez du esan nahi gure corpora osatzen duten azpicorpusetan binomio kopuru berdintsua aurkituko dugunik. Kasu konkretu honetan, desoreka nahiko handia da: 4 aldiz besterik ez da *von Zeit zu Zeit* binomia HGLko testuetan agertzen. Egoera horrek eragina izan dezake ondorioetan, eta kontuan hartuko dugu.

Guztira, zortzi UF desberdin erabili dira AleuskaPhraseo corpuseko xede-testuetan, *von Zeit zu Zeit* itzultzerako orduan: *noizean behin*, *inoiz edo behin*, *lantzean behin*, *aldian-aldian*, *aldian behin*, *txitean-pitean*, *noizetik noizera* eta *alditik aldira*. HGLko testuetan erabiltzen direnak lehenengo biak dira (*noizean behin* eta *inoiz edo behin*), eta, ETC corpusean egin dugun kontsultan, zerrendatu ditugun zortzi horietatik agerraldi gehien dituztenak dira. ETC corpusean gutxien erabiltzen direnak *alditik-aldira* (14 agerraldi), *noizetik noizera* (51 agerraldi) eta *txitean-pitean* (75 agerraldi) dira, eta, gure corpusari dagokionez, HLko testuetan bakarrik aurkitu ditugu.

HGLko testuetan ohikoenak diren UFak erabiltzeak eta HLko testuetan horren ohikoak ez direnak ere aurkitzeak adierazi dezake aha-legin handiagoa egiten dela HLko testuen itzulpenean hizkuntza literario jasoagoa sortzeko HGLko itzulpenean baino.

Zeharkako itzulpenak: zubi-bertsiotik urruntzeko ahalegina

UF desberdin bidezko azpiatal honi amaiera emateko, zeharkako itzulpenetan jarriko dugu arreta. Izan ere, somatismoekin ikusi dugun moduan, hemen ere zubi-bertsiotik aldentzeko ahaleginak atentzioa eman digu.

6.75 taulako adibideetan, jatorrizko testuetan, *von Kopf bis Fuß* ('burutik oinera') binomio (eta, aldi berean, somatismo) alemana daukagu.

6.75. taula: *von Kopf bis Fuß* zeharkako testuetan

| | | | |
|---|--|--|--|
| 1 | Er musterte Anton noch einmal von Kopf bis Fuß , jetzt aber viel wohlwollender. (DKVZde) | Examinó una vez más a Anton de pies a cabeza , pero ahora mucho más amistoso. (DKVZes) | Behin eta berriz Anton goitik behera aztertu zuen, baina orain era askotaz atsegingarriagotan. (DKVZeu) |
| 2 | (...) schließlich mit Nußölseife aus der Andenstadt Potosi von Kopf bis Fuß gewaschen wurde. (DPGMde) | (...) a continuación lo lavaron de pies a cabeza con jabón de aceite de nuez procedente de la ciudad andina de Potosí. (DPGMes) | (...) azkenik, Andeetako Potosiko intxaur oliozko xaboi batez garbitu zuten goitik behera . (DPGMeu) |

Lau aldiz agertzen da guztira *von Kopf bis Fuß* AleuskaPhraseo corpusean zeharkako itzulpen gisa identifikatu ditugun testuetan, eta, guztietan, goiko adibideetan ikus dezakegun moduan itzuli da: *goitik behera* UFaren bidez. Horrela, zubi-bertsiotik gertuago egongo litzatekeen euskarazko UFa, *burutik oine(ta)ra(ino)*, erabili beharrean, desberdinagoa den UF batekin itzultzen dute gaztelaniazko *de pies a cabeza*. Ustez zuzenean egindako itzulpenetan, alemanezko UF hori bera 5 aldiz agertzen da, eta, kasu horietan, hiru alditan *burutik oine(ta)ra(ino)* erabiltzen da, eta, bitan, *goitik behera*.

6.7.3.3 UF⇒UFrik ez

Itzulpen aukera hau 93 kasutan aurkitu dugu binomioen itzulpe-nean, kasuen % 29,62an, eta, beraz, somatismoen itzulpe-nean baino proportzio handiagoan erabili da (% 23,84).

Somatismoekin ikusi dugun moduan, binomioekin ere gertatzen dira aldaketak maila semantikoan, non jatorrizko binomioen esanahia aldatu egiten den xede-testuetan. Ustez zuzenean itzulitakoetan, bi kasu besterik ez ditugu aurkitu; zeharka itzuli direnei dagokienez ere,

aurkitutako adibideen kopurua ez da batere esanguratsua, bat aurkitu dugu DKG liburuan eta beste bat HLko testu batean (DV). Kasu horietan, somatismoekin ikusi dugun legez, esanahi aldaketaren jatorria zubi-bertsioan dago: gaztelaniaz jatorrizko esaldiaren esanahia aldatzen denez, euskarazko bertsioan ere gauza bera gertatzen da.

Bestalde, itzulpenetan gure arreta piztu duen beste berezitasun bat aipatu nahi genuke: UFrik erabili ez den kasu batzuetan, itzulpenak jatorrizkoak baino zehatzagoak, esplizituagoak direla iruditu zaigu. Egoera hori argiago azaltzeko, adibide batzuk ikusiko ditugu. Ustez zuzenean itzultitako testuekin hasiko gara. Aurkitu ditugun zortzi kasuetatik honako lau hauek aztertuko ditugu adibide gisa:

6.76. taula: Zuzeneko itzulpenak: esplizitazioa

| | | |
|---|--|---|
| 1 | Ich hab' dich gesehen, und es ging mir durch und durch . So was gibt's einfach nicht, hab' ich gedacht". (ELde) | Zu ikusi eta arima txikituta geratu zitzaidan . Ezinezkoa da horrelako edertasuna, pentsatu nuen nik. (ELeu) |
| 2 | Herbert schnarchte nach wie vor . (HFde) | Herbertek zurrunga betean segitzen zuen... . (HFeu) |
| 3 | Als er am Morgen die Fenster öffnete, war der Himmel bezogen nach wie vor , (...) (DTVde) | Goizean leihoa irekitzean, zeruak aurreko egunean bezala goibel jarraitzen zuen, (...) (DTVe) |
| 4 | Ich zog meine Schuhe aus, Schlangen hin oder her , ich brauchte Luft, ich hatte Herzklopfen vor Hitze, (...) (HFde) | Oinetakoak erantzi nituen, sugeen beldurra gorabehera , airea behar nuen, bihotz -taupadak neuzkan beroaren beroaz; (HFeu) |

Lehenengo adibideko binomioa, *jmdm durch und durch gehen*, norbaitek zerbait oso sakon sentitzen duenean erabiltzen da. EL liburuan, esate baterako, liburuko pertsonaia batek beste bat ikus-teak eragin dion zirrara sakona deskribatzen da binomio horren bidez. Itzulpenean, "arima txikituta geratu zitzaidan" esaldiarekin iruditzen zaigu jatorrizkoan baino irudi esplizituagoa erabiltzen dela.

Bigarren adibideko xede-testuan ere, UFrik ez dagoela konpen-

tsatzeko-edo, pertsonaiak “zurrunga betean segitzen” duela agertzen da, eta, jatorrizkoan, berriz, jartzen duena da zurrungan segitzen duela (“schnarchte nach wie vor”). *Nach wie vor* binomioak ‘lehen bezala’ esan nahi du, eta, taulan ikus dezakegun moduan, hurrengo adibidean ere hori bera agertzen da. Itzulpenean, “zeruak aurreko egunean bezala” jarraitzen duela zehazten denez, jatorrizkoa baino esplizituagoa iruditzen zaigu.

Azkenik, HFde liburuan agertzen den beste binomio bat aztertu nahi genuke: *hin oder her*. Kasu honetan, jatorrizko testuak esan nahi duena da pertsonaia nagusiak oinetakoak erantzi egingo dituela, sugeak egon arren. HFeu itzulpenean, baina, zehaztu egiten da sugeek ematen dioten “beldurra” gorabehera erantzi zituela oinetakoak.

Zeharka itzuli den HLko testu batean, alemanezko binomio bera erabiltzen da, baina, kasu horretan, gaztelaniaz ez dagoenez esplizitazioa eragiten duen informazio gehigarrik (“imbécil o no”), euskaraz ere ez da fenomeno hori gertatzen (“ergela izan edo ez”). Ikus dezagun adibidea:

6.77. taula: *Hin oder her*

| | | |
|---|---|--|
| Sie war davon überzeugt, der Knabe müsse – Schwachsinn hin oder her – das zweite Gesicht besitzen. (DPGMde) | Estaba convencida de que el muchacho –imbécil o no – era un vidente (DPGMes) | Erabat sinetsita zegoen mutikoa ergela izan edo ez – igarlea zela, (DPGMeu) |
|---|---|--|

Xede-testuetan UFrik erabili ez den atal honekin amaitzeko, zeharka itzuli diren testuetako bi adibide ikusiko ditugu, non zehaztasunerako joera nabaritu dugun. Alemanezko testuetako UFak, *Ehre und Ruhm* eta *fix und fertig*, izenez eta adjektiboz osatutako ia-sinonimoak dira. Gaztelaniazko bertsioetan jatorrizkoetako egitura gordetzen da: *honor y gloria* bi izenez osatzen da, eta *listos y perfila-*

dos bi adjektiboz. Euskarazko bertsioetako itzulpen aukerak, ordea, taulan ikus daitekeen moduan, zehatzagoak dira.

6.78. taula: Zeharkako itzulpenak: esplizitazioa

| | | | |
|---|--|---|--|
| 1 | Deren Glück ist mir Ehre und Ruhm genug!". (DKTde) | Su suerte es para mí honor y gloria suficiente. (DKTes) | Niretzat saririk onena eta ohorerik handiena haien zorte ona da. (DKTeu) |
| 2 | Und die ersten drei Kapitel waren sogar schon fix und fertig . (EDde) | Los tres primeros capítulos estaban ya listos y perfilados . (EDes) | Jadanik, lehenengo hiru kapituluak pronto neuzkan apain asko orraztuta . (EDeu) |

6.7.3.4 UF⇒kopia zuzena

Itzulpen aukeretan, maiztasunari erreparatzen badiogu, laugarrena da hau; 34 kopia zuzen identifikatu ditugu guztira. Datu hori ez da bere horretan deigarria, atentzioa eman diguna beste kontu bat da: kasu bat izan ezik beste guztiak ia-sinonimoen multzokoak dira, eta, multzo horretatik, bat izan ezik beste guztiak zuzeneko itzulpenak dira.

Ikus dezagun, lehenik eta behin, ia-sinonimo ez den adibide hori. 6.79 taulan ikus daiteke nola alemanezko *schwarz auf weiss* binomioa nahiko modu zuzenean itzultzen den euskarara. ETC corpusean kontsultatu dugu “zuri gaineko beltzean” hitz-konbinazioa, eta bi agerraldi aurkitu ditugu (horietako bat AleuskaPhraseo corpuseko testukoa, HFkoa da). Ez dakit gaztelaniazko *negro sobre blanco* UFak, edo, beste modu batera esanda, gaztelaniaz oso antzekoa den UF bat egoteak eragina izan dezakeen euskarazko itzulpenean.

6.79. taula: Schwarz auf weiß

| | |
|--|---|
| Aber vielleicht brauchte Ivy es schwarz auf weiß. (HFde) | Baina, beharbada, idatzita beharko zuen ikusi, zuri gaineo beltzean. (HFeu) |
|--|---|

Aipatu ditugun beste 33 kasuak kopia zuzen gisa identifikatu ditugu, euskarazko itzulpenek oso gertutik jarraitzen dietelako jatorrizko binomioei, bai egiturari bai osagaien esanahiari dagokionez. Hona hemen adibide batzuk:

6.80. taula: Ia sinonimoak: kopia zuzen bidez itzulita

| | | |
|---|--|---|
| 1 | Und dass der Peter schon fix und fertig bereitsteht, sagen sie sich, ist auch ungewiss. (DAKde) | -Eta ikusi egin beharko da, gainera, Peter atondurik eta prest egongo den ere. (DAKeu) |
| 2 | Tante Cora spricht betont ruhig und gelassen. (LDde) | izeba Korak nabarmen lasai eta bare hitz egiten du. (LDeu) |
| 3 | (...) und das Ziel und Ende von dem allem ist wieder der Krieg, ist der nächste, kommende Krieg, der wohl noch scheußlicher sein wird, als dieser es war. (DSWde) | (...) eta guztiorren azkena eta xedea hurrengo etorriko den gerra dun, eta oraingo hau izan den baino okerragoa izango dun hura. (DSWeu) |
| 4 | Und nun mühte er sich, die Worte zu finden, um vor Gericht die Sache klar und verständlich darzustellen. (DTSde) | Eta ahalegina egin zuen afera epailearen aurrean modu argi eta ulergarrian azaltzeko". (DTSeu) |

Testu desberdinetako lau binomio desberdin dauzkagu jatorrizko testuetan (*fix und fertig*, *ruhig und gelassen*, *Ziel und Ende* eta *klar und verständlich*). Xede-testuetako hitz-konbinazioek (*atondurik eta prest*, *lasai eta bare*, *azkena eta xedea* eta *argi eta ulergarri*) jatorrizkoen egitura berbera daukate, eta, osagaien esanahiei begiratuta, oso antzekoak diren hitzez osatuta daude. ETC corpusean begiratu dugu nolakoa den euskarazko hitz-konbinazio horien maiztasuna. *Atondurik eta prest* eta *azkena eta xedea*-ren kasuan, ez dugu agerraldirik

aurkitu. *Lasai eta bare eta argi eta ulergarri*, berriz, gutxi, baina agertzen dira: 9 aldiz lehena, 10 aldiz bigarrena. Hori bai, itzulitako testuetan zenbatu ditugu agerraldi gehien (zortzi kasu bakoitzean). Dena den, 6.5.3 atalean ondorioztatutakoa ez da binomioen kasuan betetzen; hau da, egia da, jatorrizko binomioen aldean, aztertu berri ditugun euskal binomioak ez direla horren maiz erabiltzen, baina ez dira somatismoen kasuan bezain behartuak. Horregatik, kasu honetan, kopia zuzenak hizkuntza ez-konbentzionalaren adierazle baino, interferentziaren adierazle gisa funtziona dezakete. Are, gaineratu dezakegu HGLko itzulpenetan areago onartzen dela interferentzia, kopia zuzenen portzentajea altuagoa delako.

Gaztelaniara eta euskarara egiten diren itzulpenak alderatzeko saiakera egiten badugu, atentzioa ematen du, AleuskaPhraseo corpuseko adibideetan oinarrituta, alemanetik gaztelaniarako itzulpen norabidean, kopia zuzen oso gutxi aurkitu ditugula, bi kasu. Euskararako itzulpenetan, berriz, 32. Badakigu zeharkako testuek osatzen duten azpicorpusa dezente txikiagoa dela tamainan, eta, hala ere, iruditzen zaigu bien arteko aldea adierazgarria dela. Egoera hau hobeto islatuko duen adibide batekin eman nahi genioke amaiera azpiatal honi. Ikus dezagun *die Art und Weise* binomioaren itzulpena zeharkako testu baten kasuan (gure corpuseko bakarra) eta zuzeneko hirutan:

6.81. taula: die Art und Weise

| | | | |
|---|--|--|---|
| 1 | Die Art und Weise , wie du mit den Dingen umgehst (...) (DPGMde) | Tu modo de hacer , tu forma de manejar las cosas (...) (DPGMes) | Gauzak erabiltzeko modu hori (...) (DPGMeu) |
| 2 | Ich bin auch heute noch dumm, aber auf feinere, freundlichere Art und Weise . Und auf die Art und Weise kommt alles an. (JGde) | | Egun oraindik ere halakoxea naiz, baina antze eta molde finago, alaiagoez. Eta antze eta moldeen araberakoa da dena. (JGeu) |

| | | |
|---|---|---|
| 3 | Charlotte war eine von den Frauen, die, von Natur maessig, im Ehestande ohne Vorsatz und Anstrengung die Art und Weise der Liebhaberinnen fortfuehren. (DWVde) | Charlotte, izaeraz neurrikoa, ezkondata ere, aurregogoeta eta ahaleginik gabe, ezkongaietako era eta manierak gordetzen dituzten emakume horietakoa zen. (DWVeu) |
| 4 | “Man kann sich sein Brot auf verschiedene Art und Weise verdienen. (BAde) | “ Modu eta era askotara irabaz zitekek ogia. (BAeu) |

Adibide gehiago ikusi beharko lirateke, baina badirudi euskararako itzulpenetan gehiago jotzen dela egokitasunera, eta, gaztelaniara egiten direnetan, berriz, onargarritasunera. Azken batean, egoera oso desberdinetan dauden hizkuntzak dira. Hemendik aurrerako ikerketetan, euskarara eta gaztelaniara egindako itzulpenak alderatu nahi baditugu, gaztelaniazko kasu gehiago beharko genituzke.

6.7.3.5 UF⇒beste baliabide bat

Zazpi kasutan erabiltzen da beste baliabide bat, errepikapena kasu guztietan, itzulpen aukera gisa, eta adibide horiek guztiak zuzeneko itzulpenetan aurkitu ditugu.

Lau kasutan, jatorrizko binomioa berdina da: *mehr und mehr* (‘gero eta gehiago’). Behin, gainera, jatorrizko testuaren esanahia aldatu egiten da. 6.82 taulan ikus daitekeen moduan, jatorrizko HGLko testuak dio gero eta makina gehiago datozela (‘dann kommen mehr und mehr dazu’), eta, xede-testuan, berriz, jartzen duena da makinan zarata ‘hurbilago eta hurbilago’ entzuten dela. Horrela, zorrozki jarraitzen zaio euskal itzulpenean alemanezko testuko UFaren formari.

6.82. taula: *Mehr und mehr*

| | |
|---|---|
| Plotzlich setzt der Lärm der Baumaschinen ein, erst noch einzeln und entfernt, dann kommen mehr und mehr dazu. (DGMde) | Bat-batean eraikuntza-makinen zarata entzuten da, aurrena isolaturik eta urrun, eta gero hurbilago eta hurbilago . (DGMeu) |
|---|---|

6.7.3.6 UF \Rightarrow Ø

Somatismoen aldean, binomioen itzulpenean UFak ez itzultzeko joera nabarmenagoa da. Orduan kasu bakarra aurkitu genuen, eta orain 21 dira jaso ditugunak. Azpicorpus guztietan aurkitu dugu, gainera, kasuren bat, baina HL ZZ azpicorpusean daude adibide gehien (15).

Gehien errepikatzen diren jatorrizko binomioak hauexek dira: *nach wie vor* (7 aldiz), *einzig und allein* (4 aldiz) eta *durch und durch* (3 bider). Bakoitzetik adibide bana ikusiko dugu 6.83 taulan.

DAKde liburuan, esate baterako, *nach wie vor* ('lehen bezala') binomioa daukagu, eta, xede-testuan, ez da informazio hori jasotzen; alegia, ez da esaten Jasperrek berdin-berdin jarraitzen duela bazkal-tzera eta afaltzera agertu gabe.

Hurrena, DAde liburuan, *durch und durch* binomioa agertzen da. Jatorrizkoan, *osoki edo burutik oin zolarainoko* ohitura-gizona dela esaten da, eta, itzulpenean, ikus daitekeen legez, binomioaren ñabardura hori ez da aipatzen.

Hirugarrenik, *einzig und allein* binomio (ia-sinonimoa) erabiltzen da DPGMde liburuan. Goian aipatu dugu lau bider agertzen dela binomio hau, itzulpen aukera honi dagokionez. Zehaztu beharra dago kasu guztiak DPGMde liburukoak direla, eta, guztietan, zubi-bertsioan jaso jasotzen dela alemanezko binomioaren esanahia, eta binomioa euskarazko bertsioan desagertzen dela. 6.83 taulako adibidean, gartzelaniaz "exclusivamente" adberbioa erabiltzen da, eta, euskarazko testuan, ez da ñabardura hori jasotzen.

6.83. taula: UF \Rightarrow Ø

| | | | |
|---|--|---|---|
| 1 | Und dass er nach wie vor nicht zum Nachtstuhl und zum Mittagessen erschien, fand sie natürlich entsetzlich. (DAKde) | | Eta jakina, oso gaizki zeritzon Jasper bazkaltzera eta afaltzera ez agertzeari. (DAKeu) |
| 2 | Ich bin ein Gewohnheitsmensch durch und durch und liebe keine Neuerungen. (DAde) | | Ohitura-gizona naiz eta berrikuntzak ez ditut batere maite. (DAeu) |
| 3 | Seine parfümistischen Erfolge verdankte er einzig und allein einer Entdeckung, (...) (DPGMde) | Sus éxitos en perfumería se debían exclusivamente a un descubrimiento (...) (DPGMes) | Hark parfume gintzan lortutako arrakasta berrehun urte lehenago Mauritius Frangipani jenoak -italiarra bera, bide batez! -egindako aurkikuntza batean oinarritzen zen; (DPGMeu) |

6.8 Binomioen azterketa XTetan

Kasu honetan, binomioen azterketaren abiapuntua xede-testuak izango dira, eta, orain arte egin bezala, hiru zatitan banatu dugu analisia: xede-testuetan aurkitutako binomioen azterketa egingo dugu, itzulpen-azterketaren datu orokorrak aurkeztuko ditugu eta itzulpen aukera bakoitza landuko dugu zehatz-mehatz.

6.8.1 Xede-testuetan oinarritutako azterketa

Erauzi ditugun binomioak azpicorpusetan nola banatzen diren ikusiz ekingo diogu azpiatal honi.

6.84. taula: Erauzitako euskarazko binomioen banaketa corpusean

| | UF kopurua | Portzentajea | Corpus 2 |
|--------|------------|--------------|----------|
| HGL ZZ | 124 | % 36,47 | % 22,93 |
| HGL ZH | 29 | % 8,53 | % 13,14 |
| HL ZZ | 147 | % 43,24 | % 48,42 |
| HL ZH | 40 | % 11,76 | % 15,52 |

6.84 taulako bigarren zutabean, azpicorpus bakoitzetik zenbat binomio erauzi ditugun ikus daiteke, hirugarrenean kopuru horri dago-kion ehunekoa agertzen da, eta corpus 2ari dagozkion datuak laugarren zutabean jaso ditugu. Azken bi zutabeetako datuak alderatzen baditugu, sailkapen-zerrenda, nolabait esateko, mantendu egiten da: lehenengo lekuan HL ZZ dago, gero HGL ZZ, ondoren HL ZH, eta, azkenik, HGL ZH. Hurrenkera berdina den arren, badaude aldeak bi zutabeetako kopuruaren artean. Deigarria iruditu zaigu, esate baterako, HGL ZZko portzentaje altua; batez ere kontuan hartuta ez dela gauza bera gertatzen somatismoekin eta alemanezko binomioekin (ikusi 6.6, 6.46 eta 6.62). Kasu horietan, beti erauzi dugu kopuru proportzional horrek adierazten zuena baino UF gutxiago. Xede-binomioen kasuan, berriz, dezente gehiago erauzi ditugu. HL ZZtik erauzitako binomio kopuruak handia izaten jarraitzen du, baina, lehenengo aldiz, corpus 2ak adierazten duena baino UF gutxiago erauzi ditugu. Zeharkako testuetako joera mantendu egiten da: portzentajeak corpus 2ak adierazten duena baino baxuagoak dira.

6.85 taulan, AleuskaPhraseo corpUSA osatzen duten euskarazko liburuetan aurkitu ditugun binomioak jaso ditugu, eta maiztasunaren arabera ordenatu.

6.85. taula: Testu bakoitzeko binomio kopurua

| Kodea | UF | Testua | Xede-egilea |
|-------|----|--------|-------------|
| TH | 36 | HGL | Zubillaga |
| JV | 21 | HGL | Sebrango |
| BA | 20 | HL | Garikano |

| | | | |
|------|----|-----|-----------------|
| DWV | 18 | HL | Mendiguren |
| DPGM | 17 | HL | Arratibel |
| JG | 17 | HL | Matauko |
| RSF | 16 | HGL | Jaka |
| BM | 15 | HL | Múgica |
| DBF | 12 | HL | Matauko |
| HF | 11 | HL | Arrieta |
| DTS | 10 | HL | Irazustabarrena |
| DEKB | 9 | HL | Zabaleta |
| AC | 9 | HL | Azpiroz |
| EL | 9 | HGL | Zabaleta |
| DSW | 8 | HL | Zabaleta |
| DDL | 8 | HGL | Narbaiza |
| DP | 7 | HL | Garikano |
| DAK | 7 | HGL | Mendiguren |
| DKG | 7 | HGL | Gartzia |
| DKVZ | 7 | HGL | Legarreta |
| GG | 6 | HGL | Mendiguren |
| DVZT | 5 | HL | Morales |
| BUS | 5 | HGL | Zabaleta |
| DA | 5 | HL | Agirre |
| ED | 5 | HGL | Sarasola |
| DLW | 5 | HL | Lobera |
| KM | 4 | HL | Mendiguren |
| DZW | 4 | HGL | Zubillaga |
| LD | 4 | HGL | Zabaleta |
| DKVG | 4 | HGL | Markuleta |
| DTT | 4 | HL | Eguzkitza |
| DGM | 4 | HGL | Mendiguren |
| DV | 3 | HL | Iraola |
| DKT | 3 | HGL | Ossa |
| HLJ | 3 | HGL | Aristondo |
| BU | 3 | HL | Matauko |
| DTV | 2 | HL | Mendiguren |
| GHK | 2 | HL | Garzia |
| SN | 1 | HL | Mendiguren |
| LODS | 1 | HGL | Zabaleta |
| SLH | 1 | HGL | Azkue |
| MM | 1 | HGL | Zabaleta |
| DPS | 1 | HGL | Garikano |
| DL | 0 | HL | Matauko |

| | | | |
|------|---|-----|-------------|
| DLT | 0 | HL | Múgica |
| PA | 0 | HGL | Legarreta |
| BLA | 0 | HGL | Urbistondo |
| DASH | 0 | HGL | Iparragirre |

Hamar binomio baino gehiago erauzi ditugun liburuen artean, gehientsuenak, 6.63 taulan gertatzen zen bezala, helduentzako literaturakoak dira. Baina jatorrizko binomioetan ez bezala, euskarazkoetan lehenengo bi testuak HGLkoak dira, eta, TH liburuan, gainera, 36 binomio erauzi ditugu. Gogora dezagun, alemanez ere TH nahiko produktiboa zela fraseologikoki.

Zerrendaren beheko aldeari erreparatzen badiogu eta alemanezko binomioen taularekin (6.63) alderatzen badugu, nabarmendu daiteke bi tauletan behean agertzen diren liburuak berdintsuak direla. Zero agerraldi eta agerraldi bakarra duten testuak erkatzen baditugu, esate baterako, HGLko testu batek piztu du gure arreta: RSF liburuak. Alemanez binomio bakarra erauzi dugu, eta, euskaraz, berriz, 16. Neurri txikiagoan, baina joera bera antzeman dugu HGLko beste bi testuren kasuan (DDL, DKVZ). Agian, euskal HGL itzulian, fraseologikoki, jatorrizko testuak baino aberatsagoak diren testuak sortzeko joera dago. Era berean, posible da euskaraz *esku*-rekin osatutako somatismoak oso produktiboak izatea, eta horrek lortu ditugun emaitzetan eragina izatea.

Amaitzeko, orain arte egin bezala, erauzi ditugun binomioak zerrendatuko ditugu, eta HGL eta HL azpicorpusetatik erauzi dugun UF kopurua ere jasoko dugu aldamenean.

6.86. taula: Xede-binomioak

| | Binomioa | HGL | HL | Guztira |
|--|-------------------|-----|----|---------|
| | argi eta garbi | 30 | 59 | 89 |
| | zur eta lur | 42 | 17 | 59 |
| | nola edo hala | 18 | 38 | 56 |
| | dir-dir egin | 17 | 19 | 36 |
| | kosta ahala kosta | 10 | 16 | 26 |

| | | | |
|---------------------------|-----|-----|-----|
| estu eta larri | 10 | 4 | 14 |
| jira eta bira ibili | 5 | 7 | 12 |
| jaun eta jabe | 3 | 6 | 9 |
| su eta gar | 3 | 6 | 9 |
| korrika eta presaka | 6 | 2 | 8 |
| jira eta buelta | 2 | 2 | 4 |
| pozik eta alai | 1 | 1 | 2 |
| saltoka eta brinkoka | 2 | 0 | 2 |
| zalaparta eta iskanbila | 1 | 1 | 2 |
| egiaz eta benetan | 2 | 0 | 2 |
| jauzika eta itzulipurdika | 1 | 1 | 2 |
| guztiz eta erabat | 0 | 2 | 2 |
| mesedez eta faborez | 0 | 2 | 2 |
| oihuka eta garrasika | 0 | 2 | 2 |
| zuzen eta bidezko | 0 | 2 | 2 |
| Guztira | 153 | 187 | 340 |

6.4 taulan ere ikusi dugun moduan, 340 binomio-*token* eta 20 *type* desberdin erauzi ditugu guztira. Binomioen hiztegiko forma jasotzerako orduan, gehientsuenak, hamahiru, aurkitu ditugu euskal hiztegiren batean. Honako zazpi hauek izan dira inongo hiztegietan jasotzen ez direnak: *pozik eta alai*, *saltoka eta brinkoka*, *zalaparta eta iskanbila*, *egiaz eta benetan*, *jauzika eta itzulipurdika*, *guztiz eta erabat* eta *oihuka eta garrasika*; ia-sinonimo gisa sailkatu ditugunak eta agerraldi gutxien dituztenak, hain zuzen. ETC corpusean egin dugu kontsulta, zein neurritan erabiltzen diren ikusteko. *Jauzika eta itzulipurdika* izan ezik, beste guztiak agertzen dira ETC corpusean, batzuk gehiago eta beste batzuk gutxiago. Deigarria iruditu zaiguna da kasu guztietan itzultako testuetan agerraldi gehiago zenbatu ditugula jatorrizkoetan baino. Argudia liteke eredu jakin bat sortzeko presioa handiagoa dela itzulpenen kasuan, sorkuntza lanetan baino.

6.8.2 Itzulpen-azterketa: datu orokorrak

Euskarazko somatismoen itzulpen-azterketa egin dugunean (ikusi 6.6.2), lau itzulpen aukera aurkitu ditugu: $UF \Rightarrow UF$, $UF \Leftrightarrow UF$,

$UF \Rightarrow zeharkako kopia$, $UF \text{ ez} \Rightarrow zeharkako kopia$. Oraingo honetan, berriz, hiru izan dira aurkitu ditugunak: dagoeneko aipatu ditugun bi ($UF \Rightarrow UF$ eta $UF \text{ ez} \Rightarrow UF$) eta $\emptyset \Rightarrow UF$. Azken kasu horietan, xedetestuan euskarazko binomio bat aurkitu dugu, eta jatorrizko testuan ez dago ezer.

Hurrengo taulan ikus daitekeen moduan, azken hori gutxien agertzen den itzulpen aukera da, baina % 6,47 ez zaigu horren portzentaje baxua iruditzen. Gainera, HGL ZZ eta HL ZH azpicorpusetako kopuru altuek ematen dute atentzioa. Hipotesi modura esan liteke HGL ZZko testu horiek agian gertuago daudela zeharkako izatetik zuzeneko izatetik baino.

6.87. taula: Itzulpen aukeren balore absolutuak

| | HGL ZZ | HL ZZ | HGL ZH | HL ZH | Guztira |
|--------------------------------|--------|-------|--------|-------|---------|
| $UF \Rightarrow UF$ | 18 | 25 | 6 | 4 | 53 |
| $UF \text{ ez} \Rightarrow UF$ | 92 | 119 | 22 | 32 | 265 |
| $\emptyset \Rightarrow UF$ | 14 | 3 | 1 | 4 | 22 |
| Guztira | 124 | 147 | 29 | 40 | 340 |

6.88. taula: Itzulpen aukeren ehunekoetako banaketa

| | HGL ZZ | HL ZZ | HGL ZH | HL ZH | Guztira |
|--------------------------------|--------|--------|--------|--------|---------|
| $UF \Rightarrow UF$ | 14,52 | 17,01 | 20,69 | 10,00 | 15,59 |
| $UF \text{ ez} \Rightarrow UF$ | 74,19 | 80,95 | 75,86 | 80,00 | 77,94 |
| $\emptyset \Rightarrow UF$ | 11,29 | 2,04 | 3,45 | 10,00 | 6,47 |
| Guztira | 100,00 | 100,00 | 100,00 | 100,00 | 100,00 |

Touryk esandakoa gogoratzen badugu, binomioen erabilera anitza –batez ere, jatorrizko testuan hitz bakunak daudenean edo ezer ez dagoenean– itzulpen unibertsal baten adierazle izan daiteke gazteak edo ahulak diren sistemetan. Gure kasuan, bi aukera horiek ($UF \text{ ez} \Rightarrow UF$ eta $\emptyset \Rightarrow UF$) kasuen % 84,41 osatzen dute. Xede-somatismoen azterketan ere, neurri txikiagoan, baina $UF \text{ ez} \Rightarrow UF$ zen gai-

lentzen zen itzulpen aukera (% 69,19). Datu gehiago aztertu behar-ko lirateke, baina euskararako itzulpenetan badago fraseologismoak erabiltzeko joera, jatorrizko testuan estimulu fraseologikorik egon ez arren.

6.89. taula: Ehunekoetako banaketa, testu-mota kontuan hartuta

| | HGL | HL |
|---------------------------|--------|--------|
| UF \Rightarrow UF | 15,69 | 15,51 |
| UF ez \Rightarrow UF | 74,51 | 80,75 |
| $\emptyset\Rightarrow$ UF | 9,80 | 3,74 |
| Guztira | 100,00 | 100,00 |

HGL eta HLko testuak alderatzen baditugu, atentzioa ematen duena, taulan ikus daitekeen legez, $\emptyset\Rightarrow UF$ aukera da: jatorrizko testuan binomiorik ez egon arren xede-testuan binomioak gehitzeko joera handiagoa da HGLko testuetan HLkoetan baino.

Kasu honetan, zuzenean eta zeharka itzulitako testuen artean, ez dago alde handirik, portzentajeak oso antzekoak dira:

6.90. taula: Ehunekoetako banaketa, itzulpen modua kontuan hartuta

| | ZZ | ZH |
|---------------------------|--------|--------|
| UF \Rightarrow UF | 15,87 | 14,49 |
| UF ez \Rightarrow UF | 77,86 | 78,26 |
| $\emptyset\Rightarrow$ UF | 6,27 | 7,25 |
| Guztira | 100,00 | 100,00 |

6.8.3 Itzulpen aukerak banan-banan

Azpiatal honetan, hiru itzulpen aukerak $-UF\Rightarrow UF$, $UF\text{ ez}\Rightarrow UF$, $\emptyset\Rightarrow UF$ - aztertuko ditugu banan-banan, bilaketak xede-testuetatik abiatuta egin eta gero aurkitu ditugunak.

6.8.3.1 UF⇒UF

Horrelako kasuetan, xede-hizkuntzako binomio batek jatorrizko hizkuntzan estimulu fraseologikoa dauka. AleuskaPhraseo corpuseko datuetan oinarrituta, behinik behin, jatorrizko UF hori kasu gutxitan (15 aldiz) da binomioa (esate baterako, *laut und deutlich, ganz und gar, hin und her, so oder so...* dira kasu horietako batzuk). Beste 38 kasuetan, jatorrizko UF desberdinak aurkitu ditugu: enuntziatu fraseologikoak (*da wird man sich wundern!*), lokuzioak (*in einer Zwickmühle sein*), kolokazioak (*in höchster Not*)...

Somatismoekin aipatzen genuen moduan, batzuetan xede-hizkuntzan binomioa erabiltzea itzulpen aukera logikoena da. Esate baterako, 6.91 taulako adibidean. Jatorrizko testuan *um jeden Preis* UFa daukagu, eta horren euskarazko baliokideetako bat xede-testuan daukagun *kosta ahala kost*a binomioa izango litzateke⁵⁷.

6.91. taula: UF⇒UF

| | |
|--|--|
| der um jeden Preis <u>Karriere machen</u> will und seine Großmutter »fallen lassen« würde, wenn sie ihm hinderlich wäre. (ACde) | kosta ahala kost a <u>karrera egin</u> nahi duenetakoa, eta beronen ama ere «bazterreratu» egingo zukeena oztopo gertatuz gero. (ACeu) |
|--|--|

Aitzitik, beste kasu batzuetan, euskarazko binomioak behartuak iruditzen zaizkigu, batez ere, binomioak ia-sinonimoak direnean, eta, bereziki, HL ZZ azpicorpusean. Badirudi, somatismoekin bezala, hemen ere jatorrizko testuen izaera fraseologikoa gordetzeko ahalegina dagoela.

⁵⁷Jarraian, beste lokuzio bat dago alemanezko testuan, *Karriere machen*, zeinak ‘aurrera egin’ esanahia daukan, eta gaztelaniaz baliokide zuzen bat duen, *hacer carrera*, hain zuzen. Euskarazko itzulpenean, alemanezko (eta gaztelaniazko) UF horien kopia zuzena daukagu, *karrera egin*. Kasu hau, beraz, *eskua sutan jarri* edo *eskuak igurtzi*-ren oso antzekoa da (ikusi 6.5.3.4). Itzultzaileak bi itzulpen aukera erabiltzen ditu aipatutako adibidean, baina bietan dagoena jatorrizkoaren konplexutasuna gordetzeko ahalegina da.

6.92. taula: Binomio ia-sinonimoa xede-testuan

| | |
|---|---|
| "Was treiben Sie hier für Unfug ? (DAde) | –Zer zalaparta eta iskanbila da hau? (DAeu) |
|---|---|

6.92 taulako adibidean, esate baterako, *Unfug treiben* UFa da alemanezko testuan agertzen dena. ‘Txorakeriak egin’ esan nahi du, eta, xede-testuan, *zalaparta eta iskanbila* binomioa erabiltzen da. Zerk eragiten du euskaraz horren maiz erabiltzen ez den binomio horrekin itzultzea jatorrizko lokuzioa? Touryk dioen moduan (2012: 140), ahalegin bat izan daiteke “to develop indigenous linguistic capabilities”, gazteak edo ahulak diren sistemetan.

Bestalde, bai HLAN eta bai HGLan gertatzen da, jatorrizko UF bat beste UF baten bidez itzuli arren, esanahia aldatu egiten dela. Ikus dezagun deigarria iruditu zaigun HGLko kasu bat.

6.93. taula: Esanahi desberdina

| | |
|---|---|
| Eure ewigen Streitigkeiten gehen mir auf die Nerven”, seufzte sie. Max wäre am liebsten aus der Haut gefahren . Dodo war eine <u>Schreckschraube</u> . (GGde) | <u>Onetik aterata naukazue</u> zuen sesio amaigabeekin! -egin zuen hasperen. Max su eta gar zegoen. Dola <u>jasanezina</u> zen. (GGeu) |
|---|---|

6.93 taulan ikus daitekeen moduan, jatorrizko testuan *aus der Haut fahren* UFa agertzen da. Lokuzioak berak ‘haserretu’ esan nahi du, eta esaldiak “Max su eta gar” zegoela adierazi baino, esan nahi dena da Max haserretzeko, bere onetik ateratzeko zorian zegoela. Bi testuen artean dagoen desberdintasun semantikoa dela eta, eta kontuan hartuta bai makro mailan (ikusi 5.2.2) eta bai mikro mailan (ikusi 6.5.3.5) interferentzia zantzuak nabaritu ditugula GG liburuan, gaztelaniazko bertsioa kontsultatu dugu. Honela dio: “–No quiero saber nada. ¡Me **tenéis desquiciada con** vuestras interminables

peleas! -suspiró. Max **estaba que se salía de sus casillas**. Dala era una **insoportable**.” (Brezina 1996).

Jatorrizkoa eta bi itzulpenak alderatzen baditugu, euskarazkoa gehiago gerturatzen da gaztelaniazko bertsiora jatorrizko alemanezkora baino. Batez ere, euskaraz, binomioa agertzen den aurreko eta ondorengo esaldian nabaritu dugu hori. Euskaraz, “onetik aterata naukazue...-rekin” UFa agertzen da, eta horren gaztelaniazko balio-kidea oso antzekoa da: “me tenéis desquiciada con...”. Azken esaldian, “Schreckschraube” hitz elkartua daukagu alemanez, zeinak hitzez hitz ‘beldur-torloju’ esan nahi duen, eta, hedaduraz, berriz, inork maite ez duen emakumezkoa litzateke. Aukera ugari egon daitezke hitz hori itzultzeko, eta gaztelaniaz eta euskaraz hitz bera erabiltzen da: “insoportable” eta “jasanezin”. Beraz, ondorioztatu daiteke testu-interferentzia egon dela kasu honetan, eta GGeu itzulpen konpilatua izan daitekeela.

$UF \Rightarrow UF$ azpiatal honi amaiera emateko, zeharkako itzulpenei erreparatuko diegu. Ia-ia beti, alemanetik euskararako jauzia $UF \Rightarrow UF$ itzulpen aukera bidez egin denean, gaztelaniazko zubi-bertsioan ere UF bat dago. Adibide gisa, HLJ liburuko bat aztertu nahi genuke. Bertan, iruditzen zaigu zubi-bertsiotik urruntzeko ahalegina egiten dela, emaitza jatorrago baten alde xede-hizkuntzan.

6.94. taula

| | | |
|--|--|--|
| (...) murmelt etwas für die anderen Unverständliches und - löst sich vor deren Augen in Luft auf! (HLJde) | (...) mientras murmura algo incomprensible para los demás... . ¡Y se esfuma ante los asombrados ojos de sus compañeros! (HLJes) | (...) besteek ulertzen ez duten zerbait murmurikatzen duen bitartean... Eta desagertu egiten da lagunak zur eta lur utzirik! (HLJeu) |
|--|--|--|

Alemanezko testuan, Kika “norbaiten begien aurrean” (*vor deren Augen*) desagertzen da; gaztelaniazkoan ere, “begi”-rekin osatuta-

ko somatismoa erabiltzen da: *delante de los ojos de una persona*. Euskaraz, berriz, Kika desagertu egiten da, eta *zur eta lur* uzten ditu bere lagunak. Emaizta guztiz naturala da, baina ez du “begi”-rekin osatutako somatismorik erabiltzen euskaraz. Beste somatismo bat erabiltzen da, “asombrados” adjektiboaren esanahiaren eraginez, eta, horrela, testu konplexutasuna mantentzeko joera nabarmendu daiteke euskal itzulpenean.

6.8.3.2 UF \Rightarrow UF

Xede-somatismoen azterketan ikusi dugun bezala, binomioen kasuan ere $UF \Rightarrow UF$ da itzulpen aukera zabalduena, eta, testu-moten arteko aldeari dagokionez, joera bera da: HLan (% 80,75) HGLan (% 75,51) baino ohikoagoa da. Neurri txikiagoan bada ere, zeharkako itzulpenetan zuzenekoetan baino gehiago erabiltzen da itzulpen aukera hau, eta, itzulpen prozesuari erreparatzen badiogu, konturatuko gara kasu oso gutxitan aurkitu dugula zubi-bertsioan UFren bat; hau da, zeharkako itzulpenetan, gaztelaniazko testutik euskarazko testurako jauzia $UF \Rightarrow UF$ itzulpen aukera bidez egin da (% 83,33). Lehen ikusi bezala, gainera, zubi-bertsiotik aldenduz eta binomioen erabileraren bitartez, itzulpen jatorrak sortzen dira zeharkako itzulpen batzuetan:

6.95. taula: Zeharkako itzulpena

| | | |
|--|--|---|
| Und dann kommt der Knalleffekt! (HLJde) | ¡Y entonces viene el golpe de efecto! (HLJes) | Eta orduan heltzen da denak zur eta lur uzteko unea! (HLJeu) |
|--|--|---|

Jatorrizko testuan *Knalleffekt* hitz elkartua daukagu, zubi-bertsioan horren baliokide den *golpe de efecto* lexia, eta, euskarazko itzulpenean, berriz, *zur eta lur* binomioa erabiltzen da, zeina jatorrizkotik eta zubi-bertsiotik gertuago egongo litzatekeen beste edozein itzulpen aukera baino jatorragoa den.

Oro har, bestalde, kasu gehien-gehienetan, xede-testuko binomioaren ordaina jatorrizko testuetan unitate lexiko bakuna –izan aditza, adjektiboa, adberbioa– edo adberbio eta adjektiboz osatutako hitz-konbinazioa –*sehr deutlich, so verblüfft*, kasu– izan ohi da. Binomio batzuen kasuan (*zur eta lur*, esate baterako), badirudi horien bitartez xede-testuak jatorrizkoak baino adierazkorragoak direla. Aldi berean, sumatu dugu beste kasu batzuetan –alemanezko sateliteen kasuan, adibidez– xede-testuetan ez dela askotan jatorrizkoetan dagoen informazio guztia jasotzen⁵⁸.

6.96. taula: Alemanez bidea adierazten duten sateliteen itzulpena

| | | |
|---|---|---|
| 1 | Valiant blickte entgeistert zu ihm hinauf . (RSFde) | Valiantek zur eta lur begiratz zion . (RSFeu) |
| 2 | Er sah zum Fenster des Schlafzimmers hinauf , das weit offen stand, und aus dem ein blasser Lichtschein in die Nacht herausgefimmert kam. (DTSde) | Logelako leihorantz begiratu zuen ; zabal-zabalik zegoen, eta handik argitasun ahul bat irteten zen , gauean dir-dir egiten zuena . (DTSeu) |

HGLko lehenengo adibide horretan, Valiantek goian dagoen norbaiti begiratzeko dio (*hinaufblicken*) alemanez, eta, euskaraz, berriz, norbaiti begiratzeko dio. Bigarren adibidean, lehenengo esaldiko alemanezko sateliteak adierazten duen mugimendua (*hinauf-*) ere ez da euskarazko itzulpenean jasotzen (*begiratu*). Hurrengo esaldian, ordea, bai dago mugimendua jasotzeko saiakera euskarazko itzulpenean.

Binomioen itzulpenera bueltatuz, HL ZZ azpicorpusean ikusi dugun beste joera bat aipatu nahiko genuke. Badaude 14 kasu, non jatorrizko testuetan bi adjektibo (edo izen) eta “und” juntagailuaz osatutako hitz-konbinazioak dauden alemanez. Ez dira binomioak, ez dira ohiko hitz-konbinazioak, baina, euskaraz, kasu guztietan ohiko

⁵⁸Binomioen itzulpenarekin zerikusirik ez izan arren, adibide gutxi batzuk aztertzea erabaki dugu, etorkizuneko ikerketa lerro interesgarria izan daitekeelakoan.

binomioak erabiltzen dira. Beraz, adibide gutxi izan arren (14/119), esan daiteke kasu horietan xede-testuetan xede-hizkuntzako egitura konbenzionalagoen alde egiten dela.

6.97. taula: UF $ez \Rightarrow$ UF

| | | |
|---|---|---|
| 1 | Wenn man mich aber auf Ehre und Gewissen fragt, welche ich am meisten liebe, so antworte ich frei und unumwunden : (BAde) | Baina nire ohore eta kontzientziaren izenean galdetzen badidate zein den nahiago dudana, argi eta garbi diot: (BAeu) |
| 2 | “Ja, habe vielleicht ich Sie mißverstanden?” fragte der Advokat ebenso erstaunt und verlegen wie K. “Ich war vielleicht voreilig. (DPde) | –Oker ulertu ote dizut? -galdetu zuen abokatuak, K bezain zur eta lur . –Agian arinegi jardundut. (DPeu) |

Lehenengo adibidean *frei und unumwunden* hitz-konbinazioa daukagu alemanez, zeinak ‘aske eta itzulinguruka ibili gabe’ esan nahi duen. Euskaraz, horren ohikoa den *argi eta garbi* binomioa erabiltzen da. Bigarren adibidean ere, bi adjektiboz osatutako hitz-konbinazioa daukagu: *erstaunt und verlegen*. ‘Harrituta eta larri’ esan nahi du. Euskarazko itzulpenean, aski ezaguna den *zur eta lur* erabiltzen da.

UF $ez \Rightarrow$ UF itzulpen aukeraren azterketari amaiera emateko, jatorrizko eta xede-testuen artean ikusi ditugun desberdintasun semantikoari egin nahiko genieke erreferentzia. Batzuetan, bi testuen arteko aldea txikia da, hurrengo adibidean, kasu:

6.98. taula: Esanahi desberdina: ñabardura

| | |
|--|---|
| Sie äußerte gerne , daß sie darauf, wie auf sich selbst, wie überhaupt auf alles pfeife. (DVZTde) | Hori, bere burua eta, orokorrean, gauza guztiak bost axola zitzaizkiola aitortzen zuen argi eta garbi . (DVZTeu) |
|--|---|

Jatorrizko testuan esaten da zerbait esatea “gogoko zuela” (“gerne

äußern”). Euskarazko itzulpenean, berriz, “argi eta garbi” aitortzen du zerbait. Esan bezala, ñabardura txikiak dira.

6.99 taulan jaso ditugun bi adibideetan, baina, bi testuen arteko aldea, semantikari dagokionez, handiagoa da, eta ezin dugu ziur jakin beste testuren bateko interferentzia ote den, edo itzultzaileek xede-testu adierazkorragoak sortu nahi dituzten.

Lehenengo adibidean, amak, alemanez, “triste” (“traurig”) begiratzen die semearen notei, eta, euskarazko itzulpenean, berriz, ama “zur eta lur” geratzen da. Bigarrenean, alabetako bat “buru-belarri” (“eifrig”) ari da lanean sukaldean, eta, xede-testuan, “nola edo hala” ari da neskatoa sukaldean.

6.99. taula: Esanahi desberdina: beste testu baten eragina?

| | | |
|---|--|---|
| 1 | Die Mama allerdings startte traurig auf mein Englisch Befriedigend und seufzte dabei. (DAKde) | Ama, berriz, zur ta lur geratu zen ingeleseko nire nahikoarengatik eta hasperenka. (DAKeu) |
| 2 | Das Kind hantiert eifrig in der Küche. (DDLde) | Han ari da nola edo hala bere neskatoa sukaldean. (DDLeu) |

Gaztelaniazko itzulpenak kontsultatu ditugu bi kasu jakin haue-tan. Lehenengoan, badirudi testu-interferentzia egon dela, gaztela-niazko testuko ama ere zur eta lur (“se quedó clavada”) geratzen baita. Bigarrenean, berriz, ez dirudi gaztelaniazko bertsioaren inter-ferentzia egon denik, jatorrizko bertsiotik gertuago dagoen adberbio bat erabiltzen baita: “activamente”, hain zuzen. Badirudi, DDLeu liburuan forma konplexua erabiltzeak lehentasuna daukala semanti-karen gainetik.

6.8.3.3 $\emptyset \Rightarrow \text{UF}$

Somatismoen itzulpena aztertu dugunean ez dugu itzulpen auke-
ra honen adibiderik aurkitu, eta, horregatik, ezin ditugu emaitzak
alderatu. Gainera, itzulpen aukera honi dagozkion kopuruak ez dira

oso altuak, eta horrek emaitzak erlatibizatzen ditu.

Azpiatal honen hasieran aipatu bezala, 22 kasu aurkitu ditugu, eta portzentajerik altuenak HGL ZZ eta HL ZH azpicorpusetan daude. Azken horri dagokionez, adibide bat DPGMeu liburukoa da eta beste hirurak BMeu liburukoak. Epitestuetako informazioaren arabera (ikus 5.1.4), DPGMko itzultzaileak, gaztelaniazko bertsioaz gain, ingelesezkoa eta frantsesezkoa ere erabili zituen. Guk gaztelaniazkoa bakarrik kontsultatu dugu, eta gaztelaniaz ere ez da UFrik erabiltzen. Beraz, baliteke, ingelesezko edo frantsesezko bertsioen eraginez agertzea euskarazko itzulpenean binomioa, jatorrizkoan ezer ez dagoen kasu honetan. BMko adibideei dagokienez, behin erabiltzen da UFa gaztelaniazko testuan, baina, bi kasutan, ez dago ezer. Posible da BMeu liburuaren kasuan ere itzultzaileak beste itzulpen batzuk kontsultatu izana.

HGL ZZ azpicorpusaren kasuan, zazpi adibide (hau da, HGL ZZ-ko kasuen % 50) RSF liburukoak dira. Makro mailako azterketan aipatu dugu (ikus 5.1.4) itzultzaileak ingelesezko bertsioa kontsultatu duela. Adibide konkretu batzuetan, iruditzen zaigu ingelesezko bertsio horrek nolabaiteko eragina izan duela euskal itzulpenean. 6.100 taulako adibidean, esate baterako, alemanezko testuan ipotxa Will-en ondotik igarotzen da, eta, euskarazkoan, berriz, “saltoka eta brinkoka” igarotzen da hiru gazteen ondotik. Ez dugu aukerarik izan ingelesezko bertsioan kasu honetan zer gertatzen den ikusteko.

6.100. taula: $\emptyset \Rightarrow UF I$

Der Zwerg lief an Will vorbei,
ohne ihn auch nur zu bemerken.
(RSFde)

Saltoka eta brinkoka igaro zen
hiru gazteen ondotik, Will ere han
zela ohartu gabe. (RSFeu)

HGL ZZ azpicorpuseko hurrengo adibidean ere (GG), zubi-ber-
tsioaren eraginak ematen du atentzia. Izan ere, xede-testuan ja-
torrizkoan ez dauden bi esaldi (Nola edo ahala... ezkutuan... Hori
espero zuen!) gehitzen dira. Gaztelaniazko bertsioa kontsultatu du-

gu, honela dio: “Hasta el día siguiente por lo menos no podría ir al tren fantasma. **De algún modo..., en secreto... ¡Eso esperaba!** A la mañana siguiente, estando en el cuarto de baño, Max le dijo a su imagen reflejada en el espejo:” (Brezina 1996). Argi ikus daitekeen moduan, hor ere agertzen dira euskarazkoan dauden bi esaldi horiek. Beraz, testu-interferentzia nabarmena da, eta “zuzeneko itzulpen-itzulpen konpilatu-zeharkako itzulpen” lerro horretan, agian GGeu gertuago dago zeharkako izatetik, itzulpen konpilatu izatetik baino.

6.101. taula: $\emptyset \Rightarrow UF$ II

| | |
|---|--|
| Frühstens morgen würde er sich zur grünen Geisterbahn schleichen können. (GGde) | Biharamuna arte gutxienez ezingo zuen sorgin-trena ikustera joan. Nola edo hala... ezkutuan... Hori espero zuen! (GGeu) |
|---|--|

Osterantzean, badirudi $\emptyset \Rightarrow UF$ itzulpen aukeraren bidez, xede-testuan jatorrizkoan esaten dena indartu nahi dela.

6.102. taula: $\emptyset \Rightarrow UF$ III

| | |
|---------------------------|--|
| Ich war sprachlos. (HFde) | Hitzik gabe ni, zur eta lur. (HFeu) |
|---------------------------|--|

HF liburuko azken adibide horretan, esate baterako, xede-testuan agertzen den “Hitzik gabe ni” horrekin adierazi adierazten da jatorrizkoak esaten duena. Eta, hala ere, binomioa gehitzen da euskaraz, *zur eta lur*, kasu honetan.

Bukatzeko, Marcok 2009ko artikuluan aipatzen duen hipotesiaren inguruan hausnarketa egin nahiko genuke. 2.1.3 azpiatalean aipatu legez, Marcok $UFrik\ ez \Rightarrow UF$ eta $Kolokazio \Rightarrow UF$ aukerak irabazi fra-seologiko gisa ikusten ditu, eta, irabazien portzentajea galerena baino handiagoa baldin bada, normalizazioaren hipotesia edo estandarizazioaren legea beteko da, UFak xede-hizkuntzako egitura estandariza-

tuak direlako. Baina, AleuskaPhraseo corpuseko adibideak ikusi eta gero, esan al dezakegu UFak normalizazioaren adierazle direla beti? Gure ustez, UF batzuk badira xede-hizkuntzako egitura estandarizatuak, baina beste asko bereziki literatur testuetan erabiltzen diren egiturak dira, eta, horrela, hizkuntzaren erabilera jasoago baten adierazle. Gainera, batzuetan, UFen erabileraren bidez, xede-testuetan forma gordetzeko ahalegina dago, baina pragmatikoki funtzionatzen ez duten testuak sortzen dira.

Saio gisa, eta aipatutakoa frogatze aldera, EPG corpusean⁵⁹ bilatu ditugu irabazi fraseologiko izango lirakeen itzulpen tekniketari ($UF \Rightarrow UF$ eta $\emptyset \Rightarrow UF$, alegia) aurkitu ditugun xede-UFak, eta liburu eta prentsako testuetako emaitzen alderaketa egin dugu.

6.103. taula: Binomioen agerraldi kopurua liburu eta prentsetako testuetan

| UFak | Liburuetan | Prentsan |
|-------------------------|------------|------------|
| argi eta garbi | 694 | 652 |
| nola edo hala | 599 | 274 |
| zur eta lur | 190 | 59 |
| kosta ahal kostu | 162 | 72 |
| jaun eta jabe | 112 | 201 |
| dir-dir egin | 105 | 8 |
| estu eta larri | 86 | 47 |
| jira eta bira | 77 | 5 |
| jira eta buelta | 55 | 3 |
| korrika eta presaka | 44 | 21 |
| su eta gar | 23 | 4 |
| pozik eta alai | 15 | 0 |
| zuzen eta bidezko | 11 | 0 |
| mesedez eta faborez | 10 | 0 |
| oihuka eta garrasika | 8 | 1 |
| jiraka eta biraka | 4 | 1 |
| gutziz eta erabat | 4 | 2 |
| zalaparta eta iskanbila | 3 | 0 |

⁵⁹EPG corpusean egin dugu bilaketa, eta ez ETC corpusean, modu argiagoan egiten delako liburu eta prentsako testuen arteko bereizketa, eta bi azpicorpusean tamainak orekatuagoak direlako.

| | | |
|----------------------|---|---|
| saltoka eta brinkoka | 2 | 0 |
| egiaz eta benetan | 1 | 0 |

Ikus daitekeen moduan, *jaun eta jabe* binomioaren kasuan izan ezik, literatur testuetan prentsako testuetan baino gehiago erabiltzen dira zerrendan jaso ditugun binomioak. Gure ustez, horrek adierazten du UFen erabilera ez dela beti hizkuntzaren erabilera estandarizatu edo konbentzionalaren adierazle, literatur testuetan erabiltzen den diskurtso bereziago baten adierazle baizik.

7.

Ondorioak

Azken kapitulu honetan, tesian zehar ikusitakoa jaso eta ideia horien inguruan eztabaidatuko dugu ikuspegi sistemiko batetik abiatuta. Bestalde, egin dugun hori aintzat hartuz eta lanak izan ditzakeen gabeziez jabeturik, hemendik aurrera egin beharrekoak ere aipatuko ditugu.

Gure helburua hauxe izan da: UFen itzulpen-azterketa egitea, alemanetik euskarara egin diren literatur itzulpenen corpusean oinarrituta, eta, horren bitartez, baita testu alemanak euskarara nola itzuli diren aztertzea ere. Horretarako, bi maila, hizkuntzarena eta kulturarena, lotu nahi izan ditugu, mikro mailako hainbat hizkuntza fenomeno ezin baitira ulertu kultur eta gizarte testuingurua kontuan hartu gabe. Tesia Itzulpen Ikasketa Deskribatzaileen markoan kokatzen denez, marko teoriko-metodologiko horretako kontzeptuek berebiziko garrantzia dute. Hori dela eta, tesian zehar lortutako emaitzak laburbildu eta horien inguruan eztabaidatuko dugu kontzeptu horiek oinarri gisa harturik.

IIDen baitan nagusitu zen *target-orientedness* ideiarri jarraituz, xede-testuetatik eta kulturatik abiatuta egin dugu gure azterketa; hau da, ez gara hasi besterik gabe testu alemanak eta euren euskal itzulpenak erkatzen, fraseologismoekin zer gertatzen den ikusteko, baizik eta abiapuntu gisa testu alemanen euskararako itzulpenak hartu nahi izan ditugu.

Gainera, kontuan izan behar da unitate fraseologikoen itzulpenaren inguruan egin diren ikerketa asko eta asko ikuspuntu preskriptibotik egin direla. Tesian zehar aipatu legez, guk, lan honetan, Farøk aipatzen duen dogma fraseologikoa gaingitu nahi izan dugu, alde batetik, eta, bestetik, ez dugu nahi izan lanak izaera preskriptiboa izan dezan (esan bezala, ez datorrelako IIDekin bat). Hori dela eta, corpusetan oinarritutako **azterketa deskribatzaileen** lerroan kokatzen da tesi hau, COVALT ikerketa taldearen baitan egin diren lanen lerro berean, hain zuzen. Oro har, esku artean duzuen tesia egiterako orduan, ikerketa talde hori eredu izan da. Kontuan hartuta Corpasek 2000. urtean aipatzen zuela corpusean oinarritutako itzulpen-azterketak egiteko beharra, eta COVALT corpusa 2001. urtetik jada ari

direla ustiatzen itzulpenak aztertzeko, iruditzen zaigu Jaume I Unibertsitateko taldea erreferentzia garrantzitsua dela.

IDDen baitan proposatzen den **metodologia enpirikoa** gauzatu ahal izateko, Lambert eta van Gorpen kiribil formako eskeman oinarritu gara, tesiko bigarren kapituluari irakur daitekeen moduan. Horren arabera, lehenik eta behin, aurretiazko azterketa egin dugu. Izan ere, ezinbestekoa da jakitea alemanetik euskarara zer itzuli den, corpusa sortzen hasi baino lehen. Azken eguneraketaren arabera, 710 sarrerek osatzen dute Aleuska katalogoa, eta HGLko testuek osatzen duten azpikatalogoa da handiena. Sarrera bakoitzari dagokion fitxa betetzerako orduan, xede-etiketari dagokiona –hots, itzulpen-modua– da betetzen zailena, eta zalantza handiak izan ditugu.

Katalogo mailan “zuzenean” eta “zeharka” kategoriez baliatu garen arren STaren eta XTaren arteko harreman hori definitzerako orduan, analisisian aurrera egin ahala konturatu gara, alde batetik, XT batek ST bat baino gehiago izatea ez dela ezohikoa –jatorrizko konpilatuak erabiltzea, alegia–, eta, bestetik, zuzenean itzulitako testu batzuk gertuago daudela batzuetan zeharkako itzulpen izatetik zuzeneko itzulpen izatetik baino. Horregatik, [Manterolak](#) (2011) eta [Zubillagak](#) (2013) beren doktore-tesietan erabiltzen dituzten honako bi kontzeptu hauek ezinbestekoak izan dira: ustezko itzulpen zuzenak (*assumed direct translations*) eta ustezko zeharkako itzulpenak (*assumed indirect translations*); batez ere lehen kontzeptu hori da interesgarria itzulpen moduari dagozkion fenomenoak kontzeptualizatzerako orduan.

Katalogo horretatik abiatu gara, hain zuzen, AleuskaPhraseo corpusa sortzeko. HGL eta HLkoak izango direnez corpusa osatuko duten testuak, azpicorpus hori deskribatu dugu sakonago. 504 testuk osatzen dute, eta, HGL eta HLko kopuruei dagokionez, desoreka nabarmena da. Orotara, 126 jatorrizko egile eta 127 itzultzaile desberdinen lanak jasotzen dira azpikatalogoan. Denboran zehar izandako bilakaerari begiratzen badiogu, 80ko hamarkadatik aurrera egon zen gorakada iruditzen zaigu aipagarria. HGL eta HLko testuen alderaketari erreparatzen badiogu, paralelismoak daude itzultzaileei dago-

kienez. Itzultzaileak ez dira egile jakin batean espezializatzen, eta itzultzaile eta argitaletxeen artean ez ohi da loturarik egoten. Gainera, Zabaleta eta Mendiguren oso itzultzaile emankorrak dira bai HGLan bai HLan, 80ko eta 90eko hamarkadan hurrenez hurren. Gero, itzultzaile aniztasuna gailentzen da. Baina aldeak ere badaude narratibako testu-mota horien artean. Itzulpen modua aztertu dugunean ikusi dugu, esate baterako, HLan zuzenean egindako itzulpenak gailentzen direla, eta, HGLan, berriz, zeharkakoak. Bata edo bestearen prestigioarekin izan dezake horrek zerikusia. Bestalde, eta gure ikuspegia diakronikoa izan ez den arren, testu-azterketa egin dugunean konturatu gara eboluzio bat egon dela, ezberdintasun jakin batzuk nabaritzen direlako lehen hamarkadatan eta azken urteetako itzulpenen artean, eta, etorkizunera begira, ikuspuntu diakronikoa aintzat hartzea interesgarria izan daitekeela.

Behin HGL-HL azpikatalogoa ondo deskribatuta, irizpide jakin batzuk zehaztu, horietan oinarrituta testu jakin batzuk aukeratu, eta corpus digitalizatu, eleaniztun eta paraleloa sortu dugu, lau azpicorpusez osatuta dagoena (HGL ZZ, HGL ZH, HL ZZ eta HL ZH). Corpora modu horretan osatzeak aukera ematen digu emaitzak bi ikuspuntutatik kontrastatzeko, generoa eta itzulpen modua, alegia. Bestalde, badakigu azpicorpus horiek, tamainari dagokionez, ez direla orekatuak, baina nabarmendu nahi dugu, corpora osatuko duten testuak aukeratzeko orduan, hautaketa kuantitatiboa baino kualitatiboa egin dugula, eta hori dela desoreka kuantitatiboaren arrazoia. Ez hori bakarrik, emaitzak aztertzerako orduan aipatutako desoreka aintzat hartu dugu. Corpus osoaren tamainari erreparatzen badiegu (3.527.273 hitz), iruditzen zaigu gure ikerketa helburua betetzeko adierazgarria den corpora sortu dugula.

Corpusaren izaera eleaniztuna da nabarmendu nahi genukeen beste kontu bat. Gure kasuan, jatorrizko eta xede-testuak soilik jasotzen dituen corpora sortzeak ez luke zentzurik izango. Zeharkako itzulpenen kasuan, esate baterako, alemanezko jatorrizko eta euskarazko xede-testuak alderatu izan bagenu, ondorio desberdinetara iritsiko ginatekeen. Horregatik, corpora sortzerako orduan, zubi-bertsioak

jaso ditugu ustez zeharka itzulitako testuen kasuan, eta, horrela, JT-XT ikuspegi tradizionala gainditu dugu; beste hitz batzuetan esanda, biko kategorizazioa zalantzan jarri eta ikuspegia zabaldu dugu.

Hemendik aurrera, urrats bat gehiago eman nahi dugu. Esan bezala, analisisan aurrera egin ahala ikusi dugu bitarteko testuek eragina izan dutela, neurri handi edo txikiagoan, euskarazko itzulpenean. Horietako batzuk ustez zuzenean itzulitako testu gisa identifikatu genituenez katalogo mailan, ez dugu bitarteko bertsioa eskura izan mikro mailako azterketan. Zubi-bertsioak xede-testuan izan dezakeen eragina neurtzeko, interesgarria litzateke zubi-testuak corpusean integratuta izatea. Horregatik, etorkizunera begira, zubi-bertsioak sistematikoki gehitzen joango gara.

Oro har, AleuskaPhraseo corpusaren sorrera prozesuari dagokionez, esan dezakegu ez dela lan samurra izan. Alde batetik, informatikari baten laguntzari esker, corpusa lerrokatu eta ustiatzeko tresneria propioa sortu dugulako. Merkatuan dauden beste tresna batzuk erabil genitzakeen, baina, gure lehentasuna bi hizkuntza baino gehiago aldi berean lerrokatuko zituen tresna erabiltzea zen, eta ez genuen gure beharretara behar bezala egokitzen zen ezer aurkitu. Bestalde, ez da lan samurra izan, testuen digitalizaziotik hasi eta corpusean bilaketak egiterainoko prozesua luzea izan delako. Baina merezi du denbora horretan inbertitzea, tesi honetatik harago, sortu dugun azken produktuak, corpusak, beste hainbat erabilera izan ditzakeelako etorkizunean, itzulpen irakaskuntzan edo hiztegitintzan, besteak beste. Hiztegitintzari lotuta, hain zuzen, oso interesgarria izango litzateke itzultzaileei zuzendutako DE-EU/ES hiztegi fraseologikoa sortzen hastea. Beste hizkuntza-konbinazio askotan badaude dagoeneko hiztegi fraseologikoak, eta eredu edo erreferentzia gisa erabili genitzake. Alemana-errusiera hizkuntza-konbinazioan, esate baterako, 2000 UFz osatutako hiztegia (*Moderne deutsch-russische Idiomatik: Ein Korpus-Wörterbuch*) argitaratuko da aurki Dmitrij Dobrovol'skij-en zuzendaritzapean. Alemana-gaztelania hizkuntza-konbinazioan, bestalde, 2012an argitaratutako eta dagoeneko tesian zehar aipatu dugun [Schemann et al.](#) hiztegia daukagu.

Corpusa sortzeaz gain gure corpusari ahalik eta etekin handiena atera nahi izan diogunez, corpusak ustiatzeko tresnak ere aipatu ditugu. AntConc programan oinarritu gara, doakoa eta plataforma anitzekoa dena. Oso lagungarria izan da, norberak bere testuak karga ditzakeelako programan, eta aukera ugari ematen dituelako, [3.2.6.1](#) atalean aipatu dugun moduan. Guk gehien erabili duguna *Clusters/N-Grams* aukera izan da, horren bidez aukera izan dugulako corpusa modu automatikoagoan ustiatzeko. Binomioak erauzterako orduan, bi elementu nagusiz eta loturazko hitz batez osatutako N-Grama zerrendak sortu ditugu. Binomio zerrenda horiek nahiko luzeak zirenez bai alemanaren eta bai euskararen kasuan, formula estatistiko bat aplikatu dugu, ondoren lagin adierazgarri batekin lan egin ahal izateko.

Etorkizunean, TRACEaligner garatzen jarraitu nahi dugu, informatikarien laguntzarekin. Besteak beste, Manterolaren tesian glosario elebidunak sortzeko erabili zen programa (Giza++) edo AntConc gisako tresnek dituzten funtzioak TRACEalignerren txertatu, eta horiek garatzen jarraitu dezakegu. Izan ere, AntConc oso lagungarri izan arren, aldi bakoitzean hizkuntza bakarrari dagozkion testuak kargatu daitezke, eta, aurkitutako hitz edo hitz multzoen ordainak zeintzuk diren ikusteko, gure bilatzailean jo behar izan dugu. TRACEaligner garatzen jarraitzen badugu, tresna bakarrarekin hainbat eragiketa egiteko aukera izango dugu etorkizunean. Gure beharretara egokitutako tresna propioak garatzea ezinbestekoa izan da gure kasuan, eta izango da etorkizunean ere. Bestalde, alderdi “teknikoari” dagokionez, etorkizuneko beste erronketako bat corpusa lematizatzea da. Corpusa lematizatu gabe ere etekin handia atera diogu, baina iruditzen zaigu corpusaren ustiaketa modu automatikoago eta fidagarriagoan egingo dugula etorkizunean corpus lematizatuarekin.

Metodologia enpirikoaren baitan, **itzulpen-arauak** osagai garrantzitsuak dira corpuseko azterketak ematen dituen emaitzak deskribatzeko. Behin eta berriz errepikatzen diren portaerak ikusten baditugu, itzulpen-arauak definitu ahalko ditugu. Touryk hainbat arau proposatu zituen. Aurretiazko arauei dagokienez, [Zubillagak](#) zioen

egokitasunerako joera handiagoa dela zuzeneko testuetan zeharkakoetan baino. Aldi berean, zeharkako itzulpenetan testu jatorragoak sortzeko joera nabarmentzen da (beharbada, zeharkakotasun hori konpentsatzeko). Guk ere hainbat aldiz ikusi dugu joera hori, eta, gure kasuan, hauexek dira joera horren adierazleak:

- UFen erabilera: *Hand*-ekin osatutako somatismoen itzulpena aztertu dugunean (6.5.2), UF bidezko itzulpen portzentajea altuagoa zen zeharka itzultakoetan zuzenean itzultakoetan baino. UFen erabilera anitza xede-hizkuntzan hizkuntza horren erabilera jatorrarekin lotzen badugu, esan daiteke zeharka itzultzen denean, onargarritasunerako joera handiagoa dela.
- $UF \Rightarrow UF$ desberdin bidezko itzulpena gaztelaniatik euskararako itzulpenean: *eskua eman* UF zinetikoaren kasuan ikusi dugu (6.5.3.2 atalean), alde batetik, zeharkako itzulpenetan, gaztelaniazko zubi-bertsioetik aldentzeko joera dagoela, xede-testuetan gaztelaniazkoaren desberdinak diren UFak erabiliz; bestalde, euskaraz erabiltzen diren UF desberdin horien artean, lagunarteko hizkeran ohikoak diren batzuk aurkitu ditugu zeharkako itzulpenetan (*bostekoa eman*, *bostekoa luzatu*), eta iruditzen zaigu horrek ere jatortasun kutsua ematen diola xede-testuari. Binomioen kasuan ere, antzeko zerbait ikusi dugu *von Kopf bis Fuß* UFaren itzulpenean (ikusi 6.7.3.2 atala). Zeharka itzultako testuetan aurkitu dugun lau aldietan, *goitik behera* UF desberdina erabili da euskarazko testuetan. Zuzeneko itzulpenetan, berriz, agertzen den bost aldietatik hirutan *burutik oinetaraino* UFa erabiltzen da. Zeharkakoetan, badirudi, gaztelaniazkoaren antzekoa den UFa saihestu nahi dela.

Jarduerazko arauari dagokienez, makro mailan, arau matrizialak aztertu ditugu, xede-hizkuntzako materialaren “kokapenean” eta banaketan eragina dutenak. Hori egin ahal izateko, besteak beste, 5 kapituluaren paratestuak aztertu ditugu eta paraitzulpenaren analisisia egin dugu. Makro maila horretan ikusi dugu jada (ikusi 5.4 atala),

zuzenenean/zeharka dikotomia ez dela nahikoa, eta ikuspegi malguga-
go bat behar dugula. Mikro mailako azterketan lortutako emaitzek
berretsi besterik ez dute egin makro mailan ondorioztatutakoa. Ikus
ditzagun kasu batzuk:

- DTS, RSF: Bi kasu horietan, itzultzaileek esan digute zuzenean
alemanetik itzuli dutela, eta beste bertsio batzuk kontsultatu
dituztela zalantza kasuetan. Azterketan aurrera egin ahala iku-
si dugu beste bertsio batzuk eskura izateak eragina izan duela
xede-testuan. Kapitulu izenen itzulpena aztertzerakoan, esate
baterako, bitarteko bertsioak xede-bertsioan nolabaiteko eragi-
na izan duela iruditu zaigu, eta gauza bera gertatu da mikro
mailako azterketan (ikusi [6.41](#) eta [6.100](#) taulak).
- GG, DAK, DGM: Hauek gure corpuseko Mendigurenen itzul-
penak dira, HGL ZZ azpicorpusekoak. Paraitzulpenaren azter-
ketan, izan izenburuen itzulpena edo kapitulu izenen itzulpena
aztertu dugunean, ikusi dugu xede-testua gehiago gerturatzeko
zela kasu batzuetan gaztelaniazko bertsiora alemanezkora bai-
no. Ustez zuzenean itzulitako testuak direnez, ez ditugu beti
zubi-bertsioak eskura izan. [6.93](#) eta [6.101](#) tauletan, esate ba-
terako, gaztelaniazko testuaren interferentzia zantzuak aurkitu
ditugu GG liburuan. DAK liburuen kasuan ere, [6.99](#) taulako
adibidean gaztelaniazko bertsioaren eragina suma liteke.
- DDL: Paraitzulpenaren azterketan jada atentzioa eman digu
ustez zuzenean itzuli den testu honek. Jatorrizkotik aldentze-
ko zantzuak antzeman ditugunez, gaztelaniazko itzulpena ere
izan dugu eskura. Bai izenburu eta kapitulu izenen itzulpen-
azterketa egiterakoan, bai somatismo eta binomioen itzulpena
aztertu dugunean, datu kontraesankorrak aurkitu ditugu. Adi-
bidez, [6.35](#) eta [6.25](#) tauletan gaztelaniazko testuaren eragina
nahiko nabarmena da, baina, [6.18](#) eta [6.40](#) tauletan, berriz, ez.

Aipatu ditugun kasuetan, beraz, hainbat interferentzia-mota egon
daitezke: kognitiboa, testuala edo bien arteko nahasketa. Testu in-

terferentzien kasuan, abiapuntua jatorrizko testu bat baino gehiago denez, itzultzaileak jatorrizko konpilatua erabiltzen duela esango genuke.

Orain arte makro mailan lortutako emaitzak jaso ditugu batez ere, baina, aldi berean, mikro mailako emaitza batzuk ere aurreratu ditugu. Orain, berariaz helduko diogu mikro maila horri. Horrela, testuingurutik testurainoko bide osoa egingo dugu. Egia da mikro mailako azterketari eskainitakoa dela kapitulurik mardulena, baina, bertan, IIDen planteamendu teorikoa bere osotasunean aplikatu nahi izan dugu, eta, hori nola egin dugun zehatz-mehatz azaltzeko, beste kapituluetan baino gehiago luzatu gara.

Itzulpen azterketari erreparatzen badiogu, somatismo eta binomioak izan ditugu aztergai. Azpimarratu nahi genuke bi UF-mota desberdin aukeratu ditugula, horrek aukera eman digulako bi azterketetatik lortutako emaitzak alderatzeko. Hala ere, jakinaren gainean gaude etorkizunean UF-mota desberdin gehiago aztertzeak orain arte lortutako emaitzak osatzeko balioko digula. Ez hori bakarrik: beste hizkuntza-konbinazio batzuetako UFen itzulpena aztertzea ere oso aberasgarria izango litzateke (ingelese-euskara, adibidez), edo/eta beste testu-mota batzuetan (ikus-entzunezkoetan) azterketak egitea.

Bestalde, gure kasuan, itzulpen-azterketa egiterako orduan, jatorrizko testuetatik abiatutako azterketak egin ditugu bai somatismo bai binomioen kasuan. Izan ere, hori da Itzulpen Ikasketetan oro har egin ohi dena. Baina, IIDen baitan xede-testuak duen garrantzia ere jaso nahi izan dugu, eta, horretarako –ohiko $JT \Rightarrow XT$ ikuspuntua osatzeko, alegia–, xede-testutik abiatutako azterketak egin ditugu somatismo eta binomioen kasuan. Ikusi dugun moduan, eta aurrerago jasoko dugun moduan, ikuspuntu horretatik lortutako emaitzek ikuspegia osatu dute.

Itzulpenen azterketarako eskema osatzerako orduan, Marcoren itzulpen tekniken proposamenean oinarritu gara. Oinarria [Marcoren](#) itzulpen teknikak izan arren, azterketan aurrera egin ahala, gure beharretara egokitu dugu zerrenda. Desberdintasun nagusia kopia zuzen eta zeharkako kopien arteko bereizketa da. Gure kasuan, ustez

zuzenean itzulitako testuetan ere, alemana ez den beste hizkuntza baten interferentzia kasuak ikusi ditugulako, eta, kasu horiek landu ahal izateko, “zeharkako kopia” kategoria sortu dugu.

Itzulpen azterketatik lortutako emaitzez gain, euskal UFen inguruko hainbat ezaugarri deskribatzeko balio izango digu mikro mailako azterketak. Esate baterako, ikusi dugu polilexikalitatea ez dela ezinbesteko ezaugarria euskararen kasuan. Gure corpuseko datuetan oinarrituta esan dezakegu ez direla gutxi euskaraz, hizkuntzaren beraren egituragatik, hitz bakarrez osatuta dauden UFak, hala nola: *eskura, lanpeturik, eskupetik, ezkutuka, isilpean, eskura, behingo(a)z...* Eta, alemanaren kasuan ere, hitz (elkartu) bakarra osatzen duten honako hitz-konbinazio hauek UFTzat jo ditugu: *händeringend, händchenhaltend, händereibend, Händchenhalten* eta *Händedruck*. Grafikoki hitz bakarra osatu arren, horien atzean dauden hitz-konbinazioak honako UF hauek direlako: *die Hände ringen, Händchen halten* eta *sich die Hände reiben* eta *jmdm die Hand drücken*.

Horretaz gain, esan dugu UFak egonkorrak direla, baina, ez dugu ahaztu behar ez direla hasieran pentsatzen zen bezain zurrinak. Gure kasuan, hiztegian agertzen diren UFak eta testuetan erabiltzen direnak alderatu ditugu UFen aldakortasun hori neurtzeko. Guztira 864 UF izan dira aztertu ditugun euskal UFak, eta, horien artean, 27 kasutan testuan agertzen den UFa ez dator hiztegiko UFaren formarekin bat. Gainera, somatismoen kasuan (18 kasu) binomioen kasuan (9) baino ohikoagoak dira aldaketak, eta, kontuan hartzen badugu HGLko testuek osatzen duten azpicorpua HLkoek osatzen dutena baino txikiagoa dela, HGLan (14) HLAN baino (13) ohikoagoak dira UF-aldaerak. Hala ere, oro har esan daiteke, euskarara egindako itzulpenetan gutxienez, UFak hiztegietan agertzen diren moduan erabiltzeko joera gailentzen dela. Bestalde, ez dugu ahaztu behar fraseologismoen euskal hiztegia izango bagenu, lortutako emaitza agian desberdina izango litzatekeela.

Ikuspuntu kontrastibotik, [2.2.1.1](#) atalean aipatu legez, [Aierbek](#) (2008) gaztelaniatik euskarara itzulitako UFen aldakortasun maila

aztertu zuen administrazio testuetan, eta, zentzu horretan, honako hau ondorioztatu zuen: “we typically find several options in the target language for just one administrative expression which has acquired both syntactic and semantic stability in the source language” (2008: 27). Guk ez dugu berariaz aztertu jatorrizko UF bakoitza zenbat modutan itzuli den euskarara, baina esango nuke, besteak beste, UF-motak eragin handia duela UFen aldakortasun horretan. Batzuetan, itzultzaile desberdinek UF berbera modu berean itzuli dutela ikusi dugu (hori da, esate baterako, *sich die Hände reiben* eta *die Hand ins Feuer legen*-en kasua), baina, beste batzuetan (esate baterako, *die Hände ringen*), alemanezko UF bakarra oso desberdin itzuli da euskarara.

Ezaugarri semantikoei dagokienez, aldi berean bi irakurketa izan ditzaketen (eta gure corpusean aurkitu ditugun) UF zinetiko eta sasi-zinetikoen euskararako itzulpenak berezitasunak dituela iruditzen zaigu. Alemanezko *sich die Hände reiben*, *die Hand ins Feuer legen* eta *die Hände über dem Kopf zusammenschlagen* UFetaz ari gara. Kasu horietan, gaztelaniaz UF oso antzekoak daude sistema-mailan, hurrenez hurren: *frotarse las manos*, *poner la mano en el fuego* eta *llevarse las manos a la cabeza*. Euskarara egin diren itzulpenetan, kasu guztietan, antzeko UFen alde egin da, edo, beste modu batera esanda, gaztelaniazko eta alemanezko moldeari jarraitu zaio (*eskuak igurtzi*, *eskua sutan jarri* eta *eskuak burura eramán*), euskal hiztegi-tan jasotzen diren baliokideak beste UF desberdin batzuk diren arren. Badirudi, kasu horietan, prestigiozko bi hizkuntzatan antzeko UFak egoteak eragiten duela euskaraz ere antzeko hitz-konbinazioak erabiltzea. Gainera, produktu mailan emaitza berdina izan da ustez zuzenean eta zeharka itzulitako testuetan.

Hemendik aurrerakoan, testu-azterketari helduko diogu. Guztira, 1.282 UF izan dira aztertu ditugunak, eta, horien artean, 172 UF desberdin daude. Azpicorpusetan aurkitu dugun UF kopuruari dagokionez, oro har HLko testuetan UF gehiago aurkitu ditugu. Badakigu HLko azpicorpusa HGLkoa baino handiagoa dela tamainan, baina, azpicorpusen tamaina kontuan hartuta ere, HLko testuetan

UF gehiago aurkitu ditugu. Tesian zehar esan bezala, HLko testuetan erabiltzen den hizkuntza konplexuagoarekin izan dezake harremana emaitza horrek. Gainera, testu bakoitzean aurkitu dugun UF kopurua aztertzerako orduan ere, hamar baino binomio gehiago dituzten testuen artean gehientsuenak HLkoak dira. HGLko salbuespenak BUS, TH eta JV dira. Somatismoen kasuan, testu bakoitzeko dentsitate fraseologikoa kalkulatzeko, *Hand* hitzaren agerraldi kopurua eta erauzitako UF kopurua hartu ditugu kontuan. Azterketa jatorrizko testuetatik abiatuta egin dugunean ondorioztatu dugu Kästnerren testuetan somatismo trinkotasuna altua dela, eta, euskarari dagokionez, Mendiguren eta Zabaletaren itzulpenetan, aberastasun fraseologikoa gorde edo areagotu egiten dela.

Itzulpen azterketan ikusitakoan oinarrituta, laburbilduz honako hau esan dezakegu gure corpuseko somatismoen itzulpenaren inguruan:

- Bilaketak alemanezko jatorrizko testuetatik abiatuta egin ditugunean, itzulpen aukera ohikoena $UF \Rightarrow UF \text{ desberdina}$ da, baina, oro har, UF bidezko itzulpenen portzentajea (% 61,26) altua da. Ikuspuntu deskribatzailetik, datu horrek erakusten du badagoela ahalegin bat xede-testuetan jatorrizko testuen izaera fraseologikoa gordetzeko. UF horiek batzuetan onargarritasunerako bidea egiten dute, baina, beste hainbat kasutan, erdi bidean geratzen dira, UFaren bidez egitura zurrinak sortzen direlako.

UF desberdin bidez itzuli diren horien baitan, *eskua eman* erako somatismoei ataltxo bat eskaini diegu, maiz erabiltzen direlako, eta emaitza interesgarriak lortu ditugu. Izan ere, ikusi dugu zeharkako itzulpenetan zubi-bertsiotik aldentzeko eta hitz-konbinazio jatorra(go)ak sortzeko joera dagoela. Era berean, lehen begiratuan alderantzizkoa dirudien joera ere aurkitu dugu; gaztelaniatik euskarara egindako itzulpenetan, bost kasutan kopia bidez itzultitako UFak aurkitu baititugu euskaraz. Ondorioz, onargarritasunerako joera eta testu jatorrak sortze-

koa ez da horren nabarmena kasu horietan. Esan bezala, bost kasu horiek 80ko eta 90. hamarkada hasierako testuetan aurkitu ditugu, eta argudia liteke denbora pasatu ahala itzultzaileen jarrera ere aldatzen joan dela.

Metodologia (enpirikoari) lotuta gaineratu nahiko genuke azterketa, corpusean beharrean, sistema mailako ezaugarrietan oinarritu izan balitz, ez genituzkeela seguruenik *eskua eman* erako UFak aztertuko, idiomatikotasun maila baxukoak direlako. Baina, itzulpen-azterketak egiterako orduan, oso idiomatikokoak diren UFak bezain interesgarriak izan daitezke idiomatikotasun maila baxukoak. Beraz, interesgarria iruditzen zaigu azpimarratzea corpusekin lan egitearen abantailetakoa bat, gure kasuan, ezaugarri desberdinak dituzten UFekin lan egiteko aukera izan dela. Egunen batean euskal fraseologismoen azterketa egingo balitz, interesgarria izango litzateke eskuragarri dauden euskal corpus handi horiek oinarri gisa hartzea.

- UF motei lotuta, ikusi dugu UF zinetiko batzuk, *die Hände ringen* kasu, interesgarriak izan daitezkeela. Kasu konkretu horretan, esate baterako, UF desberdin bidezko itzulpena aurkitu dugu (*eskuak astindu*), ezohiko hitz-konbinazio bat ere erabili da (*eskuak atzaparkatu*), eta, gaztelaniaren eraginez (*retorcerse las manos*), zeharkako kopia bat ere aurkitu dugu (*eskuak bihurritu*). Alemanez eta euskaraz baliabide linguistiko desberdinak erabiltzen dira gauza bera adierazteko: alemanez, aditzak informazio asko gordetzen du, eta, euskaraz, berriz, beste baliabide batzuk beharko genituzke, alemanez aditzean kontzentratuta dagoen ideia hori jasotzeko; beste modu batean esanda: aditz zehatzen urritasunak bultzatzen gaitu eduki semantikoa beste baliabide batzuekin osatzera. Nolanahi den, iruditzen zaigu merezi duela UF-mota hauek sakonago aztertzea, bai ikuspuntu kontrastibotik bai itzulpengintzaren ikuspuntutik.
- Zeharkako kopia horiek direla eta, ustez zuzenean itzulitakoe-tan zaila da zehazten ea interferentzia testual, instrumental edo

kognitiboa egon den. Zeharka itzuli diren testuetan, berriz, ohikoena kopia testualak aurkitzea da, non interferentzia zubi-bertsioak eragiten duen. Baina kasu interesgarri bat aurkitu dugu ustez zeharka itzultitako testu batean, BMeu liburuan (ikus 6.43 taula). Adibide horretan ikusitakoaren arabera ondorioztatu dugu agian BMeu ez dela hasieran pentsatu bezala zeharka itzuli, eta interferentzia kognitibo kasu baten aurrean gaudela. Edo agian itzultzaileak beste testuren bat kontsultatu du.

Corpuseko datuetan soilik oinarrituta, zaila da zehazten itzulpen prozesuan zer gertatu den. Kontu horri aurrerago ere helduko diogu, interferentziaren legeari erreferentzia egiten diogunean, garrantzitsua baita.

- Corpuseko datuetan oinarrituta aurkitu dugun beste kontu bat, hori ez izan arren tesi honen helburua, itzultzaile jakin batzuen estiloari edo itzultzeko moduari lotuta dago. Atentzioa eman digute, esate baterako, Zabaletaren itzulpenek, beste kasuetan baino gehiago erabiltzen dituelako euskaraz horren ohikoak ez diren hitz-konbinazioak: *badu buru eta belarririk, eskuak atzaparkatu, eskuak gerrian lotu, eskua eskutan...* Badirudi jatorrizkoan UFa dagoenean xede-testuan ere UFa erabiltzen ahalgintzen dela maiz. Estiloaren kontuak atentzioa eman digu bai somatismoak bai binomioak aztertu ditugunean.
- Bilaketak xede-testuetatik abiatuta egin ditugunean, $UF\ ez \Rightarrow UF$ kasu dezente aurkitu ditugu. Batzuetan, aukera logikoen dirudi euskaraz *esku*-rekin osatutako somatismoa erabiltzea, oso produktiboak baitira. Baina, beste batzuetan, egia da xede-testuetako UF horien bitartez testu adierazkorrago eta zehatzagoak sortzen direla.

Esku-rekin osatutako euskal somatismoak oso produktiboak direla testu-azterketa egin ondoren ikusi ahal izan dugu. Izan ere, euskal fraseologismoen azterketa sakon baten faltan, azterke-

ta egin aurretik ez genekien horren produktiboa izango zenik. Ikuspuntu kontrastiboa osatze aldera, euskal somatismoen azterketa sistematikoa egin beharko litzateke. Hori egiteko, esan bezala, gaur egun posible izango litzateke euskal corpusak usiatzea.

Binomioen kasuan, berriz, honela laburbildu dezakegu itzulpen-azterketan ikusitakoa:

- UF bidezko itzulpen portzentajea somatismoetan baino baxuagoa dela ikusi dugu, baina, hala ere, altua da (% 50,64).
- Somatismoen kasuan zeharkako testuen inguruan aipatu duguna, binomioekin ere ikusi ahal izan dugu: zubi-bertsiotik aldentzeko joera dagoela, alegia. HLJko adibide batzuk aipatu ditugu (6.94 edo 6.95) edo *von Kopf bis Fuß*-en zeharkako eta zuzeneko itzulpenaren inguruan ere jardun gara. Kontuan hartu, gainera, testu hau HGL ZH azpicorpuseko argitalpen berriena dela, eta goian aipatutako hipotesia konfirmatzen duela HLJen zubi-bertsiotik aldentu eta testu jatorrak sortzeko joera ikusi izanak.
- Euskarara eta gaztelaniara egin diren itzulpenak alderatzen ere saiatu gara (ez izan arren hori tesi honen xedea), eta joera bat izan litekeena aipatu dugu: euskararako itzulpenetan kopia zuzen gehiago onartzen direla gaztelaniara egindako itzulpenetan baino. Hipotesi modura esan liteke xede-hizkuntzaren egoera eta prestigioarekin daukala horrek zerikusia.
- Azterketa xede-testuetatik abiatuta egin dugunean, hemen ere, batzuetan, UFa erabiltzea aukera logikoena iruditu zaigu. Baina, besteetan, Touryk dioen moduan, euskararen beraren baliabide linguistikoak garatzeko ahalegin gisa uler liteke. Kasu batzuetan, xede-testuetako binomioen erabilera behartua iruditzen zaigulako, eta inpresioa daukagu binomio horien erabilerean bidez konplexutasun jakin bat gorde nahi dela xede-testuetan (adibidez, 6.92). Beraz, xede-sistema sistema ahula denean,

badago $UFrik \Leftrightarrow UF$ eta $\emptyset \Rightarrow UF$ itzulpen aukerak agertzeko joera; Touryk dioen moduan, ahultasun hori konpentsatzeko ahalegin gisa ulertu daiteke (Toury 2012: 140).

- Bai ustez zuzenean (GG, DAK, DDL) bai ustez zeharka (BM) itzulitako testu batzuen kasuan, beste testu batzuen interferentzia zantzuak izan litezkeenak ikusi ditugu, somatismoekin ikusi legez. Horren ondorioz, itzulpen moduari lotuta, ikusi dugu ezinezkoa dela zuzeneko eta zeharkakoen arteko muga zorrotz bat zehaztea.
- UF desberdin bidezko itzulpenetan atentzioa eman digu UFak erabili arren ez direla beti forma estandarrenak aukeratzen. Gainera, horrelako kasu gehiago ikusi dugu HLko itzulpenetan HGLkoetan baino. *Von Zeit zu Zeit* binomioaren itzulpenean joera hori bera antzeman dugu: itzulpen aukera ugari aurkitu ditugu, baina corpuseko agerpen-maiztasunen arabera gutxien erabiltzen direnak HLko itzulpenetan (*alditik aldira* edo *noizetik noizera*) bakarrik aurkitu ditugu.

Tesian zehar aipatu dugu, Marcon oinarrituta, erabilera fraseologikoa estandarizazioaren adierazle izan daitekeela. Corpuseko datuetan oinarrituta, hala ere, esango nuke kontuz ibili beharra dagoela baieztapen horrekin. Izan ere, UFak erabili arren gerta daiteke maiz erabiltzen ez diren UFak izatea (*egiaz eta benaz*, kasu) edo erabiltzen diren testuinguru horretan ongi ez funtzionatzea.

Itzulpen-arauez gain, Touryk bi **itzulpen-lege** ere proposatu zituen, probabilitate izaera daukatenak, eta horri helduko diogu azterketari amaiera emateko. Alderdi hau izan da Touryri gehien kritikatu zaiona, itzulpen-legeak eta lege horien enpirikotasuna, hain zuzen. Baina ez dugu ahaztu behar lege hauek, Touryk esan bezala, izaera heuristikoa daukatela, eta horien baitan egiten diren adierazpenak aldagai jakin batzuen arabekoak direla. Guk ere tresna heuristikoa

gisa ikusten ditugu, errealitatea deskribatzeko balio duten kontzeptu gisa, alegia.

Xede-hizkuntzako aukeren artean ohikoagoen alde egiten denean, estandarizazioaren legea (*law of growing standardisation*) beteko da, eta, STko fenomenoak XTra pasatzeko joera dagoenean, interferentziaz (*law of interference*) hitz egingo dugu, interferentzia positiboaz nahiz negatiboaz (XTko ohituren aurka egiten denean).

Estandarizazioaren legerari dagokionez, ikusi dugu UFen erabilera ez datorrela beti bat hizkuntzaren erabilera konbentzional edo ohikoarekin, eta, beraz, UFen erabilera ez dela beti estandarizazioaren adierazle. Gure ustez, jatorrizko testuetan UFrik ez egonagatik (edo ezer ez egonagatik) xede-testuetan UFak erabiltzen direnean, itzultzaileek ahalegin berezi bat egiten dute diskurtso literario jakin bat sortzeko. Binomioen kasuan 6.103 taulan ikusi ahal izan dugu nola gure corpusean erabiltzen diren binomio jakin batzuk ohikoagoak diren literatur testuetan, prentsako testuetan baino. Bestalde, hizkuntza bera garatzeko ahalegin gisa ere uler daiteke.

Edozein modutan, UFak erabiltzea positiboa da itzultzaileen begietan, eta batzuetan ahalegin berezi bat egiten da horiek testuetan txertatzeko, lehen tasun semantikoa dela-eta xede-hizkuntzan funtzionatzen ez duten testuak sortu arren (ikusi 6.17 taula) edo inkoherenteak diren emaitzak lortu arren (ikusi 6.20 taula) edo forma behartuak sortu arren (ikusi 6.72 taula).

Gu honaino iritsi gara, baina badakigu estandarizazioaren legea are sakonago aztertu dezakegula, errealitatea datu gordinek adierazten dutena baino konplexuagoa delako. Horretarako, guk proposatutako itzulpen aukeretan oinarritu beharrean, beste parametro batzuk erabili beharko genituzke sorburu- eta xede-testuetako UFen kasuan –ohiko / ezohiko hitz-konbinazioak, esate baterako–, eta, zailtasunak zailtasun, horiek sistematikoki aplikatu. Itzulpenek, jatorrizko testuen aldean, ezohikotasunaren adierazgarri diren ezaugarri gutxiago badituzte, orduan beteko da estandarizazioaren legea (Kenny 2001: 66). Hitz-konbinazio bat ohiko edo ezohiko gisa identifikatzeko, hiztegiak baino beharrezkoagoak dira erreferentziazko corpusak. Horre-

tarako, euskararen kasuan, oso baliagarriak izan dira sarean dauden hainbat corpus: XX. mendeko euskararen corpus estatistikoa, EPG, ETC... Baina, etorkizunera begira, interesgarri izango litzateke – ETCren kasuan, esate baterako– ikertzaile bakoitzak bere interesen arabera azpicorpusak definitzeko aukera izatea. Izan ere, ETC gisako corpusak irizpide jakin batzuetan oinarrituta diseinatu dira, corpusen egileek aukeratutako testuak jasotzen dituzte, testu bakoitzari etiketa jakin bat egokitzen zaio (jatorrizko, itzulpen, neutro...) eta emaitzak etiketa horien arabekoak dira...

Interferentziaren legea aztertzeko, bestalde, zuzeneko eta zeharkako kopien emaitzak analizatu behar ditugu gure kasuan. Zuzeneko kopien kasuan, 6.4 azpiatalean aipatu legez, interferentzia jatorrizko testuak eragindakoa da; beraz, interferentzia-mota testuala da. Alemanezko somatismo eta binomioen euskararako itzulpenak aztertu ditugunean, beste ikerketa lan batzuekin alderatuta (ikusi Marco 2013), portzentaje nahiko altuak lortu ditugu (% 9,80 somatismoen kasuan, % 10,83 binomioen kasuan). Beraz, ondorioztatu daiteke alemana bezalako prestigiozko hizkuntza batetik euskara bezalako hizkuntza gutxitu batera egiten diren itzulpenetan, testu-interferentzia onartzen dela (beste hizkuntza-konbinazio batzuetan baino gehiago, behinik behin), eta HGLko testuetan HLkoetan baino gehiago (bai somatismo bai binomioen kasuan). Ondorioztatu daiteke sorburu-hizkuntzaren estatusak eta xede-hizkuntzaren egoera soziolinguistikoak interferentziaren aldagai gisa funtziona dezaketela.

Bestalde, makineria kognitiboa da interferentziaren legearen kasuan Touryk aipatzen duen beste aldagaietako bat, zeinak era berean lotura estua duen hizkuntza kokatuta dagoen ingurumen soziolinguistikoarekin. Alemanetik euskarara itzultzen duten itzultzaileen kasuan, gaztelania ere presente dago. Gure kasuan, zeharkako kopietan agerian geratzen da egoera horren eta makineria kognitiboaren eragina itzulpen prozesuan. Izan ere, zeharkako kopiek adierazten dute ustez alemanetik zuzenean egin diren itzulpenetan, alemana ez den beste testu/hizkuntza baten interferentzia egon dela xede-testuan. Interferentzia-mota hori testuala izan daiteke, eta itzulpen konpila-

tuaz ariko ginatete; itzultzaileak, alemanetik zuzenean itzuli arren, zubi-bertsioak kontsultatzeko aukera daukalako. Instrumentala ere izan daiteke; alemanetik euskarara itzultzen duen itzultzaileak alemanetik erdaretarako hiztegiak kontsultatuko dituelako lehenengo, eta, gero, zubi-hizkuntza horietatik euskararako hiztegietan egingo du kontsulta. Edo interferentzia kognitiboa izan daiteke; izan ere, gaztelania eta/edo frantsesa itzultzailearen buruan daude, oso presente gainera, euskarak bizi duen egoera diglosikoa medio, gaztelania eta frantsesa direlako hizkuntza dominanteak. “Lege” proposamen gisa esan liteke, beraz, A hizkuntza batetik B hizkuntza gutxitu batera itzultzerako orduan, B hizkuntza egoera diglosikoan baldin badago eta C hizkuntza nagusi batekin elkarrekin bizi bada, orduan C hizkuntzaren interferentzia egon daitekeela B hizkuntzan; aldagaien arabera, interferentzia hori hainbat motatakoa izan daiteke eta hainbat mailatan gerta daiteke.

Corpuseko datuetan oinarrituta, beraz, esan dugu euskararen egoera diglosikoak itzulpen jarduerari eragiten diola. Interesgarria izango litzateke eragin hori nola gauzatzen den aztertzea; hau da, faktoreak zeintzuk diren analizatzea. Esate baterako, atzerriko hizkuntzak hizkuntza dominantea (eta ez euskara) abiapuntu gisa hartuz ikasi izanak zer-nolako eragina dauka gure buruan hizkuntzak barneratzeko moduarekin? Izan ere, adin jakin batetik aurrera (6 edo 7 urtetik aurrera) hizkuntzak ikasten direnean, hizkuntzen arteko alderaketa atzerriko hizkuntza ikasteko mekanismo bihurtzen da. Ondorioz, erreferentzia gisa hartzen den hizkuntza eta atzerriko hizkuntzaren arteko lotura oso estua izango da. Interesgarria izango litzateke aztertzea, beraz, hizkuntzen jabekuntza, buruko hizkuntzen-mapa eta itzulpen jardueraren arteko harremana nolakoa den, harremanik baldin badago.

Corpusean oinarritutako azterketa denez hau, produktuan oinarritu gara, baina, hori egin dugunean konturatu gara prozesua aztertzea ere oso interesgarria dela. Esate baterako, gurean hainbat interferentzia-mota daudela ikusi dugu. Baina jakitun gara itzulpen prozesua sakon aztertu nahi badugu, beste datu batzuk aztertzea beha-

rrezkoa dela, corpuseko datuen osagarri izango direnak. Halversonek honako hau dio: “Within Cognitive Linguistics, a recent development among corpus linguists is emphasis on combining corpus-based and experimental methods” (Halverson 2013: 55). Zentzu horretan, Alves et al. (2010) lana aipatzen du “in which keystroke logging and eye-tracking data are brought together with corpus annotation and alignment data in an investigation of translational units” (Halverson 2013: 58). Era berean, interesgarria izango litzateke ikuspuntu neurofisiologikotik itzultzailearen jarduna aztertzea. Hauek dira, besteak beste, Tymoczko 2005ean proposatutako galderak: “How do the brains of bilinguals differ from those of monolinguals? Where and how are multiple languages stored in the brain? To what extent do translators store different languages in distinct parts of the brain and to what extent are diverse languages stored in an interpenetrating way? [...]” (2005: 1093).

Touryk ere ikuspuntu deskribatzailea kognitiboarekin osatzea aberasgarria izango litzatekeela aipatzen du (2012: 67). Gure egoerara ekarrita, hiru hizkuntzen arteko harremanak itzulpen prozesuari nola eragiten dion aztertzea oso interesgarria izan daiteke, eta, horretarako, hizkuntzaren jabekuntzan erabiltzen dituzten kontzeptu batzuk –hala nola, *cross-linguistic influence* terminoa– baliagarriak izan daitezkeela iruditzen zaigu. Ez dugu aukera izan itzulpenak ikuspuntu horretatik aztertzeko, baina, beste ikertzaile batzuekin elkarlanean, etorkizunean egitea gustatuko litzaigukeen zerbait da; hau da, oinarri teorikoa paradigma berria dela aintzat hartuz, datuak uztartzea gustatuko litzaiguke, eta ez bakarrik corpuseko datuak aztertzea.

Etorkizuneko lanak gorabehera, bukatzeko nabarmendu nahi genukeena da gure ikerketa-lan honen bitartez, corpusean oinarritutako euskal itzulpen ikasketetan bidea egiten ari garela.

Bibliografia

- Aierbe, A. 2008. La traducción a la lengua vasca de las unidades fraseológicas especializadas del lenguaje administrativo. In González, M. I. (argitaratzailea), *A Multilingual Focus on Contrastive Phraseology and Techniques for Translation*. Hamburg: Kovač. 27–44. [32](#), [81](#), [241](#), [368](#)
- Alberdi, A. 2010a. Eima eta ikasmaterialen kalitatea. In Alberdi, X. eta Salaburu, P. (argitaratzaileak), *Euskararen garapena esparru akademikoetan*. UPV/EHU: Euskal Herriko Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua. [3](#)
- Alberdi, X. 2010b. A typology of calques. The calquing mechanism in contemporary Basque. *ELUA* 24: 13–35. [81](#)
- Altzibar, X. 2004. Kolokazioak euskaraz. Zer axola duten kazetaritzan. *Euskarazko kazetaritzaren I. kongresua. Kazetaritza euskaraz: oraina eta geroa*. [37](#), [62](#), [63](#)
- Altzibar, X., Bilbao, X. eta Garai, K. 2011a. Collocations in Basque: a test for classification. [37](#), [62](#)
- Altzibar, X., García, J. eta Alberdi, X. 2011b. Calcos fraseológicos en el euskera de los medios de comunicación. In Luque, L., Pamies, A. eta Pazos, J. M. (argitaratzaileak), *Multi-Lingual Phraseography: Second Language Learning and Translation Applications*. Baltmannsweiler: Schneider Verlag. 215–224. [32](#)

- Alves, F., Pagano, A., Neumann, S., Steiner, E. eta Hansen-Schirra, S. 2010. Translation units and grammatical shifts. In Shreve, G. M. eta Angelone, E. (argitaratzaileak), *Translation and cognition*. Amsterdam: Benjamins. 378
- Anthony, L. 2014. Antconc (version 3.4.3) [computer software]. Interneteko helbidea: <http://www.laurenceanthony.net/>. Tokyo: Waseda University. 119
- Areta, N., Gurrutxaga, A. eta Leturia, I. 2008. Begiratu bat corpus-baliabidei. *BAT Soziolinguistika aldizkaria* 62. 96, 97, 99, 102, 103
- Arold, M. 1996. *Einfach nur Liebe*. Bindlach: Loewe Verlag. 184
- 2004. *Maitasuna besterik ez*. Donostia: Elkar. Itz. Zabaleta, P. 184
- Azkarate, M. 1987. Hitz konposatuak euskaraz. Interneteko helbidea: http://www.euskara.euskadi.net/appcont/tesisDoctoral/PDFak/Miren_Azkarate_TESI.pdf. 222
- Barambones, J. 2009. *La traducción audiovisual en ETB-1: Estudio descriptivo de la programación infantil y juvenil*. Doktore-tesia, UPV/EHU. Interneteko helbidea: http://www.argitalpenak.ehu.es/p291-content/eu/contenidos/informacion/se_indice_tescspdf/eu_tescspdf/adjuntos/TESIS_JOSU_BARAMBONES.pdf. 2, 7, 85
- Böll, H. 1963. *Ansichten eines Clowns*. Köln; Berlin: Kiepenheuer & Witsch. 182
- 1974. *Die verlorene Ehre der Katharina Blum*. Köln: Kiepenheuer & Witsch. 183
- 1989. *Katharina Blumen ohore galdua*. Donostia: Elkar. Itz. Zabaleta, P. 183

- Brecht, B. 1958. *Geschichten vom Herrn Keuner*. Berlin: Aufbau-Verl. 183
- 1999. *Keuner jaunaren kondairak*. Irun: Alberdania. Itz. Garzia, J. 183
- Brezina, T. 1995. *Grüße aus dem Geisterschloss*. München: Bertelsmann. 184
- 1996. *Saludos desde el castillo de los espíritus*. Madrid: SM. Itz. Santiago Tagle, J. A. 349, 355
- 2001. *Diosalak espirituen gaztelutik*. Bilbo: Desclée De Brouwer. Itz. Mendiguren, X. 184
- Brumme, J. 2012. Translating phrasemes in fictive dialogue. In *The translation of fictive dialogue*. Amsterdam; New York: Rodopi. 269–287. 76
- Burger, H. 2007. *Phraseologie. Eine Einführung am Beispiel des Deutschen*. Berlin: Erich Schmidt. 37, 38, 40, 42, 44, 45, 46, 47, 48, 49, 50, 53, 56, 58, 59, 61, 216
- Burger, H., Buhofer, A. eta Sialm, A. 1982. *Handbuch der Phraseologie*. Berlin; New York: Walter de Gruyter. 34
- Burger, H., Dobrovolskij, D., Kuhn, P. eta Norrick, N. R. 2007. Phraseologie: Objektbereich, Terminologie und Forschungsschwerpunkte. In *Phraseologie: Ein internationales Handbuch der zeitgenössischen Forschung / Phraseology. An International Handbook of Contemporary Research*. Berlin; New York: Walter de Gruyter. 1–10. 35, 36, 38
- Busch, W. 1865. *Max und Moritz. Eine Bubengeschichte in sieben Streichen*. München: Braun und Schneider. 185
- 1991. *Max eta Moritz, zazpi barrabaskeriatan motikoen pasadizo bat*. Iruñea: Pamiela. Itz. Zabaleta, P. 185

- Čermák, F. 2010. Binomials: Their nature in Czech and in general. In Korhonen, J., Mieder, W., Piirainen, E. eta Piñel, R. (argitaratzaileak), *Phraseologie global-areal-regional*. Tübingen: Narr. 222
- Corpas, G. 1997. *Manual de fraseología española*. Madril: Gredos. 63
- 2000. Acerca de la (in)traducibilidad de la fraseología. In Corpas, G. (argitaratzailea), *Las lenguas de Europa: estudios de fraseología, fraseografía y traducción*. Granada: Comares. 483–522. 74
- 2003a. Fraseología y traducción. In *Diez años de investigación en fraseología: análisis sintáctico-semánticos, contrastivos y traductológicos*. Madril: Lingüística Iberoamericana. 125–155. 26, 77, 78
- 2003b. Criterios generales de clasificación del universo fraseológico de las lenguas, con ejemplos tomados del español y del inglés. In *Diez años de investigación en fraseología: análisis sintáctico-semánticos, contrastivos y traductológicos*. Madril: Lingüística Iberoamericana. 125–155. 38, 62, 64, 65, 66
- 2003c. *Diez años de investigación en fraseología: análisis sintáctico-semánticos, contrastivos y traductológicos*. Madril: Lingüística Iberoamericana. 55
- 2008. *Investigar con corpus en traducción: los retos de un nuevo paradigma*. Frankfurt am Main: Peter Lang. 24, 89, 90, 107, 108, 109
- 2013. Detección, descripción y contraste de unidades fraseológicas mediante tecnologías lingüísticas. In Olza, I. eta Manero, E. (argitaratzaileak), *Fraseopragmática*. Berlin: Frank and Timme. 118, 119

- Cuéllar, M. d. C. 2000. *Dobletes de traducción y traductología: las traducciones al castellano en España de la literatura contemporánea en lengua alemana (1945-1990): estudio lingüístico*. Valladolid: Universidad de Valladolid. 75, 77
- Delabastita, D. 1996. Introduction. *The Translator* 2(2): 127–139. 78
- Detken, A. 1997. *Döblins "Berlin Alexanderplatz" übersetzt*. Göttingen: Vandenhoeck und Ruprecht. 189, 190
- Döblin, A. 1929. *Berlin Alexanderplatz: Die Geschichte vom Franz Biberkopf*. Berlin: Fischer. 182
- 1996. *Berlin Alexanderplatz: la historia de Franz Biberkopf*. Barcelona: Destino. Itz. Sáenz, M. 281, 286
- 2000. *Berlin Alexanderplatz: Franz Biberkopfen istorioa*. Euba: Ibaizabal. Itz. Garikano, A. 182
- Duhme, M. 1995. Lauschangriff und Rollkommando. "Einwortphraseologismen" in der Pressesprache am Beispiel des Nachrichtenmagazins FOCUS. In Baur, R. S. eta Chlosta, C. (argitaratzaileak), *Von der Einwortmetapher zur Satzmetapher. Akten des Westfälischen Arbeitskreises Phraseologie/Parömiologie*. Bochum: Brockmeyer. 83–93. 39
- Eismann, W. 2007. Phraseme in literarischen Texten. In Burger, H., Dobrovolskij, D., Kuhn, P. eta Norrick, N. R. (argitaratzaileak), *Phraseologie: Ein internationales Handbuch der zeitgenössischen Forschung / Phraseology. An International Handbook of Contemporary Research*. Berlin; New York: Walter de Gruyter. 316–330. 217
- Ende, M. 1982. *Das Gauklermärchen*. Stuttgart: Thienemann. 184

- 1995. *Jojo, pailazo baten historia, zazpi agerraldiko antzerkia, hitzaurrea eta hitzatzearekin*. Bilbao: Desclée De Brouwer. Itz. Mendiguren, X. 184
- 1999. *Die Zauberschule im Wünschelreich*. Stuttgart; Wien; Bern: Thienemann. 184
- 2010. *Magia-eskola desioen erreinuan*. Bilbo: Aizkorri. Itz. Zubillaga, N. 184
- Esnal, M. 2010. Sutondo berria. Hamasei urtez Goenkalen. *Revista Internacional de los Estudios Vascos* 55(2): 417–471. Interne-teko helbidea: <http://www.euskomedia.org/PDFAnlt/riev/55/55417471.pdf>. 100
- Esnal, P. 2001. “Ortik eta emendik”: Euskal lokuzioak eta fraseologia baino ere haratago. *Euskera* 46(1): 137–144. 30, 37, 62
- Etxaniz, X. 1997. *Euskal haur eta gazte literaturaren historia*. Iruñea: Pamiela. 130
- Farø, K. 2006. Dogmatismus, Skeptizismus, Nihilismus und Pragmatismus bei der Idiomübersetzung: Grundfragen zu einer idiomtranslatorischen Theorie. In Häcki Buhofer, A. eta Burger, H. (argitaratzaileak), *Phraseology in Motion I. Methoden und Kritik*. Baltmannsweiler: Schneider. 189–202. 71, 73, 77, 360
- Fiedler, S. 2007. *English Phraseology: A Coursebook*. Tübingen: Narr. 41, 58
- 2008. Phraseologismen in J.D. Salingers Roman *Der Fänger im Roggen*. Eine übersetzungswissenschaftliche Studie. In Mellado, C. (argitaratzailea), *Beiträge zur Phraseologie aus textueller Sicht*. Hamburg: Kovač. 77, 78
- Fischer, M. 2011. Hexe lilli-kika superbruja. *Anuario de investigación en literatura infantil y juvenil* (9): 71–86. 186

- Fleischer, W. 1982. *Phraseologie der deutschen Gegenwartssprache*. Tübingen: Niemeyer. 33, 34, 55
- Frisch, M. 1957. *Homo Faber: Ein Bericht*. Frankfurt am Main: Suhrkamp. 183
- 2001. *Homo Faber*. Donostia: Elkarlanean. Itz. Arrieta, J. A. 183
- Funke, C. 1999. *Das Piratenschwein*. Hamburg: Dressler. 184
- 2003. *Tintenherz*. Hamburg: Dressler. 185
- 2007. *Txerrikume pirata*. Donostia: Elkar. Itz. Garikano, A. 184
- 2009. *Tinta-bihotz*. Donostia: Elkar. Itz. Zubillaga, N. 185
- Funke, C. eta Wigram, L. 2010a. *Reckless - steinernes Fleisch*. Hamburg: Dressler. 185
- 2010b. *Reckless: Harrizko haragia*. Donostia: Elkar. Itz. Jaka, A. 185
- Garate, G. 1998. *27.173 Atsotitzak, Refranes, Proverbes, Proverbia*. Lasarte Oria: BBK Fundazioa. 28, 29, 31
- Garrido Vilariño, X. M. 2011. The paratranslation of the works of Primo Levi. In Federici, F. M. (argitaratzailea), *Translating Dialects and Languages of Minorities. Challenges and Solutions*. Oxford; Bern; Berlin; Bruxelles; Frankfurt am Main; New York; Wien: Peter Lang. 65–88. 8, 87, 168, 181, 182
- Genette, G. 1987. *Seuil*. Paris: Éditions du Seuil. 87, 168
- Gerber, L. 2008. Paratextual mediation in translation: Translating the titles of Australian children's fiction into German, 1945-the present. *Monash University Linguistics Papers* 6: 41–50. 193

- Gläser, R. 1986. *Phraseologie der englischen Sprache*. Tübingen: Niemeyer. 58
- Goethe, J. W. v. 1774. *Die Leiden des jungen Werther*. Leipzig: Weygand. 183
- 1809. *Die Wahlverwandschaften*. Tübingen: Cotta. 183
- 1940. *Las desventuras del joven Werther*. Barcelona: Apolo. 183
- 1987. *Werther*. Donostia: Kriselu. Itz. Lobera, G. 183
- 1992. *Hautapen-ahaidetasunak*. Euba: Ibaizabal. Itz. Mendiguren, X. 183
- Grass, G. 1961. *Katz und Maus: Eine Novelle*. Neuwied a. Rh.; Berlin-Spandau: Luchterhand. 183
- 1979. *Das Treffen in Telgte*. Darmstadt; Neuwied : Luchterhand. 183
- 1994. *Katua eta sagua*. Euba: Ibaizabal. Itz. Mendiguren, X. 183
- 2002. *Batzarra Telgten*. Irun: Alberdania. Itz. Eguzkitza, A. 183
- Gréciano, G. 1994. Vorsicht, Phraseoaktivität. In Sandig, B. (argitaratzailea), *Europhras 92: Tendenzen der Phraseologieforschung*. Bochum: Brockmeyer. 203–318. 72
- Guia i Marín, J. 2000. Hacia una caracterización fraseológica de los estilos literarios. In Corpas, G. (argitaratzailea), *Las lenguas de Europa: estudios de fraseología, fraseografía y traducción*. Granada: Comares. 75–93. 163
- Gurrutxaga, A. 2014. *Idiomatikotasunaren karakterizazio automatikoa: izena+aditza konbinazioak*. Doktore-tesia, UPV/EHU. 33

- Gustaffson, M. 1984. The syntactic features of binomial expressions in legal English. *Text* 4: 123–141. [225](#)
- Gutiérrez, C. 2005. La labor del equipo trace: metodología descriptiva de la censura en traducción. In Merino, R., Santamaría, J. M. eta Pajares, E. (argitaratzaileak), *Trasvases culturales: Literatura, cine, traducción 4*. UPV/EHU: Euskal Herriko Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua. 55–64. [152](#)
- 2007. Traducción inglés-español y censura de textos cinematográficos: definición, construcción y análisis del corpus 0/catálogo TRACEci (1951-1981). In Merino, R. (argitaratzailea), *Traducción y censura en España (1939-1985). Estudios sobre corpus TRACE: cine, narrativa, teatro*. UPV/EHU: Euskal Herriko Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua. 197–240. [86](#)
- Guzmán, J. R. eta Serrano, À. 2006. Alineamiento de frases y traducción: Alfracovalt y el procesamiento de corpus. *Sendebarr* 17: 169–186. [116](#), [117](#)
- Hallsteinsdóttir, E. 2011. Phraseological competence and the translation of phrasemes. In Pamies, A., Luque, L. eta Pazos, J. M. (argitaratzaileak), *Multi-Lingual Phraseography: Second Language Learning and Translation Applications*. Baltmannsweiler: Schneider. 279–288. [71](#), [72](#), [73](#)
- Halverson, S. L. 2003. The cognitive basis of translation universals. *Target* 15.2: 197–241. [25](#)
- 2010. Cognitive Translation Studies: Developments in Theory and Method. In Shreve, G. eta Angelone, E. (argitaratzaileak), *Translation and Cognition*. Amsterdam: John Benjamins. [25](#)
- 2013. Implications of Cognitive Linguistics for Translation Studies. In Rojo, A. eta Ibarretxe-Antuñano, I. (argitaratzaileak), *Cognitive Linguistics and Translation*. Berlin; Boston: Walter De Gruyter. [25](#), [110](#), [378](#)

- Härtling, P. 1993. *Lena auf dem Dach*. Weinheim: Beltz & Gelberg. 184
- 1994. *Lena teilatuan*. Donostia: Elkar. Itz. Zabaleta, P. 184
- 1979. *Ben liebt Anna*. Weinheim; Basel: Beltz & Gelberg. 183
- 1982. *Ben quiere a Anna*. Madril: Alfaguara. Itz. Canicio, V. 183
- 1990. *Benek Anna maite du*. Baiona: Elkar. Itz. Urbistondo, D. 183
- Heine, A. 2010. Wie viel Polylexikalität braucht ein Phraseologismus? In Korhonen, J., Mieder, W., Piirainen, E. eta Piñel, R. (argitaratzaileak), *Phraseologie: global, areal, regional. Akten der Konferenz EuroPhras 2008* 11–18. Tübingen: Narr. 40
- 2012. Empirische Methoden der Phraseologieforschung im Wandel der Zeit. In Prinz, M. eta Richter-Vapaatalo, U. (argitaratzaileak), *Idiome, Konstruktionen, "verblümete Rede". Beiträge zur Geschichte der Germanistik*. Stuttgart: S. Hirzel. 165–186. 111, 112, 113, 115, 116
- Heinrich, B. 1986. *Pailazo baten aburuak*. Donostia: Elkar. Itz. Azpiroz, J. A. 182
- Hermans, T. 1999. *Translation in Systems. Descriptive and system-oriented approaches explained*. Manchester: St. Jerome. 24, 85, 87
- Hesse, H. 1927. *Der Steppenwolf*. Berlin: Fischer. 183
- 1986. *Estepako otsoa*. Donostia: Elkar. Itz. Zabaleta, P. 183
- Higi-Wydler, M. 1989. *Zur Übersetzung von Idiomen: ein Beschreibung und Klassifizierung deutscher Idiome und ihrer französischen Entsprechungen*. Bern: Peter Lang. 73

- Iñesta, E. M. eta Pamies, A. 2002. *Fraseología y metáfora: aspectos tipológicos y cognitivos*. Granada: Método Ediciones. 58
- IXA eta Elhuyar 2007. Testu-corpusak: ezaugarriak, eraketa eta tresnak. In Arrieta, M. J. (argitaratzailea), *Hizkuntza, komunikazioaren eta teknologiaren garaiak*. Vitoria-Gasteiz: Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundea. 164
- Izagirre, K. 1981. *Euskal lokuzioak. Espainolezko eta frantsesezko gida-zerrendarekin*. Donostia: Hordago. 29
- Izquierdo, M. 2012. Corpus-based functionality and translatability. English–Spanish progressive constructions in contrast and translation. *Languages in contrast* 12:2: 187–210. 235
- Ji, M. 2010. *Phraseology in Corpus-Based Translation Studies*. Frankfurt am Main: Peter Lang. 95
- Juska-Bacher, B. 2009. *Empirisch-kontrastive Phraseologie. Am Beispiel der Bekanntheit der Niederländischen Sprichwörter im Niederländischen, Deutschen und Schwedischen*. Baltmannsweiler: Schneider. 48
- Kafka, F. 1915. *Die Verwandlung*. Leipzig: K. Wolff. 183
- 1925. *Der Prozess*. Berlin: Die Schmiede. 183
- 1938. *La metamorfosis*. Buenos Aires: Losada. Itz. Borges, J. L. 183
- 1993. *Prozesua*. Donostia: Elkar. Itz. Garikano, A. 183
- 2000. *Metamorfosia*. Alegia: Hiria. Itz. Iraola, R. 183
- Kaltzakorta, X. 1996. Euskal atsotiz-bildumak. *Euskera* 41: 611–640. 27
- 2001. Euskal fraseologia: historia, oinarriak. *Euskera* 46(1): 73–87. 37

- Kästner, E. 1929. *Emil und die Detektiven*. Zürich: Atrium. 184
- 1931. *Pünktchen und Anton*. Berlin: Dressler. 185
- 1949a. *Das doppelte Löttchen*. Zürich: Atrium. 184
- 1949b. *Die Konferenz der Tiere*. Zürich: Atrium. 184
- 1957. *Las dos Carlotas*. Barcelona: Juventud. Itz. Guerra, P. 273, 291
- 1967. *Emilio y los detectives*. Barcelona: Juventud. Itz. Fernández, J. 184
- 1982. *La conferencia de los animales*. Madrid: Alfaguara. Itz. Seco, C. 184
- 1987. *Puntito y Antón*. Madrid: Alfaguara. Itz. Alfonso, E. 185
- 1989. *Puntutxo eta Anton*. Bilbo: Alfaguara. Itz. Legarreta, J. 185
- 1991. *Emilio eta detektibeak*. Donostia: Elkar. Itz. Sarasola, T. 184
- 1992. *Lotte eta Luisa, hau bizki pare!* Donostia: Elkar. Itz. Narbaiza, A. 184
- 1993. *Animalien biltzarra*. Bilbo: Alfaguara. Itz. Ossa, J. 184
- Kenny, D. 2001. *Lexis and Creativity in Translation. A Corpus-based Approach*. Manchester: St. Jerome. 9, 14, 17, 19, 24, 88, 89, 92, 108, 375
- Kim-Werner, S. 1996. *Phraseologisches Wörterbuch: Deutsch-Koreanisch*. Korea: Yulin-Madang. 217

- Knister 2003a. *Hexe Lilli auf der Jagd nach dem verlorenen Schatz*. Würzburg: Arena Verlag. 184
- 2003b. *Kika Superbruja en busca del tesoro perdido*. Madrid: Bruño. Itz. Blanco, R. P. 184
- 2004. *Kika Supersorgina altxorraren bila*. Bilbo: Gero. Itz. Aristondo, I. 184
- Koller, W. 2007. Probleme der Übersetzung von Phrasemen. In Burger, H., Dobrovolskij, D., Kuhn, P. eta Norrick, N. R. (argitaratzaileak), *Phraseologie: Ein internationales Handbuch der zeitgenössischen Forschung / Phraseology. An International Handbook of Contemporary Research*. Berlin; New York: Walter de Gruyter. 605–613. 54, 72, 215
- Korhonen, J. 2004. Phraseologismen als Übersetzungsproblem. In Kittel, H., Frank, A. P., Greiner, N., Hermans, T., Koller, W., Lambert, J. eta Paul, F. (argitaratzaileak), *Phraseologie: Ein internationales Handbuch der zeitgenössischen Forschung / Phraseology. An International Handbook of Contemporary Research*. Berlin; New York: Walter de Gruyter. 579–587. 68
- Korhonen, J., Mieder, W., Piirainen, E. eta Piñel, R. 2008. Beiträge zur internationalen Phraseologiekonferenz vom 13.-16.8.2008 in Helsinki. Interneteko helbidea: http://homepage.univie.ac.at/beata.trawinski/publications/europhras_08.pdf. 113
- Korhonen, J., Mieder, W., Piirainen, E. eta Piñel, R. (argitaratzaileak) 2010. *Phraseologie global – areal – regional. Akten der Konferenz Europhras 2008 vom 13. -16.8.2008 in Helsinki*. Tübingen: Narr. 113
- Kupietz, M., Belica, C., Keibel, H. eta Witt, A. 2010. The German Reference Corpus DeReKo: A Primordial Sample for Linguistic Research. *Proceedings of the 7th conference on International Language Resources and Evaluation (LREC 2010)* 1848–1854. 103

- Larreta, J. P. 2001. *Fraseología contrastiva del alemán y el español*. Frankfurt am Main: Peter Lang. 37, 55, 68, 218
- Laviosa, S. 2002. *Corpus-based Translation Studies*. Amsterdam; New York: Rodopi. 15
- Lemnitzer, L. eta Zinsmeister, H. 2006. *Korpuslinguistik. Eine Einführung*. Tübingen: Narr. 88, 89, 90, 91, 92, 93, 103, 153, 164
- Leturia, I. 2013. Web-corpusen Ataria: Elhuyar I+Gk egindako euskarazko webeko testuen biltegi erraldoia. Interneteko helbidea: <http://aldizkaria.elhuyar.org/mundu-digitala/web-corpusen-ataria-elhuyar-igk-egindako-euskarazk/>. 101
- López, C. 2002. *Aspectos de fraseología contrastiva (alemán-español) en el sistema y en el texto*. Frankfurt am Main: Peter Lang. 43, 47, 54
- Mann, T. 1913. *Der Tod in Venedig*. Berlin: S. Fischer. 183
- 1992. *Herioa Venezian*. Euba: Ibaizabal. Itz. Mendiguren, X. 183
- Manterola, E. 2011. *Euskal literatura beste hizkuntza batzuetara itzulia. Bernardo Atxagaren lanen itzulpen moten arteko alderaketa*. Doktore-tesia, UPV/EHU. Interneteko helbidea: http://www.ehu.es/argitalpenak/images/stories/tesis/Humanidades/ELIZABETE_MANTEROLA.pdf. 2, 7, 16, 85, 361
- Marco, J. 2008. “In my mind’s eye”: análisis traductológico de algunos fraseologismos prototípicos en el contexto del corpus COVALT (corpus valencià de literatura traduïda). In Pegenaute, L., DeCesaris, J. A., Tricás, M. eta Bernal, E. (argitaratzaileak), *Actas del III Congreso Internacional de la Asociación Ibérica de Estudios de*

- Traducción e Interpretación*. 251–262. Barcelona: PPU. Interneteko helbidea: http://www.aietl.eu/pubs/actas/III/AIETI_3_JM_Mind.pdf. 76, 219, 367, 374
- 2009. Normalisation and the translation of phraseology in the COVALT corpus. *Meta: journal des traducteurs / Meta: Translators' Journal* 54(4): 842–856. Interneteko helbidea: <http://www.erudit.org/revue/meta/2009/v54/n4/038907ar.html>. 20, 76, 219, 260, 355
- 2013. La traducció de les unitats fraseològiques de base somàtica en el subcorpus anglès-català. In Bracho Lapiedra, L. (argitaratzailea), *El corpus COVALT: un observatori de fraseologia traduïda*. Aachen: Shaker. 163–215. 77, 79, 219, 253, 255, 261, 376
- Massanek, J. 2003. *Juli, die Viererkette*. Frankfurt am Main: Baumhaus-Verlag. 184
- 2010. *Juli, defentsa onena*. Bilbo: Gero. Itz. Sebrango, N. 184
- McEnery, T., Xiao, R. eta Tono, Y. 2006. *Corpus-based Language Studies. An advanced resource book*. London; New York: Routledge. 89, 92, 115
- Mellado, C. 2004. *Fraseologismos somáticos del alemán*. Frankfurt am Main: Peter Lang. 36, 41, 42, 43, 47, 50, 51, 52
- Melčuk, I. 1998. Collocations and lexical functions. In Cowie, A. P. (argitaratzailea), *Phraseology: Theory Analysis and Applications*. Oxford: Clarendon Press. 23–53. 64
- Merino, R. 1994. *Traducción, tradición y manipulación: teatro inglés en España 1950-1990*. Universidad de León; UPV/EHU. 85
- 2003. TRAducciones CEEnsuras inglés-español: del catálogo al corpus trace (teatro). In Muñoz, R. (argitaratzailea), *I*

- AIETI. Actas del I Congreso Internacional de la Asociación Ibérica de Estudios de Traducción e Interpretación*. 641–670. Interneteko helbidea: http://www.aieti.eu/pubs/actas/I/AIETI_1_RMA_Traducciones.pdf. 146
- Merino, R. eta Rabadán, R. 2004. Introducción a la versión española. In *Los estudios descriptivos de traducción y más allá. Metodología de la investigación en estudios de traducción*. Madril: Cátedra. 13
- Mieder, W. 2009. *International bibliography of paremiology and phraseology*. Berlin; New York: Walter de Gruyter. 70
- Milizia, D. eta Spinzi, C. 2008. The ‘terroridiom’ principle between spoken and written discourse. *International Journal of Corpus Linguistics* 13(3): 322–350. 227
- Mokoroa, J. M. 1990. ‘Ortik eta emendik’: repertorio de locuciones del habla popular vasca, oral y escrita, en sus diversas variedades. Labayru. 30
- Molnár, J. 2010. *Studien zur Aufbereitung und Auswertung von Korpus-texten*. Würzburg: Universität Würzburg. 153, 154
- Müller, H.-G. 2009. *Adleraug und Luchsenohr: deutsche Zwillingsformeln und ihr Gebrauch*. Frankfurt am Main: Peter Lang. 223, 235
- Musil, R. 1906. *Die Verwirrungen des Zöglings Törleß*. Wien; Leipzig: Wiener Verlag. 183
- 1996. *Törless ikaslearen nahasmenduak*. Euba: Ibaizabal. Itz. Morales, K. 183
- Ni, D. 2011. *Metaphern und Metonymien in deutschen und chinesischen Somatismen*. Hamburg: Kovač. 220

- Niemi, J., Mulli, J., Nenonen, M., Niemi, S., Nikolaev, A. eta Penttilä, E. 2010. Body-part idioms across languages: Lexical analysis of VP body-part idioms in English, German, Swedish, Russian and Finnish. In Ptashnyk, S., Hallsteinsdóttir, E. eta Bubenhofer, N. (argitaratzaileak), *Korpora, Web und Datenbanken. Corpora, Web and Databases*. Baltmannsweiler: Schneider. 67–76. [219](#)
- Nöstlinger, C. 1985. *Liebe Oma, deine Susi*. Wien: Dachs Verlag. [184](#)
- 1990. *Amona maite, zure Susik*. Arrigorriaga: SM. Itz. Zabaleta, P. [184](#)
- 1982. *Das Austauschkind*. Weinheim: Beltz & Gelberg. [184](#)
- 1991. *Ingeles bat etxean*. Lizarra: Elkar. Itz. Mendiguren, X. [184](#)
- Oster, U. eta van Lawick, H. 2008. Semantic preference and semantic prosody. In *Translation and meaning*. Maastricht: Zuyd University. [259](#)
- 2013. Anàlisi dels somatismes del subcorpus alemany-català. In Bracho Lapiedra, L. (argitaratzailea), *El corpus COVALT: un observatori de fraseologia traduïda*. Aachen: Shaker. 267–294. [76](#), [219](#), [258](#), [261](#)
- Piirainen, E. 2012. *Widespread idioms in Europe and beyond. Towards a Lexicon of Common Figurative Units*. New York: Peter Lang. [222](#)
- Pilz, K. D. 1978. *Phraseologie: Versuch einer interdisziplinären Abgrenzung, Begriffsbestimmung und Systematisierung unter besonderer Berücksichtigung der deutschen Gegenwartssprache*. Göppingen: Alfred Kümmerle. [36](#), [37](#)

- Pontrandolfo, G. 2011-2012. *La fraseología en las sentencias penales: un estudio contrastivo español, italiano, inglés basado en corpus*. Doktore-tesia, Università degli studi di Trieste. Interneteko helbidea: <http://www.openstarts.units.it/dspace/handle/10077/8590?mode=full>. 224
- Press, H. J. 1965. *Die Abenteuer der schwarzen Hand*. Dillingen: Otto Maier Verlag Ravensburg. 184
- 1981. *Aventuras de “la mano negra”*. Madril: Espasa-Calpe. Itz. Sánchez, J. 184
- 1984. *Eskubeltz taldearen abenturak*. Donostia: Elkar. Itz. Iparragirre, P. 184
- Preußler, O. 1958. *Bei uns in Schilda: die wahre Geschichte der Schildbürger nach den Aufzeichnungen des Stadtschreibers Jeremias Punktum*. Stuttgart: Thienemann. 183
- 1966. *Das kleine Gespenst*. Stuttgart: Thienemann. 184
- 1969. *El pequeño fantasma*. Bartzelona: Bruguera. Itz. Maluenda, C. 184
- 1984. *Fantasmatoxa*. Donostia: Elkar. Itz. Gartzia, X. 184
- 1987. *Markako eroak*. Madril: SM. Itz. Zabaleta, P. 183
- Ptashnyk, S., Hallsteinsdóttir, E. eta Bubenhofer, N. (argitaratzaileak) 2010. *Korpora, Web und Datenbanken. Computergestützte Methoden in der modernen Phraseologie und Lexikographie*. Baltmannsweiler: Schneider Verlag Hohengehren. 113
- Quasthoff, U., Schmidt, F. eta Hallsteinsdóttir, E. 2010. Häufigkeit und Struktur von Phraseologismen am Beispiel verschiedener Web-Korpora. In Ptashnyk, S., Hallsteinsdóttir, E. eta Bubenhofer, N. (argitaratzaileak), *Korpora, Web und Datenbanken. Corpora, Web and Databases*. Baltmannsweiler: Schneider. 37–53. 220

- Richter-Vapaatalo, U. 2007. *Da hatte das Pferd die Nüstern voll. Gebrauch und Funktionen von Phraseologie im Kinderbuch. Untersuchungen zu Erich Kästner und anderen Autoren.* Frankfurt am Main: Peter Lang. 61, 147, 148, 246
- Rodríguez-Vida, S. 1997. *Diccionari temàtic de modismes.* Edícola 62. 65
- Roth, J. 1936. *Beichte eines Mörders, erzählt in einer Nacht.* Amsterdam: Allert de Lange. 182
- 1938. *Confession of a murderer, told in one night.* London: Hale. Itz. Vesey, D. I. 260
- 1939. *Die legende vom heiligen Trinker.* Amsterdam: Allert de Lange. 183
- 1940. *Der Leviathan.* Amsterdam: Querido. 183
- 1981. *La leyenda del santo bebedor.* Bartzelona: Anagrama. Itz. Faber-Kaiser, M. 183
- 1992. *Confesión de un asesino.* Bartzelona: Anagrama. Itz. del Solar, J. J. 182
- 1998. *Leviatana.* Zarautz: Susa. Itz. Matauko, E. 183
- 2001. *Edale santuaren kondaira.* Iruñea: Igela. Itz. Múgica, M. 183
- 2003. *Hiltzaille baten aitormena: gau batean kontatua.* Iruñea: Igela. Itz. Múgica, M. 182
- Ruzicka, V. 2002. *Kulturelle Regionalisierung in Spanien und literarische Übersetzung. Studien zur Rezeption deutschsprachiger Kinder- und Jugendliteratur in den zweisprachigen autonomen Regionen Baskenland, Galicien und Katalonien.* Frankfurt am Main; New York: Peter Lang Frankfurt am Main. 176, 178

- Sadikaj, S. 2009. *Metaphorische Konzepte in somatischen Phraseologismen des Deutschen und Albanischen. Eine kontrastive Untersuchung anhand von Herz- und Hand-Somatismen*. Doktoretesia, Julius-Maximilians-Universität Würzburg. Interneteko helbidea: http://opus.bibliothek.uni-wuerzburg.de/volltexte/2010/5066/pdf/WespA_9.pdf. 219
- Sailer, M. 2007. Corpus linguistic approaches with German corpora. In Burger, H., Dobrovolskij, D., Kuhn, P. eta Norrick, N. R. (argitaratzaileak), *Phraseologie. Ein internationales Handbuch der zeitgenössischen Forschung*. Berlin; New York: Walter de Gruyter. 1060–1071. 103, 114, 115
- Salvador, V. eta Climent Raga, L. M. (argitaratzaileak) 2006. *El discurs prefabricat. Estudis de fraseologia teòrica i aplicada*. Castelló de la Plana: Publicaciones de la Universitat Jaume I. 76
- Salvador, V. eta Piquer, A. (argitaratzaileak) 2000. *El discurs prefabricat. Estudis de fraseologia teòrica i aplicada*. Castelló de la Plana: Publicaciones de la Universitat Jaume I. 76
- Santamaría, M. I. 2001. *Tratamiento de las unidades fraseológicas en la lexicografía bilingüe español-catalán*. Doktoretesia, Universidad de Alicante. Interneteko helbidea: http://descargas.cervantesvirtual.com/servlet/SirveObras/68094941545465830532279/006698_1.pdf. 68
- Schemann, H. 2011. *Deutsche Idiomatik: Die deutschen Redewendungen im Kontext*. Berlin; Boston: Walter De Gruyter. 38
- Schemann, H., Mellado, C., Buján, P., Iglesias, N., Larreta, J. eta Mansilla, A. (argitaratzaileak) 2012. *Idiomatik Deutsch-Spanisch. Diccionario Idiomático Alemán-Español*. Hamburg: Buske Verlag. 363
- Scherer, C. 2006. *Korpuslinguistik*. Heidelberg: Universitätsverlag Winter GmbH Heidelberg. 90, 91, 92, 93, 94, 103, 104, 164

- Schnitzler, A. 1898. *Die Frau des Weisen. Novelletten*. Berlin: Fischer. 183
- 2009. *Hildakoek ez dute hitz egiten*. Irun: Alberdania. Itz. Irazustabarrena, A. 183
- Segura, B. 1998. *Kontrastive Idiomatik, Deutsch-Spanisch: eine textuelle Untersuchung von Idiomen anhand literarischer Werke und ihrer Übersetzungsprobleme*. Frankfurt am Main: Peter Lang. 50, 53, 54, 74, 77, 217, 218, 221
- Sinclair, J. 2004. Developing linguistic corpora: a guide to good practice. corpus and text – basic principles. Interneteko helbidea: <http://ota.ahds.ac.uk/documents/creating/dlc/chapter1.htm>. 88
- Soliño, M. M. 2008. La traducción de unidades fraseológicas en la literatura infantil y juvenil alemana y española. In González, M. I. (argitaratzailea), *A Multilingual Focus on Contrastive Phraseology and Techniques for Translation*. Hamburg: Kovač. 73
- Sommer-Bodenburg, A. 1980. *Der kleine Vampir zieht um*. Reinbek bei Hamburg: Rowohlt. 184
- 1985a. *Der kleine Vampir in Gefahr*. Reinbek bei Hamburg: Rowohlt. 184
- 1985b. *El pequeño vampiro se cambia de casa*. Madril: Alfaguara. Itz. Rodríguez Clemente, J. M. 184
- 1987. *El pequeño vampiro en peligro*. Madril: Alfaguara. Itz. Rodríguez Clemente, J. M. 184
- 1990. *Banpiro txikia etrez aldatzen da*. Madril: Alfaguara; Bilbo: Desclée de Brouwer. Itz. Legarreta, J. 184
- 1991. *Schokolowski. Lustig ist das Hundeleben*. München: Bertelsmann. 185

- 1992. *Banpiro txikia arriskuan da*. Madril: Alfaguara; Bilbo: Desclée de Brouwer. Itz. Markuleta, G. 184
- 1993. *Banpiro txikia*. Madril: Alfaguara; Leioa: Zubia. Itz. Monasterio, X. 217
- 1996. *Txokoloski. Dibertigarria da txakurren bizitza*. Bilbo: Desclée de Brouwer. Itz. Azkue, E. 185
- Staffeldt, S. eta Ziem, A. 2008. Körper-Sprache. Zur Motiviertheit von Phraseologismen mit Körperteilbezeichnungen. *Sprachwissenschaft* 33: 455–499. 220
- Steyer, K. 2004a. Kookurrenz. Korpusmethodik, linguistisches Modell, lexikographische Perspektiven. In *Wortverbindungen - mehr oder weniger fest. Jahrbuch des Instituts für Deutsche Sprache 2003*. Berlin; New York: Walter de Gruyter. 87–116. 114
- Steyer, K. (argitaratzailea) 2004b. *Wortverbindungen - mehr oder weniger fest. Jahrbuch des Instituts für Deutsche Sprache*. Berlin; New York: Walter de Gruyter. 113
- Süskind, P. 1985. *Das Parfum: die Geschichte eines Mörders*. Zürich: Diogenes. 183
- 1989. *El perfume: historia de un asesino*. Barcelona: Seix Barral. Itz. Giralt, P. 183
- 2007. *Perfumea: hiltzaile baten historia*. Irun: Alberdania. Itz. Arratibel, M. 183
- Szczępek, J. 2004. Einwortphraseologismen und ihr Verhältnis zur Phraseologie (am Beispiel des Deutschen und des Polnischen). In Földes, C. eta Wirrer, J. (argitaratzaileak), *Phraseologismen als Gegenstand sprach- und kulturwissenschaftlicher Forschung. Akten der Europäischen Gesellschaft für Phraseologie*

- (EUROPHRAS) und des Westfälischen Arbeitskreises "Phraseologie/Parömiologie" (Loccum 2002). 75–85. Baltmannsweiler: Schneider. [39](#), [40](#)
- Tahir-Gürçağlar, Ş. 2002. What texts don't tell: The uses of paratexts in translation research. In Hermans, T. (argitaratzailea), *Crosscultural Transgressions*. Manchester: St. Jerome. 44–60. [86](#)
- Torrent, A. 2012. Los conceptos relativos a la equivalencia traductora en el campo de la fraseología: revisión crítica y propuestas. In van Lawick, H. eta Jirku, B. E. (argitaratzaileak), *Übersetzen als Performanz*. Viena: Lit. 273–286. [72](#)
- Toury, G. 2004. *Estudios descriptivos de traducción y más allá*. Madrid: Cátedra. Itz. Rabadán, R. eta Merino, R. [13](#)
- 2012. *Descriptive Translation Studies and Beyond*. Amsterdam: John Benjamins Amsterdam, Philadelphia. [5](#), [14](#), [15](#), [16](#), [17](#), [19](#), [21](#), [23](#), [25](#), [225](#), [226](#), [374](#)
- Tymoczko, M. 1998. Computerized corpora and the future of translation studies. *Meta* 43: 652–660. [24](#), [84](#)
- 2005. Trajectories of research in translation studies. *Meta* 50 (4): 1082–1097. [378](#)
- 2007. *Enlarging translation, empowering translators*. Manchester: St. Jerome. [13](#), [14](#)
- 2013. Translation theory. *The Encyclopedia of Applied Linguistics*. [13](#)
- Uribarri, I. 2013. Censura (s) en la traducción al/del vasco. *Quaderns: revista de traducció* (20): 31–45. [133](#)
- Urizar, R. 2012. *Euskal lokuzioen tratamendu konputazionala*. Doktore-tesia, EHU-UPV. [33](#), [49](#), [231](#)

- Urizar, R., Alegria, I., Odriozola, J. C. eta Ezeiza, N. 2009. Euskarazko hitz anitzeko unitate lexikalen tratamendu konputazionala. *Anuario del Seminario de Filología Vasca Julio de Urquijo* 43(1-2): 891–908. 45, 47
- Urkia, M. 2010. Corpusgintzaren garrantzia hizkuntzalari-tzan eta euskararen egoera. Interneteko helbidea: http://www.elhuyar.org/hizkuntza-zerbitzuak/informazioa/Hitzaldiak/Corpusgintza_MiriamUrkia.pdf. Euskaltzaindia, Eroski Fundazioa eta Elhuyar Fundazioak antolatutako mintegia. 97, 99, 102, 107
- Utka, A. 2004. Phases of translation corpus. compilation and analysis. *International Journal of Corpus Linguistics* 9(2): 195–224. 110
- van Lawick, H. 2006. *Metàfora, fraseologia i traducció. Aplicació als somatismes en una obra de Bertolt Brecht*. Aachen: Shaker. 62, 219
- 2010. Phraseologismen in der Minderheitensprache Katalanisch: Global, areal oder dialektal? Eine korpuslinguistisch gestützte Untersuchung von Übersetzungen. In *Phraseologie global-areal-regional. Akten der Konferenz Europhras 2008 vom 13. – 16.8.2008 in Helsinki*. Tübingen: Narr. 293–299. 76, 113
- 2013. Apunts sobre fraseologia i per a l'anàlisi traductològica. In Bracho Lapiedra, L. (argitaratzailea), *El corpus COVALT: un observatori de fraseologia traduïda*. Aachen: Shaker. 129–161. 39, 40, 41, 43, 48, 53, 54, 72, 73, 80, 118, 216, 220, 221
- Walser, R. 1909. *Jakob von Gunten: Ein Tagebuch*. Berlin: Cassirer. 183
- 2005. *Jakob von Gunten*. Donostia: Erein. Itz. Matauko, E. 183

- Werfel, F. 1928. *Der Abituriententag*. Wien: P. Zsolnay. 183
- 2008. *Batzilerren eguna*. Iruñea: Igela. Itz. Agirre, J. L. 183
- Wotjak, G. 1983. En torno a la traducción de unidades fraseológicas (con ejemplos tomados del español y el alemán). *Linguistische Arbeitsberichte* 40: 56–80. 55, 56
- 2000. No hay que estarse con los brazos cruzados. Algunas observaciones acerca del significado de expresiones idiomáticas verbales del español actual. In Corpas, G. (argitaratzailea), *Las lenguas de Europa: Estudios de fraseología, fraseografía y traducción*. Granada: Comares. 185–196. 218
- Xiao, R. eta Yue, M. 2009. Using corpora in translation studies: The state of the art. In *Contemporary Corpus Linguistics*. London; New York: Continuum. 237–261. 107, 108, 110, 111
- Zamarripa, P. 1913. *Manual del vascófilo. Libro de modismos, onomatopeyas, elipsis, uso distinto de la S y la Z y otras cosas que conviene saber para hablar y escribir bien en vascuence vizcaíno*. Bilbo: Wilsen. 28
- Zanettin, F. 2012. *Translation-driven Corpora*. Manchester: St. Jerome. 88, 90
- Zelik, R. 2007. *Der bewaffnete Freund*. München: Blumenbar-Verlag. 183
- 2009. *Lagun armatua*. Tafalla: Txalaparta. Itz. Matauko, E. 183
- Zubillaga, N. 2013. *Alemanetik euskaratutako haur eta gazte literatura: zuzeneko nahiz zeharkako itzulpenen azterketa corpus baten bidez*. Doktore-tesia, UPV/EHU. Interneteko helbidea: <http://www.ehu.es/argitalpenak/images/stories/tesis/Humanidades/8670ZubillagaEU.pdf>. 2, 7, 16, 18, 22, 23, 85, 129, 130, 140, 141, 142, 145, 146, 180, 205, 209, 263, 361, 364

- Zubillaga, N., Sanz, Z. eta Uribarri, I. 2015. Building a trilingual parallel corpus for analysing literary translations from german into basque. In press. [102](#)
- Zuluaga, A. 1997. Sobre funciones de fraseologismos en textos literarios. *Paremia* 6: 360–640. [53](#), [54](#)
- 1999. Traductología y fraseología. *Paremia* 8: 537–549. [44](#)
- Zweig, S. 1922. *Brief einer Unbekannten*. Dresden: Lehmann. [182](#)
- 1942. *Schachnovelle*. Buenos Aires: Kramer. [183](#)
- 1999. *Xake nobela*. Irun: Alberdania. Itz. Mendiguren, X. [183](#)
- 2005. *Emakume ezezagun baten gutuna*. Iruñea: Igela. Itz. Matauko, E. [182](#)

A.

Eranskinak

I UFak izendatzeko hainbat termino

| Terminoa | Iturria | Urtea |
|---|-----------------------------------|-------|
| Redeweisen | Wander | 1867 |
| Sprichwörtlich gewordene Ausdrücke | Schulze | 1871 |
| Bildliche Redensarten; Metaphorische Redensarten; Stehende Redensarten; Phraseologische Verbindungen | Schmitz | 1882 |
| Sprachliche Formeln | Otto | 1890 |
| Landläufige Redensarten | H. Schrader | 1901 |
| Gebrauchsmetaphern; Metaphorische Redewendungen; Metaphorische Wendungen | Seiler | 1922 |
| Sprachliche Wendungen | Prause | 1930 |
| Fertig geprägte Ausdrücke | Rahn | 1931 |
| Bildhafte, schlagwortähnliche Redewendungen | Munker | 1931 |
| Idiomatische Ausdrücke | Thiele | 1941 |
| Volkstümliche Redensarten | Borchard; Wustmann; Schoppe | 1954 |
| Wendungen aus der Redensart | Wildhaber | 1955 |
| Feste Wortgruppen | Weisgerber | 1956 |
| Idiome; Stereotype Wendungen; Traditionelle Wendungen; Traditionelle feste Wendungen | Schmidt-Hidding | 1956 |
| Stehende Ausdrücke | Heilmannseeder | 1957 |
| Feste Fügungen | Schmidt-Hidding | 1957 |
| Phraseologische Ausdrücke | Riesel | 1959 |
| Redensartliche Ausdrücke | Röhrich | 1959 |
| Phraseologismen | Radtke | 1959 |
| Sprachliche Ausdrücke; Redensartliche Wendungen | Röhrich | 1960 |
| Formelhafte Redewendungen | Schmidt-Hidding | 1961 |
| Isolierte Verbindungen | Bierwisch | 1961 |
| Formelhafte Wendungen; Idiomatische Wendungen | Schmidt-Hidding | 1961 |
| Wortgruppenlexem | Wissemann | 1961 |

| | | |
|--|-----------------|------|
| Feste Verbindungen | Klappenbach | 1961 |
| Feste Redensarten; Feste Redewendungen; Traditionell feste Wendungen; Festgefügte Wendungen | Schmidt-Hidding | 1962 |
| Komplexe Einheiten | Daniels | 1963 |
| Phraseologische Fügungen; Surrogatausdrücke | W. Schmidt | 1963 |
| Syntaktische Umschreibungen | von Polenz | 1963 |
| Formelhafte Verbindungen | Daniels | 1963 |
| Festgewordene Wendungen; Phraseologische Wendungen; Erstarrte Wortverbindungen; Fertig vorhandene geprägte Wortverbindungen; Phraseologische Wortverbindungen; Stehende Wortverbindungen | W. Schmidt | 1963 |
| Feste phraseologische Wortverknüpfungen | Mellbourn | 1964 |
| Fertigbauteile | Faulseit | 1965 |
| Formeln im Satz | Mueller | 1965 |
| Standardisierte Formulierungen | Roche | 1965 |
| Sprachliche Gebrauchsmuster | Faulseit | 1965 |
| Sprachformeln; Sprachformeln innerhalb des Satzes; Zusammengehörige Wortgruppen | Mueller | 1965 |
| Feste Wortverbindungen | E. Agricola | 1965 |
| Erstarrte Fügungen; Allgemeine Redensarten; Stehende Wendungen; Wortverbindungen; Kurze Wortverbindungen | Duden-Grammatik | 1966 |
| Feststehende Gebrauchsweisen; Zusammengesetzte Redensarten | De Saussure | 1967 |
| Autonome Syntagmen | Martinet | 1967 |
| Wortverbände | Leisi | 1967 |

| | | |
|--|----------------------------------|---------------------|
| Erstarrte Formeln; Geprägte Scheidemünzen; Vorgeformte Sprachwendungen; Einfache Wendungen; Geformte Wortblöcke; Wortzusammenstellungen; Vorgeformte Wortzusammenstellungen; Zusammenstellungen | Mackensen | 1968 |
| Wortgruppenlexem | Fix | 1971 |
| Stehende Redewendungen | Gipper | 1973 |
| Feste Syntagmen | Rothkegel | 1973 |
| Frasmus | Häusermann | 1977 |
| Redensarten | Koller | 1977 |
| Phraseologische Einheiten | Pilz | 1978 |
| Fixiertes Wortgefüge | Thun | 1978 |
| Verbale Stereotype | Coulmas | 1981 |
| Phraseologismus; Feste Wendung; Feste Wortverbindung, Wortgruppe | Fleischer | 1982 |
| Phraseologismus | Burger; Koller; Burger et al. | 1982; 1994; 2007 |

II Alemanezko binomioen zerrenda

| Binomioak | Maistasuna | Banaketa |
|------------------|------------|----------|
| hin und her | 172 | 36 |
| auf und ab | 92 | 26 |
| ab und zu | 54 | 16 |
| ganz und gar | 53 | 25 |
| von Zeit zu Zeit | 49 | 18 |
| nach und nach | 42 | 11 |
| hie und da | 39 | 11 |
| hin und wieder | 30 | 9 |
| Tag und Nacht | 27 | 18 |
| Arm in Arm | 26 | 9 |
| nach wie vor | 25 | 12 |
| rechts und links | 24 | 10 |
| links und rechts | 20 | 13 |
| hier und da | 18 | 8 |

| | | |
|----------------------|----|----|
| mehr oder weniger | 18 | 11 |
| Art und Weise | 16 | 7 |
| auf und nieder | 16 | 9 |
| durch und durch | 16 | 11 |
| mehr und mehr | 15 | 14 |
| da und dort | 14 | 9 |
| Tag für Tag | 14 | 8 |
| drauf und dran | 13 | 5 |
| kreuz und quer | 13 | 7 |
| von Tag zu Tag | 13 | 11 |
| weit und breit | 13 | 8 |
| an und für sich | 12 | 4 |
| dann und wann | 12 | 8 |
| ein für allemal | 11 | 6 |
| Schritt und Tritt | 11 | 9 |
| wieder und wieder | 11 | 7 |
| einzig und allein | 10 | 5 |
| kurz und gut | 10 | 8 |
| von oben bis unten | 10 | 7 |
| über und über | 9 | 8 |
| von Kopf bis Fuß | 9 | 5 |
| Wort für Wort | 9 | 8 |
| alles in allem | 8 | 6 |
| an Ort und Stelle | 8 | 7 |
| auf und davon | 8 | 6 |
| Hand in Hand | 8 | 7 |
| hier und dort | 8 | 5 |
| nie und nimmer | 8 | 4 |
| oben und unten | 8 | 8 |
| Schritt für Schritt | 8 | 5 |
| weiter und weiter | 8 | 4 |
| Fleisch und Blut | 7 | 4 |
| früher oder später | 7 | 4 |
| Hand zu Hand | 7 | 5 |
| Katz und Maus | 7 | 4 |
| so oder so | 7 | 7 |
| Augen und Ohren | 6 | 5 |
| von oben nach unten | 6 | 4 |
| doppelt und dreifach | 5 | 4 |
| fix und fertig | 5 | 5 |
| Himmel und Erde | 5 | 4 |

| | | |
|-----------------------|---|---|
| Leben und Tod | 5 | 5 |
| rauf und runter | 5 | 3 |
| schwarz auf weiß | 5 | 3 |
| Warum und Wieso | 5 | 5 |
| (über) kurz oder lang | 4 | 3 |
| dies und das | 4 | 4 |
| drunter und drüber | 4 | 4 |
| eh und je | 4 | 3 |
| gut und schön | 4 | 4 |
| Hand aufs Herz | 4 | 2 |
| heiß und kalt | 4 | 4 |
| hin oder her | 4 | 2 |
| je und je | 4 | 1 |
| klipp und klar | 4 | 4 |
| Leib und Seele | 4 | 4 |
| Seite an Seite | 4 | 3 |
| Stunde um Stunde | 4 | 4 |
| tief und fest | 4 | 2 |
| Tod und Leben | 4 | 2 |
| von Jahr zu Jahr | 4 | 4 |
| Wange an Wange | 4 | 4 |
| (durch) Mark und Bein | 3 | 3 |
| A und O | 3 | 2 |
| allem und jedem | 3 | 3 |
| Anfang und Ende | 3 | 2 |
| Angst und Tod | 3 | 2 |
| bergauf, bergab | 3 | 1 |
| dieser oder jener | 3 | 3 |
| für immer und ewig | 3 | 2 |
| Glück und Liebe | 3 | 3 |
| groß und breit | 3 | 2 |
| grün und blau | 3 | 3 |
| Grund und Boden | 3 | 3 |
| gut und gern | 3 | 2 |
| Händen und Füßen | 3 | 2 |
| hier und jetzt | 3 | 2 |
| hin und zurück | 3 | 2 |
| ja und amen | 3 | 3 |
| Kopf und Kragen | 3 | 2 |
| laut und deutlich | 3 | 2 |
| Liebe und Verständnis | 3 | 2 |

| | | |
|-------------------------|---|---|
| Mensch und Tier | 3 | 3 |
| Mord und Totschlag | 3 | 2 |
| nichts und niemanden | 3 | 3 |
| ruhig und gelassen | 3 | 3 |
| Seite um Seite | 3 | 2 |
| Sinn und Zweck | 3 | 3 |
| stehen und liegen | 3 | 3 |
| still und leer | 3 | 3 |
| suchen und finden | 3 | 2 |
| Tag um Tag | 3 | 2 |
| tun und lassen | 3 | 3 |
| von Ort zu Ort | 3 | 2 |
| vorn und hinten | 3 | 2 |
| Zeit und Raum | 3 | 3 |
| allem und allem | 2 | 2 |
| alles und nichts | 2 | 1 |
| alt und verbraucht | 2 | 1 |
| auf Gedeih und Verderb | 2 | 1 |
| außer Rand und Band | 2 | 2 |
| bei Nacht und Nebel | 2 | 2 |
| Blatt um Blatt | 2 | 1 |
| blind und hilflos | 2 | 2 |
| da und da | 2 | 2 |
| dann und dann | 2 | 2 |
| dicht und rund | 2 | 2 |
| Dichter und Denker | 2 | 2 |
| dies und jenes | 2 | 2 |
| drum und dran | 2 | 2 |
| Ecken und Enden | 2 | 2 |
| Ehre und Ruhm | 2 | 2 |
| ein Herz und eine Seele | 2 | 2 |
| Einnahmen und Ausgaben | 2 | 2 |
| Freude und Stolz | 2 | 2 |
| Frieden und Ruh | 2 | 1 |
| gesucht und gefunden | 2 | 2 |
| Glanz und Finsternis | 2 | 1 |
| Gold und Silber | 2 | 2 |
| Gott und die Welt | 2 | 2 |
| groß und schwer | 2 | 2 |
| groß und stark | 2 | 2 |
| halb und halb | 2 | 2 |

| | | |
|--------------------------|---|---|
| hart und grausam | 2 | 2 |
| Haus und Hof | 2 | 2 |
| heil und gesund | 2 | 2 |
| Herr und Meister | 2 | 2 |
| Himmel und Meer | 2 | 1 |
| hinauf und hinab | 2 | 2 |
| Hopfen und Malz | 2 | 2 |
| immer und immer | 2 | 8 |
| in Reih und Glied | 2 | 2 |
| in Samt und Seide | 2 | 2 |
| ja und nein | 2 | 2 |
| klar und deutlich | 2 | 2 |
| klar und verständlich | 2 | 2 |
| kurz und klein | 2 | 2 |
| lang und breit | 2 | 2 |
| laut und trotzig | 2 | 2 |
| Leib an Leib | 2 | 2 |
| leib und wert | 2 | 2 |
| leicht und frei | 2 | 2 |
| Liebe und Güte | 2 | 2 |
| liebe und haß | 2 | 2 |
| Liebe und Leidenschaft | 2 | 2 |
| Mann für Mann | 2 | 2 |
| Mann und Weib | 2 | 2 |
| mehr tot als lebendig | 2 | 2 |
| nichts und wieder nichts | 2 | 2 |
| Papier und Bleistift | 2 | 1 |
| Rat und Tat | 2 | 2 |
| Rauch und Qualm | 2 | 1 |
| recht und billig | 2 | 2 |
| reich und berühmt | 2 | 1 |
| Ruhe und Ordnung | 2 | 2 |
| Ruhe und Würde | 2 | 2 |
| ruhig und überlegt | 2 | 1 |
| Schlag auf Schlag | 2 | 2 |
| schlecht und recht | 2 | 2 |
| schlicht und einfach | 2 | 2 |
| schön und jung | 2 | 2 |
| schön und schrecklich | 2 | 2 |
| schön und still | 2 | 2 |
| Schutt und Asche | 2 | 2 |

| | | |
|-------------------------|---|---|
| Sitten und Gebräuche | 2 | 2 |
| Staat und Kirche | 2 | 2 |
| steif und fest | 2 | 2 |
| still und groß | 2 | 2 |
| still und verlassen | 2 | 2 |
| Stück für Stück | 2 | 2 |
| Stück um Stück | 2 | 2 |
| Stumpf und Stiel | 2 | 1 |
| tot und begraben | 2 | 1 |
| vom Anfang bis zum Ende | 2 | 2 |
| von früh bis spät | 2 | 2 |
| von Haus zu Haus | 2 | 2 |
| von Stufe zu Stufe | 2 | 2 |
| vor und hinter | 2 | 2 |
| vor und nach | 2 | 1 |
| vorwärts und rückwärts | 2 | 2 |
| wie und wann | 2 | 2 |
| wie und wo | 2 | 2 |
| Wind und Regen | 2 | 2 |
| Wind und Wetter | 2 | 2 |
| Würde und Strenge | 2 | 1 |
| Zaudern und Zagen | 2 | 1 |
| Zeit und Gelegenheit | 2 | 2 |
| Ziel und Ende | 2 | 2 |
| Zug um Zug | 2 | 2 |

III Euskarazko binomioen zerrenda

| Binomioak | Maiztasuna | Banaketa |
|--------------------|------------|----------|
| behin eta berriz | 188 | 32 |
| behin eta berriro | 145 | 26 |
| ia-ia | 177 | 22 |
| isil-isilik | 105 | 24 |
| poliki-poliki | 93 | 28 |
| argi eta garbi | 89 | 25 |
| batera eta bestera | 86 | 20 |
| gora eta behera | 86 | 24 |
| adi-adi | 84 | 20 |

| | | |
|---------------------|----|----|
| gorri-gorri | 62 | 23 |
| begira begira | 62 | 15 |
| zur eta lur | 59 | 18 |
| nola edo hala | 56 | 22 |
| dar dar | 49 | 13 |
| bat edo beste | 47 | 23 |
| zabal-zabal | 47 | 15 |
| hara eta hona | 37 | 10 |
| zer edo zer | 36 | 11 |
| zabal-zabalik | 36 | 17 |
| dir-dir | 36 | 13 |
| gau eta egun | 35 | 23 |
| harri eta zur | 27 | 16 |
| kosta ahala kosta | 26 | 17 |
| inoiz edo behin | 20 | 7 |
| noiz edo noiz | 20 | 10 |
| han eta hemen | 19 | 8 |
| noiz edo behin | 17 | 7 |
| orduak eta orduak | 17 | 10 |
| asko eta asko | 16 | 10 |
| non edo han | 16 | 8 |
| estu eta larri | 14 | 12 |
| hainbat eta hainbat | 14 | 9 |
| jo eta ke | 14 | 8 |
| diz diz (egiten) | 13 | 6 |
| jira eta bira | 12 | 8 |
| atzera eta aurrera | 11 | 5 |
| aurrera eta atzera | 11 | 8 |
| jo eta jo | 11 | 7 |
| joan eta etorri | 11 | 5 |
| luze eta zabal | 11 | 7 |
| milaka eta milaka | 10 | 4 |
| jaun eta jabe | 9 | 8 |
| su eta gar | 9 | 4 |
| barre eta barre | 8 | 5 |
| batera edo bestera | 8 | 7 |
| bihar edo etzi | 8 | 6 |
| korrika eta presaka | 8 | 6 |
| zain eta zain | 8 | 5 |
| arian-arian | 7 | 3 |
| arren eta arren | 7 | 3 |

| | | |
|---------------------------|---|---|
| besoak eta hankak | 7 | 4 |
| bila eta bila | 7 | 5 |
| hitz eta pitz | 7 | 4 |
| honetaz eta hartaz | 7 | 3 |
| igo eta jaitsi | 7 | 5 |
| arratoiak eta xaguak | 6 | 1 |
| edan eta edan | 6 | 4 |
| eman eta eman | 6 | 4 |
| halako eta halako | 6 | 3 |
| harantz eta honantz | 6 | 1 |
| hau edo bestea | 6 | 4 |
| lehenago edo geroago | 6 | 3 |
| nahi eta ezin | 6 | 4 |
| nahikoa eta gehiegi | 6 | 5 |
| pentsatu eta pentsatu | 6 | 5 |
| bat eta bera | 5 | 3 |
| bata eta bestea | 5 | 5 |
| direnak eta ez direnak | 5 | 4 |
| erre eta erre | 5 | 2 |
| goi eta behe | 5 | 2 |
| korrika eta korrika | 5 | 1 |
| lan eta lan | 5 | 3 |
| sartu eta atera | 5 | 4 |
| zu eta ni | 5 | 4 |
| batean edo bestean | 4 | 4 |
| behin eta betiko | 4 | 3 |
| egun eta gau | 4 | 4 |
| esan eta egin | 4 | 3 |
| esan eta esan | 4 | 4 |
| handik eta hemendik | 4 | 4 |
| hau edo hura | 4 | 3 |
| hau eta bestea | 4 | 3 |
| hil ala biziko | 4 | 2 |
| hil edo biziko | 4 | 3 |
| hona eta hara | 4 | 4 |
| ibili eta ibili | 4 | 2 |
| ikusi eta entzun | 4 | 4 |
| jira eta buelta | 4 | 2 |
| lehen eta azken | 4 | 3 |
| negar eta negar | 4 | 3 |
| apurtzeak eta eraikitzeak | 3 | 1 |

| | | |
|-------------------------|---|---|
| arrazoia ala nahia | 3 | 1 |
| aurrean eta atzean | 3 | 2 |
| aurrera eta aurrera | 3 | 3 |
| aurretik eta atzetik | 3 | 3 |
| bat edo batek | 3 | 2 |
| batekin eta bestearekin | 3 | 2 |
| begira eta begira | 3 | 2 |
| begiratu eta begiratu | 3 | 2 |
| biak ala biak | 3 | 2 |
| egunak eta gauak | 3 | 3 |
| entzun eta ikusi | 3 | 2 |
| esan edo egin | 3 | 2 |
| ezker eta eskuin | 3 | 2 |
| eztulka eta arnasestuka | 3 | 2 |
| gehiago eta gehiago | 3 | 3 |
| gehiegi edo gutxiegi | 3 | 3 |
| goitik eta behetik | 3 | 3 |
| hainbeste eta hainbeste | 3 | 2 |
| hazi eta hazi | 3 | 3 |
| hemen eta orain | 3 | 2 |
| hezur eta mami | 3 | 1 |
| hil ala bizikoa | 3 | 3 |
| hitza eta pitza | 3 | 1 |
| hola eta hola | 3 | 1 |
| honi edo hari | 3 | 3 |
| idatzi eta idatzi | 3 | 1 |
| jan eta jan | 3 | 3 |
| lehenago edo beranduago | 3 | 2 |
| non edo non | 3 | 3 |
| nor edo zer | 3 | 3 |
| segi eta segi | 3 | 2 |
| sor eta lor | 3 | 3 |
| tira eta tira | 3 | 3 |
| zergatik eta zertarako | 3 | 3 |
| zuri eta beltzeko | 3 | 2 |
| aldeko eta kontrako | 2 | 2 |
| alfa eta omega | 2 | 1 |
| altua eta zabala | 2 | 2 |
| antsia eta intziri | 2 | 1 |
| arratoiak eta saguak | 2 | 1 |
| arratsaldeko eta gaueko | 2 | 1 |

| | | |
|---------------------------|---|---|
| arretatsu eta zuhurra | 2 | 2 |
| arropak eta adatsak | 2 | 1 |
| asko edo gutxi | 2 | 2 |
| askok eta askok | 2 | 2 |
| astuna eta aspergarria | 2 | 2 |
| atsegina eta polita | 2 | 2 |
| aurrerantz eta atzerantz | 2 | 2 |
| aurretik eta ondoren | 2 | 1 |
| bakarra eta berbera | 2 | 2 |
| bake eta zoriona | 2 | 1 |
| barreka eta oihuka | 2 | 1 |
| basoetan eta mendietan | 2 | 2 |
| batak eta besteak | 2 | 2 |
| batek edo bestek | 2 | 2 |
| bateko eta besteko | 2 | 2 |
| baten edo besteren | 2 | 1 |
| baten eta bestearen | 2 | 2 |
| begi eta belarrietatik | 2 | 2 |
| begira eta usainka | 2 | 2 |
| behin edo behin | 2 | 2 |
| beltz eta zabal | 2 | 2 |
| beso eta hankak | 2 | 1 |
| beti eta beti | 2 | 2 |
| biguna eta zurbila | 2 | 2 |
| birra eta birra | 2 | 2 |
| bizkorrago eta bizkorrago | 2 | 1 |
| edan eta lo | 2 | 2 |
| ederra eta gaztea | 2 | 2 |
| egiaz eta benetan | 2 | 1 |
| erraza eta zaila | 2 | 2 |
| esku eta hanka | 2 | 1 |
| eskuineko eta ezkerreko | 2 | 2 |
| eskuinera eta ezkerrera | 2 | 1 |
| ezkerrera ala eskuinera | 2 | 2 |
| galde eta galde | 2 | 2 |
| gehiago edo gutxiago | 2 | 2 |
| gora eta gora | 2 | 2 |
| gorantz ala beherantz | 2 | 2 |
| gorputza eta arima | 2 | 2 |
| gris eta leuna | 2 | 2 |
| gutun eta inprimaki | 2 | 2 |

| | | |
|---------------------------|---|---|
| gutziz eta erabat | 2 | 1 |
| hala edo hola | 2 | 1 |
| halako edo bestelako | 2 | 1 |
| handi eta astun | 2 | 2 |
| handi eta txikiak | 2 | 2 |
| handi eta txikiakin | 2 | 1 |
| haserre eta triste | 2 | 2 |
| hasi eta amaitu | 2 | 2 |
| hau eta beste | 2 | 2 |
| hola edo hala | 2 | 1 |
| honen eta haren | 2 | 2 |
| honetan eta bestean | 2 | 2 |
| indarra eta kemena | 2 | 2 |
| irakurri eta irakurri | 2 | 2 |
| isuri eta isuri | 2 | 2 |
| jauzika eta itzulipurdika | 2 | 2 |
| joateko eta joateko | 2 | 2 |
| kafea eta pattarra | 2 | 2 |
| kafea eta zigarroak | 2 | 2 |
| lasai eta alai | 2 | 2 |
| lasai eta pozik | 2 | 2 |
| luzaro eta bihotzez | 2 | 2 |
| maitatu eta errespetatu | 2 | 2 |
| maitatu eta ohoratu | 2 | 2 |
| mesedez eta faborez | 2 | 1 |
| milioika eta milioika | 2 | 2 |
| muino eta zelai | 2 | 2 |
| nabigatu eta nabigatu | 2 | 1 |
| nahi eta nahi | 2 | 2 |
| nahi eta nahiez | 2 | 1 |
| negar eta zotin | 2 | 1 |
| noizik eta behin | 2 | 2 |
| nor edo nor | 2 | 2 |
| nork eta berak | 2 | 2 |
| ogia eta ardoa | 2 | 2 |
| oihuka eta garrasika | 2 | 2 |
| on eta eder | 2 | 2 |
| on eta zuzena | 2 | 2 |
| onak eta gaiztoak | 2 | 2 |
| onerako edo txarrerako | 2 | 1 |
| oraingo eta betiko | 2 | 2 |

| | | |
|--------------------------|---|---|
| ordutan eta ordutan | 2 | 2 |
| ozen eta zoli | 2 | 2 |
| ozenki eta garbi | 2 | 1 |
| papera eta arkatza | 2 | 2 |
| pentsatu eta sentitu | 2 | 2 |
| poeta eta pentsalari | 2 | 2 |
| portaera eta ohitura | 2 | 2 |
| pozik eta alai | 2 | 2 |
| pozik eta zoriontsu | 2 | 2 |
| sakon eta ondo | 2 | 2 |
| saltoka eta brinkoka | 2 | 2 |
| sarrera eta irteera | 2 | 1 |
| sartzen eta ateratzen | 2 | 2 |
| sasta eta sasta | 2 | 1 |
| segurtasun eta ausardia | 2 | 2 |
| serio eta hotz | 2 | 2 |
| serio eta pentsakor | 2 | 2 |
| tinko eta zintzo | 2 | 1 |
| tiraka eta bultzaka | 2 | 1 |
| triste eta pentsati | 2 | 2 |
| txiki eta handiak | 2 | 2 |
| xaxa eta xaxa | 2 | 2 |
| zahar eta on | 2 | 2 |
| zaharra eta berria | 2 | 1 |
| zalaparta eta iskanbila | 2 | 2 |
| zapaldurik eta bahiturik | 2 | 1 |
| zapatak eta frakak | 2 | 2 |
| zergatik eta nola | 2 | 2 |
| zerua eta lurra | 2 | 2 |
| zeruaren eta lurraren | 2 | 2 |
| zirt edo zart | 2 | 1 |
| zorigaitza eta zoriona | 2 | 1 |
| zoriona eta maitasuna | 2 | 2 |
| zoriontsu eta pozik | 2 | 2 |
| zuk eta nik | 2 | 2 |
| zutik edo eserita | 2 | 2 |
| zuzen eta bidezkoa | 2 | 2 |
| zuzen eta egoki | 2 | 1 |
| zuzen eta irmo | 2 | 2 |
